# PERTSONA NAGUSIEI EMANDAKO ARRETA EAEN: ETXEKO LAGUNTZA, EGUNEKO ZENTROAK ETA EGOITZA-ZENTROAK



ARARTEKO

# PERTSONA NAGUSIEI EMANDAKO ARRETA EAEn: ETXEKO LAGUNTZA, EGUNEKO ZENTROAK ETA EGOITZA-ZENTROAK

Arartekoak Legebiltzarrari egindako txosten berezia

2004ko abendua

**SIIS - Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa**

**Arartekoaren aldetik:**
Iñigo Lamarca, Mercedes Agúndez, Julia Hernández, Faustino López de Foronda, Valentín Martínez-Acha, Amaia Pagola eta María José Aguirre.

© ARARTEKO

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Azaleko irudia: EPS, S.L.
Itzulpena: Hori Hori, S.A.L.
Paper ekologikoa.
L.G: VI-78/05

ARARTEKO

# PERTSONA NAGUSIEI EMANDAKO ARRETA EAEn: ETXEKO LAGUNTZA, EGUNEKO ZENTROAK ETA EGOITZA-ZENTROAK

# AURKIBIDE OROKORRA

**AURKEZPENA** ........ 31

**I. KAPITULUA. XEDEA, EREMUA ETA METODOLOGIA**

1. Xedea ........ 37
2. Eremua ........ 37
3. Txostenaren egitura ........ 39
4. Metodologia ........ 39

**II. KAPITULUA. AZTERKETA JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA**

1. Indarreko arautegia ........ 43
   1.1. Oinarrizko esparru juridikoa: Gizarte zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legea ........ 43
   1.2. Mugapen funtzionala: uztailaren 30eko 155/2001 Dekretua, gizarte zerbitzuen alorreko eginkizunak zehazteari buruzkoa ........ 45
   1.3. Erregistro, baimen, ikuskapen eta homologazioaren arloan dagoen indarreko arautegia ........ 48
      1.3.1. Administrazioaren baimena ........ 49
      1.3.2. Erregistroa ........ 50
      1.3.3. Homologazioa ........ 51
      1.3.4. Ikuskapena ........ 52
   1.4. Zerbitzuen eta zentroen betekizun materialak, funtzionalak eta langileriaren betekizunen arautegia, horiek baimena izan dezaten ........ 56
      1.4.1. Egoitza-zentroen arautegia ........ 56
      1.4.2. Pertsona nagusientzat diren eguneko zentroen arautegia ........ 63
      1.4.3. Izaera esperimentaleko zerbitzuak ........ 66
2. Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubideak eta betebeharrak ........ 66
   2.1. Eskubideak aitortzea: funtsezko aurrerapen bat arautegian ........ 66
   2.2. Gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen eta profesionalen eskubideen eta betebeharren gutuna ........ 66

2.3. Eskubideak eta betebeharrak berariazko zerbitzuak arautzen dituzten arautegietan ... 78
2.4. Eskubideak eta betebeharrak barne-erregimeneko erregelamenduetan 80
2.5. Erabiltzaileen eskubideak egoitza-praktikan ... 80

3. Adineko pertsonei zuzendutako arreta-zerbitzuak jasotzeko bideak ... 81
3.1. Etxeko laguntza zerbitzua jasotzea ... 81
3.2. Egoitzazko zerbitzuetan sartzea ... 83
3.3. Eguneko zentroetan sartzea ... 90
3.4. Plazen kudeaketa: itxaron-zerrendak ... 90
3.5. Erabiltzaileen baimena ... 92

4. Zerbitzuen finantzaketa ... 93
4.1. Administrazioen erantzukizun finantzarioa gizarte zerbitzuen alorreko egitekoak zehazten dituen uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuaren ondoren ... 93
4.2. ELZren finantziazioa ... 93
4.2.1. Administrazioaren parte-hartze ekonomikoa ... 93
4.2.2. Erabiltzaileen diru-ekarpena ... 97
4.3. Egoitzazko zerbitzuen finantziazioa ... 98
4.3.1. Administrazioaren parte-hartze ekonomikoa ... 98
4.3.1.1. Administrazioaren parte-hartze ekonomikoa plaza propioen, itunduen eta hitzartuen finantziazioan ... 98
4.3.1.2. Foru Administrazioaren ekarpena sare publikotik kanpo dauden egoitzen finantziazioan: egoitzetan sartzeko banakako laguntzak ... 100
4.3.2. Erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa ... 102
4.3.3. Ordainketa-bermeak: zorra onartzea ... 104
4.4. Eguneko zentroen finantziazioa ... 105
4.4.1. Administrazioaren parte-hartze ekonomikoa ... 105
4.4.2. Erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa ... 105

5. Esparru soziosanitarioa sortzeko aurrerapausoak ... 106

## III. KAPITULUA. MENDEKOTASUN ARAZOAK DITUZTEN ADINEKOENTZAKO GIZARTE ZERBITZUEN BILAKAERA EAEN: 1991-2001

1. Aurkezpena ... 111

2. Mendekotasun arazoak dituzten adineko biztanleen multzoaren bilakaera ... 113

3. Banakako laguntzarako zerbitzuen bilakaera ... 121
3.1. Egoitzazko zerbitzuak ... 121
3.1.1. Zentroak eta plazak ... 121

3.1.2. Estaldurak eta eraginkortasun horizontalak ... 129
3.1.3. Zerbitzuen kostua eta finantzabideak ... 136
3.1.4. Langileak ... 148
3.2. Eguneko zentroak ... 154
3.2.1. Zentroak eta plazak ... 154
3.2.2. Estaldurak eta eraginkortasun horizontalak ... 158
3.2.3. Zerbitzuen kostua eta finantzabideak ... 159
3.2.4. Langileak ... 166
3.3. Etxeko laguntzarako zerbitzuak ... 168
3.3.1. Estaldurak, intentsitateak eta mailak ... 168
3.3.2. Zerbitzuen kostua eta finantzabideak ... 184
3.3.3. Langileak ... 190

**IV. KAPITULUA. EGOITZA-ZENTROEN ETA EGUNEKO ZENTROEN EZAUGARRIAK**

1. Azterlanaren metodologia eta oinarrizko erreferentziako datuen eguneratzea ... 195
1.1. Azterlanaren metodologia ... 195
1.2. Erreferentziako plazak eta estaldurak 2003an: oinarrizko emaitzen eguneratzea ... 199

2. Egoitzazko zerbitzuak ... 200
2.1. Egoitzazko zerbitzuak, mendeko adinekoei laguntzera bideratutako baliabideak ... 201
2.2. Egoitzazko zerbitzuen oinarrizko ezaugarriak ... 205
2.2.1. Zentro motak ... 206
2.2.2. Zentroen titulartasuna ... 208
2.2.3. Egoitzen tamaina ... 210
2.3. Egoitzak eta etxebizitza komunitarioak ... 211
2.3.1. Zentroen ezaugarri fisikoak ... 211
2.3.1.1. Kokapena ... 211
2.3.1.2. Zentroaren irisgarritasuna ... 212
2.3.1.3. Gune eta instalazio komunak zentroaren barruan ... 213
2.3.1.4. Suteak ekiditeko eta itzaltzeko neurriak ... 213
2.3.1.5. Egoitzen banaketa unitateka edo moduluka ... 219
2.3.1.6. Zentroetako logelak ... 222
2.3.1.7. Bainugelak ... 223
2.3.2. Zentroen betekizun funtzionalak ... 225
2.3.2.1. Egoitzazko zerbitzuak erregulatzen dituen arautegian ezarritako betekizun funtzionalak ... 226
2.3.2.2. Egoitzazko zerbitzuak erregulatzen dituen arautegian ezartzen ez diren funtzionamendu jarraibideak ... 229

2.3.3. Egoiliarrentzako funtzionamendu jarraibideak ... 232
2.3.3.1. Mendeko erabiltzaileei oheratzen eta jaikitzen laguntzeko ordutegia ... 232
2.3.3.2 Elikadura: janariak, dieta bereziak eta hamaiketakoa eta askaria hautatzeko aukera ... 233
2.3.3.3. Higiene beharretarako arreta ... 235
2.3.3.4. Segurtasuneko laguntza teknikoak: egunez eta gauez eusteko elementuak ... 240
2.3.3.5. Bisitaldiak ... 243
2.3.3.6. Zentrotik irtetea ... 244
2.3.4. Arretarako eta esku-hartzerako programak ... 248
2.3.4.1. Osasun-izaerako zerbitzuak eta programak ... 248
2.3.4.2. Zentroek sustatutako kultur, kirol, aisialdi eta erlijio jarduerak, programak eta zerbitzuak ... 253
2.3.5. Erabiltzaileen parte-hartzea zentroetako jarduеretan eta funtzionamenduan ... 258
2.3.5.1. Erabiltzaileen parte-hartzea etxeko lanetan ... 258
2.3.5.2. Erabiltzaileen parte-hartzea jarduera-programatan ... 260
2.3.5.3. Erabiltzaileen parte-hartzea zentroaren funtzionamenduan ... 262
2.3.6. Zentroetan lan egiten duten langileak ... 263
2.3.6.1. Legez exijitzen diren langileriak eta langileria errealak: emaitza orokorrak ... 264
2.3.6.2. Langileriaren egitura eta zuzeneko arretako langileria 268
2.3.6.3. Zuzeneko arretako langileak, legez eskatzen diren ratioak eta erreferentziazko ratioak ... 269
2.3.6.4. Langileentzako jarduketa-arauak ... 276
2.3.6.5. Langileen funtzioen antolaketa: erabiltzaileekiko harremanak ... 280
2.3.6.6. Taldekako lana antolatzea eta langileen bilkurak ... 282
2.3.6.7. Langileriarekin zerikusia duten beste gaiak ... 283
2.4. Babespeko apartamentuak ... 286
2.4.1. Oinarrizko ezaugarriak ... 286
2.4.2. Kokapena ... 289
2.4.3. Gizarte zerbitzuetako beste zentro baten mende egotea ... 291
2.4.4. Irisgarritasuna ... 291
2.4.5. Azalera ... 292
2.4.6. Suteen aurkako babes-neurriak ... 293
2.4.7. Zonalde komunak ... 293
2.4.8. Zerbitzuak ... 293
2.4.9. Langileria ... 294

3. Eguneko zentroak ... 294
3.1. Ezaugarri orokorrak ... 295
3.1.1. Titulartasuna ... 295
3.1.2. Zentroen tamaina ... 296
3.1.3. Okupazio tasa ... 297
3.1.4. Erabiltzaileen ezgaitasun maila ... 297
3.2. Ezaugarri fisikoak ... 301
3.2.1. Zentroen kokapena ... 301
3.2.2. Garraioa ... 305
3.2.3. Zentrora sartzeko erraztasuna ... 306
3.2.4. Alde eta instalazio komunak ... 307
3.2.5. Komunak ... 309
3.2.6. Zentroaren banaketa unitatetan edo modulutan ... 312
3.2.7. Suteen aurkako babes-neurriak ... 313
3.3. Beharkizun funtzionalak ... 318
3.4. Funtzionamendua ... 321
3.4.1. Zentroko egonaldia, ordutegiak eta hura irekitzen den egunak . 321
3.4.2. Zentroa erabiltzaileen beharrizanei egokitzea ... 328
3.4.3. Elikadura ... 329
3.4.4. Higiene beharrizanetarako arreta ... 330
3.4.5. Segurtasuneko laguntza teknikoak: euste fisikoak aplikatzea ... 332
3.5. Zentroek arretarako eta esku-harmenerako eskaini eta ematen dituzten programak ... 334
3.5.1. Eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretarako arreta ... 334
3.5.2. Osasun zerbitzuak ... 334
3.5.3. Kultur, gizarte eta jolas programak eta jarduerak ... 336
3.6. Erabiltzaileen parte-hartzea ... 337
3.6.1. Erabiltzaileek jardueretan duten parte-hartzea ... 337
3.6.2. Erabiltzaileek zentroa antolatzen duten parte-hartzea ... 339
3.7. Zentroetako langileak ... 340
3.7.1. Langileri zuzkidura ... 340
3.7.2. Langileriaren antolakuntza ... 343
3.7.3. Jarduteko protokoloak, jardunbide egokiko eskuliburuak eta erregistroak ... 345
3.7.4. Langileekin zerikusia duten beste gai batzuk ... 347

## V. KAPITULUA. LABURPENA

I. HELBURUA, ESPARRUA ETA METODOLOGIA ... 353

II. AZTERKETA JURIDIKO ADMINISTRATIBOA ... 354
1. Indarreko arautegia ... 354
2. Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubideak eta betebeharrak ... 358

3. Adineko pertsonei zuzendutako arreta-zerbitzuak jasotzeko bideak ........ 359
4. Zerbitzuen finantziazioa ........ 361
5. Esparru soziosanitarioa sortzeko aurrerapausoak ........ 366

III. MENDEKOTASUN ARAZOAK DITUZTEN ADINEKOENTZAKO GIZARTE ZERBITZUEN BILAKAERA EAEN: 1991-2001 ........ 367
1. Populazioaren bilakaera ........ 367
2. Zerbitzuen bilakaera ........ 368

IV. EGOITZA-ZENTROEN ETA EGUNEKO ZENTROEN EZAUGARRIAK ........ 377
1. Egoitzazko zerbitzuen aldaketak 2001-2003 aldian ........ 377
2. Egoitzazko zerbitzuetan laguntza ematen zaien eta ezgaitasuna duten adineko biztanleak ........ 377
3. Egoitzazko zerbitzuen tipologia ........ 378
4. Egoitzak eta etxebizitza komunitarioak ........ 380
4.1. Zentroen ezaugarri materialak ........ 380
4.2. Betebehar funtzionalak ........ 382
4.3. Zentroetan bizi direnentzako jarraibideak ........ 383
4.4. Zentroek eskaintzen dituzten zerbitzuak eta programak ........ 384
4.5. Erabiltzaileen parte-hartzea zentroko jardueretan ........ 385
4.6. Zentroetako langileak ........ 386
5. Babespeko apartamentuak ........ 388
6. Eguneko zentroak ........ 390

**VI. KAPITULUA. BALORAZIOA ETA GOMENDIOAK**

I. Esparru juridiko-administratiboari buruzko balorazioa eta gomendioak ........ 397
A. Arautegi-esparrua ........ 397
B. Egoiliarren eskubideak ........ 404
C. Zuzeneko arretako zerbitzuak eskuratzea: ELZ, eguneko zentroak eta egoitzazko zerbitzuak ........ 405
D. Zerbitzuen finantziazioa ........ 407
E. Sektore publikoaren eta sektore pribatuaren arteko erlazioak ........ 409

II. Adinekoentzako zuzeneko arretako gizarte zerbitzuek azken hamarkadan izan duten bilakaerari buruzko balorazioa eta gomendioak ........ 410
A. Informazio sistema ........ 410
B. Arreta zerbitzu guztiei lotutako kontuak ........ 412
C. Etxeko laguntza-zerbitzu publikoak ........ 416
D. Egoitzazko zerbitzuak ........ 418
E. Eguneko zentroak ........ 421

III. Egoitzazko zerbitzuen eta eguneko zentroen gaineko balorazioa eta gomendioak ..... 423
A. Irizpide orokorrak ..... 423
B. Zentroen ezaugarri orokorrak ..... 423
C. Egoitzak eta etxebizitzak ..... 425
D. Eguneko zentroak ..... 433

**ERANSKINAK** ..... 439

**ARAUDIEN AIPAMENA** ..... 489

**BIBLIOGRAFIA** ..... 495

# GRAFIKO ETA TAULEN AURKIBIDEA

1. grafikoa: Biztanleria osoa: bilakaera eta aurreikuspenak ... 114
2. grafikoa: Hirurogeita bost urte bete dituzten biztanleak: bilakaera eta aurreikuspenak ... 115
3. grafikoa: Hirurogeita hamabost urte bete dituzten biztanleak: bilakaera eta aurreikuspenak ... 116
4. grafikoa: 65 urte bete dituzten pertsonen proportzioa kopuru osoaren aldean (zahartze tasa) ... 116
5. grafikoa: 75 urte bete dituzten pertsonak, kopuru osoaren aldean ... 116
6. grafikoa: Ezgaitasunaren eragina 65 eta 74 urte arteko pertsonengan ... 117
7. grafikoa: Ezgaitasunaren eragina 75 urte edo gehiago dituzten pertsonengan ... 117
8. grafikoa: Hirurogeita bost urte edo gehiago izan eta autonomia arazoak dituzten biztanleak: bilakaera eta aurreikuspenak ... 118
9. grafikoa: Adinekoen kopuruaren eta ezgaitasuna duten adinekoen kopuruaren bilakaera eta horri buruzko aurreikuspenak (zenbaki adierazleak, oinarria 1991=100) ... 119
10. grafikoa: Ezgaitasunaren prebalentzia, aztertu diren lurraldeetan eta urteetan (%) ... 120
11. grafikoa: Egoitza-zentroen kopuruaren bilakaera ... 121
12. grafikoa: Zentro publikoen eta pribatuen kopuruen bilakaera ... 122
13. grafikoa: Adinekoen egoitzetako plazen kopuruaren bilakaera ... 122
14. grafikoa: Bi lagun baino gehiagorentzat diren logeletako plazen kopuruaren bilakaera ... 123
15. grafikoa: Plazen kopuruaren bilakaera eskualdez eskualde ... 124
16. grafikoa: Plazen kopuruaren bilakaera udalerriaren tamainaren arabera ... 125
17. grafikoa: Egoitzetako plaza publikoen eta pribatuen bilakaera ... 126
18. grafikoa: Zentroen batez besteko tamainaren bilakaera ... 126
19. grafikoa: Zentro publikoen eta pribatuen batez besteko tamainaren bilakaera ... 127
20. grafikoa: Plazen kopuruaren bilakaera zentro motaren arabera ... 128
21. grafikoa: Ehun erabiltzaile baino gehiago har ditzaketen egoitzen portzentajearen eta halako zentroetako plazen portzentajearen bilakaera ... 128
22. grafikoa: Egoitzazko zerbitzuen estalduraren bilakaera ... 129
23. grafikoa: Egoitzazko zerbitzuen estalduraren bilakaera eskualdeka ... 130

24. grafikoa: Egoitzazko zerbitzuen estalduraren bilakaera udalerrien tamainaren arabera ..... 131
25. grafikoa: Egoitzazko zerbitzuen estaldura hainbat tokitan ..... 132
26. grafikoa: Itxaron zerrendan izena emandako pertsonen kopuruaren bilakaera ..... 133
27. grafikoa: Laurogeita bost urte edo gehiago dituzten egoiliarren proportzioaren bilakaera ..... 133
28. grafikoa: Euren kabuz moldatzen diren erabiltzaileen eta ezgaituen kopuruen bilakaera ..... 134
29. grafikoa: Ezgaitasuna duten erabiltzaileen proportzioaren bilakaera baliabide motaren arabera ..... 135
30. grafikoa: Egoitzen eraginkortasun horizontalaren bilakaera ..... 135
31. grafikoa: Egoitzazko zerbitzuetan egindako gastuaren bilakaera (euroak, milioiak) ..... 136
32. grafikoa: Egoitzazko zerbitzuetan adineko bakoitzeko egiten den gastuaren bilakaera ..... 137
33. grafikoa: Plaza bakoitzeko kostuaren bilakaera (2001eko euro konstanteak, milaka) ..... 137
34. grafikoa: Plaza bakoitzeko kostuaren bilakaera zentroaren izaeraren arabera (euro korronteak) ..... 138
35. grafikoa: Egoitzazko zerbitzuetarako erabiltzen den BPG zatia (milakoak) 138
36. grafikoa: Egoitzazko zerbitzuetan egindako gastu publikoaren bilakaera ..... 139
37. grafikoa: Egoitzazko zerbitzuak finantzatzeko gastu publikoaren bilakaera (gastu osoaren %) ..... 140
38. grafikoa: Egoitzazko zerbitzuetan adineko bakoitzeko egiten den gastu publikoaren bilakaera ..... 141
39. grafikoa: Egoitzako plaza bakoitzeko ekarpen publikoaren bilakaera ..... 141
40. grafikoa: Plaza bakoitzeko ekarpen publikoaren bilakaera zentroen izaeraren arabera (euro korronteak) ..... 142
41. grafikoa: Egoitzazko zerbitzuak finantzatzeko gastu publikoaren proportzioaren bilakaera ..... 142
42. grafikoa: Aldundiek eta udalek gizarte zerbitzuetan egindako gastuaren bilakaera (euro korronteak) ..... 143
43. grafikoa: Udalek egoitzei egindako ekarpen erlatiboaren bilakaera (1991, gastu likidatuak, eta 2000, gastuen aurrekontuak) ..... 144
44. grafikoa: Aldundiek egoitzei egindako ekarpen erlatiboaren bilakaera (1991, gastu likidatuak, eta 2000, gastuen aurrekontuak) ..... 144
45. grafikoa: Erabiltzaileek egoitzazko zerbitzuak mantentzeko egindako ekarpenen bilakaera ..... 145
46. grafikoa: Egoitzen finantziazioan kuotek duten partearen bilakaera ..... 145
47. grafikoa: Erabiltzaileek ordaindutako batez besteko kuotaren bilakaera ..... 146
48. grafikoa: Batez besteko kuoten bilakaera zentro publikoetan eta pribatuetan (euro korronteak) ..... 147
49. grafikoa: Batez besteko kuotek batez besteko erretiro-pentsioetan egiten duten portzentajearen bilakaera ..... 147

50. grafikoa: a) Egoitzetako langileen banaketa lurraldeen artean (Guztira 6.237) ... 148
b) Langileen proportzioa zerbitzu sektoreari dagokionez (%) ... 148
51. grafikoa: a) Zentroek eurek kontrataturiko langileen proportzioa ... 149
b) Zentro pribatuetako langileen proportzioa ... 149
52. grafikoa: Langileen kopurua ehun plazako, zentro motaren arabera eta lurraldez lurralde ... 150
53. grafikoa: Zentroak berak kontrataturiko langileen bilakaera egoitzetan ... 151
54. grafikoa: Zentroek kontrataturiko osasun-langileen bilakaera ... 151
55. grafikoa: Osasun-langileen kopuruaren bilakaera ehun plazako ... 152
56. grafikoa: Plantillako langile bakoitzeko batez besteko langileria-gastuaren bilakaera ... 153
57. grafikoa: Batez besteko langileria-gastuen bilakaera zentro publiko eta pribatuetan (euro korronteak) ... 153
58. grafikoa: Eguneko zentroen kopuruaren bilakaera ... 154
59. grafikoa: Eguneko zentro publikoen eta pribatuen bilakaera ... 155
60. grafikoa: Eguneko zentroetako plazen kopuruaren bilakaera ... 156
61. grafikoa: Plazen kopuruaren bilakaera eguneko zentro publikoetan eta pribatuetan ... 157
62. grafikoa: Eguneko zentroen batez besteko tamainaren bilakaera ... 157
63. grafikoa: Eguneko zentroen estalduraren eta eraginkortasun horizontalaren bilakaera (65 urte edo gehiago dituzten mila biztanleko) ... 158
64. grafikoa: Eguneko zentroen estaldura eskualdez eskualde (2001ean, 65 urte edo gehiago dituzten mila biztanleko) ... 159
65. grafikoa: Eguneko zentroetan egindako gastuaren bilakaera (euro korronteak) ... 160
66. grafikoa: Pertsona eta plaza bakoitzeko gastuaren bilakaera (euro korronteak) ... 160
67. grafikoa: Eguneko zentroetarako erabiltzen den BPG zatia (milakoak) ... 161
68. grafikoa: Eguneko zentroak finantzatzeko gastu publikoaren bilakaera ... 161
69. grafikoa: Pertsonako eta plazako gastu publikoaren bilakaera (euro korronteak) ... 162
70. grafikoa: Plaza bakoitzeko ekarpen publikoaren bilakaera zentroen izaeraren arabera (euro korronteak) ... 163
71. grafikoa: Gastu publikotik eguneko zentroak finantzatzeko erabiltzen den zatiaren bilakaera ... 163
72. grafikoa: Aldundiek eta udalek eguneko zentroetan egindako gastuaren bilakaera (euro korronteak) ... 164
73. grafikoa: Udalek eta aldundiek eguneko zentroetarako egindako ekarpen erlatiboen bilakaera (1991, gastu likidatuak, eta 2000, gastuen aurrekontua) (milakoak) ... 164
74. grafikoa: Kuoten bidezko sarreren bilakaera eguneko zentroetan ... 165
75. grafikoa: Eguneko zentroetako erabiltzaileen ekarpenen arteko aldeak (2001) ... 166

76. grafikoa: a) Eguneko zentroetako langileen banaketa lurraldeen artean (452) ..... 167
b) Eguneko zentroetako langileen proportzioa zerbitzu sektorean (%000) ..... 167
77. grafikoa: Langileen banaketa, lan-harremanaren eta zentroaren izaeraren arabera (2001) ..... 167
78. grafikoa: Ehun plazako zenbat langile dauden, zentroaren izaeraren arabera ..... 168
79. grafikoa: ELZak erabiltzen dituzten adinekoen kopuruaren bilakaera lurraldez lurralde ..... 169
80. grafikoa: ELZak erabiltzen dituzten adinekoen kopuruaren bilakaera eskualdeka ..... 170
81. grafikoa: ELZak erabiltzen dituzten adinekoen kopuruaren bilakaera, udalerriaren tamainaren arabera ..... 171
82. grafikoa: ELZen estalduraren bilakaera lurralde historikoetan ..... 171
83. grafikoa: ELZen estalduraren bilakaera eskualdez eskualde ..... 172
84. grafikoa: ELZen estalduraren bilakaera, udalerrien tamainaren arabera ..... 173
85. grafikoa: ELZen laguntzaren estaldura hainbat tokitan ..... 174
86. grafikoa: Laguntza-orduen kopuruaren bilakaera lurraldez lurralde ..... 175
87. grafikoa: Laguntza-orduen kopuruaren bilakaera eskualdez eskualde ..... 176
88. grafikoa: Laguntza-orduen kopuruaren bilakaera udalerrien tamainaren arabera ..... 177
89. grafikoa: Zerbitzuaren intentsitatearen bilakaera lurralde historikoetan ..... 177
90. grafikoa: Zerbitzuaren intentsitatearen bilakaera eskualdez eskualde ..... 178
91. grafikoa: Zerbitzuaren intentsitatearen bilakaera udalerrien tamainaren arabera ..... 179
92. grafikoa: ELZen intentsitatea autonomi erkidegoetan ..... 180
93. grafikoa: ELZen mailaren bilakaera lurralde historikoetan ..... 181
94. grafikoa: ELZen bilakaera eskualdez eskualde ..... 182
95. grafikoa: ELZen mailaren bilakaera udalerrien tamainaren arabera ..... 183
96. grafikoa: ELZen maila autonomi erkidegoetan ..... 184
97. grafikoa: Erabiltzaileen ekarpenaren portzentajearen bilakaera ..... 185
98. grafikoa: ELZak mantentzeko gastu publikoaren bilakaera ..... 185
99. grafikoa: ELZetan egindako gastu publikoaren bilakaera BPGaren aldean ..... 186
100. grafikoa: ELZetarako gastu publikoaren bilakaera eskualdez eskualde (2001eko euro konstanteak) ..... 187
101. grafikoa: ELZetarako gastu publikoaren bilakaera udalerrien tamainaren arabera (2001eko euro konstanteak) ..... 188
102. grafikoa: ELZetan adineko pertsona bakoitzeko egiten den gastu publikoaren bilakaera ..... 188
103. grafikoa: ELZetan egindako gastu publikoaren bilakaera eskualdez eskualde (euro konstanteak, 2001) ..... 189
104. grafikoa: ELZetan adineko pertsona bakoitzeko egindako gastu publikoaren bilakaera udalerrien tamainaren arabera (euro konstanteak, 2001) ..... 190

105. grafikoa: a) ELZetako langileen bilakaera ... 191
b) ELZetako langileen proportzioa zerbitzu sektorean (2001, milakoak) ... 191
106. grafikoa: a) Langile bakoitzari dagokion erabiltzaile kopuruaren bilakaera ... 191
b) Langile bakoitzak urtean egin beharreko ordu kopuruaren bilakaera ... 191
107. grafikoa: Egoitzetako eta eguneko zentroetako plazen estaldura, lurraldez lurralde (2001eko abendua, 2003ko ekaina) ... 200
108. grafikoa: Egoiliarrak, ezgaitasun maila eta jatorria kontuan hartuta ... 202
109. grafikoa: Egoiliarrak lurraldez lurralde eta ezgaitasun mailaren arabera ... 205
110. grafikoa: Egoitza-zentroak eta plazak baliabide motako ... 206
111. grafikoa: Egoitzetako plazak lurraldez lurralde eta zentro motako ... 207
112. grafikoa: Egoitzetan okupatuta dauden plazen proportzioa zentro motako ... 207
113. grafikoa: Erdialdeetan kokatutako egoitzazko zerbitzuen portzentajea zentro mota eta tamaina kontuan hartuta ... 212
114. grafikoa: Arreta moduluak dituzten egoitzen proportzioa ... 219
115. grafikoa: Ezgaitasun larria duten egoiliarren artean laguntza-moduluetan arreta jaso dutenen proportzioa ... 220
116. grafikoa: Arazo kognitiboak dituzten egoiliarren artean modulu geriatrikoetan laguntza jasotzen dutenen proportzioa ... 221
117. grafikoa: Egoitzazko zerbitzuetan dauden banakako logelen proportzioa ... 222
118. grafikoa: Egoitzazko zerbitzuetan bainugela duten logelen proportzioa ... 224
119. grafikoa: Segurtasun elementuak dituzten bainugela irisgarrien proportzioa 225
120. grafikoa: Egoitzetan eta etxebizitza komunitarioetan bainuak edo dutxak astean duen batez besteko maiztasuna ... 237
121. grafikoa: Bisita-ordu finkorik ez duten zentroetako plazen proportzioa ... 244
122. grafikoa: Orientazio arazoak dituzten egoiliarren proportzioa ... 247
123. grafikoa: Zaintzako mediku-zerbitzua duten zentroetako plazen proportzioa 249
124. grafikoa: Narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen proportzioa laguntza psikologikoko zerbitzua duten egoitzetan ... 250
125. grafikoa: Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen proportzioa errehabilitazio-zerbitzua duten egoitzetan ... 252
126. grafikoa: Ezgaitasun larria duten eta/edo narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen proportzioa terapia okupazionaleko zerbitzua duten egoitzetan ... 253
127. grafikoa: Jarduera-programak eskaintzen dituzten zentroetako plazen proportzioa ... 254
128. grafikoa: Boluntarioek sustatutako jarduerak dituzten zentroetako plazak ... 258
129. grafikoa: Jarduera-programetan parte hartzen duten erabiltzaileen proportzioa ... 260
130. grafikoa: Partaidetza-organoak dituzten zentroetako plazen proportzioa ... 263
131. grafikoa: Langileen proportzioa erabiltzaileko ... 265
132. grafikoa: Zuzeneko arretako langileen proportzioa erabiltzaile bakoitzeko ... 269
133. grafikoa: Eguneko zentroen lurralde historikokako estaldura 2003an (65 urtetik gorako mila pertsonako plazak) ... 295

134. grafikoa: Eguneko zentroen batez besteko tamaina ..... 296
135. grafikoa: Eguneko zentroen plaza beteen proportzioa ..... 297
136. grafikoa: Eguneko zentroetako erabiltzaileak, ezgaitasun maila eta izaeraren arabera ..... 298
137. grafikoa: Irisgarritasun edo segurtasun elementuren bat ez duten eguneko zentroak ..... 308
138. grafikoa: Arreta moduluak dituzten eguneko zentroak ..... 313
139. grafikoa: Eskatutako beharkizun funtzionalak betetzen dituzten zentroetako plazen proportzioa ..... 318
140. grafikoa: Gomendatutako arauak ezarrita dauden zentroetako plazen proportzioa ..... 320
141. grafikoa: Partaidetza-organoak dituzten eguneko zentroak ..... 340
142. grafikoa: Erreferentziazko edo jardunbide egokiei buruzko eskuliburuaren eskuragarritasuna ..... 346
143. grafikoa: Banakako laguntzako programa eta zerbitzuen estaldura: Erkidegoa, lurraldeak, eskualdeak eta udalerrien estratuak ..... 370
144. grafikoa: Banakako laguntzako programa eta zerbitzuen estaldura: bost mila biztanle baino gehiago dituzten udalerriak ..... 371
145. grafikoa: Gastu osoaren bilakaera lurraldeka ..... 373
146. grafikoa: Gastatutako BPGren proportzioaren bilakaera ..... 373
147. grafikoa: Adineko pertsona bakoitzeko egindako gastuaren bilakaera ..... 374
148. grafikoa: Erabiltzaile/plaza bakoitzeko gastuaren bilakaera ..... 374
149. grafikoa: Lurralde bakoitzeko gastu publikoaren bilakaera ..... 375
150. grafikoa: Finantzatutako gastuaren ehunekoaren bilakaera ..... 375
151. grafikoa: Erabiltzaile edo plaza bakoitzeko ekarpen pribatuaren bilakaera ..... 376

1. taula: Postaz bidalitako galdera-sorten erantzunak egoitza motaren arabera 196
2. taula: Igorritako galdera-sortetan emandako erantzunak, baliabide mota, lurraldea, titulartasuna eta zentroaren tamaina kontuan hartuta 198
3. taula: Egoitzetako eta eguneko zentroetako plazen bilakaera lurraldez lurralde (2001eko abendua-2003ko ekaina) 199
4. taula: Ezgaitasunaren eragina egoitzetako biztanlerian 204
5. taula: Egoitza-zentroak eta plazak lurraldez lurralde 206
6. taula: Egoiliarrak zentro mota eta ezgaitasun maila kontuan hartuta 207
7. taula: Egoitza-zentroak eta plazak titulartasuna eta erakunde kudeatzailea kontuan hartuta 208
8. taula: Egoitza-zentroak eta plazak titulartasunaren arabera 209
9. taula: Egoitzetako plazak zentro motaren eta titulartasunaren arabera 209
10. taula: Egoitzetako plazak lurraldez lurralde eta titulartasunaren arabera 209
11. taula: Egoiliarrak titulartasuna eta ezgaitasun maila kontuan hartuta 210
12. taula: Egoitzetako plazak lurraldez lurralde eta tamainaren arabera 210
13. taula: Egoitzak eta plazak titulartasuna eta tamaina kontuan hartuta 211
14. taula: Egoiliarren ezgaitasun maila egoitza motaren arabera 211
15. taula: Suteen arloan baldintza funtzionalak betetzen dituzten egoitzak: zentroen eta plazen proportzioa 215
16. taula: Suteen aurkako instalazioak eta ekipamenduak dituzten egoitzak: zentroen eta plazen proportzioa 216
17. taula: Suteen aurkako instalazioak eta ekipamendua dituzten etxebizitza komunitarioak 216
18. taula: Larrialdi plana erakunde ezberdinetara bidali duten egoitzak 218
19. taula: Egoitzazko zerbitzuetan dauden banakako logelen proportzioa 222
20. taula: Egoitzazko zerbitzuetan bainugela duten logelen proportzioa 223
21. taula: Legez ezarritako betekizun funtzionalak betetzen ez dituzten zentroak eta plazak 226
22. taula: Legez ezarritako betekizun funtzionaletako bat betetzen ez duten zentroak eta plazak: lurralde historikoa 227
23. taula: Ezarritako betekizun funtzionaletakoren bat betetzen ez duten zentroak eta plazak: titulartasuna 228
24. taula: Legez ezarritako betekizun funtzionaletakoren bat betetzen ez duten zentroak eta plazak: zentro mota eta tamaina 228

25. taula: Legez ezarritako betekizun funtzionaletakoren bat betetzen ez duten zentroak eta plazak: ezgaitasun larria duten erabiltzaileen portzentajea ..... 229
26. taula: Gomendatutako jarraibideak betetzen ez dituzten zentroak eta plazak ..... 229
27. taula: Gomendatutako jarraibideak ezarrita ez dituzten zentroak eta plazak: lurraldea, titulartasuna, tamaina eta ezgaitasun larria duten egoiliarren proportzioa ..... 230
28. taula: Gorabehera jakin batzuk idatziz erregistratzen dituzten zentroak eta plazak ..... 231
29. taula: Gorabehera jakin batzuk idatziz erregistratzen dituzten zentroak eta plazak: lurralde historikoa, titulartasuna, mota eta tamaina, ezgaitasun larria duten erabiltzaileen portzentajea eta narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen portzentajea ..... 231
30. taula: Jaikitzen eta oheratzen laguntzeko ordutegia eta zentro mota ..... 232
31. taula: Jaikitzeko eta oheratzeko ordutegia eta laguntza behar duten erabiltzaileak ..... 233
32. taula: Menua hautatzeko aukera zentro mota aintzat hartuta ..... 234
33. taula: Menua hautatzeko aukera, plazetan neurtua, zentroaren titulartasuna eta tamaina kontuan hartuta ..... 234
34. taula: Zentroetako plazen proportzioa menua hautatzeko aukeraren arabera ..... 235
35. taula: Asteko bainuak zentro motaren arabera ..... 236
36. taula: Inkontinentziarekin erlazionatutako zenbait alderdiren nagusitasuna 239
37. taula: Komunera laguntzen zaien aldiak ..... 240
38. taula: Troxa aldaketak gauez ..... 240
39. taula: Segurtasuneko laguntza teknikoez baliatzen diren erabiltzaileak ..... 241
40. taula: Segurtasuneko laguntzez baliatzen diren zentroen proportzioa ..... 241
41. taula: Euspen elementu mota nagusiak ..... 242
42. taula: Euspen mota nagusiez baliatzen diren erabiltzaileak ..... 242
43. taula: Zentroetako bisita-orduak ..... 243
44. taula: Zentroetatik irtetea ..... 246
45. taula: Zentroak eta plazak irteeren ikuskapen jarraibideen arabera ..... 247
46. taula: Mediku-kontsulta zentroetan ..... 248
47. taula: Zaintzako medikua zentroetan ..... 249
48. taula: Laguntza psikologikoa zentroetan ..... 250
49. taula: Errehabilitazio-zerbitzua zentroetan ..... 251
50. taula: Terapia okupazionaleko zerbitzuak zentroetan ..... 252
51. taula: Jarduera-programa zentroetan ..... 254
52. taula: Jarduera-programak eskaintzen dituzten zentroetako plazen proportzioa: lurraldeen arabera ..... 255
53. taula: Jarduera-programak eskaintzen dituzten zentroetako plazen proportzioa: titulartasunaren arabera ..... 256
54. taula: Jarduera-programak eskaintzen dituzten zentroetako plazen proportzioa: zentro motaren eta tamainaren arabera ..... 256

55. taula: Jarduera-programak eskaintzen dituzten zentroetako plazen proportzioa: ezgaitasun larria duten erabiltzaileen proportzioa ... 257
56. taula: Boluntarioen parte-hartzea zentroetan ... 257
57. taula: Erabiltzaileen parte-hartzea etxeko lan mota desberdinetan ... 259
58. taula: Etxeko lanetan parte hartzen duten egoiliarrak dituzten zentroen proportzioa ... 259
59. taula: Jarduera-programetan parte hartzen duten erabiltzaileen proportzioa ... 261
60. taula: Partaidetza-organoak zentroetan ... 262
61. taula: Langileria-ratioak zentroetan ... 266
62. taula: Benetako langileria eta legez eskatzen den langileria zentroetan ... 267
63. taula: Zuzendaritzako, administrazioko eta zerbitzuetako langileak zentroetan ... 268
64. taula: Zuzeneko arretako langile-kopuru erreala egoitzetan, eta egoitzetan legez eskatu daitekeen langile-kopurua ... 270
65. taula: Zuzeneko arretako langile-kopuru erreala, gutxieneko langile-kopurua eta langile-kopuru desiragarria ... 272
66. taula: Zuzeneko arretako langilerien egokitasuna egoitzetan (zentroak) ... 273
67. taula: Zuzeneko arretako langilerien egokitasuna egoitzetan (plazak) ... 274
68. taula: Egoitzan bertan dagoen zuzeneko arretako langile bakoitzeko egoiliarrak ... 275
69. taula: Langileentzako jarduketa-arauak idatziz: lurralde historikoaren arabera ... 276
70. taula: Langileentzako jarduketa-arauak idatziz: titulartasunaren arabera . 277
71. taula: Langileentzako jarduketa-arauak idatziz: zentro motaren eta tamainaren arabera ... 278
72. taula: Langileentzako jarduketa-arauak idatziz: ezgaitasun larria duten erabiltzaileen portzentajearen arabera ... 278
73. taula: Langileentzako jarduketa-arauak idatziz: narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen portzentajearen arabera ... 279
74. taula: Zuzeneko arretako langileei erabiltzaile-multzo egonkorrak esleitzea 280
75. taula: Erabiltzaileei erreferentziazko profesional bat esleitzea ... 281
76. taula: Profesional anitzeko taldeak zentroetan ... 282
77. taula: Zuzeneko arretako langileen arteko aldizkako bilkurak egiten dituzten zentroak ... 283
78. taula: Hitzartutako urteko orduak zentroetan ... 284
79. taula: Zerbitzu mota desberdinak langile propioekin bakarrik eskaintzen dituzten egoitza-zentroen proportzioa ... 284
80. taula: Laneko absentismoa zentroetan ... 285
81. taula: Hasierako trebakuntzaren eskaintza zentroetan ... 285
82. taula: Trebakuntza iraunkorreko eskaintza zentroetan ... 286
83. taula: Plazak babespeko apartamentuetan ... 287
84. taula: Babespeko apartamentuen edukiera: zentro moten arabera ... 288
85. taula: Babespeko apartamentuen gaitasuna: lurralde historikoaren arabera 288
86. taula: Babespeko apartamentuen edukiera: titulartasunaren arabera ... 289

87. taula: Babespeko apartamentuen kokapena ..... 290
88. taula: Babespeko apartamentuen harremana gizarte zerbitzuen beste zentroekin ..... 291
89. taula: Kanpoaldeari dagozkion irisgarritasun-eskakizunak betetzen dituzten babespeko apartamentuak ..... 291
90. taula: Barrualdeari dagozkion irisgarritasun-eskakizunak betetzen dituzten babespeko apartamentuak ..... 292
91. taula: Azalerari dagozkion arauzko eskakizunen betetze maila babespeko apartamentu-multzoetan ..... 292
92. taula: Egoiliar bakoitzeko batez besteko azalera ≥ 3 pertsonako apartamentuak dituzten zentroetan ..... 292
93. taula: Suteen aurkako instalazioak eta ekipamendua dituzten babespeko apartamentuak ..... 293
94. taula: Zonalde komunak babespeko apartamentuetan ..... 293
95. taula: Babespeko etxebizitzek eskaintzen dituzten zerbitzu nagusiak ..... 294
96. taula: Babespeko apartamentuetako langileak ..... 294
97. taula: Eguneko zentroak titulartasunaren arabera eta lurraldeka ..... 296
98. taula: Eguneko zentroetako plazak titulartasunaren arabera eta lurraldeka 296
99. taula: Eguneko zentroetako plazak tamainaren arabera eta lurraldeka ..... 297
100. taula: Ezgaitasunaren eragina eguneko zentroen erabiltzaileen artean ..... 299
101. taula: Eguneko zentroen erabiltzaileak eta ezgaitasun maila ..... 300
102. taula: Zentroen sailkapena, Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen eta narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen proportzioaren arabera ..... 301
103. taula: Eguneko zentroen kokapena ..... 302
104. taula: Eguneko zentroen kokapena, erabiltzaileen egoitzari begirakoa ..... 303
105. taula: Eguneko zentroen kokapena, erabiltzailearen egoitzaren udalerriari begira ..... 304
106. taula: Zentroen kokapena eraikinik konpartitzen duten ala ez duten kontu ..... 304
107. taula: Zentroetako garraio eskuragarritasuna eta erabiltzaileak eguneko zentrora joan eta etortzen diren modua ..... 305
108. taula: Zentroek antolaturiko garraiabideen ibilbideen iraupena ..... 306
109. taula: Eguneko zentroetara kanpotik sartzeko erraztasuna ..... 307
110. taula: Eguneko zentroetako jantokien neurria ..... 307
111. taula: Eguneko zentroetako komun geriatrikoen eskuragarritasuna ..... 309
112. taula: Eguneko zentroetako bainugeletara eta komunetara sartzeko erraztasuna ..... 311
113. taula: Ezein bainugelak edo komunek lokatze-mekanismodun txingetik ez duen zentroak ..... 312
114. taula: Suteen kontrako instalazioak eta ekipamenduak dituzten eguneko zentroak ..... 314
115. taula: Suteen kontra babesteko honako neurri hauen aplikazio maila ..... 315
116. taula: Suteen kontrako larrialdi plana duten zentroak ..... 316
117. taula: Larrialdi plana dagokien erakundeei bidaltzen dieten zentroak ..... 317

118. taula: Eskatutako beharkizun funtzionalak betetzen dituzten eguneko-zentroak eta plazak ..... 319
119. taula: Eguneko zentroetan arautegia ezagutarazteko modua ..... 320
120. taula: Gomendatutako arauak ezarririk dauden zentroak eta plazak ..... 321
121. taula: Zentroetan egoten den orduak. Batezbestekoa, gehienekoa eta gutxienekoa ..... 322
122. taula: Zentroetan egoten den orduak ..... 322
123. taula: Eguneko zentrora heltzeko ordutegia (zentroen %) ..... 323
124. taula: Eguneko zentrotik irteteko ordutegia (zentroen %) ..... 323
125. taula: Zentroa ordutegi partzialean eta malguan erabiltzea ..... 325
126. taula: Eguneko zentroak asteburuetan egun irekitzea ..... 327
127. taula: Zentroak asteburuetan erabili beharra ..... 328
128. taula: Zentroen arduradunen iritzia, eguneko zentroa egungo erabiltzaileei egokitzeari buruzkoa ..... 329
129. taula: Menua aukeratzeko aukera (zentroen %) ..... 330
130. taula: Bazkariaz gain motaren bateko otamena eskaintzen duten eguneko zentroak ..... 330
131. taula: Inkontinentziaren nagusitasuna eguneko zentroetan ..... 331
132. taula: Eguneko zentroetan zerbitzura laguntzen dieten eta troxaz aldatzen dituzten aldi kopurua ..... 331
133. taula: Langileen laguntzaz eguneko zentroan bainatzen diren erabiltzaileak 332
134. taula: Euste fisikoen erabilpena ..... 333
135. taula: Erabiltzaileren bati euspen-elementuak aplikatzen dizkioten eta protokolorik erabiltzen ez duten edo prozedurari buruzko informazioa erregistratzen ez duten zentroak ..... 333
136. taula: Zerbitzu sanitario eta parasanitarioen zuzkidura ..... 335
137. taula: Errehabilitazio eta psikologi arretako zerbitzuak ..... 336
138. taula: Eguneroko edo asteroko jarduerak ..... 337
139. taula: Jarduera programak eskaintzen dituen zentro proportzioa ..... 337
140. taula: Eguneko zentroen eta egoitzazko zerbitzuen erabiltzaileek mahaia atondu eta biltzeko lanean hartzen duten partea ..... 338
141. taula: Asteroko jardueren programetan parte hartzen duten erabiltzaileen proportzioa ..... 338
142. taula: Gutxi-askotan antolatzen diren jardueren programetan parte hartzen duen erabiltzaile proportzioa ..... 339
143. taula: Zuzeneko arretako benetako langileri plantilla eta legez eskatutako plantilla eguneko zentroetan ..... 341
144. taula: Zuzeneko arretako langileen ratioa legez ezarririkoa baino txikiagoa den zentroak eta plazak ..... 342
145. taula: Zuzeneko arretako langileen presentzia (langileko erabiltzaileen batezbestekoa) eguneko hainbat unetan ..... 343
146. taula: Baloratzeko eta banaka planifikatzeko talderik ez duten zentroak eta plazak ..... 344
147. taula: Eguneko zentroak baloratzeko taldeetan parte hartzen duten profesionalak ..... 344

148. taula: Erabiltzaileei erreferentziazko profesionala esleitzen zaien zentroak . 345
149. taula: Langileriarentzako jarduketa arau idatziak egotea ........ 346
150. taula: Gertakari edo ezbehar jakin batzuk idatziz erregistratzen diren zentroak ........ 347
151. taula: Zentroetako hitzarmeneko urteko orduak ........ 347
152. taula: Beraien baitako langileekin bakarrik hainbat zerbitzu mota eskaintzen dituzten eguneko zentroen proportzioa ........ 348
153. taula: Lanera ez agertzea eguneko zentroetan ........ 349
154. taula: Eguneko zentroetako prestakuntza eskaintza ........ 349
155. taula: Oinarrizko demografia-datuak ........ 367
156. taula: Babesaren estaldura ........ 368
157. taula: Laguntzaren egitura 2001ean (% horizontalak) ........ 372
158. taula: Laguntza-zerbitzuetako langileak 2001ean ........ 377
159. taula: Egoitzazko zerbitzuen eskaintza lurraldeka ........ 377

# AURKEZPENA

Euskal Autonomi Erkidegoko adineko pertsonei arreta egitea eta euren eskubideak babestea izan da, betidanik, Arartekoaren helburu nagusietako bat.

Zeregin zehatz hau betetzeko asmoz, besteak beste, aparteko txosten bi egin genituen, bata EAEko adinekoen egoitzei buruzkoa, eta bestea egoitzaz kanpoko laguntzari buruzkoa. Txosten horiek Eusko Legebiltzarrari aurkeztu zitzaizkion bere unean.

Hamar urte luze igaro dira txosten horietako lehena egiten hasi ginenetik. Denbora honetan aldaketa garrantzitsuak gertatu dira, ez bakarrik demografikoak, baita legezkoak ere. Gainera, botere publikoek eta gizarteak, oro har, konpromiso handiagoa bereganatu dute adineko pertsona hauen premiei arreta emateko.

Aurreko jarduneko Arartekoak, Mercedes Agúndezek, txosten honen hasiera bultzatu zuen. Azken urte honetan egin da txostena, eta ohore handia da niretzat orain haren aurkezpena egitea.

Txosten zehatz eta zorrotza da. Bertan, adineko pertsonen beharrizanei botere publikoek eman beharreko erantzunaren alderdi ugari aztertzen dira, hiru zerbitzu mota sailkatuz: etxeko laguntza sistemak, eguneko zentroak eta egoitzak.

Esparru juridiko eta administratiboa sakonean aztertzen da, eta bereziki azpimarratzen dira erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak.

Adineko pertsonei arreta egiteko gizarte zerbitzuek azken urteotan (1991-2001) izandako bilakaera ere aztertzen da.

Bukatzeko, balorazioaren eta gomendioen kapitulua aipatu gura ditut. Erakunde honek aurkeztu dituen aparteko txosten guztietan bezala, honetan ere gomendio zerrenda bat sartu da, botere publikoei zuzendurik, horrela aztertu ditugun zerbitzuak hobetu daitezkeelakoan. Txosten honetan, metodologia-berrikuntza txiki bat egin da: gomendioekin batera, bakoitzaren balorazioa eta zergatia azaltzen dira.

Eskerrak eman nahi dizkiet txosten hau eratzen zuzenean edo zeharka parte hartu dutenei, batez ere, SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroari, oinarrizko ikerketa egin baitu, bai eta administrazio publikoetako arduradun eta teknikariei, beharrezko agiriak gure esku jarri dituztelako. Horrez gain, egoitza zerbitzuak eta eguneko zerbitzuak ematen dituzten erakunde publiko eta pribatuei ere eskerrak eman nahi dizkiet, ahalegin handia

egin dutelako galdeketa luzeak eta zehatzak erantzuteko edota ikerketa burutu duen taldearen bisita onartzeko ere.

Halaber, Arartekoaren erakundetik bertatik txosten hau burutzea ahalbideratu duten pertsonei eskerrak ematen dizkiet.

Txosten hau arretaz irakurtzera animatzen zaituztet, beraren bidez EAEko adineko pertsonen bizimodua hobetu daitekeelako.

Vitoria-Gasteizen, 2004ko abenduaren 21ean

***Iñigo Lamarca Iturbe***
**ARARTEKOA**

# I. KAPITULUA

## XEDEA, EREMUA ETA METODOLOGIA

## 1. **XEDEA**

Txosten honek Euskal Autonomia Erkidegoan pertsona nagusiei eman zaien zuzeneko arreta-sistemari buruzko zerbitzu nagusiak aztertzen ditu -etxeko laguntza zerbitzua, egoitza-zerbitzuak eta eguneko zentroak-, sektorearen egungo egoera ezagutzeko helburuarekin; izan ere, azken urteotan atzemandako hazkunde garrantzitsuaren ondorioz, egoitzako arretaren formula berriak agertu dira, eguneko zentroak modu nabarian garatu dira eta erakunde pribatuen esku hartzea gehitu egin da.

Xede hori aintzat hartuta, alde batetik, aplikatzeko moduko esparru juridikoa, zerbitzuak eskuratzeko sistema eta finantzaketa-eredua deskribatu ditu; eta, beste aldetik, sektore horren garapena alderatu du 1991 eta 2001. urteen bitartean Gizarte zerbitzuen Estatistikak, Erakundeek eta Zentroek emandako informazioarekin; ondorenez, antzeman daiteke zer nolako ezberdintasuna dagoen gaur egungo egoeraren eta Arartekoak Legebiltzarrari gai honen txostena eratu zion unearen artean –*Euskal Autonomia Erkidegoan dauden adinekoen etxeei buruzko aparteko txostena eta Euskal Autonomia Erkidegoan adinekoei ematen ez zaion egoitza-laguntzari buruzko aparteko txostena* -. Txostena, hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden egoitza-zentroek eta eguneko zentroek dituzten ezaugarri material eta horien funtzionamenduaren ezaugarri garrantzitsuenen azterketarekin osatzen da.

Guzti horren helburua da, sistemaren alderdi positiboak azpimarratzeari kalterik egin gabe, beraren gabeziak edo disfuntzioak antzeman eta etorkizunean jarduteko jarraibideak proposatzea.

## 2. **EREMUA**

Pertsona nagusien babes eta arreta sistemaren hedapena dela medio, ezinbestekoa egin du Euskal Autonomia Erkidegoan talde horri egindako zuzeneko arretari buruzko zerbitzurik nagusienak aztertzea, sarearen osagairik garrantzitsuenak eratuz gero ere, sistemaren multzoa nolakoa den jakitea ezinezkoa dela ohartu arren. Aurrekoa baztertu gabe, txosten honen esparruan aztertu diren zerbitzuak honako hauek dira:

- **Etxeko laguntza zerbitzua** ulertuko da arretaren sare publikotik emandako etxeko laguntza dela soil-soilik. Gai horretan, azterketa egingo da, alde batetik, zerbitzuak dituen eskumen eta finantzaketa esparruan, gaur egun antzematen diren arazoetan eragina izanik, eta, bestetik, estalduraren datuetan eta datu ekonomikoetan.

- **Eguneko zentroak,** urriaren 17ko 202/2000 Dekretuan definitutakoaren arabera, laguntza behar duten pertsona nagusientzako zentroei buruzkoaren arabera:

  *"…laguntza behar duten pertsona nagusientzako eguneko zentrotzat hartuko da, horren izendapena edo titulartasuna edozein izanda ere, eguneroko bizitzan jarduerak gauzatzeko laguntza behar duten 60 urtetik gorako 5 pertsona baino gehiagori eguneko zerbitzua banaka ematen duen establezimendu oro, bai eta egoera pertsonalen eta gizarteko egoeren ondorioz, aipatu talde horretan barneratzeko modukoak diren haiei ere, betiere helburu horretara zuzendutako gune eta instalazioetan, horri dagokion langileria eta jarduteko programekin batera ".*

  Arauan gertatu bezala, eremu horretatik kanpo geratzen dira zaharren etxeak eta klubak.

- **Egoitza-zerbitzuak,** martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuan definitutakoaren arabera, adinekoentzako gizarteko egoitza-zerbitzuei buruzkoaren arabera, hiru zentro-mota ezberdinduta:

  ***"Tutoretzapeko apartamentua**: etxebizitza autonomoen multzoa, lagun bakarrekoarentzat eta bikoteentzat, zerbitzu kolektiboak izanik, eta aukeraz erabil daitezkeenak; horrez gain, ostatu ematen diete pertsona nagusiei, euren egoera psiko nahiz fisikoagatik edo gizarte-egoeragatik bestelako baliabideak behar ez dituztenei.*

  ***Etxebizitza komunitarioa**: Elkarrekin bizitzeko unitatea, gehienez, 14 plaza izango dituena, neurri batean euren kabuz baliatzeko gai diren pertsona nagusientzat zuzenduta, eta familiako giroaren antzeko bizimodua duenentzat.*

  ***Egoitza**: Elkarrekin bizitzeko zentroa, 14 plaza baino gehiago dituena, etxebizitza iraunkor eta komunitario gisa erabil daitekeena, eta horietan, arreta osoa eta etengabea jarriko zaie pertsona nagusiei,nahiz maila altuko ezgaitasuna dutenei arreta jartzeko behar besteko baliabide materialak izango ditu. "*

  Txostenean ez dira aztertzen pentsio bat ordaintzen duten edota apopilotzan dauden lau pertsona nagusi baino gutxiagokoek dituzten egoitzen aukerak, ezta pertsona nagusien familia-harrerari buruzko programetan jazotzen diren egoerak ere.

Azpimarratzekoa da, ikerlanak, orokorrean, zerbitzu horien funtzionamendu osoa barnean hartu arren, laguntza behar duten pertsona nagusiak bereziki hartzen dituela aintzat; izan ere, protagonismo berezia dute, eta, gainera, txosten honek dituen ezaugarriak direla eta, tokiko errealitatearen ikerketa xehea egiteak eragozpenak dakartza, batez ere, laguntza behar ez duten pertsona nagusiei eskainitako zerbitzuetatik bakoitzari aplika dakiokeen udal-arauen ikerlana.

## 3. TXOSTENAREN EGITURA

Txostena lau zatitan egituratzen da:

- Lehenengo zatiak pertsona nagusiei emandako arreta-zerbitzuaren esparru juridiko-administratiboa erakusten du, eta, zerbitzu eta zentroei dagozkien eskumen-arazoak, baimenen inguruko indarreko arautegia, erregistroa, ikuskapena eta homologazioa, erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharrak, zerbitzu desberdinen arauketa, horiek eskuratzea, finantzaketa-eredua, eta, azkenik, gune soziosanitarioan lortutako aurrerakuntzak jorratzen ditu.

- Bigarrenak 1991-2001. urteen bitartean pertsona nagusien biztanleriak eta gizarte-baliabideek esperimentatutako garapenari buruzko informazioa eskaintzen du, horiek ikuspuntu ezberdinetatik aztertuta, hala nola, programen eta zerbitzuen dimentsioa, erakunde sustatzaileen izaera, langileria, gastuak, ekarpen publikoak, kuotak eta estaldurak.

- Hirugarrenak egoitza-zerbitzuen eta eguneko zentroen egoera deskribatzen du, zentroek ekarritako datuak oinarri hartuta, bai eta hautatutako 52 egoitza-zentroetan eta 12 eguneko zentrotan betekizun materialak, funtzionalak eta langileriaren betekizun esanguratsuenak aztertuta ere.

- Azkenik, ondorioen eta gomendioen kapituluan gaur egungo egoeraren balantzea aurkezten da eta jardunaren inguruko zenbait arau proposatu dira, Ararteko Erakundearen ustez, pertsona nagusiei emandako arreta-sisteman eskuratutako hobekuntzak indartzen laguntzeko modukoak izanik; horrez gain, uste da egokitzat jotako aldaketak nahiz berrikuntzak barneratzen ere lagunduko dutela.

## 4. METODOLOGIA

Txostenaren egiturak gomendatzen du, erakusketa argiaren mesederako, metodologia-lerro nagusienak definitzean zatien arteko desberdintasunari eustea.

- Azterketa juridiko-administratiborako aplikatutako metodologia:

  – Agirietan eta arauetan espezializatutako literaturaren azterketa, Europako beste estatuetan pertsona nagusiei ematen zaien arretaren egungo joerei buruzkoa.

  – EAEn indarrean dagoen arautegiaren azterketa, dela autonomikoa dela foru-arautegia.

  – Zerbitzuen eta horren finantzaketaren sare publikora sartzeko prozedurei buruzko foru-agirien ikerlana.

  – Aurrez aurre edota telefonoz egindako elkarrizketak adinekoen zerbitzuen ardura duten teknikariekin, bai eta foru aldundien ikuskapen-zerbitzuetako arduradunekin ere; horrez gain, hiru hiriburuetako udaletan dauden zenbait teknikariekin ere egingo da.

- Pertsona nagusiei emandako arreta-sistemaren aurrerakuntzaren estatistika-azterketak oinarri izan du Gizarte zerbitzuen, Erakundeen eta Zentroen Estatistiketan (ESSEC) 1991 eta 2001. urteen bitartean jasotako datuen arteko alderatze-ikerlanean, batez ere, hamarkada horretan sistemaren oinarrizko aspektuetan izan dituen aldaketak antzeman daitezen. Ikerketarako erabili aldiak mugak izan ditu finkatutako estatistika-datuen ondorioz, baina ez bakarrik landutako baliabideekin zerikusia dituztenak, ezpada baldintza ekonomikoetan, demografikoetan eta lan-baldintzetan ere. Eboluzio-ikerlan hori zuzenean lotzen da 2010. urtean biztanleriaren hazkunde garbi batekin eta 2010. urtean izango diren beharrizanen balioespen batekin; beraz, gizarteak urtearen barruan egin beharreko ahalegina kokatzen ahalbidetzen du aipatu beharrizanetarako arreta egokien estaldura jakin batera iris dadin.

  Erabilitako metodologia III. kapituluan zehatz-mehatz deskribatzen da, gai honi buruzkoa baita.

- Eguneko zentroen eta egoitza-zentroen azterketan aplikatutako metodologia:

  – Lau galdera-sorta ezberdinen eraketa, egoitzetara, etxebizitza komunitarioetara, tutoretzapeko apartamentuetara eta eguneko zentroetara bidalitakoak, hurrenez hurren, eta, Euskal Autonomia Erkidegoko zentro guztietara, horiek foru aldundietan baimena emateko zerbitzu eskudunek ekarritako zentroen zerrendaren arabera. Jakina, zerrendok 2003. urtean funtzionatzen ari ziren zerbitzu eta zentroei dagozkie; horregatik, jasotako informazioak ahalbidetzen du 2001. urtean amaitzen den txostenaren bigarren zatiak barneratutako datuen arteko alderatze-azterketaren ondoriozko errealitatearen ezagutza osatzea.

  – 52 egoitza-zentroetan egindako bisitak (10 egoitzetan, 40 etxebizitza komunitariotan, 2 tutoretzapeko apartamentutan) eta 12 eguneko zentroetan, horien funtzionamendua ikusteko helburuarekin. Aipatu bisitek zentro bakoitzeko lau bisitaren batez besteko iraupena izan dute.

  – Zentroek bete dituzten galdera-sortetan aipatutako datuen ustiapena eta azterketa, eta gauzatutako bisitetan jasotako informazioarena.

Azpimarratzekoa da zentroak aztertze aldera erakunde horri eman zaizkion agiri guztiek isiltasun-printzipiora betetzen dutela, bertatik pertsonei egindako aipamen oro ezabatu den heinean. Printzipio hori, orobat, ekarritako agirien ustiapenean eta erabileran errespetatu da.

Txosten honen zati horretan erabilitako metodologia IV. Kapituluan deskribatzen da, zentroen ikerlanari buruzkoan.

# II. KAPITULUA

## AZTERKETA JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA

# 1. INDARREKO ARAUTEGIA

## 1.1. Oinarriko esparru juridikoa: Gizarte zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legea

Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean dauden eskumenak 1978. urteko Konstituzioak mugatzen ditu (10. artikuluaren 12 eta 39 paragrafoetan); horren arabera, EAEk pertsona nagusiei emandako arretaren inguruko eskumena izango du, gizarte-laguntzan eta zahartzaroari buruzko politikan barneratuta.

EAEko administrazioen arteko eskumen-banaketa azaroaren 25eko 27/1983 Legean ezarri da, Euskal Autonomia Erkidegoaren erakunde guztien eta bertako Lurralde Historikoei dagozkien Foru organoen arteko Harremanei buruzkoan (Lurralde Historikoen Legea deitu ohi zaiona). Lege horrek eskumen legegilea eta arauak garatzeko eskumena EAEko erakunde guztiei eratxiki die (6. artikulua), eta, autonomia-legeria betearazteko eskumena, aldiz, lurralde historikoetako foru organoei eman die (7. artikulua).

Gehiago zehaztuz gero, gizarte zerbitzuen eta pertsona nagusiei emandako arretaren eremuan, autonomia erkidegoan indarrean dagoen oinarrizko araua Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1966ko Legea dugu. Testu honek gai horretan izan beharreko jardunaren esparrua definitzen du, eta horren xedea izango da "*erantzukizun publikoko gizarte zerbitzuak emateko sistema osatu bat antolatu eta egituratzearen bidez, herritar guztiek horiek jasotzeko duten eskubidea sustatzea eta bermatzea, hiru helburu izanik: gizarteko bazterketa eta desberdintasunak sorrarazten dituzten arrazoiak saihestu edo ekiditea, pertsonak eta taldeak gizarteratzeko sustapena, eta, horiek oso-osorik eta askatasunez garatzeko bideak irekitzea* ". Arauak ezarri du, berebat, aipatu gizarte zerbitzuen sistema titulartasun publikoa nahiz hitzartutako titulartasun pribatua duten baliabideek, jarduerek, prestazioek eta ekipamenduek osatutako multzoak eratzen duela.

Lege horren helburuetako bat da Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta udalek jarduteko eremu horretan duten erantzukizunak zehaztea, Lurralde Historikoen Legean ezarri eskumen-banaketa eta Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko Legean udalerriei gizarte zerbitzuen esparruan ezarri zaien agindua aintzat hartuta. Lege hau, izatez, aurrerapen argia da lehenagoko arautegiaren aldean, administrazioaren maila bakoitzari dagozkion zeregin material zehatzak definitzen dituen neurrian, eskumenetan horiek duten parte hartzeko maila soilik aipatu beharrean:

- Eusko Jaurlaritzari dagokio gizarte zerbitzuen plangintza orokorra, lehentasunak zehaztu eta lurraldeen arteko desorekak saihesteko, bai eta gizarte zerbitzuen antolamendua ere; horretarako *"zentroen eta zerbitzuen irekiera-, aldaketa-, funtzionamendu-baldintzak, langileriaren gaikuntza eta baimen-, hitzarmen-, homologazio eta ikuskapen-arauak arautuko ditu* " (10, 1. eta 3. artikulua).

  Jaurlaritzak, bere aldetik, pertsona nagusien arretaren arloan zuen plangintza-eskumena 1994. urtean egikaritu zuen, Plan Gerontologikoa onetsi ostean, eta antolatzeko eskumena, ordea, 1998an egikaritu zuen, martxoaren 10eko 40/1998 Dekretua onetsi ondoren, bertan Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautuz. Urte berean, orobat, adinekoentzako egoitza–zerbitzuak arautu ziren- martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren bidez–, eta, bi urte geroago, laguntza behar zuten pertsona nagusientzako eguneko zentroak- urriaren 17ko 202/2000 Dekretuaren bidez-; ondorenez, kasu bietan baimenduta eta, hala denean, homologatuta izateko baldintza materialak, funtzionalak eta langileriaren baldintzak ezarri zituen. Etxeko laguntzaren zerbitzuari dagozkion oinarrizko ezaugarriak ez dira autonomia mailan arautu, baina udaleko gizarte zerbitzuak arautzeko dekretu baten eraketa bidean dago, ziurrenik ere, gai hori barneratuko duena.

- Beraren aldetik, foru aldundiek dituzten eskumenak honako hauek dira:

  – Horien lurralde-eremuetako gizarte zerbitzuen programazioa, Eusko Jaurlaritzak ezarri plangintza orokorraren arabera. Eskumen horren egikaritza, Gipuzkoako Foru Aldundiak Plan Gerontologikoa 2003. urtean onetsi zuen; Arabako Aldundiak, aldiz, une hauetan bere planaren inguruko onespenaren izapidetza egiten dihardu, eta, Bizkaiko Aldundiak, 2003. urte arte Pertsona Nagusientzako Ekintza-Plana zuenak, jadanik, Gizarte-Ekintza Sailaren Plan Estrategikoan ezarri neurrien artean Pertsona Nagusien Planaren idazkera 2005-2006 aurreikusten du.
  – Gizarte zerbitzu bereziak sortu, mantendu eta kudeatzea.
  – Horien titulartasunaren mendeko programa, zentro eta zerbitzuen ikuskapena eta kontrola, baita foru aldundien diru-ekarpen zehatzak jasotzen dituzten udalen mende daudenenak eta beren lurraldeetan kokatuta dauden pribatuen mendekoenak ere. Eginkizun horiek gauzatzeko, eta martxoaren 10eko 40/1998 Dekretua onetsi zenetik, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzen duenetik, foru aldundiek kasuan-kasuan baimenak eman eta ikuskatzeko zerbitzuak sortu dituzte.

- Bestalde, udalen eskumenak, batez ere, honako hauek dira:

  – Oinarriko gizarte zerbitzuak sortu, antolatu, kudeatu eta arautzea.
  – 20.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, larrialdi-kasuetan jendea hartzeko zerbitzuak edota gizarte-bizikidetzako zentroak (erretiratuen etxe eta klubak) sortu, antolatu, kudeatu eta arautzea.
  – Udaletako gizarte zerbitzuak programatzea.

– Gizarteko beharrizanak antzematea.
– Horien eskumenaren barruko gizarte zerbitzuak ikuskatu eta kontrolatzea.

Gizarte Zerbitzuen Legearen arabera, gizarte zerbitzuen sistema honela egituratzen da: batetik, oinarrizko gizarte zerbitzuak, udalen eskumenekoak izanik, eta, bestetik, gizarte zerbitzu bereziak, foru-eskumenekoak izanik.

- Oinarrizko gizarte zerbitzuak, horien helburu nagusia erkidegoaren ekintza garatzea izanik, euren eraginpeko arloetan gizarte zerbitzuen zenbait eskaera eskuratzeko arloak koordinatu eta kudeatzen dituzte, bertan sartzeko lehenengo puntu gisa hartuta. Gizarte Zerbitzuen Legeak beraren 7. artikuluan eratxiki dizkion eginkizunen artean, pertsona nagusiei emandako arretarekin zuzeneko lotura dutenak honako hauek dira:

  – Gizarte-eskubide eta –baliabideei buruz informazioa ematea, horiek baloratu eta bideratzea.
  – Interesdunaren egoitzan elkarrekin bizitzeko zerbitzuak edo programak laguntzeko jardunaren bidez ematea.
  – Gizarteko beharrizanei buruzko sentsibilizazio-programak sortzea, eta erkidegoko bizitzan gizarteak parte hartzeko sustapen-programak sortzea.
  – Prestazioen izapideak kudeatzea.
  – Horien lurralde-eremuan dauden gizarte-beharrizanak eta horiek gauzatzean sortutako irregulartasunak antzematea.

- Gisa berean, gizarte zerbitzu bereziek oinarrizko gizarte zerbitzuei ez dagokien jarduna programatu, finkatu eta kudeatzen dute. Guzti horien artean, pertsona nagusiei emandako arretarekin zuzenean gehien identifikatzen dena talde zehatzei prestazioak eskaintzen dizkieten zentroak eta zerbitzuak kudeatu eta hornitzea da.

## 1.2. Mugapen funtzionala: uztailaren 30eko 155/2001 Dekretua, gizarte zerbitzuen alorreko eginkizunak zehazteari buruzkoa

Une hartan argitzeko ahaleginak egin arren, gizarte zerbitzuetan ezarri eskumen-mugapenak zehaztugabetasunen bat dute, eta, horren zuzeneko eragin handiena jasan duten administrazio publikoen, foru aldundien eta udalen ustez, ez da hain operatiboa praktikan eginkizun ezberdinak banatzeko unean.

Mugapen argiena eskuratzeko asmoz, 2000. urtearen amaieran negoziazio-prozesu bati hasiera eman zitzaion Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDEL) artean; hori 5/1996 Legea garatzeko erakundeen arteko mahaian hartutako 2000. urteko azaroaren 9ko erabakian du jatorria; erabaki horretan, *"egungo eta garatzeke dauden programen eskumen-eremuak argitzeko"* errazagoa egiten duten bideak esploratzeko egokitasuna ezarri zen. Ekimen hori 2001eko otsailaren 8ko gizarte zerbitzuen alorreko eskumen-banaketari buruzko Erakundeen arteko Erabaki batean gauzatu zen; hala ere, horren aurretik lurraldeek hartutako erabaki ezberdinak ditugu, hala nola, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eudelen artekoa, eta, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eudelen artekoa, 2000. urteko

abenduaren 18 eta 19koak, hurrenez hurren. Gipuzkoan, erabakiok urtarrilaren 30eko 4/2001 Foru-Dekretuan islatzen dira, Lurralde Historikoetan gizarte zerbitzuen sistema antolatzeari buruzkoan.

2001. urtean autonomia-eremuan hartutako Erabakiak geroago uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuaren edukia izango ziren oinarriak ezarri zituen, gizarte zerbitzuen alorrean eginkizunak zehazteari buruzkoarena.

Artikuluen aurreko zatian ezarri bezala, *"eginkizunen zehaztapen horrek asko aldatu du lankidetza-sistema, praktikan, administrazio publiko ezberdinen arteko harremanak orain arte arautu dituena- batez ere, foru aldundien eta udalen artekoak-, gizarte zerbitzuak kudeatu eta finantzatu daitezen. Hortaz, beharrezkoa da egokitze-aldi bat aurreikustea, eta, bertan, alde batetik, erakunde ezberdinen arteko finantzaketak kasuan-kasuan doituko dira; bestetik, aldiz, administrazio bakoitzak bermatu beharko ditu Dekretu hau indarrean jarri arte ematen ziren zerbitzuak eta programak, herritarren beharrizanei, gutxienez, estaldura nahiz sakontasun maila berberekin erantzuteko behar besteko baliabide eta kalitatearekin batera".*

Dekretuak horren aplikaziorako bi printzipio ezarri ditu:

- Horietatik lehenengoak adierazten du eginkizun ezberdinak administrazio bakarrak eramango dituela, eta, unitate funtzional hori ulertuko da, Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legearen arabera, eta kudeaketa publikoa hobetzeko helburuarekin, administrazio publiko eskudunek euren zerbitzuak emateko edo kudeatzeko eskuordetzeari edo horien esku uzteari kalterik egin gabe. Aurreikuspen hori, berebat, ulertu beharko da administrazio publikoak euren arteko lankidetza-printzipioaren eta ekimen pribatuarekin koordinazio eta lankidetza printzipioaren bidez arautzeari kalterik egin gabe, betiere gizarteko beharrizanei arreta jartzeko.

- Bigarren printzipioaren arabera, foru aldundien eta udalen arteko eskumen-banaketa egiteko irizpidetzat mendekotasun maila hartuko da. Horrela, horien eginkizunak arautzea, 3. artikuluak adierazten du *"60 urtetik gorako pertsonen kasuan, laguntza behar duten pertsona gisa kalifikatutakoen arreta eta zaintza Foru Aldundiei dagokie"*, eta, 4. artikuluan, udaleko eginkizunak arautzen dituena, laguntza behar ez duten pertsona gisa kalifikatutako 60 urtetik gorako pertsonen arreta eta zaintza udalei dagokie, kasu guztietan, mendekotasuna baloratzeko eginkizuna foru aldundiek gauzatuz.

Behin oinarrizko bi printzipio horiek ezarrita, bide emango zaio eginkizunen banaketa xeheari, eta, foru-eskumenen kasuan, talde zehatz ezberdinei zuzendutako zerbitzuak desberdindu beharko dira. Pertsona nagusien arretaren arloan, banaketa honako hau da:

## Eginkizunen banaketa pertsona nagusien arreta-eremuan (uztailaren 30eko 155/2001 Dekretua)

**Jardunaren printzipioak**

- Eginkizun ezberdinak hasiera batean administrazio bakarrarenak izango dira, eta unitate funtzional hori ulertuko da, Gizarte Zerbitzuen urriaren 18ko 5/1996 Legearen 14. artikuluarekin bat etorriz, eta, kudeaketa publikoa eta gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen beharrizanen arreta hobetzeko helburuarekin, administrazio publiko eskudunek euren zerbitzuen kudeaketa eskuordetu edo elkarren eskuetan uzteari kalterik egin gabe.
- Mendekotasuna arreta bermatzen duen administrazio erantzuleak zehaztean datza: foru administrazioek laguntza behar duten pertsonen gaineko ardura izango dute, eta, laguntza behar ez dutenen gaineko ardura, aldiz, udal-administrazioek izango dute.

| Eusko Jaurlaritza | Foru Aldundiak | Udalak |
|---|---|---|
| • Oinarrizko errenta ematea<br>• Gizarte-larrialdietarako laguntzak ematea | • Mendekotasunaren balorazioa<br>• Laguntza behar duten pertsona nagusientzako aisiako eta denbora libreko programak<br>• Eguneko zentroak<br>• Denboraldi baterako egonaldiak<br>• Laguntza behar duten pertsona nagusientzako egoitzak<br>• Familia-harrera<br>• Laguntza teknikok eskuratu eta erabili nahiz ingurumen fisikoa egokitzeko programa<br>• Prestazio ekonomikoen kudeaketa:<br>- Oinarrizko errenta<br>- Ezintasun eta erretiroari buruzko kontribuziorik gabeko pentsioak<br>- Gizarte-Ongizatearen Funtseko zahartzaro eta ezintasun pentsioak<br>• Bestelako prestazio ekonomikoen kudeaketa:<br>- Mugitzeko eragozpen handiak dituzten pertsonen garraioan eta mugimenduan dauden laguntzak<br>- Laguntza osagarriak diru-laguntzak eta pentsioak jasotzen dituztenei | • Oinarrizko gizarte zerbitzua :<br>- Informazio-zerbitzua<br>- Balorazio-zerbitzua, beharrizanak ebaluatzearen bidez<br>- Orientazio-zerbitzua, beharrezkoa izanez gero, banakako arreta-plana eratuz<br>- Elkarrekin bizitzeko zerbitzuak edo programak, interesdunaren egoitzan honako eredu hauetan egindako jardunaren bidez:<br>  - Etxeko laguntza zerbitzua<br>  - Teleasistentzia-zerbitzua<br>  - Elkarrekin bizitzeko formula ezberdinen aukerak (Etxebizitza bat eskuratzeko eragozpenak dituen pertsona beste batek jasotzea)<br>- Gizarteko beharrizanei eta gizarteko parte hartzearen sustatzeari buruzko sentsibilizazio-programak<br>  - Erkidegoko garapen osorako laguntza<br>  - Gizarteko sentsibilizazio eta mentalizazioren kanpainak prestatu eta hedatzea<br>  - Asoziazismoa eta gizarteko parte hartzea sustatzea<br>  - Elkarri laguntzeko taldeak sustatzea<br>- Kasuan kasuko prestazioen izapideak kudeatzea:<br>  - Gizarte-larrialdietarako laguntzen izapidetza eta ebazpena<br>  - Gizarte-arriskuan aurkitzen diren pertsonentzako presako laguntzen izapidetza eta ebazpena<br>  - Eusko Jaurlaritzaren edo foru aldundien eskumeneko prestazio ekonomikoekin zerikusia duten espedienteak hastea<br>- Informazioa eratzea<br>- Beharrizanak lurralde-eremuan antzematea<br>- Aukerako ostatua<br>  - Familia-harrera<br>  - Tutoretzapeko apartamentuak<br>  - Etxebizitza komunitarioak<br>• Gizarteko elkarbizitza eta solidaritatea hobetzeko zentroak:<br>– Zaharren etxea<br>– Gizarte-zentroak |

Txosten guztian ikusi ahal izango dugunez, uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuaren onespenak, gizarte zerbitzuen alorreko eginkizunak zehazteari buruzkoak, praktikan, aplikazio desberdina izan du.

- **Araban**, erabiltzaileen mendekotasun maila izan da, urteotan, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren artean eskumenak banatzeko oinarrizko irizpidea, eta arauak ez du inolako zehaztasun praktikorik izan oraingoz. Izan ere, laguntza behar duten pertsonen gehikuntza medio, irizpide horren egokitzapena eta erabilera orain dela denbora zalantzan jarri da, eta, errealitatean, ez zen zuhurtasunez aplikatzen, hiriburuko udalak laguntza behar zuten ehun bat pertsona nagusiei egoitza-arreta eskainiz. Gainerako Lurralde Historikoan, oro har, Foru Aldundiak bereganatu du aipatu zerbitzua ematea.

- **Bizkaian** eta **Gipuzkoan,** aplikazioaren desoreka praktikoak, batez ere, aurrerago ikusi ahal izango dugunez gero, finantzaketa-ereduarekin lotuko dira.

Izatez, 155/2001 Dekretuak dituen zailtasunen aplikazioak hiru oinarrizko arazo azaltzen ditu Autonomia Erkidegoan pertsona nagusiei arreta emateko ereduari begira:

- Zerbitzu baten finantzaketaren gaineko erantzule gisa administrazio bakarra izendatzeko dagoen egokitzapen handia edo txikia, eta, pertsona nagusiek duten mendekotasun maila hartzeko dagoen egokitzapen handia edo txikia, betiere aipatu administrazioa izendatzeko irizpide gisa.

- Udal-finantzaketa, orain dela urteak arautzeke dagoena.

- Mendekotasunari begira dagoen arretaren finantzaketa-eredua, Europako beste eremu batzuetan, arauetan berrikuntza garrantzitsuak izanik.

Badirudi arazo horiei ez zaiela behar besteko zorroztasunez aurre egin gure Autonomia Erkidegoan. Gaur arte, zatikako neurriak hartu dira; hala ere, horiek ez dira behar bestekoak pertsona nagusien biztanleriak dituen beharrizanen gehikuntzari eta laguntzeko duten sare soziofamiliarrari erantzuteko. Aipatu arazook, garrantzi handia izanik, balorazio eta gomendioen kapituluan jorratuko dira, ezinbesteko eztabaida lasai batean landuz, baldin eta gizarteko itun berri baten emaitza eragingarriak lortzea ahalbidetuz.

## 1.3. Erregistro, baimen, ikuskapen eta homologazioaren arloan dagoen indarreko arautegia

1966ko Gizarte Zerbitzuen Legea indarrean jartzearekin batera, beharrezkoa ikusi zen, eperik laburrenean, arauak garatzea, zerbitzuek nahiz zentroek arretaren eta kalitatearen gutxieneko baldintza batzuk beteko direla berma ditzaten, bai eta administrazio eskudunek hori betetzeko egiaztapena ere; guzti hori gertatzen da arau honek erantzukizun publikoaren sistemak merkataritzako erakunde pribatuen parte hartzeari ateak ireki zizkion, ordu arte sektore publikoari eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei erreserbatutakoa zena.

Beharrizan horren erantzun gisa martxoaren 10eko 40/1998 Dekretua dugu, eta, horren xedea da gizarte zerbitzuak ematean esku hartzen duten erakundeak, zerbitzuak eta zentroak antolatzeko arauak ezartzea, honako jardun hau arautuz:

- Titulartasun pribatuko zerbitzuen eta zentroen administrazio-baimena, baldin eta erabiltzaileei prestazioen kalitatea eta arreta egokia bermatzeko beharrezkoak diren betekizunak eta baldintzak badituzte.

- Erakundeen erregistroa, direla publikoak direla pribatuak, eta horien mendeko zerbitzu eta zentroen erregistroa.

- Titulartasun pribatuko zerbitzuen eta zentroen homologazioa, hori administrazio publikoarekin hitzarmena egiteko aurretiazko baldintza izanik, bai eta gizarte zerbitzuak ematen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeena ere, diru-laguntzak eta laguntzak eskura daitezen.

- Erakundeen ikuskapena, direla publikoak direla pribatuak, eta horien mendeko zerbitzu eta zentroena.

### *1.3.1.* ***Administrazioaren baimena***

Administrazioaren baimena administrazio eskudunak emandako baimena da honako egintza hauek egiteko:

- Titulartasun pribatuko gizarte zerbitzuen zerbitzuak eta zentroak sortu, eraiki edo finkatzeko eta funtzionamenduan jartzeko.
- Egitura edo araubide funtzionalari begira sortutako aldarazpenak.
- Kokapena lekuz aldatzeko.

Titulartasun pribatuko zerbitzuen lagapenak edo zentroen itxierak, bai eta titulartasunaren aldaketak, ez dute baimenik behar, baizik eta nahikoa da baimena eman zuen administrazioari jakinaraztea.

Bi baimen maila daude:

- Aurretiazko baimena ematen da behin zerbitzuaren edo zentroaren proiektuak horri dagozkion betekizun material eta funtzionalekin duen egokitasuna egiaztatuta, betiere zerbitzuaren tipologia aintzat hartuta (egoitza, eguneko zentroa edo bestelakoa). Baimen hori nahitaezkoa da obren udal lizentzia eskatzeko edo antzeko jarduerak gauzatzeko.

- Funtzionamenduaren baimena ematen da zerbitzuaren edo zentroaren ezaugarriak aurretiazko baimena eman zitzaien haiekin duten adostasuna egiaztatu ondoren.

Emandako baimena ezezta daiteke arrazoi ezberdinen ondorioz:

  – Baimendutako zerbitzuaren edo zentroaren erakunde titularraren nortasun juridikoa azkentzea edo galtzea, edo, haren titularra den pertsona juridikoa hiltzea edo ezgaitzea.

– Baimendutako zerbitzua lagatzea edo zentroa ixtea.
– Baimena ematearen oinarri izan ziren betekizun materialak eta funtzionalak funtsean aldatzea.
– Zehapena ezartzea gizarte zerbitzuen arloan arautegia ez betetzearen ondorioz, baldin eta zerbitzuaren edo zentroaren behin-behineko edo behin betiko itxiera bada, edo, haren titularra den pertsona fisiko nahiz juridikoaren behin-behineko ezgaikuntza bada.

### *1.3.2.* ***Erakundeen, zerbitzuen eta zentroen erregistroa***

Gizarte Zerbitzuen 5/1996 Legearen 10.7. artikuluan Gizarte Zerbitzuen Erregistro Orokorraren sormena ezarri zen, Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko ekintzaren ondorioz sortutako erakundeak, zerbitzuak eta zentroak inskribatzeko, eta, informazio ondoreetarako, kasuan kasuko foru-erregistroek egindako inskripzioak jasotzeko eta eransteko. Azken horien sormena Legearen 11.10. artikuluan ere jaso dira; horren arabera, inskripzioen Autonomia Erkidegoko Erregistro Orokorrera eta bestea bat Udalera edota kasuan kasuko udal-erakundera kopia bidaltzeko betebeharra izango dute.

Agindu hori betetzeko, aipatu martxoaren 10eko 40/1998 Dekretuak Gizarte Zerbitzuen Erregistro Orokorra sortu du, orduko Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari atxiki zena. Gaur egun, eskumena Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren barruan kokatutako Gizarte Ongizatearen Zuzendaritzan ezarri da, otsailaren 12ko 40/2002 Dekretuaren 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, aipatu sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena. Azken urteotan Erregistro Orokorra arautzeko arauen zirriborro ezberdinak eratu badira ere, oraindik ez da onetsi arlo hori begiesten duen testurik.

Bestalde, erregistroan jasota egon nahi zuten erakunde, zerbitzu eta zentroei erantzun beharra ikusirik, Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiek euren arautegi arau-emaileak onestea erabaki dute, autonomia-arautegiaren zain geratu gabe: Arabako Diputatuen Batzordeari dagokion otsailaren 23ko 25/1999 Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoaren Foru Erregistroa sortzen duena, horri dagozkion funtzionamendu eta antolaketa arauak ezarriz, eta, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako 62/2002 Foru-Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoak dituen Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa sortzen duena eta horri dagozkion funtzionamendu- nahiz antolaketa-arauak arautzen dituena. Gipuzkoan, oraindik onetsi ez den Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa sortzeko Foru Dekretuaren zirriborroa dago.

40/1998 Dekretuan ezarritakoaren arabera, lau erregistroak, autonomikoa eta beste hiru foru-erregistroak, hiru atal ezberdinetan egituratu behar dira, eta horietatik bakoitzak Erregistro Liburu bat eramango du:

• Erregistroa aplikatzen zaion lurralde-eremuan jarduten duten erakunde publiko eta pribatu guztiek zein erakunde-ataletan eman behar duten izena, erakundeok zerbitzu edo zentroen titularrak izan nahiz ez izan. Identifikazioa, ezaugarriak, datu ekonomikoak, ondare datuak eta langileei buruzko datuak azaldu behar dira.

- Zerbitzu eta zentro guztiak erregistratu behar diren zerbitzuen eta zentroen atala, direla publikoak direla pribatuak, baldin eta horiek erregistroa aplikatzen den lurralde-eremuan jarduten badute.

- Ebazpen irmoak jasotzen dituen zehapenen atala, arau-hausteen mota ezberdinen ondorioz, administrazio eskudunak hartu dituenak.

Erregistroko inskripzioa, aholku- nahiz baimen-ondorerik ez duena, nahitaezko baldintza da erakundeak, zerbitzuak edo zentroak euskal administrazio publikoen diru-laguntzen edota laguntzen araubidean esku har dezan, eta, hala denean, horiekin hitzarmena egin dezan, homologazioa egin aurretik.

Praktikan, Bizkaiko Erregistroa bakar-bakarrik egokitzen da modu formalean ezarritako antolaketaren eta funtzionamenduaren jarraibideetara[1] . Araban, zerbitzuen eta zentroen kopuru urria dela medio, orain arte, funtzionamendu malguagoa izatea ahalbidetu du.

### *1.3.3.* ***Homologazioa***

Administrazio publikoak, ebazpen arrazoituaren bidez, titulartasun pribatuko erakunde, zerbitzu edo zentro bat, jadanik badagoen plangintza aintzat hartuta, erantzukizun publikoko gizarte zerbitzuen sistemaren zati bezala beraren eginkizunak betetzeko egokia dela adierazteko egintza da, betiere kalitatearen, eragingarritasunaren eta kostu ekonomiko eta gizarte-kostuaren irizpideak kontuan hartuta. Zerbitzuen eta zentroen kasuan beharrezkoa da aurretiaz funtzionamenduaren baimena izatea.

Gai horri dagokionez, azpimarratzekoak dira bi aspektu:

- Alde batetik, homologazioa Administrazioak erakunde, zerbitzu edo zentro bat erantzukizun publikoaren sistemaren zati izateko betekizunak betetzen dituela bakarrik adierazteko egintza da. Beste hitz batzuetan esateko, egokitasun-ziurtagiria izango da, baina Administrazioa inoiz ez du behartzen ziurtagiri hori eskuratzen duen erakundea, zerbitzua edo zentroarekin hitzartzera edo horri diru-laguntzak ematera, ezta eskubiderik eman ere hitzarmen edo diru-laguntza hori eskatzeko ere.

- Beste alde batetik, aipatu homologazioa erakunde pribatu guztiei aplikatzen bazaie, irabazi-asmoa dagoen ala ez dagoen baztertuta, 40/1998 Dekretuak, beraren 30.2. artikuluan ezarri du administrazio publikoek lehentasuna izango dutela, antzeko eragingarritasun, kalitate eta kostu baldintzak izanez gero, irabazi-asmorik ez duten erakundeen titulartasunpeko gizarte zerbitzuak ematen dituzten zerbitzuek eta zentroek, baldin eta horiek, bereziki, baldintza sozioekonomiko kaltegarrian aurkitzen diren erabiltzaileei laguntzen badiete. Irabazi-asmorik ez duten erakunde horiek, orobat, diru-laguntzak eta laguntzak emateko lehenespena dute.

[1] Bizkaiko Erakundeen, Zerbitzuen eta Gizarte zerbitzuen Erregistroa erabat informatizatuta dago eta Interneten jaso da nahi diren kontsulak egiteko (www.bizkaia.net).

### 1.3.4. ***Ikuskapena***

Ikuskapena, 38.1. artikuluaren arabera, "*gizarte zerbitzuen arloan lege-xedapenak betetzearen zaintza, kontrol eta egiaztapen eginkizunen egikaritza, herritarrek gizarte zerbitzuetan arretaren kalitaterako duten eskubidea bermatzeko helburuarekin*". Eginkizun hori erakundeen gain burutzen da, direla publikoak direla pribatuak, eta horien mendeko zerbitzuen eta zentroen gain. Jarduera horren gauzatzeak honako eginkizun hauek barneratzen ditu:

a) Gizarte zerbitzuetan aplikatu beharreko arautegia betetzen dela zaintzea.

b) Erabiltzaileen eskubideei izan beharreko errespetua bermatzea, eta, eskubide horiek egikaritzeko bide eragingarrien izatea eta funtzionamendua egiaztatzea.

c) Zerbitzu eta zentro bakoitzerako arauz ezarritako betekizun materialak eta funtzionalak betetzen direla egiaztatzea.

d) Erakundeei euren jarduerak gauzatzeko eman edo esleitu zaizkien fondo publikoen erabilera eta helburua gainbegiratzea.

e) Ikuskapen-jardunen zehar, erakundeei, profesionalei eta erabiltzaileei aholkatu eta informazioa ematea, euren eskubide betebeharrei buruz, eta, horiek egikaritzeko bide eragingarriei buruz.

f) Txostenak egitea, ikuskapeneko bisitak direla eta, gizarte zerbitzuen arloan egokitzen ez diren betekizun materialak eta funtzionalak definitzen dituztenak, urratutako arauak aipatzen dituztenak eta horiek betetzeko epea ezartzen dituztenak.

g) Kasuan kasuko lurralde-eremuetan gizarte zerbitzuen beharrizanen ikerketan plangintza edota programazio unitateekin lankidetzan jardutea.

h) Administrazio eskudunari aholkatzea zerbitzuen eta zentroen betekizun material eta funtzionalen egokitasunari buruz, erabiltzaileen benetako beharrizanei buruz eta arretaren kalitatea hobetzeari buruz.

i) Praktika profesional onak antzematea eta administrazio eskuduna horren gaineko informazioa ematea hedapen helburuarekin, bai eta arretaren ezezko praktikak islatu eta aurkeztutako zerbitzuetan eta zentroetan ikuskapen- nahiz ebaluazio-ahaleginak biltzea ahalbidetzen dituzten alarma-adierazleak definitzea.

Azpimarratzekoa da eratxikitako eginkizunek abiapuntu gisa beti erabiltzaileen eskubideei izan beharreko errespetua eta arretaren kalitatea hartzen dituztela, 40/1998 Dekretuaren 38. artikuluan argi eta garbi jasotako ebaluazioari begira hurbileko ikuspegia hartuz; artikulu horretan, behin ikuskapen-eginkizunak gizarte zerbitzuen arloan lege-xedapenak betetzeko zaintza, kontrol eta egiaztapen eginkizunak barneratzen dituela aipatuta, ikuskapen-jarduera gauzatzeak honako printzipio hauetara egokituko dela adierazi du:

a) Erabiltzaileen eskubideei izan beharreko errespetua zaintzea eta hori irizpide nagusitzat hartzea aplikatu beharreko arauen interpretazioan.

b) Tresna kuantitatibo eta kualitatiboak erabiltzea, zerbitzu edo zentro tipologia bakoitzerako arauz ezarri betekizun materialetara eta funtzionaletara zerbitzuak edo zentroak duen egokitzapena egiaztatzeko helburuarekin.

c) Ikuskapenean, erabiltzaileen eta euren familien parte hartzeari buruzko bideei arreta berezia ematea, bai eta horien funtzionamendu eragingarriari ere, eta, pertsona berberek adierazitako kexak aztertzea.

d) Ikuskapenari ebaluazio-izaera nahiz izaera pedagogikoa eratxikitzea; ondorioz, zerbitzu eta zentroetako profesionalak horren funtzionamenduaren nahiz arretaren kalitatea hobetzeko neurri egokien azterketan sartuko dira.

e) Ikuskapen-bisita ebaluazio-sistema kualitatiboekin batera osatzea, baldin eta horien horren emaitzek arreta ematean hartu beharreko jarraibideei buruz bideratzen badute. Ondore horietarako, arauz ezarritako zerbitzuari buruzko kalitatearen, eragingarritasunaren, kostu ekonomiko eta gizarte-kostuaren irizpideak ezarriko dira.

Praktikan, ikuskapen-sistemen funtzionamendua abian jartzea duela gutxikoa dugu ea horren jarduteko modua, hain zuzen ere, ebaluazioaren filosofiara hurbiltzen den jakiteko, edo, alderantziz, ikuskapenaren berezko zereginak bakarrik hartuko dituen aintzat; hala ere, ikuspegi horretatik baiezta daiteke, gaur egun zerbitzu horietan izaera kualitatiboa duten tresnak diseinatu edo egokitzeko ardura nahiz interes jakin bat dagoela, egiaztapen materialen eta langileriaren ratioen haraindian, ikuskatzaileei laguntzeko gai izanik, eta laguntza-jarraibideak egoki diren arretaren kalitateari eta erabiltzaileen eskubideei izan beharreko errespetua bermatzeko.

Ikuskapenera zuzendutako baliabideei dagokienez, martxoaren 10eko 40/1998 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzen duenak, 41. artikuluan ezarri du Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta udalen eremuaren barne, gizarte zerbitzuen arloan une orotan eskumenak atxikita dituzten sailek ikuskapen-eginkizuna burutuko dute horien egitura organikoan zehaztutako administrazio-unitateen bidez, eta, eginkizunok ezin izango direla inoiz ikuskatzeko modukoak diren zerbitzuak eta zentroak kudeatzeko erantzuleen unitateei eratxiki, dela zuzenekoa dela zeharkakoa.

Eusko Jaurlaritzak, ikuskatzeko modukoak diren zentrorik ez badu, ez du izaera horretako zerbitzurik sortuko. Udalei dagokienez, eskuragarri dagoen informazioak badirudi, arau orokor gisa, udaleko gizarte zerbitzuen ikuskapen-zerbitzurik ez duela sortu. Guzti horri begira, aipatzekoa da, indarreko arautegiak foru aldundietako ikuskapen-eskumenak "*foru-ekarpen ekonomiko zehatzak jaso dituzten udal-zerbitzu guztietara*" hedatzen dituela; ondorenez, udal-ikuskapena neurri handi batean mugatuta geratzen da.

Beraz, ikuskapena, batez ere, foru-eremuan garatu da. Foru Aldundi bakoitzak eginkizun horietara zuzendutako zerbitzua sortu du, horiek lehenengo zeregina jadanik jarduteko

kasuan kasuko lurralde-eremuetan bazeuden zerbitzu eta zentro guztien baimena emateko espedienteen izapideak egitea izanik.

**Araban**, Diputatuen Batzordeko urtarrilaren 13ko 2/2004 Dekretuaren arabera, Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duenaren arabera, Gizarte zerbitzuen Erregistro eta Ikuskapen Unitatea izendatutakoa, Gizarte Gaietako Idazkaritzarekin batera, Gizarte Gaietako Zuzendaritzari buruzko laguntzaren organizazio-egituran barneratzen da.

Pertsona nagusientzako zerbitzuen eremuan, ikuskapen-teknikariek, urtero-urtero, egoitza-zentroak eta eguneko zentroak ofizioz ikuskatzen dituzte. Bisita hori ez da aurretiaz jakinarazten. Jarraipen bisitak ere egiten dira, betiere urteroko bisita egin ondoren arauen bat urratu dutenetan; azken finean, ikusi nahi da zentroa nahitaezko funtzionamendu-baldintzetara egokitzeko neurriak hartzen dituen ala ez.

Osagarri bezala eta modu sistematikoan zentroak bisitatzen dituzte, baldin eta haiei buruzko kexa, erreklamazio edo salaketarik badago. Salaketen kasuan, bai hitzezkoak, edo idatziz formalizatutakoak, langileriaren ratioei buruzkoak izaten dira (ohi bezala baxuak balioesten dira, baina arauen exijentzietara egokitzen dira; beraz, ez dago ikuskapenaren aldetik esku hartzeko aukerarik), bai eta halako tokiren batean sartzean medikazioaren aldaketei buruzkoak ere (kexa indarrik gabe geratzen da zentroko medikuak berak hartutako erabakia justifikatuz gero), edo kontratuak ez izateari buruz.

Gisa horretan ikuskatu dira Lurralde Historikoetako egoitza-zentro eta eguneko zentro guztiak, Gasteizko Udalarenak diren zentroak izan ezik; kasu horretan, Gizarte Zerbitzuen Legea eta 40/1998 Dekretua aintzat hartuta, ikuskapen-jarduera burutzeko eskudun bakarra udala izango da, salbu eta foru aldundiak finantzaketan parte hartzen duen zerbitzuak daudenean (esaterako, San Prudentzio egoitzaren kasua, aurrerago ikusiko dugun bezala).

Ikuskapen-zeregin horren ondorioz, 2003. urtean, hiru zehapen-espediente ireki dira arretaren arau-hauste astunengatik eta bi itxiera-espedienteen izapideak egin dira, etxebizitza komunitarioak funtzionamendurako baimenik gabe irekitzeagatik. Era berean, sei informazio-espediente ireki dira, zehapen-espedienteen irekiera ezin izan delako egin, behar besteko baitzegoen aurkeztutako kexei dagokienez.

**Bizkaiko** Foru Aldundiaren Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzua, Gizarte Ekintza Sailari buruzko Proiektuen Kontrolerako eta Garapenerako Zuzendaritza Orokorraren barne dago eta beraren ikuskapen-eginkizuna foru-titulartasun pribatuko eta publikoko zerbitzu eta zentroetara hedatzen du. Lurralde historiko horretan, pertsona nagusien zentro asko dagoenez gero, ikuskapen-zerbitzuak funtzionamenduaren lehenengo urte hauetan erabaki du berak duen funtzionamenduaren oinarrizko zenbait aspekturen egiaztapenak mugatzea. Orduan, urtero-urtero egiten diren ikuskapen-bisiten esparruan, egoitza guztietarako diren bost betekizun gainbegiratu dira, euren tipologia zein den kontuan hartu gabe: gaitasuna, langileriaren ratioa, kontratuen izatea, prezioen tarifak eta funtzionamendua baimentzen duen agiria ikusteko moduko tokian erakustea; guzti horren osagarri gisa, egoitzen kasuan, seigarren betekizun bat gainbegiratu da: urtero egin beharreko animazio-jarduera soziokulturalen

programa. Eguneko zentroetan, urteroko ikuskapen-bisitek egoitzetan dauden aspektu berberak egiaztatu dituzte.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte-Ekintza Sailaren Memorian argitaratutako datuen arabera, 2003. urterako, 79 egoitza bisitatu baziren, batek hausten ditu egiaztatutako xedapenen bat, eta ofizioz ikuskatutako etxebizitza komunitarioetatik 16k aipatu betekizunen bat hausten dute. Arau-hauste horiek dira, esaterako, baimendutako gehieneko kopurua gainditzea, nahitaezko langileriaren ratioa baino gutxiago izatea eta zenbait betebehar ez betetzea, hala nola, erabiltzaileekin ezarritako kontratuak, prezioen tarifa eta funtzionamendua baimentzen duen agiria jendaurrean izatea, animazio soziokulturalari buruzko urteroko programa izatea, ikuskapenarekin lankidetzan jardutea eta jardueren udal lizentzia izatea.

Salaketaren ondorioz sortutako ikuskapenetan, bisitak, kasu bakoitzak duen kexaren xedean oinarritu dira. 2003. urtean, salaketaren ondoriozko 24 ikuskapenetan, hemezortzi kasuetan narriadurak antzematea ahalbidetu dute; alde batetik, zerbitzu-arretaren oinarrizko aspektuen gain izango dute eragina, esaterako elikaduran, zaintzen gabezia (arretarik eza eta zabarkeriak), familiakoei eta adiskideei bisitak eragoztea, edo agindu teknikorik gabeko loturen aplikazioa, aspektu orokorragotzat jotakoei, hala nola, funtzionamendurako baimenik izateari edo kontraturik ez izateari.

Ikuskapen horien ondorioz, 2003. urtean hogeita zortzi zehapen-espediente hasi dira, eta urtean zehar horietatik hamabi ebatzi dira. Bestalde, ikuskapen eta kontrol jarduerak sendotzen doazen heinean, zilegiak ez diren zentroen kopurua jaisten doa, eta horrela, 2001. urtean antzemandako hamar zentroetatik 2003. urtean zentro bakar bat izango dugu.

**Gipuzkoan**, apirilaren 6ko 32/2004 Dekretuak, Gizarte Politikarako Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoak, baimen eta ikuskapen arloan zerbitzu eskuduna barnean hartzen du Gizarte Zerbitzuen Inbertsio, Ikuskapen eta Lankidetza Zerbitzua izenekoan, Gizarteko Politikarako Sailaren Mendekotasun eta Babes Ezari emandako Arretaren Zuzendaritza Orokorrari dagokiona.

Zerbitzua abian jarri denetik, kasuan kasuko baimen eta ikuskapen prozedurak garatu dira, betiere dekretuan modu objektiboan hartu daitezkeen aspektuen gain eragina izanez, hau da, betekizun materialetan eta langileriaren betekizunetan. 2003. urtetik aurrera, zerbitzuak beraren ahaleginen oinarri gisa hartu zuen laguntzarako praktiken egiaztapenean; ondore horretarako egiaztapen-tresnak eratzen hasiko dira beren beregi.

Zerbitzuak ekarritako datuen arabera, 2003. urtean, salaketaren ondoriozko 12 ikuskapen egin dira, neurri handi batean arretaren oinarrizko aspektuekin zerikusia dutenak, hala nola, elikadurarekin (kasu bat) eta zaintza pertsonalen desegokitasuna (beste bederatzi kasu). Geratzen diren kasu biak administrazio-izaerako ez betetzeei dagozkie. Orain arte, zerbitzuaren funtzionamendua indartu eta zentroena bideratzeko helburuarekin, zerbitzuak erabaki du ikuspegi pedagogiko batetik abiatzea ikuspegi zehatzaile batetik baino; ondorenez, horrek azaltzen du, ohartarazpenen bat izan ezik, 2003. urtean zehar inolako zehapen-espedienterik ez ireki izana.

Azkenik, aipatzekoa da hiru lurralde historikoetako zerbitzuek egindako baimen eta ikuskapen txostenak ez datozela bat euren artean: Arabak ez du bakarrik aintzat hartzen lege-irizpideak betetzen diren ala ez diren betetzen, ezpada, zentro osoaren deskripzio osoa ere eskaintzen dute; Gipuzkoan, hitzez hitz jasotzen dituzte arauen betekizunak, horiek betetzen diren edo ez aipatuz, kasuen gehiengoan, zentroaren benetako egoera zein den deskribatu gabe; azkenik, Bizkaian, txostenak laburrak izateko joera dute, eta Dekretuaren oinarrizko aspektuak hartu dituzte kontuan[2] .

## 1.4. **Zerbitzuen eta zentroen betekizun materialak, funtzionalak eta langileriaren betekizunen arautegia, horiek baimena izan dezaten**

Baimen, homologazio eta ikuskapenari buruzko administrazio-egintzen aplikazio eragingarria egintzon xede diren betekizun material, funtzional eta langileriaren betekizunen arautegira mugatzen da. Pertsona nagusiei eman beharreko arreta-eremuan, eguneko zentroek eta egoitzek izaera horretako arautegia dute, euren mota guztietan. Bestelako zerbitzuek, esaterako, etxetik etxez laguntzekoaren kasuan, horiek arautzeke daude, baina Udaletako Gizarte Zerbitzuen Dekretuan barnera daiteke, gaur egun horren zirriborroa eratzen daude eta, aurretik aipatu bezala.

### *1.4.1. **Egoitza-zentroen arautegia***

Pertsona nagusientzako egoitza-zentroen lehen arautegia 1990. urtekoa dugu, uztailaren 30eko 218 Dekretua indarrean jartzean. Arau hori, beraren edukietan luzea eta handinahikoa dena, berori ez aplikatzearen ondorioz hil egin zen gaur egungoa horren ordez ezarri aurretik: egoitza-zerbitzuek ez zuten betetzen, ezta administrazioek hori betetzen dela egiaztatu edo eskatu ere. Horrek zuen konplexutasunaz gain, aplikazioak zuen kostua ere aurpegiratu zitzaion; guzti hori egoitzaz egoitzako arreta zuten administrazio eskuduneko teknikariek eta zerbitzuen gaineko erantzuleek bat egindako kritika zen.

Egoera horrek zortzi urtetan iraun zuen, 1996. urtean Gizarte Zerbitzuen Legea indarrean jartzean, horrek zituen arauen garapen-prozesuak, 1998. urteko martxoan, aldi berean, martxoaren 10eko 40/1998 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzen duena, 1.3. paragrafoan azaldutakoa, eta martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua, adinekoentzako gizarteko egoitza-zerbitzuei buruzkoa onetsi ziren.

Arautegi berri hori Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta Eudel, Euskadiko Udalerrien Elkartearen arteko gutxieneko erabakiaren emaitza dugu. Horri dagokion zioen azalpena kontuan hartuta, horren nahia da "*egoitza-zerbitzuek bete beharreko*

---

[2] Ezberdintasun horiek zehaztu dute ikuskapen-txostenak, azaltzen duten interesa handia izan arren, txosten honen esparruan ezin direla erabili informazioaren eta zentroen alderatzea egiteko oinarrizko iturri gisa; hori iturri gisa bakarrik erabiliko dira galdera-sorten eta bisiten ondorioz eskuratutako tresnen erkatzea egiteko.

*betekizun teknikoak, materialak eta funtzionalak zehaztasun gehiagorekin zehaztu eta egokitzea, egoiliar bakoitzak behar duen espazio fisikoari arreta berezia jarrita, bai eta horrek jaso beharreko egoitza-kalitateari ere".* Gainera, *"ostatu emateko modu berriak, nahiz tutoretzapeko apartamentuak, horiek agertzen duten garrantzia dela medio, etxebizitza komunitarioekin batera arautzeko beharrari erantzuten dio, egoitzetan barneratzearen aurrean aukera eragingarri gisa aurkeztuta ".*

Arauak zortzi artikulu ditu eta horiek arautzen dute xedea, egoitza-zentroen tipologia (tutoretzapeko apartamentuak, etxebizitza komunitarioak eta egoitzak), administrazioak gauzatutako baimen, komunikazio, erregistro, homologazio eta ikuskapen jarduerak, printzipio orokorrak (normalizazioa, autonomia, parte hartzea, integrazioa, profesionalizatzea, arreta pertsonalizatua), erabiltzaileen eskubideak, horien betebeharrak, baimena emateko baldintzak eta homologazio-baldintzak. Hiru xedapen iragankorrek arautzen dute Dekretua hori indarrean jartzean jadanik funtzionamenduan dauden zentroei aplikatzeko baldintzak, dela baimena emateko arloan dela homologazio-arloan, bai eta horren aplikazioa indarrean jartzeko unean izapideak egiten ari zaizkien espedienteei ere.

Horrez gain, arauak bost eranskin arau-emaile ditu, hurrenez hurren, gizarteko egoitza-zerbitzu guztietarako diren betekizun material eta funtzionalei buruzkoa, zehatz-mehatz egoitzei dagozkienak, etxebizitza komunitarioei agintzeko moduak, tutoretzapeko apartamentuetara zuzendutakoak, eta, azkenik, homologazio-irizpideak.

a) *Egoitza-zentroen tipologia*

Pertsona nagusientzat diren egoitza-zerbitzuei buruzko dekretuak hiru zentro-mota bereizten ditu:

- Tutoretzapeko apartamentuak lagun bakarrekoentzako edota bikoteentzako etxebizitza autonomoen multzoa dira, eta zerbitzu kolektiboak dituzte, aukeraz erabil daitezkeenak. Horietan, egoera psikofisikoagatik edo gizarte-egoeragatik bestelako baliabideak behar ez dituzten pertsona nagusiak bizi dira. Txosten hori eratzeko jaso den informazioaren unean (2003. urtearen erdialdean), Autonomia Erkidegoan mota horietako 34 zerbitzu daude; 7 Araban eta 27 Gipuzkoan; Bizkaian oraindik ez da egoitza-modu hori finkatu. Argitu beharra dago, edozein kasutan ere, tipologia horrek formula ezberdinak jasotzen dituela: guztientzat zerbitzuak dituzten apartamentuen multzoetatik, direla etxekoak direla arreta pertsonalari buruzkoak, ia zerbitzurik ez duten apartamentuen multzoetara; hala ere, azken horietan erabiltzaileek beste zentroei dagozkien zerbitzuak erabil ditzakete (adibidez, egoitza bateko *catering-zerbitzua*). Halaber, badaude 4 edo 5 pertsonetako etxeak, eta ez dira tutoretzapeko apartamentuen multzoan sartzen, baina tutoretzapeko etxebizitzarekin berdinesten dira funtzionamenduari dagokionez. Zerbitzu horien eta gainerako egoitzak aukeratzekoen artean dauden ezberdintasun nagusiak hiru ezaugarrien ondoriozkoak dira: batetik, apartamentuetan, pertsonak euren etxebizitzan daude, sarritan jabetza-araubidepean izanik; bestetik, eman den zerbitzuak ez du erabateko izaerarik (oinarrizko zerbitzuek ere, hala nola, garbitasuna edo elikadura, aukerakoak

izaten dira); eta, azkenik, horietan bizi diren pertsonek autonomia maila altua dute, eta, ondorioz, ez dago behar besteko zentrora hogeita lau ordutan atxikitako langileriarik.

- Etxebizitza komunitarioak egoitza-motetan bigarrena dugu, eta, horren definizioaren arabera, gutxienez 5 plaza eta gehienez 14 plazatako elkarrekin bizitzeko unitateak dira, neurri batean euren kabuz baliatzeko gai diren pertsona nagusiei zuzendutakoak, eta, familia-giroaren antzeko bizimodua dutenei. Txosten horretarako informazioa jasotzeko unean (2003. urtearen erdialdean), EAEn 120 etxebizitza komunitario zeuden: 30 Araban, 83 Bizkaian eta 7 Gipuzkoan. Praktikan, egoitza txiki gisa erabiltzen dira, eta horietan zerbitzu osoa eskaintzen da, eguneko hogeita lau ordutan laguntzeko langileriaren bermearekin. Izatez, zerbitzu horietan aurkitzen diren erabiltzaile asko laguntza behar duten pertsonak dira; horregatik, eztabaidak sortzen dira gaur egun zentroek duten tipologiei buruzko arauen inguruan, egoitza-mota hori euren kabuz balia daitezkeen pertsonei zuzendutakoa dela dirudi eta.

- Egoitzak hirugarren zerbitzu-mota izango dira eta horren definizioaren arabera, 14 plaza baino gehiago dituzten elkarrekin bizitzeko zentroak dira, etxebizitza iraunkor eta erkide gisa erabil daitezkeenak, eta horietan, pertsona nagusiei arreta oso eta iraunkorra eskaintzen diete, betiere maila handiko ezgaituak izanez gero. Mota horretako zentroak ditu abian jartzeko arau zorrotzenak eta kopuru handienak. Egoitza-kopurua, 2003. urtearen erdialdean, 179 egoitzetakoa izan zen autonomia-lurraldearen osotasunean: 28 Araban, 94 Bizkaian eta 57 Gipuzkoan.

*b) Arauarentzat nahitaezkoak diren betekizun materialak eta funtzionalak*

Egoitza-zentroei ezarri betekizunak, direla zerbitzu guztientzat direla zerbitzu bakoitzarentzat zehatz-mehatz definitzen direnak, zalantzarik gabe, egokitasun maila jakin bat islatzen dute Autonomia Erkidegoan egoitzek duten benetako egoerara, 1990. urteko Dekretu arau-emailearekin alderatuz gero.

Arauak jaso du, garrantzi handia izanik, egoitza-zerbitzuaren oinarri izango dira zenbait printzipio, eta, nazioarteko mailan literatura espezializatuak onartutako praktika oneko gomendioen gunea. Horrela, adierazten du:

- Horietan bizi diren pertsonen bizi-generoa, ahal den neurrian eta bizitzaren genero guztietan, gainerako hiritar guztientzat ohikotzat jotako jokaeraren jarraibideetara egokitu behar da. ***–Normalizazio-printzipioa–***.

- Eguneroko bizitzaren eremuan, autonomia pertsonala ahal den guztia sustatu beharra dago; hori dela medio, zerbitzuak ez dio erabiltzaileari horrek duen mendekotasun fisiko edo psikikoaren ondorioz beharrezkotzat jotako laguntza baino gehiago emango. ***–Autonomia-printzipioa–***.

- Pertsona egoiliarrek zentroaren jarduereetan eta funtzionamenduan izan beharreko parte hartzea ahal den guztia indartu behar da. ***–Parte hartzearen printzipioa–***.

- Familia, gizarte, politika eta kultura bizitzan erabiltzaileak euren ohiko inguru komunitarioan mantendu behar dira. ***–Integrazio-printzipioa–***.

- Egoiliar bakoitzaren beharrizanei egokitutako arreta pertsonalizatua eman behar da. ***–Arreta pertsonalizatuaren printzipioa–***.

- Gizarte-laneko boluntarioen zereginari kalterik egin gabe, horiek duten balio osagarria aitortuta, bai gizarteko egoitza-zerbitzuen erantzuleek bai gainerako langileriak euren maila profesionalari dagokion prestakuntza teknikoa izan behar dute. ***–Profesionalizatze-printzipioa–***.

Era berean, arauak erabiltzaileen eskubideak jaso ditu, eta, hori arauaren benetako berrikuntza izateaz gain, garrantzi handikoa dugu; izan ere, gaur egun guztiok onartzen dugun arren, teorian behintzat, orain dela hamabost urte arautegiaren esparruan arlo hori ez zen kontuan hartzen eta egoitzen errealitatean ia-ia ez zegoen. Hori horrela, erakunde honek 1993. urtean adinekoentzako egoitzei buruzko txostenean ordurako azaldu zen egoiliarren eskubideak arautzeko zegoen beharra. Guzti horren garrantzia, arretaren kalitateari buruzko ikuspegiaren aldetik, paragrafo zehatz bat izatea gomendatzen du (ikus 2. paragrafoa).

Aurretiazko betekizunei dagokienez, orokorrean esan beharra dago, modu objektiboan hartzeko guztian, nahiz hori hedatutako arretaren jarraibideetan bada ere, testuak, funtsean, literatura espezializatuan gehien indartutako praktika oneko irizpideak berriro hartzen dituela, bai eta ebaluazio-eremuan dauden oinarrizko erreferentzia-tresnak ere.

Guzti horrekin ere, gutxieneko arauketa da eta zenbait gabezi ditu; horiek kasu batzuetan arau eratzeko prozesuan aintzat hartu baziren ere, ez ziren barneratu behin betiko bertsioan:

- Testuak, beharbada nahi izanez gero, ez ditu desberdintzen araua indarrean jartzeko unean jadanik bazeuden egoitzentzat nahitaezkoak ziren eta eraikuntza berriko zentroentzat ziren betebeharren artean, "Pertsona Nagusien Egoitzetarako Gutxieneko Estandar Nazionalak" izenekoan barneratutako arautegi britainiarraren arabera[3]. Formula horrek gaur egungo gutxienekoak antzinako zentroei aplikatzea ahalbidetuko zuen, bai eta eraikuntza berrikoei oinarrizko aspektuetan eskatutako betekizunak hobetzea ere:

  – Horrela, eraikuntza berriko zentro bakoitzean izan beharreko gehieneko plazen kopurua ezarri ahal izango zen, literatura espezializatuak gomendatutako

[3] Pertsona Nagusien Zentroetarako Gutxieneko Estandar Nazionalak (*"National Minimum Standards for Care Homes for Older People"*) Arretaren Estandar Legearen esparruan onetsi dira *(Care Standards Act 2000)*.

dimentsioetara mugatuz. Beraz, egoitza-zentroek izan beharreko neurrien oinarrizko arazoa gure autonomia erkidegoan agerian ikusten ari gara, ikerketa zehatzek baieztatzen dutena aintzat hartuta, horiek arretari buruzko kalitatearen berme izan gabe; horrela, zentro txikiek eta ertainek egitura handiek baino kalitatezko banakako arreta hobea emateko modukoak dira. Kostuei dagokienez, kostu eta eragingarritasunaren arteko loturatik, ikerketek 40 eta 60 plazen bitarteko dimentsioak gomendatzen dituzte[4] ; hala ere, hori ez dator bat hedatutako ideia nagusi batekin, hau da, kopuru gehiago dituzten egoitzek, ekonomia-eskala jakin batzuk ahalbidetzen dituztenez, kostu gutxiago sorrarazten dituztela.

Arauak eraikuntza berriko egoitza-zentroetarako gehieneko plaza-kopurua ez duenez ezarri, Dekretua onetsi denetik, 150 plaza baino gehiagoko beste bi egoitza eta 100 plaza baino gehiagoko beste bost eraikitzea ahalbidetu du, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiaren bitartez, Bideak planaren esparruan, 100 plaza baino gehiagoko beste bost egoitzen eta 240 plazako egoitzaren eraikuntza hedatzea, eta, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik, oraintsu onetsitako Inbertsioen Aparteko Planaren esparruan, 100 eta 120 bitarteko plaza dituen beste bi egoitzen eraikuntza ezarri du. Horrela, Europan finkatutako praktika oneko irizpideetatik eta erkidegoko arretaren filosofiatik urruntzen den eredua jarraitzen da, eta Gizarte Zerbitzuen Legearen arabera, Autonomia Erkidego honetako gizarte-politika horren mende jarri da.

– Intimitatearekin zuzeneko zerikusia duten aspektu material batzuk ere hobetu daitezke, esaterako, banakako logelen proportzioa, gaur egun nahitaez plaza guztien gutxieneko %25ean ezartzen dena. Aurretik aipatu britainiar arautegiak exijitzen du eraikuntza berriko zentroetan plaza guztiak 12m$^2$ banakako logelak izan behar dituztela; izan ere, araua indarrean jartzeko unean jadanik bazeuden zentroak, 2007. urtean, eurek dituzten plazen %80 banakako logeletan ematera presta daitezen. Azken portzentaje hori –%80koa– egoitzan dauden pertsona nagusien beharrizanak modu egokienean errespetatzen duena dugu, laguntza duten pertsonen gehiengoei banakako logela izatea bermatuko die eta, eta, arrazoizko portzentajea erreserbatuko da bikoteentzat edo logela elkarrekin partekatu nahi dutenentzat.

- Ezarri ahal izango lirateke, berebat, arreta banaka ematearen ondoriozko beharrizanetara hobeto egokitutako langileriaren ratioak, gaur egun ezarri zuzeneko arretaren langileriaren ratioak igota eta langileria horren presentzia fisikoaren ratioak ezarrita.

[4] M. Knapp izenekoak orain dela hogei urte defendatu zuen tesia, "*The Economics of Social Care*" deritzona, ondoren, ikerketa batzuen bidez baieztatu izan da; gainera, egin diren azterketa zorrotzek ere ez dute horren aurkakorik azaldu. Gure esparruan, 1996. urtean, Arabako Gizarte-Ongizateko Foru Institutuak eta SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Sailak hala eskatuta, ikerlan bat burutu zuen "Análisis de la variabilidad del coste/plaza condicionada por el tamaño de los centros residenciales" izenekoa, eta bertan, Knappek eskuratutako antzeko ondorioetara iritsi zen.

Araua beharrizanetara egokitzeko duen mailari dagokionez, hiru foru aldundien baimena eta ikuskapena egiteko zerbitzu eskudunek, azken bost urteetan hartutako esperientziaren gain, araua aldatzeko proposamena adostu dute. Proposamen hori, izaera tekniko bikaina izanez, ez du indarreko arautegiaren filosofia eta espiritua asaldatzen, baina hori aurkezten duten zerbitzuen ustez, baimen eta ikuskapen prozesuen esparruan lege-betekizunak interpretatzeko eta aplikatzeko argitasun eta homogeneotasun gehiago bermatzen du. Proposamena Dekretuaren edukiari buruzkoa da, egoitza-zerbitzuen mota ezberdinen betekizun erkideei buruzkoa, egoitzentzat nahitaezkoak diren betekizunei eta etxebizitza komunitarioei aplikatutako betekizunei buruzkoa, une horretan, tutoretzapeko apartamentuak aintzat hartu gabe; izan ere, oraindik ez da horren inguruan egin daitezkeen aldaketen gaineko adostasunik eskuratu. Proposamen hori[5] foru aldundiek Eusko Jaurlaritzaren Gizarte-Ongizatearen Zuzendaritzara lekualdatuko dute, baina zerbitzuei begira oraindik arautzeke dauden arauen lehentasunak daudenez gero, oraingoz, ulergarria izanik, ez dira arauan barneratuko.

Adostutako proposamen horren xede ez diren tutoretzapeko apartamentuei aplika beharreko betekizunei dagokienez, azpimarratzekoa da autonomia-arauketan beharrezkoa dela sartzea zerbitzu gisa erabiltzeko nahiz horren helburuari buruzko zenbait klausula, egoitza-mota horren iruzurrezko erabilera saihestu ahal izateko, batez ere, hasiera batean egoitza-zerbitzuaren erabilerarako baimendutako apartamentuekin higiezinen espekulaziorako arriskua.

*c) Aplikazio-epeak*

Adinekoentzako gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrean urtebeteko epea ezarri da, hori indarrean jartzen denetik zenbatuta, jadanik badauden zerbitzuen erakunde titularrek administrazio eskudunari funtzionamendurako aginduzko baimena eskatzeko, baldin eta aplikatu beharreko betekizun materialak eta funtzionalak betetzen baditu, horren tipologia eta sailkapena aintzat hartuta. Gainera, beraren bigarren puntuan, xedapen iragankor horrek bost urteko gehieneko epea ezarri du, eta horretan, administrazio eskudunak adinekoentzat gizarteko egoitza-zerbitzuak aldi baterako funtzionamenduan jar ditzake, betiere, eraikuntzaren arrazoi teknikoen edota beste mota baten ondorioz, Dekretuan ezarritako betekizun materialen edo funtzionalen bat betetzen ez badute, eta ikuskapen-txostenak zehazten badu erabiltzaileen bizitzaren kalitatean modu larri batean eragina izan dezaketen osasun edo segurtasun aspektuak ez dituela ukitzen. Horrenbestez, bost urteko epea igaro ondoren, tipologiaren araberako betekizun teknikoak bete ez badira, edo bete badira, baina funtzionamenduaren behin betiko aginduzko baimena ez bada eskatu, administrazio eskudunak zentroa itxi behar du. Epea 2004ko apirilaren 8an amaitu zen.

---

[5] Informazioaren ondore garbietarako, 1. eranskinean taula bat barneratzen da; horretan zehaztu dira, alde batetik, lege-betekizunak, eta, bestetik, hiru Foru Aldundietako ikuskapen-zerbitzuek eratutako proposamen teknikoaren edukia.

Aurrekoarekin bat etorriz, aipatzekoa da martxoaren 10eko 40/1998 Dekretua onetsi zenetik garatu den ikuskapen-jarduera, agerian utziz, lehenengoz, lege-betekizunei begira zentroek duten benetako egoera zein den; ondorenez, arautegia indarrean jartzeko unean jadanik abian zeuden egoitza-zentroei baldintza teknikoren bat zorrotz aplikatzea ezinezkoa da kasu batzuetan betetzea, osterantzean, gainerako betekizun tekniko guztiak betetzen dituztela antzematen diren kasuetan, alegia; zenbait kasutan, legearen arabera ezarri gutxienekoak gainditzen dituzte. Beste kasu batzuetan, aldiz, ikus dezakegu egokitzapen-obren betearazpena bideragarria dela, eta, horren ondorioz zenbait betekizun tekniko bete ahal izango zirela, oraingoz, betetzen ez direnak. Aipatu egiaztapenon bidez, foru aldundiek Eusko Jaurlaritzari eskatu die Dekretu arau-emailea aldatu eta honako idazkera hau izan dezan:

- Alde batetik, 7. artikuluari bigarren paragrafo bat gehitzea proposatuko da, idazkera hau izanik:

  *"Dekretu hau indarrean jartzean funtzionamenduan dauden gizarte zerbitzuen kasuan, eraikuntzaren arrazoi teknikoak edo beste mota batekoak direla medio, horri dagozkion I eta IV. eranskinetan ezarri betekizun tekniko material edota funtzional batzuk betetzen ez badituzte, administrazio eskudunak funtzionamenduaren behin betiko baimena eman ahal izango die, betiere ikuskapen-txostenak:*

  – *Dekretuaren zenbait betekizun tekniko ez betetzea eragiten duen arazoa ongitzeko obra-hartunearen bideragarritasun eza, edo, eskuragarri den aurrekontu ekonomikoa aintzat hartuta, egokitzapena proportziozkoa ez den gastua zehazten badu.*
  – *Osterantzean, gizarteko egoitza-zerbitzuek Dekretuaren gainerako betekizun teknikoak behar bezala betetzen dituztela ulertzen badu, eta, horiek erabiltzen dituenen arreta egokia ematen badu.*
  – *Urraketa eragiten duten arrazoiek osasun eta segurtasun aspektuen gain eraginik ez dutela zehazten badu, ezta bizitzaren kalitatearen gain ondore kaltegarria eragin diezaiekeen erabiltzaileen arretarekin zerikusia duten aspektuen gain ere."*

  Estatus hori izateko, egoera horretan aurkitzen diren egoitza-zerbitzuen erakunde titularrek 6 hilabete izango dituzte, 41/1998 Dekretuaren aldaketa indarrean jartzen denetik zenbatuta, administrazio eskudunari arau-betekizunetara egokitu ezin diren txosten teknikoak aurkezteko.

- Egokitu daitezkeenak eta oraindik egin ez dutenentzat, 6 hilabeteko epea proposatzen da, Dekretuaren aldaketa indarrean jartzen denetik zenbatuta, betearazpen-egutegia duen obrak egiteko proiektua aurkez dezaten, betiere funtzionamenduaren behin behieneko baimen-epea ezarriz, hiru urtekoa, alegia. Horrenbestez, lehenagoko arautegian jaso epearen hedapena gertatu da, eta, ikuspegi horretatik, neurri jakin batean, alderatze bidegabea izango da ezarri epeen barruan egokitzapen hori lortzeko ahaleginak egin dituzten erakunde publiko eta pribatuei dagokienez; Egoitzako plazen urritasuna dela eta, aldiz, proposamena egiten dutenen ustez, hori ezinbestekoa egiten du.

Ikerlan hau amaitzeko unean, proposamen horren izapideak egiten dabiltza Eusko Jaurlaritzan; horregatik, ez dakigu azken batean onetsiko den ala ez.

### 1.4.2. ***Pertsona nagusientzat diren eguneko zentroen arautegia***

Gizarte Zerbitzuen Dekretu arau-emailea indarrean jarri eta bi urte geroago, urriaren 17ko 202/2000 Dekretua onetsi zen, laguntza behar duten pertsona nagusientzako eguneko zentroei buruzkoa.

Azken horrek zuen antzeko eskema bati egokituz, beraren zati nagusian izaera orokorreko xedapenak jaso ditu- xedea, erabiltzaileen profila, helburuak, administrazio-jarduna, printzipioak, erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak- eta, eranskin bietan, kalitatearen baldintza materialak eta funtzionalak eta homologazio-irizpideak, hurrenez hurren.

*a) Eguneko zentroen definizioa*

Dekretuak jarduteko duen eremu mugatuaren arabera eguneko zentroak definitzen ditu "*izendapena edo titulartasuna edozein izanda ere, eguneroko bizitzan jarduerak gauzatzeko laguntza behar duten 60 urtetik gorako 5 pertsona nagusi baino gehiagori arreta eguneko zerbitzua banaka emateko programa eskaintzen duen establezimendu oro bezala, bai eta inguruabar pertsonalen edo gizarteko inguruabarren ondorioz talde berean barnera daitezkeenei ere, betiere helburu horretarako zuzendutako gune eta instalazioetan, horri dagokion langileria eta jarduteko programekin batera*"; definizio horretatik beren beregi salbuespen gisa hartzen dira "*zaharren etxeak eta klubak, bai eta egoitzetan egunez egindako egonaldiaren zerbitzua ere*".

Arauak azaltzen du, orobat, ezaugarri hauek betetzen dituzten pertsonentzat direla zentro hauek: batetik, 60 urtetik gorako pertsonak, senideekin bizi direnak eta eguneroko jarduerak egiteko zailtasun-maila ertaina edo handia dutenak (zailtasunen kausak fisikoak nahiz psikikoak izan); eta bestetik, bakarrik edo senideekin bizi diren pertsonak, eguneroko jarduerak, oinarrizkoak edota instrumentalak, betetzeko ezgaitasun txikia dutenak, eta edozein kausa dela-eta (adina, gizarte-babes eza edo gaixotasuna) narriatzeko arrisku aurreikusgarrian daudenak. Hortaz, eguneko zentroetan ezin dira sartu ezgaitasun handia dutenak, bakarrik bizi badira ere.

Oro har, zerbitzu horietan sartzeko salbuetsita daude osasun-arreta sakona behar dutenak eta portaeraren nahasmenduak dituztenak, baldin eta elkarbizitza modu larrian oztopatzen badute edo gainerako erabiltzaileentzat edozein motatako arriskua sortzen badute.

*b) Arauen betekizun materialak eta funtzionalak*

Aurreko kasuan bezala, betekizunak zentro guztietarako izaera orokorrarekin ezarri dira, dekretua indarrean jartzean horiek jadanik bazeuden edo ostean sortu badira kontuan izan gabe. Informazio-ondoreetarako, betekizunok II. eranskinean jaso dira, baina garrantzi handiko zenbait aspektu azpimarratu behar dira.

Positiboen artean, aipatzekoa da, egoitzak arautzen dituen dekretuaren kasuan gertatzen den bezala, arauak, funtsean, Europa mailan pertsona nagusiei emandako arretaren arloan gehien finkatutako praktika oneko irizpideak bereganatzen dituela, eta, baita hark bezala, erabiltzaileen eskubideak aitortzen ditu; aspektuok araua testu modernoan bihurtu dute, zerbitzuaren antolaketa-beharrizanak bakarrik kontuan hartzen ez dituena.

Guztiarekin, laguntza behar duten pertsona nagusientzako eguneko zentroen lehenengo arauketa horretan ere hutsune garrantzitsuak antzeman daitezke; izan ere, neurri jakin batean, benetako beharrizanei gutxi egokitutako zerbitzu-eredu baten finkapena zehaztu du.

Lehenengo tokian, arauak ez du arreta-eredu hori eguneko arreta-zerbitzuen multzo zabalagoan zedarritzen, eguneko zentroak eredu bat izanik beste guztien artean, eta, horrek oztopatu egiten du baliabide hori arretari buruzko beste formula batzuekin bat egiteko osagai malgu gisa antzemateko.

Xedapenek ere ez dute hurbileko zerbitzuaren izaera islatzen, auzo mailan ezarritakoa; horren erabilera bermatzeko, zerbitzuaren oinarrizko ezaugarria izan beharko lirateke, egitura pisutsuak sortzeko joera indartuz, materialen aldetik ondo hornitutakoak izatea eta eguneko arreta osoa eskaintzen dutenak izatea. Izan ere, toki berean, eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretan laguntzeko zerbitzu pertsonalez nahiz animazio-zerbitzuez gain, prestazio osagarri batzuk ematen dituzte, hain zuzen ere, medikuari egin beharreko kontsulta, arreta psikologikoa, edo gizarte-lana, erabiltzaileak kasuan kasuko erkidego-zerbitzuetatik aldentzen dituztenak, eta, neurri horretan, erkidegoko arretaren eredutik baztertzea laguntzen du.

Hain pisutsuak diren baliabideen aprobetxamendua bermatzeko beharrizanak zehaztu du laguntza behar duten pertsonentzako eguneko zentroek nahi zena baino plaza-kopuru handiagoa izan dezaten, arretaren oinarrizko aspektuak bermatzeko asmoarekin. Horrela, gaur egun Autonomia Erkidegoan bi eguneko zentrok dituzte hamar plaza baino gutxiago (6 eta 7 hurrenez hurren), eta orain dela gutxi sortu direnak, esaterako eraikuntza etorkizun hurbil batean egiteko direnak, hogeita hamar plaza gainditzen dituzte.

Zentro txiki eta hurbilen abantailak, ordea, argi eta garbi azaltzen dira, egoitza-zerbitzuen kasuan bezala:

- Hori dela medio, zentro txiki bat, dozena erdi plaza dituena, hori kokatzen den inguruko pertsona nagusientzat zuzendutakoa, zerbitzuaren erabilera malgua ahalbidetuko zuen, pertsona nagusiaren beharrizan eta lehenespenetara egokituta, eta, horren laguntzarako sare soziofamiliarrari buruzko erabilgarritasunetara ere. Hurbiltasunak garraioaren inguruko arazoa ezabatuko zuen, eta askatasun handiagoa eskainiko luke erabileran, programatu gabe zerbitzura jotzeko aukera gehiago emango luke eta hurbileko beste erkidegoko baliabideak eskuratzeko aukera gehiago egongo ziren.

- Zentro txikiak, berebat, barne-antolaketa malgutzeko aukera gehiago ditu. Zentro handietan, ordea, erabiltzaileen kopurua, profesionalen kopurua, programatutako jarduerak, horietarako sarritan beste profesional batzuk kontratatuz, ordutegiak edota jateko txandak direla eta, nahiko funtzionamendu-sistema zorrotza ezarri beharra dago; hala ere, zentroen kokapen eta garraioaren egungo arazoak egongo ez balira ere, eragozpen handiak izango lituzten zerbitzuaren erabileran malgutasunak barne-antolaketaren jarraibideetan izandako ondorioak bereganatzeko.

Komenigarria izango litzateke, sistema malguago bateranzko joera izateko, bai eta erabiltzaileen nahiz laguntzarako sare soziofamiliarretako kideen beharrizanen aniztasunera hobeto egokitzeko ere, arauak plangintza-irizpide bat hartzea, baldin eta horiek eguneko arreta ematen duten unitate txikien eraketaren alde egiten badute, hurbiltasun eta integrazio printzipioak aplikatzearen ondorioz, auzoa baino geografia maila murritzago batean modu egokian banatuz eta laguntza guneen sare zarratua eratuz[6].

Arautegiaren berrikuntza hori behar bestekoa izango zen, eta erabileraren malgutasuna antolaketa-formula horrek eratorriko zuen zuzenean eta berez.

c) *Aplikazio-epeak*

Dekretuak urtebeteko epea ezarri du, indarrean jartzen denetik zenbatuta, une horretan funtzionamenduan dauden zentroen gaineko erakunde titularrek baimena eska dezaten, behin arautako betekizun materialak eta funtzionalak beteta. Epe hori igaro ondoren, 2001. urtean amaitzen dena, horiek bete ez baditu, edo, bete baditu, baina funtzionamenduaren baimena eskatu ez badute, administrazio eskudunak zentroa itxiko du.

Egoitzen kasuan bezala, arauak salbuespeneko egoerak ezarri ditu. Horrela, eraikuntzaren arrazoi teknikoengatik edo beste arrazoi batengatik, zentroek zenbait betekizun betetzen ez badituzte, 5 urteko epea izango dute egokitzeko, betiere ikuskapen-txostenak zehazten badu aipatu urraketek erabiltzaileen bizitzaren kalitatean modu larrian eragin dezaketen osasun edo segurtasun aspektuak ez dituztela ukitzen. Aipatu epe hori igaro ondoren, ez badituzte bete, edo bete badituzte, baina funtzionamenduaren baimena eskatzen ez badute, administrazio eskudunak horiek itxi egin beharko ditu. Zentro guztiak arauen betekizunetara behin betiko egoki daitezen eratxiki zaien 5 urteko epea 2005. urtean amaituko da.

[6] Belgikan, esaterako, indarreko arauketak gutxieneko 5 plaza eta gehieneko 15 plaza ezarri ditu pertsona nagusien eguneko zentroetan. *Arrêté du Gouvernement Wallon modifiant, pour ce qui concerne les centres d'accueil de jour, l'arrêté du Gouvernement Wallon du 3 décembre 1998 portant exécution du Décret du 5 juin 1997 relatif aux maisons de repos, résidences-services et aux centres d'accueil de jour pour personnes âgées.*

### 1.4.3. *Izaera esperimentaleko zerbitzuak*

40/1998 Dekretuak izaera esperimentaleko zerbitzuak eta zentroak baimentzeko aukera aurreikusten du, aparteko izaeraz eta, gehienez ere, bi urteko epeaz. Epe hori amaitutakoan, ebaluaketa kualitatibo baten bidez erakusten bada garatutako arreta-modalitatea alternatiba egoki bat dela, dagozkion eskakizun materialak eta funtzionalak arautuko dira.

Ondo aprobetxatuz gero, formula honek arretarako modalitate alternatiboen eta berritzaileen garapena erraztu beharko luke, oraindik egungo beharren aniztasunera behar adina egokitu gabe dagoen zerbitzu-aukera zabalduz.

## 2. GIZARTE ZERBITZUEN ERABILTZAILEEN ETA PROFESIONALEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

### 2.1. **Eskubideak aitortzea: funtsezko aurrerapen bat araudian**

Gizarte zerbitzuen eremuko eskubideak aitortzea, eta are gehiago egoitzazko arretaren eremuko eskubideak aitortzea, funtsezko aurrerapen bat da gure sistemaren barruan. Duela hamar bat urte arte, egoitzeratutako adineko pertsonen eskubideak ez ziren aipatu ere egiten gure araudian, eta ez ziren azaldu ere egiten egoitzazko praktikan. Pixkanaka, hala ere, sisteman sartuz joan dira, neurri handi batean, eskubideen errespetua arau asistentzialen, zentroen hornidura materialari nahiz langileria-hornidurari dagokienez, edo antolakuntzarako eta funtzionamendurako arauen egokitzapen handiagorako ala txikiagorako erreferentzia-puntu gisa hartzen duten kalitatea ebaluatzeko eta bermatzeko metodoen aplikazioari esker[7] .

Bilakaera horrek eragina izan zuen antolamendu juridikoan, eskubideen aitorpenak zuen garrantzia onartu baitzuen, Gizarte Zerbitzuen Legean Gobernuari zuzendutako agindu bat jasoz. Agindu horren arabera, gobernuak Eskubideen eta Betebeharren Gutun bat egin behar zuen, ondorengo atalean zehazten denaren arabera.

### 2.2. **Gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen eta profesionalen eskubideen eta betebeharren gutuna**

Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legeak, hirugarren xedapen gehigarriak, Eusko Jaurlaritza urtebeteko epean gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen eta profesionalen eskubideak eta betebeharrak jasoko zituen gutun bat prestatzera

[7] Ikuspuntu horretatik, erabakigarria izan zen Erresuma Batuko Osasun Saileko "*Homes are for living in*" izeneko metodoa aplikatu izana Arabako GOFEren mendeko zenbait egoitzatan. Metodo horretan "eskubideen matrize bat" jasotzen zen, eta horren arabera, eskubide bakoitzari eskubide horien gauzatze efektiboan zuzenean nahiz zeharka eragiten duten alderdi material, funtzional eta pertsonalak zegozkion. Zenbait zentrotan modu esperimentalean aplikatu ondoren, GOFEk metodoaren bertsio egokitu bat argitaratu zuen, ondoko izenburu honekin: "Egoitzak bizitzeko dira".

eta onestera behartu zuen. Bere garaian ez zen errespetatu ezarri zen epe hori, eta beste zazpi urte behar izan dira, azkenean, aipatu gutunak argia ikusi zezan, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen eta profesionalen betebeharren eta eskubideen gutuna onesten duen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretu onetsi berriarekin.

Arau hori aitzindaria da Estatu osoan. Horren arabera, administrazio publikoek, dagozkien eskumenen eremuan, eta gizarte zerbitzuak eskaintzen dituzten erakunde pribatuek, araudian zehazten diren eskubideak gauzatu daitezen eta betebeharrak bete daitezen baldintzak sustatzeko betebeharra dute. Era berean, zerbitzu edo zentro bakoitza zuzentzeaz eta kudeatzeaz arduratzen direnek, zerbitzu edo zentro horien izaera publikoa edo pribatua den kontuan izan gabe, gutuneko xedapenetan jasotzen diren eskubideak errespetatzen direla eta betebeharrak betetzen direla zaindu beharko dute, eta testuan aurreikusitako iradokizun eta kexa mekanismoetarako sarbide eraginkorra sustatu beharko dute.

Gutunean aitortutako eskubideak eta betebeharrak ondoren jasotzen dira.

<table>
<tr><th colspan="3">Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak</th></tr>
<tr><th>Eskubidea</th><th>Definizioa</th><th>Erabilera eraginkorra</th></tr>
<tr><td>Duintasuna</td><td>Pertsonen berezko balioa onartzea, edozein egoeratan, bakoitzaren norbanakotasunari eta beharrei zor zaien errespetu osoz.</td><td>• Errespeturik handienaz, gizalegez eta gogo onez onartuak izatea, hala ahozko harremanetan, nola eguneroko jardueretan aritzeko behar dezaketen laguntza fisikoan (halakorik egitekotan), eta tratu txar fisiko edo morala ekarriko duen tratu laidogarri edo lotsarazlerik ez jasotzea.<br>• Banakako arreta jasotzea, norberari egokitutakoa.<br>• Dituzten beharrei eta, ahal den neurrian behintzat, zaletasun edo lehentasunei errespetu osoa ematea, kultura eta erlijio alderdiei begiratuz, batez ere.<br>• Era berean, inongo bazterketarik ez jasatea sexua, sexu-orientazioa, egoera zibila, adina, arraza, sinesmena edo ideologia dela bide, gutxiengo etniko edo linguistikoren bateko partaide izateagatik, maila ekonomikoa, ezgaitasun fisiko, psikiko edo sentsoriala edo beste edozein gorabehera pertsonal edo sozialagatik.<br>• Segurtasun eta higiene baldintza egokietan jasotzea arreta.<br>• Arreta arrazoizko epeetan jasotzea, dekretu honek ezarri dituen gehieneko epeak errespetatuz.</td></tr>
<tr><td>Pribatutasuna eta konfidentzialtasuna</td><td colspan="2">• Pribatutasuna: Pribatutasunerako eskubidetzat hartuko da pertsonak norbere intimitatea eta harremanetarakoa gordetzeko duena, zuzen-zuzenean eta berari bakarrik dagozkion gaietan inoren interferentziarik jaso gabe; horren barruan dago, jakina, bakoitzaren nortasunaren babesa, informazioaren tratamenduaren aurrean gordetzeko eskubidea dago eta.<br>• Konfidentzialtasuna: Konfidentzialtasunerako eskubidearen ondorioz, datu pertsonalak, dagokien espedientean edo edozein dokumentutan daudenak, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak (datu pertsonalen babesari buruzkoak) aurrez ikusi duena erabat errespetatuz tratatu behar dira; horren barruan dago, halaber, profesionalek behar bezalako zuhurtziaz tratatzea gizarte zerbitzuetako erabiltzaileei buruz jakin dituzten datuak.</td></tr>
<tr><td>Autonomia</td><td>Bakoitzak bere kasa jardun eta pentsatzeko duen aukera, nolabaiteko arrisku-maila kalkulatua hartzeko gogoa barne dela.</td><td>• Bakoitzak bere bizimodua aukeratu ahal izatea, zuzenean edo zeharka eragiten dieten erabakietan parte hartu ahal izatea, eta bakoitzaren hautuak edo aukerak errespetatuak izatea.<br>• Eragin diezazkieketen gai guztiei buruzko informazio osoa izatea, ulertzeko moduan idatzia, eta, hala bada, bakoitzaren premietara egokitua.<br>• Jarduera, zerbitzu edo tratamenduetan parte hartzeari uko egin ahal izatea; nolanahi ere, informazio egokia eman beharko zaie aurretik, jarduera, zerbitzu edo tratamenduetan parte hartzeak ala ez hartzeak dakartzan eskubide, betebehar, abantaila, desabantaila edo arriskuei buruz.<br>• Iradokizunak eta kexak aurkezteko bideetara iritsi ahal izatea, baita indarreko legeriak aurrez ikusitako errekurtso administratibo eta judiziala aurkezteko beste edozeinetara ere.<br>• Zerbitzua utzi ahal izatea, hala nahi izanez gero.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><th colspan="3">Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak</th></tr>
<tr><th>Eskubidea</th><th>Definizioa</th><th>Erabilera eraginkorra</th></tr>
<tr><td>Informazioa</td><td>Behar besteko informazioa eskueran izateko eskubidea, gizarte-babeserako sarearen -eta bereziki gizarte zerbitzuen sistemaren- zerbitzu eta prestazioetara iristeko, ahalik eta egokien eta ondoen erabiltzeko moduan.</td><td>Eskubide horren erabilera eraginkorrak informazio zehatza eta argia jasotzea dakarkie erabiltzaileei, ondokoak direla-eta:<br>• Euren eskubideak eta betebeharrak.<br>• Administrazio publikoek jarduera-alor honetan dituzten eskumenak.<br>• Jarduera-alor honetan zer beharrei erantzuten zaien.<br>• Eskueran dauden zerbitzuak eta prestazioak.<br>• Zerbitzu eta prestazioetara iristeko bideak, eta, hala bada, horretarako behar diren formulario edo idazkiak.<br>• Zerbitzuak eskuratu ahal izateko irizpideak.<br>• Zerbitzuaren izaera edo mota, eta zerbitzuaren maiztasuna eta intentsitatea noraino aukera dezaketen.<br>• Zerbitzuei ezarritako tarifak edo prezioak, eta horiek nola kalkulatzen diren.<br>• Administrazio eskumendunek erabiltzailearen beharrak ebaluatu beharra, eta hala bada, arretarako norbanako plana egitea.<br>• Larrialdirik gertatuz gero, eskueran izan ditzakeen zerbitzua, arreta-orduetatik kanpo, batez ere.<br>• Arreta egiten dioten pertsonen izen-abizenak.<br>• Zerbitzuek ikuskapenetan eta kalitate-ebaluazio berrienetan ateratako emaitzak.<br>• Bere beharren ebaluazioaren emaitzak eta beharrizan horientzako egokien irizten zaien zerbitzu eta prestazio-sorta.<br>• Bere espedientearen edukia. Gizarte zerbitzuetako zerbitzu eta zentro publikoen kasuan, horietan dauden artxibo eta erregistroetara zabaltzen da eskubidea, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 37. artikuluak ezarri duenaren arabera.</td></tr>
<tr><td>Beharrak ebaluatzea</td><td>Arrazoizko epe batean, euren beharren ebaluazioa egin dadin eskubidea, premia horiei ondoen egokitzen zaizkien zerbitzu eta prestazioak eskuratu ahal izatea bermatzeko, hala bada.</td><td>• Erabiltzaileek euren beharrei eta horiei erantzuteko moduei buruz egiten duten deskripzioa kontuan hartzea;<br>• Hala bada, laguntza emateko sare naturaleko zaintzaileek erabiltzailearen premiei eta horiei erantzuteko moduei buruz egiten duten deskripzioa kontuan hartzea;<br>• Hala bada, laguntza emateko sare naturaleko zaintzaileek eman dezaketen laguntza kontuan hartzea, baita zer maiztasunarekin eman dezaketen eta laguntza hori emateko gaitasuna ere;<br>• Hala bada, beste zerbitzu publikoren batzuk izan dezaketen informazioa eskatzea, erabiltzaileei behar gabeko eragozpenak eta administrazio-lanak birritan egitea saihesteko; beti ere, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren aurreikuspenak errespetatuta;<br>• Erabiltzaileei informazioa ematea euren beharren ebaluazioan ateratako emaitzei buruz, gizarte zerbitzuek esku hartzeko edo ez hartzeko proposamenaren arrazoiei buruz, eta, ebaluazio horren emaitzekin bat ez etorriz gero, kexa eta erreklamazioa egiteko bideei buruz.</td></tr>
</table>

| Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak | | |
|---|---|---|
| **Eskubidea** | **Definizioa** | **Erabilera eraginkorra** |
| | | • Erabiltzaileek eskubidea dute euren premiak ebalua diezazkieten. Horregatik, gizarte zerbitzuek, eskubide hori bermatzeko, esku hartzeko arrazoizko epeen barruan burutu beharko dute euren jarduna. Inola ere ez da gaindituko 7 egun balioduneko gehieneko epea lehen harremanaren eta gizarte zerbitzuetako profesionalarekin izandako lehen elkarrizketaren artean, ezta 40 egun balioduneko gehieneko epea ere, elkarrizketaren eta ebaluazioaren amaieraren artean.<br><br>Premia larrietan, hasierako harremanaren eta ebaluazioaren amaieraren arteko aldiak inola ere ez du gaindituko 15 egun balioduneko epea, epe horretan izan daitezkeen oinarrizko beharrei berehala erantzuteko behin-behineko irtenbideak gauzatu behar badira ere. |
| **Arretarako banakako plana** | Arrazoizko epe batean arretarako banakako plan bat izateko eskubidea, ebaluazioan hautemandako beharrei egokitua; betiere, premia horiei erantzuteko esku hartzeari ezinbesteko irizten bazaio, eta erabiltzaileak bere adostasuna ematen badu. | • Plana idatziz diseinatzea, erraz ulertzeko moduan, eta, hala behar izanez gero, erabiltzaileen beharrizan bereziei egokituta;<br>• Erabiltzaileei arreta egiteko banakako planaren kopia eskuratzea, eta erabiltzaileek baimena emanez gero, laguntza emateko sare naturaleko zaintzaileei ere;<br>• Arretarako zerbitzuak, prestazioak eta pertsonak zehaztea, baita horietako bakoitzari dagokion zeregina eta esku hartzeko unea ere;<br>• Erreferentziako profesional bat izendatzea, esku hartzeen koordinazio egokiaz arduratuko dena;<br>• Harremanetarako telefonoa adieraztea, estualdietan bertara jo ahal izateko;<br>• Premien ebaluazioa eta arretarako banakako plana noiz berrikusiko diren zehaztea, egokiak diren egiaztatzeko; baita erabiltzaileei, eta, hala bada zaintzaileei, bide bat ematea berrikusteko prozedura horri hasiera eman ahal izan diezaioten aurrez ikusitako egunaz bestelakoan.<br>• Hala bada, dagozkion tarifen zenbatekoa adieraztea, baita tarifa nola kalkulatu den eta ordaintzeko izan daitezkeen moduak ere.<br>• Erabiltzaileek eskubidea dute arretarako banakako plana izateko. Beraz, gizarte zerbitzuek esku hartzeko arrazoizko epeen barruan burutu beharko dute euren jarduna. Inola ere ez da gaindituko 30 egun balioduneko gehieneko epea beharren ebaluazioaren amaiera eta arretarako banakako plana egiten amaitzearen artean.<br>• Arretarako banakako plan oro berrikusi ahal izango da kasuaren ardura duen erreferentziako profesionalak egoki irizten badio, erabiltzaileari arreta egokia bermatzeko. Era berean, erabiltzaileak eskatzen duen guztietan berrikusi beharko da, eta, nolanahi ere, urtean behin. |

| Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak | | |
|---|---|---|
| **Eskubidea** | **Definizioa** | **Erabilera eraginkorra** |
| **Zerbitzuaren kalitatea** | Eskueran dituzten zerbitzu eta zentroek baldintza materialak, funtzionalak eta langileen aldekoak bete ditzaten eskubidea, aplikagarri zaizkien arauetan ezarritakoaren arabera. | Eskubide hori benetan erabili ahal izango dela bermatzeko, erabiltzaileek ondokoak eskatu ahal izango dizkiete zerbitzuak ematen dituzten administrazio publikoei eta erakunde pribatuei:<br>• Indarreko legeriak ematen dizkien zereginak bete ditzatela, baimenak emateari, erregistroari, homologazioari eta ikuskapenari dagokienez, eska dakizkiekeen baldintza materialak, funtzionalak eta langileei buruzkoak betetzen direla bermatzearren.<br>• Zerbitzuek bete beharreko baldintza materialak, funtzionalak eta langileei buruzkoak argitara eman ditzatela, erraz ulertzeko moduan idatzitako liburuxketan, baita erabiltzaileek izan ditzaketen premia bereziei egokituriko beste formatu edo euskarritan ere.<br>• Zerbitzuen kalitatea hobetzea bultza dezatela, barruko eta kanpoko ebaluazioak eginez.<br>• Ikuskapen eta ebaluazio prozeduretan ateratako emaitzak argitara ditzatela, herritarrek, oro har, eta erabiltzaileek, bereziki, gizarte zerbitzuen funtzionamendu eta kostuaren berri izan dezaten, eta gizarte zerbitzuei eska dakizkiekeen baldintza materialak, funtzionalak eta langileei buruzkoak betetzen diren ala ez jakin.<br>• Erabiltzaileen gaineko erabakiak euren beharretan, eta ahal den neurrian, euren lehentasun edo zaletasunetan oinarrituz har ditzatela.<br>• Baldintza materialak, funtzionalak eta langileei buruzkoak etengabeko berrikuspen-prozesuan daudela jotzea, beti hobetu daitezkeelakoan. |
| **Parte hartzea** | Zuzenean edo ordezkarien bidez esku hartzeko eskubidea, zuzenean edo zeharka, banaka edo taldeka eragiten dizkieten erabakietan, eta erabiltzen dituzten gizarte zerbitzuen antolamenduan eta funtzionamenduan. | • Euren premien ebaluazioan parte hartzea, beharrizan horiek eta horiei erantzuteko zerbitzurik egokienak zeintzuk diren zehaztuz, euren iritziz.<br>• Hala bada, ezarriko zaien arretarako banakako plana egiten parte hartzea.<br>• Erabiltzen dituzten zerbitzuen antolamenduan eta funtzionamenduan parte hartzea, partaidetzarako organoen bidez.<br>• Zerbitzuen antolamenduan eta funtzionamenduan parte hartzea, iradokizunak eta kexak aurkezteko prozeduren bidez.<br>• Zentroen eta zerbitzuen funtzionamenduari buruzko salaketak aurkeztea, ikuskatze-prozedurari ekitea ala ez erabakitzeko eskumena duen organoak azter ditzan, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautu dituen martxoaren 10eko 40/1998 Dekretuarekin bat etorriz.<br>• Prozedura horietan entzunaldia emango zaie, eta zerbitzuak aldian-aldian ebaluatzeko prozesuetan ere hartuko dute parte. |

| Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak | | |
|---|---|---|
| **Eskubidea** | **Definizioa** | **Erabilera eraginkorra** |
| **Eskubideak ezagutu eta defendatzea** | Informazioa izateko, parte hartzeko, iradokizunak eta kexak aurkezteko bideetara iristeko eskubidea, eskubideak benetan erabili ahal izateko. | • Idatziz eta ahoz informazioa jasotzea –bakoitzaren ulermenari egokituriko hitzekin, eta, hala behar izanez gero, premia berezietara egokituriko euskarri edo formatuarekin–, ondokoak direla-eta: dekretu honek aitortzen dituen eskubideak, dekretua aplikatzeko eta garatzeko arauetan jasotakoak, eta gizarte zerbitzuetako zentro eta zerbitzuen funtzionamendurako estatutu eta erregelamenduetan ezarritakoak.<br>• Hala bada, idatziz eskuratu ahal izatea arretarako banakako plana, eta plan horretan definitzen diren zerbitzuak jasotzeko modua eta baldintzak.<br>• Beharrak edo premiak ebaluatzeko eta arretarako banakako plana lantzeko egiten diren elkarrizketetan, aholkua emateko gai den konfiantzazko pertsona baten edo gehiagoren laguntza izatea ala ez.<br>• Dekretu honek arautu dituen iradokizun eta kexa prozedurei buruzko informazioa jasotzea, baita indarreko araudiak aurrez ikusi dituen errekurtsoei buruzkoa ere, horiek aurkezteko formularioak eskueran izatea, eta eskumena duen administrazioarengandik erantzuna jasotzea, kasu bakoitzean egokitzen den epearen barruan.<br>• Eskubideak defendatzeko konfiantzazko pertsona bat idatziz izendatzeko eskubidea, edo eginkizun horretarako ordezkaria izendatzeko eskubidea dutela informa diezaieten. |

| Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen betebeharrak | |
|---|---|
| **Betebeharrak** | **Definizioa** |
| **Informazioa ematea** | • Erabiltzaileek egiazko eta beharrezko informazioa eman behar diete gizarte zerbitzuei, beharrak edo premiak ebaluatu, eta, hala bada, arretarako banakako plana egin dezaten. |
| **Barne-araubidea betetzea** | • Erabiltzaileek ezagutu eta bete egin behar dute baliatzen dituzten gizarte zerbitzuetako zentro edo zerbitzuen antolamendua eta funtzionamendua erregulatzen dituzten arauek diotena. |
| **Elkarbizitza-arauak betetzea** | • Erabiltzaileek bete egin behar dituzte elkarrekin bizitzeko eta elkarri errespetatzeko arauak gizarte zerbitzuen zentro eta zerbitzuetan. |
| **Pertsonak errespetatzea** | • Erabiltzaileek errespetatu egin behar dituzte dekretu honek aitortzen dituen eskubide guztiak, eta bereziki, gizarte zerbitzuen zentro eta zerbitzuetako gainerako erabiltzaileei eta profesionalei zor zaizkien duintasun eta pribatutasun eskubideak, baita, edozein arrazoi dela medio, eskuratu duten informazioaren konfidentzialtasuna gordetzekoa ere.<br>• Erabiltzaileek, beste erabiltzaileekiko eta profesionalekiko harremanetan, diskriminaziorik gabe jokatuko dute, sexua, sexu-orientazioa, egoera zibila, adina, arraza, sinesmena edo ideologia dela bide, gutxiengo etniko edo linguistikoren bateko partaide izateagatik, maila ekonomikoa, ezgaitasun fisiko, psikiko edo sentsoriala edo beste edozein gorabehera pertsonal edo sozialak direla eta. |
| **Instalazioak errespetatzea** | • Erabiltzaileek errespetatu eta behar bezala erabili behar dituzte gizarte zerbitzuetako zentroetako ondasun higigarriak eta instalazioak. |
| **Zerbitzu-datak errespetatzea** | • Erabiltzaileek errespetatu egin behar dituzte eurei zerbitzua emateko esandako edota adostutako ordu-egunak, eta aurretiaz abisatu behar dute aurrez ikusitako datari ezin badiote eutsi, zerbitzuari eragozpenik ez sortzeko. |

| Gizarte zerbitzuen profesionalen eskubideak | | |
|---|---|---|
| **Eskubidea** | **Definizioa** | **Erabilera eraginkorra** |
| **Duintasuna** | Gizarte zerbitzuetako profesionalek, euren jardun profesionalean, duintasunerako eskubidea dute, hau da, pertsona gisa duten berezko balioa aitor diezaieten. | • Eskubide horren erabilera eraginkorrak berekin dakar errespeturik handiena, gizalegea eta gogo ona jasotzea, hala zerbitzuen arduradunengandik eta gainerako profesionalengandik, nola erabiltzaileengandik eta haien laguntzaileengandik. |
| **Laneko eskubideak** | Gizarte zerbitzuetan diharduten profesionalek ondoko eskubide guztiak dituzte lan-eremuan edo funtzio publikoarenean: aplikatzeko diren legeriak eta hitzarmen kolektiboek edo lan-baldintzak arautzeko akordioek aitortzen dizkietenak. | |
| **Prestakuntza** | Gizarte zerbitzuetako profesionalek eskubidea dute hasierako informazioa eta orientabidea jasotzeko, zerbitzuaren edo zentroaren berezitasunetara errazago egokitu daitezen; era berean, etengabeko lanbide-heziketa jasotzeko eskubidea dute, jardunean dauden bitartean. | • Eskumena duten administrazio publikoek, sektoreko enpresa eta sindikatu erakundeekin batera, etengabeko prestakuntzarako planak eta beste neurri batzuk sustatuko dituzte, profesionalen birziklatzea ahalbidetu, ezagupenak hobetu, eta profesionalen gaitasunak hobeto egokitzeko arreta jasotzen duen biztanleriaren ezaugarriei eta sektorean egindako azterlan eta ebaluazioen emaitzei. |
| **Parte hartzea** | Gizarte zerbitzuetako profesionalek parte hartzeko eskubidea dute. | • Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak aurrez ikusi dituen aholku eta partaidetza organoetan edota sor daitezkeen beste batzuetan parte hartzea.<br>• Zerbitzu eta zentroen funtzionamenduari buruzko salaketak aurkeztea. Eskumena duen organoak aintzat hartu beharko ditu, eta ikuskapen-prozedurari ekitea ala ez erabaki, martxoaren 10eko 40/1998 Dekretuak aurrez ikusi duenarekin bat. Dekretu horrek, gogoratu, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautu ditu.<br>• Prozedura horietan entzunak izatea eta zerbitzuen aldizkako ebaluazio-prozeduretan parte hartzea. |
| **Zerbitzuaren kalitatea** | Gizarte zerbitzuetako profesionalek ondoko eskubidea dute: zerbitzua arauek eskatzen dituzten kalitate-irizpideen arabera eman ahal izango dutela bermatzeko behar diren baliabideak eskueran edukitzekoa. | Eskubide hori benetan erabili ahal izango dela bermatzeko, profesionalek ondokoak eskatu ahal izango dizkiete zerbitzuak ematen dituzten administrazio publikoei eta erakunde pribatuei:<br>• Indarreko legeriak ematen dizkien zereginak bete ditzatela, baimenak emateari, erregistroari, homologazioari eta ikuskapenari dagokienez, eska dakizkiekeen baldintza materialak, funtzionalak eta langileei buruzkoak betetzen direla bermatzearren.<br>• Zerbitzuari aplika dakizkiokeen baldintza material, funtzional eta langileei buruzkoen berri eman diezazkietela, behar bezala. |

| Gizarte zerbitzuen profesionalen eskubideak | | |
|---|---|---|
| **Eskubidea** | **Definizioa** | **Erabilera eraginkorra** |
| | | • Lanbide-jardun egokiari buruzko eskuliburuak eskura diezazkietela, euren zereginak behar bezala betetzeko, eta erabiltzaileekiko, haien laguntzaileekiko eta gainerako profesionalekiko harremanetan zuzen jokatzeko jarraibideak erakusteko.<br>• Zerbitzuen kalitatea hobetzea bultza dezatela, barruko eta kanpoko ebaluazioak eginez.<br>• Ikuskapen eta ebaluazio prozeduretan ateratako emaitzak argitara ditzatela, gizarte zerbitzuen funtzionamendua, kostua eta dagozkien baldintza materialak, funtzionalak eta langileei buruzkoak betetzen diren ala ez jakin ahal izateko.<br>• Baldintza materialak, funtzionalak eta langileei buruzkoak etengabeko berrikuspen-prozesuan daudela jotzea, beti hobetu daitezkeelakoan. |

| Gizarte zerbitzuetako profesionalen betebeharrak | |
|---|---|
| **Betebeharrak** | **Definizioa** |
| **Lan-betebeharrak** | • Gizarte zerbitzuetan diharduten profesionalek ondoko betebehar guztiak dituzte, lan-eremuan edo funtzio publikoarenean: aplikatzeko diren legeriak eta hitzarmen kolektiboek edo enplegu-baldintzak arautzeko akordioek ezartzen dizkietenak. |
| **Jakinarazi beharra** | • Gizarte zerbitzuetan diharduten profesionalek eskumena duen agintariari jakinarazi behar diote edozein gorabehera, baldin eta, profesionalen iritziz, eta eskueran dituzten balorazio-elementuez baliatuz, eskubideak urratzea ekar badezake, indarreko legerian aurrez ikusitakoaren arabera; bereziki, Adingabekoaren Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren arabera (Lege horrek Kode Zibila eta Prozedura Zibilari buruzko Legea ere aldatu zituen). |
| **Gizarte zerbitzuei buruzko arauak eta barne-araubidea betetzea** | • Profesionalek ezagutu eta bete egin behar dituzte gizarte zerbitzuen alorrean indarrean dauden arauak, eta, bereziki, lanean diharduten gizarte zerbitzuetako zentro eta zerbitzuen antolamendua eta funtzionamendua arautzen dutenak. |
| **Elkarbizitza-arauak betetzea** | • Profesionalek bete egin behar dituzte elkarrekin bizitzeko eta elkarri errespetatzeko arauak, bai gizarte zerbitzuak ematen dituzten zerbitzu eta zentroetan, bai euren jarduerekin zerikusia duen beste edozein tokitan ere. |
| **Pertsonak errespetatzea** | • Profesionalek errespetatu egin behar dituzte dekretu honek aitortzen dituen eskubide guztiak, eta bereziki, gizarte zerbitzuen gainerako profesionalei eta erabiltzaileei zor zaizkien duintasun eta pribatutasun eskubideak, baita eginkizunak betetzea zein beste edozein arrazoi dela medio eskuratzen duten informazio pertsonalaren konfidentzialtasuna gordetzekoa ere.<br>• Erabiltzaileari buruzko informazioa arduraz erabili beharko dute, baita hura eskuratzeko errespetuz jokatu ere, beharrezkoa dela justifikatuz eta erabiltzeko baimena eskatuz, esku hartze koordinatuak eta eraginkorrak hala eskatzen duenean; hori guztia, Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak aurrez ikusi duenaren arabera.<br>• Profesionalek beste profesionalekiko eta erabiltzaileekiko harremanetan, diskriminaziorik gabe jokatuko dute, sexua, sexu-orientazioa, egoera zibila, adina, arraza, sinesmena edo ideologia dela bide, gutxiengo etniko edo linguistikoren bateko partaide izateagatik, maila ekonomikoa, ezgaitasun fisiko, psikiko edo sentsoriala edo beste edozein gorabehera pertsonal edo sozialak direla eta.<br>• Profesionalek errespetatu egin behar dituzte erabiltzaileen edo haien legezko ordezkarien iritzi, irizpide eta erabakiak.<br>• Profesionalek parte hartzea erraztu behar diete erabiltzaileei, egin beharreko esku hartze profesionalaren definizioan.<br>• Erabiltzaile bat beste zerbitzu batera edo batzuetara bidali behar bada, profesionalak beti jokatuko du erabiltzailearen alde, esku hartzeak jarraikortasuna izan dezan ahaleginduz. |
| **Instalazioak errespetatzea** | • Profesionalek errespetatu eta behar bezala erabili behar dituzte lanean diharduten gizarte zerbitzuetako zentroetako ondasun higigarriak eta instalazioak, baita euren jarduerekin zerikusia duen beste edozein tokitakoak ere. |
| **Irregulartasunen berri ematea** | • Profesionalek zerbitzuaren arduradunari jakinarazi behar dizkiote –edo, beharrezko irizten badiote, zerbitzua atxikita dagoen saileko arduradunari, edo ikuskapen-eginkizuna bere eskumen duen unitateari- zentroaren funtzionamenduan, antolamenduan edo instalazioetan hautemandako irregulartasunak. |
| **Esku hartzeko egunak eta epeak errespetatzea** | • Profesionalek errespetatu egin behar dituzte erabiltzaileei esandako edota haiekin adostutako ordu-egunak, elkarrizketa egiteko edo zerbitzua emateko, eta aurretiaz abisatu behar dute aurrez ikusitako datari ezin badiote eutsi, erabiltzaileei alferrikako eragozpenik ez sortzeko.<br>• Profesionalek errespetatu egin behar dituzte arretarako banakako planek esku hartzeetarako ezarri dituzten epeak, eta, betiere, dekretu honek aurrez ikusi dituen gehienezko epeei jaramon egin. |

Testuak, gainera, iradokizunak eta kexak aurkezteko, bideratzeko eta ebazteko berariazko prozedura bat ezartzen du. Hori eraginkorra izateko, arauak aurreikusten du erabiltzaileek ondoko bideak izango dituztela euren esku iradokizunak eta kexak aurkezteko:

- Gizarte zerbitzuetako zentro bakoitzean dauden iradokizun eta kexa kutxak; erraz ikusteko moduko lekuetan egongo dira, idatzizko eskariak uzteko eran;
- iradokizunak eta kexak, postaz, posta elektronikoz edo faxez bidaltzeko aukera;
- zeregin horietarako bereziki izendaturiko unitateak, erabiltzailearentzako arreta-unitate izenekoak; iradokizunak eta kexak aurkeztu nahi dituztenei arreta egiteko ardura izango dute, prozedurari buruzko informazioa emateko, eta eskaria erregistratu eta izapidetzeko.

Erabiltzailearen arretarako unitate horiek zerbitzuan edo zentroan bertan integratutako unitateak izan daitezke, edo baita zerbitzutik edo zentrotik kanpo daudenak ere. Bi kasuetan lehendik dauden unitateak izan daitezke, betiere horien izaeragatik eta profesionalen eta erabiltzaileen artean ezartzen dituzten harreman-motagatik beren funtzioak eta iradokizunak eta kexak bideratzeari dagozkion funtzioak bateraezinak ez direnean.

Iradokizunen kasuan, unitate horren ardura da iradokizunak aztertu, bideragarritasuna zehaztu eta dagokion proposamena zerbitzuko edo zentroko Zuzendaritzari helaraztea. Horretarako, zentro edo zerbitzuko beste erabiltzaile edo profesional batzuen iritzia ere eska dezake. Aurkeztutako iradokizunei emandako erantzuna erabiltzaileari edo erabiltzaileei jakinarazi behar zaie, 30 eguneko epearen barruan, gehienez ere, proposamena jaso zenetik kontatzen hasita. Iradokizun guztiak, gainera, erregistro batean jasoarazi beharko dira.

Kexei dagokienez, arreta-unitatearen ardura da kexa jaso duela adierazita uztea, erregistratzea eta berau izapidetzea 20 laneguneko gehieneko epean. Izapidetzeak, bestalde, ondoko jarduerak har ditzake: bitartekotza-proposamenak egitea, kexaren gaiaren izaerak horretarako bide ematen badu, eta kexa aurkeztu duenak hala onartzen badu; kexaren gai diren egintzak eta gertakariak zehatz-mehatz ikertzea, dagokion txostena eginaz; eta planteaturiko gatazka konpontzeko hartu beharreko neurriak proposatzea. Izapidetzea bukatu ondoren, erabiltzailearentzako arreta-unitateak jarduera guztiak helarazi beharko dizkio Zerbitzu edo Zentroaren zuzendari edo arduradunari, eta honek, 30 laneguneko epean, jakinarazpen idatzia bidali beharko die interesatuei eta zuzenean ukitutako langileei, aurkeztu duten kexa zer izapidetan dagoen adierazteko, eta, hala balitz, hartutako irtenbidearen berri emateko. Kexa izapidetzearen ondorioz agerian geratzen bada egintzak oso larriak direla, administrazioko arau-hausteren bat izan daitekeela edo gutunean jasotako eskubideak urratu egin direla, erabiltzailearentzako arreta-unitateak kasu bakoitzean ikuskatzeko eskumena duen administrazio-unitateari helaraziko dizkio ordura arteko jarduketak.

Azkenik, kexa guztiak artxibo batean gorde beharko dira, betetako kexa-formularioekin eta baita izapidetzerakoan sortutako dokumentazioarekin ere, eta horien edukia zehatz-mehatz jaso beharko da horretarako sortutako erregistro batean.

Dekretua duela oso gutxi sartu denez indarrean, ezin izan dugu egiaztatu ikerketaren xede izan diren zentroetan erabiltzailearekiko arreta-unitateak dauden ala ez. Hala ere,

egiaztatu ahal izan dugu aztertu diren egituretatik %75ean kexak aurkezteko prozedura formalak daudela.

Eskubideak defendatzeko bide horien erregulazioa gai honetan aurreratuen dauden herrialde europarretako gizarte zerbitzuen ereduek defendatzen dituzten gomendioen ildotik doa.

## 2.3. Eskubideak eta betebeharrak bariazko zerbitzuak arautzen dituzten araudietan

Eskubideen eta Betebeharren Gutunak, bere lehenengo xedapen gehigarrian, ezartzen du Administrazioaren baimena jasotze aldera gizarte zerbitzuetako zentro eta zerbitzuei eskatzen zaizkien betebehar materialak, funtzionalak eta langileei buruzkoak erregulatzen dituzten arauek ondokoak ere arautuko dituztela: erabiltzaileei eta profesionalei dagozkien eskubide eta betebeharrak, zerbitzu bakoitzaren izaeraren arabera, eta gutunean azaltzen direnak errespetatuz, betiere.

Gutunaren aurrekoak izanik ere, adineko pertsonentzako egoitzazko zerbitzuek eta eguneko zentroek bete beharreko eskakizunak arautzen dituzten araudiak agindu berri honetara doitu dira, beren artikuluetan ondoko eskubide eta betebeharrak jasoz.

| Egoitzazko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak | |
|---|---|
| **Eskubideak** | **Betebeharrak** |
| • Zentroetara joateko eta asistentzia jasotzeko, inolako bereizketarik egiteke sexua, arraza, erlijioa, ideologia edo beste edozein baldintza edo gorabehera pertsonal edo sozial dela-eta.<br>• Behar duten arreta jasotzeko, zuzentasunez, errespetuz eta ulermenez, banan bana eta bakoitzari dagokion moduan.<br>• Beren intimitatekoak diren datu pertsonalak konfidentzialtasunez tratatzeko<br>• Pertsonen arteko harremanak mantentzeko, eta baita kanpoko bisitak jasotzeko ere.<br>• Erabiltzaile diren aldetik, beren eraginpekoak edo interesekoak diren edozein gairi buruzko informazioa eta aholkua jasotzeko.<br>• Intimitatea errespetatzeko, egoitzazko gizarte zerbitzuen egitura-baldintzen arabera, eta beren bizimodua hautatzeko autonomiaren arabera.<br>• Gizarte, osasun, farmazia, hezkuntza eta kultura arreta eta, oro har, garapen psikiko eta fisiko egokia lortzeko ezinbestekoak diren behar pertsonal guztiak edukitzea.<br>• Zentroko zuzendaritzari proposamenak edo erreklamazioak aurkezteko, zerbitzuei funtzionamenduari buruz edo horiek hobetzeari buruz, eta eskatutakoaren gainean erantzuna jasotzeko.<br>• Zerbitzuak erabiltzeari uzteko edo zentroan jarraitzeari borondatez uko egiteko.<br>• Erraz ulertzeko moduko lengoaian, eskubide hauen edukiaz eta horiek modu eraginkorrean gauzatzeko bideez informatuak izateko. | • Zentroaren erabilera-arauak ezagutu eta bete beharko dituzte. Arauok zentroaren barne-araubideko erregelamenduan ezarriko dira.<br>• Elkarrenganako errespetuz, tolerantziaz eta lankidetzaz jokatzea, ahalik eta elkarbizitzarik onena lortzeko. |

| Eguneko zentroen erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak | |
|---|---|
| **Eskubideak** | **Betebeharrak** |
| • Zentroetara joateko eta asistentzia jasotzeko, inolako bereizketarik egiteke sexua, arraza, erlijioa, ideologia edo beste edozein baldintza edo gorabehera pertsonal edo sozial dela-eta.<br>• Erabiltzaile diren aldetik, beren eraginpekoak edo interesekoak diren edozein gairi buruzko informazioa eta aholkua jasotzeko.<br>• Behar duten arreta jasotzeko, zuzentasunez, errespetuz eta ulermenez, banan bana eta bakoitzari dagokion moduan.<br>• Beren intimitatekoak diren datu pertsonalak konfidentzialtasunez tratatzeko.<br>• Intimitatea errespetatzeko. Besteak beste, gernu-ihesaren arazoei tratamendu egokia emango zaie, erabiltzaileak bainatzen ari direla intimitatea bermatuko zaie eta pertsonarteko harremanak edukitzeko askatasuna edukiko dute.<br>• Zentroko zuzendaritzari proposamenak edo erreklamazioak aurkezteko, zerbitzuei funtzionamenduari buruz edo horiek hobetzeari buruz, eta eskatutakoaren gainean erantzuna jasotzeko.<br>• Zerbitzuak erabiltzeari uzteko edo zentroan jarraitzeari borondatez uko egiteko. | • Zentroaren erabilera-arauak ezagutu eta bete beharko dituzte. Arauok zentroaren barne-araubideko erregelamenduan ezarriko dira.<br>• Elkarrenganako errespetuz, tolerantziaz eta lankidetzaz jokatzea, ahalik eta elkarbizitzarik onena lortzeko. |

## 2.4. Eskubideak eta betebeharrak barne-erregimeneko erregelamenduetan

Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak hirugarren maila batean ere arautzen dira: gizarte zerbitzuetako zerbitzuek eta zentroek eduki behar dituzten barne-erregimeneko erregelamenduak.

Hori horrela, egoitzazko zerbitzuen kasuan, adineko pertsonentzako egoitzatako gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuak xedatzen du, gizarte zerbitzu guztientzako baldintza materialak eta funtzionalak arautzen dituen I. Eranskineko 4. atalean, zentroek erregelamendu bat eduki ahal izango dutela, eta araudi horrek, beste gauza askoren artean, zentroko erabiltzaileen eta langileen eskubideak eta betebeharrak azalduko dituela. Gauza bera esan behar da adineko mendeko pertsonentzako eguneko zentroak arautzen dituen dekretuari buruz (kalitate materialeko eta funtzionaleko baldintzak ezartzen dituen I. Eranskineko 4. atala).

Praktikan, eta txosten honetako IV. Kapituluan zehaztutako zentroen azterketan bildutako datuen arabera, azterlanean parte hartu duten egoitzazko zerbitzuen %86k adierazi zuten barne-erregimeneko erregelamendu bat zutela, nahiz eta horietako %40k bakarrik igorri zioten aipatu dokumentuaren kopia bat azterlana egiteaz arduratu den taldeari; eguneko zentroen kasuan, zifra horiek %85era eta %16ra iristen dira, hurrenez hurren. Aztertu ziren erregelamendurik gehienek dute erabiltzaileen eskubideei eta betebeharrei buruzko berariazko atal bat. Bertan, araudi autonomikoan aldarrikatutako zenbait eskubide jasotzeaz gain, zentroko eguneroko bizitzarekin modu zuzenagoan erlazionatutako eskubideak eta betebeharrak zehazten dira.

## 2.5. Erabiltzaileen eskubideak egoitza-praktikan

Erabiltzaileen eskubideak araudietan aitortzearen azkeneko helburua izanik, horiek egoitza-praktikan duten garrantzia zehazten eta nabaritzen hasia da. Horrela, nahiz eta eskuratu diren lorpenak oraindik ez diren nahikoak eta nabarmen hobetu daitezkeen, zalantzarik gabe egungo egoera duela hamabost urteko egoera baino askoz ere hobea da.

Alde batetik, profesionalen artean ezagutza eta, batez ere, gai horren inguruko kontzientziazio handiagoa dago: erabiltzaileen eskubideak errespetatzen direla bermatzeko zenbait jarduera-arau jakin duela gutxira arte egoitzatako funtzionamenduan oso ohikoak izan diren beste batzuk baino hobeak direla jakiteaz gain, horrek duen garrantziaz jabetzen hasiak dira.

Bestalde, kalitatea ebaluatzeko eta bermatzeko nahiz baimenak emateko eta ikuskapenak egiteko dauden kanpoko zenbait mekanismori esker, erabiltzaileen eskubideek leku handiagoa dute zerbitzua diseinatzerakoan eta arau asistentzialak antolatzerakoan.

Hala eta guztiz ere, prozesu oso mantsoa dela aitortu behar da. Lan egiteko moduan jarrera aldatzea eskatzen du, eta, ondorioz, egitekoak ohitura bilakatzean oso oinarrituta dauden egitura horietan hain erraz sustatzen ez den aldaketa-borondatea ere beharrezkoa da. Izan ere, maiz, arretaren indibidualizazioa, lagundutako pertsonen beharretara hobeto egokitzeko modua dela aitortzen bada ere, funtsean, egoitzako antolaketa asaldatzen duen elementu gisa hartua izan ohi da.

Funtsezkoa da, ikuspegi horretatik, sentsibilizazio-lan bat egitea; sentsibilizazio-lan horren xedea izango da erabiltzaileen eskubideak egoitzaren antolaketak dituen eskakizunekin uztartzea. Horrela, zentroen funtzionamenduan tradizionalki erabakigarria izan den egoitzaren antolaketa egokitu egin beharko da egoitzako bizitzan parte hartzen duten taldeetatik zaurgarriena den kolektiboaren eskubideak errespetatzeko, sustatzeko eta defendatzeko beharretik eratorritako eskakizunetara.

# 3. ADINEKO PERTSONEI ZUZENDUTAKO ARRETA-ZERBITZUAK JASOTZEKO BIDEAK

## 3.1. Etxeko laguntza zerbitzua jasotzea

Etxeko laguntza zerbitzua, kasu orotan, eskatzailearen bizilekuari dagokion oinarrizko gizarte zerbitzutik jasotzen da. Izan ere, oinarrizko gizarte zerbitzu hori da behar den zerbitzu-mota eta horren intentsitatea zehazteaz arduratzen dena. Hortik aurrera, zerbitzuaren antolaketak desberdintasun nabarmenak ditu hiru lurralde historikoen artean.

**Araban**, egun, bi sare daude:

- Alde batetik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak lurralde historiko osoan mendeko pertsonei eskaintzen zaien zerbitzua eta lurralde historiko osoan, Gasteizen salbu, mendekoak ez diren pertsonei eskaintzen zaien zerbitzua kudeatzen ditu.

- Bestalde, hiriburuko Udalak udalerri barruan dauden eta mendeko gisa sailkatuta ez dauden pertsonei zuzendutako zerbitzua kudeatzen du.

Gizarte-arloko eginkizunak zehazteari buruzko uztailaren 30eko 155/2001 Dekretua indarrean sartu ondoren, Foru Administrazioak eta Gasteizko Udalak elkarrizketak izan zituzten, hiriburuko mendeko pertsonei eskaintzen zitzaizkien zerbitzuen kudeaketa Udalera igortzeko asmoz, zegokion hornidura ekonomikoarekin, eta, horrela, beste bi lurralde historikoetako antolaketa-formulara igaroz. Une hartan, negoziazioek ez zuten aurrera egin, nagusiki udalak uste zuelako hornidura ekonomikoa ez zela zerbitzuaren kudeaketa administratiboaren kostuak estaltzeko behar adinakoa, baina baita ere ez zelako adostasunik egin ez mendekotasun-maila zehazteko erabili behar zen tresnari dagokionez eta ezta, horietako bat aukeratuz gero, mendekotasuna aitortzeko beharrezkoa zen puntuazioari dagokionez ere. Une honetan, gai horrek konpondu gabe egoten jarraitzen du, eta, ondorioz, aplikatzen den sistemak deskribatutakoa izaten jarraitzen du.

Etxeko laguntza zerbitzuen prestazioa arautzen duen 1998ko urriaren 13ko araudian Foru Aldundiak kudeatutako zerbitzura sartzeko baldintzak eta prozedura zehazten dira. Hori horrela, eskatzaileak ondoko eskakizun hauek bete beharko ditu:

– Bere benetako bizilekua Araban edukitzea eta eskabidea aurkezteko egunaren aurretik urte batez gutxienez bertako edozein udalerrietako batean erroldatua egotea. Gerta daiteke baldintza hau betetzetik salbuetsita egotea, zerbitzua eskatzen den pertsona edo pertsonak senideen arteko txandakako egoeran edota sortutako krisi egoera batek eraginda helbidetik aldatu delako egoeran aurkitzen direnean.
– Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzu teknikoen aldeko txostena izatea.

Eskaerarekin batera ondoko agiri hauek aurkeztu beharko dira:

– Pertsona eskatzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia eta, hala gertatzen denean, zerbitzuaren hartzaile izango den pertsonarenak eta baita elkarrekin bizi diren guztienak ere.
– Ondasunen zinpeko aitorpena.
– Banku baimena, zerbitzuen prezio publikoak kobratu ahal izateko.
– Eskatzailearen iritziz zerbitzuaren beharra zehazteko garrantzitsuak diren txostenak.

Eskatzaileari dagokion oinarrizko zerbitzuak eskaera bakoitza aztertu beharko du, eskatzailearen beharrak zehazteko helburuarekin, eta, ondoren, ondoko puntu hauek jasoko dituen txosten bat igorriko du:

– Burujabetza-mendekotasun maila eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko.
– Famili eta gizarte laguntza-emate eta babeste maila.
– Bere beharkizunak betetzeko, hala denean, behar dituen prestaketak.
– Zerbitzua emateagatik ordaindu behar den prezio publikoa jartzean onura edo murrizpen bat aplikatzea eragiten duten gizarte eta ekonomia inguruabarren kontsiderazioa.

Txosten hori Gizarte Ongizateko Foru Erakundera igortzen da, etxeko laguntza zerbitzuaren arduradun den Balio Anitzeko Gizarte Zerbitzuen Arloko Zuzendaritzak adierazi dezan bere ebazpen-proposamenean ea prestazioa eman behar zaion ala ez, erantzuna arrazoituz eta laguntza-mota, zerbitzuaren ordu-kopurua eta, hala behar izanez gero, zerbitzuaren iraupena nahiz ordaindu beharreko prezio publikoa zehaztuz. Ebazpena foru erakundeari dagokio.

Gasteizko Udalak, bere aldetik, bere araudi propioa aplikatzen du, eta, mendekoak ez diren pertsonei etxeko laguntza zerbitzua eskaintzeko helburuarekin, autonomia-mendekotasun maila neurtzeko bere balorazio-tresna propioa erabiltzen du –Geronte eskala–. Eskala horren arabera eskatzailea mendekoa dela ulertzen duenean, kasua Foru Aldundira igortzen du, bera izan dadin zerbitzua eskainiko duena. Eskatzailea autonomiaren eta mendekotasunaren arteko mugan aurkitzen denean, berriz, parte hartzen duten erakunde desberdinek eskala desberdinak erabiltzeak zaildu egiten du erabakia. Oro har, balizko horiek kasuz kasu erabaki ohi dira udaleko etxeko laguntza zerbitzuko arduradun baten eta Foru Aldundiko beste baten artean, kasua Adinekoen

Baloraziorako Batzordera izapidetu gabe. Batzorde horrek, ondoren ikusiko dugun bezala, egoitzazko zerbitzuetako eta eguneko zentroetako plazen esleipenean esku hartzen du.

Beste bi lurralde historikoetan, ELZ sare bakarrean mantentzen da. Sare horri udal mailan kudeatzen da:

- **Bizkaian**, oinarrizko gizarte zerbitzuek zehazten dute zein zerbitzu-mota eta zein intentsitate-maila dagozkien bai mendekoak ez diren adineko pertsonei eta baita mendekoak direnei ere. Horretarako, dagokion udal araudian aurreikusitako baldintzak eta prozedurak aplikatzen dira. Hori dela-eta, lurralde historikoaren barruan baldintza oso desberdinak aurki ditzakegu. Foru Aldundiak zerbitzu horren eskaintzan duen parte hartzea mendeko pertsonei eskaintzen zaien zerbitzuaren finantzaziora mugatzen da, 4.2 atalean jasotzen diren baldintzatan.

- **Gipuzkoan**, oinarrizko gizarte zerbitzuek, etxeko laguntza-eskaera bat jasotzen dutenean, gizarte eta familia txosten bat egiten dute, eta baremo ekonomikoa aplikatzen dute. Ondoren, dokumentazio hori guztia Foru Aldundira igortzen dute, bertan mendekotasun-maila baloratu dadin eta erabiltzailearen ekarpen ekonomikoa zehaztu dadin. Kalifikazioa edozein delarik ere, oinarrizko gizarte zerbitzua da komeni den zerbitzu-mota eta intentsitatea erabakitzen duena. Hala ere, oro har, mendeko gisa kalifikatzen diren pertsonen kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarritako gehieneko ordu-kopurua errespetatzen da (ikus finantzazioari buruzko 4.2 atala).

Mendekoak ez diren pertsonei zuzendutako ELZri dagokionez, udal bakoitzak sartzeko baldintzei eta prezio publikoei buruz duen araudi propioa aplikatzen du. Hori dela-eta, Bizkaian eta Gipuzkoan Erakunde honek duela hamar urte argitaratu zuen txostenean (*"Euskal Autonomia Erkidegoan egoitzez kanpo adinekoentzat dagoen laguntzari buruzko txosten berezia")* jasotzen den egoera-aniztasuna bizi da.

## 3.2. **Egoitzazko zerbitzuetan sartzea**

Gizarte zerbitzuen alorreko egitekoak zehazten dituen uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuak ezartzen du mendeko pertsonei eskaini beharreko egoitzazko arreta Foru Aldundien erantzukizuna dela (3.1.1.5 artikulua), eta mendekoak ez diren pertsonen egoitzazko alternatibak, bereziki etxebizitza komunitarioak eta tutoretzapeko apartamentuak, udalen erantzukizuna dela (4.1.8 artikulua).

Taulan hiru lurraldeetako egoitzazko zerbitzuetara sartzeko sistemen ezaugarri nagusiak jasotzen dira.

**Egoitzazko plazetan sartzeko baldintzak eta prozedurak foru araudietan**

| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|
| **Araudia** | Gizarte zerbitzuetako zentroen foru sarean erabiltzaileak sartzeko eta lekualdatzeko erregimenaren erregelamendua onartzen duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 25eko 18/2003 Foru Dekretua. | Adinekoak Aldundiaren egoitza publikoetan edota itunduetan sartzeko eta besteren gizarte zerbitzuetako egoitzatan sartzeko laguntza ekonomikoak emateko sistema araupetzen duen apirilaren 3ko 63/2001 Foru Dekretua. | Gipuzkoan pertsona adinduentzat plazak lortzeko arauak ezartzen dituen apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretua. |
| **Sartzeko baldintzak** | | | |
| ***Adina*** | • 60 urte beteta izatea gutxienez. | • Adineko pertsona izatea, adineko pertsonatzat ulertuz:<br>– 65 urte baino gehiagoko pertsonak.<br>– 60 urte baino gehiagoko pentsiodunak.<br>– Ezintasun fisiko edo psikiko bat izanik, beren egoera pertsonal, familiar edo sozialak direla-eta egoitza-zentro batean sartze komeni diren 50 urtetik gorako pentsiodunak. | • 60 urteak beteta izatea. |
| ***Erroldatzea*** | • Arabako Lurralde Historikoko edozein udalerritan erroldatuta egotea, gutxienez eskaera aurkezten den dataren aurreko hiru urte jarraituetan. | • Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta egotea, gutxienez, 3 urte lehenagotik, eskabidea egiten denetik zenbatuta. Erroldaketa–aldia zenbatzeko, kontuan hartuko dira Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietako ondoz ondo izandako erroldaketak. Azkeneko administrazio-auzotartasuna Bizkaian eduki ondoren azken hamabost urteetan (foru dekretu hau indarrean jartzen denean zenbaturik), edo gehiagoan, atzerrian bizi izan direnak hori bete beharretik salbu gera daitezke, baldin eta Espainiako naziotasuna badute eta Bizkaira itzultzeko asmoa badute. | • Gipuzkoako edozein udalerritan erroldatuta egotea, gutxienez, eskaera eguna aurreko azken 24 hilabeteetan. Baldintza hori ez da beharrezko izango Gipuzkoan jaio edo eskaera egin aurreko 10 urtean gutxienez 24 hilabete bizi izan direlarik, familia elkarbiltzeko edo izaera sozialeko arrazoiak zuritzen dituzten pertsonentzat. |
| ***Bizitokia*** | • Bere ohiko bizitokia, zergen ondorioetarako, Arabako Lurralde Historikoan izatea, amaitutako azkeneko bi ekitaldietan. | | |

| Egoitzazko plazetan sartzeko baldintzak eta prozedurak foru araudietan | | | |
|---|---|---|---|
| | **Araba** | **Bizkaia** | **Gipuzkoa** |
| ***Aldeko txostena*** | • Baloraziorako eta Orientaziorako Batzorde Teknikoaren aldeko txostena izatea. | • Baremo arautzailearen arabera nahikoa puntuaketa izatea. | • Adineko pertsona ezindutzat hartua izatea, Gizartekintza Saileko autonomia / mendekotasun maila baloratzeko eskalaren arabera. |
| ***Osasun-egoera*** | | • Laguntza behar dutenentzako plazetan sartzeko (besteren beharra dutenak):<br>- Eritasun elbarritzaileak edo eritasun endekagarri edo neurologikoen ondorioak izatea.<br>- Eritasun poskirurgikoak izatea edo zerbait anputaturik, eta antzekoak.<br>- Luzaroan mugitu gabe egoteagatik batetik bestera ibiltzeko arazo larriak izatea.<br>- Zaharkeria larria izatea, patologia zehatzik agertu ez arren.<br>- Gaixo kroniko ez terminala izatea, betiere, norberaren kabuz ibiltzeko ezinduta egon eta gutxieneko arreta iraunkorren bidez onura har daitekeenean.<br>- Erizaintzako arreta iraunkorrak behar izatea.<br>- Zentzumenezko jatorrizko elbarria izatea, bereziki itsua, betiere, mentsa zahartzaroan sortu, eta eritasun horri moldatzeko ezintasuna edukitzeagatik suspertzeko arretak behar direnean.<br>- Gizarte arazoak izateaz gain, patologia psikiatrikoa edukitzea, baina zentro berezitu batean sartzeko beharrik ez izatea eta elkarbizitzarako arazo garrantzitsurik ez jartzea. | • Bere osasun egoeran ez azaltzea osasun erakundeetan zaintza jarraitua behar duenik, ez eta osasun publikoko neurririk hartu behar denik ere.<br>• Egoitzako elkarren arteko bizitza larriki galarazi dezakeen portaera nahasmendurik ez edukitzea, horrelako arazoak dituzten pertsonak zaintzeko berariaz prestatuta dauden zentroetan izan ezik. |

| Egoitzazko plazetan sartzeko baldintzak eta prozedurak foru araudietan | | | |
|---|---|---|---|
| | **Araba** | **Bizkaia** | **Gipuzkoa** |
| ***Baterako eskaera*** | | • Familia-unitateari eusteko asmoarekin, pertsona jakin batzuei erabiltzaile izaera aitor dakieke plaza lortzeko, adinari, baremoari edo osasun-egoerari buruzko baldintzak betetzen ez badituzte ere, egoitzan sartzen den pertsonaren ezkontidea edo egitatezko bikoteko kidea direnean, edota odol-ahaide direnean, lehenengo graduraino zuzeneko lerroan edota bigarren graduraino alboko lerroan. | • Salbuespenez eta famili unitatea gorde dadin, eska dezakete biek batera egoitzaren batera joatea, eskatzaileetako batek aurreko ataleko beharkizunak betetzen baditu eta bestea ondoko egoera hauetako batean badago: ezkontidea bada edo izatezko bikotea osatzen badute, ohiki elkarrekin bizi direlarik; edota bigarren mailarainoko ahaidea izatea eta baliabide horren beharrean egotea. Gainera, egoitzara joan ondoren, aurreko artikuluan azaldutako beharkizunak betetzen dituen pertsonak egoiliar izaera galdu egiten badu, Gizartekintza Sailak eta pertsona hori bizi den udalerriko udalak haren laguntzailearen egoera aztertu eta dituen beharrei egoki erantzuteko dauden gizarte baliabideak eskainiko dizkiote. |
| ***Diru-sarrera maila*** | | • Ekonomi baliabideak ez izatea plazaren kostu osoa ordaintzeko. Norbaitek ekonomi baliabiderik ez duela ulertuko da baldin eta dekretu honetako 13. artikuluan xedatutakoaren arabera familia-unitatearen per capita higikorren ondarea 4 milioi pezeta baino gutxiago bada (24.040,48 euro). | |

**Egoitzazko plazetan sartzeko baldintzak eta prozedurak foru araudietan**

| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|
| **Baztertzeko zioak** | • Gizarte zerbitzuen foru sareko zuzkiduren irismen eta aukeretatik kanpo geratzen den osasun laguntza espezializatua edota iraunkorra behar izatea.<br>• Zentroaren funtzionamendua edota hartako bizikidetza modu larrian alda dezaketen jokabide-arazo larriak izatea.<br>• Terapia edota errehabilitazio neurri egokiak aplikatuta hobe daitezkeen eta burujabetasun pertsonal nahikoa berreskuratzea ahalbidetzen duten baliaezintasun prozesuak izatea.<br>• Beste administrazio publiko bateko gizarte zerbitzuen sarearen arreta eskatzen duen pertsona, familia edota gizarte profila izatea, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean den eskumen araudiari jarraikiz. | • Osasun-laguntzarako bitarteko espezializatuak edo arreta handia behar izatea, hain zuzen ere egoitzazko gizarte zerbitzuen berezko zuzkiduretatik eta berorien ahalbideetatik atekoak.<br>• Eritasun infekzio-kutsakorren bat izatea, kutsaduraren bidea dela eta egoitza-zentroan har daitezkeenak izan ezik.<br>• Eritasun elbarritzailea baina ez kronikoa izatea, baldin eta eritasun hori senda badaiteke neurri terapeutiko, kirurgiko edota suspertzaileak aplikatuz, eta horrek bihar-etzi independentzia lortzea ahalbideratu ahal badu.<br>• Eritasun kroniko ez–elbarritzaileren bat izatea, erkidegoaren osasun–zerbitzuen laguntzarekin, etxean bertan edo pisu babestuetan egoteko aukerak izanik.<br>• Egoitzaren inguruneak, beste pertsona batzuekiko harremanek nahiz bestelako egoerek sortarazitako ondore antiterapeutikoak izatea.<br>• Jokabide–nahasketa larriak edota portaera erasokorrak izatea, sare psikiatrikoaren barruan zaindu beharrekoak. | |
| **Dokumentazioa** | • Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo, bestela, zenbatzen den bizikidetasun-unitateko kide bakoitzaren nortasuna egiaztatzen duen beste edozein agiri ofizial, arautzea egiten duten eta indarrean dauden legeekin bat.<br>• Hala badagokio, pertsona interesdunari dagokionez eskaera aurkezten duen pertsonak daukan legezko ordezkaritza egiaztatzeko agiriak. | • Nortasun Agiriaren fotokopia edo, bestela, eskatzailea nor den azaltzen duen beste zeinahi agirirena.<br>• Egoitzan sartzea aske onartu izanaren agiria, araututako ereduaren arabera.<br>• Erroldaketa–ziurtagiria.<br>• Sarrera eta ondasunei buruzko zinpeko adierazpen eguneratua, ereduaren arabera. | • Famili unitateko kide guztien nortasun agiriaren fotokopia.<br>• Eskatzailearen eta elkarbizitzako unitateko kide guztien Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitorpenaren fotokopia eta, horrela denean, Ondarearen gaineko Zergarena. |

| Egoitzazko plazetan sartzeko baldintzak eta prozedurak foru araudietan | | | |
|---|---|---|---|
| | **Araba** | **Bizkaia** | **Gipuzkoa** |
| | • Diru sarrera eta ondasunen zinpeko aitorpena, normalizatutako ereduari jarraiki.<br>• Hala badagokio, Arabatik kanpo dauden ondasunen titulartasuna egiaztatzeko agiriak.<br>• Kode Zibileko 211 eta 271-1. artikuluetan aurreikusitako aldez aurretiko baimen judiziala edo, bestela, baimena eskatu izanaren egiaztagiria.<br>• Beste administrazio publiko batzuetan datu pertsonalak eskatzeko baimena.<br>• Nahi izanez gero, eskatzailearen osasun egoerari lotutako azken txosten medikoak aurkeztu ahal izango dira bestearekin batera. | • Gizarte Segurantzaren Nazio Institutuak edota pentsioak ordaintzen dituen erakundeak luzatutako ziurtagiria, horien eskutik jasotako urteko kopuruari buruz, bai eta aparteko soldaten kopuruari buruz ere.<br>• Mediku-txostena, arautuko ereduaren arabera.<br>• Ondasunen gaineko Zergaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenen fotokopia edo, horrelakorik eduki ezean, Ogasun Sailak luzatutako ziurtagiria, bigarren aitorpen hori aurkeztu behar izan ez dela benetakotzen duena.<br>• Kontu korronte, diru gordailu eta balore higigarri guztien azken ekonomi mugimenduak, baldin eta horiek onuradunaren, horren ezkontidearen eta famili unitateko gainerako kideen izenean badaude.<br>• Famili unitatearen osaera benetakotzen duten agiriak; 18 eta 25 urte bitarteko seme–alaben kasuan, langabeziaren inguruko ziurtagiria edota ikasketa–ziurtagiria; minusbalioa benetakotzen duten ziurtagiriak etab.<br>• Zaintzaileen egoera benetakotzen duten agiriak.<br><br>Eskaera aurkezten denean eskatzailea egoitzazko gizarte zerbitzuren batean badago, noiz sartu den adierazten den ziurtagiria behar da, egoitza-zentroak emana. | Behartuta egonez gero, pentsio, prestazio, pentsio plan edo bestelako edozein irabazi iturriren zurigarriak ekarri behar dira ematen dituen organismoak eginda, eta ondasun higikor eta higiezinen zinpeko aitorpena. Eskatzaileak ez badu nahi bere egoera baloratzerik edota ez badu behar bezala zuritzen, pentsatuko dugu eskatzaileak uko egiten diola 1) sartzeko baremoan bere egoera ekonomikoa kontuan hartzeari eta 2) ezarritako hobariei eta, berez, plazaren gastu osoa ordaintzera behartuta egongo da, eta hori nahitaez dokumentu batean jarri beharko du.<br>• Eskatzaileak idatzi bat ere aurkeztu behar dute, eskaera zuritzen duten zertzelada sozial eta familiarrak argituz.<br>Dena dela, eskatzaileak baimena emango die oinarrizko gizarte zerbitzuei eta Gizarte Politikarako Sailari berari buruzko datuak egiaztatu edo eskatzeko egin behar dituzten kudeaketak egiteko. Eskatzaileak foru dekretu honetan ezarritako beharkizunak betetzen dituela egiaztatzeko bakarrik izan behar dute datu horiek eta, horrela bada, beharkizunak eta egoitzako gastua ordaintzeko baliabide ekonomikoak dituela egiaztatzeko. |
| **Balorazio-tresna** | Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen baremo propioa. | Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintzaren baremo propioa. | Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sakontzen Eskala (Kuntzmann eskalaren egokitzapena). |

Desberdintasun nagusiak ondoko hauek dira:

- Eskaera aurkeztu aurretik eskatzen den erroldatze-epea hiru urtekoa da Araban eta Bizkaian; Gipuzkoan, berriz, bi urtekoa.
- Bizkaian gehieneko diru-sarrera maila ezartzen da, eta, ondorioz, maila hori gainditzen dutenek ezin dute erantzukizun publikoko sareko zentroetara sartu.
- Mendekotasun maila baloratzeko tresnatan, Foru Aldundi bakoitzak bere eskala propioa aplikatzen du; horri dagokionez, interesgarria da aurreratzea –nahiz eta gizarte eta osasun espazioari dagokion atalean xehetasun gehiagorekin aztertuko den– badirudiela adostasun tekniko batetara iritsi direla, azkenean, Euskal Autonomia Erkidego osoan balorazio-tresna bera aplikatu ahal izateko: RAI (%20aren bertsioa) eta RUG III sailkatzailea. Hala ere, oraindik ez da erabaki nola artikulatuko den egun aplikatzen diren tresnen ordezkapena, eta ezta horiek noiz ordeztuko diren ere.

Prozedurari dagokionez, faseak funtsean berdinak dira hiru lurralde historikoetan:

- Egoitzazko plaza batetara sartzeko eskaera eskatzailearen bizilekuari dagokion udalerriko oinarrizko gizarte zerbitzuan aurkeztu beharko da, arautako inprimakian beteta. Gainera, eskaerarekin batera, taulan lurralde osorako ezartzen diren agiriak ere aurkeztu beharko dira.

- Oinarrizko gizarte zerbitzuak, orduan, gizarte eta familia txostena egingo du, eskatzailearen egoerari buruzkoa eta egoitzan sartzearen aurrean duen jarrerari buruzkoa, eta egoitzan sartzeko proposamena adineko pertsonen arretarako zerbitzura igorriko du, bertan baloratua izan dadin.

- Balorazioa egitea balorazio-batzorde egokien ardura da, eta horiek txosten bat igorriko dute. Txosten horretan oinarrituta erabakiko da eskatzailea egoitzan sartuko den ala itxaron-zerrendan geratuko den.

- Behin balorazioa egin ondoren, adineko pertsonen gaietan eskumena duen foru aldundi bakoitzeko zerbitzuak ebazpen-proposamen bat egingo du, organo erabakitzailera igortzeko. Ebazpen-proposamenean ondoko puntu hauek jorratuko dira:

  – Eskatutako baliabidea egokia den ala ez.
  – Hala behar izanez gero, eskatzailearen beharren arabera egokien irizten den gizarte-baliabidea.
  – Zentro batean sartzea proposatzen bada, dagokion baliabidea.
  – Ordaintzea egokitzen zaio prezio publikoa, edo, hala egokituz gero, gerorapen batetik eratorritako murrizpena edo hobaria.
  – Zerbitzuari hasiera emateko aurreikusten den data eta, hala egokituz gero, zerbitzuari amaiera emateko aurreikusten den data.
  – Azkenik, plaza hutsik geratzen ez bada, itxaron-zerrendako zein postutan geratzen den jakinarazi beharko da.

- Foru organoek igorri beharko dute eskatzaileak gizarte zerbitzuetako zentroen foru sarean sartzeko duen eskubidea aitortzen duen eta, hala izanez gero, plazaren esleipena zehazten duen ebazpena.

Mendekoak ez diren adineko pertsonentzako sistema publikoko egoitzazko plazatan sartzeko prozesua, bereziki etxebizitza komunitarioei eta tutoretzapeko apartamentuei dagokiena, udal bakoitzak duen araudi propioak arautzen du. Salbuespen bakarra dago: Arabako Lurralde Historikoa Foru Aldundiak mendekoak ez diren pertsonentzat eskaintzen dituen egoitzazko alternatibak. Horrek erakusten du, etxeko laguntza zerbitzuaren kasuan bezala, Autonomia Erkidegoaren barruan egoera-aniztasun handia dagoela.

## 3.3. **Eguneko zentroetan sartzea**

Hiru lurralde historikoetan, mendeko pertsonentzako sare publikoko eguneko zentroetan sartzeko sistema, funtsean, egoitzazko plazetara sartzeko kasuetan aplikatzen den bera da. Araban eta Bizkaian ematen diren zenbait berezitasun besterik ez dira nabarmentzen:

- **Araban,** gizarte zerbitzuetako zentroen foru sarean erabiltzaileak sartzeko eta lekualdatzeko erregimenaren erregelamendua onartzen duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 25eko 18/2003 Foru Dekretuak, zenbait desberdintasun ezartzen ditu sartzeko baldintzei dagokienez: eskatzen den aurretiazko erroldatze-epea hiru urteetatik urtebetera murrizten da, eta ohiko bizitokia, zerga ondorioetarako, Arabako Lurralde Historikoan edukitzea eskaera egiten den unearen aurreko ekitaldirako bakarrik eskatzen da.

- **Bizkaian**, abuztuaren 22ko 145/2001 Foru Dekretua da aplikagarri. Dekretu horrek inoren mendeko adinekoak Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasun peko eguneko zentroetan sartzeko sistema; inoren mendeko adinekoak eguneko zentroetako plaza itunduetan nahiz hitzartuetan sartzeko sistema; eta inoren mendeko adinekoak eguneko zentroetako plaza ez itunduetan edo ez hitzartuetan sartzeko banakako laguntza ekonomikoen emakida araupetzen ditu. Arau horrek aurreikusten du, eskakizun osagarri gisa, hurbileko senideen laguntza izatea eta, laguntza horren ondorioz, onuradunak beharrezkoak diren arreta guztiak izatea, eguneko zentroan ez dagoen orduetan

- **Gipuzkoan,** sartzeko eskakizunak eta prozedura egoitzazko zerbitzuetarako aurreikusten direnak dira, eta Gipuzkoan pertsona adinduentzat plazak lortzeko arauak ezartzen dituen apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretuan jasotzen dira.

## 3.4. **Plazen kudeaketa: itxaron-zerrendak**

Bai egoitzen kasuetan eta baita eguneko zentroen kasuetan ere, Foru Aldundiak mendekotasun-maila zehazteko eta aurreko ataletan adierazitako baremoak aplikatuz egindako balorazioari esker, hutsik geratzen doazen plazak hartzeko duen lehentasun-hurrenkera ematen zaio pertsona bakoitzari. Plaza bat hartzen ez duen bitartean, erabiltzailea itxaron-zerrendan egongo da; zerrenda hori etenik gabe eguneratzen da.

Aurrekoaren kaltetan izan gabe, itxaron-zerrendan dauden pertsonek beren espedientea berrikustea eska dezakete, horien egoera pertsonala nabarmen aldatu

denean. Kasu horietan, berrikuste-prozesutik zerrendan duen postua aldatzea ondorioztatu daiteke.

Zentroren batean plazaren bat hutsik geratzen denean, lehendabizi jadanik sareko egoitza-zentroren batean edo eguneko zentroren batean dauden pertsonek eskatu dituzten lekualdatzeak esleituko dira, eta baliabide-motaren arabera dagokion zerrendan posturik hoberenean aurkitzen den erabiltzaileari esleitzen zaio plaza.

Zentroetan sartzeko itxaron-zerrendaz gain, Arabako Lurralde Historikoan itxaron-zerrenda bereiztu bat. Bertan izena ematen dute sare publikotik kanpoko zentroetan sartu ahal izateko banakako laguntza ekonomikoetara xedatutako aurrekontu-kreditua agortu izanagatik artatu ezin diren eskaerak. Zerrenda hori baremo egokia aplikatu ondoren eskuratzen den puntuaketaren araberako lehentasun-hurrenkerari jarraiki eratzen da, eta bertan izena ematen duten erabiltzaileei baja ematen zaie itxaron-zerrendatik foru egoitzatan nahiz hitzartuetan[8] sartzen direnean. Bizkaian, aldiz, sare publikotik kanpoko zentroetara sartu ahal izateko laguntza ekonomikoen lerro bat baduten arren, itxaron-zerrenda bakarra da; hau da, sare publikoko zentro batera sartzeko zain daudenak eta lehen aipatutako laguntza ekonomikoa eskatzen dutenak biltzen ditu.

Zaila da, eta baita bidegabea ere, nahasketa eragin dezake-eta, hiru lurralde historikoetako itxaron-zerrendak konparatzea. Izan ere, ikusi den bezala, Bizkaian erantzukizun publikoko sistemako plaza batera sartzeko eskubidea edo sare horretatik kanpoko zentroetara sartzeko laguntza ekonomikoak muga batetik beherako diru-sarrerak dituzten horiei bakarrik aitortzen zaie. Ondorioz, diru-sarreren eskuragarritasuna sistematik kanporatzeko faktore gisa hartzen da. Horrek suposatzen du egoitzazko plaza baten beharra izanik diru-sarrera muga hori gainditzen duten pertsona guztiak ez direla Bizkaiko itxaron-zerrendatan agertzen.

Hori horrela, Arabako eta Gipuzkoako zerrendak bakarrik alderatu ditzakegu; lehenengo kasuan sare publikoko zentroetara sartzeko itxaron-zerrenda eta laguntza ekonomikoetarako zerrenda batzen dira. Horrela, Arabako lurraldean, egoitzazko zentroen itxaron-zerrenda 380 pertsona ingurukoa da, eta eguneko zentroena 36 pertsona ingurukoa. Gipuzkoan, berriz, itxaron-zerrenda osoan 800 pertsona inguru daude.

Nolanahi ere, kontuan hartu behar da zerrendak oso gorabeheratsuak direla. Gipuzkoan, adibidez, zerrendak duen irteera eta sarrera erritmoa hilabeteko 150 pertsona ingurukoa da. Gorabehera horiek, bestalde, oso nabarmenak dira eguneko zentroen kasuan. Adibidez, Araban, 3 hilabeteko epean, itxaron-zerrendan inor ez izatetik 36 pertsona izatera pasa dira.

---

[8] Hori horrela, Araban, laguntza ekonomikoa ematen denetik bi urtera, egoitzazko plaza-eskaeraren espedientea berraztertzea eska daiteke, eta egoitzaratzea emango balitz laguntza ekonomikoa automatikoki iraungitzen da.

## 3.5. **Erabiltzaileen baimena**

Hiru lurralde historikoetan indarrean dauden egoitzazko zerbitzuetara nahiz eguneko zentroetara sartzeko araudiek adierazten duten plaza eskatzen duen adineko pertsonak erabiltzaile-izaera hartzeko ezinbestekoa dela bere baimena ematea, balio juridikoa izateko moduan.

Arauek aurreikusten dute, gainera, pertsona batek baimen hori emateko gaitasunik ez duenean, eskaera bere ordezkari legalak edo tutoreak bideratu ahal izango duela, betiere Kode Zibileko 271-1. artikuluan aurreikusitako baimen judiziala duenean, pertsonaren premiazko arreta aholkatzen duen egoeran aurkitzen denean salbu, orduan baimen hori eskuduna den organo jurisdikzionalaren aurrean eskatu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko delarik. Berehalako arreta-beharrarekin zerikusia duten salbuespenezko kausak direla-eta, ustez ezgaia den pertsona baten egoitza-zentroan sartzea onartuko balitz adierazitakoaren arabera baimendua izan aurretik, Foru Administrazioak horren berri eman beharko lioke eskuduna den organo judizialari eta baita Ministerio Fiskalari ere, Kode Zibileko 203. artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako. Araban ezartzen da, gainera, aurrekoaren kaltetan izan gabe, objektiboki eta modu arrazoigarrian ondorioztatzen denean eskatzaileak, ustezko ezintasuna izanda, baliozko onespen bat emateko baldintzak ez dituela betetzen eta, gainera, ez daukanean ordezkaritza bat formalki esleituta, berezko zainketa egiten dutenek eskaera bat egin ahal izango dute, Kode Zibilean xedatutakoarekin bat.

Egoitza-zentro batera joan ondoren bere kasa erabakitzeko gaitasuna galtzen badu egoiliarrak, araudi gipuzkoarrak ezartzen du zentroko zuzendariak zertzelada horren berri eman behar diola egoiliarraren familiari, gaigabetzeko tramite egokiak has ditzaten. Familiakorik ez badu edo familiak ez badio eskakizunari erantzuten, zentroko zuzendariak Foru Aldundiari emango dio gertaeraren berri. Araudi arabarrak, jarduketa-arau hori osatu egiten du, eta adierazten du kasu horietan Gizarte Ongizateko Foru Erakundeak dagokion lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegiari jakinaraziko diola, bai eta Zerga Ministerioari ere, Kode Zibilean zehazten diren ondorioetarako.

Egoitzazko zentroan dagoen bitartean tutoretza gauzatzeari dagokionez, funtzio hori bete dezakeen gertuko inor ez dagoenean, hiru lurralde historikoetan badaude erantzukizun hori beregain hartzea helburu duten tutoretza-erakundeak. Bizkaian, Foru Aldundiak berak hautatu du tutoretza-erakundea sortzea. Erakunde hori urriaren 31ko 9/2000 Foru Arauak arautzen du, eta bere izaera juridikoa zuzenbide pribatuko erakunde publikoarena da. Araban eta Gipuzkoan, berriz, erantzukizun hori fundazio pribatuen esku geratzen da, lankidetza-hitzarmen desberdinen eremuan.

Funtsezkoa da azpimarratzea, indarrean dagoen antolamendu juridikoan, bai Kode Zibilean eta baita zentroetara sartzeko araudian ere, hori xedatzen bada ere, txosten hau dela-eta egin den egoitzazko zentroen azterketan ikusi ahal izan dela narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen ehuneko hogeia bakarrik aurkitzen dela egun juridikoki ezgaituta edo ezgaitasun-prozedura batean sartuta.

# 4. ZERBITZUEN FINANTZAKETA

## 4.1. Administrazioen erantzukizun finantzarioa gizarte zerbitzuen alorreko egitekoak zehazten dituen uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuaren ondoren.

Finantzazioari dagokionez, gizarte zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legeak ezartzen du, bere 30. artikuluan, foru aldundiek urtero izendatuko dituztela kopuru batzuk beren aurrekontuetan, lege honetan egotzitako eskumenak betetzeko sortutako gastuak finantzatzeko behar diren bestean, eta, gainera aldundi bakoitzak beste dirukopuru batzuk ere izendatuko dituela onartutako programa edo zerbitzu osagarriak finantzatzeko, udalen edo udalaz gaineko erakundeen jarduerak bermatzeko ezinbestekoak diren neurrian. Udalei dagokienez, 31. artikuluak zehazten du udalek diru-izendapen bereziak egingo dituztela beren aurrekontuetan, dagozkien gizarte zerbitzuak sortu eta kudeatzeko eta zerbitzu horien mantentze-lana egiteko.

Bestalde, gizarte zerbitzuen alorreko egitekoak zehazten dituen uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuak adineko mendeko pertsonen arreta foru aldundien erantzukizuna dela zehazten du, eta mendekoak ez diren adineko pertsonena, berriz udalen erantzukizuna dela. Horrela, lehenengo xedapen iragankorrean ondoko hau ezartzen da: "*administrazio publiko eskudunek 2002ko abenduaren 31ra arteko epea izango dute instituzioen artean finantzaketa banatzeko*". Bigarren xedapen iragankorrean, berriz, ondoko hau zehazten da: "*Tarte honetan, hau da, dekretu hau indarrean sartzen denetik lehen xedapen iragankorrean finantzaketa banatzeko ezarritako epera arte, administrazio publikoek dekretua indarrean sartu arte ematen zituzten zerbitzu, programa eta prestazio guztiak eman beharko dituzte, intentsitate eta estaldura berak dituztela, eta horretarako, herritarren beharrei behar bezala erantzuteko besteko baliabideak hartuko dituzte*".

Praktikan, ondoko ataletan azaltzen den bezala, xedapen horien aplikazioak zerbitzumota bakoitzarekin zerikusia duten hainbat zailtasuni aurre egin behar die.

## 4.2. ELZren finantzazioa

### *4.2.1. Administrazioaren partaidetza ekonomikoa*

Gizarte zerbitzuei buruzko Legeko 7.3 b) artikuluaren arabera, etxeko laguntza zerbitzua udalen eskumen-eremuan aurkitzen da, eta oinarrizko gizarte zerbitzuei esleitutako funtzioetako bat da. Arau hori gizarte zerbitzuen eremuko egitekoak zehazten dituen uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuan aurreikusitakoaren argitara interpretatu behar da. Izan ere, horren arabera, mendeko pertsonen arreta foru aldundien erantzukizuna da, eta mendekoak ez direnenena, berriz, udalena. Arau bakoitzaren arau-lerruna kontuan izanik, ulertu behar da, erakunde honen iritzitan, zerbitzu hori eskaintzeko eskumena udalena dela, baina mendeko pertsonei eskaintzen zaien zerbitzuaren finantzazioa foru aldundien ardura dela. Hori horrela, bi erakundeen artean beharrezkoak diren koordinazio eta lankidetza bideak ezarri

behar dira, gai horren inguruko beharrak behar bezala estaltzen direla bermatzeko xedez. Errealitatea, hala ere, bestelakoa da.

**Araban**, ereduaren ezaugarri bereziak direla-eta (jadanik komentatu dira 3.1 atalean), sistemak ez dio oinarrizko eskemari erantzuten. Horrela, Foru Aldundiak zuzenean kudeatzen ditu lurralde osoko eta hiriburuko mendeko pertsonen ELZ sarea eta mendekoak ez diren pertsonen ELZ sarea lurralde osoan, Gasteizen izan ezik, prestazio horien guztien finantzazioa estaliz. Gasteizko Udalak, bere aldetik, mendekoak ez diren pertsonei eskaintzen zaien ELZ finantzatzen du Gasteizen.

Uztailaren 30eko 155/2001 Dekretua indarrean sartu ondoren, Gasteizko mendeko pertsonei eskaintzen zaien zerbitzuaren kudeaketa Foru Aldunditik Udalera eskuordetzen saiatu ziren (3.1 atalean aipatu den bezala), baina ez dirudi epe laburrean gauzatuko denik.

**Bizkaian,** etxeko laguntza zerbitzuaren kudeaketa, bai mendekoak ez direnentzat eta baita mendekoak direnentzat ere, udalei dagokie. Azken kolektibo horri zuzendutako zerbitzuaren finantzazioari dagokionez, egun nolabaiteko nahasmendua dago foru teknikariek eta udal teknikariek emandako informazioaren artean.

Horrela, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eudel Euskadiko Udalen Elkartearen artean funtzioen banaketa artikulatzeko xedez sinatu zen hitzarmenak –hitzarmen hori, azkenean, uztailaren 30eko 155/2001 dekretuan islatu zen– “Finantza-fluxuak banatzea” izenburua duen atal bat jasotzen zuen. Honela zioen atal horrek:

> *“Gizarte Egitarauen eta Zerbitzuen gainean banaketan adostu eta aurreko II. paragrafoan azaldutakoaren ondorioz, agiri honen Eranskinean aipaturik dagoen fluxu-zerrenda ezarri da.*
>
> *Kopuruok banaketarako behin-behinekoz onetsitakoei dagozkie. Hala ere, hala denean, doikuntzak egon ahalko dira 2001eko lehenengo hiruhilekoan, Foru Aldundiak eta udal izakiek 2000ko ekitaldian zehar benetan egindako gastuaren egiaztapenaren arabera. 2000ko berrikuspenetik ateratzen diren kopuruak izango dira ondorengo eguneratpenetarako abiapen-oinarriak.*
>
> *Lehen aipaturiko Zerbitzu eta Egitarau banaketatik datorren fondoa Foru Aldundiaren Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Sailari atxikita geratuko da, eta urtero eguneratuko da Aldundiaren sarreren aurrekontu-gehikuntzaren arabera, haren zorpeketari dagokion zatia deskontatu ostean (Sarrerei buruzko IX. Kapitulua).*
>
> *Administrazio onuradunek hilero kobratuko dute kobratzekoa hamabi zatitan. Kobrantza 2001eko urtarrilean hasiko da. Ekitaldi bakoitzaren hasieran fondo hori eguneratuko da, aurreko ahapaldian azaldutakoa oinarri harturik.*
>
> *Foru Aldundiaren Aurrekontua aurrekontu-ekitaldi bakoitzaren hasieran onetsita ez badago, fondo hori onespena gertatzen den hilaren hurren-hurrengo hilean eguneratuko da.*
>
> *Foru Aldundiaren Aurrekontuaren likidazioa onetsi ostean, fondo hori behin betiko likidatuko da, konpartitutako arrisku-sistemaren mendean. Horrek Foru Aldundiaren 2001eko Aurrekontua likidatuta izango du ondorioa.”*

Aipatzen den Eranskinak Bizkaiko Foru Aldundiak udal bakoitzari ondoko zerbitzu hauek eskaintzeagatik igortzen dizkion zenbatekoak ezartzen ditu: gizarte eta hezkuntza alorreko esku hartzea, etxeko laguntza, oinarrizko gizarte zerbitzuetako langileak eta banakako laguntza ekonomikoak.

Etxeko laguntza dela-eta aurreikusten den zenbateko osoa, Hitzarmena sinatu zen urtean zerbitzu hori dela-eta izan zen foru gastuaren arabera ezarria, 1.387.674.001 pezetakoa da, hots, 8.340.088 eurokoa, eta mendeko pertsonen arreta nahiz mendekoak ez direnen arreta estaltzera xedatzen da. Zenbateko hori urtero eguneratzen da, eta Lurralde Ekintzan eskudun den sailetik udaletara igortzen da.

Modu osagarrian, Bizkaiko Foru Aldundiak, egoitzatan sartzeko itxaron-zerrendan dauden mendekotasun handiko pertsonei eskaintzen zaien ELZk sortutako gain-kostua kontuan izanik, diru-laguntzen lerro bat ezarri zuen, abenduaren 9ko 243/2003 Foru Dekretuak arautua. Diru-laguntza horiek Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeek eta udalen partzuergoek eska ditzakete. Horretarako, behar bezala eskatu behar dute diru-laguntza, eta baldintza hauek betetzen direla frogatu behar dute:

- Etxean laguntza jasotzen duen mendeko adineko pertsona hori egoitza-zentro batean onartua izatea edota diru-laguntza jasotzea.

- Diru-laguntza eskatzen duen toki erakundea edo udalen partzuergoa adineko pertsona horri etxeko laguntza zerbitzua egiten ari zaiola, egoitzako plazaren edota egoitzan sartzeko diru-laguntzaren onuraduna izateko eskubidea aintzatetsi zioten unetik, eta zerbitzu hori egiten jarraituko duela harik eta adinekoa egoitzan sartu arte

Aipatu Dekretuko 5. artikuluaren arabera, diru-laguntza horiek, 2004. urtean, pertsonako 25 ordura eta orduko 15,47 eurora[9] mugatzen dira gehienez ere.

Udalerriaren eremutik, hala ere, teknikoki behintzat, bertsio oso desberdina eman da gai horri buruz. Izan ere, une hauetan mendeko pertsonen ELZren foru finantzazioa azken diru-laguntzen lerro horren bidez bakarrik egiten dela baieztatzen da. Lerro horrek, 2004. urterako, 154.350 euroko jatorrizko muga duen aurrekontu-partida bat du esleituta, eta horrek ELZren gastu osoaren oso zati mugatua suposatzen du. Ikuspegi horrek, horrela, ez du begirunerik Lurralde Ekintzako Sailetik egiten den urteroko fondo-igorpenarekiko, eta berau mendekoak ez diren pertsonen ELZ finantzatzera bakarrik xedatzen zela interpretatzen du.

---

[9] Gizarte Ekintzako Sailaren Memorian jasotako datuen arabera, 2003. urtean 17 toki erakunde edo udalerrien partzuergo lagundu ziren diruz: 138 pertsonei eskaini zitzaizkien 10.356 ordu. Horrek suposatzen du pertsonako 1.582 orduko laguntza. Diru-laguntzaren zenbateko osoa 138.968 eurokoa da.

2004. urterako, apirilaren 3ko 63/2001 Foru Dekretuan xedatutakoaren babesean, egoitzazko plaza baten zain itxarote-zerrendan dauden mendeko adineko pertsonei eskaini behar zaien etxeko laguntza zerbitzua ordaintzeko helburuarekin toki erakundeei eta udalerrien partzuergoei eman behar zaizkien diru-laguntzen deialdi publikoa arautzen duen abenduaren 9ko 243/2003 Foru Dekretuak, lehenengo xedapen gehigarrian aurrekontu-partida bat aurreikusten du, 154.350 euroko jatorrizko mugarekin.

**Gipuzkoan,** udalak dira baita ere ELZ eskaintzeaz eta kudeatzeaz arduratzen direnak, eta Foru Aldundiak mendeko pertsonei eskaintzen zaizkien zerbitzuen finantzazioa hartzen du bere gain. Hala ere, zenbait muga daude, eta horiek arazoak eragiten ari dira udalen eta foru aldundien artean. Arazo horiek, nolabait ere, hasierako itunean dute jatorria.

Ondoren 155/2001 Dekretuan islatuko zen funtzio-banaketa itundu zenean, orduan zerbitzu horren hartzaile ziren bost mila erabiltzaileen %70 pertsona autonomoak zirela kalkulatzen zen, eta %30 bakarrik kalifikatu zitezkeela mendeko gisa. Berehala ikusi zen errealitatea oso bestelakoa zela eta, egun, proportzioa gutxi gorabehera erabiltzaile autonomoen %40an eta mendeko pertsonen %60an kokatzen da.

Foru Aldundia, horrela, banaketarako kalkulua egin zenean gutxietsi egin zen kostu bati aurre egiteko beharrean aurkitzen da, eta udalek mendeko pertsonei eskaintzen dieten ELZ muga jakin batzuetara arte finantzatzea erabaki du. Muga horiek urtero ezartzen dira Diputatuen Kontseiluaren erabakiz: bertan zehazten da, alde batetik, udal bakoitzari esleitu beharreko urteko arreta-ordu kopurua; eta, beste alde batetik, zerbitzu-orduagatiko gehieneko prezioa. 2004. urterako, finantzatutako zerbitzu-orduen zenbateko osoa 730.000 ingurukoa izan da, eta gehieneko prezioa 13,98 eurotan ezartzen da.

Udalen iritziz, Foru Aldundiak ezarritako tarifa merkatuko egungo prezioen oso azpitik dago, foru araudiak berak xedatutakoaren aurka[10] . Egun, toki erakundeek orduko 17,66 euro ordaintzen dituzte zerbitzuagatik, eta beraiek dira zenbateko horren eta Foru Aldundiak ordaintzen duen gehieneko zenbatekoaren arteko diferentzia estaltzen dutenak; horregatik, alor horretan, udalek kudeaketa-esleipenean kokatu nahi dute foru aldundiarekin duten harremana. Arazoa, ordea, honetan datza: prezio hori zerbitzua eskaintzen duten erakundeek –oro har, elkarteetan bildutakoek- ezarri zutela hitzarmen kolektibo batean eta hitzarmen horren kontra errekurtsoa jarri zela; Auzitegi Gorenak auzi-jartzailearen alde ebatzi berri du errekurtso hori eta hitzarmena ezdeusa dela adierazi du, "negoziatze-prozesuan enpresen eta langileen artean interes-kontrajartzerik ez dagoela" egiaztatu baita. Hortaz, gaur egun, azken sektore-hitzarmen hori ez dago indarrean. Zertzelada berriok direla medio, ziur aski egoera bereziki zailari aurre egin beharko dio udalen erreklamazioak -alegia, ordaindutako zenbatekoen diferentzialak berreskuratzeko egindakoak-.

Foru Aldundiaren ikuspegitik, horrek ez baitu inolaz ere esku hartzen zerbitzua eskaintzen duten erakundeak kontratatzeko prozeduran, udalen ardura da lehiaketako deialdiak diseinatzea aurreikusitako muga ekonomikoen barruan dagoen eskaintza bat eskuratzeko helburuarekin. Formula alternatibo bat izan liteke Foru Aldundiak kontratazio-prozesu horretan zuzenean nahiz zeharka parte hartzea.

---

[10] Adineko pertsona ezinduentzako Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileak egin behar duen ekarpena arautzen duen abenduaren 27ko 72/2002 Foru Dekretuko 4. artikuluak ezartzen du prezio horiek zehazterakoan merkatuko prezioak lortzera jo behar dela, oinarritzat hartuta, betiere, Gipuzkoako lurralde historikoko ekonomiaren egoera orokorra eta errenta nahiz erretiro sarien mailak.

Desadostasun horiek direla-eta, kasuren batean, txeke-zerbitzu sistema erabiltzeko aukera aztertu izan da. Horren arabera, erakunde publikoak erabiltzailearen aldeko bono bat igortzen du, honek aurrez Foru Aldundiak berak zerbitzu hori eskaintzeko homologatu dituen enpresen artean nahi duen aukeratu dezan. Horrez gain, kudeaketa agintzeko bidetik egiten ez bada, udalak beste aukera bat ere aztertzen ari dira; bi ELZ sare formalizatzeko aukera.

Gai horiek balorazioari eta gomendioei buruzko kapituluan xehetasun gehiagorekin aztertzen dira.

### *4.2.2.* ***Erabiltzaileen diru-ekarpena***

Bai Araban eta baita Gipuzkoan ere, ELZ erabiltzen duten mendeko pertsonen diru-ekarpena prezio publikoei buruzko araudi egokien bidez ezartzen da: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen prezio publikoak 2004. ekitaldirako arautzen dituen abenduaren 30eko Diputatuen Kontseiluaren 68/2003 Foru Dekretua, eta Adineko Pertsona Ezinduentzako Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileak egin behar duen ekarpena arautzen duen abenduaren 27ko 72/2002 Foru Dekretua, hurrenez hurren.

**Araban,** arauak hilabeteko 251,19 euroko gehieneko prezioa ezartzen du. Erabiltzaile bakoitzari dagokion prezioa zehazteko, esleitutako ordu-kopurua eta elkarbizitza-unitatearen ahalmen ekonomikoa hartzen dira kontuan, baremo propioa aplikatuz. Zerbitzu-hartzailea bakarrik bizi denean, hari dagokion sarrera tarteari aplikatuko zaizkio zuzenean baremoan oinarrituta ezarritako prezioak. Familia-unitatea kide batek baino gehiagok osatzen badute, aplikatzeko den prezioaren kalkulua hileko sarrera guztien %80ren gainean egingo da familiako kide kontagarriak bi izanez gero, eta familia osatzen duen gainerako kide bakoitzarengatik %5 murriztuko da ehuneko hori.

**Gipuzkoan**, 2004. urterako ezarritako tarifa orduko 13,98 eurokoa da. Ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko errenta-maila, ondarea eta familia-unitateko kide-kopurua hartzen dira kontuan. Hori zehazteko ondoko arau hauek aplikatzen dira:

- Erabiltzaileak eta bere elkarbizitzako unitateak ondare higiezinik baldin badute, ohiko etxebizitzaz gain, edo erabiltzailearen eta elkarbizitzako unitatearen azken ondare higigarria per capita 30.000 eurokoa baino handiagoa baldin bada, erabiltzaileak osorik ordainduko du etxeko laguntza zerbitzua.

- Ondareko diru baliabide horiek agortzen direnean, etxeko laguntza zerbitzuaren kostua unitatearen hileko errenta librearen arabera zehaztuko da. Hori kalkulatzeko, diru-sarrera kontzeptu guztiei libreki erabiltzeko zenbatekoak eta behar bezala zuritutako aparteko gastuak kenduko zaizkie. Erabiltzaileak Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren %100 izango du libreki erabiltzeko, famili unitatea berak bakarrik osatzen duenean. Famili unitatea bat baino gehiagoz osatuta baldin badago, bigarrengoarengatik LGSren %40 erantsiko da eta LGSren %30, berriz, gainerakoengatik.

**Bizkaiko** Lurralde Historikoan, zerbitzua antolatzea nahiz eskaintzea edo kudeatzea udalei dagokienez, erabiltzailearen diru-ekarpena, mendekoa izan ala ez, udalerri bakoitzak zehazten duena da, prezio publikoei buruz udal bakoitzak duen araudiaren arabera.

Mendekoak ez diren adineko erabiltzaileen diru-ekarpenari dagokionez, udalerri bakoitzak zehazten du, bai prezio publikoei buruz duen araudian edo baita Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duen araudian ere, Arabako egoeraren ohiko salbuespenarekin.

## 4.3. **Egoitzazko zerbitzuen finantzazioa**

### 4.3.1. ***Administrazioaren partaidetza ekonomikoa***

#### *4.3.1.1. Administrazioaren partaidetza ekonomikoa plaza propioen, itunduen eta hitzartuen finantzazioan.*

**Araban**, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak beregain hartzen du lurralde historiko osoko egoitzazko arretaren erantzukizun finantzarioa, arreta horren modalitate desberdinetan, erabiltzaileak mendekoak izan ala ez izan. Salbuespen bakarra Gasteizko Udalak egiten du. Izan ere, udal horrek, alde batetik, udalerriko pertsona ez mendekoen egoitzazko arreta bere gain hartzen du, eta, beste alde batetik, ehun bat plaza ditu mendeko pertsonei zuzenduak San Prudentzio Egoitzan. Plaza horiek bi motatakoak dira:

- 25 plaza udalarenak dira, eta Foru Aldundiaren partaidetzarik gabe finantzatzen ditu. Udal sareko beste zentroetatik datozen pertsonek okupatzen dituzte, autonomia galtzen doazen heinean eta beren beharretara egokituago dagoen baliabide bat behar duten neurrian.

- Beste 74 plaza Foru Erakundearekin hitzartutakoak dira. Horietatik 34 plaza bakarrik okupatzen dituzte Gizarte Ongizateko Foru Erakundeko Balorazio Teknikorako Batzordeak izendatutako pertsonek; gainerakoa, pertsona autonomoentzako zentroen udal saretik datoz, autonomia galtzen doazen heinean. Plaza horiek bi erakundeen artean finantzatzen dira.

155/2001 Dekretuaren ondorioz, Udala Foru Aldundiari eskatu zion udalak kudeatzen dituen lagundutako plaza guztien kargu egin zedila, baina foru erakundea ez dago eskaera horri erantzuteko prest: alde batetik, udal plazen kostua Foru Aldundiaren plaza propioen kostua baino handiagoa delako; eta, bestetik, Udalak San Prudentzioko plaza lagunduetarako sarbide pribilegiatua mantendu nahi duelako, udal sareko erabiltzaileak gainerako erabiltzaileek izan ohi duten foru balorazioa izatea saihestuz.

Azken buruan, Arabako Foru Aldundiak egoitzazko plazetarako egiten duen ekarpena ondoko hau da:

- Plaza propioen kasuan, plazaren kostuaren eta erabiltzailearen diru-ekarpenaren arteko diferentzia finantzatzen du.

- Gasteizko Udalarekin hitzartutako plazen kasuan, plazaren kostuaren eta erabiltzaileak egiten duen diru-ekarpenaren (udal arauen arabera zehaztua) arteko diferentzia finantzatzen du Udalarekin batera.

- Itundutako plazen kasuan, hitzarmena edo zerbitzuaren kontratazioa aurkitzen deneko lehiaketaren oinarrietan ezarritako tarifaren (urtero KPIren araberako igoerarekin) eta erabiltzailearen diru-ekarpenaren arteko diferentzia finantzatzen du. Erabiltzaile horien diru-ekarpena foru erakundearen zentro propioetara sartzen direnen berdina da.

**Bizkaian**, 155/2001 Dekretuak ezarritako egitekoen banaketa berriaren ondorioz, Foru Aldundiak lagundutako plazen finantzazioan bakarrik parte hartzen du, Gizarte Urgazpenetako Foru Erakundekoa den eta mendekoak ez diren pertsonei zuzentzen den Txurdinaga Egoitzaren kasuan salbu[11] . Hori dela-eta, adinekoak foru egoitza publikoetan edota egoitza itunduetan sartzeko sistema eta adinekoak besteren egoitzazko gizarte zerbitzuetan sartzeko banakako laguntza ekonomikoak nola eman araupetzen dituen apirilaren 3ko 63/2001 Foru Dekretuak foru partaidetza aurreikusten du bai lagundutako plazen finantzazioan eta baita pertsona autonomoei zuzendutako plazen finantzazioan ere.

Foru Aldundiaren partaidetza ekonomikoa ondoko arau hauen araberakoa da:

- Plaza propioen kasuan, lagundutako plazak nahiz pertsona autonomoei zuzendutako Txurdinagako plazak barne, Foru Aldundiak plazaren kostuaren eta erabiltzailearen diru-ekarpenaren arteko diferentzia finantzatuko du, erabiltzailearen diru-ekarpena 4.3.2 atalean zehaztutakoaren arabera kalkulatuko delarik.

- Hitzartutako, itundutako eta kontratatutako plazen kasuan, egoitzazko zerbitzu desberdinen artean kostu-desberdintasun handia dagoenez, Bizkaiko Foru Aldundiak gehieneko kostu teoriko bat ezartzen du. 2004. urterako, kostu hori eguneko 53,51 eurokoa da lagundutako plazatan. Plazaren benetako kostua aurreikusten den gehieneko kostu teorikoa baino txikiagoa denean, benetako kostua hartzen da kontuan.

**Gipuzkoan** Administrazioaren partaidetza ekonomikoa zehazteko aplikatzen den sistema Bizkaian aplikatzen den sistemaren berdina da funtsean:

- Plaza propioen kasuan, Foru Aldundiak plazaren kostuaren eta erabiltzailearen diru-ekarpenaren arteko diferentzia finantzatuko du, erabiltzailearen diru-ekarpena 4.3.2 atalean zehaztutakoaren arabera kalkulatuko delarik.

- Bestalde, Foru Aldundiak erakunde kudeatzaile desberdinekin hitzartutako, itundutako eta kontratatutako plaza guztietan gehieneko tarifa aplikagarriak ezartzen dira.

[11] Bizkaiko Foru Aldundiak adierazten duenaren arabera, zentro hori, dituen ezaugarri arkitektonikoak direla-eta, ezin da ez birmoldatu eta ezta mendeko pertsonentzako egoitza bilakatu ere. Ondorioz, Bilboko Udalak egoitza horren kudeaketa beregain hartzen ez duen bitartean, Foru Aldundiak kontserbatzea erabaki du, eta pertsona autonomoen egoitzaratzeak kudeatzen jarraitzen du.

2004. urterako, Diputatuen Kontseiluak otsailaren 3an hartu zuen erabakiaren arabera, gehieneko zenbateko horiek ondoko hauek dira: 56,82 €, psikogeriatriako plazentzat; 52,45 €, mendekotasun handikoei zuzendutako plazentzat; 43,22 €, mendeko pertsonei zuzendutako plazentzat; eta 34,66 €, beste erabiltzaile-mailek okupatutako plazentzat.

Gainera, hamar bat zentrotan eragina duten zenbait egoera berezi ere badaude. Hain zuzen ere, gizarte zerbitzuen alorreko egitekoak zehazten dituen uztailaren 30eko 155/2001 Dekretua indarrean sartu zenean, Gipuzkoako Foru Aldundiak araudi berriaren arabera bere erantzukizun finantzarioko bilakatzen ziren lagundutako zentro bakoitzaren egoerari buruzko balantze bat egitea erabaki zuen, horien bideragarritasun ekonomikoa zehazteko helburuarekin. Balantze hori hitzartutako egoitza pribatuetan nahiz udal egoitza publikoetan egin zen, eta horri esker Foru Aldundiak langile-ratioetan eta ordainsari-mailetan zerbitzua eskaini ahal izateko adinakoak ziren estandarrei zegokienez ematen ziren desbideraketak atzeman ahal izan zituen. Zenbait zentrotan, hamar batean gutxi gorabehera, desbideraketa garrantzitsua zen, eta Foru Aldundiak egokitze-epe bat negoziatu zuen erakunde kudeatzaileekin. Epe horretan, erakunde kudeatzaileek foru aurreikuspenetara egokitzeko beharrezkoak ziren neurriak artikulatu behar zituzten. Epea oraindik ez da amaitu, baina oraindik ez dago argi zer gertatuko den behin epe hori iragan ondoren kostuak murrizteko beharrezkoak diren neurria hartu ez badira. Bitartean, Foru Aldundiak finantzazio-hitzarmenak negoziatu ditu eragindako erakunde publiko edo pribatu ororekin, dagokien gehieneko tarifaren zenbatekoaren eta plazen benetako kostuaren arteko diferentzia estaltzeko.

### *4.3.1.2. Foru Administrazioaren ekarpena sare publikotik kanpo dauden egoitzen finantzazioan: egoitzatan sartzeko banakako laguntzak*

Beren plaza propioen eta plaza hitzartu eta itunduen finantzazioan duten partaidetza ekonomikoaz gain, Arabako eta Bizkaiko foru aldundiek sare publikotik kanpo dauden zentroetako egoitzazko plazak ere finantzatzen dituzte, banakako diru-laguntzen bidetik.

Formula hori aspaldidanik erabiltzen da **Bizkaian,** eta egoitza publiko edo hitzartuetara sartzeko modua arautzen duen lehen aipatutako araudian jasotzen da. Araudi horrek, baldintza beretan, adineko pertsonak sare publikotik kanpo dauden egoitzazko gizarte zerbitzuetara sartu ahal izateko ematen diren banakako laguntza ekonomikoak ere arautzen ditu. Banakako laguntza ekonomiko bat den arren, eta erabiltzaileari esleitzen zaion arren, egoitza-zentroari ordaintzen zaio zuzenean. Bi kasuetan, zerbitzu horretatik kanpo geratzen dira etxebizitza komunitarioak, aparteko kasuetan izan ezik, eta, bereziki, laguntza ematen zaion unean laguntzaren hartzaileak urtebete daramanean etxebizitza komunitarioan bizitzen, eta betiere osasun-baldintzei dagokion puntuaketa 25 baino gehiagokoa ez denean. Etxebizitza komunitarioak salbuesteak nolabaiteko eztabaida eta desadostasun argia eragin du sektorean.

**Araban,** berriz, finantzazio-bide hori benetako berrikuntza da. 2003. urtean, Foru Aldundiak xede hori zuten banakako diru-laguntzen lerro bat atera zuen. Diru-laguntzen

lerro hori diru-laguntzen onuradunek nahiz horiek hartuko dituzten egoitzazko zentroek bete beharreko eskakizunak ezartzen dituen uztailaren 1eko 46/2003 Dekretuan dago jasoa.

| **Araban sare publikotik kanpo dauden egoitzetan sartzeko banako diru-laguntzak lortzeko baldintzak** | |
|---|---|
| **Pertsona onuradunei aplikagarri zaizkien baldintzak** | **Egoitza-zentroei eska dakizkiekeen baldintzak** |
| • Egoitza-zentro foraletan edo Arabako Foru Aldundiak itundutako zentroetan sartzeko itxaron-zerrendatan egotea.<br>• 100 puntuko gutxieneko puntu-kopuru globala lortzea Adineko pertsonen Gizarte Zerbitzuetan sartzeko Baremo Soziosanitarioaren arabera egindako balorazioari jarraiki. Puntu horietatik 45ek gutxienez baremoaren mediku faktoreen gainekoak izan behar dute, baldin eta laguntza senarrak eta emazteak edo izatezko bikote bateko bi kideek eskatu ez badute. Kasu horretan, gutxieneko puntu-kopuru hori 35ekoa izango da baremoko mediku faktoreen arabera puntu-kopuru gutxien duen pertsonarentzat. | • Arabako Lurralde Historikoan kokatuta egotea.<br>• Titulartasun publikokoak ez izatea.<br>• Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailak baimenduta egotea, Adinekoentzako Egoitza Gizarte Zerbitzuen gaineko martxoaren 10eko 40/1998 Dekretuak xedatutakoari jarraiki.<br>• Adineko pertsonentzako egoitza izendapena izatea, martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren 2c) artikuluak xedatutakoari jarraiki.<br>• Mendekotasuna duten pertsonentzako egoitza plazak izatea eta aipatu 41. Dekretuaren II. Eranskinaren 10. zenbakiko xehetasun teknikoetan xedatutako lagundutako plazak dituzten egoitzen langile-ratioak betetzea.<br>• Laguntza indibidualen onuradunak diren beste erabiltzaileek ez betetzea plaza horien %30 baino gehiago. %30 hori zehazteko kalkulatzeko Gizarte Ongizatearen Foru Institutuak egoitza-zentro bakoitzarekin itundutako plazak hartuko dira kontuan. |

Egoitzen gainean ezarritako baldintzen eraginez, Bizkaian bezala, etxebizitza komunitarioak kanpoan geldituko dira eta arauetan zehazki aurreikusten da egoitza bat laguntza programatik kanpo geldituko litzatekeela bere egoitza izendapena galdu eta etxebizitza komunitario izendapena hartuko balu, baina aldaketa horren aurretik laguntza programa horren onuradunak diren pertsonek laguntzak jasotzen jarraitu ahal izango dute zentro horretan bizi diren bitartean. Eta ez daude batere gustura laguntza programatik kanpo gelditze horrekin etxebizitza komunitarioak kudeatzen dituzten entitateak eta, agian, horrek arau hori berrikustea ekar dezake.

Urteko diru-laguntza kopurua programa hori finantzatzeko erabiltzen den aurrekontu esleipenaren zenbatekoak mugatuko du eta diru hori agortzearen eraginez kontuan hartu ezin diren eskaerak itxaron-zerrenda zehatz baten barnean sartuko dira, 3.4. atalean zehaztutako baldintzei jarraiki.

Diru-laguntza horien gehieneko zenbatekoa 682 eurokoa da hileko; kopuru hori Euskal Autonomia Erkidegoaren KPI urtero aplikatuta dago eguneratuta. Bakarkako zenbatekoa hileko per capita errenta eta eskatzailearen unitate familiarraren per capita ondarea kontuan hartuta zehazten da.

Laguntza zuzenean ordaintzen da pertsona onuradunaren egoitza-zentroaren kontuan.

### 4.3.2. *Erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa*

**Araban,** erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa abenduaren 30eko Diputatuen Kontseiluko 68/2003 Foru Dekretuan dago xedatuta. Foru Dekretu horrek 2004ko ekitaldirako Gizarte Ongizateko Foru Institutuaren Prezio Publikoen araudi erregulatzailea onartu zuen. Foru Dekretu horrek bere 4. artikuluan lagundutako egoitza baliabideak dituzten plazetarako 841,42 €/hileko tarifa bakarra du zehaztuta.

Ekarpen ekonomiko hori ondorengo jarraibideen arabera aplikatu behar da:

- Oro har, 18.030,36 eurotik gorako balioa duten ondasun higiezinak edo beste ondare motaren bat duten pertsonek prezio publikoaren zenbateko osoa ordaindu behar dute, eta ezingo dute ordainketa hainbat epetan banatu, baldin eta aipatu zenbatekoaren ordainketa egingo dela ziurtatzeko berme egokiak ez badaude.

- Pertsona onuradunek prezio publikoa oso-osorik ordaintzeko nahiko baliabide ekonomiko ez dutela egiaztatzen badute, ordainketa hainbat epetan egin ahal izango dute. Horrelakoetan, hileko ordainketa partzial moduan, urteko bere diru-sarrera guztien hamabirenaren %80 ordaindu beharko dute, eta prezio publikoaren beste zatiari dagokion zorra onartu beharko du.

Edonola ere, egoitzan dagoen pertsona batek ezingo du urteko 1.236 euro baino gutxiago ordaindu.

Egoitzan dagoen pertsonaren ezkontideak bikotearen etxean bizitzen jarraitzen duenean, familia-unitateak bere kide kopuruagatik urtero jasotzen duen zenbatekoari, erabiltzaileak barne, 1.236 euroko kopurua kenduta ateratzen den emaitzaren hamabirenari aplikatzen zaio.

**Gipuzkoan**, Gizartekintza-Gizarte Zerbitzuen Sailean (egun, Gizarte Politikarako Saila izena du) izena emandako adineko pertsonen arretarako zentroen prezio publikoak onartu zituen ekainaren 15eko 56/1999 Foru Dekretua aldatu zuen otsailaren 5eko 4/2002 Dekretua da araudi aplikagarria.

Egoitza plazen prezio publikoak bat egiten du egun Foru Aldundiak itundutako, adostutako eta kontratatutako plazen foru finantzaketa zehazteko ezarritako gehieneko tarifa teorikoekin. Erabiltzaileen ekarpena, beraz, zenbateko horren arabera kalkulatzen da. Plazaren kostu erreala ezarritako gehieneko tarifa teorikoa baino txikiagoa denean, ekarpena aipatu kostu errealaren arabera kalkulatzen da.

Honako hauek dira 2004. urteari aplikagarriak zaizkion tarifak: 56,82 €/eguneko psikogeriatriako plazetarako; 43,22 €/eguneko mendekotasuna duten pertsonei zuzendutako plazetarako; eta 34,66 €/eguneko bestelako erabiltzaileek betetzen dituzten plazetarako.

Erabiltzailearen ekarpen ekonomikoa honako jarraibideen arabera kalkulatzen da:

- 24.000 euroko azken ondare per capita izanez gero, prezio publiko osoa ordaindu behar izaten da, eta 3.000 € nahi bezala erabiltzeko gordeko dira.

- Ondare hori agortzen denean, tarifaren zenbatekoa honako jarraibideen arabera ordaindu behar izaten dira:

  – Familia-unitatearen per capita diru-sarrera garbien %85 ordaindu behar du.
  – Beti utzi beharko da gutxienez lanbide arteko gutxieneko soldataren %20 adinako zenbateko bat nahi bezala erabiltzeko moduan.

**Bizkaian,** ez dago prezio publikoen gaineko araudirik, baina, aurreikusita dagoenez, era horretako araudi bat 2006. urterako arautu eta onartuko da. Egun, erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa apirilaren 3ko 63/2001 Foru Dekretuaren bidez dago araututa. Dekretu horrek foru egoitza publikoetarako edo itundutako egoitzetarako sarbide sistema arautzen du:

- Pertsona onuradunak 20.040,48 euroko azken per capita ondarea badu, zenbateko horrekin, dagokion egoitzaren gehieneko kostu teorikoa ordaindu beharko du, eta guztira 3.005,06 euro utzi beharko dira nahi bezala erabiltzeko.

- Baliabide ekonomiko horiek agortzean, egoitzaren zenbateko honako jarraibideen arabera ordaindu behar da:

  – Familia-unitatearen per capita diru-sarrera garbien %85 ordaindu behar du.
  – Edonola ere, gutxienez hileko 721,21 euro nahi bezala erabiltzeko utzi behar dira; zenbateko hori 1,8rekin bidertu behar da egoitzan sartutako bigarren senideagatik eta 1,5ekin, berriz, hirugarren senidetik aurrera.

Azkenik, mendekotasunik ez duten erabiltzaileen ekarpenari dagokionez, **Araban,** 2004. urteko prezio publikoak onartu zituen abenduaren 30eko 68/2003 Foru Dekretuak 440,19 euroko gehieneko tarifa du ezarrita etxebizitza komunitarioetarako. Arau hori Arabako Lurralde Historiko osoan aplikagarria da Gasteizen izan ezik –bertan udal araudia aplikatzen da–; Bizkaia eta Gipuzkoan ere ez da aplikagarria, udala baita arlo horretan eskuduna.

| **Egoitza zerbitzuen erabiltzaileak diren pertsonen batez besteko ekarpena** | | | |
|---|---|---|---|
| | **Araba[1]** | **Bizkaia** | **Gipuzkoa** |
| **Prezio publikoa edo gehieneko tarifa teorikoa** | 27,66 €/eguneko | 53,51 €/eguneko | 51,72 €/eguneko[2] |
| **Batez besteko ekarpena** | 17,84 €/eguneko | 13,96 €/eguneko | 22,96 €/eguneko |

[1] Batez besteko ekarpena Arabako Foru Aldundiaren egoitza zerbitzuei dagokie.

[2] Mendekotasuna duten erabiltzaileei, mendekotasun handiak dituzten pertsonei eta erabiltzaile psikogeriatrikoei dagozkien prezio publikoetan oinarrituta eratutako batez besteko prezio publikoa.

Iturria: Foru aldundiak

### 4.3.3. ***Ordainketa-bermeak: zorra onartzea***

Hiru lurralde historikoetan egoitza plazen ordainketa bermatzeko formulak daude ezarrita, eta erabiltzaile bakoitzaren ahalmen ekonomikoak kontuan hartzen dira.

**Araban,** sistema mistoa dago ezarrita:

- Batetik, 18.030,36 eurotik gorako ondarea duten pertsonek hileko prezio osoa ordaindu beharko dute eta ez dute ordainketa hainbat epetan egiteko aukerarik izango, ordainketa-berme bat sinatzen ez badute behintzat.

- Bestetik, zenbateko horretatik beherako ondarea dutenek ordainketa hainbat epetan egitea eskatu ahal izango dute, prezio publikoaren eta ordaindutako zenbatekoaren arteko aldeagatik zorra dagoela onartzen badute. Prozedura horrek bi fase ditu:

  – Batetik, egoitzan sartu aurretik, adineko pertsonak agiri bat sinatu beharko du. Agiri horren bitartez, adineko pertsonak konpromisoa hartuko du aldian-aldian onartzeko egoitzan epe jakin horretan Gizarte Ongizatearen Foru Institutuaren alde sortu duen zorra.

  – Bestetik, aurreko konpromisoa betetze aldera, urtean behin, pertsona nagusiak agiri bat sinatuko du, aurreko epealdian sortutako zorra aitortzeko. Agiri horren bidez, gainera, adineko pertsona horrek Foru Institutuari eska dakiokeen bermea emateko konpromisoa hartuko du eta bere ondasunak ez besterentzeko eta aipatu Institutuarekin duen zorra kitatu arte ekonomia edo ondare arloko eskubideei uko ez egiteko duen betebeharra bere gain hartuko du.

Zorra kitatzeko beharrezkoa izango balitz ondasunen ondarezko exekuzioa egitea, exekuzio horrek ezin du eraginik izan ohiko etxebizitzan bi kasu edo hipotesitan: interesatuak egoitzatik ateratzean berak erabiltzeko behar duenean edo etxebizitza hori bere ezkontidearen eta beste familia-unitate bat osatzen ez duten seme-alaben etxebizitza bakarra denean. Zorra, arau orokor moduan, eskudirutan ordaindu behar da, zerbitzua emateari uzten zaionean.

Adierazi beharra dago duela bi urtetik hona Foru Aldundiak sortutako zorrari %3,75eko interesak aplikatu behar zaizkiola eta, horren eraginez, gero eta erabiltzaile gehiagok erabakitzen duela ordainketa epeka ez egitea.

**Bizkaian** eta **Gipuzkoan** ez dago ondarea agortu aurreko zorra[12] onartzeko formularik, tarifari dagozkion hobariak aplikatu aurretik. Gipuzkoako araudian zehaztuta dago ondare hori neurtzerako orduan ez dagoela ohiko etxebizitza barneratuta bertan bizi direnean familia-unitatearen gainerako kideak edo bere balioak ez dituenean gainditzen oinarrizko errentara sarbidea izateko ezarritako gehieneko zenbatekoak.

---

[12] Bizkaian, 2006. urterako dago aurreikusita zorraren onarpena arautzea.

## 4.4. **Eguneko zentroen finantzaketa**

### *4.4.1.* ***Administrazioaren partaidetza ekonomikoa***

Administrazioak eguneko zentroen finantzaketan duen partaidetza egoitzak bezala dago antolatuta:

- Berezko plazen kasuan, Foru Aldundiek zerbitzuaren kostuaren eta erabiltzailearen ekarpen ekonomikoaren arteko aldea finantzatzen dute. Erabiltzailearen ekarpen ekonomikoa 4.4.2 atalean zehaztuta dagoen moduan egin beharko da.

- Itundutako, adostutako eta kontratatutako plazen kasuan, administrazioaren finantzaketa, Araban, entitatearekin adostutako tarifaren eta erabiltzailearen ekarpen ekonomikoaren arteko aldea adinakoa da, eta Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, gehieneko tarifa teorikoaren eta erabiltzailearen ekarpen ekonomikoaren artekoa da. 2004. urterako ezarritako tarifa teorikoak 36,42 eurokoa da eguneko Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, 39,59 €/eguneko tarifa dago dementzia duten pertsonei zuzendutako plazetarako eta 36,62 €/egunekoa, berriz, ezintasun fisikoren bat duten pertsonen plazetarako.

### *4.4.2.* ***Erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa***

**Araban** eta **Gipuzkoan**, erabiltzaileen ekarpen ekonomikoak prezio publikoen araudiek arautzen dituzte (2004. urteko ekitaldirako Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizateko Foru Institutuaren prezio publikoak onartu zituen abenduaren 30eko 68/2003 Foru Dekretua eta Gizarte Politikarako Sailean izena emanda dauden adinekoen arretarako zentroen prezio publikoak onartu zituen ekainaren 15eko 56/1999 Foru Dekretua aldatu zuen otsailaren 5eko 4/2002 Foru Dekretua). Honakoak dira 2004. urterako ezarritako prezioak: 341,70 € hilean, gutxi gorabehera, 15,53 euro/eguneko Arabako araudian eta 36,42 euro/eguneko Gipuzkoakoan, bikoitza, alegia.

**Bizkaian**, eguneko zentroen finantzaketa abuztuaren 22ko 145/2000 Foru Dekretuan dago jasota. Dekretu horrek arautzen du mendekotasuna duten adineko pertsonak Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eguneko zentroetan sartzeko sistema, mendekotasuna duten adineko pertsonak eguneko zentroetako adostutako edo itundutako plazetan sartzeko sistema, eta mendekotasuna duten adineko pertsonei eguneko zentroetako plaza ez adostuetan edo ez itunduetan sartzeko banakako laguntza ekonomikoak ematea. Honako hauek dira 2004. urterako ezarritako gehieneko tarifak: 39,59 euro/eguneko dementzia duten pertsonen plazetarako 36,62 euro/eguneko ezintasun fisikoren bat duten pertsonei zuzendutako plazetarako.

Hiru lurralde historikootan ezarritako prezio publikoen zenbatekoan hobariak ematea dago aurreikusita, prezio publiko osoa ordaintzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela egiaztatzen duten pertsona onuradunentzako.

| Eguneko zentroen erabiltzaileen batez besteko ekarpena | | | |
|---|---|---|---|
| | **Araba**[1] | **Bizkaia** | **Gipuzkoa** |
| **Prezio publikoa edo gehieneko tarifa teorikoa** | 15,53 €/eguneko | 39,59 €/eguneko[2]<br>36,62 €/eguneko[3] | 36,42 €/eguneko |
| **Batez besteko ekarpena** | 11,77 €/eguneko | 13,96 €/eguneko | 10,39 €/eguneko |

[1] Batez besteko ekarpena Arabako Foru Aldundiaren egoitza zerbitzuei dagokie.
[2] Plaza psikogeriatrikoetarako gehieneko tarifa teorikoa.
[3] Lagundutako plazetarako gehieneko tarifa teorikoa.
Iturria: Foru Aldundiak

## 5. ESPARRU SOZIOSANITARIOA SORTZEKO AURRERAPAUSOAK

Txosten hau zabala den arren esparru soziosanitarioa sortzearen kontuak urrunago iristen da eta, horregatik, ez da ikertu ez estatistika datuen, ezta zentroen azterketen baitan ere. Alabaina, interesgarria da, informazioa emate aldera, adineko pertsonen arretaren baitan esparru bateratu eta eragingarria eraikitzeko urrats garrantzitsuak ematen ari direla.

- Zalantzarik gabe, aurreranzko bide horretan zeresan handia izan dute 2001. urteko urriko Euskal Autonomia Erkidegoko Plan Soziosanitarioak eta Eusko Jaurlaritzaren, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien eta Eudel Euskal Udalen Elkartearen artean 2003ko urtarrilaren 30ean sinatutako arretaren soziosanitarioaren garapenerako lankidetza hitzarmenak. Are gehiago, ekimen horren aurretik nolabaiteko hobekuntza partzialak izan ziren koordinazio moduetan. Esaterako, 1994. urtean, Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak hitzarmen bat sinatu zuten lurralde horretako arreta psikogeriatrikoaren estaldura hobetzeko eta, urtebete geroago, Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Institutuak lankidetza hitzarmena sinatu zuen Osakidetzarekin zerbitzu soziosanitario orekatuak garatzeko. Gainera, **Araban**, duela zenbait urtetik hona, Adinekoak Baloratzeko Batzorde Teknikoan Osakidetzako kide batek eta Adimen Osasunaren arloko arduradun batek hartzen dute parte. **Gipuzkoan**, mendekotasunaren balorazioa egiterakoan, adineko pertsona gizarte sarean parte hartzeko gai den edo ez den zehazten da. Gai ez dela erabakitzen bada, balorazio soziosanitario bateratua egiten duen Batzorde batera igarotzen da eta Batzorde horrek bere gain izango du pertsona hori Gurutze Gorriaren 80 plazako baliabide espezializatu batean sar daitekeen edo ez erabakiko du.

Erakunde arteko 2003ko Hitzarmenean jasota dago administrazioek esparru soziosanitarioa eraikitzeko hartutako konpromisoa, honako helburuak beteta:

- Arazo soziosanitarioak dituzten pertsona taldeek oinarrizko eskubide moduan jaso behar dituzten zerbitzuak –bai osasun arlokoak, bai gizarte arlokoak– ematen direla bermatzea.

- Behar bezala antolatzea etxeko zerbitzuak eta egonaldi labur, ertain eta luzeko osasun eta gizarte mailako zerbitzuak dauden laguntza mailen eta sareen jarraikortasuna egokitzeko. Antolamendu hori ongi egiteko, baliabide eskaintza, zerbitzu eskaria eta pazienteen joan-etorriak ongi ordenatu behar dira.
- Herritarrei zuzendutako sistema integratu eta homogeneoa ezartzea, dauden baliabideak era eragingarriagoan erabiltzeko aukera emate aldera.
- Sistema batetik bestera igarotzea eta erabiltzaileak bi sistemen artean mugitzea errazteko, tramitazio administratiboa arintzea.
- Argi eta garbi zehaztea gizarte eta osasun sistemen eskumenak eta erantzukizun ekonomikoak, baita bateratze prozesu bakoitzean parte hartuko duten eragileena ere.
- Erantzukizun komuneko programak sustatzea ekimen, eta laguntza eta ekonomia mailan, bakoitzaren eskumenak kontuan hartuta.
- Bi sistemen artean eragingarritasun eza egotea ekiditea eta funtzioen inbertsioei ez dagozkien tasak bakoitzak bere gain hartzea, izan daitezkeen gabezia edo laguntza mailako eskasia larriak pixkanaka konponduta era bi sistemen arteko koordinaziorik eza gaindituta.
- Bi sareen erabiltzaileak diren eta laguntza soziosanitarioa behar duten pertsonen balorazio eta orientazio elementuak era koordinatuan garatzea eta sustatzea, baita sistema osoak behar bezala lan egin dezan behar diren informazio sistema komunak ere.
- Sustapen politikak eta osasunari zuzendutako heziketa programak sustatzea, baita prebentzio eta gizarteratze komunitariorakoak ere, maila soziosanitarioan.

Helburu horiek lortzeko, antolakuntza egitura garrantzitsu bat dago zehaztuta:

- Arreta Soziosanitariorako Euskal Batzordea, autonomia erkidego osorako jardungo lukeena.
- Arreta soziosanitariorako lurralde batzordeak (lurralde historiko bakoitzean bat).
- Arretarako soziosanitariorako lau koordinatzaile: koordinatzaile autonomiko bat eta hiru lurralde koordinatzaile.
- Batzorde bakoitzaren baitan sortutako batzorde teknikoak edo sektorialak.

Adineko pertsonen arretaren baitan, lau batzorde teknikok jardun dute: batek gizarte eta osasun sareen erabiltzaileen gaineko informazio bildu eta antolatzeko ardura izan du; beste baten zeregina, berriz, mendekotasuna baloratzeko eta mendekotasunaren kudeaketa eredua definitzeko tresna bakarraren gainean eztabaidatu eta tresna horren aplikazioa erabakitzean zetzan; hirugarrenak erabiltzaileek zerbitzuen finantzaketan egiten dituzten ekarpenek lurralde autonomiko osoan homogeneotasuna izatea bermatuko lukeen osasun sistema ezartzeko aukerak aztertzea zuen helburu; laugarrenaren betebeharra, berriz, Plan Estrategikoa idaztea zen.

Orain arte, aipatu bigarren batzordeak eman du aurrerapausorik garrantzitsuena; izan ere, 2004. urteko maiatzean EAEn aplikatuko den mendekotasunaren balorazio tresnaren

gaineko erabakia hartu baitzuen. Tresna[13] ugari aztertu ostean, hauxe da hautatutako tresna: “RAI (%20ko bertsioa) eta RUG III sailkatzailea”.

Tresna bakarra era eragingarrian ezartzearen gainean nolabaiteko eszeptizismoa sumatzen bada ere, benetako aurrerapausoa ekarriko lukeela nabarmendu beharra dago, ez soilik gizarte eta osasun mailen artean, baita lurralde autonomiko osoan zerbitzuak esleitzean nolabaiteko homogeneotasuna bermatzeko ere.

Zalantzarik gabe, ekimen sorta horrek prozesu luze baten abiapuntua baino ez du osatzen; alabaina ekimen horiek erakusten dute erakunde mailan adineko pertsonen arreta koordinatzeko eta arlo horretan elkarrekin lan egiteko beharraren gainean nolabaiteko kontzientziazioa badela.

[13] Batzorde Teknikoak aztertutako tresnak:
- Arabako menekotasunaren balorazioa.
- Bizkaiko menekotasunaren balorazioa.
- Gipuzkoako menekotasunaren balorazioa (Sakontzen sistema).
- Foru unitateek ezintasuna baloratzeko erabilitako autonomia adierazlea.
- Zerbitzuak planifikatzeko inbentarioa (Deustuko Unibertsitatea)
- Barthel indizea.
- Ezagutzazko azterketa txikia (Lobo Testa).
- Crichton test kognitiboa.
- Dementzia eskala (Blessed eta beste batzuk.)
- Beste pertsona batek duen laguntza beharra zehazteko baremo gainbegiratua (Miguel Querejeta doktorea).
- Osasun eta Gizarte mailako Balorazio Tresna (Gipuzkoako Osasun Saileko Lurralde Zuzendaritza eta Donostia Ospitalea).
- Balantze artikularren eta bestelakoen eragin funtzionala (Gorlizko Ospitalea).
- RAI/RUG III sistema
- Plaisir eredua (Charles Tilquin).

# III. KAPITULUA

## MENDEKOTASUN ARAZOAK DITUZTEN ADINEKOENTZAKO GIZARTE ZERBITZUEN BILAKAERA EAEN: 1991-2001

## 1. AURKEZPENA

Kapitulu honetan lortu nahi den helburua hauxe da: balantze moduan azaldu nahi da zer-nolako urratsak egin dituzten EAEko botere publikoek eta euskal gizarteak oro har, erkidego honetan bizi diren adinekoek banakako laguntza jasotzeko duten beharrizan gero eta larriagoari aurre egiteko. Hona hemen azterketaren ardatzak: alde batetik, adinekoen mendekotasunarekin zerikusia duten gizarte arazoak, eta bestetik, arazo horiei jaramon egiteko gizarte zerbitzuen eremuan sustatu diren laguntza-eskaintza formalak. Beraz, jarraian aztergai izango dira egoitzazko zerbitzuak, eguneko zentroak eta etxeko laguntzaren programa.

Txosten hau egiteko oinarritzat hartu diren datuak, funtsean, "Gizarte zerbitzuen estatistika. Entitateak eta zentroak" (GZEEZ) azterlanetik atera dira. Urtero egiten da estatistika hori eta honako balorazio hau egin daiteke berari buruz, oro har:

- GZEEZ deritzon estatistika, izugarrizko zailtasuna eta konplexutasuna duen zentsu-lana izanda ere, behar-beharrezkoa da, gizarte zerbitzuen eskaintzari buruzko informazio-sistemaren bizkarrezurra delako. Hain zuzen ere horixe da eskumen esklusiboko babes-esparru bakarra eta beraren funtzionamenduak 2001. urtean BPGaren ehuneko 1,9 eragin zuen.

- Gizarte babesaren arlo guztietan berrien, aldakorren eta zatituenari heltzen zaio estatistika horretan. Horregatik oso zaila da hura ikertzea; batez ere, denek onartutako irizpide eta definizioak falta diren kasuetan, eta epe laburrean garrantzizko aldaketak gertatzen direnean.

Zehazki, GZEEZek adinekoentzako zerbitzuei buruz ematen dituen datuei dagokienez, honako hauek dira datu horietan ageri diren arazo nagusiak, ezinbestez kontuan hartu behar direnak:

- Erkidego honetan indarra duten mendekotasun-eskalak askotarikoak izanik, GZEEZek ezin du urtez urte ebaluazio berdintsua egin zerbitzuen erabiltzaileen autonomia-graduaz. Arazo horren ondorioz, GZEEZek ematen dituen datuak ez dira behar bezain fidagarriak, balorazio ezberdinetatik abiatuta egin diren eransketak direlako.

- Eremu honetan diharduten erakundeen programak eta zerbitzuak azpikontratatzeko ohitura sortu da oraintsu, eta areagotzen ari da. GZEEZek garaiz antzeman du aldaketa hori, baina ez du bere analisi-egitura bete-betean egokitu egoera berrira. Jardunean

dauden langileei buruz eskaintzen dituen datuak oraindik ere partzialak dira eta gutxienekotzat hartu behar ditugu.

- Aurreko lerroaldean azaldu den egoera bereziki kezkagarria da etxeko laguntzaren arloan. Hor azpikontratazioaren arazoari beste batzuk gehitu behar zaizkio: langileek ordu gutxiko lanaldia izaten dute eta haietariko asko behin-behinekoak edo txandakakoak dira; horiek horrela, askoz zailagoa da informazioa biltzea.

- Azpimarratu behar litzateke, azkenik, eguneko zentroaren zerbitzuak eskaintzen dituzten egoitzetariko batzuek ez dituztela garbi bereizten baliabide mota bakoitzerako langileak. Horren eraginez, sarritan, eguneko zerbitzuetarako diren giza baliabideen balorazioa behar baino apalagoa da, langile horiek egoitzako langileekin batera zenbatzen direlako.

Txostenak hiru atal ditu honako aurkezpen atal honen ondoren. Lehenengoan biztanleriak dira aztergai; bigarrenean, ikertutako zerbitzuak banan-banan hartu eta bakoitzari buruzko datu aipagarrienak azaltzen dira; eta hirugarrenean aurreko bien ikuspegi bateratua ematen da. Lehenengo eta bigarren atalei begira, egokia iruditzen zaigu metodologiaren inguruko ohar garrantzitsu batzuk egitea:

- Lehenengo zatian, mendekotasuna duten adinekoen kopuruaren orain arteko bilakaera erakutsi nahi da, bai eta biztanle multzo horrek 2010. urtera arte ustez izango duen bilakaera ere. Oinarritzat erabili diren datuak azken hiru zentsuetakoak dira –1991ko, 1996ko eta 2001eko zentsuak-, eta populazio-proiekzioei dagokienez, eszenatoki bakarra hautatu da, alegia, EUSTATek erabiltzen dituen zazpi eszenatokien batez bestekoa[14]. Beste alde batetik, eszenatoki horiek ez dute funtsezko aldaketarik agertzen 2010. urterako, adinekoen multzoari dagokionez. Datu demografiko horiek oinarri, mendekotasuna duten adinekoen kopurua zenbatetsi da erreferentziako urteetariko bakoitzerako. Adinaren araberako berariazko tasak erabili dira horretarako (65-74 urte eta 75 urte edo gehiago); tasa horiek EAEn egindako bi ikerketaren emaitza dira[15] . Data ezberdinetako populazioei ezgaitasun tasa finkoak aplikatzea ezbaian jar daitekeen aukera da, denak bezala, baina hauxe esan liteke beraren alde: lehenengo eta behin, aukerarik errazena da, kontuan izanik tasa horiek apurka-apurka beherantz doazela baieztatzeko eta, alderantziz, guztiz kontrakoa baieztatzeko arrazoi pisutsuak daudela; eta bigarrenik, batzuek espero dituzten beherakadek eta beste batzuek aurreikusten dituzten gorakadek ez lukete eragin handirik izango ezgaituen guztizko kopuruan, aztergai diren epeetan (ehuneko bost inguruko gorabehera hamar urtean zehar).

- Kapitulu honen bigarren zatian banaka jorratzen dira azterlan honetan hizpide diren hiru motatako baliabide formalak –egoitzak, eguneko zentroak eta etxeko laguntzarako zerbitzu publikoak- bakoitzak nolako bilakaera izan duen ikusteko. Betiere, kasuan kasuko baliabidearen garapena alderatu egiten da adineko biztanleen

[14] 2050. Eszenatoki demografikoak. EUSTAT.

[15] Foru Aldundiak eskaturik, laguntza-sare informalei buruzko azterketak egin ziren Gasteizen eta Arabako landa-aldeetan.

multzoaren hazkundearekin eta ezgaitasun arazoak dituzten adineko biztanleen multzoaren hazkundearekin, eta ratioak, estaldura eta eraginkortasun horizontala erabiltzen dira konparazio hori egiteko. Beharrezkoa da, beraz, horiei buruz iruzkin labur batzuk egitea.

Estaldura kalkulatzeko, egoitzetako eta eguneko zentroetako plazen kopurua eta etxeko laguntzarako zerbitzuen erabiltzaileen kopurua hirurogeita bost urte edo gehiago dituzten biztanleen kopuruaz zatitzen dira. Adierazle hori kalkulatzen erraza da, eta zehatza ere bai, ondo kontrolatuta daudelako bai ratioko zenbakitzailea eta bai izendatzailea. Oso aldagai erabilgarria da, beste autonomi erkidego batzuetan eta gure inguruko beste herrialde batzuetan berari buruzko informazioa aurkitu daitekeelako. Baina badu bere alde txarra, alegia, hirurogeita bost urtetik aurrerako biztanleriaren zahartze maila kontuan hartzen ez duen adierazlea izanik, ez duela zehatz-mehatz erakusten ezgaitasunaren benetako ondorioen norainokoa eta, beraz, ezin dela zehaztu bete beharko diren beharrizanek izan lezaketen bolumena.

Eraginkortasun horizontalak (hau da, zerbitzuen laguntza jasotzen duten pertsona ezgaituen proportzioa, ezgaitasuna duten pertsonen kopuru osoaren aldean) aukera ematen du estalduraren alderdi txarra saihesteko, neurri batean bakarrik, baina ez neurri txikian. Euskal Autonomia Erkidegoan eskura dauden datuen urritasunak kalkulu-hipotesietara jotzera behartzen du, eta beste arlo batzuetatik ezin da informazio homogeneorik jaso. Horren ondorioz, ezinezkoa da beste ingurune batzuetako egoerekin alderaketa adierazgarririk egitea; hala eta guztiz ere, gizarte ingurune berdintsuetan antzeko hipotesiak sartuz kalkulatu izan diren eraginkortasun horizontalek bide ematen dute alderaketak denboran egiteko Euskal Autonomia Erkidego osoan, eta alderaketak denboran zein espazioan egiteko lurralde historikoetan. Horrela ateratzen diren emaitzen baliozkotasuna ez datza lortutako balio absolutuetan, balio absolutu horien arteko diferentzien azterketan baino.

## 2. MENDEKOTASUN ARAZOAK DITUZTEN ADINEKO BIZTANLEEN MULTZOAREN BILAKAERA

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria ia erabat egonkor mantendu da 1991-2001 bitarteko hamarkadan; ehuneko bat inguruko jaitsiera txikia izan du. Arabak ehuneko 5,1eko hazkundea izan du, eta bitartean beste bi lurralde historikoetako biztanle kopuruek behera egin dute, Bizkaian ehuneko 2,8 eta Gipuzkoan ehuneko 0,4. Arabako biztanleen kopurua 2001etik 2010era bitartean ehuneko 3,0 haziko dela aurreikusten da, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako biztanle kopuruak, berriz, ehuneko 2,8 eta ehuneko 1,7 murriztuko direla hurrenez hurren; hamarkada honetan Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria, oro har, ehuneko 1,6 murriztuko dela uste da.

**1. grafikoa: Biztanleria osoa: bilakaera eta aurreikuspenak**




Eskualdeen artean alde garrantzitsuak ageri dira laurogeita hamarreko hamarkadan biztanleriak izandako bilakaerari erreparatzen badiogu. Eskualde batzuek hazkunde handia izan dute -Gorbeialdea, Plentzia eta Kantauri Arabarra eskualdeek ehuneko hogeitik gorako tasa izan dute- eta, beste muturrean, eskualde batzuetan biztanle kopuruak beherantz egin du nabarmen: Debabarrenean ehuneko 9,5, eta Bilbo Handian, Debagoienean, Goierrin, Kantauri Arabarrean eta Markina-Ondarroan biztanleriaren beherakadak ehuneko lau eta bost artekoak izan dira. Beste datu interesgarri bat nabarmendu behar da, alegia, aurreko aldietan ez bezala, biztanle gutxien dituzten udalerriak izan direla, hamar mila biztanletik beherakoak hain zuzen, demografiaren aldetik bilakaera positiboa izan duten bakarrak (3. eta 4. eranskinak).

Hirurogeita bost urte bete dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen bilakaera ez da biztanleria osoarenaren antzekoa: izan ere, 1991tik 2001era bitartean ehuneko 35,3 gehitu dira. Araban hazi da gehien biztanleriaren zati hori (ehuneko 41,4), eta Gipuzkoan gutxien (ehuneko 31,6). Egin diren pronostikoen arabera, 2001-2010 bitarteko urteetan hazkundea moteldu egingo da: hazkundearen erritmoa ehuneko 18,5 jaitsiko da oro har. Moteltzerik handiena Araban izango dute (ehuneko 24,7) eta txikiena Bizkaian (ehuneko 15,9).

**2. grafikoa: Hirurogeita bost urte bete dituzten biztanleak: bilakaera eta aurreikuspenak**




Hirurogeita bost urte edo gehiago dituzten pertsonen kopurua gehitu egin da, laurogeita hamarreko hamarkadan zehar, Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten hogei eskualdeetan. Tasa bereziki handiak lortu dira –ehuneko berrogeita hamar eta berrogeita hamabost bitartekoak- Arabako Lautadan, Durangaldean eta Kantauri Arabarrean, eta tasa positiborik txikienak –ehuneko hamar eta hogei bitartekoak- Arabako Mendialdean eta Donostialdean lortu dira. Hazkundearen erritmoan ageri diren alde horiek ez dute funsezko aldaketarik eragiten, ordea, hirurogeita bost urtetik aurrerako biztanleen banaketa geografikoan: multzo horretako biztanleetatik bi heren baino gehixeago –ehuneko hirurogeita zazpi eta hirurogeita zortzi bitartean– lurralde historikoetako hiriburuak dauden eskualdeetan bizi ziren aztergai izan den aldiaren hasieran nahiz amaieran; eta beste muturrean, adineko biztanle gutxien dituzten bederatzi eskualdeek laurogeita hamaikagarren urtean ehuneko 9,3ko tasa zuten, eta handik hamar urtera ehuneko 9,0ko tasari eusten zioten (5. eranskina).

Tamaina ertaineko udalerriek (bost mila eta hogei mila biztanle bitartekoek) eta handienek (berrogeita hamar mila biztanle baino gehiagokoek) izan dute adinekoen kopuruaren gehikuntzarik handiena, ehuneko berrogeitik gorakoa. Ikuspegi horretatik begiratuta ere, adineko biztanleriaren hazkunde ezberdinak ez du funtsean aldarazi udalerrien tamainaren arabera adineko biztanleak banatzen diren modua: bost mila biztanletik beherako udalerrietan, laurogeita hamaikagarren urtean adinekoen 12,5 bizi ziren, eta bi mila eta batgarren urtean, berriz, ehuneko 11,7 bizi ziren (6. eranskina).

Hirurogeita hamabost urte edo gehiago dituzten biztanleen multzoa, 1991-2001 bitarteko urteetan, hirurogeita bost urte edo gehiago dituzten biztanleen multzoa baino zertxobait gehiago handitu da: lehenengoa ehuneko 36,3 eta bigarrena ehuneko 35,3; alabaina, 2001-2010 aldirako aurreikusten den hazkundea askoz handiagoa da: ehuneko 51,8ko gehikuntza, oro har. Gehikuntzarik handiena Bizkaian aurreikusten da (ehuneko 53,6), eta txikiena Araban (ehuneko 48,9).

**3. grafikoa: Hirurogeita hamabost urte bete dituzten biztanleak: bilakaera eta aurreikuspenak**




Biztanleriaren hazkundearen moteltze orokorra eta adinekoen multzoak izan duen eta izango bide duen gehikuntza direla-eta, Euskal Autonomia Erkidegoko zahartze tasa laurogeita hamaikagarren urtean ehuneko 12,4 izatetik 2001. urtean 17,0 izatera igaro da, eta ustez ehuneko 20,5era iritsiko da 2010. urtean. Hogei urte horietan, biztanleen kopuru osoan 75 urtetik gorakoek egiten duten portzentajea bikoiztu egingo da: ehuneko 5,00 zen hasieran eta ehuneko 10,6 izango da amaieran.

**4. grafikoa: 65 urte bete dituzten pertsonen proportzioa kopuru osoaren aldean (zahartze tasa)**




**5. grafikoa: 75 urte bete dituzten pertsonak, kopuru osoaren aldean**



Zahartze tasarik altuenak, 2001. urtean, eskualde hauetan izan zituzten: Arabako Mendialdean (ehuneko 29,1), eta Arabako Ibarretan, Arratian, Debabarrenean, Enkarterrin, Arabako Errioxan, Gernika-Bermeon eta Markina-Ondarroan, kasu guztietan ere ehuneko hogei eta hogeita bost bitarteko tasa izan baitzuten; biztanleriarik gazteenak –hirurogeita bost urtetik gorako bizilagunak ehuneko hamalau eta hamasei bitarte baitira- Arabako Lautadakoa, Durangaldekoa, Plentziakoa eta Urola Kostakoa dira. Zahartze tasen arteko aldeak gorabehera, adinekoen eskualdekako banaketa biztanleria osoaren banaketak baldintzatzen du neurri handi batean. Hain zuzen ere, adineko biztanleen bi heren baino gehiago (ehuneko 67,5) lurraldeetako hiriburuak dauden eskualdeetan bizi dira (7. eranskina).

Zahartzeak bereziki eragiten die bizilagun gutxien dituzten udalerriei: tasa ehuneko 24,4koa da bostehun biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan. Proportzio hori pixkanaka jaisten da bost mila-hamar mila biztanleko udalerrien mailara iritsi arte, eta maila horrexetan lortu da tasarik txikiena, ehuneko 16,4; tamaina horretatik gora, adineko biztanleen portzentajea apurka-apurka handitzen da, berrogeita hamar mila biztanle baino gehiago dituzten hirietan, oro har, ehuneko 18,6ko balioa jo arte (8. eranskina).

Adinekoen autonomiarik ezak sortzen dituen arazoen eraginari buruz Euskal Autonomia Erkidegoan egin diren ikerketen emaitzak gurearen antzeko beste gizarte esparru batzuetan egindako azterlanetan lortutakoak baino apur bat baxuagoak dira; horren arrazoia, zalantzarik gabe, mendekotasuna baloratzeko erabilitako irizpideen ezberdintasuna da. Euskal Autonomia Erkidegoan egin diren azterlanek agerian utzi dutenez, mendekotasunaren prebalentzia dagoeneko garrantzizkoa da hirurogeita bost/hirurogeita hamalau urteko adin-mailan –multzo osoaren ehuneko 6,1ek dute mendekotasuna, gradu ezberdinetan– eta aztergai den hurrengo adin-tartean, hau da, hirurogeita hamabost urte bete dituzten pertsonen multzoan, halako hiru baino gehiago egiten da, ehuneko 22,1eko baliora iristen baita.

**6. grafikoa: Ezgaitasunaren eragina 65 eta 74 urte arteko pertsonengan**




**7. grafikoa: Ezgaitasunaren eragina 75 urte edo gehiago dituzten pertsonengan**




Dena dela, azpimarratu beharra dago EAEn egin diren ikerketetan oso definizio murriztailea erabili izan dela mendekotasuna zer den azaltzeko, alegia, mendekotasun arazo larriak dituzten adinekoak bakarrik jo direla ezgaitutzat. Ondorio horixe atera behar da Estatuan egin diren antzeko azterlanetatik ateratako emaitzak kontuan hartzen badira.

| Mendekotasuna duten adinekoen zenbatespen batzuk | | |
|---|---|---|
| **Egilea/k eta data** | **Iturria** | **Zenbatespena** |
| Casado eta López (2001) | Zahartasuna, mendekotasuna eta luzaroko zainketak. | Adinekoen %34,2k mendekotasun handia dute. |
| Abellán eta Puga (2001) | España 2001 txostena. | Adinekoen %33,5ek arazoak dituzte ohiko jardueretan eta %20,7k arazo txikiak dituzte. |
| INE (2001) | Ezgaitasunei, urritasunei eta osasun-egoerari buruzko inkesta 1999. | Adinekoen %36,2k ezgaitasunen bat dute. |
| Abellán eta Puga (2002) | Espainiako adinekoen mendekotasunak eta laguntza-beharrak. 2010erako aurreikuspena. | Adinekoen ehuneko 26k arazoak dituzte, ehuneko 12,4k arazo ertainak eta larriak. |

Gure erkidegoan lortutako ezgaitasun tasak 1991n eta 2001ean bertan ziren biztanle kopuruei eta 2010. urterako aurreikusten den biztanle kopuruari aplikatuta lortzen den zenbatespenak honako hau jartzen du agerian:

- Euskal Autonomia Erkidegoan bizi ziren adineko pertsona ezgaituen kopurua 1991tik 2001era gutxi gorabehera ehuneko 35,8 hazi zen. Araban hazi zen gehien (ehuneko 41,4) eta Gipuzkoan gutxien (ehuneko 32,5);

- 2001-2010 aldirako ere pareko gehikuntza orokorra espero da, ehuneko 35,7 hain zuzen. Hiru lurralde historikoetan gehikuntzak antzekoak izango dira, handiena Araban (37,3) eta txikiena Bizkaian (35,1).

**8. grafikoa: hirurogeita bost urte edo gehiago izan eta autonomia arazoak dituzten biztanleak: bilakaera eta aurreikuspenak**



Ezgaitasuna duten adinekoen kopuruaren bilakaera eta adinekoen kopuru osoaren bilakaera alderatuz gero, bi ondorio garrantzitsu ateratzen dira, eta bigarrenak gainera garrantzi berezia du:

- 1991-2001 bitartean, ezgaitasuna zuten adinekoen kopuruaren hazkundea eta adineko guztien kopuruaren hazkundea ia berdinak izan ziren: lehenengoa ehuneko 35,8 hazi zen eta bigarrena ehuneko 35,3.

- 1001-2010 bitartean ezgaitasuna duten adinekoen kopuruak ustez izango duen gehikuntza askoz handiagoa da hirurogeita bost urte edo gehiago dituzten biztanleen kolektiboari iragartzen zaiona baino -lehenengoa ehuneko 35,7 gehituko da eta bigarrena ehuneko 18,5-, izugarri azkar haziko delako ezgaitasunak gehien jotzen duen sektorea, hau da, hirurogeita hamabost urte edo gehiago dituzten biztanleena.

**9. grafikoa: Adinekoen kopuruaren eta ezgaitasuna duten adinekoen kopuruaren bilakaera eta bilakaerari buruzko aurreikuspenak (zenbaki adierazleak, oinarria 1991=100)**



Biztanleria zaharraren adinaren araberako egituran agertzen diren diferentzien ondorioz, ezgaitasunaren eragina ez da guztiz berdina hiru lurraldeetan, eta aldatu egiten da denboran zehar, bereziki 2001-2010 bitartean; arrazoia, gorago esan denez, hamarkada horretan kolektiboaren barruan izandako zahartze prozesua da.

**10. grafikoa: Ezgaitasunaren prebalentzia, aztertu diren lurraldeetan eta urteetan (%)**




Beste zertzelada bat azpimarratu behar litzateke, nahiz eta analisian inolako eraginik ez izan; gainera, haren kalkuluan erabilitako metodologia dela-eta, emaitzak ez dira funtsean aldatzen ez lurralde historiko batetik bestera ez data batetik bestera. Hona bada: larritasun maila kontuan hartuta, ezgaitasuna duten adinekoetatik gutxi gorabehera ehuneko 22 inguruk erabateko mendekotasuna dute, ehuneko 24k ezgaitasun larriak dituzte, eta gainerakoek, ehuneko 54k, autonomia arazo garrantzitsuak dituzte.

# 3. BANAKAKO LAGUNTZARAKO ZERBITZUEN BILAKAERA

## 3.1. Egoitzazko zerbitzuak

### 3.1.1. *Zentroak eta plazak*

1991tik 2001. urtera bitartean egoitza-zentroen kopurua 120tik 305era igo da, hots, ehuneko 154 inguru hazi da, eta, zenbaki garbitan emanda, urtean 18,5 egoitza zabaldu dira batez beste. Arabako eta Bizkaiko gehikuntzak batez bestekoa baino handiagoak izan dira, ehuneko 185etik gorakoak bietan ere. Gipuzkoan, berriz, gehikuntza ehuneko 95ekoa izan da.

**11. grafikoa: Egoitza-zentroen kopuruaren bilakaera**




Adinekoen kopuruaren eta egoitza-zentroen kopuruaren arteko erlazioari erreparatuta, laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran alde handiak zeuden eskualde batetik bestera, baina hamarkada horretan zabaldu diren zentroen kopuru garbiek nabarmen laburtu dituzte aldeak. Hala bada, laurogeita hamaikagarren urtean bazen eskualde bat, Arabako Ibarrak, egoitza bat bera ere ez zuena, eta beste bat, Durangaldea, zentro bakoitzeko bederatzi milatik gora adineko zituena; baina hamar urte geroago eskualde guztiek zuten egoitza-zentro bat gutxienez, eta Durangaldean lau milako mailaren azpitik zegoen adinekoen kopurua zentro bakoitzeko. Udalerrien tamaina kontuan hartzen badugu, hor ere zentro bakoitzeko batez besteko adineko kopuruen arteko aldeak laburragoak direla ikusiko dugu; hori horrela da laurogeita hamaikagarren urteko ratiorik altuenen balioak behera egin duelako orokorrean (9. eta 10. eranskinak).

Batez ere egoitza pribatuen irekierak eragin du zentroen kopuruaren gorakada. Izan ere, egoitza pribatuen kopurua ehuneko 216,7 igo da. Egoitza pribatuak laurogeita

hamaikagarren urtean zentro guztien ehuneko 55,0 ziren eta bi mila eta batean jada ehuneko 68,5 ziren; zentro pribatuen gehikuntzarik handiena Araban izan dute (ehuneko 428,6), eta txikiena Gipuzkoan (ehuneko 106,7). Egoitza publikoak, bestalde, ehuneko 77,8 gehitu dira. Gipuzkoan izan dute gehikuntzarik handiena (ehuneko 88,9) eta Bizkaian txikiena (ehuneko 58,3).

**12. grafikoa: Zentro publikoen eta pribatuen kopuruen bilakaera**







Euskal Autonomia Erkidegoan, 1991tik 2001era bitartean adinekoen egoitzetako plazen kopurua ehuneko 54,5 gehitu da –urtearteko hazkundea ehuneko 4,95 izan da–. Horrek esan nahi du urtean batez beste 457 plaza sortu direla. Lurralde historiko guztiek oso ahalegin handia egin dute ildo horretatik, baina alde nabarmena dago Gipuzkoatik (ehuneko 65,4 gehikuntza) Bizkaira (gehikuntzarik txikiena, ehuneko 47,8koa).

**13. grafikoa: Adinekoen egoitzetako plazen kopuruaren bilakaera**



Kontuan hartzeko ondorio praktikorik ez badu ere, azpimarratu beharra dago, gizarte arloan egindako ahaleginaren neurri zehatza agerian jartze aldera, aztertutako aldian sortu diren plaza berrien kopurua handiagoa dela aurreko puntuan dauden zenbakietatik ondorioztatzen dena baino. Izan ere, kontuan hartu behar litzateke aldi horretan plaza batzuk itxi egin direla, zaharkiturik geratu direlako edo bestelako arrazoiengatik, eta beste batzuk birmoldatu, gero eta autonomia urriagoa duten erabiltzaileen beharrizanei egokitzeko. Horrek plazen kopuruaren beherakada eragin du, eta berdin gertatu da bi plaza baino gehiago dituzten logelak lagun batentzako edo birentzako gela bihurtzeko birmoldatu behar izan diren kasuetan. Azken kontzeptu hori da zenbakiz aztertu den bakarra. Jakin denez, aztertutako aldian 917 plaza galdu dira gutxienez; horiei sortu diren 4.272 plazak gehitu behar zaizkie zenbat plaza berri sortu diren jakiteko. Bada, horren arabera, urtean gutxienez 577 plaza berri sortu dira.

**14. grafikoa: Bi lagun baino gehiagorentzat diren logeletako plazen kopuruaren bilakaera**




Plazen kopuruaren arabera eskualdez eskualde deskribatu den bilakaeratik honako alderdi hauek azpimarratu daitezke:

- Plaza gehienak lurralde historikoetako hiriburuak dauden eskualdeetan pilatzeko joera nabari da. Izan ere, plaza berri guztietatik ehuneko 72,3 eskualde horietan sortu dira, baina adineko biztanleak eskualde horietako biztanle guztien 67,5 baino ez ziren bi mila eta batean. Prozesu horren eragile nagusia Donostialdeko eskaintzaren gehikuntza izan da: ehuneko 176,7ko gehikuntza, askoz handiagoa Arabako Lautadakoa baino (ehuneko 59,8) eta, bereziki, Bilbo Handiko eskaintzaren gehikuntza baino (ehuneko 40, Erkidegoko batez bestekoa baino txikiagoa).

- Sei dira Erkidegoko batez bestekoa baino plaza-gehikuntza handiagoa izan duten eskualdeak: Arabako Ibarrak (laurogeita hamaikagarren urtean eskualde horretan ez zegoen mota honetako zerbitzurik), Arratia, Durangaldea, Gernika, Bermeo eta Plentzia Bizkaian, eta Tolosaldea Gipuzkoan.

- Lau eskualdetan plazen kopuru garbiak behera egin duela ikus dezakegu. Horietariko hirutan, hots, Arabako Mendialdean, Kantauri Arabarrean eta Markina-Ondarroan, jaitsiera unitateka neurtu da, eta bestean, Debabarrenean alegia, berrogeita zazpi plaza galdu dira zentroen birmoldaketaren ondorioz, eta eskaintza ehuneko hamar murriztu da horrenbestez.

**15. grafikoa: Plazen kopuruaren bilakaera eskualdez eskualde**




Hamar urte hauetan plazen kopurua gehien igo den udalerriak bostehun eta mila biztanle artekoak dira; izan ere, udalerri horietako eskaintza 33 plazatik 239 plazara igo da. Mila eta bost mila biztanle arteko udalerriek eta berrogeita hamar milatik gorakoek ere Erkidegoko batez bestekoa baino balio handiagoak izan dituzte.

**16. grafikoa: Plazen kopuruaren bilakaera udalerriaren tamainaren arabera**




Egoitzetako plazen kopuruaren gehikuntzan zerikusia izan dute bai administrazio publikoek (plazen gehikuntzaren ehuneko 48 eragin dute) bai erakunde pribatuek (ehuneko 60,3). Ikuspegi horretatik, eskaintzaren osaeran ez da aldaketa handirik izan urte batetik bestera, Araban izan ezik, lurralde horretan plaza publikoen ehunekoa 82tik 64ra jaitsi baita; Gipuzkoan eta Bizkaian, aldiz, proportzioek lehengo mailari eutsi diote: gutxi gorabehera, lehenbizikoan plaza publikoak hirutik bi dira eta bigarrenean lautik bat. Euskal Autonomia Erkidego osoan plaza publikoen proportzioak, bi puntu jaitsi bada ere, ehuneko 45-50eko mailari eutsi dio.

**17. grafikoa: Egoitzetako plaza publikoen eta pribatuen bilakaera**




Zentroak, alde batetik, eta plazak, bestetik, erritmo berean hazi ez direnez, egoitzen batez besteko tamaina ehuneko 39 murriztu da, alegia, laurogeita hamaikagarren urtean batez beste 65,4 plaza zeuden zentro bakoitzeko eta 2001. urtean 39,8. Araba eta Bizkaia dira zentroen tamaina gehien murriztu zaien lurraldeak, hurrenez hurren ehuneko 46 eta ehuneko 48. Gipuzkoan jaitsiera txikiagoa izan da (ehuneko 15), eta horrenbestez, Gipuzkoako zentroen batez besteko tamaina lurralde guztietan handiena izan da aztergai dugun aldiaren amaieran.

**18. grafikoa: Zentroen batez besteko tamainaren bilakaera**




Zentro publikoek, pribatuak baino handiagoak izanik ere, ehuneko 17 murriztu dute euren batez besteko tamaina: laurogeita hamaikagarren urtean zentro bakoitzeko 69,2

plaza zeuden eta 2001. urtean 57,6 baino ez. Jaitsiera hori garrantzitsua izan da Araban (ehuneko 30), eta Bizkaiak izan du jaitsierarik txikiena (ehuneko 6); hain zuzen ere lurralde horretako egoitza publikoek dute batez besteko tamainarik handiena. Zentro pribatuek, bestalde, urte batetik bestera ia ehuneko berrogeita hamar murriztu dute euren tamaina: laurogeita hamaikagarren urtean zentro bakoitzeko 62,3 plaza zeuden eta bi mila eta batgarren urtean 31,5. Bizkaiak izan du baliorik txikiena, 20,6 hain zuzen. Gipuzkoak izan du baliorik handiena, Bizkaiari alde handia kentzen diola: 45,2 plaza zentroko.

**19. grafikoa: Zentro publikoen eta pribatuen batez besteko tamainaren bilakaera**




Zentroen tamaina murriztu egin da, neurri handi batean, egoitza nagusien aldean hazkunde erritmo bereziki azkarra izan dutelako beste egoitza mota batzuek -etxebizitzak, babespeko apartamentuak eta egonaldi laburretarako zentroak-. Horrelakoak, oro har, laurogeita hamaikagarren urtean 185 plaza izatetik bi mila eta batean 1.607 plaza izatera igaro dira; hau da, zentro horietako plazen kopurua lehen baino 8,7 bider handiagoa da, eta egoitza nagusietako plazen kopurua, berriz, 1,4 bider handiagoa.

**20. grafikoa: Plazen kopuruaren bilakaera zentro motaren arabera**




Beste ikuspegi batetik hauxe azpimarratu behar da: ehun erabiltzaile baino gehiago har ditzaketen zentroen portzentajea, 1992. urtetik 2000. urtera -urte horietako datuak baino ez ditugu- ehuneko 14,5etik ehuneko 9,3ra jaitsi da, eta zentro horietako plazen portzentajea, berriz, 45,0tik 38,2ra; hala eta guztiz ere, tamaina horretako zentroen kopurua aldi berean ehuneko 50,0 gehitu da eta halako zentroetako plazen kopurua ehuneko 24,2 hazi da.

**21. grafikoa: Ehun erabiltzaile baino gehiago har ditzaketen egoitzen portzentajearen eta halako zentroetako plazen portzentajearen bilakaera**



## *3.1.2. **Estaldurak eta eraginkortasun horizontalak***

Egoitzazko laguntzaren estaldura ere (hau da, plazen portzentajea, hirurogeita bost urte edo gehiago dituzten biztanleen kopuruaren aldean) handitu egin da hamar urte horietan. Noski, hazkundea ez da hain handia izan; estaldura ehuneko 3,0tik ehuneko 3,4ra igaro da, alegia, ehuneko 13,3 gehitu da. Ikuspegi horretatik, eskualdeen arteko aldeak bai aldi horren hasieran zein amaieran oso handiak dira eta justifikatzen zailak: Arabako estaldura Bizkaikoa baino ehuneko 60 handiagoa da bai 1991n bai 2001ean.

**22. grafikoa: Egoitzazko zerbitzuen estalduraren bilakaera**




Eskualde batetik bestera, jakina, estalduren arteko diferentziak handiagoak dira lurralde batetik bestera baino: 2001. urtean Plentzian zuten estaldurarik handiena, hots, 8,81 plaza hirurogeita bost urtetik aurrerako ehun biztanleko; estaldura hori ia hamar aldiz handiagoa da estaldura apaleneko eskualdean, Arabako Mendialdean hain zuzen, eskaintzen dena baino (0,89). Bilakaerari begiratzen badiogu, plazarik ez zuen eskualde bakarrean, Arabako Ibarretan, plazak sortu dira –horrela ezabatu egin dira eskualde horren eta gainerakoen arteko diferentzia erlatiboak, matematikoki infinituraino iristen zirenak–, baina horrez gainera, esan liteke ez dela eskaintza eskualde guztietan berdintzeko politika garbirik erabili. Hori ageri-agerian dago ondoko gertaera hauetan:

- Laurogeita hamaikagarrenean estaldurarik txikiena zuten bost eskualdeetatik hirutan –Arabako Mendialdean, Bidasoa Beherean eta Bilbo Handian– aldagai horren balioak beherantz egin du hurrengo hamar urteetan.

- Laurogeita hamaikagarrenean ehuneko seitik gorako estaldura eskaintzen zuten bi eskualdeetan, alegia, Plentzian eta Enkarterrin, ratio horren balioaren gehikuntza batez besteko gehikuntza orokorraren gainetik egon da.

**23. grafikoa: Egoitzazko zerbitzuen estalduraren bilakaera eskualdeka**










Udalerrien tamaina kontuan hartuta hauxe ikusi da: laurogeita hamaikagarren urtetik bi mila eta batgarren urtera estaldura tasek beherantz egin dute bost mila eta berrogeita hamar mila arteko biztanle kopurua duten udalerrietan, oro har. Ikertutako urte guztietan, mila eta bi mila arteko biztanle kopurua duten udalerriak dira lehenengoak, hau da, estaldura handiena dutenak.

**24. grafikoa: Egoitzazko zerbitzuen estalduraren bilakaera udalerrien tamainaren arabera**




Hamar urte horietan ahalegin handia egin bada ere, Euskal Autonomia Erkidegoko egoitzazko laguntzaren estaldura Estatuan lortu dena baino ehuneko sei txikiagoa da, eta Europar Batasuneko edozein herrialdetan oraintxe dagoen estaldura baino txikiagoa, era berean. Arabako estaldura bakarrik jo daiteke arlo honetan gehien garatu diren autonomi erkidegoetako estalduren parekotzat, nahiz eta Europako herrialde gehienetako estaldurak baino apur bat apalagoa izan oraindik ere.

**25. grafikoa: Egoitzazko zerbitzuen estaldura hainbat tokitan**




Iturria: Adinekoak Espainian. 2002ko txostena. Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa.
Adinekoen osasuna ELGAko herrialdeetan. ELGA, 1998.

Egoitzan sartzeko itxaron zerrenda nahiko adierazle eskasa da eta administrazio-praktikek guztiz baldintzatuta egon ohi da. Hala ere badu garrantzirik, egoitzan sartzeko itxaron behar izateak agerian jartzen duelako eskaintzaren urritasuna. Horren ildotik, GZEEZek emandako datuak azpimarratu behar dira: aztertutako lehenengo bost urteetan, plazen kopurua erritmo motelagoan hazten ari zelarik, itxaron zerrendaren joera beheranzkoa izan zen, eta bigarren bosturtekoan goranzko bidea hartu zuen; izan ere, 2001ean izena emandako pertsonen kopurua (1.405 denetara) soilik ehuneko zazpi txikiagoa izan zen 1991n izena emandakoen kopurua baino.

**26. grafikoa: Itxaron zerrendan izena emandako pertsonen kopuruaren bilakaera**




GZEEZetik ateratako zenbakiek erakusten dutenez -mila bederatziehun eta laurogeita hamaseigarren urteko datuak eta bi mila eta batgarren urtekoak baino ez daude-, laurogeita bost urte edo gehiago dituzten egoiliarren kopuruari mila eta laurehun pertsona gehitu zaizkio urte horien bitartean; horrela, egoitzetan adin-tarte horrek duen pisu erlatiboak 4,1 puntu egin du gorantz bost urtean; proportzio hori handitu ez den lurralde bakarra Araba da; bertan, laurogeita bost urtetik gorakoen portzentajea, laurogeita hamaseigarren urtean, altuena zen alde handiaz.

**27. grafikoa: Laurogeita bost urte edo gehiago dituzten egoiliarren proportzioaren bilakaera**




GZEEZek 1991. urteari dagokion eragiketan ez ditu bereizten erabiltze autonomoak eta menpekotasuna dutenak, eta bereizten hasten denean ez du bereizketa modu homologarrian egiten, hau da, aurrez ezgaitasunaren definizio zehatza emanda. Hala eta guztiz ere, merezi du aipatzea 1996 eta 2001 bitartean, bost urtean soilik, 51,2tik

62,9ra igo zela autonomiarik gabeko erabiltzaileen proportzioa erabiltzaileen kopuru osoaren aldean. Aldaketa horrek, zalantzarik gabe, badu zerikusia mila bederatziehun eta laurogeita hamalauko Euskadiko Plan Gerontologikoan emandako jarraibideekin eta, nola ez, egoiliarrak gero eta zaharragoak izatearekin.

**28. grafikoa: Euren kabuz moldatzen diren erabiltzaileen eta ezgaituen kopuruen bilakaera[1]**




[1] Data jakin bateko erabiltzaileak; badira mendekotasuna baloratu gabe duten egoiliarrak

Horrez gainera, GZEEZetik hartutako datuek erakusten dutenez, zentro handienetan ere, egoitzetan hain zuzen –plan gerontologikoaren jarraibideen arabera, baliabide horiek ezgaitasuna duten pertsonentzat izan behar dira–, ezgaituen proportzioa azken bosturtekoan ehuneko 49,8tik 65,4ra igo bada ere, oraindik egoitzek bide luzea egin behar dute helburutzat jarritako ehuneko 100eko eraginkortasun bertikala[16] lortzeko. Deigarria da, beste alde batetik, berez moldatzen diren pertsonentzako diseinaturik dauden etxebizitzetan eta babespeko apartamentuetan hainbestekoa izatea ezgaitutzat baloratu diren pertsonen proportzioa; gainera, proportzio horrek gorantz egiten du pixkanaka (37,0 zen 1996an eta 38,1 zen 2001ean).

[16] Egoitzetan dauden adineko ezgaituen proportzioa, egoitzen kopuru osoaren aldean.

**29. grafikoa: Ezgaitasuna duten erabiltzaileen proportzioaren bilakaera baliabide motaren arabera**




Egoitzen eraginkortasun bertikala ehunetik ehun izatea helburu duen prozesua oraindik burutu gabe egon arren, horrelako zentroetan dauden plazak –kasu honetan ez dira aintzat hartzen egoitza-zentro txikiagoak– ezgaitasun arazoak dituzten adinekoen sektorearentzat berariaz diseinatutzat jo litezke. Ikuspegi horretatik hauxe azpimarra daiteke; egoitzen eraginkortasun horizontalak[17] murrizpen kezkagarria izan du, ezgaitasuna duten adinekoen kopurua gehiago hazi delako zentro horietako plazen kopurua baino. Euskal Autonomia Erkidego osoan eraginkortasun horizontala ehuneko 25 inguru jaitsi da. Araban jaitsi da gehien, ehuneko 36, eta Gipuzkoan gutxien, ehuneko 12.

**30. grafikoa: Egoitzen eraginkortasun horizontalaren bilakaera**




[17] Honelako zentroetako plazen portzentajea, autonomia arazoak dituzten adinekoen kopuru osoaren aldean.

### 3.1.3. *Zerbitzuen kostua eta finantzabideak*

Egoitzazko zerbitzuetan egiten den gastua 1991n 78,2 milioi euro izatetik 2001ean 205,7 izatera igaro da. Hortaz, gastuak ehuneko 163ko gehikuntza izan du euro korrontetan eta ehuneko 84koa euro konstantetan. Benetako hazkundearen urtearteko erritmoa ehuneko sei baino handixeagoa izan da. Gipuzkoa, ikertutako aldian plaza gehien sortu duen lurraldea izanik, honelako zerbitzuetan egindako gastua gehien handitu duena ere bada: ehuneko 130 handitu du gastua euro konstantetan, eta horrenbestez lurralde horretako urtearteko hazkundea ia ehuneko bederatzira iritsi da.

**31. grafikoa: Egoitzazko zerbitzuetan egindako gastuaren bilakaera (euroak, milioiak)**




Adineko pertsona bakoitzeko (egoitza batean bizi nahiz ez) egoitzazko zerbitzuetan egindako gastua, azterketan jorratu diren hamar urteetan, 299 eurotik 582 eurora igo da. Horrek ehuneko 94,6ko gehikuntza adieraziko luke, baina benetako gehikuntza ehuneko 36 baino ez da, urte batetik bestera ehuneko 3 baino gehixeago. Ikuspegi horretatik ere lurraldeen arteko aldeak laburtu egin dira; izan ere, gasturik handiena egindako lurraldearen eta gasturik txikiena egindakoaren arteko erlazioa 2,76/1 zen aztertutako aldiaren hasieran eta 2,04/1 amaieran. Nolanahi ere, Arabatik Bizkaira dagoen aldea deigarria da: lehenengoan adineko pertsona bakoitzeko mila euro gastatzen dira urtean honelako zerbitzuetan, eta Bizkaian ezta bostehun euro ere.

**32. grafikoa: Egoitzazko zerbitzuetan adineko bakoitzeko egiten den gastuaren bilakaera**







Egoitzetako plaza bakoitzaren batez besteko kostua zertxobait igo da euro konstantetan, ehuneko 19 hain zuzen (urtearteko hazkundea ehuneko bi baino apur bat apalagoa izan da). Muturretako batean Gipuzkoako hazkundea nabarmentzen da, ehuneko 39,3koa izan baita benetako hazkundea, eta beste muturrean Araba ez atzera ez aurrera gelditu da, ehuneko 0,3ko jaitsiera izan baitu; kontuan hartu behar da, hala ere, aztergai den aldiaren hasieran plaza bakoitzeko kostua Araban ehuneko 44 handiagoa zela Gipuzkoakoa baino, eta aztertutako aldiaren amaieran ere Arabakoa zela kosturik handiena, aldea ordurako ehuneko 28ra murriztuta bazegoen ere.

**33. grafikoa: Plaza bakoitzeko kostuaren bilakaera (2001eko euro konstanteak, milaka)**




Zentro publikoetako plaza bakoitzaren batez besteko kostua, ikertutako urte guztietan, zentro pribatuetako plazena baino askoz handiagoa da, ehuneko hogeita hamarretik gorako aldeaz beti, eta jorratutako urteetan proportzio handiagoan gehitu da (ehuneko

82,1, eta plaza pribatuetan ehuneko 58,9). Aldi horretan zehar, Gipuzkoako zentro publikoetan plaza bakoitzeko kostua nabarmen txikiagoa izan da, baina lurralde bereko zentru pribatuetan alderantziz gertatu da: mila bederatziehun eta laurogeita hamaseitik aurrera beraiek dute plaza bakoitzeko kosturik handiena.

**34. grafikoa: Plaza bakoitzeko kostuaren bilakaera zentroaren izaeraren arabera (euro korronteak)**




BPGarekin alderatuta, egoitzazko zerbitzuetan eginiko gastua, aztergai hartu den denboratartean, BPGaren milako 3,82 izatetik milako 5,35 izatera igaro da. Horrenbestez gizarte esfortzua ehuneko 40 inguru handitu da, hots, ehuneko hiru baino apur bat gehiago urte batetik bestera. Ikuspegi honetatik ere Gipuzkoa da gehien aurreratu den lurraldea (ehuneko 68,1 gehikuntza), baina Araba, gutxien hazi dena izan arren (ehuneko 8,9), hasieran zuen lehen postuari eusten dio.

**35. grafikoa: Egoitzazko zerbitzuetarako erabiltzen den BPG zatia (milakoak)**



Administrazio publikoek, aldundiek eta udalek Euskal Autonomia Erkidegoan egoitzazko zerbitzuak sortu eta mantentzeko jartzen duten diru-kopurua 1991n 40,8 milioi euro izatetik 2001ean 115,1 milioi euro izatera igaro da, ehuneko 182ko gehikuntza izan baitu. Euro konstantetan gehikuntza hori ehuneko 97koa da; beraz, urtearteko hazkundearen batez besteko tasa ehuneko zazpi da. Gipuzkoan izan dute gorakada ikusgarriena, urtearteko benetako hazkundearen tasa ehuneko 11 baino zertxobait handiagoa izan baita, eta hazkunderik txikiena Araban izan dute: lurralde horretan aldagai horrek berak ozta-ozta gainditzen du ehuneko 3ko maila.

**36. grafikoa: Egoitzazko zerbitzuetan egindako gastu publikoaren bilakaera**




Administrazio publikoek adinekoen egoitzetarako jartzen dituzten diruek zerbitzu horietan egiten den gastuaren erdia baino gehiago estaltzen dute: 2001. urtean ehuneko 55,9, hau da, 1991n izandako portzentajea baino 3,7 puntu gehiago. Araba da hamar urte hauetan zehar finantzaketa publikoaren portzentajeak behera egin duen lurralde bakarra, baina oraindik ere, ikuspegi honetatik, Bizkaia baino 22,7 puntu gorago eta Gipuzkoa baino 15,3 puntu gorago dabil.

**37. grafikoa: Egoitzazko zerbitzuak finantzatzeko gastu publikoaren bilakaera (gastu osoaren %)**




Egoitzazko zerbitzuetan adineko pertsona bakoitzeko egiten den gastu publikoaren bilakaera goranzkoa izan da Erkidego honetan, bai euro korrontetan (ehuneko 108ko gehikuntza) bai euro konstantetan (ehuneko 45,7koa), eta urte batetik besterako gehikuntza ehuneko laukoa izan da batez beste. Araban jaitsiera txikia ikusten dugu aldagai honen benetako balioan (ehuneko -2,2). Hala ere, lehen bezala lurralde horixe da pertsona bakoitzeko gehien gastatzen duena: Bizkaian baino hiru aldiz gehiago eta Gipuzkoan baino ehuneko 117 gehiago.

**38. grafikoa: Egoitzazko zerbitzuetan adineko bakoitzeko egiten den gastu publikoaren bilakaera**




Administrazio publikoek plazen finantzaketan gero eta parte handiagoa izateak eta plazen kostua gehitu izanak ondorio hau ekarri dute: plaza bakoitzeko ekarpen publikoa, aztertutako hamar urteetan, ehuneko 82 gehitu da euro korrontetan eta ehuneko 27 euro konstantetan; horren arabera, urtearteko gehikuntza bi-hiru puntu artekoa izan da. Gipuzkoa da, noski, hazkunde handiena izan duen lurraldea: benetako hazkundea ehuneko 75ekoa izan du eta urteartekoa ia ehuneko seikoa. Bitartean, Arabako benetako hazkundeak ehuneko 8tik gorako jaitsiera izan du hamarkada horretan, euro konstantetan emanda hau ere; dena dela, azken lurralde horrek plaza bakoitzeko ekarpen publikorik handiena egiten duena izaten jarraitzen du, alde handiarekin.

**39. grafikoa: Egoitzako plaza bakoitzeko ekarpen publikoaren bilakaera**



Udal eta aldundiek plaza bakoitzeko egiten duten ekarpena nabarmen aldatzen da zentroaren izaeraren arabera. Zentro publikoek 2001ean pribatuek baino lau aldiz gehiago hartu zuten, eta Araban publiko eta pribatuen arteko diferentzia hori hamar aldiz handiagoa izan zen. Udal eta aldundiek zentro publikoei eta pribatuei plaza bakoitzeko egiten dizkieten ekarpenen arteko alde erlatiboak zertxobait laburtu dira ikertutako hamar urteetan zehar; izan ere, zentro publikoentzako ekarpenak ehuneko 81,4 gehitu dira euro korrontetan, eta zentro pribatuentzako ekarpenak ehuneko 110,2 hazi dira.

**40. grafikoa: Plaza bakoitzeko ekarpen publikoaren bilakaera zentroen izaeraren arabera (euro korronteak)**




EAEko administrazio publikoen aurrekontu bateratuak erreferentzia harturik, egoitzazko zerbitzuetan egiten den gastuaren proportzioaren gehikuntza nabarmena ikusten da. Izan ere, mila bederatziehun eta laurogeita hamaikagarren urtean proportzio hori ehuneko 0,74koa zen eta 2001. urtean 1,16koa; beraz, gehikuntza erlatiboa ehuneko 56,7 ingurukoa da.

**41. grafikoa: Egoitzazko zerbitzuak finantzatzeko gastu publikoaren proportzioaren bilakaera**



Udalek eta aldundiek, denetara, egoitzetan egiten den gastu publikoaren ehuneko 99 ordaintzen dute. Bada, bai udaletan bai aldundietan, aztertutako denbora-tartean gehitu egin dira egoitzetarako diren baliabide ekonomikoak. Dena dela, lurralde-erakundeetan gehikuntza handiagoa izan da udal-erakundeetan baino: lehenengoetan ehuneko 195 (euro korrontetan), eta bigarrenetan ehuneko 173. Nolanahi ere, eskumenak berriro banatzeko 155/2001 Dekretuak, zalantzarik gabe, zerbitzu hauek finantzatzeko egituraren aldaketa garrantzitsuak eragingo ditu etorkizunean.

**42. grafikoa: Aldundiek eta udalek gizarte zerbitzuetan egindako gastuaren bilakaera (euro korronteak)**




Laurogeita hamaikagarren urtean, udaletan likidatutako gastuen 0,71 egoitzazko zerbitzuak finantzatzeko izan ziren, eta bi milagarren urteko gastu-aurrekontuen ehuneko 1,92 erabili zen zerbitzu horien finantzaketarako. Beraz, gehikuntza erlatiboa ehuneko 170ekoa izan da. Arabako udalak dira, bai aztertutako lehenengo urtean bai azkenekoan, honelako zerbitzuetan aurrekontu-esfortzurik handiena egin dutenak, nahiz eta bederatzi urte horietan zerbitzuotara bideratutako baliabideen portzentajeak beherantz egin.

**43. grafikoa: Udalek egoitzei egindako ekarpen erlatiboaren bilakaera (1991, gastu likidatuak, eta 2000, gastuen aurrekontuak)**




Aldundietan, bestalde, honelako zerbitzuen finantzaketak gastu likidatuen ehuneko 0,62 bereganatu zuen laurogeita hamaikagarren urtean, eta handik hamar urtera, bi milako gastu-aurrekontuen ehuneko 0,85 bereganatu zuen, hau da, gehikuntza erlatiboa ehuneko 37,1ekoa izan zen. Udalen kasuan bezala, Arabako Aldundia da bere baliabideetatik honelako helburuetarako gehien jarri duena hala laurogeita hamaikagarren urtean nola bi milagarrenean. Dena dela, urte horietako lehenengotik bigarrenera portzentajeak beherantz egin zuen.

**44. grafikoa: Aldundiek egoitzei egindako ekarpen erlatiboaren bilakaera (1991, gastu likidatuak, eta 2000, gastuen aurrekontuak)**




Erabiltzaileek honelako zentroak mantentzeko egindako ekarpenak hamarkada horretan hiru halakotu egin dira ia: laurogeita hamaikagarren urtean 25,6 milioi euroko ekarpenak izan ziren eta 2001ean 74,9 milioi eurokoak; kuoten bidezko sarreren benetako balioa

2,05 handiagoa egin zen. Erabiltzaileek jarritako baliabide ekonomikoak gehien hazi diren lurraldea Gipuzkoa da (ehuneko 149,9ko gehikuntza, euro konstantetan), eta beste muturrean, Bizkaian, gehikuntza hori ehuneko 78,3 baino ez da izan.

**45. grafikoa: Erabiltzaileek egoitzazko zerbitzuak mantentzeko egindako ekarpenen bilakaera**




Erabiltzaileek egoitzazko zerbitzuen kostua finantzatzeko egiten duten ekarpenaren portzentajeak ia lau puntu egin du gora 1991. urtetik (orduan ehuneko 32,7 izan zen) 2001era (ehuneko 36,4). Araba da egoiliarren ekarpenen portzentajea gehien hazi den lurraldea, baina aldi berean Araba da, alde handiarekin, honelako zentroen finantzaketan erabiltzaileek ordaintzen dituzten kuotek pisu gutxien duten lurraldea.

**46. grafikoa: Egoitzen finantzaketan kuotek duten partearen bilakaera**



Egoiliarrek plaza bakoitzeko urtean ordaindutako batez besteko kuota 2001ean 6.175 eurokoa izan zen. Horrek esan nahi du 1991. urtetik kuota hori ehuneko 89,6 gehitu zela euro korrontetan, eta benetako gehikuntza ehuneko 32,6koa izan zela, hau da, urtearteko ia ehuneko hiruko hazkundea, batez beste. Plaza bakoitzeko kuota Gipuzkoan igo da gehien, lurralde horrek benetako gehikuntza ehuneko 78,7koa izan baitu; hala ere, 2001. urtean Gipuzkoako batez besteko kuota Bizkaikoaren parekoa zen. Biak ere Arabakoa baino ehuneko hamabi pasatxo handiagoak ziren.

**47. grafikoa: Erabiltzaileek ordaindutako batez besteko kuotaren bilakaera**




Egoitza pribatuetako erabiltzaileek batez beste ordaindutako kuota, aztertu diren urte guztietan, zentro publikoetan ordaindutakoa baina ehuneko hogeita hamabostetik gora handiagoa izan da. Araban diferentzia hori ehuneko ehunetik gorakoa izan zen 2001. urtean. Zentro publikoetako batez besteko kuoten gehikuntza, hamarkada honetan zehar, zentro pribatuetan ageri denaren berdintsua da: ehuneko 89,4 eta ehuneko 87,6 hurrenez hurren, euro korrontetan.

**48. grafikoa: Batez besteko kuoten bilakaera zentro publikoetan eta pribatuetan (euro korronteak)**




Erabiltzaileek batez beste ordaindutako kuoten bilakaera, aurrean azaltzen den hori, batez besteko erretiro-pentsioen nondik norakoarekin alderatzen badugu (pentsioa baita sarrera-iturri nagusia adinekoen ehuneko hirurogeita hamar baino gehiagorentzat) honakoa ikusiko dugu: Euskal Autonomia Erkidegoan 1991. urtean kuotak pentsioaren ehuneko 58,4 jotzen zuen eta hamar urte geroago portzentaje hori 69,8koa zen, aurrekoa baino hamaika puntu handiagoa. Deigarria da, ikuspegi honetatik, Gipuzkoan ageri den gehikuntza, hogeita hamar puntutik gorakoa. Horren arabera, lurralde hori erabiltzaileentzat onuragarriena izatetik garestiena izatera igarotzen da.

**49. grafikoa: Batez besteko kuotek batez besteko erretiro-pentsioetan egiten duten portzentajearen bilakaera**



### 3.1.4. ***Langileak***

Adinekoentzako gizarte zerbitzuetan soldatapean lan egiten zuten pertsonak 2001ean sei mila eta berrehun baino zertxobait gehiago ziren, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan zerbitzu sektorean lanean ari ziren langileen 1,27. Proportzio horrek Araban du baliorik handiena (100eko 1,69) eta Bizkaian txikiena (ehuneko 1,09).

**50. grafikoa:**

**a) Egoitzetako langileen banaketa lurraldeen artean (Guztira 6.237)**




**b) Langileen proportzioa zerbitzu sektoreari dagokionez (%)**




Langile gehienak, hamarretik zortzi baino zertxobait gehiago, zentroek zuzenean kontratatuerikoak dira, eta gainerakoek zerbitzuen kontratazioaren bitartez egiten dute lana zentroetan; bigarren aukera hori azken urteotan asko zabaldu da eta batez ere Gipuzkoan dago errotuta, bertan langile guztietatik ia ehuneko berrogei ari baitira lanean modu horretan.

Langileen erdiak baino gehixeago zentro pribatuetan ari dira lanean. Zentro pribatuetan diharduten langileen proportzioa Bizkaian da handiena eta Araban txikiena.

**51. grafikoa:**

**a) Zentroek eurek kontrataturiko langileen proportzioa**




**b) Zentro pribatuetako langileen proportzioa**




Oro har, hauxe baieztatu daiteke: langileen kopurua, ehun plazako, zentroa pribatua ala publikoa izatearen menpe dago neurri handi batean –ehun plazako 49,9 langile daude zentro pribatuetan eta 53,8 publikoetan, hots, ehuneko 7,8 gehiago bigarrenetan- eta halaber, zentroa zein lurraldetan dagoen, langileen kopurua aldatu egiten da: ehun plazako 56,3 Araban eta 50,3 Bizkaian, hau da, ehuneko 19ko aldea. Zehatzago, Bizkaiko zentro publikoen eta Gipuzkoako zentro publikoen artean ageri da diferentziarik handiena: ehun plazako 62,6 langile eta ehun plazako 45,9 langile, hurrenez hurren.

**52. grafikoa: Langileen kopurua ehun plazako, zentro motaren arabera eta lurraldez lurralde**




Zentroek eurek kontratatuteriko langileak, goian esan bezala, langile guztien ehuneko laurogei baino zertxobait gehiago dira. Laurogeita hamaikagarren urtetik bi mila eta batgarren urtera arte ehuneko 83,2 gehitu dira langile horiek, nahiz eta zentroek gero eta sarriago jotzen duten zerbitzuen kontratazioria; hazkunde hori plazen kopuruaren hazkundea baino hogeita hamar puntu handiagoa da, eta langileak/plazak ratioa gutxi gorabehera ehuneko 18,5 handitzea eragin du: zentroak berak kontratatuteriko 35,2 langile ehun plazako, laurogeita hamaikagarren urtean, eta 41,7, handik hamar urtera. Bizkaia da gehikuntzarik handiena izan duen lurraldea (ehuneko 91,0), eta Araban ageri da hazkunderik txikiena (ehuneko 66,0).

**53. grafikoa: Zentroak berak kontrataturiko langileen bilakaera egoitzetan**




Egoitzetako plantillak handitu egin dira, baita egoitzak berak kontrataturiko langileen proportzioa plaza bakoitzeko. Hori horrela izan da, funtsean, osasun-langileak sartu direlako, honelako zentroetako erabiltzaileen osasun-arazo gero eta ugariagoei aurre egiteko. Zentroek kontrataturiko osasun-langileak 1.115 ziren laurogeita hamaikagarren urtean eta 2.857 ziren 2001ean; beraz, haien kopurua ehuneko 156 igo zen batez beste. Baliorik altuena (ehuneko 212) Bizkaian lortu da, eta baxuena (ehuneko 83,7) Araban.

**54. grafikoa: Zentroek kontrataturiko osasun-langileen bilakaera**




Araban hazkundea txikiagoa izan arren, lurralde horretako egoitzek dute osasun-langileen kopuruaren eta plaza kopuruaren arteko ratiorik handiena, alde nabarmenaz; hain zuzen ere, ehuneko 32,5eko ratioa zuten 2001.ean. Gipuzkoan lortutako balioa, berriz, oso bestelakoa da: 14,7 baino ez.

**55. grafikoa: Osasun-langileen kopuruaren bilakaera ehun plazako**




Langileria gastuak, plantillako langile bakoitzeko, euro korrontetan ehuneko 21,3 gehitu dira aztertutako hamar urteetan zehar, baina euro konstantetan ehuneko hamabost inguru jaitsi dira. Deigarria da zein alde handia dagoen Arabako batez besteko langileria kostuen eta beste bi lurraldeetakoen artean. Izan ere, Arabakoa ia ehuneko berrogeita hamar handiagoa da Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa baino.

**56. grafikoa: Plantillako langile bakoitzeko batez besteko langileria-gastuaren bilakaera**







Hona hemen lurraldeen arteko diferentzia horien jatorria: Arabako lurraldean plaza publikoek pisu gehiago dute eta zentro publikoetan ari diren langileen batez besteko kostua handia da, beste arrazoi batzuen artean, osasun-langileen portzentajea handiagoa delako; gainera, beste ikuspegi batetik begiratuta, kezkagarria da lurralde horretako langileak izatea, hain zuzen, ordainsari txikiena dutenak. Kasu guztietan, hala ere, zentro publikoetako langileen batez besteko kostua nabarmen handiagoa da zentro pribatuetako langileena baino. Zentro pribatuetan magnitude horrek ehuneko 5eko beherakada izan du 1991tik 2001era bitartean, euro korrontetan.

**57. grafikoa: Batez besteko langileria-gastuen bilakaera zentro publiko eta pribatuetan (euro korronteak)**






## 3.2. **Eguneko zentroak**

### *3.2.1. Zentroak eta plazak*

Laguntzarako eguneko zentroak egoitzen ordezko baliabideak dira adinekoei arreta emateko. Azken urteotan hasi dira indarrez hedatzen gure Erkidegoan; laurogeita hamaikagarren urtetik laurogeita hamaseigarrenera arte, horrelako zentroen kopurua hamaikatik hogeita hirura igo zen (ehuneko 109ko gehikuntza), eta hurrengo bosturtekoaren amaierarako, berriz, eguneko zentroak baziren hirurogeita hamasei; beraz, ehuneko 230 gehitu ziren bitarte horretan. Honelako baliabideen aldeko aukera sendoena egin duen lurraldea Gipuzkoa da; bertan daude eguneko zentroen erdiak.

**58. grafikoa: Eguneko zentroen kopuruaren bilakaera**




Laguntzarako eguneko zentro gehienak, ia hiru laurden, administrazio publikoek sustaturikoak dira, baina azken urte hauetan gero eta sarriago ikusten ditugu erakunde pribatuak honelako baliabideak abian jartzen. Mota honetako establezimendu publikoen proportziorik handiena Araban dago (ehuneko 94), eta txikiena Bizkaian (ehuneko 60).

**59. grafikoa: Eguneko zentro publikoen eta pribatuen bilakaera**




Gizarte baliabide berri batez ari gara. Banakako laguntzarako zerbitzuen sareari erantsi zaio, bi helburu lortzeko: alde batetik sarea indartu egin nahi da, eta bestetik sareak askotariko osagaiak izan ditzala lortu nahi da, mendekotasuna duten adinekoek eta haien zaintzaileek agertzen dituzten beharrizan berriei hobeto egokitzeko. Hala bada, eguneko zentroak gure Erkidegoan ezartzeko laurogeita hamarreko hamarkadan egin den prozesuak datu interesgarriak eskaintzen ditu, eskualdeen ikuspegitik eta udalerrien tamainaren ikuspegitik baloratu daitezkeenak (11. eta 12. eranskinak).

- Araban, mila bederatziehun eta laurogeita hamaseigarren urtean, hiriburuak bazituen eguneko bost zentro eta haietariko lau lanean ari ziren laurogeita hamaikagarren urtetik hasita. Hurrengo bost urteetan asko indartu zen udalerri horretako sarea, hamar zentro izan arte, eta halako zentroen zerbitzuak lurralde osora zabaltzeko prozesua hasi zen. Hiriburutik kanpo sortu ziren zortzi zentro berriak eskualde guztien artean banatuta daude, zazpi mila biztanle baino gutxiago dituzten hiru eskualdeak barne direla. 2001ean, udalez gaindiko zentroen sare honetako erabiltzaileen garraio arazoak alde batera utzita, arazo bakar bat konpondu behar zen erabateko estaldura lortzeko: Laudion ez zegoen eguneko zentrorik eta udalerri horrek hogei mila biztanle inguru ditu.

- Bizkaian, laurogeita hamaikagarren urtean eguneko bi zentro zeuden bakarrik, biak ere Bilbo Handia eskualdeko udalerrietan: Portugaleten eta Muskizen; handik bost urtera honelako establezimenduak bost ziren, Bilbon bi eta Ortuellan beste bat zabaldu eta gero; beraz, artean Bilbo Handia zen honelako baliabideak zituen eskualde bakarra. Hurrengo bosturtekoan aurrerakada handia etorri zen; izan ere hamabost zentro berri ireki ziren, haietariko hamar, berriz ere, Bilbo Handia eskualdean (lau hiriburuan eta bana Arrigorriagan, Barakaldon, Basaurin, Derion, Santurtzin eta Trapagaranen),

eta gainerako bost zentroetatik, bat Arratia-Nerbioi eskualdean (Diman), bi Durangaldean (Ermuan eta Durangon), eta beste biak Gernikan. Gogora dezagun, erreferentzia gisa, azken udalerri horrek hamabost mila biztanle dituela. Bizkaian 2001. urtean baziren hiru eskualde batere estaldurarik ez zutenak: Enkarterri eta Markina-Ondarroa, hogeita bosna mila biztanlerekin, eta Plentzia, berrogeita bost mila biztanle baino gehiagorekin; beste ikuspuntu batetik, Bizkaian hamar mila bizilagun baino gehiago dituzten hemeretzi udalerrietatik bederatzik ez dute mota honetako baliabiderik.

- Gipuzkoan 2001ean lanean ari ziren hogeita hamazazpi eguneko zentroen banaketa geografikoa ikusita, esan liteke, Arabako kasuan bezala, eskaintza alde guztietara zabaltzeko ahalegin koherentea egin dela. Lurralde horretako eskualde guztiek hiru zentro edo gehiago dituzte, eta hamar mila biztanletik gorako udalerri guztiek (Zumarraga salbu, baina honek ozta-ozta gainditzen du hamar mila bizilagunen muga) gutxienez horrelako establezimendu bat dute; gainera, kontuan hartu behar da bost eta hamar mila biztanle bitarteko hamaika udalerrietatik lautan zentro bana dagoela -Deban, Legazpin, Villabonan eta Zumaian- eta bi mila eta bost mila biztanle bitarteko hamaika udalerrietatik bitan, Idiazabalen eta Zizurkilen, zentro bana dagoela.

Plazen kopuruak, bestalde, eguneko zentroen kopuruaren antzeko bilakaera izan du: lehenengo bosturtekoan asko hazi zen, ehuneko 115 hain zuzen, eta bigarrenean are gehiago, ehuneko 222. Gipuzkoa da, gainera, eskaintzarik zabalena duen lurraldea, bertako plazek ehuneko 44 egiten baitute lurralde guztietako plazen kopuru osoan.

**60. grafikoa: Eguneko zentroetako plazen kopuruaren bilakaera**



Zentro pribatuek eskaintzen dituzten plazak, hamarkada honetan zehar, ez dira zentro publikoetako plazak bezainbeste gehitu (lehenengoak ehuneko 430 gehitu dira eta bigarrenak ehuneko 684), eta kopuru osoaren aldean gutxiengoa izaten segitu dute (ehuneko 35, 1991n, eta ehuneko 17, 2001ean). Kasu honetan ere, plaza publikoen portzentajerik handiena Araban lortu da (ehuneko 96,5); Gipuzkoan eta Bizkaian proportzio honek dituen balioak ehuneko 63,9 eta ehuneko 65,7 dira, hurrenez hurren.

**61. grafikoa: Plazen kopuruaren bilakaera eguneko zentro publikoetan eta pribatuetan**




Zentro hauen batez besteko tamaina txikia da, eskaintzen dituzten prestazioen ezaugarriengatik eta hurbileko zerbitzuak izateagatik. Gutxi gorabehera hamazortzi-hogeita lau plaza bitarteko zentroak izaten dira. Tamainari dagokionez, aipatzeko moduko diferentzia bakarra hauxe da: Gipuzkoako zentro publikoen batez besteko tamaina txikiagoa da, batez beste 16,8 plaza baitituzte.

**62. grafikoa: Eguneko zentroen batez besteko tamainaren bilakaera**



### 3.2.2. ***Estaldurak eta eraginkortasun horizontalak***

Zentro hauek eskaintzen duten arretaren estaldura (hau da, hirurogeita bost urte edo gehiago dituzten mila pertsonatik zentro hauetan zenbatek jasotzen duten arreta) laurogeita hamaikagarren urtetik bi mila eta batgarrenera bitartean bost halakotu egin zen, 0,9tik 4,6ra igo baitzen; hala ere, proportzio hori egoitzazko zerbitzuena baino zortzi aldiz txikiagoa da. Zerbitzu hauen eraginkortasun horizontala ere (hau da, autonomia arazoak dituzten adineko mila pertsonako zenbat plaza dauden) estalduraren pare handitu da bi urte horien artean, milako 7,1etik 36,3ra igaro baita. Araba da estaldura eta eraginkortasun horizontal handienak dituen lurraldea, eta bi ratiook Bizkaian dituzte baliorik txikienak.

**63. grafikoa: Eguneko zentroen estalduraren eta eraginkortasun horizontalaren bilakaera (65 urte edo gehiago dituzten mila biztanleko)**




Azter dezagun laguntzaren estaldura eskualdez eskualde: Bizkaiko eskualde guztietan laguntzaren estaldura batez bestekoaren azpitik dago, eskualde horietatik hiruk ez dute batere estaldurarik, eta Arabako Errioxan, beste muturrean, adineko biztanleen milako hamarra gainditzen duten estaldurekin, Arabako Ibarrak, Lautada eta Arabako Mendialdea ditugu.

**64. grafikoa: Eguneko zentroen estaldura eskualdez eskualde (2001ean, 65 urte edo gehiago dituzten mila biztanleko)**




## 3.2.3. *Zerbitzuen kostua eta finantzabideak*

Eguneko zentroetan egindako gastua 1991ean 1,8 milioi eurokoa izan zen eta 2001ean 12,4 milioi eurokoa; beraz, gehikuntza ehuneko 592 ingurukoa da euro korrontetan eta ehuneko 367koa euro konstantetan. Ratio horiek, aurreko atalekoak bezalaxe, zerbitzu hauen hedapenaren adierazgarri dira. Hamarkadaren hasieran kopuru absolututan gutxien gastatzen zuen lurraldean, Bizkaian, hazi da gehien gastua, eta alderantzizkoa gertatu da Arabako lurraldean.

**65. grafikoa: Eguneko zentroetan egindako gastuaren bilakaera (euro korronteak)**




Eguneko zentroetan adineko biztanle bakoitzeko egindako gastua 6,8 eurotik 35,0 eurora igaro da, hots, aztertutako aldiaren hasieran baino 5,1 bider handiagoa da euro korrontetan eta ehuneko 246 gehitu da euro konstantetan. Gastua bereziki handia izan da Araban, bai aztertutako lehen urtean eta bai azkenekoan. Plaza bakoitzeko kostuak, aldiz, beherantz egin du hamar urte horietan, baita euro korrontetan ere: 7.715etik 7.685era jaitsi da. Bilakaera horren zergatikoa honela azaldu daiteke neurri handian: Arabako eta Bizkaiko hasierako zentroak tamaina handikoak ziren, baina gero aldatuz joan dira, kostu apalagoa duten Gipuzkoako zentro txikien eredura. Plaza bakoitzeko batez besteko kostua antzekoa da zentro pribatuetan eta publikoetan. Izan ere, zentro pribatuetako plazaren kostua soilik ehuneko 1,3 handiagoa da zentro pribatuetako plazarena baino.

**66. grafikoa: Pertsona eta plaza bakoitzeko gastuaren bilakaera (euro korronteak)**



BPG erreferentzia harturik, eguneko zentroen gastuak BPGaren zati oso txikia hartzen du baina azkar ari da hazten –milako 0,13 zen laurogeita hamaikagarrenean eta milako 0,32 bi mila eta batgarrenean–, eta ikuspegi honetatik ere Araba da zerbitzu hauen finantzaketan gizarte-esfortzurik handiena egiten duen lurraldea.

**67. grafikoa: Eguneko zentroetarako erabiltzen den BPG zatia (milakoak)**




Honelako zentroetara bideratutako dirutza publikoa, hau da, aldundiek eta udalek jarritakoa, laurogeita hamaikagarren urtean 1.377 mila eurokoa izan zen eta hamar urte geroago 8.660 mila eurokoa; horrenbestez, euro korrontetan ehuneko 524 inguruko gehikuntza izan du eta euro konstantetan ehuneko 339koa. Zentroen kostu osotik ekarpen publiko hauek estaltzen zuten portzentajea 2001. urtean ehuneko hirurogeita hamar ingurukoa zen. Aurreko urteetan, berriz, balio handiagoak lortu izan ziren: 76,9 laurogeita hamaikagarrenean eta 83,2 laurogeita hamaseigarrenean. Gipuzkoako administrazio publikoak dira gizarte-baliabide hauek finantzatzeko ekarpen txikiena egiten dutenak.

**68. grafikoa: Eguneko zentroak finantzatzeko gastu publikoaren bilakaera**






Administrazio publikoek lurraldeetako biztanle zahar bakoitzeko egindako diru-ekarpena 5,3 eurokoa izan zen laurogeita hamaikagarren urtean eta 24,5 eurokoa 2001.ean; hortaz, euro korrontetan hazkundea ehuneko 362koa izan da, eta euro korrontetan ekarpena hiru halakotu egin da (ehuneko 222ko gehikuntza). Lurraldeen arteko aldeak, ikuspegi honetatik, benetan handiak dira, Arabako administrazioek lau aldiz gehiago jarri baitute Bizkaikoek baino. Eguneko zentroetako plaza bakoitzeko ekarpenak, aztergai hartutako denbora-tartean, 5.935 eurotik 5.375 eurora jaitsi dira, plaza bakoitzeko gastu osoaren ildoari jarraituz; honetan ere Gipuzkoako lurraldea beste biak baino nabarmen beherago dago.

**69. grafikoa: Pertsonako eta plazako gastu publikoaren bilakaera (euro korronteak)**




Administrazio publikoek, zentzuzkoa denez, neurri handiagoan finantzatzen dituzte zentro publikoetako plazak. Hala ere diferentziak gero eta txikiagoak dira, plaza publikoetarako ekarpenen jaitsiera eta plaza pribatuei esleitutako kopuruen gehikuntza direla-eta. Badago datu deigarri bat atal honetan, alegia, Gipuzkoa izanik plaza bakoitzeko ekarpen publiko txikiena duen lurraldea, bera da aldi berean plaza pribatuak neurri handienean finantzatzen dituena.

**70. grafikoa: Plaza bakoitzeko ekarpen publikoaren bilakaera zentroen izaeraren arabera (euro korronteak)**




Administrazio publikoek eguneko zentroetan egindako gastua eta haien aurrekontu bateratuak alderatuz gero hauxe ageri da: gastu horrek aurrekontuaren portzentaje txiki-txikia hartzen du, baina oso azkar ari da hazten, portzentajea ehuneko 0,02 izatetik ehuneko 0,09 izatera igaro baita hamar urteko epean.

**71. grafikoa: Gastu publikotik eguneko zentroak finantzatzeko erabiltzen den zatiaren bilakaera**




Bai udalek eta bai, neurri handiagoan, aldundiek, erreferentziako hamar urteetan nabarmen gehitu dituzte eguneko zentroetarako diren kopuruak: udalek ehuneko 411 eta aldundiek ehuneko 633. Foru erakundeak dira, oro har, ekarpenik handiena egiten dutenak. Egoera, hala ere, asko aldatzen da lurralde batetik bestera: Gipuzkoan eta, bereziki, Araban, lurralde erakundeak dira, alde handiaz, finantzaketaren arduradun

nagusiak, baina Bizkaian udal erakundeei dagokie eginkizun hori. Egoitzen kasuan bezala, finantzaketaren egitura hori ziur asko aldatu egingo da 2002. urtetik aurrera, eskumenak berriro banatzeko dekretuaren eraginez.

**72. grafikoa: Aldundiek eta udalek eguneko zentroetan egindako gastuaren bilakaera (euro korronteak)**




Udalek eta aldundiek eguneko zentroak finantzatzeko egiten dituzten partidak oso txikiak dira, behin ere ez baitute gainditzen erakunde horien baliabideen ehuneko 0,4. Hala ere, portzentaje horiek goranzko joera nabarmena ageri dute, batez ere udal erakundeetan.

**73. grafikoa: Udalek eta aldundiek eguneko zentroetarako egindako ekarpen erlatiboen bilakaera (1991, gastu likidatuak, eta 2000, gastuen aurrekontua) (milakoak)**



Kuoten bitartez eguneko zentroek izandako diru-sarrerak, aztertu diren hamar urteetan zehar, ia hogeita bederatzi bider handiagoak egin dira euro korrontetan eta hogei bider kopuru errealetan. Dena dela, kontuan hartu behar da laurogeita hamaikagarren urteko emaitzak salbuespenezkoak direla, zentroetariko batzuek ia-ia proba moduan egiten zutelako lana. Eguneko zentroetako erabiltzaileek ordaindutako kopuruak 2001ean jada nahikoa ziren gastu osoaren ehuneko hogeia finantzatzeko.

**74. grafikoa: Kuoten bidezko sarreren bilakaera eguneko zentroetan**




Plaza bakoitzeko batez beste ordaindutako kuota, hamar urte horietan, urtean 371 euro izatetik 1.547 euro izatera igaro da. Berriz ere gogorarazi behar da hamarkadaren hasierako datuak salbuespenezkoak direla. Lurraldeak alderatuz gero, 2001. urtean erabiltzaileen batez besteko ekarpenetan alde handiak dituztela ikusten da; halaber, lurralde batetik bestera diferentzia handiak daude batez besteko erretiro pentsioetatik kuotek hartzen duten portzentajeari dagokionez, eta zentroa publikoa ala pribatua den kontuan hartuta erabiltzaileek egin behar duten ekarpenaren zenbatekoan ere bai.

**75. grafikoa: Eguneko zentroetako erabiltzaileen ekarpenen arteko aldeak (2001)**




## *3.2.4.* ***Langileak***

GZEEZek 2001ean egindako zenbaketaren arabera, eguneko zentroetako langileak orduan 452 ziren[18] . Horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko zerbitzuen sektorean, oro har, hamar mila langiletik bederatzi eguneko zentroetan ari dira. Ratio horren baliorik handiena Gipuzkoan dago (hamalau) eta txikiena Bizkaian (bost).

[18] Eguneko zentroetako langileak direla-eta, gogorarazi beharra dago hemen ageri diren kopuru guztiak gutxienekotzat hartu behar direla, kapitulu honen sarreran azaldu diren arrazoiengatik.

**76. grafikoa:**







Eguneko zentroetako langileen erdiek baino gehixeagok (ehuneko 51,3) zerbitzuen kontratazioaren bitartez egiten dute lana zentroan. Horrela ari diren langileen proportziorik handiena Bizkaian dago, hirutik bi egoera horretan aurkitzen baitira. Beste ikuspegi batetik, hots, zentroen izaera kontuan hartuta, ikusten dugu hirutik batek eguneko zentro pribatuetan egiten duela lana; zentro pribatuetan diharduten langileen portzentajea ia ehuneko berrogeita hamarrera iristen da Gipuzkoan.

**77. grafikoa: Langileen banaketa, lan-harremanaren eta zentroaren izaeraren arabera (2001)**







Betiere GZEEZeko datuekin ari garela, eguneko zentroetan ehun plazako zenbat langile dauden adierazten duen ratioa nabarmen aldatzen da lurralde batetik bestera –ratiorik handiena, 31,6, Gipuzkoan lortu da, eta apalena, 20,8, Araban-, eta zentroaren izaeraren arabera ere bai. Zentro pribatuetako ratioa ehuneko hogeita hamabost handiagoa da zentro publikoetakoa baino.

**78. grafikoa: Ehun plazako zenbat langile dauden, zentroaren izaeraren arabera**




## 3.3. **Etxeko laguntzarako zerbitzuak**

### 3.3.1. ***Estaldurak, intentsitateak eta mailak***

Laurogeita hamalaugarren urtetik bi mila eta batgarren urtera bitartean etxeko laguntzarako zerbitzu publikoak asko garatu dira onuradunen kopuruari dagokionez. Izan ere, zerbitzu horiek erabiltzen dituzten adinekoen kopurua 8.219tik 13.404ra igaro da; beraz, hazkundea ehuneko 63koa izan da, eta urteko bilakaeraren batez besteko tasa, berriz, ehuneko zortzi baino apur bat handiagoa. Lurralde guztietan gehitu da onuradunen kopurua, baina hazkundearen erritmoan alde nabarmenak ageri dira: Araban gehikuntza ehuneko 127ra iritsi da, eta beste muturrean, Bizkaian, ehuneko 36 baino ez da izan.

**79. grafikoa: ELZak erabiltzen dituzten adinekoen kopuruaren bilakaera lurraldez lurralde**




Eskualdeetako hazkunde-erritmoen arteko diferentziak handiagoak dira, noski: alde batetik onuradunen kopuruak beherantz egin du bi eskualdetan –Durangaldean eta Markina-Ondarroan– eta bestetik, laurogeita hamalaugarren urteko kopurua bikoiztu egin da zazpi eskualdetan: Arabako seietan eta Gipuzkoako Debabarrenean.

**80. grafikoa: ELZak erabiltzen dituzten adinekoen kopuruaren bilakaera eskualdeka**




Mila bizilagun baino gutxiago dituzten udalerrien multzoak eta berrogeita hamar mila biztanletik gorakoek osatzen duten multzoak, aztertu den aldian, batez besteko gehikuntza orokorra baino gehikuntza handiagoa izan dute. Bitartean, gehikuntzarik txikienak hogei mila eta berrogeita hamar mila biztanle arteko udalerrietan izan dituzte (ikus 13. eranskina, lurraldeen xehetasunak).

**81. grafikoa: ELZak erabiltzen dituzten adinekoen kopuruaren bilakaera, udalerriaren tamainaren arabera**




Aztergai hartutako denbora-tartean onuradunen kopuruak asko egin du gora eta, ondorioz, zerbitzu publiko hauek eskaintzen duten laguntzaren estaldura zabaldu egin da. Hain zuzen ere, hirurogeita bost urte edo gehiago dituzten pertsonen ehuneko 2,72tik 3,59ra igo da estaldura, hots, ehuneko 32 hazi da. Estalduraren gehikuntzarik handiena Araban izan dute. Laurogeita hamalaugarren urtean jada lurralde horretan zuten estaldura tasarik handiena. Beraz, lurraldeen arteko diferentziak areagotu egin dira: ikertutako aldiaren hasieran Arabako estaldura Gipuzkoakoa baino handiagoa zen eta lurralde guztietatik Gipuzkoak berak zuen estaldurarik txikiena (ehuneko 36). Bada, zazpi urte geroago Arabako tasa Bizkaikoaren gainetik zegoen eta Bizkaikoa zen txikiena (ehuneko 97).

**82. grafikoa: ELZen estalduraren bilakaera lurralde historikoetan**



Estaldura ia eskualde guztietan handitu da; Bizkaiko bi eskualde bakarrik geratu dira bazterrera, horietan onuradunen kopuruak beherantz egin baitu. Horiek horrela, eskualdeen arteko diferentziak areagotu egin dira zazpi urte hauetan: laurogeita hamalaugarren urtean, estaldurarik handieneko eskualdean, Arabako Lautadan, estaldura ehuneko 160 handiagoa zen estaldurarik txikieneko eskualdean baino (Gernika-Bermeo), baina zazpi urte geroago ehuneko 396ko aldea zegoen bi muturretako eskualdeen artean –Kantauri Arabarra, 100eko 7,05eko estaldurarekin, eta berriz ere Gernika-Bermeo, ehuneko 1,42ko estaldurarekin–.

**83. grafikoa: ELZen estalduraren bilakaera eskualdez eskualde**




Udalerrien tamainari erreperatuta, estalduraren gehikuntzarik garrantzitsuenak, batez besteko orokorraren gainetik daudenak, bi mila biztanle baino gutxiago edo berrogeita hamar mila baino gehiago dituzten udalerrietan lortu dira. Horiexek dira hain zuzen ere

aztertutako denbora-tartearen amaieran estaldura mailarik altuena zuten udalerri-multzoak. Nolanahi ere, garrantzitsua dirudi honako hau azpimarratzeak: aztertu den aldian zehar beherantz egin dute bi mila eta berrogeita hamar mila biztanle bitarteko Bizkaiko udalerrietako estaldurek (ikus 14. eranskina, lurraldeen xehetasunak).

**84. grafikoa: ELZen estalduraren bilakaera, udalerrien tamainaren arabera**




Beste autonomi erkidegoekin eta Estatuarekin, oro har, alderatzen baditugu, EAEko etxeko laguntza zerbitzuek eskaintzen zuten estaldura Estatuko batez bestekoa baino ehuneko 38 handiagoa zen 2001eko urtarrilean, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak emandako datuen arabera[19] ; horrenbestez gure Erkidegoa hirugarren zegoen, aurretik Extremadura eta Nafarroa zituela (lehenengoak ehuneko 4,86ko estaldura zuen eta bigarrenak ehuneko 3,02koa).

Hala eta guztiz ere, Estatu espainiarrean lortutako estaldura guztiak, handiena tartean, beste herrialde batzuetan lortzen direnak baino nabarmen beheragoago daude, bereziki, arlo horretan oso garaturik dauden herrialdeak hartzen badira kontuan, Islandia edo Danimarka, esate baterako. Herrialde horietan zerbitzuaren estaldura adineko biztanleen ehuneko hogei ingurukoa edo are handiagoa da.

[19] Urtarrileko erabiltzaileak bakarrik hartu dira kontuan eta horrek estaldurak jaitsiarazten ditu.

**85. grafikoa: ELZen laguntzaren estaldura hainbat tokitan**

a) Autonomi erkidegoak (2001)




b) Herrialdeak (Espainia 2001 eta besteak 1998)




Beste herrialde batzuetako datuen iturria:
Social Protection in the Nordic Countries, 1999

Zerbitzu hauek eskaintzen duten produktua laguntza-orduetan neurtzen da, aldagai horrek estaldurak baino hobeto adierazten duelako egindako esfortzuaren zenbaterainokoa. Horren ildotik, egindako laguntza-orduen kopuruak ere gora egin du zazpi urte hauetan: urtean 2,4 milioi izatetik 3,1 milioi izatera igaro da, alegia, ehuneko 29 hazi da, onuradunen kopurua baino nabarmen gutxiago. Dena dela, lurraldeetan estu lotuta daude laguntza-orduen bilakaera eta erabiltzaileen kopuruaren bilakaera: Araban laguntza-orduen kopurua ehuneko 72 gehitu da, eta beste muturrean, Bizkaiko laguntza-orduen kopurua ehuneko 9 baino ez da gehitu.

**86. grafikoa: Laguntza-orduen kopuruaren bilakaera lurraldez lurralde**




Egindako laguntza-orduen kopuruaren bilakaera eskualdeka aztertuz gero, egoera kezkagarriagoa dela ikusiko dugu. Izan ere, zazpi dira aztertutako denbora-tartean laguntza-orduen kopurua murriztu duten eskualdeak: Durangaldea, Enkarterri eta Markina-Ondarroa Bizkaian, eta Bidasoa Beherea, Debabarrena, Tolosaldea eta Urola Kosta Gipuzkoan.

**87. grafikoa: Laguntza-orduen kopuruaren bilakaera eskualdez eskualde**










Halaber, udalerrien tamaina kontuan harturik laguntza-orduen kopuruaren bilakaera aztertuz gero, beherantz egin duela ikus dezakegu Bizkaiko bi mila eta hamar mila biztanle arteko udalerrietan eta Gipuzkoako mila biztanletik beherakoetan (ikus 15. eranskina, lurraldeen xehetasunak). Alabaina, Erkidegoa osorik hartuta, murrizketa horiek konpentsatu egiten dira eta estratu guztietan hazkunde positiboak agertzen dira.

**88. grafikoa: Laguntza-orduen kopuruaren bilakaera udalerrien tamainaren arabera**




Laguntza-orduen kopurua motelago hazi da erabiltzaileen kopurua baino, eta ondorioz jaitsi egin da zerbitzuaren intentsitatea, hau da, bi aldagai horien arteko zatiketaren emaitza den adierazlea. Izan ere, laurogeita hamalaugarrenean erabiltzaile bakoitzak urtean 295 laguntza-ordu jasotzen zituen batez beste eta bi mila eta batgarren urtean 233 baino ez zituen jasotzen, hau da, ehuneko 21 gutxiago. Beherakada horren arrazoia, neurri handi batean, ezgaitasun arinagoa duten erabiltzaileak zerbitzua erabiltzen hastea izan da, horiek laguntza-denbora gutxiago behar baitute. Ratioa Gipuzkoan jaitsi da gehien (ehuneko 25) eta Bizkaian gutxien (ehuneko 20).

**89. grafikoa: Zerbitzuaren intentsitatearen bilakaera lurralde historikoetan**



Zerbitzuaren intentsitatea eskualde guztietan jaitsi da bitan izan ezik: Arabako Ibarretan ehuneko 15 igo da eta Durangaldean lehengo mailari eutsi dio. Beherakadarik handienak, ehuneko berrogeita hamarretik gorakoak, Bidasoa Beherean eta Arabako Mendialdean izan dituzte; bi eskualde horietan onuradunen kopurua batez bestekoaren gainetik hazi da, eta laguntza-orduen kopurua, aldiz, batez bestekoaren azpitik. Aipagarria da, halaber, ikuspegi honetatik begiratuta, aztertutako denbora-tartearen amaieran zein alde handiak dauden eskualdeen artean: Kantauri Arabarrean erabiltzaile eta urte bakoitzeko laguntza-orduak 438 dira eta Bidasoa Beheran 89 besterik ez.

**90. grafikoa: Zerbitzuaren intentsitatearen bilakaera eskualdez eskualde**



Zerbitzuaren intentsitatearen jaitsierari eta amaierako egoerari dagokienez eskualdeen artean ikusi ditugun aldeak nabarmen laburtzen dira udalerrien tamaina kontuan harturik egiten badugu azterketa: jaitsiera ez da kasu bakar batean ere ehuneko berrogeita hamarretik gorakoa, eta, zazpi urteen buruan, intentsitate handieneko udalerrien mailatik (316 ordu/erabiltzaileko/urteko, mila eta bi mila biztanle arteko udalerrietan) intentsitate txikieneko mailara (202 ordu, berrogeita hamar mila biztanletik gorakoetan) aldea askoz txikiagoa da (ikus 16. eranskina, lurraldeen xehetasunak).

**91. grafikoa: Zerbitzuaren intentsitatearen bilakaera udalerrien tamainaren arabera**




Gainerako autonomi erkidegoekin alderaketa eginez gero, EAEko etxeko zerbitzu publikoek eskaintzen duten laguntzaren intentsitatea Galiziak bakarrik gainditzen du (erabiltzaile bakoitzak 485 laguntza-ordu jasotzen ditu batez beste), eta hori horrela da Galiziako erkidegoak intentsitatea lehenesten duelako estalduraren kaltetan, hau da, ezgaitasun larria duten pertsonei bakarrik eskaintzen dizkielako etxeko laguntza-zerbitzuak; Estatuko batez bestekoari dagokionez, gure Erkidegoko intentsitatea ehuneko 45 handiagoa da, hori guztia Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak ematen dituen datuen arabera.

**92. grafikoa: ELZen intentsitatea autonomi erkidegoetan**




Administrazio publikoek ELZak sustatzen egiten duten ahalegina ondoen islatzen duen aldagaia maila da. Maila kalkulatzeko, epe jakin batean egindako laguntza-orduen kopurua adineko biztanleen kopuruaz zatitzen da. Aztertu diren zazpi urte horietan Euskal Autonomia Erkidegoko ELZen maila igo egin da, gutxi bada ere: adineko biztanle eta urte bakoitzeko 8,03 ordu izatetik 8,37 ordu izatera igaro da, alegia, ehuneko lau igo da. Gainera azpimarratu behar da, garrantzitsua delako, batez besteko igoera hori nola banatzen den eskualdeen artean: Arabak gehikuntza handia izan du, ehuneko 33koa hain zuzen; Gipuzkoak gehikuntza nabarmena izan du, ehuneko 14koa; eta Bizkaiak ehuneko 13ko jaitsiera izan du. Horiek horrela, lurraldeen arteko aldeak izugarri areagotu dira.

**93. grafikoa: ELZen mailaren bilakaera lurralde historikoetan**




Zazpi urte horietan ELZen intentsitatea murriztu duten eskualdeak bederatzi dira: Bizkaiko guztiak Arratia eta Plentzia izan ezik, eta Gipuzkoako lau, alegia, Bidasoa Beherea, Debabarrena, Tolosaldea eta Urola Kosta. Lurraldeetan bezalaxe, eskualdeetan ere diferentziak nabarmen areagotu dira 2001. urterako, eta agerian geratu den egoera ez da batere orekatua: eskualde batzuetan adineko bakoitzari urtean hogei laguntza-ordu baino gehiago ematen zaizkio eta beste eskualde batzuetan ezta bost ordu ere.

**94. grafikoa: ELZen bilakaera eskualdez eskualde**




Udalerrien tamainaren ikuspuntutik begiratuta, ELZen intentsitatearen murrizketaren prozesuak Bizkaiko bi mila biztanletik gorako udalerri guztiei eragiten die, baita Gipuzkoako bi mila biztanletik beherako udalerriei eta Gipuzkoako hamar mila eta hogei mila biztanle artekoei ere (ikus 17. eranskina, lurraldeen xehetasuna); Euskal Autonomia Erkidegoan hamar mila eta berrogeita hamar mila biztanle arteko udalerriak dira intentsitatearen jaitsieraren eragina nabaritu dutenak eta, aldi berean, 2001ean baliorik txikienak izan dituztenak.

**95. grafikoa: ELZen mailaren bilakaera udalerrien tamainaren arabera**




Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak emandako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan adineko pertsona bakoitzari urtean 7,52 laguntza-ordu ematen zaizkio, Estatuko batez besteko kopurua halako bi, eta horretan gure Erkidegoa beste guztien aurretik dago.

**96. grafikoa: ELZen maila autonomi erkidegoetan**




## 3.3.2. ***Zerbitzuen kostua eta finantzabideak***

ELZen finantzaketan parte hartzen dute, neurri ezberdinetan, administrazio publikoek -udalek eta aldundiek; azken horiek izaera orokorrez 2000. urtera arte soilik- eta zerbitzua erabiltzen duten pertsonek. Azken urte hauetan erabiltzaileen ekarpenaren portzentajea apur bat igo bada ere, zerbitzuen finantzaketan erabiltzaileek duten partaidetza kasu guztietan txikia da: ehuneko hamabostetik beherakoa, lurraldeetako batez bestekoen mailan.

**97. grafikoa: Erabiltzaileen ekarpenaren portzentajearen bilakaera**




ELZen finantzaketarako ekarpen publikoa, laurogeita hamabigarren urtetik bi mila eta batgarren urtera bitartean, ehuneko hirurogeita sei igo zen euro korrontetan eta ehuneko hogeita bi kopuru errealetan. Gorakada nahiko antzekoa izan da hiru lurraldeetan. Arabak izan du hazkunderik handiena (ehuneko 74,5) eta Bizkaia ez da oso urrun ibili (ehuneko 63,2ko gehikuntza).

**98. grafikoa: ELZak mantentzeko gastu publikoaren bilakaera**




Aldundiek eta udalek ELZak mantentzeko gastatzen duten diru-kopurua Erkidegoko BPGaren milako bat baino apur bat gutxiago da eta ez du aldaketa handirik izan denboran zehar. Lurraldeen arteko aldeak garrantzizkoak dira; hala bada, Bizkaian eta Gipuzkoan proportzio hori milako 0,9 ingurukoa da, baina Araban egindako gizarte-esfortzua ehuneko berrogeita bat handiagoa da, milako 1,27koa hain zuzen ere.

**99. grafikoa: ELZetan egindako gastu publikoaren bilakaera BPGaren aldean**




Laurogeita hamabigarren urtetik bi mila eta batgarren urtera bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoko hogei eskualdeetan gastu publikoa gehitu egin da euro korrontetan. Euro konstantetan, aldiz, haietariko seitan gastua murriztu egin da: Bizkaiko Arratian, Enkarterrin eta Markina-Ondarroan, Gipuzkoako Bidasoa Beherean eta Goierrin, eta Arabako Mendialdean.

**100. grafikoa: ELZetarako gastu publikoaren bilakaera eskualdez eskualde (2001eko euro konstanteak)**




Gastuaren hazkundean ageri diren aldeak txikiagoak dira udalerrien tamaina kontuan hartzen denean: udalerrien estratu guztietan gastua gehitu egin da kopuru errealetan, eta batzuen eta besteen erritmoen arteko diferentziak inoiz ez dira ehuneko hogeita hamarretik gorakoak (ikus 18. eranskina, lurraldeen xehetasunak).

**101. grafikoa: ELZetarako gastu publikoaren bilakaera udalerrien tamainaren arabera (2001eko euro konstanteak)**




Adineko pertsona bakoitzeko gastu publikoa da gizarte-esfortzuaren adierazle ekonomikorik zehatzena. Bada, emaitzak azterturik, bi ondorio garrantzitsu atera behar dira. Lehenengo, ELZetan adineko pertsona bakoitzeko egindako gastu publikoa, kopuru errealetan, ehuneko 7,5 jaitsi da, batez beste, laurogeita hamabigarren urtetik bi mila eta batgarrenera bitartean; beherakada horrek lurralde guztietan izan du eragina eta, bereziki, Bizkaian. Bigarren, erreferentziako urteetan lurraldeen arteko aldeak ez dira berdindu, areagotu baizik, apur bat baino ez bada ere: laurogeita hamabigarren urtean adineko pertsona bakoitzeko gastu publikoa Araban ehuneko 102,8 handiagoa zen Bizkaian baino, eta bi mila eta batgarren urtean ehuneko 108,3 handiagoa zen.

**102. grafikoa: ELZetan adineko pertsona bakoitzeko egiten den gastu publikoaren bilakaera**



ELZetan adineko pertsona bakoitzeko egindako gastu publikoa, euro korrontetan, jaitsi egin da Gipuzkoako bi eskualdetan, hain zuzen Bidasoa Beherean eta Goierrin, eta kopuru errealetan bost eskualdetan baino ez da igo: Arabako Ibarretan, Arabako Errioxan, Gorbeialdean, Debagoienean eta Donostialdean. Eskualdeen arteko aldeak ere handitu egin dira epe honetan: gastu handieneko eskualdearen eta gastu txikienekoaren arteko erlazioa lau/bat zen 1991n eta sei/bat 2001ean.

**103. grafikoa: ELZetan egindako gastu publikoaren bilakaera eskualdez eskualde (euro konstanteak, 2001)**



Euro konstantetan, ELZetan adineko pertsona bakoitzeko egindako gastu publikoa gehitu duten udalerrien multzoa bi mila biztanletik beherakoa da; ikuspuntu horretatik, lurraldeak banaka harturik, udalerri-multzo batek *ere ez* du jaitsierarik izan euro korrontetan (ikus 19. eranskina, lurraldeen xehetasunak).

**104. grafikoa: ELZetan adineko pertsona bakoitzeko egindako gastu publikoaren bilakaera udalerrien tamainaren arabera (euro konstanteak, 2001)**




### 3.3.3. ***Langileak***

Laurogeita hamalaugarren urtetik bi mila eta batgarren urtera bitartean, etxeko laguntza zerbitzu publikoetan ari ziren langileen kopurua 2.032tik 3.078ra igo zen. Beraz, plantillak ehuneko 51,5 hazi dira, hots, hazkundearen urteko erritmoa, batez beste, ehuneko zazpi baino apur bat handiagoa izan da; Araban eta Gipuzkoan langileen kopurua ehuneko laurogei inguru handitu da zazpi urte horietan, eta Bizkaian ehuneko hamabostera iritsi da. Zerbitzuen sektoreko mila langiletik lau ari ziren ELZetan 2001. urtean; proportzio hori ia hamabira iristen zen Araban eta batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa zen Bizkaian.

**105. grafikoa:**

**a) ELZetako langileen kopuruaren bilakaera**




**b) Zerbitzuen sektoreko langileetatik zenbat ari ziren ELZetan 2001. urtean (milakoak)**




Aztertutako zazpi urteetan ez dira erritmo berean hazi orduen kopurua, erabiltzaileena eta langileena. Ondorioz, langile bakoitzeko erabiltzaile-kopurua laurogeita hamalaugarrenean 4,0 izatetik bi mila eta batgarrenean 4,4 izatera igaro da; bestalde, langile bakoitzak batez beste urtean egiten dituen jarduera-orduen kopurua 1.193tik 1.016ra jaitsi da. Intentsitateak ezberdinak izan arren, hiru lurraldeetan nabari dira bi gertaera horiek, alegia, langile bakoitzeko erabiltzaile-kopuruaren igoera eta langile bakoitzeko jarduera-orduen jaitsiera.

**106. grafikoa:**

**a) Langile bakoitzeko erabiltzaile-kopuruaren bilakaera**




**b) Langile bakoitzak urtean egindako orduen kopuruaren bilakaera**



# IV. KAPITULUA

## EGOITZA-ZENTROEN ETA EGUNEKO ZENTROEN EZAUGARRIAK

# 1. AZTERLANAREN METODOLOGIA ETA OINARRIZKO ERREFERENTZIAKO DATUEN EGUNERATZEA

## 1.1. Azterlanaren metodologia

Adinekoentzako egoitza-zentroen eta eguneko zentroen ezaugarriei buruzko azterlana Autonomia Erkidegoko zentro sozial horietako arduradun guztiei egin zaien inkestatik ateratako datuetan oinarrituta garatu da.

Erabilitako galdera-sortak, bana zentro mota bakoitzeko –egoitzak, etxebizitza komunitarioak, babespeko apartamentuak eta eguneko zentroak–, honako bitarteko hauek bildu eta hautatutakoak aztertu ondoren diseinatu dira:

- Egoitza-zentroen eta eguneko zentroen arloan erkidego honetan nahiz beste batzuetan indarrean dagoen legeria.
- Azken urteotan zerbitzu mota hauei buruz egin diren ikerketa enpirikoak.
- Espezializatutako literaturan finkatu diren jardunbide egokiko jarraibideak eta irizpideak.
- Beste eremu geografiko batzuetan dauden arreta-estandarrak.

Galdera-sortak, ehun eta berrogeita bat eta ehun eta berrogeita hamahiru galdera bitartekoak, zazpi epigrafetan egituratuta zeuden:

- Zentroaren identifikazio datuak
- Erabiltzaileen ezgaitasun maila
- Zentroaren alderdi materialak
- Eskaintzen diren zerbitzuak eta jarduerak
- Funtzionamendua
- Erregistroak eta jarraibideak, idatziz jasotako arauak eta protokoloak
- Antolaketa eta langileak.

Atal horietako bigarrenari dagokionez, alegia, erabiltzaileen ezgaitasun mailari, zera argitu beharra dago:

- Erabiltzaileen ezgaitasun mailak eta horren ondorioz eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko sortzen den hirugarren pertsonekiko mendekotasunak mugatzen dituzte,

neurri handi batean, zentro horien ezaugarri nagusienetako batzuk; adibidez, lan-zamak, langile ratioak eta bere eginkizunak, edota ematen diren programen eta zerbitzuen izaera.

- Aztertutako ia zentro guztiek baloratzen dute erabiltzaileen ezgaitasun maila, baina hori neurtzeko erabiltzen dituzten tresnak, eskala dimentsioaniztunak deitutakoak, ezberdinak dira eta, beraz, zaila da batzuen zein besteen emaitzak alderatzea.

- Bestalde, informatzaileek erabiltzaileen banakako datuak ematea problematikoa izan zitekeenez, datu orokorrak eskatzea erabaki zen.

- Lortutako emaitzak banakakoak ez direnez, ezin da erabiltzaileen ezgaitasunaren alderdi ezberdinei buruzko analisi konbinaturik egin; bestela esanda, azterlana amaitzean ezagutzen da zentro bakoitzean zenbat pertsonek duten ezgaitasun larria, zenbat ez diren kalera irteten, edota zenbatek dituzten inkontinentzia arazoak, baina, banakako informaziorik ez dagoenez, lortutako datuak ezin dira alderatu alderdi horiek batera aztertze aldera.

Inkestaren bidez landu beharreko unibertsoa zehatz-mehatz mugatzeko, mota horretako zentroen sorrera eta funtzionamendua baimentzearen arloan eskumena duten foru-zerbitzuen laguntza eskatu zen. Horrela, 2003. urtearen erdialdera, lurralde bakoitzeko zerrenda bat egin zen; bertan, zentroen identifikazioari eta kokapenari buruzko datuez gain, titulartasun juridikoa eta edukiera ere adierazten dira (azken hau plazatan neurtua). Plazen kopuruari buruzko datu honek bi helburu ditu:

- Zentroak tamainaren arabera geruzatan banatzea, geruza bakoitzaren erantzunen indizea kalkulatzea, eta lortutako emaitzak haztatzea. Gai hauek aurrerago aztertuko ditugu, epigrafe honetan bertan.

- 2001era arte plazek eta estaldurak izan zuten bilakaerari buruzko azterlana (ikusi III. kapitulua) eguneratzea eta 2003an kokatzea. Informazio hau, zentroen ezaugarriak aztertzeko erreferentzia-oinarria dena, hurrengo epigrafean jasotzen eta azaltzen da (1.2 atala).

Aztertu beharreko unibertsoa guztira 407 zentrok osatuta egon zen. Horiei guztiei postaz bidali zitzaien galdera-sorta. Beranduago, erantzun ez zutenei berriro bidali zitzaien eta telefonoz eman zitzaien horren berri. Lortutako erantzun mailak 1. taulan adierazitakoak dira.

**1. taula: Postaz bidalitako galdera-sorten erantzunak egoitza motaren arabera**

| | Bidalitako galdera-sortak | Betetako galdera-sortak | Erantzunen % |
|---|---|---|---|
| Egoitzak | 174 | 92 | 52,9 |
| Etxebizitza komunitarioak | 121 | 21 | 17,4 |
| Babespeko apartam. | 32 | 25 | 78,1 |
| Eguneko zentroak | 80 | 41 | 51,3 |
| **GUZTIRA** | **407** | **179** | **44,0** |

Ondoren, eta zentro mota kontuan hartuta, galdera-sortak kategoriatan banatu ziren honako hiru aldagai hauei jarraiki: lurralde-eremua, titulartasun juridikoa eta tamaina –azken aldagai hau ez da aintzat hartzen etxebizitza komunitarioei dagokienez–. Emaitzak aztertutako unibertsokoekin alderatu ondoren, garbi geratu da talde batzuk ez daudela irudikatuta eta beste batzuek erantzun-indize baxuegiak dituztela. Antzemandako gabeziak aztertuta, gutxien irudikatuta dauden zentroetako batzuetara jo zen. Horri esker, zuzeneko behaketako datuak lortzeaz gain, guztira 61 galdera-sorta osagarri bete ahal izan ziren (horietatik 16 posta bidez igorritako galdera-sortaren zati bat baino erantzun ez zuten zentroei dagozkie eta gainerako 45ak, berriz, hura erantzun ez zutenei).

2. taulak oro har lortutako emaitzak adierazten ditu, antolamendurako erabili diren hiru aldagaiak aintzat hartuta.

**2. taula: Igorritako galdera-sortetan emandako erantzunak, baliabide mota, lurraldea, titulartasuna eta zentroaren tamaina kontuan hartuta**

| | | Egoitzak | | | Etxebizitza komunitarioak | | | Babespeko apartament. | | | Eguneko zentroak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | *Itaundutako zentroak* | *Betetako galdera-sortak* | *Erantzunen %* | *Itaundutako zentroak* | *Betetako galdera-sortak* | *Erantzunen %* | *Itaundutako zentroak* | *Betetako galdera-sortak* | *Erantzunen %* | *Itaundutako zentroak* | *Betetako galdera-sortak* | *Erantzunen %* |
| Lurralde Historikoa | Araba | 26 | 17 | 65,4 | 31 | 13 | 41,9 | 7 | 7 | 100,0 | 18 | 9 | 50,0 |
| | Bizkaia | 93 | 48 | 51,6 | 84 | 37 | 44,0 | | | | 33 | 22 | 66,7 |
| | Gipuzkoa | 55 | 31 | 56,4 | 6 | 4 | 66,7 | 25 | 18 | 72,0 | 29 | 18 | 62,1 |
| Titulartasuna | Publikoa | 58 | 41 | 70,7 | 6 | 3 | 50,0 | 30 | 23 | 76,7 | 52 | 29 | 55,8 |
| | Pribatua | 116 | 55 | 47,4 | 115 | 51 | 44,3 | 2 | 2 | 100,0 | 28 | 20 | 71,4 |
| Tamaina[1] | Txikia | 107 | 46 | 43,0 | | | | 28 | 21 | 75,0 | 36 | 21 | 58,3 |
| | Erdipar. | 54 | 38 | 70,4 | | | | 3 | 3 | 100,0 | 36 | 21 | 58,3 |
| | Handia | 13 | 12 | 92,3 | | | | 1 | 1 | 100,0 | 8 | 7 | 87,5 |
| **GUZTIRA** | | **174** | **96** | **55,2** | **121** | **54** | **54** | **32** | **25** | **78,1** | **80** | **49** | **61,2** |

[1] Txikia: egoitzazko zerbitzuetan, 61 plazatik beherakoa; eguneko zentroetan, 21 plazatik beherakoa
Erdiparekoa: egoitzazko zerbitzuetan, 61-150 plaza artekoa; eguneko zentroetan, 21-40 plaza artekoa
Handia: egoitzazko zerbitzuetan, 150 plazatik gorakoa; eguneko zentroetan, 40 plazatik gorakoa

Azkenik, bildutako informazioa haztatu egin zen eta hiru aldagai horiekin batera definitutako taldeetako bakoitzari estrapolazio-indize bat esleitu zitzaion, aztertutako unibertsoarekiko zenbatespenak egiteko; era horretan, erreferentziako hiru ikuspegietako edozeinetatik begiratuta (lurraldea, titulartasuna eta tamaina), emaitzak fidagarriak direla bermatzen da.

Azterlan honen izaera kontuan izanik, nahitaez aipatu beharra dago, zentro publikoetan lortutako erantzunen indizea pribatuetakoa baino handiagoa izan arren (%65,7 eta %49,0, hurrenez hurren), publikoetatik heren batek baino zertxobait gehiagok ez duela behar bezainbeste lagundu azterlan honetan, zehazki 17 egoitzek, 3 etxebizitza komunitariok, babespeko 7 apartamentuk eta eguneko 23 zentrok.

Azkenik, adierazi behar da, EAEko egoitzazko arretak bizi duen egoeraren deskripzio globala egiteko erabilitako metodologia kontuan hartuta (gogoratu metodologia horren diseinua, logikoki, zentro ugari egoteak baldintzatu zuela), erantzun gehienak zentroek eurek betetako galdera-sortetatik datozela, nahiz eta horietatik 60tan behaketako bisita ere egin den.

## 1.2. **Erreferentziako plazak eta estaldurak 2003an: oinarrizko emaitzen eguneratzea**

Aldundiek 2003ko ekainean helarazi zituzten zerrendetan adierazten ziren plazei buruzko datuak GZEEZ deritzon estatistikan[20] 2001eko abenduari dagozkion emaitzekin alderatuta, bistakoa da egoitzetako eta eguneko zentroetako plazen kopuruak aurrekaririk gabeko gorakadak izan dituela. Gehikuntza horiek aintzat hartu beharrekoak dira, plazak eta horien estaldurak oinarrizko erreferentziak baitira aztertutako alderdiak baloratzeko orduan.

3. taulan, data bateko eta besteko plazak eta horietan izandako gehikuntzak adierazten dira, lurraldez lurralde. Gehikuntza horiek berretsi egiten dute zerbitzu hauek hain denbora gutxian izan duten bilakaera apartekoa delako adierazpena.

**3. taula: Egoitzetako eta eguneko zentroetako plazen bilakaera lurraldez lurralde (2001eko abendua-2003ko ekaina)**

| | Egoitzetako[1] plazak | | | Eguneko zentroetako plazak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | *2001eko abendua* | *2003ko ekaina* | *Gehikuntza (%)* | *2001eko abendua* | *2003ko ekaina* | *Gehikuntza (%)* |
| Araba | 2.114 | 2.458 | 16,3 | 424 | 427 | 0,7 |
| Bizkaia | 5.888 | 6.844 | 16,2 | 478 | 894 | 87,0 |
| Gipuzkoa | 4.123 | 4.779 | 15,9 | 709 | 725 | 2,3 |
| EAE | 12.125 | 14.081 | 16,1 | 1.611 | 2.046 | 27,0 |

[1] Honako hauek barne hartzen dira: egoitzak, etxebizitza komunitarioak eta babespeko apartamentuak.

[20] GZEEZ estatistikak ere Aldundietara jotzen du urteko eragiketei buruzko zerrendak egiteko.

Hirurogeita bost urtetik gorako biztanleriari dagokionez, 2010erako egin diren aurreikuspenekin bat etorriz (aurreikuspen horiek aurreko kapituluan jaso dira), 2003. urtearen erdialdera egongo diren adinekoak zenbatetsiz gero, 107. grafikoan adierazitako estaldurak lortzen dira, 2001eko estaldurekin alderatuta .

**107. grafikoa: Egoitzetako eta eguneko zentroetako plazen estaldura, lurraldez lurralde (2001eko abendua, 2003ko ekaina)**




Bistakoa da plazen kopuruak izandako hazkundeari esker, Autonomia Erkidegoan oro har hazi egin dela zerbitzu horien estaldura, zehazki puntu erdia. Hala, beraz, %12,6koa izatera heldu da eta, beraz, adineko biztanleriaren hazkuntza tasa ere gainditu du. Modu erlatiboan, ahalegin handiena Bizkaiari dagokio –estaldura-gehikuntzaren %18,6–, lurralde honetan baitzegoen defizit handiena, bai egoitzei dagokienez bai eguneko zentroei dagokienez. Hori gorabehera, Arabarekiko aldea, murriztu egin den arren –%81,7tik %65,8ra–, oso altua da oraindik ere.

## 2. EGOITZAZKO ZERBITZUAK

Atal honetan, adinekoen egoitzazko zerbitzuak aztertzen dira. Egun dauden zerbitzuak ugariak eta anitzak direnez, egokiena honela jokatzea dela pentsatu da:

- Lehenik eta behin, egoitzetan dauden pertsonek ezgaitasunaren aldetik dituzten ezaugarriak azaltzen dira: maila, jatorria, eta eguneroko jarduerak egiterakoan duen eragina.

- Jarraian, zerbitzuen oinarrizko ezaugarriak aurkezten ditu eta lurraldearen ikuspegitik aztertzen dira zentro motak, titulartasuna eta tamaina.

- Hirugarren epigrafeak batez ere egoitzak eta etxebizitza komunitarioak aztertzen ditu. Etxebizitza horiek egoitza txikiak bezalakoak dira. Zerbitzu integrala ematen dute eta eguneko hogeita lau orduetan zehar laguntza-langileak bertan egongo direla bermatzen dute.

- Azken atalak babespeko apartamentuen deskripzio laburra ematen du. Egoitza mota arinena eta gainerako zentroekin antzekotasun gutxien dituena da.

## 2.1. **Egoitzazko zerbitzuak, mendeko adinekoei laguntzera bideratutako baliabideak**

Egoitzak, batez ere autonomia galtzearekin erlazionatutako arrazoiak direla medio euren etxeetan bizitzen jarraitu ezin duten adinekoei gizarteak eskaintzen dien baliabidea da. Azken hamar urteotan EAEn sortu diren plan gerontologiko guztietan aipatzen da ezgaitasuna duten adinekoen alde jardun beharra.

Ezgaitasunaren ikuspegitik, eta modu eskematikoan, honako hiru taldeak hartu dira kontuan, azterlanaren ondorioetarako:

- Ezgaitasun larria duten pertsonak. Ezin dute ohetik altxa, ezta oheratu ere, hirugarren pertsonaren baten laguntza ez badute[21] .

- Ezgaitasun arina duten pertsonak. Nolabaiteko narriadura fisikoa eta/edo kognitiboa dute, baina ez dira aurreko kategorian sailkatzen; hori zehazteko, narriaduraren bat duten pertsonen kopuruaren eta ohetik altxa edo ohean sartu ezin dutenen kopuruaren arteko aldea hartu behar da kontuan.

---

[21] Eguneroko bizitzako jarduera hau azterlana egin aurreko analisi estatistikoan oinarrituta hautatu da ezgaitasun larria definituko duen jarduera gisa. Analisi horretan, beste azterlan bateko datuak erabili ziren. Azterlan hartan, egoitza bateko 134 erabiltzeren autonomia pertsonala baloratu zen, eguneroko bizitzako jardueren eskala exhaustiboaren bidez. Bestalde, mendekotasun larria dutela adierazi da pertsonek gutxienez hamar jarduera jakin egiteko laguntza behar dutenean. Analisi estatistiko horren helburua, mendekotasun larriarekin zerikusi gehien zuten eguneroko bizitzako bi jarduerak zeintzuk ziren zehaztea izan zen; alegia, kontingentzia-koefiziente altuena zuten bi jarduerak zehaztea. Analisi horretatik ondorioztatu zen ohetik altxatzeko eta oheratzeko ahalmena, eta norbera garbitzekoa zirela bi jarduera horiek. Inkestako datuek adierazten dute norbera garbitzeko beharra ohetik altxatzeko eta oheratzekoa baino subjektiboagoa dela. Are gehiago, ikus ahal izan dugunez, zentro batzuetako arduradunek uste zuten fisikoki autonomoak ziren pertsonek garbitzeko laguntza behar zutela eta salbuespenezko kasuetan baino ez zutela behar ohetik altxatzeko eta oheratzeko laguntza. Hori ikusita, egokitzat jo zen azken hori faktore hautakor gisa erabiltzea.

- Pertsona autonomoak. Aurreko bi kategoriatan barneratzen ez direnak ditugu talde honetan; kasu gehienetan, beste pertsonen artean eta/edo gizartean, adineko ahul gisa hartu beharko lirateke.

Inkesta egin zenean zentro horietan bizi ziren 13.181 adinekoak –hirurogeita bost urte beteta dituzten 25 adinekoetatik bat– honela sailkatzen dira:

- 6.690ek, erdiak baino zertxobait gehiagok (%50,8), ezgaitasun larria dute,
- 2.670ek, bosten batek baino apur bat gehiagok (%20,3), ezgaitasun arinagoa dute,
- 9.360 egoiliarrek, guztizkoaren ehuneko 71,1ak, ez du autonomiarik, neurri handiagoan edo txikiagoan,
- gainerako 3.821 egoiliarrek, guztizkoaren ehuneko 28,9ak, nolabaiteko autonomia du.

Ezgaitasunaren jatorria aztertuz gero –horretarako, ezgaitasuna duten 9.360 pertsonak hartu dira aintzat–, honakoa ikus dezakegu:

- 1.347k (%14,4) narriadura kognitiboa dute.
- 2.863k (%30,6) narriadura fisikoa dute.
- Gainerako 5.150ak (%55,0) aldi berean narriadura fisiko eta kognitiboko arazoak dituzte.

Ezgaitasuna eta horren eragilea den narriaduraa 108. grafikoan jasotzen dira batera.

**108. grafikoa: Egoiliarrak, ezgaitasun maila eta jatorria kontuan hartuta**




Zentro bakoitzean ezgaitasun larria duten pertsonen ehunekoa horietako narriaduraren bat edo biak dituzten pertsonen ehunekoarekin alderatzen badugu, ikus dezakegu korrelazio maila altua dela eta adierazgarritasun maila, berriz, baxua aldagai horietako lehenaren, mendekotasun larriaren eta jarraian aipatzen direnen artean:

- narriadura kognitiboa, $r = 0{,}543$ $p < 0{,}01$ denean
- narriadura kognitiboa eta fisikoa, $r = 0{,}577$ $p < 0{,}01$ denean

Bi emaitza horiek, mendekotasun larria eta narriadura fisikoa elkartzen direnean Pearson-en koefizienteak erakusten duen balioa txikiaz gain ($r = -0{,}007$), mendekotasun larriaren etiologia jartzen dute agerian, funtsean etiologia mentala, eta mentala gehi fisikoa.

Ezgaitasunaren ondorioz, adinekoak zailtasun gehiago ditu edo ezin ditu lan edo zeregin jakin batzuk egin edo kontrolatu eta, horregatik, hirugarrenen laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak burutzeko. Ezgaitasunaren ikuspegia osatzeko, zerbitzu hauetako erabiltzeek dituzten gabezia nagusienetako batzuk ikusiko ditugu, adierazle gisa:

- Heren batek baino gehiagok, 4.562 pertsonek (alegia, guztizkoaren %34,6), mugikortasun arazo oso larriak dituzte. Horietatik, 448k, ia milako erdiak, ohean egon behar dute eta lau mila ehun baino zertxobait gehiagok gurpil-aulkia behar dute mugitzeko.

- Hamar erabiltzailetako seik edo, guztira beraz 7.889 pertsonek (%59,9), gernu-inkontinentziako arazoak ditu, eta horietatik ia bost milak, 4.828k, eginkari-inkontinentzia ere badu.

- 3.346 adinekok, egoiliarren laurdenak (guztizkoaren %25,4), komunera joateko laguntza behar dute, baina ez dira eskatzeko gai, batez ere narriadura kognitiboa dutelako; hortaz, aldian-aldian begiratu egin behar zaie.

- Zentro hauetan bizi direnetatik 7.376 pertsonek, ehuneko berrogeita hamaseiak, , egunero, eta egunean gutxienez bitan, garbitzeko laguntza behar dute.

- Narriadura kognitiboko arazo larriak dituztenetatik, 1.263 egoiliar juridikoki ezgaituta daude. Halaber, arazo horien ondorioz, gainera, 2.695ek galtzeko arriskua dute kalera irteten badira.

- Lau mila pertsona baino zertxobait gehiago, 4.050, batere kalera irten gabe daude zentro hauetan: zentroetako arduradunen iritziz, 2.316 nahi ez dutelako ez dira ateratzen, eta 1.734, berriz, ez dutelako horretarako beharrezko laguntza.

**4. taula: Ezgaitasunaren eragina egoitzetako biztanlerian**

| | Abs. | % |
|---|---|---|
| 1. Ohean | 448 | 3,4 |
| 2. Gurpil-aulkian | 4.114 | 31,2 |
| 3. Mugitzeko arazo larriak (1 + 2) | 4.562 | 34,6 |
| 4. Gernu-inkontinentzia | 7.889 | 59,9 |
| 5. Gerakin-inkontinentzia | 4.828 | 36,6 |
| 6. Ez dira gai komunera joateko laguntza eskatzeko | 3.346 | 25,4 |
| 7. Garbitzeko laguntza behar dute | 7.376 | 56,0 |
| 8. Juridikoki ezgaituak | 1.263 | 9,6 |
| 9. Orientazio arazo larriak | 2.695 | 20,4 |
| 10. Nahi ez dutelako ez dira ateratzen | 2.316 | 17,6 |
| 11. Laguntzarik ez dutelako ez dira ateratzen | 1.734 | 13,1 |
| 12. Ez dira ateratzen (10 + 11) | 4.050 | 30,7 |
| 13. Ezgaitasun arina | 2.670 | 20,2 |
| 14. Ezgaitasun larria | 6.690 | 50,8 |
| 15. Erabateko ezgaitasuna (13 + 14) | 9.360 | 71,0 |
| 16. Narriadura kognitiboa bakarrik | 1.347 | 10,2 |
| 17. Narriadura fisikoa bakarrik | 2.863 | 21,7 |
| 18. Narriadura fisikoa eta kognitiboa | 5.150 | 39,2 |
| 19. Erabateko narriadura kognitiboa (16 + 18) | 6.497 | 49,4 |
| 20. Erabateko narriadura fisikoa (15 + 17) | 8.013 | 60,9 |
| 21. Egoiliarrak, guztira | 13.181 | 100,0 |

Ezgaitasunak lurralde ezberdinetako egoitzetan dauden pertsonengan duen eraginaren analisiak hausnarketarako elementu garrantzitsuak eskaintzen ditu. 109. grafikoan ikus dezakegun bezala, guztizko egoiliarren kopurutik Arabako zentroetan dauden eta ezgaitasuna duten pertsonen ehunekoa –eraginkortasun bertikala deitutakoa– Gipuzkoako eta Bizkaiko zentroetan daudenena baino txikixeagoa da; Araban %51,4koa da eta beste bi lurraldeetan, berriz, %71,6 eta %74,0koa, hurrenez hurren.

**109. grafikoa: Egoiliarrak lurraldez lurralde eta ezgaitasun mailaren arabera**




Hala ere, zerbitzu horien eraginkortasun horizontala aztertzen badugu –alegia, egoitzetan bizi diren ezgaituen proportzioa, lurraldean dauden ezgaituen guztizko kopuruaren aldean–, ikus dezakegu Arabako eraginkortasuna (%19,9) eta Erkidegoan oro har lortutako maila (%21,1) oso antzekoak direla. Azken finean, Araban mendeko adinekoen tasa beste lurraldeetan dagoenaren berdina da, baina nolabaiteko autonomia duten erabiltzaileen estaldura handiagoa da Erkidegoaren gainerakoan baino.

## 2.2. **Egoitzazko zerbitzuen oinarrizko ezaugarriak**

2003. urtearen erdialdera, adinekoentzako egoitzazko zerbitzuen eskaintza guztira 327 zentrok osatzen dute, eta, beraz, denera 14.081 plaza eskaintzen dira.

Zentroen eta plazen banaketa lurralde historikoka 5. taulan jasotzen da.

**5. taula: Egoitza-zentroak eta plazak lurraldez lurralde**

| Lurralde Historikoa | Zentroak | | Plazak | |
|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | % | *Abs.* | % |
| Araba | 64 | 19,6 | 2.458 | 17,5 |
| Bizkaia | 177 | 54,1 | 6.844 | 48,6 |
| Gipuzkoa | 86 | 26,3 | 4.779 | 33,9 |
| **EAE** | **327** | **100,0** | **14.081** | **100,0** |

### *2.2.1. **Zentro motak***

Egoitzazko zerbitzuen funtzionamendua erregulatzen duten arauekin bat etorriz, egoitza-zentroak hiru kategoriatan banatu dira: egoitzak, etxebizitza komunitarioak eta babespeko apartamentuak.

Zentroen erdia baino gehiago, %53,2, eta plazen zatirik handiena, %87,5, egoitzen kategorian sartzen dira. Beste muturrean babespeko apartamentuak daude, ez baitaude oso zabalduta.

**110. grafikoa: Egoitza-zentroak eta plazak baliabide motako**




Egoitzazko zerbitzuen eskaintzaren egitura asko aldatzen da lurralde batetik bestera: Araban egoitzetako plazen pisua apenas heltzen da %70era; Bizkaian, ez da oraindik ezarri babespeko apartamentuen eredua; eta Gipuzkoan, etxebizitza komunitarioak lekukotasunekoak baino ez dira ia.

**111. grafikoa: Egoitzetako plazak lurraldez lurralde eta zentro motako**




Inkesta egin zenean okupatuta zeuden plazen portzentajea oso altua zen, %93tik gorakoa, nahiz eta babespeko apartamentuen batezbestekoa baino asko ere baxuagoa zen, neurri batean, berritasuna zirelako, eta horietako asko ziurrenik etorkizunean erabiltzeko asmoz eskuratu zirelako.

**112. grafikoa: Egoitzetan okupatuta dauden plazen proportzioa zentro motako**




Zentro horietan bizi diren ezgaituen portzentajea bat dator tipologia horrekin; honen ildotik, egoitzei dagokienez, eraginkortasun bertikala handia da –oraindik plan gerontologikoetan adierazitakoa baino txikiagoa den arren– eta ia ez dago babespeko apartamentuen kasuan.

**6. taula: Egoiliarrak zentro mota eta ezgaitasun maila kontuan hartuta**

| Ezgaitasun maila | Egoitzak | | Etxebizitza komunitarioak | | Babespeko apartamentuak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Autonomiadunak | 2.719 | 23,7 | 567 | 48,3 | 535 | 96,2 |
| Mendekotasun arina | 2.439 | 21,3 | 210 | 17,9 | 12 | 2,2 |
| Mendekotasun larria | 6.293 | 55,0 | 397 | 33,8 | 9 | 1,6 |
| **GUZTIRA** | **11.451** | **100,0** | **1.174** | **100,0** | **556** | **100,0** |

Batez ere azpimarratu behar da etxebizitza komunitarioei dagokienez –baliabide hauek nolabaiteko autonomia duten adinekoentzat direla pentsatu ohi da–, horien eraginkortasun bertikala ehuneko berrogeita hamarretik gorakoa dela. Hori horrela, eta analisi juridiko-administratiboaren esparruan jada adierazi den bezala, komenigarria da egun aplikatzen diren kalifikazio irizpideak berriro aztertzea eta etxebizitza komunitarioei dagozkien baldintzak ezgaitasuna duten pertsonen beharrizanetara egokitzea.

## 2.2.2. *Zentroen titulartasuna*

Orain dela gutxi arte, zentroen titulartasun juridikoa horiek kudeatzen zituzten erakundeei zegokien. Azken urteotan, ordea, pixkanaka-pixkanaka kudeaketatik bereizten hasi da, administrazio publikoek euren titulartasunekoak diren baliabideen kudeaketa eskuordetzea sustatu baitute. Bi ikuspegi hauek kontuan izanik, zentroak eta plazak 7. taulan adierazten den bezala banatuko lirateke.

**7. taula: Egoitza-zentroak eta plazak titulartasuna eta erakunde kudeatzailea kontuan hartuta**

| Titulartasuna eta kudeaketa | Zentroak | | Plazak | |
|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | % | *Abs.* | % |
| Tit.publikoa, kud.publikoa | 76 | 23,2 | 4.244 | 30,0 |
| Tit.publikoa, kud.pribatua, irabazteko asmorik gab. | 7 | 2,1 | 400 | 2,9 |
| Tit.publikoa, merkataritzako kud.pribatua | 11 | 3,4 | 562 | 4,0 |
| Tit.pribatua, irabazteko asmorik gabekoa | 64 | 19,6 | 4.593 | 32,7 |
| Merkataritzako tit.pribatua | 169 | 51,7 | 4.282 | 30,4 |
| **GUZTIRA** | **327** | **100,0** | **14.081** | **100,0** |

Azterlan honetan zehar erabiltzen den titulartasunaren araberako zentroen sailkapenak hiru kategoria hartzen ditu kontuan:

- Zentro publikoak: bertan, administrazio publikoen jabetzakoak diren zentro guztiak sartzen dira.

- Administrazioarekin itundutako plazak dituzten zentro pribatuak. Hauei dagokienez, honako hau azpimarratu behar dugu, azterlan osoan zehar gogoan izan dezagun:

  – Zentro horiek eskaintzen dituzten plazen %85,0 dituzte itunduta sektore publikoarekin; hainbat ikuspegitatik begiratuz gero, beraz, plaza horiek plaza publikotzat har daitezke;
  – Itundutako plaza horien %93,0 irabazteko asmorik gabeko erakundeei dagozkie eta gainerako %9,7 merkataritzako entitateei.
  – Termino absolutuetan, eskaintzen dituzten 2.233 plazetatik, 1.898 itunduta daude. Horietatik, 1.714 irabazteko asmorik gabeko erakundeei dagozkie eta 184 merkataritzako entitateei.

- Itundutako plazarik ez duten zentro pribatuak.

8. taulan, sailkapen horrekin bat etorriz banatzen dira zentroak eta plazak.

**8. taula: Egoitza-zentroak eta plazak titulartasunaren arabera**

| Titulartasuna | Zentroak | | Plazak | |
|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | % | *Abs.* | % |
| Publikoa | 94 | 28,8 | 5.206 | 37,0 |
| Itunpeko pribatua | 40 | 12,2 | 2.233 | 15,9 |
| Pribatua | 193 | 59,0 | 6.642 | 47,1 |
| **GUZTIRA** | **327** | **100,0** | **14.081** | **100,0** |

Titulartasuna aintzat hartuta egiten den plazen banaketa aldatu egiten da establezimendu motaren arabera. Etxebizitza komunitarioen eskaintza funtsean pribatua da eta babespeko apartamentuena, berriz, publikoa; egoitzena da orekatuena.

**9. taula: Egoitzetako plazak zentro motaren eta titulartasunaren arabera**

| Titulartasuna | Egoitzak | | Etxebizitza komunitarioak | | Babespeko apartamentuak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | % | *Abs.* | % | *Abs.* | % |
| Publikoa | 4.631 | 38,4 | 54 | 4,3 | 522 | 69,0 |
| Itunpeko pribatua | 2.067 | 17,1 | 160 | 12,7 | 6 | 0,8 |
| Pribatua | 5.365 | 44,5 | 1.048 | 83,0 | 228 | 30,2 |
| **GUZTIRA** | **12.063** | **100,0** | **1.262** | **100,0** | **756** | **100,0** |

Lurraldearen ikuspegitik, aldeak oso handiak dira eta egoitzazko arretan gutxienez bi politika ezberdin daudela adierazten dute:

- Bizkaikoa: hemen itundu gabeko plaza pribatuak dira ugarienak; banakako laguntza ekonomikoetan oinarritzen da foru-sarekoak ez diren zentroetan sartu ahal izateko.

- Beste bi lurraldeetakoa: bietan plazen erdia baino gehiago publikoak dira, baina batean (Gipuzkoan) askoz ere handiagoa da itunpeko zentro pribatuetako plazen kopurua bestean baino.

**10. taula: Egoitzetako plazak lurraldez lurralde eta titulartasunaren arabera**

| Titulartasuna | Araba | | Bizkaia | | Gipuzkoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | % | *Abs.* | % | *Abs.* | % |
| Publikoa | 1.256 | 51,1 | 1.313 | 19,2 | 2.637 | 55,2 |
| Itunpeko pribatua | 77 | 3,1 | 83 | 1,2 | 2.073 | 43,4 |
| Pribatua | 1.125 | 45,8 | 5.448 | 79,6 | 69 | 1,4 |
| **GUZTIRA** | **2.458** | **100,0** | **6.844** | **100,0** | **4.779** | **100,0** |

Titulartasuna kontuan hartuta, zentroetako okupazio mailak kasu guztietan %90 gainditzen du, batez beste: zentro publikoetan, %95,4koa da, itundupeko pribatuetan %94,0koa eta itundu gabeko pribatuetan %92,0koa.

Ezgaitasuna duten egoiliarren proportzio handiena itunpeko zentro pribatuetan dago; hauetan, gainera, ezgaitasun larria duten pertsonen ehunekorik handiena dago. Beste muturrean, itundu gabeko zentro pribatuak ditugu; hauek eraginkortasun bertikal baxuena dute eta ezgaitasun larria duten egoiliarren proportzio txikiagoa.

**11. taula: Egoiliarrak titulartasuna eta ezgaitasun maila kontuan hartuta**

| Ezgaitasun maila | Titulartasun publikoa | | Itundutako titulartasun pribatua | | Titulartasun pribatua | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Autonomiadun pertsonak | 1.397 | 28,1 | 470 | 22,4 | 1.950 | 31,9 |
| Mendekotasun arina duten pertsonak | 1.073 | 21,6 | 415 | 19,7 | 1.180 | 19,3 |
| Mendekotasun larria duten pertsonak | 2.496 | 50,3 | 1.216 | 57,9 | 2.988 | 48,9 |
| **GUZTIRA** | **4.966** | **100,0** | **2.101** | **100,0** | **6.118** | **100,0** |

### 2.2.3. *Egoitzen tamaina*

Oro har, adituak bat datoz tamainaren inguruko printzipioarekin; alegia, beste zenbait faktoreren artean, egoitza-zentroak tamaina txikikoak badira, ematen den laguntzaren kalitate maila, bermatu ez arren, hobetu egiten dela. Egoitzen tamaina, beraz, kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsua da, bai barne funtzionamenduaren ikuspegiari dagokionez, bai hurbileko gizarte ingurunearekiko harremanei dagokienez.

Azterlaneko datuek adierazten dute Erkidego honetan txikiagoak diren egoitzek (hirurogei baino gutxiagokoek) eskaintzen dituzten plazen kopurua guztizkoaren herena baino ez dela, %33,8. Ostera, beste muturrean, ehun eta berrogeita hamar erabiltzailetik gorako edukiera duten makrozentroetan, eskaintzaren laurdena kontzentratzen da; alegia, %23,3. Tamainaren ikuspegi honetatik, Bizkaian egoerarik muturrekoena antzeman dezakegu: egoitza txikietan eskaintzen dira plaza gehien (guztizkoaren %38,0) eta, aldi berean, makrozentroetan kokatzen dira plaza gehienak (%28,3).

**12. taula: Egoitzetako plazak lurraldez lurralde eta tamainaren arabera**

| Tamaina | Araba | | Bizkaia | | Gipuzkoa | | EAE | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| 60 plazara arte | 582 | 33,8 | 2.265 | 38,0 | 1.228 | 28,0 | 4.076 | 33,8 |
| 61 - 150 plaza | 805 | 46,7 | 2.009 | 33,7 | 2.358 | 53,8 | 5.172 | 52,9 |
| 151 plaza edo geh. | 336 | 19,5 | 1.683 | 28,3 | 796 | 18,2 | 2.815 | 23,3 |
| **GUZTIRA** | **1.723** | **100,0** | **5.957** | **100,0** | **4.382** | **100,0** | **12.063** | **100,0** |

Interesgarria da aipatzea baita ere, erakunde publikoak eta pribatuak proportzio berean diren arren makrozentroen titular, pribatuak direla eskaintza tamaina txikiagoko zentroetara bideratzen dutenak.

**13. taula: Egoitzak eta plazak titulartasuna eta tamaina kontuan hartuta**

| Tamaina | Titulartasun publikoa | | | | Itundutako titulartasun pribatua | | | | Titulartasun pribatua | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zentroak | | Plazak | | Zentroak | | Plazak | | Zentroak | | Plazak | |
| | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| 60 plazara arte | 25 | 43,1 | 1.035 | 22,3 | 16 | 59,3 | 766 | 37,1 | 66 | 74,2 | 2.275 | 42,4 |
| 61 - 150 plaza | 28 | 48,3 | 2.625 | 56,7 | 9 | 33,3 | 840 | 40,6 | 17 | 19,1 | 1.706 | 31,8 |
| 151 plaza edo geh. | 5 | 8,6 | 971 | 21,0 | 2 | 7,4 | 461 | 22,3 | 6 | 6,7 | 1.383 | 25,8 |
| **GUZTIRA** | **58** | **100,0** | **4.631** | **100,0** | **27** | **100,0** | **2.067** | **100,0** | **89** | **100,0** | **5.364** | **100,0** |

Zentroetako okupazio mailak ia ez du zerikusirik tamainarekin. Aintzat hartutako hiru egoitza motetan, erabiltzaileen portzentajea eta plazena ia berdina da; egoitza txikietan, %95,6koa da eta handietan %94,9koa, batezbestekoa %95,3koa izanik.

Mendekotasunaren prebalentziak ia ez du loturarik egoitzen tamainarekin. Egoitza handietan, eraginkortasun bertikala edo ezgaitasunaren prebalentzia %79,9koa da eta txikietan, berriz, %75,2koa.

**14. taula: Egoiliarren ezgaitasun maila egoitza motaren arabera**

| Ezgaitasun maila | 60 plazara arte | | 61 - 150 plaza | | 151 plaza edo geh. | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Autonomiadunak | 965 | 24,8 | 1.222 | 24,8 | 528 | 20,1 |
| Mendekotasun arina | 862 | 22,1 | 979 | 19,9 | 599 | 22,8 |
| Mendekotasun larria | 2.069 | 53,1 | 2.724 | 55,3 | 1.500 | 57,1 |
| **GUZTIRA** | **3.896** | **100,0** | **4.925** | **100,0** | **2.627** | **100,0** |

## 2.3. **Egoitzak eta etxebizitza komunitarioak**

### *2.3.1. **Zentroen ezaugarri fisikoak***

#### *2.3.1.1. Kokapena*

Arreta eskaintzen duten zentro gehienak, %66,4, ondo komunikatuta daude, hiriaren erdialdean baitaude. Kokapen hori da egokiena eta neurri handi batean erdiparekoak edo handiak diren zentro askoren antzinatasunak baldintzatuta dago; zentro hauek bere garaian kongregazioek edo ongintzarako erakundeek sustatu zituzten, nola erdialdean hala beranduago hirigunetzat hartu ziren aldeetan. Hori gorabehera, gaur egun, zentroen dimentsioak eta kokapen geografikoak badutela zerikusirik ikus dezakegu: zenbat eta

arinagoa izan arreta formula, orduan eta aukera gehiago dago kokapena egokia izan dadin, eta, alderantziz, zenbat eta astunagoa izan, orduan eta aukera gehiago okerrago komunikatuta egoteko, beharbada lurzoruaren prezioak eragina duelako eta dimentsio handiko zentroak egin ahal izateko orube egokiak aurkitzea zaila delako.

**113. grafikoa: Erdialdeetan kokatutako egoitzazko zerbitzuen portzentajea zentro mota eta tamaina kontuan hartuta**




Ongien kokatutako zentroek, txikiagoak direnez, logikoki zentroen guztizko portzentajeak baino erabiltzaile gutxiago hartzen dituzte, zehazki, %55,5 gutxiago.

Hala ere, lortutako informazioa aintzat hartuta, ezin esan dezakegu ateratzen direnen eta ez direnen kopurua kokapenarekin erlazionatuta dagoenik, logikoa dirudien arren. Hain zuzen ere, zentrotik ateratzen ez diren egoiliarren proportzioa %27,1ekoa da zentroa erdialdean badago, eta %35,4koa erdialdean ez dagoenean; hala ere, egoitza handietan –okerren kokatutakoetan– autonomiadunen tasa txikietan baino zertxobait baxuagoa izateaz gain, aldea ez da esanguratsua.

### *2.3.1.2. Zentroaren irisgarritasuna*

Adinekoei egoitzazko zerbitzuak eskaintzen dizkieten zentro gehienak erabat irisgarriak dira; alegia, ez dute eskailerarik edo sartzeko arrapalak dituzte. Hala ere, oraindik zaila da justifikatzea zergatik dauden oztopo arkitektonikoak adinekoentzako gizarte zentroetan, eta, praktikan, oso eragin negatiboa dute narriadura fisikoa duten erabiltzaileen bizi kalitatean. Merezi du aipatzea honakoetan sartzeko arazoak aurkitu direla:

- Hamar egoitzetan (lau publiko eta itundu gabeko sei pribatu), guztira beraz 767 plaza. Egoitza horietan fisikoki mendekoak diren 285 pertsona daude, eta horietatik 171k gurpil-aulkia erabiltzen dute.

- Hirurogeita bi etxebizitza komunitariotan (bost publikoak dira). Bertan, mendekotasun fisikoak dituzten 241 pertsona bizi dira guztira, eta horietatik 110ek gurpil-aulkia erabiltzen dute.

- Babespeko hamabi apartamentutan (hamaika publiko eta pribatu bat). Horietan pertsona autonomiadunak bakarrik bizi dira.

### *2.3.1.3. Gune eta instalazio komunak zentroaren barruan*

Egoitzetan eta etxebizitza komunitarioetan batera erabiltzeko diren espazioek eta instalazioek bete beharreko baldintza material batzuen inguruan egindako ikerketak honako emaitza hauek aurkezten ditu:

- Egoitza gehienetan eta zenbait etxebizitza komunitariotan, jangela gisa erabiltzen den espazioa eguneko zentroak arautzen dituen dekretuan ezarritakoa baino txikiagoa da (dekretu horretan bakarrik arautzen da alderdi hori). Aztertutako egoitzen %39an, zentro publikoen %48,2an eta pribatuen %30,4an, jangelaren edo, hala badagokio, jangela nagusiaren azalera 2 m2-ko ratioaren azpitik dago erabiltzaileko; arazo horrek egoitzetako 5.219 plazetan du eragina, alegia, guztizko kopuruaren %43,3an. Etxebizitza komunitarioetan, egoera nolabait hobea da: zentroen %9an baino ez da gertatzen jangelak eta jarduera-eremuak batera erabiltzaileko 4,5 m2-tik beherako azalera izatea (plazen %9).

- 1998ko Dekretuak egoitzetarako ezartzen dituen barne irisgarritasuneko baldintzak honako hauek dira: ateak behar bezain zabalak izatea, eskaileretan eta arrapaletan gainazal irristagaitza jartzea, korridoreetan eta beste eremu batzuetan eskudelak jartzea, eta gurpil-aulkian dagoen pertsonak arazorik ez izatea edozein gelara, bainugelara, komunera, egongeletara eta jarduera-eremuetara sartzeko. Betekizun horiek ez dira oraindik erabat betetzen zentroen %35,3an, eta horrek plazen eskaintzaren %34,4an du eragina. Arazo hau batez ere Araban antzeman dezakegu (egoitzen %70); beste muturrean, aldiz, Bizkaia dugu (%27 baino ez). Etxebizitza komunitarioei dagokienez, termino erlatiboetan arazoa are larriagoa da: horietatik %48ak –plazen %47ak– oraindik ez ditu betetzen goian adierazitako dekretuan jasotako barne irisgarritasunari buruzko arau espezifikoak.

- Egoitzetako solairu bakoitzean eta etxebizitza komunitario bakoitzean telefono bat egon behar du kanpoaldearekin komunikatzeko; baldintza hori, ordea, ez da betetzen egoitzen %22,5ean. Aipatu beharrean gaude baita ere egoitzen eta etxebizitza komunitarioen %80ak baino gehiagok ez duela anplifikadoredun telefonorik, alegia, hipoakusia duten pertsonen beharretara egokitutako telefonorik (hala ere, betekizun hori ez da dekretuan jasotzen).

- Interesgarria da aipatzea baita ere, legez ezarritako betekizuna ez den arren, zentro gehienetan ez dagoela txirrinik eremu komunetan, beharrezkoa izanez gero, langileak ohartarazi ahal izateko.

### *2.3.1.4. Suteak ekiditeko eta itzaltzeko neurriak*

Azterlan honetan arreta berezia eskaini zaie suteak ekiditeko eta itzaltzeko sistemei, eta egoitzei buruzko dekretuan adierazten diren baldintza guztiak betetzen dituztela aztertu da. Legez ezarritako baldintza horiek hiru kategoriatan sailkatu dira:

- Barne funtzionamenduko irizpideak: larrialdietako plana egotea eta ebakuazio simulakroa egitea. Irizpide hauek soilik egoitzei dagozkie.

- Zentroetako instalazioak eta ekipamendua: itzalgailu eramangarriak, larrialdi argiak, irteeren seinaleztapena, eta sutea detektatzeko instalazioak eta alarma. Lehenengo hirurak nahitaezkoak dira zentro mota guztietan; azkena, ordea, egoitzetan baino ez.

- Egoitzen larrialdietako plana beste erakunde batzuetara bidaltzea: Suhiltzaileen Zerbitzura, Babes Zibilera eta Gizarte Ongizateko Zuzendaritzara (azken biak Eusko Jaurlaritzaren mendekoak dira).

Barne funtzionamenduko irizpideei jarraiki lortutako emaitzek adierazten dute zentroen %93,8ak duela suteetarako larrialdietako plana, eta %92ak dituela gai honen inguruan prestatutako langileak. Portzentaje hori zertxobait baxuagoa da ebakuazio simulakroak egiteari dagokionez.

Aztertutako hiru baldintza horietakoren bat betetzen ez duten egoitzen oinarrizko ezaugarriak honako hauek dira:

- Guztira hamaika egoitzek ez dute suteen aurkako larrialdietako planik. Horietatik, bi publikoak dira, bost txikiak eta sei erdiparekoak; guztira, 627 plaza eskaintzen dituzte.

- Hamalautan, horietatik bat publikoa, langileek ez dute beharrezko prestakuntza sutea gerta ez dadin zein aurreneurri hartu behar diren edo, sutea gertatuz gero, nola jokatu behar den jakiteko. Egoitza horiek (bi handi, lau erdipareko eta sei txiki) guztira 1.168 plaza eskaintzen dituzte.

- Hirurogeita seitan, ez da ebakuazio simulakrorik egin.

  Azpimarratu beharrekoa da Bizkaian zentro askok uzten dituztela alde batera jardun horiek, batez ere egoitza pribatuek eta zentro handiek; izan ere, kontuan izan behar dugu arazo horrek zentro guztietan duela eragina, horietatik laurden batean baino gehiagon egoiliar batzuek ohetik altxatzeko laguntza behar baitute.

Etxebizitza komunitarioek eta egoitzek suteen aurkako instalazio eta ekipamendu gehiago dituzte eta beti betetzen dituzte legez ezarritako eskakizunak, ehuneko laurogeita hamalautik gorako proportzioetan.

**15. taula: Suteen arloan baldintza funtzionalak betetzen dituzten egoitzak: zentroen eta plazen proportzioa**

| | | Plana dute | | Suteen prebentziorako prestakuntzan parte hartu dute langileek | | Ebakuazio simulakroak egin dira | | Guztira absolutuak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | *Zentr. %* | *Plazen %* | *Zentr. %* | *Plazen %* | *Zentr. %* | *Plazen %* | *Zentr.* | *Plazen* |
| Lurralde Historikoa | Araba | 100,0 | 100,0 | 93,8 | 98,1 | 70,0 | 78,1 | 26 | 1.723 |
| | Bizkaia | 94,8 | 96,1 | 95,4 | 89,3 | 52,3 | 46,6 | 93 | 5.957 |
| | Gipuzkoa | 89,1 | 91,0 | 85,5 | 88,7 | 76,2 | 73,6 | 55 | 4.382 |
| Tamaina | 60 plazara arte | 95,2 | 96,1 | 92,9 | 93,9 | 58,2 | 62,3 | 58 | 4.631 |
| | 61 - 150 plaza | 89,5 | 90,9 | 92,6 | 90,3 | 75,0 | 71,0 | 27 | 2.067 |
| | 151 plaza edo gehiago | 100,0 | 100,0 | 82,7 | 85,1 | 46,2 | 40,0 | 89 | 5.365 |
| Titulartasuna | Publikoa | 92,2 | 93,5 | 98,3 | 97,3 | 92,1 | 90,6 | 107 | 4.076 |
| | Itundutako plazak dituen pribat. | 94,4 | 95,4 | 74,1 | 82,1 | 64,8 | 58,3 | 54 | 5.172 |
| | Pribatua | 94,6 | 95,7 | 93,4 | 87,4 | 42,5 | 36,3 | 13 | 2.815 |
| Ezgaitasun larria duten erabiltzaileak (%) | %24ra arte | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 88,6 | 95,1 | 14 | 846 |
| | %25 - 49 | 85,7 | 89,7 | 84,3 | 91,8 | 47,1 | 48,5 | 55 | 4.420 |
| | %50 - 74 | 97,2 | 98,4 | 95,5 | 87,0 | 69,2 | 67,5 | 73 | 4.080 |
| | %75 edo gehiago | 96,9 | 96,0 | 93,9 | 89,7 | 62,2 | 60,4 | 33 | 2.717 |
| **GUZTIRA** | | **93,8** | **94,8** | **92,0** | **90,3** | **62,5** | **60,9** | **174** | **12.063** |

**16. taula: Suteen aurkako instalazioak eta ekipamenduak dituzten egoitzak: zentroen eta plazen proportzioa**

| | | Larrialdietako irteeren seinaleztapena | | Larrialdi argiak | | Itzalgailu eramangarriak | | Sutea detektatzeko instalazioa eta alarma | | Guztira absolutuak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | *Zentr. %* | *Plazen %* | *Zentr. %* | *Plazen %* | *Zentr. %* | *Plazen %* | *Zentr. %* | *Plazen %* | *Zentr.* | *Plazak* |
| Lurralde Historikoa | Araba | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 88,5 | 76,8 | 26 | 1.723 |
| | Bizkaia | 97,6 | 93,7 | 98,4 | 98,5 | 100,0 | 100,0 | 94,1 | 96,3 | 93 | 5.957 |
| | Gipuzkoa | 94,5 | 95,2 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 55 | 4.382 |
| Tamaina | 60 plaza baino gutxiago | 100,0 | 100,0 | 98,6 | 97,8 | 100,0 | 100,0 | 97,0 | 98,1 | 58 | 4.631 |
| | 61 - 150 plaza | 92,6 | 93,8 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 90,1 | 89,5 | 27 | 2.067 |
| | 151 plaza edo gehiago | 90,4 | 90,6 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 89 | 5.365 |
| Titulartasuna | Publikoa | 97,4 | 97,5 | 97,4 | 98,1 | 100,0 | 100,0 | 96,0 | 96,9 | 107 | 4.076 |
| | Itundutako plazak dituen pribatua | 94,4 | 95,4 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 54 | 5.172 |
| | Pribatua | 97,5 | 93,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 93,1 | 91,1 | 13 | 2.815 |
| Ezgaitasun larria duten erabiltzaileak (%) | %24ra arte | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 78,6 | 52,8 | 14 | 846 |
| | %25 - 49 | 95,4 | 95,3 | 97,3 | 98,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 55 | 4.420 |
| | %50 – 74 | 96,2 | 90,7 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 96,8 | 96,5 | 73 | 4.080 |
| | %75 edo gehiago | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 90,3 | 97,2 | 33 | 2.717 |
| **GUZTIRA** | | **97,0** | **95,2** | **99,1** | **99,3** | **100,0** | **100,0** | **95,1** | **94,9** | **174** | **12.063** |

**17. taula: Suteen aurkako instalazioak eta ekipamendua dituzten etxebizitza komunitarioak**

| | | Larrialdietako irteeren seinaleztapena | | Larrialdi argiak | | Itzalgailu eramangarriak | | Guztira absolutuak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | *Zentr. %* | *Plazen %* | *Zentr. %* | *Plazen %* | *Zentr. %* | *Plazen %* | *Zentr.* | *Plazak* |
| Lurralde Historikoa | Araba | 71,3 | 71,5 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 31 | 307 |
| | Bizkaia | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 84 | 886 |
| | Gipuzkoa | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 6 | 69 |
| Titulartasuna | Publikoa | 33,3 | 40,7 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 6 | 54 |
| | Itundutako plazak dituen pribatua | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 12 | 160 |
| | Pribatua | 95,2 | 94,7 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 103 | 1.048 |
| Ezgaitasun larria duten erabiltzaileak (%) | %24ra arte | 92,2 | 93,5 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 51 | 490 |
| | %25 - 49 | 93,0 | 94,8 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 30 | 330 |
| | %50 - 74 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 20 | 221 |
| | %75 edo gehiago | 85,7 | 82,6 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 19 | 221 |
| **GUZTIRA** | | **92,7** | **93,1** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **121** | **1.262** |

Topatutako akatsei dagokienez, honakoa aipatu behar dugu:

- Bederatzik, guztira laurogeita hamazazpi plazekin, ez dute larrialdietako irteeren seinaleztapenik; etxebizitza horietatik lau publikoak dira.

- Egoitzei dagokienez, guztiek dituzte itzalgailu eramangarriak; %97,0ak ditu irteeren seinaleztapenak; %99,1ak larrialdi argiak; eta %95,1ak alarma seinaledun su detektatzaileak.

- Bost egoitzatan (guztira 585 plaza) ez dago larrialdietako irteeren seinaleztapenik. Bi egoitza Bizkaikoak dira eta beste hirurak Gipuzkoakoak; bost egoitza horietatik bi baino ez dira publikoak. Tamainari dagokionez, lau erdiparekoak dira eta bat handia. Bost egoitza horietan ezgaitasun arazo larriak dituzten egoiliarren portzentajea ehuneko hogeita bost eta hirurogeita hamalau bitartekoa da.

- Bizkaiko egoitza batek bakarrik falta ditu larrialdi argiak. Egoitza hori txikia da eta ohetik bakarrik altxa ezin duten egoiliarren proportzioa ehuneko hogeita bostetik gorakoa eta berrogeita hamarretik beherakoa da.

- Landa-lanean ikusi den bezala, suteen detekzioko eta alarmako instalaziorik ez duten zortzi zentroek (hiru Arabakoak eta bost Bizkaikoak) guztira 620 plaza dituzte.

Azkenik, zentroen %66,4ak bidali ditu beren larrialdietako planak Suhiltzaileen Zerbitzuetara, %50,4ak Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ongizateko Zuzendaritzara eta %47,0ak Babes Zibilera.

## 18. taula: Larrialdietako plana erakunde ezberdinetara bidali duten egoitzak

| | | Plana Suhiltzaileen Zerbitzura igorri da | | Plana Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ongizateko Sailera igorri da | | Plana Eusko Jaurlaritzaren Babes Zibileko Sailera igorri da | | Guztira absolutuak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | *Zentr. %* | *Plazen %* | *Zentr. %* | *Plazen %* | *Zentr. %* | *Plazen %* | *Zentr.* | *Plazak* |
| Lurralde Historikoa | Araba | 84,2 | 93,3 | 47,7 | 43,4 | 61,2 | 56,3 | 26 | 1.723 |
| | Bizkaia | 55,2 | 57,5 | 41,7 | 46,2 | 43,9 | 40,5 | 88 | 5.726 |
| | Gipuzkoa | 80,6 | 72,8 | 69,2 | 54,3 | 46,5 | 37,6 | 49 | 3.987 |
| Tamaina | 60 plaza baino gutxiago | 67,5 | 68,5 | 53,2 | 54,9 | 52,6 | 53,9 | 102 | 3.917 |
| | 61 - 150 plaza | 67,9 | 67,6 | 45,9 | 44,0 | 40,0 | 37,7 | 48 | 4.704 |
| | 151 plaza edo gehiago | 65,4 | 68,9 | 51,9 | 47,5 | 34,6 | 32,1 | 13 | 2.815 |
| Titulartasuna | Publikoa | 72,0 | 72,4 | 41,6 | 43,8 | 45,1 | 42,4 | 53 | 4.331 |
| | Itundutako plazak dituen pribat. | 84,3 | 76,9 | 74,5 | 51,0 | 45,1 | 34,2 | 26 | 1.971 |
| | Pribatua | 59,5 | 61,3 | 49,7 | 51,7 | 49,7 | 44,4 | 84 | 5.133 |
| Ezgaitasun larria duten erabiltzaileak (%) | %24ra arte | 88,1 | 86,2 | 35,0 | 31,6 | 23,6 | 21,7 | 14 | 846 |
| | %25 - 49 | 64,6 | 62,5 | 51,6 | 54,1 | 48,2 | 45,9 | 47 | 3.965 |
| | %50 - 74 | 71,6 | 71,0 | 57,6 | 59,1 | 52,1 | 46,7 | 71 | 4.016 |
| | %75 edo gehiago | 53,1 | 66,7 | 34,5 | 29,6 | 46,7 | 34,8 | 32 | 2.609 |
| **GUZTIRA** | | **67,4** | **68,2** | **50,9** | **48,6** | **47,5** | **41,9** | **163** | **11.436** |

### *2.3.1.5. Egoitzen banaketa unitateka edo moduluka*

Azken urteotan, tamaina handiko egoitzak modulu berezituetan egituratzen joan dira euren espazio fisikoa eta, beraz, zuzeneko arretako lanak banaketa horren arabera antolatu dituzte. Formula honen helburua da egoitza-erakunde handietan gertatu ohi diren disfuntzioak arintzea; horrela, bai egoiliarren artean bai egoiliarren eta zuzeneko arretako langileen artean hurbiltasunezko harremanak finkatzeko egokiagoak diren bizi unitate txikiak eratuko dira.

Azterlanaren emaitzek erakusten duten bezala, arreta espezializatuko modulu bat edo gehiago jartzea erabaki duten egoitzen kopurua guztizkoaren %37,1ekoa da. %30ak laguntza-moduluak dituzte, urritasun fisiko larriak dituzten pertsonen arretarako; %24,9ak modulu psikogeriatrikoak dituzte eta %16,2ak, berriz, espezialitate batean bertan ere sailkatzen ez diren moduluak dituzte.

Bistakoa den bezala, modulukako banaketak zentroaren tamainarekin eta ezgaitasunaren prebalentzi tasarekin du zerikusia.

**114. grafikoa: Arreta moduluak dituzten egoitzen proportzioa**



Laguntza-moduluak egoitzen ehuneko 30ak sustatzen ditu eta guztira erabiltzaileen %18,8ari eskaintzen diote arreta (alegia, eraginkortasun horizontalari dagokionez, ezgaitasun larriak dituzten erabiltzaileen %34,2ari).

**115. grafikoa: Ezgaitasun larria duten egoiliarren artean laguntza-moduluetan arreta jaso dutenen proportzioa**




Egoitzen %24,9ak ditu modulu psikogeriatrikoak eta hauen bidez, arazo kognitiboak dituzten egoiliarren %22,8ari eskaintzen zaie laguntza. Bizkaian baliabide hau ez da hain erabilia; bertan, arazo kognitiboak dituzten egoiliarren %17,4 bakarrik zaintzen dira unitate psikogeriatrikoetan.

**116. grafikoa: Arazo kognitiboak dituzten egoiliarren artean modulu geriatrikoetan laguntza jasotzen dutenen proportzioa**




Hasiera batean, zentroetan moduluak jartzeak unitate bakoitzari zuzeneko arretako langile talde espezifikoak denbora luzerako esleitzea ahalbidetzen du; horrela, harreman estuagoa sortzen da egoiliarren eta langileen artean, pribatutasunarekiko eta intimitatearekiko errespetua ere handiagoa da langileak solairu ezberdinetan txandatzen direnean baino, eta arretaren indibidualizazioa ahalbidetzen da. Alabaina, errealitateak erakusten duenaren arabera, gure erkidegoan moduluak nagusiki antolaketaren aldetik dakartzaten abantailengatik jarri dira abian eta, neurri txikiagoan, arreta pertsonalizatuagoa bermatzeko eskaintzen dituen aukerengatik. Izan ere, moduluak dituzten zentroen %85ak baino gehiagok antolatzen dituzte zuzeneko arretako zereginak egoiliar taldeen arabera eta %38,6ak baino ez du bermatzen nolabaiteko egonkortasuna langile talde jakin bat egoiliar talde zehatzari esleitzeari dagokionez; gainerakoek nahiago dute txandaketa.

### *2.3.1.6. Zentroetako logelak*

Datuak aztertuta ikus dezakegu 1998ko Dekretuak zentroetako logelen laurdena banakakoak izan behar zutela-eta ezarritako baldintza kontserbadoreegia zela; gaur egun zentroen %93,6ak gainditzen du minimo hori. Erkidego osoan, logelen %55,3 dira banakakoak; Arabak du tasarik altuena, hots, %69,8. Esan dezakegu ez establezimenduaren tamainak ez titulartasunak ez dutela eraginik aldagai honetan.

**19. taula: Egoitzazko zerbitzuetan dauden banakako logelen proportzioa**

| Banakako logelen proportzioa | Zentroak | | Plazak | |
|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | % | *Abs.* | % |
| Banakako logelarik gabe | 4 | 1,2 | 103 | 0,8 |
| %24ra arte | 14 | 4,6 | 833 | 6,3 |
| %25 – 74 | 248 | 84,2 | 10.027 | 75,2 |
| %75 edo gehiago | 28 | 9,4 | 2.188 | 16,4 |
| Ed/Ee | 2 | 0,6 | 175 | 1,3 |
| **GUZTIRA** | **295** | **100,0** | **13.325** | **100,0** |

**117. grafikoa: Egoitzazko zerbitzuetan dauden banakako logelen proportzioa**



Bestalde, landa-lanak azaldu du kasu batzuetan ez direla bete logelei buruzko xedapen jakin batzuk. Hori dela-eta, honako hau azpimarratu behar dugu:

- Hamasei egoitzatan eta bi etxebizitza komunitariotan, banakako logelen proportzioa ehuneko hogeita bost baino txikiagoa da; guztira bederatziehun plaza baino gehixeago eskaintzen dituzten hamasei egoitza horietatik, hamabost publikoak dira eta bat pribatua.

- Bederatzi egoitzatan (bost publiko eta lau pribatu) eta bi etxebizitza komunitariotan, bi ohe baino gehiago jartzeko lekua duten logela batzuk daude; guztira, erabateko okupazioko egoeran, guztira 713 erabiltzaile bizi ahal izango lirateke logela horietan.

- Hamar egoitzatan eta bi etxebizitza komunitariotan, zenbait logelek ez dituzte gutxieneko dimentsioak. Zentro horiek guztira 595 plaza eskaintzen dituzte; horietatik, 237 publikoak dira, nahiz eta ezin izan den adierazi dimentsio arazoak dituzten logelen kopuru zehatza.

- Ikertutako gainerako eskakizun materialak –berokuntza, kanpo leihoa, txirrinak eta barrua kanpotik ikusi ezina– legezko xedapenetara egokitzen dira, salbuespen gutxi batzuekin.

### *2.3.1.7. Bainugelak*

Hamabi etxebizitza komunitariok izan ezik, gainerako egoitza-zentro guztiek dituzte 1998ko Dekretuak ezarritako bainugelen kopurua, alegia, bat lau erabiltzaileko.

Azterlana egiteko unean, hamar logelatatik seik baino zertxobait gehiagok dute komuna, baina batez besteko proportzio horrek gorabeherak ditu kontuan hartutako aldagaien arabera, 118. grafikoan ikus dezakegun bezala.

**20. taula: Egoitzazko zerbitzuetan bainugela duten logelen proportzioa**

| **Bainugela duten logelen proportzioa** | **Zentroak** | | **Plazak** | |
|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | % | *Abs.* | % |
| Bainugeladun logelarik gabe | 88 | 29,9 | 973 | 7,3 |
| %24ra arte | 41 | 14,0 | 1.160 | 8,7 |
| %25 – 74 | 79 | 26,8 | 4.239 | 31,8 |
| %75 edo gehiago | 83 | 28,2 | 6.593 | 49,5 |
| Ed/Ee | 2 | 0,6 | 175 | 1,3 |
| **GUZTIRA** | **295** | **100,0** | **13.325** | **100,0** |

**118. grafikoa: Egoitzazko zerbitzuetan bainugela duten logelen proportzioa**




Jakina, bainugelek galdera-sortan kontuan hartu ziren egokitzapen baldintza jakinak bete behar dituzte –euspen-barrak, zoru irristagaitza, alarma-txirrina…– . Hala ere, gogoan izan behar dugu baita ere alderdi horiei dagokienez bainugela “gehienek” zein egoeratan dauden ikusteko iritzia eskatu zela eta, beraz, emaitzak maximo gisa interpretatu behar dira.

**119. grafikoa: Segurtasun elementuak dituzten bainugela irisgarrien proportzioa**




Azkenik, aipatu beharra dugu zuzeneko behaketari esker, ikusi ahal izan dugula oraindik ere zentro batzuetan, bainugelako eguneroko zereginetan, mantendu egiten direla pertsonen duintasunari eta pribatutasunerako eskubideari kalte egiten dieten zenbait jardun; besteak beste, logelatik bainugela geriatrikora garabiz eramatearena, edo profesionalak bainugela geriatrikoan sartzea beste zaintzaile batzuk egoiliarra bainatzen ari diren bitartean.

## 2.3.2. ***Zentroen betekizun funtzionalak***

Lehen zatian jada aipatu dugu zein garrantzitsua den zentroen funtzionamendurako gutxieneko jarraibide batzuk formalki ezartzea; jarraibide horiek ulerterrazak izan behar dute, zentroko lanetan parte hartzen dutenek ondo ezagutu behar dituzte eta onartu egin behar dituzte, eta egoki administratu behar dira.

Jarraibide horien ezarpen mailaren analisia egin ahal izateko, berez, zenbait establezimendutan gero eta ohikoagoak diren ebaluazio horietako bat egin beharko litzateke zentroz zentro.

Azterlan honen helburua zentroetako arduradunek ekarritako informazioan oinarrituta egongo den ikuspegi orokorra ematea da. Ikuspegi hori ematerakoan kontuan hartu dira jardunbide egokien eskuliburuetan aho batez defendatzen diren oinarrizko jarduketa irizpideak, baina ez da egiaztatu irizpide horiek benetan aplikatzen diren, ezta nola aplikatzen diren ere. Hautatutako adierazleei esker, kalitatea bermatzeko ez baina bai, behintzat, kalitatera hurbiltzeko ezinbestekoak diren betekizun jakin batzuk betetzen ote diren edo ez egiazta dezakegu. Adierazle horiek bi kategoriatan taldekatu dira: legez ezarritako betekizunak eta jokabide gomendagarriak.

### *2.3.2.1. Egoitzazko zerbitzuak erregulatzen dituen arautegian ezarritako betekizun funtzionalak*

Legez ezarritako betekizun funtzionalen artean, ikerketak batez ere honako hauek aztertu ditu:

- Barne arautegia;
- Egoiliarren erreklamazioei eta kexei erantzuteko prozedura;
- Iradokizunak eta erreklamazioak biltzeko orriak edo liburuak;
- Iradokizunen postontzia;
- Idatziz jasotako tarifak eta prezioak;
- Erabiltzaileekin sinatutako kontratuak[22] ;
- Jardunbide egokien eskuliburua (egoitzei baino ez zaie eskatzen); aipatu beharrekoa da zentroetako langileei dagozkien funtzionamendu arauak, askotan eskuliburu horietako atalik garrantzitsuena, langileriari buruzko kapituluan aztertzen direla.

21. taulan, betekizun horiek zentroetan aplikatzeari dagokionez lortutako emaitza globalak eskaintzen dira.

**21. taula: Legez ezarritako betekizun funtzionalak betetzen ez dituzten zentroak eta plazak**

| | Zentroak | | Plazak | |
|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Jardunbide egokien eskuliburua dute (egoitzetan bakarrik) | 61 | 34,9 | 4.722 | 39,1 |
| Zentroaren funtzionamendurako arautegia dute | 32 | 11,0 | 1.215 | 9,1 |
| Erreklamazio-orriak edo liburuak dituzte | 31 | 10,6 | 1.357 | 10,2 |
| Prezioen tarifak idatziz jasota daude | 98 | 33,3 | 4.065 | 30,5 |
| Egoiliarren erreklamazioak eta kexak aztertzeko prozedura dute | 75 | 25,3 | 1.948 | 14,6 |
| Iradokizunen postontzia dute | 32 | 10,7 | 1.071 | 8,0 |
| Erabiltzaileekin kontratuak egiten dira (zentro pribatuetan soilik) | 120 | 52,1 | 1.030 | 11,9 |
| **GUZTIRA ABS.** | **295** | **100,0** | **13.325** | **100,0** |

22 41/1998 Dekretuak, egoitzazko zerbitzuak erregulatzen dituenak, betekizun hau egoitza-zentro guztiei dagozkienen artean kokatzen du eta ez du soilik zentro pribatuetan aplikatzen. Hala ere, sektore publikoan, plazak emateko ebazpena har daiteke aldeen arteko akordiotzat eta, horregatik, txosten honen esparruan, kontratuaren betekizuna soilik zentro pribatuei dagokie.

Emandako datuak positiboak direla esan dezakegu 98. urtea baino lehenagoko egoera erreferentzia gisa hartzen badugu. Hala ere, planteatutako arazoak hain dira oinarrizkoak, ezen arreta handiagoz aztertu behar baititugu betekizun horiek betetzen ez dituzten zentroen ezaugarriak.

Lurraldeei erreparatuz gero, eta plazen portzentajeak ere kontuan hartuta, Gipuzkoako zentroak dira okerren daudenak: aztertutako zazpi betekizunetatik hirutan ez-betetze mailarik altuena dute eta, betekizun guztiei garrantzi maila berean jarrita, portzentaje negatiboak batuz gero baliorik altuena lortzen da, alegia, 152,7. Beste muturrean, Bizkaiko zentroak daude; hauek bi adierazletan baino ez dute lortu portzentajerik altuena eta portzentaje guztiak batuz gero, baliorik txikiena lortzen da, hots, 133,7.

**22.taula: Legez ezarritako betekizun funtzionaletakoren bat betetzen ez duten zentroak eta plazak: lurralde historikoa**

| **Ez dute** | **Araba** | | **Bizkaia** | | **Gipuzkoa** | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | *Zentroak* | *Plazak* | *Zentroak* | *Plazak* | *Zentroak* | *Plazak* |
| Jardunbide egokien eskuliburua (egoitzetan bakarrik) | 43,3 | 45,2 | 56,5 | 52,0 | 28,4 | 25,1 |
| Arautegia | 12,3 | 3,5 | 10,2 | 9,6 | 11,5 | 11,0 |
| Egoiliarren kexak aztertzeko prozedura | 31,6 | 16,0 | 28,2 | 16,5 | 11,5 | 11,0 |
| Erreklamazio-liburua edo orria | 22,8 | 20,6 | 6,8 | 7,3 | 9,8 | 9,8 |
| Iradokizunen postontzia | 36,8 | 14,6 | 3,4 | 7,8 | 6,6 | 5,4 |
| Idatziz jasotako tarifak | 52,6 | 44,9 | 19,2 | 14,5 | 57,4 | 48,6 |
| Erabiltzailearekin egindako kontratua (zentro pribatuetan bakarrik) | 0,0 | 0,0 | 9,4 | 5,6 | 54,5 | 41,8 |
| **GUZTIRA** | **57** | **2.030** | **177** | **6.844** | **61** | **4.451** |

Gaia zentroen titulartasunari erreparatuta aztertzen badugu eta arazoaren garrantzia plazen portzentajeen arabera neurtzen jarraitzen badugu, esan beharra dago publikoak daudela egoera kaskarrenean, bai barne arautegiari dagokionez bai kexak, erreklamazioak eta iradokizunak aztertzeko sistemei dagokienez. Gabezia hori, ordea, arindu egin da, neurri batean, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen eta profesionalen eskubideei buruzko Gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea orain dela gutxi indarrean jarri direlako. Deigarria da baita ere jardunbide egokien eskuliburuek itunpeko zentro pribatuetan lortu duten ezarpen maila altua, gainerako zentroetakoa baino askoz ere altuagoa, alde batetik, beharbada, itunekin erlazionatutako baldintzak gehitu egin direlako eta, bestetik, kontzeptuari interpretazio zabalagoa eman zaionez, berez kalitate prozesuan barneratu ohi diren jarduketa protokoloak ere barneratzen dituztelako.

**23.taula: Ezarritako betekizun funtzionaletakoren bat betetzen ez duten zentroak eta plazak: titulartasuna**

| Ez dute | Titulartasun publikoa | | Itunpeko titulartasun pribatua | | Titulartasun pribatua | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | *Zentroak* | *Plazak* | *Zentroak* | *Plazak* | *Zentroak* | *Plazak* |
| Jardunbide egokien eskuliburuak (egoitzetan bakarrik) | 41,6 | 42,4 | 20,4 | 13,1 | 56,0 | 51,6 |
| Arautegia | 7,8 | 10,4 | 10,3 | 7,3 | 12,0 | 8,8 |
| Kexak aztertzeko prozedura | 31,3 | 20,1 | 23,1 | 11,6 | 24,0 | 11,7 |
| Erreklamazio-liburua edo orria | 35,9 | 23,3 | 5,1 | 5,7 | 3,6 | 2,2 |
| Iradokizunen postontzia | 23,4 | 18,6 | 15,4 | 3,5 | 5,7 | 1,9 |
| Idatziz jasotako tarifak | 48,4 | 40,0 | 61,5 | 47,1 | 22,4 | 27,8 |
| Erabiltzailearekin egindako kontratua (zentro pribatuetan bakarrik) | 0,0 | 0,0 | 51,3 | 41,6 | 6,8 | 4,3 |

Zentro mota eta tamaina kontuan hartuta, kasu gehienetan etxebizitza komunitarioak dira arautegiak, kexei eta iradokizunei erantzuteko sistemak eta tarifak idatziz jasota eduki behar direla dioen araua betetzen ez dutenak. Egoitza-zentroek, zenbat eta handiagoak izan, orduan eta zorrotzago betetzen dituzte kexak aztertzeko sistemak ezartzeari, tarifak idatziz aurkezteari eta erabiltzaileekin kontratuak egiteari lotutako baldintzak. Deigarria da tamaina handiagoko zentroetan jardunbide egokien eskuliburuak gutxi erabiltzen direla ikustea.

**24. taula: Legez ezarritako betekizun funtzionaletakoren bat betetzen ez duten zentroak eta plazak: zentro mota eta tamaina**

| Ez dute | Etxebizitza komunitarioak | | 60 plazara arteko egoitzak | | 61-150 plaza bitarteko egoitzak | | 151 plazako edo gehiagoko egoitzak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | *Zentroak* | *Plazak* | *Zentroak* | *Plazak* | *Zentroak* | *Plazak* | *Zentroak* | *Plazak* |
| Jardunbide egokien eskuliburuak (egoitzetan bakarrik) | | | 28,7 | 25,6 | 45,4 | 45,8 | 42,3 | 46,4 |
| Arautegia | 14,9 | 14,0 | 5,6 | 6,3 | 13,0 | 11,8 | 7,7 | 6,0 |
| Kexak aztertzeko prozedura | 34,7 | 37,5 | 24,3 | 19,8 | 11,1 | 9,9 | 7,7 | 5,5 |
| Erreklamazio-liburua edo orria | 8,3 | 8,2 | 13,1 | 14,8 | 11,1 | 9,5 | 7,7 | 5,7 |
| Iradokizunen postontzia | 18,2 | 18,9 | 3,7 | 4,0 | 9,3 | 7,1 | 7,7 | 10,7 |
| Idatziz jasotako tarifak | 38,8 | 38,9 | 27,1 | 30,9 | 33,3 | 31,7 | 30,8 | 24,0 |
| Erabiltzailearekin egindako kontratua (zentro pribatuetan bakarrik) | 12,2 | 14,1 | 19,5 | 25,2 | 11,5 | 10,4 | 0,0 | 0,0 |

Azkenik, zentroak ezgaitasun larria duten egoiliarren portzentajea kontuan hartuta taldekatzen badira, emaitzek adierazten dute, egoitza handien aldean, %25etik beherako proportzioa duten egoitza gehiago dagoela legez ezarritako betekizun horiek betetzen ez dituztenak.

**25. taula: Legez ezarritako betekizun funtzionaletakoren bat betetzen ez duten zentroak eta plazak: ezgaitasun larria duten erabiltzaileen portzentajea**

| Ez dute | %24ra arte | | %25 - 49 | | %50 - 74 | | %75 edo gehiago | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | *Zentroak* | *Plazak* | *Zentroak* | *Plazak* | *Zentroak* | *Plazak* | *Zentroak* | *Plazak* |
| Jardunbide egokien eskuliburuak (egoitzetan bakarrik) | 51,9 | 57,1 | 57,8 | 54,3 | 40,9 | 26,0 | 40,2 | 38,3 |
| Arautegia | 12,3 | 19,6 | 11,8 | 12,1 | 5,4 | 5,5 | 15,4 | 3,8 |
| Kexak aztertzeko prozedura | 36,9 | 25,2 | 16,5 | 10,1 | 28,0 | 20,0 | 21,2 | 9,2 |
| Erreklamazio-liburua edo orria | 15,4 | 13,3 | 8,2 | 6,3 | 8,6 | 10,3 | 11,5 | 14,9 |
| Iradokizunen postontzia | 18,5 | 12,9 | 8,2 | 3,9 | 6,5 | 7,9 | 13,5 | 12,8 |
| Idatziz jasotako tarifak | 41,5 | 58,5 | 35,3 | 29,5 | 32,3 | 32,9 | 21,2 | 15,9 |
| Erabiltzaileekin egindako kontratua (zentro pribatuetan bakarrik) | 9,3 | 5,4 | 15,4 | 12,5 | 22,1 | 23,1 | 9,1 | 8,2 |

*2.3.2.2. Egoitzazko zerbitzuak erregulatzen dituen arautegian ezartzen ez diren funtzionamendu jarraibideak*

Epigrafe honetan aztertzen diren funtzionamendu jarraibideak literatura espezializatuan finkatutako jardunbide egokiko gomendioetan oinarritzen dira eta, funtsean, honako helburu hauek dituzte: ebaluazioak egitea, une jakin batean zentroaren funtzionamendu jarraibide errealak ezagutzeko eta hobekuntza-bideak proposatzeko; kalitatea etengabeko bermatzeko eta hobetzen joateko sistemak aplikatzea; arriskuei aurrea hartzeko planak ezartzea; eta gertaera edo jarraibide garrantzitsuen erregistroak gordetzea. Lehenengo hirurak batera aztertu ditugu, eta erregistroen analisia, zehatzagoa dena, 28. eta 29. tauletan adierazi dugu.

Emaitza globalek azaltzen dutenez, ebaluazioaren eta kalitate sistemen kultura ez dago oraindik oso garatuta zentro hauetan; arriskuei aurrea hartzeko planek, lan-arloko arauzko xedapenen bidez erregulatzen direnek, aurreko epigrafean aipatutako legezko betekizunen antzeko betetze maila dute.

**26. taula: Gomendatutako jarraibideak betetzen ez dituzten zentroak eta plazak**

| Gomendatutako jarraibideak | Zentroak | | Plazak | |
|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Funtzionamendua hobetzeko ebaluazioak egiten dituzte | 207 | 70,3 | 7.631 | 57,3 |
| Kalitatea bermatzeko eta hobetzeko sistemak aplikatzen dituzte | 234 | 79,4 | 8.151 | 61,2 |
| Laneko arriskuei aurrea hartzeko plana dute | 90 | 30,4 | 2.049 | 15,4 |
| **GUZTIRA** | **295** | **100,0** | **13.325** | **100,0** |

Gomendatutako jarraibideak ezarri ez dituzten zentroen eta plazen portzentajea kontuan hartuta lortzen diren emaitzak 27. taulan adierazi dira.

**27. taula: Gomendatutako jarraibideak ezarrita ez dituzten zentroak eta plazak: lurraldea, titulartasuna, tamaina eta ezgaitasun larria duten egoiliarren proportzioa**

| | | Ebaluazio sistemak | | Kalitatea bermatzeko sistemak | | Laneko arriskuei aurrea hartzeko plana | | Guztira Abs. | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | *Zentr. %* | *Plazen %* | *Zentr. %* | *Plazen %* | *Zentr. %* | *Plazen %* | *Zentr.* | *Plazak* |
| **Lurralde Historikoa** | Araba | 68,9 | 46,8 | 88,4 | 79,2 | 36,5 | 10,0 | 57 | 2.030 |
| | Bizkaia | 74,5 | 69,3 | 93,0 | 81,1 | 33,6 | 20,3 | 177 | 6.844 |
| | Gipuzkoa | 59,5 | 43,5 | 31,5 | 22,3 | 15,7 | 10,2 | 61 | 4.415 |
| **Titulartasuna** | Publikoa | 42,9 | 40,1 | 56,0 | 47,2 | 22,0 | 18,1 | 64 | 4.685 |
| | Itunpeko pribatua | 68,8 | 47,4 | 56,9 | 31,9 | 19,8 | 4,9 | 39 | 2.227 |
| | Pribatua | 79,8 | 73,2 | 91,8 | 81,5 | 35,4 | 17,0 | 192 | 6.414 |
| **Tamaina** | Etxeb. komunitarioak | 81,3 | 81,4 | 94,8 | 94,9 | 58,6 | 57,1 | 121 | 1.262 |
| | 60 plazara arteko eg. | 74,3 | 74,5 | 83,1 | 81,7 | 10,8 | 12,3 | 107 | 4.076 |
| | 61-150 plaza bit. egoitz. | 42,3 | 40,7 | 44,4 | 43,4 | 11,7 | 10,2 | 54 | 5.172 |
| | 151 pl. edo geh. egoitz. | 51,9 | 51,9 | 50,0 | 49,0 | 7,7 | 10,7 | 13 | 2.815 |
| **Ezgaitasun larria duten erabiltzaileak (%)** | %24ra arte | 75,2 | 73,2 | 92,7 | 83,7 | 51,3 | 36,0 | 65 | 1.336 |
| | %25 – 49 | 65,4 | 55,1 | 75,5 | 68,6 | 32,3 | 15,6 | 85 | 4.751 |
| | %50 - 74 | 71,0 | 56,4 | 75,9 | 55,4 | 16,2 | 4,6 | 93 | 4.300 |
| | %75 edo gehiago | 71,1 | 54,7 | 75,1 | 47,4 | 26,4 | 21,4 | 52 | 2.938 |
| **GUZTIRA** | | **70,3** | **57,3** | **79,4** | **61,2** | **30,4** | **15,4** | **295** | **13.325** |

Argi eta garbi, ebaluazioa garatuagoa dago Araban eta Gipuzkoan, zentro publikoetan eta erdipareko egoitzetan. Kalitatea bermatzeko sistemak batez ere Gipuzkoako zentroetan, itunpeko pribatuetan, erdipareko egoitzetan eta ezgaituen portzentajea altuagoa den egoitzetan ikus ditzakegu. Kontuan hartu behar dugu Gipuzkoan arretaren kalitatea hobetzeko sistemak aplikatzen dituzten itunpeko zentro gehiago egotearen arrazoia, neurri handi batean, lurralde horretako Foru Aldundiak sistema horiek zentroetan ezartzeko diru-laguntzak ematen dituela izan daiteke. Arriskuei aurrea hartzeko planei dagokienez, Bizkaiko zentroak, titulartasun publikokoak eta erabiltzaileen proportzio txikiagoa duten zentroak dira okerren daudenak.

Dagoeneko egoitza-zentro askotan erregistratzen dira idatziz erabiltzaileen bizitzan garrantzitsuak diren gorabeherak, zertarako-eta prozeduren kontrola, jarraipena, azterketa eta hobekuntzak egiteko. Hala ere, gorabehera horiek neurtzeko eta erregistratzeko erabilitako irizpideak hain dira heterogeneoak, ezen oso gutxi aprobetxatzen baitira datu horiek ikerketa enpirikoen esparruan, egoitzazko zerbitzu bakar bati dagozkion ikerketak salbu utzita.

Nolanahi ere, desiragarria litzateke gorabeherak zentro guztietan jasotzea idatziz. Deigarriak dira batez ere mendeko erabiltzaileak eusteari buruzko erregistroei dagozkien

ezarpen tasa baxuak; aipatu beharrekoa da gainera erabiltzaile horietako askok nahasketa kognitiboak dituztela.

**28. taula: Gorabehera jakin batzuk idatziz erregistratzen dituzten zentroak eta plazak**

| Idatziz erregistratzen diren datuak | Zentroak | | Plazak | |
|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Erorketak | 231 | 78,1 | 10.666 | 80,0 |
| Eskarak | 206 | 69,7 | 10.591 | 79,5 |
| Eusteko elementuak aplikatzea | 163 | 55,1 | 8.693 | 65,2 |
| Laguntza behar duten egoiliarrek jaten dutena | 169 | 57,3 | 8.378 | 62,9 |
| Laguntza behar duten egoiliarren diuresia eta libratzeak | 212 | 72,0 | 10.962 | 82,3 |
| Erabiltzaileen baliozko objektuak | 123 | 41,8 | 7.474 | 56,1 |
| Suteen aurkako ekipamenduen berrikuspenak | 206 | 69,8 | 9.705 | 72,8 |
| **GUZTIRA** | **295** | **100,0** | **13.325** | **100,0** |

Gorabeherak erregistratzearen irizpidea titulartasunarekin erlazionatuta dago eta, batez ere, nahasketa kognitiboa duten pertsonen portzentajearekin eta mendekotasunarekin oro har. Hain zuzen ere, zentro publikoetan joera handiagoa dago gorabeherak idatziz jasotzeko, eta askoz ere txikiagoa ezgaitasun edo narriadura kognitiboa duten erabiltzaileak laurdena baino gutxiago diren establezimenduetan.

**29. taula: Gorabehera jakin batzuk idatziz erregistratzen dituzten zentroak eta plazak: lurralde historikoa, titulartasuna, mota eta tamaina, ezgaitasun larria duten erabiltzaileen portzentajea eta narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen portzentajea**

| | | Erregistratutako kontingentziak | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | *Eror-ketak* | *Eska-rak* | *Euste-ko elem.* | *Janda-koa* | *Diuresia* | *Baliozko objek-tuak* | *Suteen aurkako gailuen berrikusp.* | **Batez bestek. (%)** | **Abs.** |
| **Lurralde Historikoa** | Araba | 71,8 | 69,5 | 60,7 | 58,2 | 73,8 | 43,8 | 59,7 | 62,5 | 2.030 |
| | Bizkaia | 75,7 | 76,7 | 61,3 | 70,5 | 82,3 | 50,8 | 72,8 | 70,0 | 6.844 |
| | Gipuzkoa | 90,5 | 88,2 | 73,4 | 53,3 | 86,1 | 69,8 | 78,9 | 77,2 | 4.415 |
| **Titulartasuna** | Publikoa | 90,9 | 87,4 | 73,8 | 67,4 | 95,4 | 59,1 | 78,1 | 78,9 | 4.685 |
| | Itunp. pribatua | 87,4 | 87,4 | 81,8 | 50,0 | 73,7 | 79,9 | 83,1 | 77,6 | 2.227 |
| | Pribatua | 69,6 | 70,9 | 53,2 | 64,1 | 75,7 | 45,6 | 65,4 | 63,5 | 6.414 |
| **Mota eta tamaina** | Etxeb. komunit. | 69,6 | 58,5 | 50,7 | 52,7 | 61,0 | 24,8 | 60,5 | 54,0 | 1.262 |
| | 60 pl. arteko eg. | 86,5 | 76,8 | 59,0 | 67,2 | 80,9 | 49,3 | 79,0 | 71,2 | 4.076 |
| | 61-150 p. bit.eg. | 81,0 | 84,4 | 66,8 | 54,1 | 84,8 | 61,4 | 76,6 | 72,7 | 5.172 |
| | 151 p. edo geh. | 73,6 | 83,8 | 78,0 | 77,3 | 89,1 | 70,1 | 62,4 | 76,3 | 2.815 |
| **Ezgaitasun larria duten erabiltzaileak (%)** | %24ra arte | 58,7 | 47,8 | 29,9 | 45,5 | 54,4 | 14,0 | 51,2 | 43,1 | 1.336 |
| | %25 – 49 | 63,1 | 70,1 | 63,1 | 52,6 | 75,3 | 60,3 | 62,5 | 63,9 | 4.751 |
| | %50 - 74 | 93,9 | 87,8 | 67,0 | 70,5 | 90,4 | 60,0 | 83,6 | 79,0 | 4.300 |
| | %75 edo gehiago | 96,9 | 96,9 | 82,2 | 76,1 | 94,3 | 62,7 | 83,5 | 84,7 | 2.938 |
| **Narriadura ` kognitiboa duten erabil-tzaileak (%)** | %24ra arte | 33,4 | 25,5 | 23,5 | 25,8 | 35,7 | 8,2 | 46,9 | 28,4 | 1.392 |
| | %25 - 49 | 72,8 | 80,0 | 57,9 | 50,8 | 77,8 | 59,0 | 67,5 | 66,5 | 4.643 |
| | %50 - 74 | 91,6 | 88,7 | 78,7 | 77,0 | 94,6 | 58,1 | 81,2 | 81,4 | 5.586 |
| | %75 edo gehiago | 100,0 | 92,2 | 75,1 | 79,7 | 92,2 | 80,8 | 81,1 | 85,9 | 1.704 |
| **GUZTIRA** | | **80,0** | **79,5** | **65,2** | **62,9** | **82,3** | **56,1** | **72,8** | **71,3** | **13.325** |

### 2.3.3. ***Egoiliarrentzako funtzionamendu jarraibideak***

Atal honetan antolaketa-arrazoiak direla medio egoitza-zentroetan ezarri diren funtzionamendu jarraibide batzuk aztertuko ditugu. Jarraibide horiek, batzuetan, ia erabiltzaile guztiengan dute eragina –menu ezberdinen artean hautatzeko aukera, adibidez– eta, gehienetan, egoiliarren sektore jakinekin baino ez dute zerikusirik –adibidez, oheratzeko edo jaikitzeko ordutegia, laguntza behar duten egoiliarrei bakarrik aplikatu beharrekoa; edo troxak aldatzeko maiztasuna, inkontinentzia arazoak dituzten erabiltzaileei baino eragiten ez diena–. Ahal izan den neurrian, ahaleginak egin dira kontuan hartzen den jarraibide zehatz bakoitza horren pean egon daitezkeen pertsonen kopuruarekin erlazionatzeko; horrela, neurri horrek izan dezakeen garrantzia baloratu ahal izango dugu, gutxi gorabehera bada ere.

#### *2.3.3.1. Mendeko erabiltzaileei oheratzen eta jaikitzen laguntzeko ordutegia*

Ia egoitza guztiek, %98,6ak, ordutegia dute finkatuta hala behar duten pertsonei oheratzen laguntzeko; eta zentro gehienetan, baita jaikitzen laguntzeko ere.

**30. taula: Jaikitzen eta oheratzen laguntzeko ordutegia eta zentro mota**

| | | **Egoitzak** | | | | **Etxebizitza komunitarioak** | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | *Zentroak* | | *Plazak* | | *Zentroak* | | *Plazak* | |
| | | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Jaikitzeko ordu finkoa | bai | 163 | 93,6 | 11.790 | 97,7 | 87 | 72,2 | 922 | 73,1 |
| | ez | 11 | 6,4 | 273 | 2,3 | 34 | 27,8 | 340 | 26,9 |
| **GUZTIRA** | | **174** | **100,0** | **12.063** | **100,0** | **121** | **100,0** | **1.262** | **100,0** |
| Oheratzeko ordu finkoa | bai | 172 | 98,6 | 11.980 | 99,3 | 87 | 71,6 | 916 | 72,6 |
| | ez | 2 | 1,4 | 83 | 0,7 | 34 | 28,4 | 346 | 27,4 |
| **GUZTIRA** | | **174** | **100,0** | **12.063** | **100,0** | **121** | **100,0** | **1.262** | **100,0** |

Itxuraz, etxebizitza komunitarioetako egoera malguagoa da, neurri handi batean, galdera-sorta bete duten hamahiru etxebizitza komunitarioetan ez dagoelako jarduera horiek euren kabuz egiteko arazoak dituen egoiliarrik.

Jaikitzeko eta oheratzeko laguntza behar duten egoiliarren kopurua 6.690ekoa da –hots, guztira erabiltzaileen %53,0–; horietatik, 6.620k oheratzeko ordu finkoa dute eta 6.492k jaikitzekoa.

**31. taula: Jaikitzeko eta oheratzeko ordutegia eta laguntza behar duten erabiltzaileak**

| Erabiltzaileak | Egoitzak | | Etxeb. komunitarioak | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Erabiltzaileak guztira | 11.451 | 100,0 | 1.174 | 100,0 | 12.625 | 100,0 |
| Jaikitzeko eta/edo oheratzeko laguntza behar duten erabiltzaileak | 6.293 | 100,0 | 397 | 100,0 | 6.690 | 100,0 |
| Oheratzeko ordu finkoa duten erabiltzaileak | 6.268 | 54,7 | 352 | 30,4 | 6.620 | 52,5 |
| Jaikitzeko ordu finkoa duten erabiltzaileak | 6.141 | 53,6 | 351 | 29,9 | 6.492 | 51,4 |

Euren kabuz egin ezin duten egoiliarrei oheratzen laguntzeko ordutegia oso ezberdina da egoitza batetik bestera, baina lortutako batez besteko ordu balioak 19:30ak eta 20:00ak bitartean kokatzen dira. Noski, badaude salbuespenak ere; ebaluazioetako eta kalitatea bermatzeko prozesuetako emaitzek adierazten dutenaren arabera, salbuespen horietako bat egunean jaikita oso ordu gutxi ematen dituzten pertsonak ditugu, hauek oso goiz oheratzen baitira, normalean, askal-orduan. Ohikoa ez den arren, kontrakoa ere gerta daiteke, alegia, oheratzeko laguntza behar duten pertsonei aukeratzen uztea zein ordu nahiago duten, aurretik ezarritako ordutegirik gabe. Hala eta guztiz ere, baita ere ikus dezakegu egoitzen %10 inguru egoiliarrak zazpi eta erdiak baino lehen oheratzen hasia dela eta, hori, zalantzarik gabe, goizegi da. Garrantzitsua da aipatzea, oro har, egoiliarrei oheratzen laguntzeko ordua zuzeneko arretako langileen txanden baitan dagoela eta, beraz, normalean, gaueko txandan aritzen direnek, alegia, 22:00ak inguruan sartzen direnek, ez dute egoiliarrei oheratzen laguntzeaz arduratu behar.

Egoitzetan, egoiliarrei jaikitzen laguntzeko ordu zerrenda 07:00ak eta 09:00ak bitartean dago; batezbesteko globala 08:00ak inguruan dago.

Ez dirudi inolako zerikusirik dutenik oheratzeko eta jaikitzeko ezarritako orduek eta zentroen tamaina edo mugikortasun arazo larriak dituzten erabiltzaileen proportzioa bezalako aldagaiek.

Etxebizitza komunitarioei dagokienez, laguntza behar duten egoiliarrak goizenez arratsaldeko seiak eta erdian oheratzen dira (zehazki, erabiltzaileen ehuneko hirurogeita hamabostak baino gehiagok oheratzeko arazoak dituela ikusi den zentro batean), eta, beranduenez, bederatziak laurden gutxiagotan (zehazki, ezgaitasuna duten erabiltzaileen proportzioa eskalako tarterik gorenean dagoela ikusi den beste zentro batean). Mendeko egoiliarrei jaikitzen laguntzeko ordutegia egoitzetakoaren antzekoa da.

### *2.3.3.2. Elikadura: janariak, dieta bereziak eta hamaiketakoak eta askariak hautatzeko aukera*

Egoitzen zati handi batek, %42ak, otordu nagusian, eguerdikoan, bi menu ezberdinen artean hautatzeko aukera ematen die erabiltzaileei, egoitzei aplikagarri zaien arautegiak ezartzen duen bezala. %40ak menuko plateren baten ordez, erraz prestatzen den beste bat hartzeko aukera ematen du. Gainerakoek (kopuru absolututan 30 zentrok) ez dute

inolako aukerarik ematen. Etxebizitza komunitarioei dagokienez, %27ak baino gehiagok ematen du otordu nagusian aukeran beste menu bat; %54 inguruk beste plateren bat hautatzeko aukera ematen du; eta, beraz, etxebizitzen %19ak bakarrik ez du inolako aukerarik eskaintzen (esan beharra dago etxebizitza komunitarioetan ez dagoela alderdi honen inguruko baldintza arautzailerik).

Kasu honetan, egoitza handietan aukera gehiago ematen direnez, ikusi berri dugun egoera hobea da plazak kontuan hartzen baditugu. Laburbilduz esan dezakegu, beraz, aukeran beste menu bat jartzen duten zentroek guztira plazen %51,4 dutela; plateren bat aldatzeko aukera ematen dutenek %35,5 eta inolako aukerarik eskaintzen ez dutenek, berriz, %13,1 baino ez.

**32. taula: Menua hautatzeko aukera zentro mota aintzat hartuta**

| | **Menua aukera daiteke** | | **Plateren bat alda daiteke** | | **Ez dago aukerarik** | | **Guztira** | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Egoitzak | 74 | 42,5 | 70 | 40,2 | 30 | 17,3 | 174 | 100,0 |
| Etxebizitza komunitarioak | 33 | 27,3 | 65 | 53,7 | 23 | 19,0 | 121 | 100,0 |
| **GUZTIRA** | **107** | **36,3** | **135** | **45,8** | **53** | **18,0** | **295** | **100,0** |

Plazarik ituntzen ez duten egoitzek eskaintzen dituzte hautatzeko aukera gehien; titulartasun hori duten plazen %7ak bakarrik ez du ematen gutxienez plateren bat aldatzeko aukera. Egoitza handietan, egoera are hobea da, guztiek eskaintzen baitituzte aukera ezberdinak; hala ere, horri dagokionez kontuan izan behar dugu batez ere egoitza mota horretan egon behar duela bigarren aukera, besteak beste, zailagoa delako menua prestatzea erabiltzaile guztien gustuak eta beharrak aintzat hartuta. Hori dela-eta, gogora dezagun hori dela, beharbada, aukerako menua etxebizitza komunitarioetan, egoitzetan ez bezala, baldintza arautzailea ez izatearen arrazoia.

**33. taula: Menua hautatzeko aukera, plazetan neurtua, zentroaren titulartasuna eta tamaina kontuan hartuta**

| | | **Aukerako menua** | **Aukerako platera** | **Aukerarik ez** | **Abs.** |
|---|---|---|---|---|---|
| **Titulartasuna** | Publikoa | 46,9 | 38,4 | 14,7 | 4.685 |
| | Itunpeko pribatua | 36,0 | 36,4 | 27,6 | 2.227 |
| | Pribatua | 60,0 | 33,0 | 7,0 | 6.414 |
| **Baliabide mota eta tamaina** | Etxebizitza komunitarioak | 28,0 | 52,8 | 19,2 | 1.262 |
| | 60 pl. arteko egoitzak | 40,3 | 38,4 | 21,4 | 4.076 |
| | 61-150 pl. bitarteko egoitzak | 48,4 | 39,3 | 12,3 | 5.172 |
| | 151 pl. edo gehiagoko eg. | 83,5 | 16,5 | 0,0 | 2.815 |

**34. taula: Zentroetako plazen proportzioa menua hautatzeko aukeraren arabera**

| Lurralde Historikoa | Aukerako menua | Aukerako platera | Aukerarik ez |
|---|---|---|---|
| Araba | 62,2 | 23,5 | 14,3 |
| Bizkaia | 53,8 | 36,3 | 9,9 |
| Gipuzkoa | 42,9 | 39,6 | 17,5 |

Bestalde, ikusi ahal izan dugu zentro guztiek egokitzen dituztela menuak dieta berezia behar duten erabiltzaileen beharrizanetara, baldin eta dieta hori medikuak agindutakoa bada.

Egoiliarren %63,5ari ematen zaio askaria; %31,4ari, askariaz gain, hamaiketakoa ere ematen zaio; eta gainerako %3,3ari ez zaio beste janaririk ematen gosaritik eta bi otordu nagusietatik kanpo. Balio absolutuetan, ehuneko 3,3 hori 370 erabiltzaile dira, hiru egoitzari eta beste hainbeste etxebizitza komunitariori dagozkienak.

### *2.3.3.3. Higiene beharretarako arreta*

Azterlan honetan, arreta berezia eskaini zaio egoiliarrek higiene pertsonalarekin, bainuarekin eta inkontinentziarekin erlazionatutako bi motatako arazoei aurre egiteko dituzten laguntza-beharrei.

Alderdi horietako lehenengoari dagokionez, esan beharra dago adinekoen ezgaitasun mailak eta motak kontuan hartuta testuinguru ezberdinetan egin diren ikerketek, nork bere burua jagoteko jarduera ezberdinak ikuskatzerakoan, garbi uzten dutela, oinetako azazkalak moztearen ondoren, bainatzea edo dutxatzea dela zereginik zailena, oheratzea edo jaikitzea baino askoz ere zailagoa eta arriskutsuagoa. Bestalde, zentroetako arduradunekin izandako elkarrizketetan, bainua edo dutxa gutxienez ikuskatu egin behar diren jardueren artean agertzen da beti; hala ere, gehienetan, nolabaiteko zuzeneko laguntza beharrezkoa duten jardueren artean aipatzen da. Laburbilduz esan dezakegu zeregin horiek egiteko ia kasu guztietan beharrezkoa dela langileak bertan egotea eta, hori dela-eta, antolatuta egon behar dute.

Bainatzeko edo dutxatzeko laguntza-beharrari erantzuteko, zentro bakoitzak astean gutxi gorabehera egonkorra den aldi kopurua programatzen du, zaintzaileek zeregin horiek ikuska ditzaten eta/edo erabiltzaileei horietan lagun diezaieten.

**35. taula: Asteko bainuak zentro motaren arabera**

| Asteko bainuak | Egoitzak | | | | Etxebizitza komunitarioak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | *Zentroak* | | *Plazak* | | *Zentroak* | | *Plazak* | |
| | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| 1 | 63 | 36,2 | 4.393 | 36,4 | 49 | 40,1 | 395 | 39,2 |
| 2 | 25 | 14,5 | 1.306 | 10,8 | 16 | 13,3 | 180 | 14,2 |
| 3 | 13 | 7,4 | 1.009 | 8,4 | 16 | 13,3 | 150 | 11,9 |
| 4 | 7 | 3,9 | 268 | 2,2 | 4 | 3,1 | 39 | 3,1 |
| 5 edo gehiago | 57 | 32,7 | 4.773 | 39,6 | 23 | 18,6 | 256 | 20,3 |
| Ed/Ee | 9 | 5,3 | 314 | 2,6 | 14 | 11,5 | 143 | 11,4 |
| **GUZTIRA** | **174** | **100,0** | **12.063** | **100,0** | **121** | **100,0** | **1.262** | **100,0** |

Egoitzetan, oro har, astean 3,4 bainu edo dutxa hartzen dira batez beste, eta etxebizitza komunitarioetan, berriz, 2,8 (alegia, %18 gutxiago).

3,4ko batezbesteko orokor horri dagokionez antzemandako aldeak batzuetan nahikoa nabarmenak dira. Honako hauek aipa ditzakegu:

- Araban, honelako jardunen batez besteko maiztasuna, 2,2 aldikoa astean, beste bi lurraldeetan dagoena baino txikiagoa da (3,3koa Gipuzkoan eta 3,7koa Bizkaian).

- Itundu gabeko egoitza pribatuetan, astean hartzen diren bainuen batez besteko kopurua itunpeko pribatuetakoa baino ehuneko berrogeita hamar handiagoa da.

- Bainuaren maiztasuna handitu egiten da zentroaren tamaina handitu ahala eta ezgaitasun larria duten erabiltzaileen portzentajea gehitu ahala, %50-75eko estratura heldu arte; hortik gora, apur bat txikitzen da.

- Dirudienez, bainuaren edo dutxaren maiztasunak ez du zerikusirik narriadura kognitiboko arazoak dituzten erabiltzaileen portzentajearekin.

**120. grafikoa: Egoitzetan eta etxebizitza komunitarioetan bainuak edo dutxak astean duen batez besteko maiztasuna**

**Egoitzak**

Lurralde Historikoak




Titulartasuna




Tamaina




Ezgaitasun larria duten egoiliarrak (%)




Arazo kognitiboak dituzten egoiliarrak (%)



**Etxebizitza komunitarioak**













Inkontinentziari dagokionez, galdera-sortan arazo horrekin erlazionatutako hiru alderdiri buruzko galderak planteatu ziren:

- Nahaste kognitiboak dituzten egoiliarren kopurua, baldin eta adituren batek gogorarazi behar badie komunera joan behar dutela eta horretarako laguntza behar badute. Guztira, 3.415 kasu detektatu dira, aztertutako biztanleriaren %26,7.

- Neurri handiagoan edo txikiagoan gernu-inkontinentziako arazoak dituzten egoiliarren kopurua –guztira, 7.969 kasu, alegia, guztizkoaren %62,3–, eta gerakin-inkontinentziako arazoak dituzten egoiliarrena –guztira, 4.830 pertsona, %37,7–; azken hau, ia osorik, lehenengo taldean barneratzen da.

- Arazo horien prebalentzia-tasa ez da askorik aldatzen kontuan hartutako aldagai ezberdinetan –lurralde historikoak, titulartasuna, eta zentro mota eta tamaina–, nahiz eta zertxobait handiagoa den 150 plazatik gorako establezimenduetan.

Jakina, inkontinentzia ezgaitasun larriarekin eta narriadura kognitiboarekin erlazionatuta dagoen aldagaia da.

**36. taula: Inkontinentziarekin erlazionatutako zenbait alderdiren nagusitasuna**

| | | Komunera joan behar dutela eskatzeko gai ez diren pertsonak | Gernu-inkontinentzia duten pertsonak | Gerakin-inkontinentzia duten pertsonak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| **Lurralde Historikoa** | Araba | 19,7 | 52,1 | 30,9 | 1.885 |
| | Bizkaia | 28,2 | 67,1 | 42,5 | 6.514 |
| | Gipuzkoa | 27,6 | 59,5 | 33,5 | 4.226 |
| **Titulartasuna** | Publikoa | 33,3 | 62,8 | 35,7 | 4.470 |
| | Itunpeko pribatua | 21,7 | 57,4 | 38,5 | 2.096 |
| | Pribatua | 23,5 | 63,6 | 39,0 | 6.058 |
| **Tamaina** | Etxeb. komunitarioak | 28,0 | 57,7 | 29,8 | 1.174 |
| | 60 pl. arteko egoitzak | 20,2 | 61,4 | 36,9 | 3.897 |
| | 61 - 150 pl. bit. egoitz. | 28,0 | 62,9 | 34,8 | 4.928 |
| | 151 pl. edo geh. egoitz. | 33,5 | 64,5 | 48,2 | 2.627 |
| **Ezgaitasun larria duten erabiltzaileak (%)** | %24ra arte | 2,9 | 35,6 | 14,0 | 1.261 |
| | %25 - 49 | 18,1 | 57,4 | 30,9 | 4.452 |
| | %50 - 74 | 26,2 | 68,0 | 42,3 | 4.212 |
| | %75 edo gehiago | 52,8 | 74,0 | 53,3 | 2.699 |
| **Narriadura kognitiboa duten erabiltzaileak (%)** | %24ra arte | 5,0 | 41,1 | 12,0 | 1.260 |
| | %25 - 49 | 19,5 | 57,7 | 31,2 | 4.449 |
| | %50 - 74 | 34,9 | 65,6 | 44,4 | 5.253 |
| | %75 edo gehiago | 36,6 | 80,6 | 54,3 | 1.662 |
| **GUZTIRA** | | **26,7** | **62,3** | **37,7** | **12.625** |

Egoitza-zentro gehienetan laguntza-programak daude komunera joan behar dutela esateko gai ez diren pertsonei une jakin batzuetan komunera laguntzeko (hamar egoiliarretik hiru bat egoera horretan daude) eta, kalitate prozesuen ondoriozko ebaluazioek eta txostenek adierazten dutenez, laguntza-programa horietan barneratzen dira baita ere komunera joateko beharra adierazten duten gainerako egoiliarrak; hala ere, eguneko beste une batzuetan ere eskaintzen zaie laguntza egoiliarrei, hala eskatzen badute. Normalean, laguntza egun osoan zehar ematen da, batez beste 4 aldiz baino zertxobait gehixeago, bai egoitzetan bai etxebizitza komunitarioetan. Oso gutxitan aplikatzen dira banakako jarraipen sistemak kontinentziaren alde egiteko eta pertsonek ahalik eta denbora gutxien bustita egoteko. Gauez, komunera joateko laguntza ez da hain maiz ematen eta, oro har, ebaluazioetako eta kalitate prozesuetako emaitzek adierazten dutenez, kasu jakinetarako ezarritako jarraibide espezifikoen araberakoa da.

**37. taula: Komunera laguntzen zaien aldiak**

| Aldiak | | Zentroak | | Plazak | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | *Abs.* | % | *Abs.* | % |
| **Egunez** | 0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 |
| | 1 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 |
| | 2 | 11 | 6,1 | 871 | 7,2 |
| | 3 | 20 | 11,6 | 1.392 | 11,5 |
| | 4 | 64 | 36,7 | 4.462 | 37,0 |
| | 5 edo gehiago | 70 | 40,6 | 4.506 | 37,4 |
| Ed/Ee | | 9 | 5,1 | 833 | 6,9 |
| **GUZTIRA** | | **174** | **100,0** | **12.063** | **100,0** |

Egoitzak oinarrizko bost erreferentzia-irizpideekin bat etorriz sailkatzen baditugu -lurralde historikoa, tamaina, titulartasuna, ezgaitasun larria duten erabiltzaileak eta narriadura kognitiboa duten erabiltzaileak-, ikus dezakegu eguneko laguntzari dagozkion batez besteko balioak oso antzekoak direla eta inoiz ez dutela batezbesteko orokorrari dagokion gutxi gorabeherako ehuneko hamarra gainditzen.

Bestalde, inkontinentzia arazoak dituzten pertsonak guztiek –beharbada, horiek euren kabuz oheratu edo jaiki ezin dutenak dira– troxa erabiltzen dute eta, gehienek beste norbaiten laguntza behar dute troxa aldatzeko. Datuek adierazten dutenez, egunean zehar batez beste 3,5 aldiz aldatzen dira troxak, bai egoitzetan bai etxebizitza komunitarioetan, eta gauez, berriz, 1,7 aldiz inguru. Horren ildotik, esan beharra dago troxen aldaketak ez direla sistematikoak eta erabiltzailea esna dagoenean edo muturreko kasuetan bakarrik egiten direla, egoiliarren loaldia errespetatzearren. Hortaz, gaueko maiztasun hori gaueko txandako langileek troxa aldatzea beharrezkoa ote den ikusteko egiten dituzten bisiten araberakoa da batzuetan.

**38. taula: Troxa aldaketak gauez**

| Kopurua | | Zentroak | | Plazak | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | *Abs.* | % | *Abs.* | % |
| **Troxa aldaketak gauez** | 0 | 2 | 0,9 | 78 | 0,6 |
| | 1 | 45 | 26,1 | 3.560 | 29,5 |
| | 2 | 92 | 52,6 | 5.907 | 49,0 |
| | 3 | 25 | 14,5 | 1.608 | 13,3 |
| Ed/Ee | | 10 | 5,9 | 910 | 7,5 |
| **GUZTIRA** | | **174** | **100,0** | **12.063** | **100,0** |

### *2.3.3.4. Segurtasuneko laguntza teknikoak: egunez eta gauez eusteko elementuak*

Egoitza-zentroetako pertsona gehienak ohikoa ez den beste ingurune fisiko batean bizi dira; ingurune hori, besteak beste, euren beharretara egokitutako espazioak eta instalazioak eta laguntza teknikoak eskaintzen dizkielako da berezia. Laguntza-aukera

ugarien artean, azterlanak hasteko pertsonen segurtasun fisikoa sustatzeko eta istripuei aurrea hartzeko diren elementuak aztertu ditu batez ere: oheen alboetako barrak, oheko uhala, oheko eskumuturrekoa, oheko orkatila-babesa, euspen-maindireak, eta gurpil-aulkiko uhala eta arnesa. Lortutako emaitza globalek erakusten duten bezala, gailu horiek, neurri handiagoan edo txikiagoan, egoiliarren erdiari baino gutxiagori jartzen zaizkio.

**39. taula: Segurtasuneko laguntza teknikoez baliatzen diren erabiltzaileak**

| Eusteko elementuak erabiltzen diren eguneko uneak | Horietaz baliatzen diren egoiliarrak | | | Erabiltzaileen %guztizko egoiliarren aldean | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | *Egoitzak* | *Etxebizitza komunitarioa* | *Guztira* | *Egoitzak* | *Etxebizitza komunitarioa* | *Guztira* |
| Egunez bakarrik | 1.741 | 80 | 1.821 | 15,2 | 6,8 | 14,4 |
| Gauez bakarrik | 2.436 | 166 | 2.603 | 21,3 | 14,2 | 20,6 |
| Egunez eta gauez | 1.275 | 49 | 1.324 | 11,1 | 4,1 | 10,5 |
| **GUZTIRA** | **5.453** | **295** | **5.748** | **47,6** | **25,2** | **45,5** |

**40. taula: Segurtasuneko laguntzez baliatzen diren zentroen proportzioa**

| | | Zentroak (%) | | | Zentroak |
|---|---|---|---|---|---|
| | | *Bai* | *Ez* | *Guztira* | |
| **Lurralde Historikoa** | Araba | 72,3 | 27,7 | 100,0 | 57 |
| | Bizkaia | 79,0 | 14,5 | 100,0 | 177 |
| | Gipuzkoa | 95,1 | 4,9 | 100,0 | 61 |
| **Titulartasuna** | Publikoa | 90,6 | 9,4 | 100,0 | 64 |
| | Itunpeko pribatua | 87,2 | 12,9 | 100,0 | 39 |
| | Pribatua | 76,6 | 23,4 | 100,0 | 192 |
| **Tamaina** | Etxebizitza komunitarioak | 58,3 | 41,7 | 100,0 | 121 |
| | 60 pl. arteko eg. | 97,0 | 3,0 | 100,0 | 107 |
| | 61-150 pl. bit. egoitzak | 98,1 | 1,9 | 100,0 | 54 |
| | 150 plaza edo geh. egoitz. | 90,4 | 9,6 | 100,0 | 13 |
| **Ezgaitasun larria duten erabiltzaileak (%)** | %24ra arte | 49,5 | 50,5 | 100,0 | 65 |
| | %25 - 49 | 88,9 | 11,1 | 100,0 | 85 |
| | %50 – 74 | 93,2 | 6,8 | 100,0 | 93 |
| | %75 edo gehiago | 86,1 | 13,9 | 100,0 | 52 |
| **Narriadura kognitiboa duten erabiltzaileak (%)** | %24ra arte | 52,3 | 47,7 | 100,0 | 69 |
| | %25 – 49 | 94,1 | 5,9 | 100,0 | 87 |
| | %50 – 74 | 87,8 | 12,2 | 100,0 | 88 |
| | %75 edo gehiago | 86,0 | 14,0 | 100,0 | 52 |
| **GUZTIRA** | | **81,0** | **19,0** | **100,0** | **295** |

Segurtasunarekin erlazionatutako laguntza-elementuen artean, azterlan honetan batez ere gehien erabiltzen direnak hartu dira kontuan, nola egunez –gurpil-aulkietako uhalak eta arnesak– hala gauez –oheko uhalak eta euspen-maindireak–; alde batera utzi dira, beraz, oheko alboetako barrak, hauen xedea erabiltzailea ez erortzea baita, eustea baino gehiago.

**41. taula: Eusteko elementu mota nagusiak**

| | | Erabiltzileak | Egoiliarren guztizko kopuruaren % |
|---|---|---|---|
| **Egunez** | Gurpil-aulkiko uhala | 1.615 | 12,8 |
| | Gurpil-aulkiko arnesa | 270 | 2,1 |
| | Guztira | 1.885 | 14,9 |
| **Gauez** | Oheko uhala | 1.098 | 8,7 |
| | Euspen-maindirea | 221 | 1,7 |
| | Guztira | 1.319 | 10,4 |

Oheari eta/edo gurpil-aulkiari lotuta dauden egoiliarren batez besteko portzentajeei dagokienez, %10,4 eta %14,8, hurrenez hurren, datuak ikuspegi ezberdinetatik aztertzen baditugu, ikus dezakegu euspenen erabilera estu lotuta dagoela zentroetan ezgaitasun larria duten pertsonen proportzioarekin eta, bereziki, narriadura kognitiboko arazoak dituzten pertsonen portzentajearekin (azken hauei, denbora gehiegi noraezean ibil ez daitezen ezartzen zaizkie euspenak, kontrol modura, eta ez bakarrik prebentzio gisa); zentro publikoetan egunez ere maiz erabiltzen dira euspenak.

**42. taula: Euspen mota nagusiez baliatzen diren erabiltzaileak**

| | | Eguneko euspenak | Gaueko euspenak | Erabiltzaileak guztira |
|---|---|---|---|---|
| **Lurralde Historikoa** | Araba | 13,2 | 9,6 | 1.885 |
| | Bizkaia | 14,4 | 10,4 | 6.514 |
| | Gipuzkoa | 16,6 | 10,9 | 4.226 |
| **Titulartasuna** | Publikoa | 21,2 | 10,9 | 4.470 |
| | Itunpeko pribatua | 11,6 | 11,1 | 2.096 |
| | Pribatua | 11,5 | 9,9 | 6.058 |
| **Tamaina** | Etxebizitza komunitarioak | 8,0 | 7,8 | 1.174 |
| | 60 pl. arteko egoitzak | 12,3 | 10,1 | 3.897 |
| | 61-150 pl. bitart. eg. | 18,9 | 11,7 | 4.928 |
| | 151 pl. edo geh. egoitz. | 14,4 | 9,8 | 2.627 |
| **Ezgaitasun larria duten erabiltzaileak (%)** | %24ra arte | 6,1 | 7,3 | 1.261 |
| | %25 – 49 | 11,5 | 7,6 | 4.452 |
| | %50 – 74 | 14,4 | 10,4 | 4.212 |
| | %75 edo gehiago | 25,6 | 16,7 | 2.699 |
| **Narriadura kognitiboa duten erabiltzaileak (%)** | %24ra arte | 4,5 | 5,1 | 1.260 |
| | %25 – 49 | 10,3 | 7,4 | 4.449 |
| | %50 – 74 | 18,0 | 12,5 | 5.253 |
| | %75 edo gehiago | 25,4 | 16,1 | 1.662 |
| **GUZTIRA** | | **14,9** | **10,4** | **12.625** |

### *2.3.3.5. Bisitaldiak*

Egoitzen eta etxebizitza komunitarioen bi heren inguruk, %64,3ak eta %59,0ak, hurrenez hurren, du formalki ezarritako ordutegia senitartekoak eta ahaideak bisitan joan ahal izateko. Oro har, bisitak goizez eta arratsaldez egin daitezke, sei etxebizitza komunitariotan izan ezik (%5,1), horietan arratsaldez bakarrik egin baitaitezke.

**43. taula: Zentroetako bisita-orduak**

| | Egoitzak | | | | Etxebizitza komunitarioak | | | | Guztira | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | *Zentroak* | | *Plazak* | | *Zentroak* | | *Plazak* | | *Zentroak* | | *Plazak* | |
| | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Goizez eta arratsaldez | 95 | 54,4 | 6.052 | 50,2 | 65 | 53,9 | 651 | 51,6 | 160 | 54,2 | 6.703 | 50,4 |
| Arratsaldez | 10 | 5,7 | 1.059 | 8,8 | 6 | 5,1 | 60 | 4,8 | 16 | 5,4 | 1.119 | 8,4 |
| Zehaztu gabe | 7 | 4,2 | 384 | 3,2 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 7 | 2,4 | 384 | 2,9 |
| Ordutegirik gabe | 62 | 35,7 | 4.568 | 37,9 | 50 | 41,0 | 551 | 43,7 | 112 | 38,0 | 5.119 | 38,5 |
| **GUZTIRA** | **174** | **100,0** | **12.063** | **100,0** | **121** | **100,0** | **1.262** | **100,0** | **295** | **100,0** | **13.298** | **100,0** |

Bisita-ordu finkorik ez duten zentroek (hauetan, beraz, bisitak libreak dira) plazen %38,5 biltzen dute. Plazen batezbesteko global hori zehatzago aztertuz gero, honakoa ondoriozta dezakegu bisita-orduen malgutasunari buruz:

- Gipuzkoan dago malgutasun handiena (plazen %61,5); Bizkaian, ordea, kontrakoa gertatzen da (plazen %19,1).

- Aurrekoarekin bat etorriz, itunpeko egoitza pribatuek ematen dute malgutasun gehien (%65,7).

- Dirudienez, malgutasuna ez dago erlazionatuta zentroak handiagoak edo txikiagoak izatearekin, ezta horietan dauden ezgaituen portzentajea handiagoa edo txikiagoa izatearekin ere; aipagarria da ordea, narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen portzentajea txikiagoa den zentroetan bisita-orduen malgutasuna handiagoa dela (ehuneko 66,5). Hortaz, malgutasunerako joera zentroetako nahaste tasarekin erlazionatuta dagoela dirudi.

**121. grafikoa: Bisita-ordu finkorik ez duten zentroetako plazen proportzioa**




Hala ere, bisita-ordutegi malgu hori ia kasu guztietan mugatua da, zentroek gauez itxi egiten baitute.

Ia zentro guztietan, bisita-ordu finkoa izan edo ez, egoiliarrek euren logeletara eraman ditzakete bisitan etortzen direnak, baterako guneetan baino pribatutasun gehiago izan dezaten; hala ere, aukera hori banakako logelen portzentaje txikiak baldintzatuta dago. Landa-laneko datuen arabera, Gipuzkoan dagoen erdipareko egoitza publiko batek eta Bizkaian kokatutako etxebizitza komunitario batek bakarrik jartzen dizkiete eragozpenak egoiliarrei bisitan joaten direnak logeletara eramateko (zentro horietan, buruko arazoak dituzten pertsonen portzentajea ehuneko hirurogeita hamabostetik gorakoa da).

## *2.3.3.6. Zentrotik irtetea*

Egoitzetan bizi diren pertsonen bi heren baino zertxobait gehixeago atera ohi da zentrotik egunez, bere ingurunearekin harremanetan jartzeko; kasu batzuetan, ingurunea ezaguna da, egoiliarra ingurune horretan bizi zelako egoitzan sartu baino lehen, baina, gehienetan, ingurune arrotza da, zentroaren kokapenak mugatutakoa.

Egoitzatik aparteko kasuetan baino ateratzen ez diren egoiliarren kopurua 4.043 pertsonakoa da, egoiliarren laurdena edo; horietatik, %42,8k ez du horretarako beharrezko laguntza. Aipatu beharrekoa da egoera hori ez dela hain nabarmena Araban, baina bai, ostera, 150 plaza baino gehiagoko egoitzetan, egoiliarren laurdena ez baita ateratzen laguntzarik ez duelako; era berean, nahi ez dutelako ateratzen ez direnen proportzioa ere nahikoa altua da, %28,3. Euren borondatez edo horren kontra, egoitzatik irteten ez diren erabiltzaileak 150 plazatik gorako kopuru horretatik guztira %54,2 dira; praktikan, kalera irteteko laguntzarik ez duten egoiliarren %39,4 150 plazatik gorako egoitzetan bizi da. Orobat, aipagarria da egoitza pribatuetan kalera irteteko inolako interesik ez duten erabiltzaileen proportzioa, hots, titulartasun horretako zentroetako guztizko erabiltzaileen %27.

**44. taula: Zentroetatik irtetea**

| | | Ez dute irten nahi | | Ez dute irteteko laguntzarik | | Irteten ez direnak guztira | | Irteten direnak | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | *Erabiltzaileak* | *Erabiltzaileak %* | *Erabiltzaileak* | *Erabiltzaileak %* | *Erabiltzaileak* | *Erabiltzaileak %* | *Erabiltzaileak* | *Erabiltzaileak %* | *Erabiltzaileak* | *Erabiltzaileak %* |
| **Lurralde Historikoa** | Araba | 270 | 14,3 | 38 | 2,0 | 308 | 16,3 | 1.577 | 83,7 | 1.885 | 100,0 |
| | Bizkaia | 1.319 | 20,2 | 1.104 | 16,9 | 2.423 | 37,2 | 4.092 | 62,8 | 6.515 | 100,0 |
| | Gipuzkoa | 727 | 17,2 | 585 | 13,8 | 1.313 | 31,1 | 2.913 | 68,9 | 4.226 | 100,0 |
| **Titulartasuna** | Publikoa | 749 | 16,8 | 437 | 9,8 | 1.186 | 26,5 | 3.284 | 73,5 | 4.470 | 100,0 |
| | Itunpeko pribatua | 566 | 27,0 | 274 | 13,0 | 839 | 40,0 | 1.257 | 60,0 | 2.096 | 100,0 |
| | Pribatua | 1.001 | 16,5 | 1.016 | 16,8 | 2.017 | 33,3 | 4.041 | 66,7 | 6.058 | 100,0 |
| **Tamaina** | Etx. komunitarioak | 221 | 18,8 | 76 | 6,5 | 297 | 25,3 | 877 | 74,7 | 1.174 | 100,0 |
| | 60 pl. arteko egoitzak | 520 | 13,3 | 403 | 10,3 | 923 | 23,7 | 2.974 | 76,3 | 3.897 | 100,0 |
| | 61-150 pl. bit. eg. | 831 | 16,9 | 568 | 11,5 | 1.399 | 28,4 | 3.529 | 71,6 | 4.928 | 100,0 |
| | 151 pl. edo geh. egoitz. | 744 | 28,3 | 681 | 25,9 | 1.424 | 54,2 | 1.203 | 45,1 | 2.627 | 100,0 |
| **Ezgaitasun larria duten erabiltzaileak (%)** | %24ra arte | 192 | 15,2 | 125 | 9,9 | 317 | 25,1 | 944 | 74,9 | 1.261 | 100,0 |
| | %25 - 49 | 902 | 20,3 | 582 | 13,1 | 1.485 | 33,4 | 2.967 | 66,6 | 4.452 | 100,0 |
| | %50 - 74 | 579 | 13,7 | 537 | 12,7 | 1.117 | 26,5 | 3.095 | 73,5 | 4.212 | 100,0 |
| | %75 edo gehiago | 642 | 23,8 | 483 | 17,9 | 1.125 | 41,7 | 1.574 | 58,3 | 2.699 | 100,0 |
| **GUZTIRA** | | **2.316** | **13,9** | **1.727** | **10,4** | **4.043** | **24,3** | **8.582** | **51,6** | **12.625** | **100,0** |

Ikertutako ia zentro guztiek dituzte jarduteko arau jakinak erabiltzaile guztien edo batzuen irteerak ikuskatzeko edo kontrolatzeko; hori justifikatuta dago, neurri handi batean, orientazio arazoak dituzten egoiliar asko –hots, 2.694, guztizkoaren %21,3– ez baitaude sarrera eta irteera mugatuko modulu geriatrikoetan internatuta eta, ondorioz, galtzeko arriskua dute.

**122. grafikoa: Orientazio arazoak dituzten egoiliarren proportzioa**




Egoiliarren irteerak ikuskatzen dituzten zentro batzuetan dauden jarraibideen artean, besteak beste, egoiliarrak irteteko baimena eskatzea eta/edo nora doan adieraztea ditugu. 45. taulan, ikuspegi hau kontuan hartuta ordenatzen dira zentroak eta plazak.

**45. taula: Zentroak eta plazak irteeren ikuskapen jarraibideen arabera**

| **Irteeren ikuskapen jarraibideak** | **Absolutuak** | | **%bertikalak** | |
|---|---|---|---|---|
| | *Zentroak* | *Plazak* | *Zentroak* | *Plazak* |
| Baimena eskatzea eta nora doazen esatea | 73 | 2.001 | 24,6 | 15,0 |
| Soilik baimena eskatzea | 60 | 2.479 | 20,2 | 18,6 |
| Soilik nora doazen esatea | 22 | 880 | 7,5 | 6,6 |
| Jarraibiderik ez | 140 | 7.965 | 47,8 | 59,8 |
| **GUZTIRA** | **295** | **13.325** | **100,0** | **100,0** |

## 2.3.4. ***Arretarako eta esku-hartzerako programak***

Jarraian aztertzen diren programek, oro har, izaera komunitarioa dute, hiritarren ingurune hurbilean eskaintzen diren neurrian. Osasun-, aisialdi- edo kultura-izaerako zerbitzuak dira, eta egoitza-ingurunean ematen diren berariazko egoeren kontzentrazioa kontuan izanik, eta, batez ere, egoiliar askok zerbitzu orokorrak erabiltzeko dituzten zailtasunak aintzat izanik, neurri handiagoan ala txikiagoan, eta ia beti modu osagarrian, zentroan bertan eskaintzen dira.

### *2.3.4.1. Osasun-izaerako zerbitzuak eta programak*

Egoitza eta etxebizitza komunitario gehienak, 100eko 89,0 eta 54,6 hurrenez hurren, mediku-kontsultako zerbitzuak eskaintzen dituzte, nahiz eta horien hedapena eta intentsitatea zehazterik ez den egon; zenbait kasutan, mediku-langileen presentzia iraunkorra da, eta beste kasu batzuetan, berriz, astean bisita batera edo bi bisitara mugatzen da.

**46. taula: Mediku-kontsulta zentroetan**

| | **Egoitzak** | | | | **Etxebizitza komunitarioak** | | | | **Guztira** | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Zentroak** | | **Plazak** | | **Zentroak** | | **Plazak** | | **Zentroak** | | **Plazak** | |
| | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Mediku-kontsulta dute | 155 | 89,0 | 11.004 | 91,2 | 24 | 19,7 | 222 | 17,6 | 179 | 60,6 | 11.226 | 84,2 |
| Ez dute mediku-kontsultarik | 19 | 11,0 | 1.059 | 8,8 | 97 | 80,3 | 1.040 | 82,4 | 116 | 39,4 | 2.099 | 15,8 |
| **GUZTIRA** | **174** | **100,0** | **12.063** | **100,0** | **121** | **100,0** | **1.262** | **100,0** | **295** | **100,0** | **13.325** | **100,0** |

Hala eta guztiz ere, atentzioa deitzen du etxebizitza komunitarioetan mediku-zerbitzua hain proportzio altuan eskaintzea. Izan ere, tamaina oso txikiko zentroak izanik, eta ingurune komunitarioan integratutako pisuetan kokatu ohi direla kontuan izanik, logikoa eta komenigarria izango litzateke erabiltzaileek auzoari dagokion osasun-etxea erabiltzea. Zentro handietan, berriz, ezgaitasuna duten eta osasun arazoak dituzten pertsonen dentsitate altua aintzat izanik, berezko mediku-kontsultaren existentzia justifikatuta dago.

Modu osagarrian, zentro askok zaintzako mediku-zerbitzua ere izan ohi dute. Zaintzako zerbitzu hori eskaintzeko, medikua zentroan bertan egon daiteke, edo, ohikoagoa dena, medikua eguneko edo gaueko edozein unetan lokalizatzeko aukera ematen da. Larrialdietako arreta %62,7ra iristen da egoitzatan. Ez dago diferentzia esanguratsurik zerbitzu horren eskaintzan, zerbitzua lurralde batean ala bestean egon, edota zerbitzuaren titulartasuna halakoa edo bestelakoa izan. Hala ere, ohikoagoa da tamaina handiko egoitzatan, eta oso zabaldua dago ezgaitasuna duten pertsonak %75era edo gehiagora iristen diren egoitzatan.

**47. taula: Zaintzako medikua zentroetan**

| | Egoitzak | | | | Etxebizitza komunitarioak | | | | Guztira | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zentroak | | Plazak | | Zentroak | | Plazak | | Zentroak | | Plazak | |
| | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Zaintzako medikua dute | 101 | 58,0 | 7.269 | 60,3 | 39 | 32,2 | 391 | 30,9 | 140 | 47,4 | 7.660 | 57,5 |
| Ez dute zaintzako medikurik | 73 | 42,0 | 4.794 | 39,7 | 82 | 67,8 | 872 | 69,1 | 155 | 52,6 | 5.666 | 42,5 |
| **GUZTIRA** | **174** | **100,0** | **12.063** | **100,0** | **121** | **100,0** | **1.263** | **100,0** | **295** | **100,0** | **13.325** | **100,0** |

**123. grafikoa: Zaintzako mediku-zerbitzua duten egoitzetako plazen proportzioa**




Erizaintza-zerbitzuen eskaintza orokorra da. Zenbaitetan, langileek OLT funtzioak eta langile zaintzaileak gainbegiratzeko funtzioak konbinatzen dituzte. Hori da etxebizitza komunitarioen plazen ehuneko berrogeita hamarraren kasua. Izan ere, plaza horietan, pertsona arduradunek profil profesional horri erantzuten diote.

Zentroen eta plazen erdia baino zerbait gutxiagok, %45ak gutxi gorabehera, laguntza psikologikorako zerbitzuak ditu.

**48. taula: Laguntza psikologikoa zentroetan**

| | Zentroak | | Plazak | |
|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | % | *Abs.* | % |
| Laguntza psikologikoa dute | 80 | 45,8 | 5.561 | 46,1 |
| Ez dute laguntza psikologikorik | 94 | 54,2 | 6.502 | 53,9 |
| **GUZTIRA** | **174** | **100,0** | **12.063** | **100,0** |

Mota horretako zerbitzuak egotea ala ez egotea, kasu honetan, eta ondorio konparatiboekin, zentro bakoitzean arazo horiek dituzten pertsona-kopuruarekin alderatu da. Horrela, eraginkortasun horizontalei dagozkien estaldura batzuk lortu dira. Inkestan eskuratutako emaitza esanguratsuenak ondoko hauek dira:

- Egoitzen berrogeita bik laguntza psikologikoko programak dituzte; zentro horietan izaera horretako arazoak dituzten 3.256 bat pertsonek jasotzen dute arreta, egoitza guztietan buruko arazoak dituzten pertsonen %53,9k. Batezbesteko orokor horri dagokionez, diferentzia nabarmenak ikusi dira, lurralde mailan eta zentroen titulartasun- nahiz tamaina mailan, eta, bereziki, narriadura kognitiboko arazoak dituzten erabiltzaileen proportzioaren ikuspegitik.

**124. grafikoa: Narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen proportzioa laguntza psikologikoko zerbitzua duten egoitzetan**



- Ezinbestekoa da baita ere komentatzea zentroetara egin diren bisitatan, elkarrizketatu gehienek kezka handia erakutsi dutela zentroen funtzionamenduan buruko gaixotasunek duten pixkanakako intzidentziari eta transzendentziari dagokionez. Hori horrela, gai honen inguruan ondoko arazoak daude:

  – Ez dago jarduketa-ildo argirik buruko gaixotasuna duten zenbait pertsonek gizarte-giroan duten portaera asaldatzaileari aurre egiteko.

  – Osasun-sare publikoko zerbitzu psikiatrikoek laguntza gutxi ematen dute, eta ez dago pertsona horiei zuzendutako jarduera-programarik.

  – Egoitzaren area bat modulu psikogeriatriko bat sortzera xedatzeko beharra dagoen ala ez erabakitzeko irizpideak falta dira; izan ere, aukera hori jadanik egoitzen heren batean ezarri da.

  – Beharrak, pixkanaka, geroz eta handiagoak direla kontuan izanik, neurri handiagoan ala txikiagoan herri administrazioek finantzatzen dituzten zentro pribatuetako arretaren kalitate mailak mantendu ahal izateko beharrezkoak diren hitzarmen-baldintzak ez dira egokiak.

Eztabaidaezina da, halaber, zentroan bertan nahiz zentrotik kanpo eskaintzen diren errehabilitazio-programetan parte hartzeko beharra, egoitzatan bizi diren adineko pertsonen erdiaren baino gehiagoren, hots %58,3ren, gaitasun fisiko gutxituak berreskuratu ahal izateko nahiz horiek mantentzeko.

**49. taula: Errehabilitazio-zerbitzua zentroetan**

| | Zentroak | | Plazak | |
|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | % | *Abs.* | % |
| Errehabilitazio-zerbitzua dute | 106 | 60,7 | 8.085 | 67,0 |
| Ez dute errehabilitazio-zerbitzurik | 68 | 39,3 | 3.978 | 33,0 |
| **GUZTIRA** | **174** | **100,0** | **12.063** | **100,0** |

Inkestaren emaitza nagusiek adierazten dute, oraingo honetan fisikoki mendekoak diren egoiliar-kopuruarekin alderatu ondoren, egoitzen ehuneko hirurogeita batak errehabilitazio-programak dituztela. Errehabilitazio-programa horietara, hipotetikoki, mendekotasun arazoak dituzten 5.000 erabiltzaile sar daitezke; hau da, egoitzatan bizi diren eta fisikoki mendekoak diren erabiltzaileen %66. Pena merezi du nabarmentzea, bereziki kasu honetan, zentro-multzo desberdinen artean atzemandako diferentziak, kontuan hartutako ikuspegi guztietatik garrantzitsuak diren diferentziak.

**125. grafikoa: Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen proportzioa errehabilitazio-zerbitzua duten egoitzetan**




Osasun-izaerako zerbitzuen barruan, terapia okupazionaleko programak ere jaso dira. Programa horiek egoitzazko eremuan duten ezarpen maila altua da baita ere; egoitzen ia hiru laurdenek erregularki antolatu ohi dituzte terapia okupazionaleko saioak. Horietara mendekotasun fisikoko arazoak eta/edo narriadura kognitiboko arazoak dituzten 6.800 pertsona (kasu honetan erreferentziatzat hartu den biztanleria) bertaratu daitezke guztira.

**50. taula: Terapia okupazionaleko zerbitzuak zentroetan**

| | **Zentroak** | | **Plazak** | |
|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | % | *Abs.* | % |
| Terapia okupazionaleko zerbitzua dute | 127 | 73,2 | 9.042 | 75,0 |
| Ez dute terapia okupazionaleko zerbitzurik | 47 | 26,8 | 3.021 | 25,0 |
| **GUZTIRA** | **174** | **100,0** | **12.063** | **100,0** |

Terapia okupazionaleko programak fisikoki mendekoak diren edo narriadura kognitiboa duten pertsonen %77,8ra iristen dira; kasu honetan atzeman diren diferentziak, zentro mota desberdinen artekoak, 126. grafikoan islatzen dira.

**126. grafikoa: Ezgaitasun larria duten eta/edo narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen proportzioa terapia okupazionaleko zerbitzua duten egoitzetan**




### *2.3.4.2. Zentroek sustatutako kultur, kirol, aisialdi eta erlijio jarduerak, programak eta zerbitzuak.*

Azterketa honetan jarduera-aukera zabal horri dagokionez eskuratu diren emaitzak azaldu aurretik, komenigarria da hiru ohar kontuan hartzea:

- Erakundearen barruan garatzen diren edo erakundeak sustatzen dituen jarduerak bakarrik hartzen dira kontuan.
- Epigrafe honetan ez zaio heltzen erabiltzaileek jarduera horietan benetan duten parte-hartzeari; izan ere, gai hori aurrerago lantzen da. Hemen zentroen eskaintza da aztertzen dena.
- Aztertu diren jarduerak oso anitzak dira, eta zaila da horiek kategoria baztertzaileetan sailkatzea.

Gehiengoan ezartzen diren jarduerak –%50etik gorako estaldurarekin– dira ugarienak: gimnasia-eskolak, txangoak eta ibilaldiak, film-proiekzioak, eskulanen ikastaroak, urteurreneko askarien eta dantzaldien antolaketa eta, bereziki, mahai-jokoak eta erlijio-ospakizunak.

Abesbatza-taldeen edo antzerki-taldeen sustapena, ikuskizunak antolatzea nahiz horietara laguntzea, eta ikastaroak nahiz konferentziak antolatzea irismen txikiagoko jarduera gisa azaltzen dira, nahiz eta horien estaldura, kasu orotan, %35 baino gehiagokoa da plazei dagokienez.

**51. taula: Jarduera-programa zentroetan**

| | Zentrok | | Plazak | |
|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Gimnasia-eskolak | 191 | 64,6 | 11.584 | 86,9 |
| Egoitzaz kanpoko ikuskizunetara joatea | 84 | 28,4 | 6.553 | 49,2 |
| Antzerki-taldeak edo ikuskizunak zentroan bertan | 72 | 24,6 | 5.094 | 38,2 |
| Ikastaroak, konferentziak | 70 | 23,9 | 5.658 | 42,5 |
| Filmen proiekzioa | 148 | 50,3 | 9.131 | 68,5 |
| Mahai-jokoak | 252 | 85,4 | 12.835 | 96,3 |
| Dantzaldiak | 125 | 42,4 | 7.971 | 59,8 |
| Askariak, ospakizunak | 198 | 67,1 | 11.236 | 84,3 |
| Eskulanak | 201 | 68,2 | 11.176 | 83,9 |
| Erlijio-ospakizunak | 226 | 76,7 | 12.473 | 93,6 |
| Ibilaldiak edo erosketak | 164 | 55,5 | 9.311 | 69,9 |
| Txangoak | 114 | 38,5 | 9.121 | 68,4 |
| **GUZTIRA** | **295** | **100,0** | **13.325** | **100,0** |

**127. grafikoa: Jarduera-programak eskaintzen dituzten zentroetako plazen proportzioa**




Lurralde desberdinen artean ez da diferentzia garrantzitsurik atzematen aipatu jardueren irismenari dagokionez. Nolanahi ere, ondoko datu hauek azpimarratu behar dira:

- Estaldura handiagoa ematen zaio Araban txangoetan eta ibilaldietan laguntzeari –zenbait egoitza publikotan zuzeneko arretako langileen funtzioen artean aurkitzen

da ibilaldietan laguntzea–; abesbatzen, antzerki-taldeen, ikastaro edo konferentzien eta txangoen antolakuntzan, berriz, Gipuzkoan estaldura handiagoa ematen da.

- Batezbestekoa baino ehuneko hogei gutxiagoko estaldura dute: abesbatzen edo antzerki-taldeen antolakuntzak Araban; eta txangoen sustapenak Bizkaian.

Jarduera bakoitza besteak baino garrantzitsuagoa den ala ez kontuan hartu gabe, itxuraz dinamikoenak diren zentroak Gipuzkoakoak dira; kasu orotan, horiek dira hautatutako hamar jardueretatik zazpitan estaldura zabalena eskaintzen dutenak.

**52. taula: Jarduera-programak eskaintzen dituzten zentroetako plazen proportzioa: lurraldeen arabera**

| Jarduerak | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|
| Gimnasia-eskolak | 73,0 | 83,8 | 98,1 |
| Ikuskizunak | 58,4 | 52,8 | 39,5 |
| Antzerki-taldeak edo abesbatzak | 23,7 | 33,9 | 51,5 |
| Ikastaroak eta konferentziak | 36,7 | 34,6 | 57,1 |
| Filmen proiekzioa | 72,6 | 63,6 | 74,2 |
| Dantzaldiak | 57,0 | 66,9 | 50,2 |
| Urteurreneko askariak | 60,3 | 84,7 | 94,7 |
| Eskulanak | 68,6 | 82,9 | 92,4 |
| Ibilaldiak eta erosketak | 89,3 | 68,4 | 63,2 |
| Txangoak | 84,5 | 48,7 | 91,5 |
| **GUZTIZKO ABSOLUTUA** | **2.030** | **6.844** | **4.451** |

Zentroen titulartasunaren ikuspuntutik ere ez da diferentzia garrantzitsurik atzematen, ez behintzat Autonomia Erkidegoko batez besteko estaldurekiko ehuneko hogei gehiagoko edo gutxiagoko diferentziarik. Ondoko datu hauek nabarmendu daitezke:

- Batezbestekoa ehuneko hogeian gainditzen dute ondoko jarduera hauek: ikuskizunen eta txangoen antolaketa nahiz horietara laguntzea zentro publikoetan; eta ikastaroak, konferentziak, film-proiekzioak eta txangoak zentro hitzartuetan.

- Batez besteko estaldura baino gutxienez ehuneko hogei gutxiagorekin aurkitzen dira: ibilaldietara eta erosketetara laguntzea nahiz dantzaldiak antolatzea zentro pribatu hitzartuetan; eta ikastaroak edo konferentziak antolatzea eta txangoak antolatzea hitzartu gabeko zentro pribatuetan.

Zentro publikoak dira, itxuraz, jarduera gehien antolatzen edo programatzen dituztenak, eta gainerako zentroekin alderatuz gero nabarmendu egiten dira aztertu diren hamar jardueretatik bostetan.

**53. taula: Jarduera-programak eskaintzen dituzten zentroetako plazen proportzioa: titulartasunaren arabera**

| Jarduerak | Publikoa | Pribatu hitzartua | Pribatua, hitzartu gabea |
|---|---|---|---|
| Gimnasia-eskolak | 90,0 | 92,8 | 82,6 |
| Ikuskizunak | 61,3 | 43,2 | 42,4 |
| Antzerki-taldeak edo abesbatzak | 41,0 | 45,7 | 33,6 |
| Ikastaroak eta konferentziak | 48,8 | 59,3 | 32,0 |
| Filmen proiekzioa | 61,3 | 83,2 | 68,7 |
| Dantzaldiak | 68,2 | 47,0 | 58,2 |
| Urteurreneko askariak | 95,7 | 87,4 | 74,9 |
| Eskulanak | 94,4 | 80,8 | 77,3 |
| Ibilaldiak eta erosketak | 78,6 | 47,5 | 71,3 |
| Txangoak | 83,5 | 87,6 | 50,8 |
| **GUZTIZKO ABSOLUTUA** | **4.685** | **2.227** | **6.414** |

Establezimenduaren tamainari dagokionez, etxebizitza komunitarioetako jarduera-tasa oso baxua dela azpimarratu behar da; jarduerak sustatzeko gaitasun ezagatik izan daiteke, edo erabiltzaileen beharrak beste bide batzuen bidez asetzen direlako. Bestalde, egoitza handietan, azterketa honen emaitzen arabera, egoitza txikietan baino jarduera gehiago antolatzen dira.

**54. taula: Jarduera-programak eskaintzen dituzten zentroetako plazen proportzioa: zentro motaren eta tamainaren arabera**

| Jarduerak | Etxebizitza komunitarioak | 60 plaza arteko egoitzak | 61 plazatik 150 plaza arterako egoitzak | 151 plaza baino gehiagoko egoitzak |
|---|---|---|---|---|
| Gimnasia-eskolak | 24,4 | 90,7 | 95,5 | 93,8 |
| Ikuskizunak | 3,8 | 36,6 | 54,1 | 78,7 |
| Antzerki-taldeak edo abesbatzak | 8,7 | 34,2 | 38,2 | 57,3 |
| Ikastaroak eta konferentziak | 3,6 | 37,5 | 42,8 | 66,3 |
| Filmen proiekzioa | 24,2 | 71,5 | 72,3 | 77,3 |
| Dantzaldiak | 9,0 | 72,8 | 57,3 | 68,5 |
| Urteurreneko askariak | 36,0 | 93,0 | 83,8 | 94,3 |
| Eskulanak | 34,3 | 87,9 | 90,0 | 89,1 |
| Ibilaldiak eta erosketak | 37,6 | 62,0 | 76,6 | 83,4 |
| Txangoak | 26,9 | 60,4 | 76,5 | 83,8 |
| **GUZTIZKO ABSOLUTUA** | **1.262** | **4.076** | **5.172** | **2.815** |

**55. taula: Jarduera-programak eskaintzen dituzten zentroetako plazen proportzioa: ezgaitasun larria duten erabiltzaileen proportzioa**

| Jarduerak | %24 arte | %25etik 49ra | %50etik 74ra | %75 baino gehiago |
|---|---|---|---|---|
| Gimnasia-eskolak | 62,2 | 88,8 | 90,6 | 89,8 |
| Ikuskizunak | 27,7 | 59,7 | 36,1 | 61,1 |
| Antzerki-taldeak edo abesbatzak | 10,9 | 45,0 | 40,0 | 37,1 |
| Ikastaroak eta konferentziak | 27,7 | 47,9 | 49,0 | 30,8 |
| Filmen proiekzioa | 67,2 | 74,9 | 68,3 | 59,2 |
| Dantzaldiak | 34,1 | 70,0 | 61,4 | 52,8 |
| Urteurreneko askariak | 42,5 | 94,6 | 86,5 | 83,5 |
| Eskulanak | 48,0 | 78,6 | 94,9 | 92,5 |
| Ibilaldiak eta erosketak | 75,4 | 76,9 | 68,6 | 57,8 |
| Txangoak | 62,2 | 67,9 | 75,8 | 61,4 |
| **GUZTIZKO ABSOLUTUA** | **1.336** | **4.751** | **4.300** | **2.938** |

Boluntarioen parte-hartzeari dagokionez, gai hori oso gutxi aztertu da, baina, itxuraz, geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari da. Txostenaren ikuspegiak berekin dakartzan mugak aintzat izanik, boluntarioen presentzia animazio-jardueratan bakarri atzeman da. Ikerketak agerian utzi du boluntarioen zentroen 100eko 28,9an parte hartzen dutela –plazen 100eko 51,5 hartzen dituztelarik–. Ondoko datu interesgarri hauek ere ondorioztatu dira ikerketatik:

- Boluntarioen parte-hartzea bereziki altua da Gipuzkoan; horien jarduera plazen bi herenetara, hots plazen 100eko 66,7ra, iristen da.

- Baliabide mota horiek neurri handiagoan dituzten zentroak plaza hitzartuak dituzten zentro pribatuak dira; 100eko 71,8.

- Boluntarioen parte-hartzea oso urria da etxebizitza komunitarioetan, eta, egoitzei dagokienez, boluntarioen parte-hartzea areagotu egiten da zentroen tamaina handitzen den heinean.

- Boluntarioen parte-hartzeak ez du zerikusirik ezgaitasun larria edo narriadura kognitiboa duten egoiliarren proportzioarekin.

**56. taula: Boluntarioen parte-hartzea zentroetan**

| Boluntarioen parte-hartzea duten jarduerak sustatzen dituzte | Egoitzak | | | | Etxebizitza komunitarioak | | | | Guztira | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zentroak | | Plazak | | Zentroak | | Plazak | | Zentroak | | Plazak | |
| | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Jarduerak sustatzen dituzte | 74 | 42,6 | 6.764 | 56,1 | 11 | 9,1 | 98 | 7,8 | 85 | 28,8 | 6.862 | 51,5 |
| Ez dute jarduerarik sustatzen | 100 | 57,4 | 5.299 | 43,9 | 110 | 90,9 | 1.165 | 92,2 | 210 | 71,2 | 6.464 | 48,5 |
| **GUZTIRA** | **174** | **100,0** | **12.063** | **100,0** | **121** | **100,0** | **1.262** | **100,0** | **295** | **100,0** | **13.326** | **100,0** |

**128. grafikoa: Boluntarioek sustatutako jarduerak dituzten zentroetako plazak**




## *2.3.5. **Erabiltzaileen parte-hartzea zentroetako jardueretan eta funtzionamenduan***

Eztabaidaezina da garrantzi handia duela erabiltzaileek zentroen bizitzan duten parte-hartzeak. Hasiera batean, etxeko lanetan parte hartzea, baldintza jakin batzuetan, noski, positiboa da bai egoera fisikoaren ikuspegitik eta baita ikuspegi psikosozialetik ere. Gobernu-organoetan parte hartzea, noski, eskubide bat eta arretaren kalitatea bermatzeko biderik hoberena da.

### *2.3.5.1. Erabiltzaileen parte-hartzea etxeko lanetan*

Egoitzen erdian eta etxebizitza komunitarioen heren batean zenbait erabiltzailek beren oheak egiten dituzte, eta jarduera horretan parte hartzea sustatzen da. Izan ere, jarduera hori da, ikuspegi guztietatik, kontuan hartu diren guztietatik egokiena horretarako. Beste zenbait jardueretan, parte-hartzeak arazo gehiago sor ditzake. Janariaren prestakuntzan, adibidez, eta batez ere egoitza handietan, parte-hartze askoz ere baxuagoa ematen da: egoitzatako nahiz etxebizitza komunitarioetako egoiliarren %7k bakarrik parte hartzen dute bazkarien prestakuntzan.

**57. taula: Erabiltzaileen parte-hartzea etxeko lan mota desberdinetan**

| Etxeko lanak | Egoitzak | Etxebizitza komunitarioak | Guztira |
|---|---|---|---|
| Logela garbitzea | 18,2 | 17,2 | 17,8 |
| Ohea egitea | 48,2 | 34,1 | 42,8 |
| Bazkaria prestatzea | 7,1 | 7,2 | 7,1 |
| Mahai jartzea | 38,8 | 21,9 | 31,9 |
| Absolutuak | 174 | 121 | 295 |

Harrigarria da, hasiera batean, egoitzetako erabiltzaileek eta etxebizitza komunitarioen erabiltzaileek antzeko jarduera-tasa izatea. Izan ere, kontuan hartu behar da etxebizitza komunitarioen izaera askoz ere etxekoagoa dela, eta bertan ezgaitasuna duten erabiltzaile gutxiago bizi direla. Baina, noski, eta berriro diogu, datuek parte-hartzearen existentzia bakarrik erakusten dute, eta ez dute aipatzen ez parte-hartze horren hedapena eta ezta intentsitatea ere. Hau da, dakigun gauza bakarra da zentro jakin batean etxeko lanen batean parte hartzen duten erabiltzaileak daudela, baina ez dakigu ez zenbat diren, ez zenbateko maiztasunarekin parte hartzen duten eta ezta zein intentsitaterekin egiten duten ere.

**58. taula: Etxeko lanetan parte hartzen duten egoiliarrak dituzten zentroen proportzioa**

| | | Logela garbitzea | Ohea egitea | Bazkaria prestatzea | Mahaia jartzea | Guztizko absolutua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lurralde Historikoa | Araba | 34,1 | 58,4 | 11,7 | 43,5 | 57 |
| | Bizkaia | 10,5 | 34,8 | 7,3 | 28,1 | 177 |
| | Gipuzkoa | 23,8 | 51,3 | 2,5 | 32,1 | 61 |
| Titulartasuna | Publikoa | 31,0 | 64,8 | 8,6 | 36,4 | 64 |
| | Pribatua, plaza hitzartuekin | 27,9 | 41,4 | 3,8 | 35,5 | 39 |
| | Pribatua | 11,3 | 35,7 | 7,4 | 29,6 | 192 |
| Tamaina | Etxebizitza komunitarioa | 17,2 | 34,1 | 7,2 | 21,9 | 121 |
| | 60 p. baino gutxiagoko egoitzak | 18,8 | 48,7 | 8,3 | 43,4 | 107 |
| | 61-150 p. bitarteko egoitzak | 13,0 | 46,9 | 6,5 | 33,0 | 54 |
| | 151 p. baino gehiagoko egoitzak | 34,6 | 57,7 | 0,0 | 25,0 | 13 |
| Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen % | %24 arte | 33,7 | 48,6 | 8,3 | 35,9 | 65 |
| | %25etik 49ra | 16,2 | 52,6 | 5,3 | 27,5 | 85 |
| | %50etik 74ra | 17,9 | 39,4 | 8,6 | 33,8 | 93 |
| | %75 edo gehiago | 0,0 | 25,3 | 6,1 | 30,6 | 52 |
| **GUZTIRA** | | **17,8** | **42,8** | **7,1** | **31,9** | **295** |

Aurreko guztia kontuan izanik, parte-hartzea sustatzeko edo bultzatzeko joera Araban eta zentro publikoetan zerbait handiagoa dela esan daiteke, eta txikiagoa, berriz, ezgaitasuna duten pertsonen portzentajea altua den zentroetan. Hala ere, dirudienez, kontuan hartu diren aldagaiek ez dute aparteko eraginik gai honetan.

### *2.3.5.2. Erabiltzaileen parte-hartzea jarduera-programatan*

Kasu honetan sei jarduera mota hartu dira kontuan, eta jarduera horietan gutxienez astean behin parte hartzen duten erabiltzaileak bakarrik konputatu dira. Eskuratutako emaitzak, egoitzatan eta etxebizitza komunitarioetan arreta jasotzen duten pertsona guztien gaineko portzentajeetan adieraziak, 129. grafikoak islatzen dira:

**129. grafikoa: Jarduera-programetan parte hartzen duten erabiltzaileen proportzioa**



**59. taula: Jarduera-programetan parte hartzen duten erabiltzaileen proportzioa**

| | | Gimnasia | Mahai-jokoak | Eskulanak | Erlijio-ospakizunak | Abesbatzak, antzerki-taldeak | Filmak | Guztizko absolutua |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Lurralde Historikoa | Araba | 18,5 | 30,1 | 16,4 | 36,0 | 5,2 | 20,4 | 1.885 |
| | Bizkaia | 33,2 | 31,5 | 26,8 | 36,8 | 9,1 | 22,5 | 6.514 |
| | Gipuzkoa | 40,3 | 32,6 | 37,1 | 45,9 | 18,9 | 29,4 | 4.227 |
| Titulartasuna | Publikoa | 26,5 | 28,9 | 22,9 | 33,7 | 9,9 | 19,3 | 4.470 |
| | Pribatua plaza hitzartuekin | 49,3 | 29,6 | 46,3 | 51,7 | 24,0 | 38,3 | 2.097 |
| | Pribatua | 34,0 | 34,1 | 27,9 | 40,8 | 9,4 | 24,1 | 6.058 |
| Tamaina | Etxebizitza komunitarioak | 14,4 | 32,6 | 16,9 | 32,5 | 7,2 | 13,1 | 1.174 |
| | 60 p. baino gutxiago dituzten egoitzak | 51,0 | 42,5 | 43,7 | 58,4 | 18,0 | 34,2 | 4.076 |
| | 61-150 p. arteko egoitzak | 25,2 | 27,4 | 22,2 | 33,8 | 10,3 | 22,9 | 5.172 |
| | 151 p. baino gehiagoko egoitzak | 24,3 | 23,6 | 20,3 | 24,4 | 6,8 | 14,1 | 2.815 |
| **GUZTIRA** | | **33,8** | **31,7** | **29,1** | **40,0** | **12,1** | **24,7** | **12.626** |

Lurraldearen ikuspuntutik, jarduera mota honetako parte-hartzea handiagoa da Gipuzkoan; horri lotuta egon daiteke, titulartasunari dagokionez, era berean, handiagoa izatea baita ere plaza hitzartuak dituzten egoitza pribatuetan.

Are interesgarriagoa da, tamainaren arabera, egoitza txikienak direla, hain zuzen ere, parte-hartze tasa handiena dutenak, etxebizitza komunitarioetan atzematen den parte-hartze tasa gaindituz.

### *2.3.5.3. Erabiltzaileen parte-hartzea zentroaren funtzionamenduan*

Egoitzazko zerbitzuak arautzen dituen dekretuak, beste eskakizunen artean, zentroen titular diren erakundeek funtzionamendurako barne-arautegi bat egin behar zutela jasotzen du. Barne-arautegi horretan "pertsona erabiltzaileen edo horien ordezkari legalen parte-hartze demokratikorako bideak" jaso behar dira.

Litekeena da indarrean dauden arautegi guztiek jasotzea formalki eskakizun hori, baina Azterketaren emaitzek erakusten dute ikertutako zentroetatik oso gutxik, %30,3k hain zuzen ere, esan dezaketela parte hartzeko bide horiek modu eraginkorrean funtzionatzen dutela; zentro horiek plazen %42,7 suposatzen dute.

**60. taula: Partaidetza-organoak zentroetan**

| | **Zentroak** | | **Plazak** | |
|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Erabiltzaileen partaidetzarako organoek funtzionatzen dute | 53 | 30,3 | 5.154 | 42,7 |
| Erabiltzaileen partaidetzarako organoek ez dute funtzionatzen | 121 | 69,7 | 6.909 | 57,3 |
| **GUZTIRA** | **174** | **100,0** | **12.063** | **100,0** |

Plazen batez besteko portzentaje horri dagokionez, datuen azterketa xehekatuago batek agerian uzten du:

- Bizkaiaren egoera, %26,1eko parte-hartzearekin, oso kaxkarra dela, beste bi lurraldeetakoarekin alderatuz gero.
- Partaidetza-organoek hitzartuak ez diren egoitza pribatuetan duten ezarpen maila, %25,2koa, gainerako zentro moten batezbestekoaren oso azpitik kokatzen dela.
- Parte hartzeko bide horien benetako ezarpena nabarmen areagotzen dela zentroen tamaina handiagoa den heinean.

Azkeneko datu horrek, hasiera batean, harritu egiten gaitu, baina ezinbestekoa da kontuan izatea arduradunei egin zitzaien galderak parte-hartzerako bide formalak aipatzen zituela. Hori horrela, aipatu datua honela interpretatu behar da: egoitza txikietan, ziurrenik parte hartzeko bide informalak edo espontaneoak erabiltzea errazagoa delako, arreta gutxiago jartzen zaie bide formalen ezarpenari eta sustapenari.

**130. grafikoa: Partaidetza-organoak dituzten zentroetako plazen proportzioa**




Amaitzeko adierazi behar da, parte hartzeko bideak dituzten hogeita hemezortzi egoitzatan, bide horien, bide bat baino gehiago egon daitekeela kontuan izanik, honela banatzen dira:

- Zentroen %18,1ean gobernu-batzordean parte hartzen dute.
- %17,2an egoiliarren batzarrak egiten dira.
- %12,8an senitartekoen batzarrak egiten dira.
- %8,5ean senitartekoen batzordeak daude.
- %7,7an parte-hartzea beste bide batzuetatik bideratzen da, hala nola jardueren antolaketarako batzordeen bidez edo zenbait zentrotan dauden dietetika-batzordeen bidez.

### 2.3.6. ***Zentroetan lan egiten duten langileak***

Giza baliabideen balorazioa konplexua da, ez kualitatiboki bakarrik, baita kuantitatiboki ere; izan ere, egun, zentroetako langileria dimentsionatze hutsak hainbat zailtasun planteatzen ditu, langileen kontratu-formula desberdinak direla-eta.

Zentroetako langileriak kuantifikatzeko lehenengo helburu hori lortzeko xedez, eta kontuan izanik helburu guztietarako –barne-konparazioak gauzatzeko nahiz beste estandarrekin alderatzeko– homologagarriak izango diren terminoetan kuantifikatu behar direla, indarrean dagoen arautegian ezarritako irizpideei jarraiki, honela jokatu zen:

- Lehenik eta behin, kategoria profesional bakoitzak efektiboki lan egindako orduak konputatu dira, zentroz zentro, aldi baterako kontratazioak eta garbiketa-zerbitzuak, sukalde-zerbitzuak eta garrantzi txikiagoko beste zerbitzuak bezalako mantentze-lan azpikontratatuak ere barne hartuz.

- Ondoren, kategoria profesional bakoitzaren ordu-kopuru osoa zentro bakoitzean indarrean dagoen hitzarmen nagusian hitzartutako urteko orduen artean zatitu da; hortik emaitza nahiko heterogeneoak ondorioztatzen dira, hitzartutako urteko orduei dagokienez zentro batzuen eta besteen artean dagoen aniztasuna dela-eta, baina horrek ez du garrantzirik kalkulu orokor eta gutxi gorabeherako bat egiteko.

Zenbait zentroetan oso zaila izan da azpikontratatutako zerbitzuei dagozkien orduak kalkulatzea, eta, horregatik, inkestaren zati honetan asko izan dira erantzunik eman ez dutenak edo erantzun osatugabea eman dutenak. Ondorioz, lagina murriztu egin behar izan da, eta azterketatik kanpo utzi dira egoitzen %17,7, plazen %13,7rekin, eta baita etxebizitza komunitarioen %9,3 ere, plazen %9,6rekin. Gainera, gainerako lagin-unitateen ponderazio-indizeak ez areagotzea hartu da. Jarduteko modu honek epigrafe honetako atal kuantitatiboan bakarrik du eragina, eta ez du ia garrantzi praktikorik, balio erlatiboak –langile ratioak erabiltzaileko– baitira interesatzen zaizkigunak, eta ez balio absolutuak.

Alderdi kualitatiboei dagokienez, arretaren kalitatea bermatzeko garrantzitsuak izan daitezkeen lan-moduekin zerikusia duten zenbait gaietara xedatu da ikerketa.

### *2.3.6.1. Legez exijitzen diren langileriak eta langileria errealak: emaitza orokorrak*

EAEko egoitzazko zerbitzuei legez exijitzen zaizkien langileriak egoitzazko zerbitzuei buruzko Dekretuan daude araututa, eta erabiltzaile bakoitzeko langileen proportzio terminoetan bi ratio desberdin ezartzen dira: 0,25 langile erabiltzaile autonomo bakoitzeko eta 0,45 langile –%80 gehiago– mendekotasuna duen erabiltzaile bakoitzeko. Bi portzentajeen arteko diferentzia hori Europako estandar gehienetan atzematen den diferentziaren antzekoa da.

Emaitzek erakusten dute erabiltzaile bakoitzeko langileen kozientea –erabiltzaileen ezgaitasun maila kontuan izan gabe– EAEko egoitzatan 0,68an kokatzen dela eta, etxebizitza komunitarioei dagokienez, berriz, 0,63an. Zerbitzu guztiei dagokien ratio orokorra egoitzenaren antzekoa da, 0,68koa. Horrek esan nahi du, beste modu batera esanda, zentro horietako erabiltzaile guztiak mendekotasuna izango balute ere, egungo langile-ratioak kategoria horretarako ezarritako gutxieneko ratioa %48,9an gaindituko luke; gehiegizko langileria horiek aurrerago aztertuko dira.

Erabiltzaileko langile-kopurua nabarmen aldatzen da, zentroak irizpide batean edo bestean oinarrituz multzokatzen diren. Muturreko balioak erreferentziatzat harturik, ondoko datu hau ikusten dugu:

- Araban, erabiltzaile bakoitzeko langileen proportzioa Gipuzkoan baino %33 altuagoa da.

- Zentro publikoena Administrazioarekin hitzarmenak sinatuta dituzten pribatuena baino %38,9 altuagoa da. Kasu horretan, erabiltzaile bakoitzeko langile-kopuruaren eta titulartasunaren arteko erlazioa oso esanguratsua da.

- Egoiliarren ehuneko hirurogeita hamabost baino gehiagok ezgaitasuna duen egoitzatako proportzioa ezgaitasuna dutenen portzentajea %25era iristen ez den egoitzatakoa baino %57,1 altuagoa da.

- Narriadura kognitiboa duten egoiliarren proportzio handiagoa duten zentroetakoa proportzio txikiagoa duten horietakoa baino %50,0 altuagoa da.

- Langileria-ratio gordinak ez du erlazio esanguratsurik zentroen tamainarekin.

**131. grafikoa: Langileen proportzioa erabiltzaileko**



Benetan dauden langileria-tasa gordinek –gastuaren funtsezko kapitulua– zentroen tamainarekin erlazio esanguratsua ez izateak zalantzan jarri lezake eskalako ekonomiaren existentzia; argudio hori erabiltzen da 50 plaza baino gehiagoko establezimenduak eraikitzeko. Datu horren berri eman besterik ez dugu egiten, badakigu-eta gai horri heltzeko berariazko metodologia bat beharko genukeela. Hain zuzen ere, kalitate-faktorea kontrolatu beharko litzake, arreta-estandarrak ezarriz, tamainaren, langileria-horniduraren eta kostuaren nahiz beste zenbait faktoreren arteko erlazioa aztertzeko xedez.

**61. taula: Langileria-ratioak zentroetan**

| Tamaina | Titulartasuna | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| | *Publikoa* | *Pribatua, plaza hitzartuekin* | *Pribatua* | |
| 60 plaza arte | 0,60 | 0,43 | 0,74 | 0,64 |
| 61-150 plaza | 0,76 | 0,57 | 0,62 | 0,68 |
| 151 plaza edo gehiago | 0,92 | 0,61 | 0,76 | 0,80 |
| **GUZTIRA** | **0,76** | **0,54** | **0,71** | **0,70** |

Zentroen tamaina titulartasunaren arabera bereiziz, tamaina-faktorearen eta langileria-ratioaren arteko erlazio garrantzitsu bat ematen dela ikusten dugu establezimendu publikoetan eta plaza hitzartuak dituzten pribatuetan –ez da horrela gertatzen plaza hitzarturik gabeko pribatuetan–. Hori horrela, langileria-hornidura, eta, ondorioz, baita kostua ere, handiagoa da egoitza handietan txikietan baino; hau da, errealitatean, eta erantzukizun publikoko establezimenduen testuinguruan (publikoak eta pribatu hitzartuak), deseskala eman daiteke.

Berriro diogu: hemen ditugun datuekin ezin dugu baieztapen hori bermatu –ezta aurkakoa ere–; izan ere, gerta daiteke, besterik gabe, egoitza handietan handiagoak izatea arretaren kalitatea eta kalitate hori lortzeko bitartekoak. Hala ere, hori ere ezin dugu baieztatu.

Arazo tangentzial hori alde batera utziz, garrantzitsua da adieraztea desagregazioetan eskuratutako langileria-ratioek, kasu orotan, Dekretuak ezgaitasuna duten pertsonentzat ezartzen duen proportzioa gainditzen dutela, baita egoitzako erabiltzaileetatik ezgaitasuna dutenak ehuneko hogeita bost baino gutxiago direnean ere.

Emaitza batzuk bereziki deigarriak dira –zentro publikoetan itxuraz ematen diren gehiegizko langileriak eta lurraldeen arteko diferentziak–, eta, hori dela-eta, arreta berezia merezi dute. Hala ere, kontuan izanik ratioaren tamaina baldintzatzen duen funtsezko aldagaia ezgaitasuna duten pertsonek zentro bakoitzean duten pisu erlatiboa dela, diferentzia horiek faktore horren arabera ponderatu behar dira. Gai horri jarraian helduko diogu.

62. taulan, ikertutako zentroen benetako langileria (lehenengo zutabean) Dekretuaren arabera eduki beharko lukeen langileriarekin, bere kabuz baliatzen den erabiltzaile bakoitzeko 0,25eko koefizientea aplikatuz eta ezintasuna duen erabiltzaile bakoitzeko 0,45eko koefizientea aplikatuz, alderatzen da (bigarren zutabea); bi datu-serie horiek kozientearen arabera alderatzen dira (hirugarren zutabea), eta, bertan eskuratutako batez

besteko balioa, ehunera berdindua, erreferentziatzat hartuz, taulako gainerako datuak kalkulatzen dira.

Oso garrantzitsua da adieraztea kalkuluak egiterakoan, eta zentroak ikuspegi desberdinetatik multzokatu aurretik, zentro guztiak legez eskatzen den gutxieneko langileriaren gainetik zeudela ikusi ahal izan zela. Zentro guztiak datu horri dagokionez bat etortzea oso arraroa da, eta horrek ondoko hau pentsatzera eramaten gaitu: legez eskatzen diren gutxieneko horiek, bere garaian, zentroetako langileria errealen arabera zehaztu zirela, eta ez arretaren kalitatea bermatzeko desiragarriak izan litezkeen langilerien arabera. Ideia horrek are eta indar gehiago hartzen du zentroetara egindako bisitaldietan jasotako iritziekin, eta erabat berresten da hemen indarrean dauden estandarrak ingurune hurbiletan eskatzen direnekin alderatzen baditugu. Hori aurrerago ikusteko aukera izango dugu.

**62. taula: Benetako langileria eta legez eskatzen den langileria zentroetan**

| | | 1<br>Benetako langileria | 2<br>Eskatzen den langileria | 3<br>1/2 x 100 | 4<br>Indize zk., EAE = 100 |
|---|---|---|---|---|---|
| EAE | | 6.880 | 3.601 | 191,1 | 100,0 |
| Lurralde Historikoa | Araba | 1.058 | 475 | 222,7 | 116,6 |
| | Bizkaia | 3.441 | 1.673 | 205,7 | 107,7 |
| | Gipuzkoa | 2.382 | 1.453 | 163,9 | 85,8 |
| Titulartasuna | Publikoa | 2.952 | 1.434 | 205,9 | 107,7 |
| | Pribatu hitzartua | 1.021 | 704 | 145,0 | 75,9 |
| | Pribatua | 2.907 | 1.463 | 198,7 | 104,0 |
| Mota eta tamaina | Etxebizitza komunitar. | 674 | 339 | 198,8 | 104,1 |
| | Egoitzak, 60 p. arte | 2.057 | 1.146 | 179,5 | 93,9 |
| | Egoitzak, 61-150 | 2.476 | 1.348 | 183,7 | 96,1 |
| | Egoitzak, 151 edo gehiago | 1.672 | 768 | 217,7 | 113,9 |

62. taulan jasotako datuek erakusten dute, EAE osoa kontuan izanik, egoitzazko sektorean lan egiten duen pertsona-kopuruak %91,1ean gainditzen duela legez eskatzen den gutxienekoa. Ikusi dezakegu, halaber, ratio errealaren eta legezko ratioaren arteko diferentzia nabarmen altuagoa dela Araban; horrela, lurralde honen abantaila erlatibozko posizioa areagotu egiten da ezgaitasuna duten erabiltzaileen proportzioa kontuan hartzen bada, batez ere Gipuzkoarekiko, hots, gutxieneko eskakizuna alde txikienarekin –%63,9– gainditzen den lurraldearekiko. Gipuzkoan ematen den diferentzia txikiagoa da egoitza pribatu hitzartuetako langileria-hornidura legez eskatzen den gutxienekoa baino %45 altuagoa besterik ez delako.

Adierazi beharrekoa da baita ere egoitza handietako langileriak %117,7an gainditzen duela Dekretuak ezarritako ratioa, egoitza txikietako langileriak ateratzen duen aldea askogatik gaindituz. Horrek, berriro ere, eta, nolabait ere, ezgaitasuna duten erabiltzaileen proportzioa kontuan izanik, zalantzan jartzen du eskalako ekonomia benetan ematen ote den.

### *2.3.6.2. Langileriaren egitura eta zuzeneko arretako langileria*

Egoitzatan lan egiten duten langileak, azterlan honen ondorioetarako, lau kategoriatan sailkatu dira:

- Zuzendaritzakoak, zuzendaritzako langileak eta goi-mailako nahiz erdi-mailako teknikariak barne: medikuak, gizarte-langileak, psikologoak, terapeutak, animatzaileak...
- Administrazioko langileak.
- Zerbitzutakoak, funtsean sukaldekoak, garbiketakoak eta mantentze-lanetakoak.
- Zuzeneko arretakoak, erizainak eta zaintzaileak barne.

Zuzeneko arretako langileei arreta berezia eskaini behar zaie, aparteko eragina baitute egoiliarretan, eta, bereziki, ezgaitasun maila altuena dutenetan; hori dela-eta, langile-kategoria horri berariazko tratamendua eskainiko zaio, bai hemen eta baita gure legezko xedapenetan ere.

Etxebizitza komunitarioetan lan egiten duten pertsonek espezializazio maila oso txikia dute –"denetik egiten dute" izan da erantzun ohikoena– eta, horregatik, ezinezkoa da langileak kategoriaka sailkatzea. Hori horrela, atal honetan ez dira kontuan hartu etxebizitza komunitarioak.

Autonomia Erkidego osoan, egoitzetako langile gehienak, %59,0k hain zuzen ere, zuzeneko arretan kokatzen dira. Garrantziaren arabera, ondoren, zerbitzuen kategoria (%28,8), zuzendaritza-langileen eta teknikarien kategoria (%7,8) eta, azkenik, administrazioaren kategoria (%4,8) daude.

Zuzeneko arretako langileen taldean kokatzen ez diren langileei dagokienez, emaitza nagusiak 63. taulan jasotzen dira, portzentajetan emanda.

**63. taula: Zuzendaritzako, administrazioko eta zerbitzuetako langileak zentroetan**

| | | Zuzendaritza | Adminis-trazioa | Zerbitzuak | Guztira | Abs. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lurralde Historikoa | Araba | 7,2 | 2,5 | 26,7 | 36,3 | 908 |
| | Bizkaia | 8,7 | 4,8 | 26,8 | 40,3 | 2.941 |
| | Gipuzkoa | 7,0 | 5,7 | 31,0 | 43,7 | 2.356 |
| Titulartasuna | Publikoa | 6,4 | 5,4 | 31,8 | 43,6 | 2.926 |
| | Pribatu hitzartua | 7,0 | 5,4 | 29,2 | 41,6 | 949 |
| | Pribatua | 9,9 | 3,8 | 23,9 | 37,6 | 2.330 |
| Tamaina | 60 plaza arte | 10,5 | 3,2 | 24,4 | 38,2 | 2.057 |
| | 61-150 plaza | 7,1 | 6,3 | 29,7 | 43,1 | 2.476 |
| | 151 plaza edo gehiago | 5,4 | 4,7 | 31,5 | 41,6 | 1.672 |
| Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen % | %24 arte | 10,9 | 1,9 | 33,2 | 46,0 | 164 |
| | %25-49 | 6,0 | 5,8 | 32,1 | 43,8 | 2.291 |
| | %50-74 | 8,7 | 4,7 | 26,3 | 39,7 | 2.031 |
| | %75 edo gehiago | 8,9 | 3,9 | 25,6 | 38,4 | 1.720 |
| **GUZTIRA** | | **7,8** | **4,8** | **28,4** | **41,0** | **6.205** |

Datu azpimarragarriena da ez dagoela aldaketa garrantzitsurik zuzendaritzako langileek, administraziokoek eta zerbitzutakoek langile guztietan duten pisuan, aztertu diren aldagaien arabera.

Zalantzarik gabe, interes handiagoa du zuzenek arretako langile-kopuruaren eta erabiltzaile-kopuruaren arteko erlazioak. Erlazio hori 132. grafikoan islatzen da, aldagai desberdinen arabera.

**132. grafikoa: Zuzeneko arretako langileen proportzioa erabiltzaile bakoitzeko**




- Berriro ere Araba agertzen da ratio altuena duen lurralde gisa (0,52), Gipuzkoako ratioa (0,35) ehuneko berrogeita bederatzian gaindituz, eta Bizkaikoa (0,43) ehuneko hogeita batean.

- Hitzartutako zentro pribatuak dira ratio txikienak dituztenak (0,32), zentro publikoetako eta hitzarmenik gabeko zentro pribatuetako ratioek ehuneko hogeita hamabosteko aldea ateratzen dietelarik.

- Diferentziak, zentroaren tamainari eta ezgaitasuna duten erabiltzaileen proportzioari dagokienez, ez dira estatistikoki esanguratsuak.

### *2.3.6.3. Zuzeneko arretako langileak, legez eskatzen diren ratioak eta erreferentziazko ratioak.*

Egoitzazko zerbitzuak arautzen dituen Dekretuak, zentro bakoitzeko gutxieneko langileria ezarri ondoren –0,45 langile ezgaitasuna duen erabiltzaile bakoitzeko eta 0,25 langile erabiltzaile autonomo bakoitzeko–, langile horien ehuneko hirurogeita bost zuzeneko arretako funtzioetan jardun behar dela ezartzen du. Eskakizun hori, noski, legez eskatu daitekeen gutxieneko langileriari aplikatzen zaio.

Aurreko kasuan bezala, ratio horiek erabiltzaileei aplikatuz, zentroz zentro, legez zuzeneko arretako eskatzen diren gutxieneko langile-kopuruak eskuratu daitezke. Langileria-kopuru horiek, gainera, zentro batzuen eta besteen arteko konparazioak egitea ahalbidetzen dute, kontuan hartzen baita zentro horietan guztietan ezgaitasuna duten erabiltzaileen proportzioa zenbatekoa den.

64. taulako 1. zutabean egoitzako langile-kopurua jasotzen da, benetako langile-kopurua; 2. zutabean arautegiko eskakizunen arabera eta, ondorioz, ezgaitasuna duten erabiltzaileen proportzioa kontuan izanik zentro bakoitzean legez eskatu daitekeela kalkulatu den langile-kopurua adierazten da; 3. zutabea lehenengo eta bigarren zutabeen arteko kozientetik ondorioztatzen da, eta, ondorioz, benetako langileriaren eta legez eskatu daitekeen langileriaren arteko erlazioa adierazten du; eta, azkenik, 4. zutabean batez besteko oinarria 100 duten indize-zenbakiak kalkulatzen dira.

**64. taula: Zuzeneko arretako langile-kopuru erreala egoitzetan, eta egoitzetan legez eskatu daitekeen langile-kopurua**

| | | 1<br>Langile-kopuru erreala | 2<br>Legez eskatu daitekeena | 3<br>1/2 x 100 | 4<br>Indize zk., EAE = 100 |
|---|---|---|---|---|---|
| EAE | | 3.094 | 1.733 | 178,5 | 100,0 |
| Lurralde Historikoa | Araba | 664 | 277 | 239,7 | 134,3 |
| | Bizkaia | 1.410 | 771 | 182,9 | 102,5 |
| | Gipuzkoa | 1.019 | 685 | 148,8 | 83,4 |
| Titulartasuna | Publikoa | 1.604 | 861 | 186,3 | 104,4 |
| | Pribatu hitzartua | 334 | 244 | 136,9 | 76,7 |
| | Pribatua | 1.156 | 629 | 183,8 | 103,0 |
| Tamaina | 60 p. arte | 666 | 371 | 179,5 | 100,6 |
| | 61-150 plaza | 1.427 | 842 | 169,5 | 95,0 |
| | 151 p. edo gehiago | 1.001 | 520 | 192,5 | 107,8 |

Lehenengo datu azpimarragarria da zentro-multzo guztietan askogatik gainditzen dela, gutxienez ehuneko berrogeita zortzian, Dekretuak eskatzen duen zuzeneko arretako langile-kopurua; hala ere, zentroen arteko diferentziak alderatzen baditugu, Araban dauden tamaina txikiko hiru egoitza, oso gutxigatik bada ere, ez dira eskakizun horretara iristen, baina langile-multzoari beste hiru langile gehituz gero, hiru egoitza horien defizita konpondu egingo litzake.

Langile-kopuru errealaren eta legez eskatu daitekeenaren arteko diferentziarik handiena, aldeko terminoetan, Araban ematen da, eta, ondoren, distantzia nabarmenera, 150 plaza baino gehiago dituzten zentroak aurkitzen dira. Langile-kopuru doituenak, legez eskatzen den gutxienekoaren gainetik dauden arren, zentro pribatu hitzartuetan ematen dira. Dakigun bezala, zentro pribatu hitzartu gehienak Gipuzkoak kokatzen dira. Hala ere, kontuan hartu behar da ikuspegi orokor horren atzean errealitate oso anitzak aurkitu ditzakegula, eta ondoren horietara hurbiltzen saiatuko gara.

Ezarri diren konparazioek diferentzia oso garrantzitsuak erakutsi dituzte lurraldeari eta titulartasunari dagokienez –ez hainbeste tamainari dagokionez–; diferentzia horien oinarria, behin eta berriz adierazi dugun bezala, arauzko eskakizunen izaera minimoa da.

Orain interesatzen zaiguna da errealitatea arautegiaren ikuspegitik exijitu daitekeen gutxieneko arreta ez baizik eta teknikoki arrazoizkoa den arreta eskaintzeko beharrezkoa den hornidurara gerturatu daitezkeen parametroekin alderatzea.

Termino konparatiboa –teknikoki arrazoizkoa den erreferentzia– *Social Care Association* erakundeak proposatutako prozeduratik, *"Staffing Ratios in Residential Establishments"* prozeduratik alegia, ondorioztatzen da. Prozedura horrek, Azterketan ezgaitasuna neurtzeko erabiltzen den baremoaren antzekoa den baremo bat erabiltzeaz gain, kaudimen aitortua duten beste lanetatik oso gertu dauden ratioak aldarrikatzen ditu.Ondoko hauek dira:

– Mendekotasuna duten adineko pertsona bakoitzeko, zuzeneko arretako 780 ordu urtean.
– Pertsona autonomo bakoitzeko, zuzeneko arretako 312 ordu urtean gutxieneko hipotesi gisa eta 572 ordu urtean gehieneko hipotesi gisa.
– Zuzeneko arretako langile bakoitzeko, 300 ordu urtean, beste jarduera eta gertaeretara xedatuta: bilkurak, bajak, trebakuntza....

Estandar horiek zentroz zentro ezgaitasuna duten pertsonei nahiz pertsona autonomoei aplikatuz, zuzeneko arretako langile-kopuru desiragarriak eskuratzen ditugu, gehieneko nahiz gutxieneko hipotesietan neurtuta. Langile-kopuru horiek langile-kopuru errealekin alderatu daitezke, egoiliarren beharretara doituagoa egongo den egoera-balantze bat eskuratzeko xedez.

65. taulan jasotako datuen arabera, Autonomia Erkidegoko egoitzak posizio erlatibo batean kokatzen dira. Posizio erlatibo horren mugak honela zehaztu daitezke:

- EAE osoko egoitzetan, erabiltzaile bakoitzeko dagoen zuzeneko arretako langile-kopurua gutxieneko ratiora doitzen da, baina ratio desiragarriaren azpitik dago, %20,7an. Beste hitzetan esanda, zentroak arrazoizko maila batean kokatzen dira, baina azpiko mugan. Informazio hori behar bezala interpretatzeko, interesgarria da, agian, Autonomia Erkidegoko zenbait egoitzatako zuzeneko arretako langileria-ratioak "*Staffing Ratios*" delakoak ezarritako gehieneko mugaren gainetik daudela adieraztea; horrek esan nahi du "*Staffing Ratios*" delakotik eratorritako ratioak ezin direla utopikotzat hartu.

- Gipuzkoako egoitzez, erakunde publikoen nahiz hitzartutako erakunde pribatuen mende dauden egoitzez, tarteko tamainako egoitzez eta ezgaitasuna duten erabiltzaileen ehuneko berrogeita hamarreko edo gehiagoko portzentajea duten egoitzez osatutako multzoak ez dira iristen gutxieneko hipotesitik abiatuta kalkulatzen diren langile-kopuruetara.

- Arabako egoitzez osatutako multzoak bakarrik gainditzen du, %3,8an, gomendagarritzat jotzen den langile-kopurua.

- Gainerako multzoak gutxieneko hipotesiaren eta hipotesi desiragarriaren arteko bitarteko egoera batean kokatzen dira.

**65. taula: Zuzeneko arretako langile-kopuru erreala, gutxieneko langile-kopurua eta langile-kopuru desiragarria**

| | | 1<br>Langile-kopuru errealak | 2<br>Gutx. Hip. Langile-kopuruak | 3<br>Hip. Des. Langile-kopuruak | 4<br>1. zut / 2. zut x 100 | 5<br>1. zut / 3. zut x 100 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lurralde Historikoa | Araba | 851 | 621 | 820 | 137,1 | 103,8 |
| | Bizkaia | 2.145 | 2.038 | 2.423 | 105,3 | 88,5 |
| | Gipuzkoa | 1.391 | 1.729 | 2.052 | 80,5 | 67,8 |
| Titulartasuna | Publikoa | 1.927 | 1.932 | 2.342 | 99,7 | 82,3 |
| | Pribatu hitzartua | 562 | 767 | 905 | 73,4 | 62,2 |
| | Pribatua | 1.898 | 1.689 | 2.048 | 112,4 | 92,7 |
| Tamaina | 60 plaza arte | 1.410 | 1.386 | 1.706 | 101,7 | 82,6 |
| | 61-150 plaza | 1.897 | 1.987 | 2.395 | 95,5 | 79,2 |
| | 151 plaza edo gehiago | 1.081 | 1.014 | 1.194 | 106,6 | 90,5 |
| Ezgaitasuna duten erabiltzaileen % | %25 baino gutxiago | 274 | 207 | 334 | 132,7 | 82,1 |
| | %25- 49 | 1.381 | 1.264 | 1.664 | 109,3 | 83,0 |
| | %50-74 | 1.596 | 1.708 | 2.010 | 93,4 | 79,4 |
| | %75 edo gehiago | 1.136 | 1.208 | 1.287 | 94,1 | 88,3 |
| **GUZTIRA** | | **4.388** | **4.387** | **5.295** | **100,0** | **82,9** |

Azterketa hori langileetatik abiatuta garatu ordez zentroetatik eta plazetatik abiatuta garatzen bada, beste ikuspegi desberdin bat eskuratzen dugu, aurreko ikuspegia osatuz eta aberastuz. Azterketa hori garatzeko beharrezkoa den informazioa eman duten egoitzak honela antolatuko lirateke:

- Zentroen %50,5, plazen %52,1ekin, zuzeneko arretako langileei dagokienez, gutxieneko gisa zehaztutako estandarren azpitik kokatzen dira.

- Egoitzen %27,1, plazen %22,6rekin, gutxieneko hipotesiaren eta hipotesi desiragarriaren arteko zatian kokatzen dira.

- Gainerakoak, hau da, zentroen %22,5, plazen %25,3ko gaitasunarekin, muga gomendagarrien gainetik kokatzen dira.

Zentro eta plaza horien antolaketa, analisi-ikuspegi horietatik, 66. eta 67. taulatan dago jasota.

**66. taula: Zuzeneko arretako langilerien egokitasuna egoitzetan (zentroak)**

| | | Langileria-kopuruaren egokitasuna | | | | | | Taularen guztizkoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | SCAk gomendatutako gutxieneko hipotesitik behera | | SCAk gomendatutako gutxieneko hipotesiaren gainetik | | SCAk gomendatutako gehieneko hipotesiaren gainetik | | | |
| | | *Absol.* | *%horiz.* | *Absol.* | *%horiz.* | *Absol.* | *%horiz.* | *Absol.* | *%horiz.* |
| Lurralde Historikoa | Araba | 6 | 23,5 | 7 | 28,1 | 13 | 48,5 | 26 | 100,0 |
| | Bizkaia | 31 | 38,5 | 28 | 34,3 | 22 | 27,2 | 80 | 100,0 |
| | Gipuzkoa | 40 | 86,0 | 7 | 14,0 | | | 47 | 100,0 |
| Titulartasuna | Publikoa | 33 | 59,3 | 14 | 24,6 | 9 | 16,1 | 56 | 100,0 |
| | Pribatu hitzartua | 20 | 95,2 | 1 | 4,8 | | | 21 | 100,0 |
| | Pribatua | 24 | 31,7 | 27 | 35,0 | 25 | 33,3 | 76 | 100,0 |
| Tamaina | 60 plaza arte | 44 | 47,8 | 25 | 27,4 | 23 | 24,8 | 91 | 100,0 |
| | 61-150 plaza | 29 | 56,6 | 14 | 28,3 | 8 | 15,1 | 51 | 100,0 |
| | 151 plaza edo gehiago | 5 | 44,7 | 2 | 19,1 | 4 | 36,2 | 12 | 100,0 |
| Ezgaitasuna duten erabiltzaileen % | %25 baino gutxiago | 5 | 36,5 | 5 | 39,2 | 3 | 24,3 | 12 | 100,0 |
| | %25-49 | 17 | 40,6 | 15 | 35,0 | 10 | 24,4 | 43 | 100,0 |
| | %50-74 | 37 | 53,5 | 19 | 27,7 | 13 | 18,8 | 69 | 100,0 |
| | %75 edo gehiago | 19 | 63,7 | 3 | 9,0 | 8 | 27,3 | 29 | 100,0 |
| **TAULAREN GUZTIZKOA** | | **77** | **50,5** | **42** | **27,1** | **34** | **22,5** | **153** | **100,0** |

**67. taula: Zuzeneko arretako langilerien egokitasuna egoitzetan (plazak)**

| | | Langile-kopuruaren egokitasuna | | | | | | Taularen guztizkoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | SCAk gomendatutako gutxieneko hipotesitik behera | | SCAk gomendatutako gutxieneko hipotesiaren gainetik | | SCAk gomendatutako gehieneko hipotesiaren gainetik | | | |
| | | *Absolut.* | *%horiz.* | *Absolut.* | *%horiz.* | *Absolut.* | *%horiz.* | *Absolut.* | *%horiz.* |
| Lurralde Historikoa | Araba | 176 | 10,2 | 196 | 11,4 | 1.351 | 78,4 | 1.723 | 100,0 |
| | Bizkaia | 2.001 | 38,7 | 1.742 | 33,7 | 1.427 | 27,6 | 5.170 | 100,0 |
| | Gipuzkoa | 3.557 | 86,7 | 546 | 13,3 | | | 4.102 | 100,0 |
| Titulartasuna | Publikoa | 2.512 | 55,0 | 911 | 19,9 | 1.144 | 25,1 | 4.567 | 100,0 |
| | Pribatu hitzartua | 1.696 | 91,6 | 155 | 8,4 | | | 1.851 | 100,0 |
| | Pribatua | 1.526 | 33,3 | 1.418 | 31,0 | 1.634 | 35,7 | 4.578 | 100,0 |
| Tamaina | 60 plaza arte | 1.954 | 55,0 | 811 | 22,8 | 785 | 22,1 | 3.550 | 100,0 |
| | 61- 150 plaza | 2.709 | 55,1 | 1.230 | 25,0 | 980 | 19,9 | 4.918 | 100,0 |
| | 151 plaza edo gehiago | 1.072 | 42,4 | 444 | 17,6 | 1.012 | 40,0 | 2.528 | 100,0 |
| Ezgaitasuna duten erabiltzaileen % | %25 baino gutxiago | 138 | 18,9 | 192 | 26,3 | 399 | 54,7 | 729 | 100,0 |
| | %25-49 | 1.660 | 45,0 | 1.240 | 33,7 | 785 | 21,3 | 3.685 | 100,0 |
| | %50- 74 | 2.537 | 64,4 | 819 | 20,8 | 584 | 14,8 | 3.940 | 100,0 |
| | %75 edo gehiago | 1.399 | 53,0 | 234 | 8,8 | 1.009 | 38,2 | 2.641 | 100,0 |
| **TAULAREN GUZTIZKOA** | | **5.734** | **52,1** | **2.484** | **22,6** | **2.778** | **25,3** | **10.996** | **100,0** |

Zuzeneko arretako langileek egoitza-zentroetan duten presentzia fisikoa –garrantzizko gaia hori ere– langilerien bolumenaren nahiz zerbitzuak antolatzeko moduen mende dago. Eskuratu diren emaitzek, oraingo honetan asteko une desberdinetan zentroan dagoen zuzeneko arretako langile bakoitzeko ezgaitasun larria duten erabiltzaileen arabera neurtuta, erakusten dituzten diferentziak erabiltzaile bakoitzeko dauden zuzeneko arretako langileen ratioa aztertzean atzematen direnak baino leunagoak dira, baina, hala ere, esanguratsuak dira.

**68. taula: Egoitzan bertan dagoen zuzeneko arretako langile bakoitzeko egoiliarrak**

| | | Astelehenetik ostiralera | | | Asteburuetan | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | *Goizez* | *Arratsaldez* | *Gauez* | *Goizez* | *Arratsaldez* | *Gauez* |
| EAE | | 4,23 | 6,39 | 21,22 | 4,75 | 6,7 | 21,47 |
| Lurralde Historikoa | Araba | 3,45 | 5,51 | 15,09 | 4,18 | 5,73 | 15,09 |
| | Bizkaia | 4,45 | 6,13 | 19,05 | 4,92 | 6,51 | 19,47 |
| | Gipuzkoa | 4,23 | 7,06 | 28,38 | 4,74 | 7,32 | 28,38 |
| Titulartasuna | Publikoa | 3,73 | 5,60 | 19,67 | 4,28 | 6,02 | 19,67 |
| | Pribatu hitzartua | 4,51 | 9,27 | 30,44 | 5,33 | 9,35 | 30,44 |
| | Pribatua | 4,74 | 6,42 | 20,11 | 5,10 | 6,64 | 20,68 |
| Tamaina | 60 plaza arte | 4,01 | 6,35 | 16,74 | 4,77 | 6,59 | 17,24 |
| | 61-150 plaza | 4,43 | 6,75 | 22,69 | 4,90 | 7,02 | 22,69 |
| | 151 plaza edo gehiago | 4,15 | 5,83 | 27,45 | 4,48 | 6,31 | 27,45 |

Zentro-multzo bakoitzak batez beste eskaini dituen arreta presentzialeko gehieneko eta gutxieneko estaldurak kozientearen arabera alderatzen badira, ondoko emaitza hauek eskuratzen dira:

- Zentro publikoetan, astelehenetik ostiralera, goizez, ezgaitasun larria duten 3,73 erabiltzaile daude zuzeneko arretako langile bakoitzeko; zentro pribatuetan, berriz, 4,74 erabiltzaile daude langile bakoitzeko, ehuneko hogeita zazpi gehiago.

- Astean zehar, arratsaldetan, zuzeneko arretako langile-kopurua zertxobait murrizten da –batezbesteko orokorra langile bakoitzeko 4,2 erabiltzailetik 6,4 erabiltzailera pasatzen da: zentro publikoetan 5,60ra iristen da eta, zentro pribatu hitzartuetan, 9,27ko baliora, horrek %64ko diferentzia suposatzen duelarik.

- Asteburuetan, goizez, zentro publikoen eta pribatu hitzartuen arteko diferentzia %25 inguruan kokatzen da eta, arratsaldetan, berriz, %55ean.

- Zuzeneko arretako langile bakoitzeko ezgaitasuna duten egoiliar-kopurua nahiko antzekoa da, multzo bakoitzaren barruan, asteko gau guztietan. Presentzia maila altuena tamaina txikieneko egoitzetan ematen da (16,7), eta txikiena, berriz, berriro ere pribatu hitzartuetan (30,4); horrek %82ko diferentzia suposatzen du.

### *2.3.6.4. Langileentzako jarduketa-arauak*

Geroz eta ohikoagoa da erabiltzaileen beharrei nahiz egoitzaren testuinguruan eman daitezkeen balizko gertaerei aurre egiteko beharrezkoak diren jarduketa-arauak idatziz jartzea; zenbaitetan, arau horiek modu antolatuak jasotzen dira, praktika egokietako eskuliburu deitzen zaien horietan. Gai hori jadanik aztertu da eskakizun funtzionalei buruzko epigrafean.

Bildutako informazioak, lehenik eta behin, oinarrizkotzat hartutako zenbait arauk zentroetan duten ezarpen maila erakusten du. Emaitza orokor horiek 69. taulan daude jasota.

**69. taula: Langileentzako jarduketa-arauak idatziz: lurralde historikoaren arabera**

| Arauak | Araba | | Bizkaia | | Gipuzkoa | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | *Zentr. %* | *Plazak %* | *Zentr. %* | *Plazak %* | *Zentr. %* | *Plazak %* | *Zentr. %* | *Plazak %* |
| Suteetan nola jardun | 62,7 | 88,1 | 65,4 | 75,6 | 56,4 | 61,2 | 63,0 | 72,7 |
| Heriotza-kasuetan nola jardun | 62,7 | 87,8 | 49,1 | 56,0 | 51,3 | 65,1 | 52,2 | 63,9 |
| Osasun-larrialdietan nola jardun | 70,2 | 89,4 | 54,3 | 59,8 | 63,6 | 72,7 | 59,3 | 68,6 |
| Botikak nola administratu | 62,8 | 69,9 | 33,5 | 30,5 | 59,3 | 62,8 | 44,5 | 47,3 |
| Erorketen kasuan nola jardun | 51,3 | 59,1 | 40,7 | 41,5 | 71,1 | 76,1 | 49,0 | 55,7 |
| Euskailu fisikoen aplikazioari buruzkoak | 46,2 | 72,1 | 24,7 | 26,6 | 46,1 | 53,2 | 33,3 | 42,4 |
| Banakako logelak esleitzeari buruzkoak | 18,0 | 25,2 | 9,1 | 11,7 | 37,4 | 45,4 | 16,7 | 25,0 |
| Absolutuak | 57 | 2.030 | 177 | 6.844 | 61 | 4.451 | 295 | 13.325 |

Kontuan hartu diren arauetatik, hedatuenak –plazen bi herenetan aplikatzen dira gutxi gorabehera–, suteetan, heriotzen aurrean eta osasun-larrialdietan jarduteko moduari buruzkoak dira; ziurrenik horiek baitira gertaera larrienak. Aurkako muturrean, arreta deitzen dute, bereziki, botiken administrazioari, euskarri fisikoei eta banakako logelen esleipenari buruz ematen diren arauek eskuratzen dituzten portzentaje txikiek –ehuneko berrogeita hamarraren azpitik–.

Arau horien ezarpen mailan ez dago diferentzia garrantzitsurik, ez lurraldeari dagokionez eta ezta titulartasun juridikoari dagokionez ere; hala ere, egoitza publikoek eta plaza hitzartuak dituzten egoitza pribatuek plaza hitzarturik gabeko egoitza pribatuek baino joera handiagoa dute.

**70. taula: Langileentzako jarduketa-arauak idatziz: titulartasunaren arabera**

| Arauak | Publikoa | | Pribatua plaza hitzartuekin | | Pribatua | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | *Zentr.* % | *Plazak* % | *Zentr.* % | *Plazak* % | *Zentr.* % | *Plazak* % | *Zentr.* % | *Plazak* % |
| Suteetan nola jardun | 69,4 | 77,1 | 62,4 | 62,6 | 61,0 | 73,0 | 63,0 | 72,7 |
| Heriotza-kasuetan nola jardun | 67,9 | 72,3 | 40,1 | 53,1 | 49,4 | 61,5 | 52,2 | 63,9 |
| Osasun-larrialdietan nola jardun | 67,9 | 73,3 | 62,9 | 70,9 | 55,7 | 64,3 | 59,3 | 68,6 |
| Botikak nola administratu | 51,6 | 55,5 | 62,9 | 70,9 | 38,3 | 33,1 | 44,5 | 47,3 |
| Erorketen kasuan nola jardun | 48,0 | 49,3 | 70,5 | 80,8 | 44,9 | 51,7 | 49,0 | 55,7 |
| Euskailu fisikoen aplikazioari buruzkoak | 38,2 | 43,7 | 62,9 | 70,9 | 25,5 | 31,6 | 33,3 | 42,4 |
| Banakako logelak esleitzeari buruzkoak | 32,0 | 34,4 | 27,4 | 47,0 | 9,3 | 10,5 | 16,7 | 25,0 |
| Absolutuak | 64 | 4.685 | 39 | 2.227 | 192 | 6.414 | 295 | 13.325 |

Tamainak ere ez du eragin handirik. Egia da etxebizitza komunitarioetan egoitzetan baino gutxiago aplikatzen direla, nahiz eta, kasu honetan, argi eta garbi dauden arrazoiengatik, errazago azaldu eta justifikatu daitekeen. Eragin handiena duen faktorea, zalantzarik gabe, zentroan ezgaitasuna duten edo arazo kognitiboak dituzten pertsonak dauden ala ez da. Hori dela-eta, jarduerak arautzeko praktika ohikoagoa da mendekotasunaren pisuak garrantzia duen establezimenduetan.

### 71. taula: Langileentzako jarduketa-arauak idatziz: zentro motaren eta tamainaren arabera

| Arauak | Etxebizitza komunitarioak | | 60 plaza arteko egoitzak | | 61-150 plazako egoitzak | | 151 plazako edo gehiagoko egoitzak | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zentr. % | Plazak % | Zentr. % | Plazak % | Zentr. % | Plazak % | Zentr. % | Plazak % | Zentr. % | Plazak % |
| Suteetan nola jardun | 51,3 | 54,6 | 70,5 | 68,2 | 69,1 | 72,0 | 84,6 | 88,5 | 63,0 | 72,7 |
| Heriotza-kasuetan nola jardun | 36,0 | 37,6 | 58,9 | 56,3 | 71,3 | 75,3 | 67,3 | 67,3 | 52,2 | 63,9 |
| Osasun-larrialdietan nola jardun | 43,4 | 42,9 | 72,6 | 73,9 | 66,7 | 71,2 | 67,3 | 67,7 | 59,3 | 68,6 |
| Botikak nola administratu | 51,2 | 53,0 | 36,1 | 40,9 | 46,9 | 52,9 | 40,4 | 43,5 | 44,5 | 47,3 |
| Erorketen kasuan nola jardun | 35,4 | 37,5 | 60,6 | 61,9 | 60,2 | 64,0 | 34,6 | 39,6 | 49,0 | 55,7 |
| Euskailu fisikoen aplikazioari buruzkoak | 23,6 | 26,5 | 37,4 | 42,4 | 48,8 | 55,3 | 25,0 | 26,0 | 33,3 | 42,4 |
| Banakako logelak esleitzeari buruzkoak | 8,1 | 8,3 | 14,7 | 16,3 | 40,1 | 40,4 | 15,4 | 16,9 | 16,7 | 25,0 |
| Absolutuak | 121 | 1.262 | 107 | 4.076 | 54 | 5.172 | 13 | 2.815 | 295 | 13.325 |

### 72. taula: Langileentzako jarduketa-arauak idatziz: ezgaitasun larria duten erabiltzaileen portzentajearen arabera

| Arauak | %24 arte | | %25- 49 | | %50- 74 | | %75 edo gehiago | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zentr. % | Plazak % | Zentr. % | Plazak % | Zentr. % | Plazak % | Zentr. % | Plazak % | Zentr. % | Plazak % |
| Suteetan nola jardun | 50,3 | 65,3 | 69,1 | 76,5 | 57,4 | 62,3 | 79,0 | 85,2 | 63,0 | 72,7 |
| Heriotza-kasuetan nola jardun | 38,5 | 58,4 | 48,4 | 57,8 | 51,6 | 59,0 | 76,5 | 83,6 | 52,2 | 63,9 |
| Osasun-larrialdietan nola jardun | 51,3 | 69,4 | 47,5 | 59,4 | 62,5 | 71,0 | 83,2 | 79,6 | 59,3 | 68,6 |
| Botikak nola administratu | 54,9 | 66,8 | 35,5 | 38,9 | 40,1 | 44,2 | 53,9 | 56,4 | 44,5 | 47,3 |
| Erorketen kasuan nola jardun | 41,0 | 64,6 | 40,7 | 42,3 | 52,6 | 61,4 | 66,6 | 65,1 | 49,0 | 55,7 |
| Euskailu fisikoen aplikazioari buruzkoak | 24,9 | 49,0 | 31,8 | 37,4 | 28,5 | 43,2 | 54,8 | 46,5 | 33,3 | 42,4 |
| Banakako logelak esleitzeari buruzkoak | 8,0 | 5,7 | 18,0 | 26,3 | 11,9 | 23,2 | 33,9 | 34,3 | 16,7 | 25,0 |
| Absolutuak | 65 | 1.336 | 85 | 4.751 | 93 | 4.300 | 52 | 2.938 | 295 | 13.325 |

**73. taula: Langileentzako jarduketa-arauak idatziz: narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen portzentajearen arabera**

| Arauak | %24 arte | | %25- 49 | | %50- 74 | | %75 edo gehiago | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | *Zentr.* % | *Plazak* % | *Zentr.* % | *Plazak* % | *Zentr.* % | *Plazak* % | *Zentr.* % | *Plazak* % | *Zentr.* % | *Plazak* % |
| Suteetan nola jardun | 54,9 | 77,5 | 54,9 | 64,1 | 71,5 | 75,4 | 72,9 | 83,3 | 63,0 | 72,7 |
| Heriotza-kasuetan nola jardun | 37,2 | 51,2 | 43,0 | 48,4 | 56,3 | 72,0 | 80,5 | 90,2 | 52,2 | 63,9 |
| Osasun-larrialdietan nola jardun | 43,4 | 53,1 | 53,3 | 58,7 | 60,1 | 73,4 | 89,5 | 92,6 | 59,3 | 68,6 |
| Botikak nola administratu | 50,3 | 59,0 | 33,6 | 35,5 | 40,8 | 50,2 | 61,3 | 60,2 | 44,5 | 47,3 |
| Erorketen kasuan nola jardun | 38,0 | 53,0 | 45,1 | 42,1 | 47,7 | 61,6 | 72,4 | 75,7 | 49,0 | 55,7 |
| Euskailu fisikoen aplikazioari buruzkoak | 18,4 | 38,6 | 33,8 | 38,1 | 34,9 | 41,2 | 49,6 | 61,3 | 33,3 | 42,4 |
| Banakako logelak esleitzeari buruzkoak | 11,1 | 9,6 | 10,0 | 18,9 | 20,3 | 28,9 | 29,1 | 41,6 | 16,7 | 25,0 |
| Absolutuak | 69 | 1.392 | 87 | 4.643 | 88 | 5.586 | 52 | 1.704 | 295 | 13.325 |

Nolanahi ere, azpimarragarriena da, egoitza asko daudela egoera jakin batzuetarako idatzizko jarduketa-araurik gabe, langileek oso argi eduki beharko luketenean zer egin horrelako egoeretan.

### *2.3.6.5. Langileen funtzioen antolaketa: erabiltzaileekiko harremanak*

Geratzen zaizkien urtean zentroetan ematea espero duten egoiliarren bizi-kalitatea baldintzatzen duten faktore nagusienetako bat langileekiko mantentzen duten harremana da. Faktore horrek geroz eta garrantzi handiagoa du, erabiltzailearen mendekotasun maila handiagoa den heinean; izan ere, geroz eta mendekotasun maila altuagoa, orduan eta arreta iraunkorragoa eta pertsonalagoa, intimoagoa, behar du erabiltzaileak. Kalitate-azterketek geroz eta gehiago hartzen duten kontuan alderdi hori, eta balio berezia ematen diete pertsonen arteko erlazio horiei. Harreman horien aztertzeko xedez, adierazle-bateriak prestatzen ari dira, horietako asko oso arruntak. Azterketa honetarako adierazle horietako bi hautatu dira: erabiltzaileek beren zaintza pertsonalez arduratzen diren profesionalekiko mantentzen dituzten harremanak egonkorrak diren ala ez –zein neurritan–, eta egoiliar berean eragina duten jarduketa profesional desberdinak koordinatzeaz arduratzen diren erreferentziazko profesionalak dauden ala ez. Noski, geroz eta handiagoa izan egoitzen tamaina eta profesional gehiagok parte hartu arretan, orduan eta balio handiagoa eskuratzen dute bi jarduketa-arau horiek.

Emaitzek erakusten dute, egoitzetako zaintzaileen egonkortasunari dagokionez –etxebizitza komunitarioak ez dira kontuan hartzen atal honetan–, egoitzen %34,1ean bakarrik, plazen %42,8rekin, antolatzen direla langileen egitekoak, zuzeneko arretako langileak, modu egonkorrean, hots, denboraldi luzeetan, erabiltzaile-talde berdinaren arretaz arduratu daitezen.

**74. taula: Zuzeneko arretako langileei erabiltzaile-multzo egonkorrak esleitzea**

| | | **Zentroak** | | **Plazak** | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Lurralde Historikoa | Araba | 12 | 49,6 | 833 | 49,4 |
| | Bizkaia | 22 | 25,3 | 2.162 | 37,9 |
| | Gipuzkoa | 21 | 41,3 | 1.904 | 46,7 |
| Titulartasuna | Publikoa | 15 | 35,4 | 1.265 | 29,3 |
| | Pribatua plaza hitzartuekin | 12 | 42,6 | 927 | 44,8 |
| | Pribatua | 28 | 27,8 | 2.707 | 53,4 |
| Tamaina | 60 plaza arteko egoitzak | 27 | 28,2 | 1.026 | 27,7 |
| | 61-150 plazako egoitzak | 20 | 38,2 | 2.019 | 40,8 |
| | 151 plaza edo gehiagoko egoitzak | 8 | 61,5 | 1.854 | 65,9 |
| Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen % | %24 arte | 9 | 73,4 | 579 | 75,9 |
| | %25- 49 | 25 | 49,8 | 2.217 | 52,2 |
| | %50-74 | 19 | 29,2 | 1.727 | 44,8 |
| | %75 edo gehiago | 1 | 4,0 | 376 | 14,5 |
| Narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen % | %24 arte | 10 | 62,1 | 656 | 73,4 |
| | %25-49 | 24 | 39,9 | 2.288 | 54,0 |
| | %50-74 | 16 | 29,9 | 1.810 | 37,2 |
| | %75 edo gehiago | 5 | 15,7 | 145 | 9,9 |
| **GUZTIRA** | | **55** | **34,1** | **4.899** | **42,8** |

Puntu honetan ez da diferentzia handirik ematen lurraldeen artean. Titulartasunaren eragina zerbait handiagoa da; erabiltzaile-talde egonkorren esleipena ohikoagoa da izaera pribatuko egoitzatan publikoetan baino. Tamainak ere badu eragina praktika honetan, ohikoagoa baita egoitza handietan txikietan baino. Hala ere, jarduera honetan eragin gehien duen aldagaia ezgaitasun larria duten eta arazo kognitiboak dituzten erabiltzaileen proportzioa da. Zentroetako mendekotasun-karga geroz eta handiagoa, orduan eta ezohikoagoa da zuzeneko arretako langileei erabiltzaile-talde egonkorrak esleitzea. Izan ere, litekeena da egoitza mota horretako zuzendaritza-taldeetan edo langileen artean lehentasuna ematea lan-kargak, errotazio bidez, modu ekitatiboan banatzeari, praktika oneko gomendioetan oso positiboki baloratutako printzipio garrantzitsu baten kaltetan.

Langile gakoaren edo erreferentziazko langilearen irudiaren existentziari dagokionez, zentroen %34,1ean ezarrita dagoela esan behar da. Zentroen portzentaje horrek plazen %42,8 suposatzen du.

**75. taula: Erabiltzaileei erreferentziazko profesional bat esleitzea**

| | | Zentroak | | Plazak | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Lurralde Historikoa | Araba | 13 | 48,8 | 1.051 | 61,0 |
| | Bizkaia | 21 | 22,8 | 1.972 | 33,1 |
| | Gipuzkoa | 28 | 51,1 | 2.110 | 48,1 |
| Titulartasuna | Publikoa | 19 | 32,1 | 1.523 | 32,9 |
| | Pribatua plaza hitzartuekin | 20 | 74,1 | 1.293 | 62,5 |
| | Pribatua | 23 | 26,3 | 2.317 | 43,2 |
| Tamaina | 60 plaza arteko egoitzak | 38 | 35,6 | 1.685 | 41,3 |
| | 61-150 plazako egoitzak | 17 | 31,8 | 1.874 | 36,2 |
| | 151 plaza edo gehiagoko egoitzak | 7 | 51,9 | 1.574 | 55,9 |
| Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen % | %24 arte | 6 | 44,5 | 508 | 60,0 |
| | %25- 49 | 18 | 32,0 | 1.513 | 34,2 |
| | %50-74 | 33 | 45,1 | 2.451 | 60,1 |
| | %75 edo gehiago | 6 | 17,0 | 661 | 24,3 |
| Narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen % | %24 arte | 12 | 71,4 | 698 | 78,0 |
| | %25-49 | 24 | 38,3 | 2.072 | 47,0 |
| | %50-74 | 21 | 33,4 | 2.123 | 40,1 |
| | %75 edo gehiago | 5 | 16,0 | 241 | 16,4 |
| **GUZTIRA** | | **62** | **35,7** | **5.133** | **42,5** |

Antolaketa-formula hori hedatuagoa dago Araban eta Gipuzkoan –zentroen %42,8an eta %51,1ean, hurrenez hurren– Bizkaian baino –egoitzen %22,8an–. Titulartasunak ere badu eragina erreferentziazko langilearen ezarpenean; izan ere, termino proportzionaletan, pribatu hitzartuetan publikoetan eta plaza hitzarturik gabeko pribatuetan baino askoz ere gehiago erabiltzen da. Zentroen tamainak ez du eragin garbirik. Aitzitik, eragin handia du establezimenduaren mendekotasun-kargak: ezgaitasuna duten pertsonen portzentajea eta, batez ere, arazo kognitiboak dituzten erabiltzaileen portzentajea nabarmen handiagoa den zentro horietan ez da erreferentziazko langilearen irudira jotzen, ziurrenik langile zehatzei erabiltzaile-multzo egonkorrak ez esleitzearen antzeko arrazoiagatik.

### *2.3.6.6. Taldekako lana antolatzea eta langileen bilkurak*

Azterketak antolaketarekin zerikusia duten beste bi alderdiri ere ematen die garrantzi berezia: zentroan profesional anitzeko lan-taldeak sortzea, kasuak banaka ebaluatzeko eta lantzeko; eta aldizkako bilkurak egitea, zentroaren funtzionamendua aztertzeko eta, azken buruan, egoiliarren bizi-kalitatea hobetu dezaketen hobekuntzak ezartzeko.

Egoitza gehienek, %71,4ak, plazen %73,0rekin, bertan dituzten langileetan oinarrituta, arretarako, jarraipenerako eta ebaluaketarako banakako planak prestatzeaz arduratzen diren profesional-taldeak antolatzen dituzte, asteroko edo hileroko bilkurak eginez.

Oraingoan ere, lurraldeak ez du aldaketa handirik zehazten, eta ezta establezimenduaren tamainak edo titulartasunak ere. Hala ere, txikiagoa da profesional anitzeko taldeak dituzten egoitza pribatuen proportzioa. Aldagai garrantzitsuenak, baita kasu honetan ere, mendekotasunaren eta arazo kognitiboen pisua dira; izan ere, geroz eta ezgaitasun-tasa altuagoa egon zentroetan, orduan eta arruntagoa da balorazio-ekipo bat izatea.

**76. taula: Profesional anitzeko taldeak zentroetan**

| | | Zentroak | | Plazak | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Lurralde Historikoa | Araba | 21 | 82,3 | 1.283 | 74,4 |
| | Bizkaia | 64 | 68,4 | 3.939 | 66,1 |
| | Gipuzkoa | 39 | 71,5 | 3.585 | 81,8 |
| Titulartasuna | Publikoa | 48 | 82,7 | 3.986 | 86,1 |
| | Pribatua plaza hitzartuekin | 18 | 66,7 | 1.631 | 78,9 |
| | Pribatua | 58 | 65,5 | 3.190 | 59,5 |
| Tamaina | 60 plaza arteko egoitzak | 77 | 71,6 | 3.017 | 74,0 |
| | 61-150 plazako egoitzak | 38 | 70,7 | 3.718 | 71,9 |
| | 151 plaza edo gehiagoko egoitzak | 10 | 71,4 | 2.072 | 73,0 |
| Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen % | %24 arte | 8 | 55,5 | 338 | 40,0 |
| | %25- 49 | 32 | 57,7 | 2.544 | 57,6 |
| | %50-74 | 55 | 76,5 | 3.283 | 80,5 |
| | %75 edo gehiago | 29 | 90,3 | 2.641 | 97,2 |
| Narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen % | %24 arte | 4 | 21,7 | 124 | 13,8 |
| | %25-49 | 43 | 67,6 | 2.887 | 65,5 |
| | %50-74 | 50 | 79,3 | 4.471 | 84,5 |
| | %75 edo gehiago | 27 | 89,3 | 1.325 | 90,3 |
| **GUZTIRA** | | **124** | **71,4** | **8.806** | **73,0** |

Zuzeneko arretako langileen artean erregularki bilkurak egitea –astero, hamabost egunean behin edota hilean behin–, jarduketa-arauak planteatzeko eta eztabaidatzeko, nahiz erabiltzaileengan eragina duten gorabeherak eta/edo berrikuntzak komentatzeko, balorazio-taldeak eratzea baino hedatuagoa den praktika bat da; zentroen %79,6an dago ezarrita, eta plazen %82,1ean du eragina.

Puntu honetan ez da aldaketa garrantzitsurik ematen kontuan hartu diren aldagaiei dagokienez; hala ere, ezgaitasuna duten eta arazo kognitiboak dituzten erabiltzaileen proportzioa %25ekoa baino baxuagoa den egoitzatan askoz ere txikiagoa da zuzeneko arretako langileen arteko bilkurak sustatzeko joera.

**77. taula: Zuzeneko arretako langileen arteko aldizkako bilkurak egiten dituzten zentroak**

| | | Zentroak | | Plazak | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | *Abs.* | % | *Abs.* | % |
| Lurralde Historikoa | Araba | 23 | 88,5 | 1.324 | 76,8 |
| | Bizkaia | 71 | 76,9 | 4.702 | 78,9 |
| | Gipuzkoa | 44 | 80,0 | 3.879 | 88,5 |
| Titulartasuna | Publikoa | 54 | 94,0 | 4.439 | 95,9 |
| | Pribatua plaza hitzartuekin | 20 | 72,2 | 1.755 | 84,9 |
| | Pribatua | 64 | 72,4 | 3.711 | 69,2 |
| Tamaina | 60 plaza arteko egoitzak | 83 | 77,6 | 3.308 | 81,2 |
| | 61-150 plazako egoitzak | 45 | 82,7 | 4.238 | 81,9 |
| | 151 plaza baino gehiagoko egoitzak | 11 | 82,7 | 2.360 | 83,8 |
| Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen % | %24 arte | 11 | 78,6 | 447 | 52,8 |
| | %25-49 | 34 | 61,9 | 3.017 | 58,3 |
| | %50-74 | 64 | 88,5 | 3.883 | 95,2 |
| | %75 edo gehiago | 29 | 89,9 | 2.559 | 94,2 |
| Narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen % | %24 arte | 5 | 31,7 | 215 | 24,0 |
| | %25-49 | 50 | 78,3 | 3.446 | 78,1 |
| | %50-74 | 59 | 93,2 | 4.911 | 92,8 |
| | %75 edo gehiago | 24 | 79,3 | 1.334 | 90,9 |
| **GUZTIRA** | | **138** | **79,6** | **9.905** | **82,1** |

### *2.3.6.7. Langileriarekin zerikusia duten beste gaiak*

Atal honetan, laburki, zentroetako langileriarekin zerikusi zuzena duten lau alderdi aztertzen dira:

- Hitzarmen desberdinetan hitzartutako ordu-kopurua.
- Langileak kontratatzeko modua.
- Langileei eskaintzen zaien trebakuntza.
- Laneko absentismoa.

Zalantzarik gabe, oso interesgarria izango litzake zentroetako langileen ordainsariak aztertzea, baina esperientziak erakutsi digu postaz igorritako galdera-sortatan izaera ekonomikoko galderak jasotzeak areagotu egiten duela galdera-sorta betetzen ez duten pertsonen tasa, eta, gainera, azkenean jasotzen diren datuak oso konplexuak izan ohi direla ondoren horien azterketa egin ahal izateko. Gogoratu behar da, gainera, Azterketa honen bigarren zatian jadanik eskaini dela GZEEZk zentroetako langileria-gastuei buruz emandako emaitzen analisi oinarrizko baina adierazgarria.

- Urteko lanaldiari dagokion ordu-kopurua nabarmen aldatzen da zentro batzuetatik besteetara, eta diferentzia garrantzitsuak ikusten dira egoitza-multzo desberdinei

dagozkien batezbestekoen artean. Diferentzia horiek neurri handienean azaltzen dituen aldagaia titulartasunarena da: zentro publikoetan zentro pribatuetan baino ordu-kopuru txikiagoa ematen da beti.

**78. taula: Hitzartutako urteko orduak zentroetan**

| | Egoitzak | Etxebizitza komunitarioak |
|---|---|---|
| Publikoa | 1.630 | 1.594 |
| Pribatu hitzartua | 1.703 | 1.753 |
| Pribatua | 1.757 | 1.752 |
| **GUZTIRA** | **1.696** | **1.742** |

- Azken urteetan egoitzen jarduteko moduak izan duen eraldaketarik nabarmenetako bat izan da geroz eta langile gehiago daudela azpikontratatuta.

**79. taula: Zerbitzu mota desberdinak langile propioekin bakarrik eskaintzen dituzten egoitza-zentroen proportzioa**

| | | Zuzeneko arreta | Errehabi-litazioa | Animazioa | Ikuztegia eta arropategia | Garbiketa | Sukaldea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Lurralde Historikoa | Araba | 88,5 | 58,8 | 42,3 | 53,5 | 57,3 | 76,2 |
| | Bizkaia | 80,4 | 37,7 | 52,6 | 58,2 | 72,1 | 81,5 |
| | Gipuzkoa | 37,5 | 34,5 | 36,5 | 39,5 | 31,1 | 86,2 |
| Titulartasuna | Publikoa | 52,8 | 36,5 | 29,2 | 36,0 | 34,1 | 80,0 |
| | Pribatu hitzartua | 55,6 | 55,6 | 46,3 | 51,9 | 46,3 | 96,3 |
| | Pribatua | 81,7 | 37,3 | 56,9 | 61,6 | 75,0 | 79,3 |
| Tamaina | 60 p. arte | 75,9 | 35,7 | 50,0 | 59,2 | 66,6 | 82,4 |
| | 61-151 p. | 54,9 | 42,0 | 38,6 | 42,9 | 45,4 | 84,0 |
| | 151 p.edo gehiago | 57,7 | 65,4 | 44,2 | 25,0 | 25,0 | 73,1 |
| Zerbitzurik gabe edo ez dute erantzuten | | 3,0 | 46,1 | 24,3 | 3,9 | 3,0 | 1,1 |
| **GUZTIRA** | | **68,0** | **39,9** | **46,0** | **51,6** | **56,9** | **82,2** |

- Azterketa honen ondorioetarako, laneko absentismoa lanordu-kopuru osoaren aldean gaixotasun arruntagatik galdutako lanorduen portzentaje gisa definitzen da. Hori dela-eta, ez dira kontuan hartzen ez amatasun-bajak eta ezta laneko gaixotasunetatik edo laneko istripuetatik eratorritakoak.

- Autonomia Erkidegoan, absentismo-indizea, horrela kalkulatuta, %6,3ra iristen da egoitzen kasuan; etxebizitza komunitarioen kasuan, berriz, nabarmen txikiagoa da, %0,96koa.

- Egoitzen arteko diferentziak ere nabarmenak dira; deigarrienak zentro publikoen, %10,57, eta zentro pribatuen artean ematen dira, horiek hitzartuak izan, %2,77, edo ez izan, %3,25; eta baita ere egoitza handien, %8,86, eta txikien, %3,41,

artean ere. Interesgarria da azpimarratzea, halaber, absentismoaren indizeak gora egiten duela pixkanaka ezgaitasuna duten erabiltzaileen proportzioa areagotzen den heinean.

**80. taula: Laneko absentismoa zentroetan**

| | | Egoitzak | Etxebizitza komunitarioak |
|---|---|---|---|
| Lurralde Historikoa | Araba | 9,00 | 0,68 |
| | Bizkaia | 7,13 | 1,00 |
| | Gipuzkoa | 3,90 | 0,88 |
| Titulartasuna | Publikoa | 10,57 | 2,14 |
| | Pribatu hitzartua | 2,77 | 0,00 |
| | Pribatua | 3,25 | 0,99 |
| Mota eta tamaina | Etxebizitza komunitarioa | | 0,96 |
| | 60 plaza arteko egoitzak | 3,41 | |
| | 61-150 plazako egoitzak | 7,47 | |
| | 151 plaza edo gehiagoko egoitzak | 8,86 | |
| Ezgaitasuna duten erabiltzaileen % | %25 baino gutxiago | 3,13 | 0,43 |
| | %25-49 | 4,60 | 0,34 |
| | %50- 74 | 7,13 | 3,26 |
| | %75 edo gehiago | 7,31 | 0,00 |
| **GUZTIRA** | | **6,30** | **0,96** |

- Egoitzen %50ek hasierako trebakuntza bat eskaintzen die bere langileei zentroan lanean hasten diren unean. Praktika hori eskuliburu guztietan gomendatzen da, eta oso ohikoa da bereziki Gipuzkoako egoitzatan, egoitza pribatu hitzartuetan eta egoitza txikienetan.

**81. taula: Hasierako trebakuntzaren eskaintza zentroetan**

| | | bai | | ez | | ed/ee | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | *Absolut.* | *% horiz.* | *Absolut.* | *% horiz.* | *Absolut.* | *% horiz.* | *Absolut.* | *% horiz.* |
| Lurralde historikoa | Araba | 13 | 50,0 | 12 | 46,2 | 1 | 3,8 | 26 | 100,0 |
| | Bizkaia | 67 | 71,6 | 21 | 22,1 | 6 | 6,2 | 93 | 100,0 |
| | Gipuzkoa | 46 | 83,5 | 9 | 16,5 | | | 55 | 100,0 |
| Titulartasuna | Publikoa | 30 | 52,4 | 26 | 44,1 | 2 | 3,4 | 58 | 100,0 |
| | Pribatua plaza hitzartuekin | 26 | 96,3 | 1 | 3,7 | | | 27 | 100,0 |
| | Pribatua | 69 | 77,7 | 15 | 16,9 | 5 | 5,4 | 89 | 100,0 |
| Tamaina | 60 plaza arte | 84 | 78,7 | 18 | 16,8 | 5 | 4,5 | 107 | 100,0 |
| | 61-150 plaza | 35 | 64,5 | 18 | 33,6 | 1 | 1,9 | 54 | 100,0 |
| | 151 plaza edo gehiago | 7 | 50,0 | 6 | 42,3 | 1 | 7,7 | 13 | 100,0 |
| **GUZTIRA** | | **126** | **72,1** | **42** | **24,0** | **7** | **3,9** | **174** | **100,0** |

- Langileak trebakuntza iraunkorreko ikastaroetan parte hartzeko aukerari dagokionez, erantzun positiboak ugariagoak izan dira.

**82. taula: Trebakuntza iraunkorreko eskaintza zentroetan**

| | | bai | | ez | | ed/ee | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | *Absolut.* | *% horiz.* | *Absolut.* | *% horiz.* | *Absolut.* | *% horiz.* | *Absolut.* | *% horiz.* |
| Lurralde historikoa | Araba | 23 | 88,5 | | | 3 | 11,5 | 26 | 100,0 |
| | Bizkaia | 83 | 89,6 | 8 | 8,8 | 2 | 1,6 | 93 | 100,0 |
| | Gipuzkoa | 42 | 77,1 | 11 | 19,3 | 2 | 3,6 | 55 | 100,0 |
| Titulartasuna | Publikoa | 48 | 83,4 | 6 | 10,5 | 4 | 6,0 | 58 | 100,0 |
| | Pribatua plaza hitzartuekin | 21 | 77,8 | 6 | 22,2 | | | 27 | 100,0 |
| | Pribatua | 79 | 89,1 | 7 | 7,5 | 3 | 3,4 | 89 | 100,0 |
| Tamaina | 60 plaza arte | 91 | 85,3 | 12 | 11,5 | 4 | 3,3 | 107 | 100,0 |
| | 61-150 plaza | 47 | 87,0 | 4 | 7,4 | 3 | 5,6 | 54 | 100,0 |
| | 151 plaza edo gehiago | 11 | 80,8 | 3 | 19,2 | | | 13 | 100,0 |
| **GUZTIRA** | | **149** | **85,5** | **19** | **10,8** | **7** | **3,7** | **174** | **100,0** |

## 2.4. **Babespeko apartamentuak**

Egoitzazko zerbitzuak orokorrean aztertzen dituen bigarren atalaren hasieran adierazi den moduan, epigrafe honetan babespeko apartamentuen deskribapen labur bat aurkezten da. Egoitzazko modalitate hau arinena eta "normalizatuena" da, eta, ondorioz, gainerako zentro motekiko dituen antzekotasun urriak direla-eta, tratamendu berezitua eta laburragoa eskainiko zaio.

Egoitzazko aukera hau da autonomia maila altua izanik ere –erabiltzaileen %95 baino gehiago erabat autonomoak dira, 2.2.1 atalean ikusi den bezala– ingurune babestuagoan bizi nahi duten adineko pertsonen beharretara hobekien egokitzen dena. Gainera, sarritan, babespeko apartamentuak erabiltzaileak lehendik duen etxebizitzak baino irisgarritasun-, ekipamendu- eta kontserbazio-baldintza hobeak eskaintzen dizkio erabiltzaileari.

Egoitzazko zerbitzuak arautzen dituen arautegiaren arabera babespeko apartamentuak "banakakoak edo bikotekakoak" badira ere, egun, izendapen horrekin, bi kategoria nagusitan sailkatu daitezkeen formula desberdinak eskaintzen dira: babespeko apartamentu multzoak, zerbitzu komunekin edo gabe, eta babespeko etxebizitzak, higiezin arruntetan integratu ohi direnak. Arautegiari jarraiki, litekeena da lau plaza baino gehiagoko babespeko etxebizitzak etxebizitza komunitariotzat hartu behar izatea, baina funtzionamenduari eta antolaketari dagokionez, babespeko etxebizitza horiek gehiago dirudite babespeko apartamentu bat egoitza txiki bat baino –etxebizitza komunitarioak, azken finean, egoitza txikiak baitira–. Bi kategoria horietan aurki ditzakegu bi plaza baino gehiagoko apartamentuak.

### *2.4.1. **Oinarrizko ezaugarriak***

Egoitzazko modalitate hau nahiko finkatuta dago Araban, guztira 428 plaza eskaintzen dituzten 7 apartamentu-multzorekin, eta Gipuzkoan, 244 plaza eskaintzen dituzten 6 apartamentu-multzo eta 84 plaza eskaintzen dituzten 19 babespeko etxebizitza independenterekin. Bizkaian, berriz, egoitzazko alternatiba hau ez da ezarri oraindik.

83. taulak erakusten duen moduan, ia zerbitzu guztiak titulartasun publikokoak dira –13 apartamentu-multzoetatik 12, eta 19 babespeko etxebizitzetatik 18–, nahiz eta, plazei dagokienez, kontuan izanik titulartasun pribatuko zentro bakarrak plaza guztien %30 eskaintzen dela, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko diferentziak nabarmen murrizten diren.

**83. taula: Plazak babespeko apartamentuetan**

| | | Apartamentu-multzoak | | | | Babespeko etxebizitzak | | | | Guztira | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Zentroak | | Plazak | | Zentroak | | Plazak | | Zentroak | | Plazak | |
| | | *Abs.* | % | *Abs.* | % | *Abs.* | % | *Abs.* | % | *Abs.* | % | *Abs.* | % |
| Lurralde Historikoa | Araba | 7 | 100,0 | 428 | 63,7 | | | | | 7 | 100,0 | 428 | 100,0 |
| | Bizkaia | | | | | | | | | | | | |
| | Gipuzkoa | 6 | 22,6 | 244 | 36,3 | 19 | 77,4 | 84 | 100,0 | 25 | 100,0 | 328 | 100,0 |
| Titulartasuna | Publikoa | 12 | 38,8 | 444 | 66,1 | 18 | 61,2 | 78 | 92,8 | 30 | 100,0 | 522 | 100,0 |
| | Pribatu hitzartua | | | | | 1 | 100,0 | 6 | 7,2 | 1 | 100,0 | 6 | 100,0 |
| | Pribatua | 1 | 100,0 | 228 | 33,9 | | | | | 1 | 100,0 | 228 | 100,0 |
| Tamaina | 60 plaza baino gutxiago | 8 | 28,8 | 172 | 25,7 | 19 | 71,2 | 84 | 100,0 | 27 | 100,0 | 256 | 100,0 |
| | 61-150 plaza | 4 | 100,0 | 272 | 40,4 | | | | | 4 | 100,0 | 272 | 100,0 |
| | 151 plaza edo gehiago | 1 | 100,0 | 228 | 33,9 | | | | | 1 | 100,0 | 228 | 100,0 |
| **GUZTIRA** | | **13** | **100,0** | **672** | **100,0** | **19** | **100,0** | **84** | **100,0** | **32** | **100,0** | **756** | **100,0** |

Autonomia Erkidegoan dauden 32 zentroek 401 apartamentu dituzte guztira; horietatik erdia banakakoak dira. Besteak oro har binakakoak –%17,7– edo hirunakakoak –%20,4– dira. Gainerako %9 lau plazako edo gehiagoko apartamentuak dira.

**84. taula: Babespeko apartamentuen edukiera: zentro moten arabera**

| Edukiera | Apartamentu-multzoak | | Babespeko etxebizitzak | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Banakako apartamentuak | 212 | 55,5 | 0 | 0,0 | 212 | 52,9 |
| Bikotekako apartamentuak | 71 | 18,6 | 0 | 0,0 | 71 | 17,7 |
| Hiru pertsonentzako apartamentuak | 76 | 19,9 | 6 | 31,5 | 82 | 20,4 |
| Lau pertsonentzako apartamentuak | 23 | 5,9 | 6 | 31,5 | 29 | 7,2 |
| Lau pertsona baino gehiagorentzako apartamentuak | 0 | 0,0 | 7 | 36,8 | 7 | 1,7 |
| **GUZTIRA** | **382** | **100,0** | **19** | **100,0** | **401** | **100,0** |

Bai Araban eta baita Gipuzkoan ere, banakako apartamentuen proportzioa, lurralde bakoitzeko apartamentu-kopuru osoaren aldean, %52 baino gehiagokoa da, 85. taulan ikusi daitekeen bezala. Azpimarragarria da, gainera, Arabako banakako plazen eskaintzak EAEn eskaintzen diren plaza guztien %60 suposatzen duela. Bikotekako apartamentuen kasuan, berriz, horiek ezarpen maila altuagoa dute Gipuzkoan, %20,8, Araban baino, %15,4. Hiru pertsonentzako apartamentu gehienak Araban eskaintzen dira, eta, lau pertsonentzako nahiz gehiagorentzako apartamentu guztiak, berriz, Gipuzkoan daude.

**85. taula: Babespeko apartamentuen gaitasuna: lurralde historikoaren arabera**

| Edukiera | Araba | | Gipuzkoa | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Banakako apartamentuak | 126 | 52,7 | 86 | 53,1 | 212 | 52,9 |
| Bikotekako apartamentuak | 37 | 15,4 | 34 | 20,9 | 71 | 17,7 |
| Hiru pertsonentzako apartamentuak | 76 | 31,8 | 6 | 3,7 | 82 | 20,4 |
| Lau pertsonentzako apartamentuak | 0 | 0 | 29 | 17,9 | 29 | 7,1 |
| Lau pertsona baino gehiagorentzako apartamentuak | 0 | 0 | 7 | 4,2 | 7 | 1,7 |
| **GUZTIRA** | **239** | **100,0** | **162** | **100,0** | **401** | **100,0** |

Zentroaren titulartasunari dagokionez, 228 plaza pribatuak hiru pertsonentzako 76 apartamentutan banatzen direla azpimarratu behar da; 444 plaza publikoei dagokienez, berriz, %80 banakako apartamentuetan (212) eta bikotekakoetan (71) eskaintzen dira.

**86. taula: Babespeko apartamentuen edukiera: titulartasunaren arabera**

| Edukiera | Publikoa | | Pribatu hitzartua | | Pribatua | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Banakako apartamentuak | 212 | 65,4 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 212 | 52,9 |
| Bikotekako apartamentuak | 71 | 21,9 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 71 | 17,7 |
| Hiru pertsonentzako apartamentuak | 6 | 1,8 | 0 | 0,0 | 76 | 100,0 | 82 | 20,4 |
| Lau pertsonentzako apartamentuak | 29 | 8,9 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 29 | 7,1 |
| Lau pertsona baino gehiagorentzako apartamentuak | 6 | 1,8 | 1 | 100,0 | 0 | 0,0 | 7 | 1,8 |
| **GUZTIRA** | **324** | **100,0** | **1** | **100,0** | **76** | **100,0** | **401** | **100,0** |

### *2.4.2.* ***Kokapena***

Zentro gehienak –%73– hirigunean kokatzen dira, eta gainerako %27, plazen %70ekin, hirigunetik kanpo kokatzen badira ere, ondo komunikatuta daude garraio publikoaren bidez. Bigarren kasu hori ohikoagoa da, tamaina handiagoa dutelako, babespeko apartamentu-multzoetan (%57,2, bere kategoriako plazen %80arekin eta babespeko apartamentuetako plaza guztien %70arekin), babespeko etxebizitza independenteetan baino.

**87. taula: Babespeko apartamentuen kokapena**

| | | Hirigunean kokatzen dira | | | | Hirigunean ez baina ondo komunikatutako gunean kokatzen dira | | | | Guztira | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Zentroak | | Plazak | | Zentroak | | Plazak | | Zentroak | | Plazak | |
| | | *Abs.* | % | *Abs.* | % | *Abs.* | % | *Abs.* | % | *Abs.* | % | *Abs.* | % |
| Lurralde Historikoa | Araba | 4 | 57,1 | 112 | 26,1 | 3 | 42,9 | 316 | 73,8 | 7 | 100,0 | 428 | 100,0 |
| | Gipuzkoa | 19 | 77,4 | 108 | 32,9 | 6 | 22,6 | 220 | 67,0 | 25 | 100,0 | 328 | 100,0 |
| Titulartasuna | Publikoa | 22 | 74,5 | 214 | 40,9 | 8 | 25,5 | 308 | 59,0 | 30 | 100,0 | 522 | 100,0 |
| | Pribatua plaza hitzartuekin | 1 | 100,0 | 6 | 100,0 | | | | | 1 | 100,0 | 6 | 100,0 |
| | Pribatua | | | | | 1 | 100,0 | 228 | 100,0 | 1 | 100,0 | 228 | 100,0 |
| Zentro mota | Apartamentu-multzoa | 5 | 42,8 | 140 | 20,8 | 7 | 57,2 | 532 | 79,1 | 13 | 100,0 | 672 | 100,0 |
| | Babespeko etxebizitza | 18 | 92,7 | 80 | 94,0 | 1 | 7,3 | 4 | 5,9 | 19 | 100,0 | 84 | 100,0 |
| **GUZTIRA** | | **23** | **73,0** | **220** | **29,1** | **9** | **27,0** | **536** | **70,8** | **32** | **100,0** | **756** | **100,0** |

### 2.4.3. *Gizarte zerbitzuetako beste zentro baten mende egotea*

Apartamentu-multzoak autonomoki jarduten diren moduan, babespeko etxebizitza gehienak, erdia baino gehiago, gizarte zerbitzuen beste zentro baten mende daude: bederatzi egoitza baten mende eta bestea zahar-etxe baten mende. Kasuren batean, beraien gainetik dagoen baliabidearekin edo gizarte zerbitzuetako beste zentroren batekin konpartitzen duten eraikina.

**88. taula: Babespeko apartamentuen harremana gizarte zerbitzuen beste zentroekin**

| | | Ez dago beste zentro baten mende | | Egoitza baten mende dago | | Zahar-etxe baten mende dago | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Lurralde Historikoa | Araba | 7 | 100,0 | | | | | 7 | 100,0 |
| | Gipuzkoa | 14 | 56,5 | 9 | 37,9 | 1 | 5,6 | 25 | 100,0 |
| Titulartasuna | Publikoa | 20 | 67,1 | 8 | 28,2 | 1 | 4,7 | 30 | 100,0 |
| | Pribatua plaza hitzartuekin | | | 1 | 100,0 | | | 1 | 100,0 |
| | Pribatua | 1 | 100,0 | | | | | 1 | 100,0 |
| Zentro mota | Apartamentu-multzoa | 13 | 100,0 | | | | | 13 | 100,0 |
| | Babespeko etxebizitza | 9 | 42,1 | 9 | 42,1 | 1 | 5,2 | 19 | 100,0 |
| **GUZTIRA** | | **21** | **66,0** | **9** | **29,6** | **1** | **4,4** | **32** | **100,0** |

### 2.4.4. *Irisgarritasuna*

Zentroen %60, gutxi gorabehera plaza-proportzio berarekin –%66–, irisgarriak dira kanpoaldetik: ez dute inolako maila aldaketarik sarreran edo, edukiz gero, maila aldaketa hori gainditzeko arrapala bat dute.

**89. taula: Kanpoaldeari dagozkion irisgarritasun-eskakizunak betetzen dituzten babespeko apartamentuak**

| | | Zentroak | | Plazak | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Lurralde Historikoa | Araba | 6 | 85,7 | 413 | 96,5 |
| | Gipuzkoa | 13 | 50,8 | 86 | 26,3 |
| Titulartasuna | Publikoa | 18 | 59,0 | 271 | 51,9 |
| | Pribatua plaza hitzartuekin | | | | |
| | Pribatua | 1 | 100,0 | 228 | 100,0 |
| Zentro mota | Apartamentu-multzoa | 9 | 69,8 | 450 | 66,9 |
| | Babespeko etxebizitza | 10 | 51,1 | 49 | 59,1 |
| **GUZTIRA** | | **19** | **59,3** | **499** | **66,0** |

Barruko irisgarritasunari dagokionez, funtsean autonomia maila altua duten pertsonei zuzendutako zentroak direla aintzat hartuz, oinarrizko alderdiak bakarrik hartzen dira kontuan: ateen zabalera eta gurpildun aulki batean dagoen pertsona batek apartamentuetako komunetara zailtasunik gabe sartzeko aukera. Irizpide horri jarraiki, ia zentro guztiak dira irisgarriak.

**90. taula: Barrualdeari dagozkion irisgarritasun-eskakizunak betetzen dituzten babespeko apartamentuak**

| | | Zentroak | | Plazak | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | *Abs.* | % | *Abs.* | % |
| Lurralde Historikoa | Araba | 7 | 100,0 | 428 | 100,0 |
| | Gipuzkoa | 13 | 50,8 | 64 | 19,4 |
| Titulartasuna | Publikoa | 19 | 62,4 | 264 | 50,5 |
| | Pribatua | 1 | 50,0 | 228 | 97,4 |
| Zentro mota | Apartamentu-multzoa | 8 | 40,0 | 436 | 64,9 |
| | Babespeko etxebizitza | 12 | 60,0 | 55 | 65,8 |
| **GUZTIRA** | | **20** | **62,5** | **492** | **65,0** |

## *2.4.5.* ***Azalera***

Apartamentuen azalerari dagokionez, egoitzazko zerbitzuak arautzen dituen arautegiak hurrenez hurren banakako apartamentuei eta bikotekako apartamentuei aplikagarri zaizkien 25 m2 eta 35 m2-ko gutxieneko eskakizunak ezartzen ditu. Ikusi den bezala, unitate mota hori apartamentu-multzoetan bakarrik ematen da, eta ez babespeko etxebizitza independenteetan. Zentro gehienetan betetzen da arautegiaren eskakizunekin.

**91. taula: Azalerari dagozkion arauzko eskakizunen betetze maila babespeko apartamentu-multzoetan**

| | Abs. | % |
|---|---|---|
| Banakako apartamentuak dituzten zentroak | 8 | 87,5 |
| Binakako apartamentuak dituzten zentroak | 6 | 82,0 |

Hiru pertsonentzako, lau pertsonentzako edo gehiagorentzako babespeko apartamentuen edo etxebizitzen kasuan, legeak ez du aurreikusten horietarako gutxieneko azalerarik. Hori dela-eta, erreferentzia gisa etxebizitza komunitarioen arautegian eskatzen den egoiliar bakoitzeko 20 m2-ko azalera hartzen da. Erreferentzia horretatik abiatuz, egoiliar bakoitzak apartamentuetan duen batez besteko azalera, gutxi gorabehera, 21,5 m2-koa da, eta babespeko etxebizitza independenteetan –guztiak bi pertsona baino gehiagoko edukierarekin–, batez besteko azalera horrek 20 m2-ak gainditzen ditu kasu guztietan bi kasutan izan ezik; kasu horietan, batez besteko azalera 18 eta 19 m2-en inguruan kokatzen da, hurrenez hurren.

**92. taula: Egoiliar bakoitzeko batez besteko azalera ≥ 3 pertsonako apartamentuak dituzten zentroetan**

| | ≥ 20 m² | | < 20 m² | |
|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | % | *Abs.* | % |
| Edukiera = 3 pertsona | 6 | 7,3 | 76 | 92,6 |
| Edukiera = 4 pertsona | 29 | 100,0 | | |
| Edukiera ≥ 4 pertsona | 6 | 75,0 | 2 | 25,0 |

### 2.4.6. *Suteen aurkako babes-neurriak*

Larrialdietarako argiztapenari eta eskuko su-itzalgailuen hornidurari dagozkion eskakizunak babespeko apartamentu-multzo guztietan errespetatzen dira; larrialdietarako seinaleztapenari buruzko eskakizunak, berriz, zentro guztien erdiak besterik ez ditu betetzen[23] .

**93. taula: Suteen aurkako instalazioak eta ekipamendua dituzten babespeko apartamentuak**

| | | Larrialdietarako irteeren seinaleztapena | | Larrialdietarako argiztapena | | Eskuko su-itzalgailuak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | *Abs.* | *Abs.* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Lurralde Historikoa | Araba | 4 | 57,1 | 7 | 100,0 | 7 | 100,0 |
| | Gipuzkoa | 3 | 50,0 | 6 | 100,0 | 6 | 100,0 |
| Titulartasuna | Publikoa | 6 | 50,0 | 12 | 100,0 | 12 | 100,0 |
| | Pribatua | 1 | 50,0 | 1 | 100,0 | 1 | 100,0 |
| **GUZTIRA** | | **7** | **100,0** | **13** | **100,0** | **13** | **100,0** |

### 2.4.7. *Zonalde komunak*

Apartamentu-multzoen %80ak, plazen %92arekin, erabiltzaileen eskura jartzen diren zonalde komunak ditu; normalean, jarduera-aretoak eta komunak, baina, zenbait kasutan, baita jangelak ere. Babespeko etxebizitza independente gehienetan ere, ia %90ean, erabiltzaileek etxebizitzatik gertu dauden beste gizarte zerbitzuen espazio komunak erabili ditzakete; normalean, egoitza, zahar-etxe edo eguneko zentro bateko jangelak eta jarduera-aretoak.

**94. taula: Zonalde komunak babespeko apartamentuetan**

| | Zentroak | | Plazak | |
|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Zonalde komunak dituzten apartamentu-multzoak | 10 | 76,9 | 620 | 92,2 |
| Beste zentroetako zonalde komunak erabiltzen dituzten babespeko etxebizitzak | 17 | 89,4 | 71 | 84,5 |
| **GUZTIRA** | **27** | **84,3** | **691** | **91,4** |

### 2.4.8. *Zerbitzuak*

Bai babespeko etxebizitza-multzoek eta baita babespeko etxebizitzek ere, beren erabiltzaileei zenbait zerbitzu eskaintzeko edo ez eskaintzeko aukera dute. Zerbitzu horiek, gainera, berezkoak izan daitezke, edo gizarte zerbitzuetako beste zentro batekin

[23] Eskakizun hau apartamentu-multzoetan bakarrik egiaztatu da; izan ere, babespeko etxebizitzak ohiko higiezinetan integratuta dauden etxebizitzak direnez, horiei ezin zaizkie neurri bereziak aplikatu, etxebizitza arrunt bati dagozkion neurriak baizik.

konpartituta egon daitezke. 95. taulan adierazten den moduan, zerbitzu arruntena garbiketa-zerbitzua da (gutxienez zentroen %95ean); hala ere, oso hedatuak daude, baita ere, bazkari-zerbitzua (%80), arreta pertsonaleko zerbitzua (%74,8) eta ikuztegia (%72,4). Ez da hain ohikoa jangela-zerbitzua izatea (zentroen %54,8). Gutxi gorabehera zerbitzu mota hori eskaintzen duten zentroen laurdenak gizarte zerbitzuen beste zentroekin konpartitzen dituzte, gertuko egoitza baten *catering* zerbitzua erabiliz, adibidez.

**95. taula: Babespeko etxebizitzek eskaintzen dituzten zerbitzu nagusiak**

| | Apartamentu-multzoak | | | | Babespeko etxebizitzak | | | | Guztira | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zerbitzuak dituzte | | Zerbitzu konpartituak | | Zerbitzuak dituzte | | Zerbitzu konpartituak | | Zerbitzuak dituzte | | Zerbitzu konpartituak | |
| | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Arreta pertsonaleko zerbitzua | 10 | 77,7 | 2 | 19,1 | 14 | 72,9 | 1 | 7,3 | 24 | 74,8 | 4 | 11,9 |
| Logela garbitzeko laguntza | 11 | 88,8 | 1 | 7,9 | 19 | 100,0 | 7 | 36,5 | 31 | 95,6 | 8 | 25,2 |
| Bazkari-zerbitzua | 6 | 49,3 | 2 | 19,1 | 19 | 100,0 | 8 | 41,6 | 26 | 80,0 | 10 | 32,7 |
| Jangela-zerbitzua | 4 | 30,2 | 1 | 7,9 | 14 | 70,8 | 7 | 36,5 | 18 | 54,8 | 8 | 25,2 |
| Ikuztegia | 5 | 41,4 | 1 | 7,9 | 18 | 92,7 | 7 | 36,5 | 23 | 72,4 | 8 | 25,2 |

### 2.4.9. **Langileria**

Zentro guztiek dute erreferentziako arduradun gisa jarduten den pertsonaren bat, eta %90ek baino gehiagok –plazen %69, gutxi gorabehera– zuzeneko arretako langileak eta/edo langile laguntzaileak dituzte baita ere.

**96. taula: Babespeko apartamentuetako langileak**

| | Apartamentu-multzoak | | Babespeko etxebizitzak | |
|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Zuzeneko arretako langileak eta langile laguntzaileak dituzten zentroak | 6 | 50,7 | 9 | 48,9 |
| Zuzeneko arretako langileak bakarrik dituzten zentroak | 1 | 7,9 | 7 | 36,5 |
| Langile laguntzaileak bakarrik dituzten zentroak | 4 | 33,5 | 1 | 7,3 |
| Erreferentziazko langilea bakarrik duten zentroak | 1 | 7,9 | 1 | 7,3 |
| **GUZTIRA** | **12** | **100,0** | **18** | **100,0** |

## 3. **EGUNEKO ZENTROAK**

Metodologi kapituluan adierazitako moduan, azterketa honek Autonomia Erkidegoko eguneko zentro guztiei bidali zitzaien galdera-sortaren bitartez lortutako informazioa du oinarri.

## 3.1. **Ezaugarri orokorrak**

EAEko eguneko zentroen sarearen barruan 2003an 80 zentro egon dira, 2.068 plaza dituztenak. Horrek 65 urtetik gorako mila pertsonako 5,5 dakar. Arabako estaldura Bizkaikoaren bikoitza izan da, eta Gipuzkoakoa baino %42 handiagoa.

**133. grafikoa: Eguneko zentroen lurralde historikokako estaldura 2003an (65 urtetik gorako mila pertsonako plazak)**




### 3.1.1. ***Titulartasuna***

Zentroak, beren titulartasun juridikoaren arabera, hiru taldetan sailkatu dira; hona hemen hiru taldeok:

- Zentro publikoak, bai kudeaketa publikokoak bai kudeaketa pribatukoak. Azken kasu horretan, talde honetan sartzeko, irabazi-asmorik gabeko erakunde edo merkataritza-erakunde batek burutu behar du kudeaketa.

- Plaza itunduak dituzten eta irabazi-asmorik gabeko erakunde edo merkataritza-erakunde baten titulartasunekoak diren zentro pribatuak. Zentrook talde honetan sartzeko, erakunde horrek plaza guztiak edo batzuk Administrazioarekin (aldundiarekin edo udalarekin) itunduta izan behar ditu.

- Zentro pribatuak, plaza itundurik gabekoak.

100eko 65 zentro –plazen %60,8 baitute– titulartasun publikokoak dira. Dena dela, 100eko beste 13,5 Administrazioarekin itundutako plaza probatuak direla kontuan harturik, esan daiteke ezen Autonomia Erkidegoko plazen stockeko %75 dela publikoa.

Lurralde diferentziak nabarmenak dira titulartasunari dagokionean. Araban, ehuneko laurogeita hamasei plaza publikoak dira; eta Bizkaian eta Gipuzkoan, ehuneko berrogeita hamar baino gehitxoago. Plaza itunduak batuta, , eskaintza publiko osoa ez da aldatu Araban, eta Bizkaian eta Gipuzkoan %54,9 eta %84,9 iritsi du hurrenez hurren. Bistakoa da, bada, itundutako plaza pribatuen Gipuzkoako pisua: lurraldean dauden zentro pribatuetako plazen %68 betetzen da, modalitate horretakoa. Bizkaian plaza pribatuen eskaintzako %5,3k bakarrik itundurik ditu Administrazioarekiko plazak.

**97. taula: Eguneko zentroak titulartasunaren arabera eta lurraldeka**

| Lurralde Historikoa | Publikoa | | Pribatua eta itundutako plazaduna | | Pribatua | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Araba | 17 | 94,4 | 0 | 0,0 | 1 | 5,6 | 18 | 100,0 |
| Bizkaia | 16 | 48,5 | 1 | 3,0 | 16 | 48,5 | 33 | 100,0 |
| Gipuzkoa | 19 | 65,5 | 9 | 31,0 | 1 | 3,4 | 29 | 100,0 |
| EAE | 52 | 65,0 | 10 | 12,5 | 18 | 22,5 | 80 | 100,0 |

**98. taula: Eguneko zentroetako plazak titulartasunaren arabera eta lurraldeka**

| Lurralde Historikoa | Zentro publikoetako plaza publikoak | | Itundutako zentro pribatuetako plaza publikoak | | Itundutako zentro pribatuetako plaza pribatuak | | Zentro pribatuetako plaza pribatuak | | Plaza publikoak guztira | | Plaza pribatuak guztira | | Plazak guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Álava | 395 | 96,6 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 14 | 3,4 | 395 | 96,6 | 14 | 3,4 | 409 | 100,0 |
| Bizkaia | 475 | 52,3 | 23 | 2,5 | 0 | 0,0 | 410 | 45,2 | 498 | 54,8 | 410 | 45,2 | 908 | 100,0 |
| Gipuzkoa | 387 | 51,5 | 250 | 33,3 | 89 | 11,8 | 25 | 3,3 | 637 | 84,8 | 114 | 15,2 | 751 | 100,0 |
| CAPV | 1.257 | 60,8 | 273 | 13,2 | 89 | 4,3 | 449 | 21,7 | 1.530 | 74,0 | 538 | 26,0 | 2.068 | 100,0 |

### 3.1.2. *Zentroen tamaina*

Autonomia Erkidegoko eguneko zentroen tamaina 6 eta 64 plaza bitartekoa da. Batez beste, 25,2 plazakoa da. Haien eskaintza ia osoa publikoa da Araban, non batezbestekorik txikiena dagoen: 22, plazakoa. Bizkaiko batezbestekoa eta Gipuzkoakoa 27,1 eta 25ekoak dira hurrenez hurren. Tamainak titulartasunarekin zerikusia du: zentro publikoak txikiagoak izaten dira; eta, kontrako muturrean, plaza itunduak dituzten pribatuak, handienak.

**134. grafikoa: Eguneko zentroen batez besteko tamaina**



Tamainaren arabera, inkestaren bitartez lortutako informazioa aztertzeko helburuz, zentroak bi taldetan sailkatu dira; hona hemen bi taldeok: gehienez 20na plaza duten zentroak eta 21na plaza edo gehiagoko zentroak. Lehenengo taldean 100eko 45 zentro eta 100eko 27,8 plaza daude. Bigarrenak, 21na plaza edo gehiagoko zentroek osaturikoak, ehuneko 55 zentro eta 100eko 72,2 plaza harturik ditu barnean.

**99. taula: Eguneko zentroetako plazak tamainaren arabera eta lurraldeka**

| Lurralde Historikoa | Gehienez 20na plaza | | 21na edo gehiago | | Abs. | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | *Zentroen %* | *Plazen %* | *Zentroen %* | *Plazen %* | *Zentroak* | *Plazak* |
| Araba | 55,6 | 29,1 | 44,4 | 70,9 | 18 | 409 |
| Bizkaia | 42,4 | 27,8 | 57,6 | 72,2 | 33 | 908 |
| Gipuzkoa | 41,4 | 27,0 | 58,6 | 73,0 | 29 | 751 |
| EAE | 45,0 | 27,8 | 55,0 | 72,2 | 80 | 2.068 |

## 3.1.3. ***Okupazio tasa***

Azterketaren unean, ehuneko 78 plaza zeuden beteta. Zentro publikoetan, bete gabe daude %13,7 plaza, plaza hitzartuak dituzten zentro pribatuetan, %30,3 plaza, eta gainontzeko pribatuetan, %37,8. Okupazio tasa horiek baxuak dira, batez ere egoitza zerbitzuetakoekin erkatzen baditugu, izan ere, azken horietan, oro har, itxaron-zerrendak oso luzeak izaten dira.

**135. grafikoa: Eguneko zentroen plaza beteen proportzioa**




Gure erkidegoko eguneko zentroetako 100eko 20 plaza baino gehiago bete gabe daude. Hori dela eta, logikoa denez, gure buruari galde egin behar diogu ea haiek egun itxuratuta dauden moduan erabiltzaile izan ahal direnen beharrizanak behar bezala estaltzen dituzten eta, nolanahi ere, zein diren eskaria mugatzen duten faktoreak.

## 3.1.4. ***Erabiltzaileen ezgaitasun maila***

Egoitzazko zerbitzuetan egin den bezala, biztanle erabiltzaileak hiru taldetan sailkatu dira beren beregaintasun-galeraren arabera; hona hemen hiru taldeok:

- Ezgaitasun larria duten pertsonak: beste pertsona baten laguntza barik ezin dira ohetik jaiki ez ohean sartu.

- Neurrizko ezgaitasuna duten pertsonak: narriadura fisiko edo narriadura kognitiboren bat dute baina ez daude aurreko kategorian sarturik.

- Pertsona beregainak: aurreko bi kategorietan sarturik ez dauden pertsonak sailkatu dira talde honetan; eguneko zentroen erabiltzaileentzat 202/2002 Dekretuan ezarritako profilaren arabera, talde honetan sartu behar dira, urte asko dituztela, gizarte babesik ez dutela edo gaixorik daudela eta ustez narriadurako arriskutan dauden pertsonak.

Emaitzek erakusten dutenez, aztertutako taldearen %43k ezgaitasun larria du; eta %40,7k, neurrizkoa. Guztira, bada, beregaintasun faltak, handi edo txikiagoak, 100eko 83,7 jo du, 1.356 pertsona alegia. Gainerakoak beregainak dira edo ezgaitasun txikia agertzen dute.

Ukituriko pertsonen ezgaitasunaren izaera aztertzen bada, egiazta daiteke ezen, 100eko 40 kasutan baino gehiagotan narriadura ezagutzekoa eta fisikoa dela; 100eko 26,2tan, ezagutzezkoa bakarrik; eta 100eko 15,9tan, fisikoa soilik. Hortaz, orokorrean, narriadura ezagutzezkoa da eguneko zentroekiko mendekotasun handiaren jatorria.

**136. grafikoa: Eguneko zentroetako erabiltzaileak, ezgaitasun maila eta izaeraren arabera**




100. taulan ageri dira eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretarako laguntza behar duten, inkontinentzia duten, gurpil-aulkia erabiltzen duten eta legez ezgaituta dauden ezgaitasundun pertsonen kopurua eta proportzioa.

**100. taula: Ezgaitasunaren eragina eguneko zentroen erabiltzaileen artean**

| | Abs. | %, erabiltzaile guztien gainekoa | %, ezgaitasuna duten erabiltzaile guztien gainekoa |
|---|---|---|---|
| Ezin dira laguntza gabe garbitu | 885 | 54,6 | 65,3 |
| Ezin dira laguntza barik ohetik jaiki edo ohean sartu | 696 | 43,0 | 51,3 |
| Etxetik autobusa hartzera joateko laguntza behar dute | 1.116 | 68,9 | 82,3 |
| Ezin dute komunera eramateko eskatu | 358 | 22,1 | 26,4 |
| Gernu edo/eta gorotz inkontinentzia dute | 696 | 43,0 | 51,3 |
| Gurpil-aulkia behar dute | 281 | 17,3 | 20,7 |
| Legez ezgaituta daude | 62 | 3,8 | 4,6 |

Eraginkortasun bertikala, zentroan arreta jasotzen duten guztiei begirako ezgaitasundun erabiltzaileen proportzioa dena, %83,7koa da Erkidego osoan. Baina diferentzia handiak daude, lurraldearen arabera bereziki. Egin-eginean ere, Arabako eraginkortasun bertikala beste bi lurraldeetakoa baino askoz txikiagoa da. Izan ere, Arabako estaldura handiagoa da, hau da, Arabako eguneko zentroek , proportzioz, adineko pertsona gehiago zaintzen dituzte, bai ezgaitasunen bat duten pertsona gehiago bai beregainak-edo diren pertsona gehiago. Araban eguneko arretarako landa zentroen (EALZ) sarea dago. Beraren helburua adineko pertsonak biztanlegune txikiagoetan isolatzea saihestea da. Hori dela eta, ezgaitasuna ez da hautatze-elementua. Zentrootan ezgaitasundun pertsonen proportzioa %32koa da; eta Arabako gainerako zentroetan, %69koa. Beraz, baiezta daiteke ezen ELZen arreta-helburuek eguneko zentroetan zaindutako Arabako biztanleei izaera berezia ematen diela.

Eraginkortasun bertikal handiena Gipuzkoakoa da eta itundutako plazak dituzten zentro pribatuei (lurralde horretan ohikoagoak dira) dagokie, zentro handiei halaber.

**101. taula: Eguneko zentroen erabiltzaileak eta ezgaitasun maila**

| | | Ezgaitasuna duten erabiltzaileak guztira | | Ezgaitasun larria duten erabiltzaileak | | Ezgaitasun arina duten erabiltzaileak | | Erabiltzaile beregainak | | Erabil-tzaileak guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | *Abs.* | *% (eragin-kortasun bertikala)* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* | |
| **Lurralde Historikoa** | Araba | 211 | 60,1 | 128 | 36,5 | 83 | 23,6 | 140 | 39,9 | 351 |
| | Bizkaia | 546 | 84,2 | 230 | 35,4 | 317 | 48,8 | 103 | 15,9 | 649 |
| | Gipuzkoa | 598 | 96,6 | 338 | 54,6 | 260 | 42,0 | 21 | 3,4 | 619 |
| **Titulartasuna** | Publikoa | 889 | 81,7 | 490 | 45,0 | 399 | 36,7 | 199 | 18,3 | 1.088 |
| | Pribatua eta plaza itunduak | 244 | 96,8 | 131 | 52,0 | 113 | 44,8 | 9 | 3,4 | 252 |
| | Pribatua | 223 | 79,6 | 76 | 27,1 | 148 | 52,8 | 57 | 20,2 | 280 |
| **Tamaina** | 21 plaza baino gutxiago | 384 | 78,2 | 143 | 29,1 | 241 | 49,1 | 107 | 21,8 | 491 |
| | 21 edo gehiago | 971 | 86,1 | 553 | 49,0 | 419 | 37,1 | 157 | 13,9 | 1.128 |
| **GUZTIRA** | | **1.356** | **83,7** | **696** | **43,0** | **660** | **40,7** | **264** | **16,3** | **1.620** |

Zentroetan dauden ezgaitasundun pertsonen proportzioaren arabera inkestaren bitartez lorturiko informazioa ustiatzeko, hiru talde zehaztu dira:

- Ezgaitasun larria duten pertsonen proportzioa %25ekoa baino txikiagoa den zentroak. "Beregainen zentro"tzat har daitezke, erkidego honetako eguneko zentro guztien herenak baino gehitxoago dira eta beraietan 100eko 26,2 plaza daude. Hortaz, zentrook batezbestekoa baino txikiagoak izaten dira.
- 100eko 25-49 erabiltzailek Ezgaitasun larria duten zentroak. Horrelakoak zentro guztietarik 100eko 42,3 dira eta plazen %44,2 dute.
- Ezgaitasun larria 100eko 50 erabiltzailek edo gehiagok duten zentroak. 100eko 26,4 zentro kategoria honetan sarturik daude eta ehuneko zentro horiek guztira plazen %29,6 dute.

Narriadura kognitiboa kontuan hartu da erabiltzaileen ezgaitasuna zehazterakoan. Baina, horrek ekartzen dituen arazoen garrantzia eta zehaztasuna dela eta, narriatuta dauden erabiltzaileen proportzioa ere aldagai bezala erabiltzea egokietsi da. Kasu horretan, bi talde bakarrik egin dira:

- Erabiltzaileen erdiek baino gutxiagok arazo kognitiboak dituzten zentroak. Zentroen laurdenak dira eta, guztira, 100eko 18,8 erabiltzaile zaintzen dituzte.
- Arazo kognitiboak erabiltzaileen erdiek baino gehiagok dituzten zentroak. Talde horretan zentroen hiru laurdenak daude eta, guztira, plazen %81,2 dute. Zentro handiek, orokorrean, bada, eraginkortasun bertikal handiagoa izaten dute arazo kognitiboei dagokienez.

**102. taula: Zentroen sailkapena, ezgaitasun larria duten erabiltzaileen eta narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen proportzioaren arabera**

| | | Zentroen % | Plazen % |
|---|---|---|---|
| **Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen proportzioa** | % 25 baino gutxiago | 31,3 | 26,2 |
| | % 25 - 49 | 42,3 | 44,2 |
| | % 50 edo gehiago | 26,4 | 29,6 |
| **Narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen proportzioa** | % 50 baino gutxiago | 24,5 | 18,8 |
| | % 50 edo gehiago | 75,5 | 81,2 |
| **GUZTIRA** | | **100,0** | **100,0** |
| **Absolutuak** | | **80** | **2.068** |

## 3.2. **Ezaugarri fisikoak**

### 3.2.1. ***Zentroen kokapena***

100eko 61,3 eguneko zentro hirigunean daude, eta 100eko beste 34,6 ondo komunikatutako inguruko aldeetan. 100eko 4 bakarrik daude isolatu samar, eta beraien eskaintza plaza proportzio berekoa da. Proportzioz, ohikoagoa da Bizkaiko zentroak erdiko aldeetan kokatuta egotea. Gauza bera gertatzen da zentro txikiekin eta, batez ere, Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen proportzioa erabiltzaile guztien %25etik gorakoa ez den zentroekin.

**103. taula: Eguneko zentroen kokapena**

| | | Erdiko aldea | | Erdian ez dagoen eta ondo komunikatuta dagoen aldea | | Erdian ez dagoen eta txarto komunikatuta dagoen aldea | | Guztira | | Absolutuak guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | *Zentroen %* | *Plazen %* | *Zentroen %* | *Plazen %* | *Zentroen %* | *Plazen %* | *Zentroen %* | *Plazen %* | *Zentroak* | *Plazak* |
| **Lurraldea** | Araba | 55,6 | 36,7 | 44,4 | 63,3 | 0,0 | 0,0 | 100,0 | 100,0 | 18 | 409 |
| | Bizkaia | 71,5 | 65,0 | 28,5 | 35,0 | 0,0 | 0,0 | 100,0 | 100,0 | 33 | 908 |
| | Gipuzkoa | 53,2 | 57,5 | 35,5 | 31,4 | 11,3 | 11,1 | 100,0 | 100,0 | 29 | 751 |
| **Titulartasuna** | Publikoa | 60,6 | 52,6 | 36,9 | 44,3 | 2,5 | 3,1 | 100,0 | 100,0 | 52 | 1.258 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 38,1 | 52,6 | 42,9 | 35,0 | 19,0 | 12,4 | 100,0 | 100,0 | 10 | 362 |
| | Pribatua | 77,1 | 71,3 | 22,9 | 28,7 | 0,0 | 0,0 | 100,0 | 100,0 | 18 | 449 |
| **Tamaina** | 21 plaza baino gutxiago | 69,4 | 68,4 | 27,8 | 28,1 | 2,8 | 3,5 | 100,0 | 100,0 | 36 | 575 |
| | 21 plaza edo gehiago | 54,6 | 52,2 | 40,2 | 43,6 | 5,2 | 4,3 | 100,0 | 100,0 | 44 | 1.494 |
| **Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen %** | %25etik behera | 88,0 | 83,8 | 12,0 | 16,2 | 0,0 | 0,0 | 100,0 | 100,0 | 25 | 542 |
| | %25-49 | 47,8 | 45,7 | 49,2 | 52,1 | 3,0 | 2,2 | 100,0 | 100,0 | 34 | 913 |
| | %50 edo gehiago | 51,1 | 49,1 | 38,1 | 40,6 | 10,8 | 10,4 | 100,0 | 100,0 | 21 | 613 |
| **GUZTIRA** | | **61,3** | **56,7** | **34,6** | **39,3** | **4,1** | **4,0** | **100,0** | **100,0** | **80** | **2.068** |

Bistan denez, eguneko zentroa bere erabiltzaileen egoitzatik hurbil egotea arretaren kalitatea bermatzeko funtsezko elementuetakoa da. Hurbileko zerbitzuak joan-etorrien ezerosotasuna ezabatu edo txikiagotzen du, erkidego zerbitzuak erabiltzea errazten du, zerbitzua erkidegoratzeko lagungarria da eta zaindutako pertsonen familiari eta haien inguruko gizarteari zentroko bizitzan parte hartzen laguntzen die; eta horrek kalitatea bermatzen du.

Horrenbestez, oro har, esan daiteke ezen erabiltzaile guztietarik 100eko 39,7k beren auzoko eguneko zentroan jasotzen dutela arreta. Ez da zentroaren hurbiltasunaren eta aztertutako aldagaien arteko lotura esanguratsurik ikusi. Nolanahi ere den, Gipuzkoan, beren auzoan bertan arreta ematen zaien erabiltzaileen proportzioa handiena den lurralde horretan, inguruabar hori ez da kasuen erdian gertatu.

**104. taula: Eguneko zentroen kokapena, erabiltzaileen egoitzari begirakoa**

| | | Zentroa kokatzen den auzoan bizi diren erabiltzaileen % | Urrunago bizi diren erabiltzaileen % | Guztira | Erabiltzaileak guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| **Lurralde Historikoa** | Araba | 20,9 | 79,1 | 100,0 | 351 |
| | Bizkaia | 28,3 | 56,8 | 100,0 | 649 |
| | Gipuzkoa | 48,9 | 51,2 | 100,0 | 619 |
| **Titulartasuna** | Publikoa | 36,5 | 63,5 | 100,0 | 1.088 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 22,2 | 45,4 | 100,0 | 252 |
| | Pribatua | 43,8 | 56,2 | 100,0 | 280 |
| **Tamaina** | 21 plaza baino gutxiago | 37,7 | 62,3 | 100,0 | 491 |
| | 21 edo gehiago | 40,6 | 58,2 | 100,0 | 1.128 |
| **Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen %** | %25 baino gutxiago | 50,1 | 49,9 | 100,0 | 368 |
| | %25- 49 | 26,8 | 73,2 | 100,0 | 754 |
| | %50 edo gehiago | 32,0 | 45,7 | 100,0 | 498 |
| **GUZTIRA** | | **39,7** | **59,5** | **100,0** | **1.620** |

Gainera, zentroen erdiek baino gehiagok egoitza hurbileko udalerrietan duten pertsonak zaintzen dituzte. Hori gehiagotan gertatzen da mendeko erabiltzaileen proportzioa txikiagoa den zentroetan, eta zentro pribatuetan

**105. taula: Eguneko zentroen kokapena, erabiltzailearen egoitzaren udalerriari begira**

| | | Zentroa dagoen udalerriko pertsonak bakarrik zaintzen dituzten zentroen % | Udalerriko eta beste udalerri batzuetako pertsonak zaintzen dituzten zentroen % | % Guztira | Zentroak guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| **Lurralde Historikoa** | Araba | 44,4 | 55,6 | 100,0 | 18 |
| | Bizkaia | 43,5 | 56,5 | 100,0 | 33 |
| | Gipuzkoa | 45,3 | 54,7 | 100,0 | 29 |
| **Titulartasuna** | Publikoa | 35,4 | 64,6 | 100,0 | 52 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 56,1 | 43,9 | 100,0 | 10 |
| | Pribatua | 28,6 | 71,4 | 100,0 | 18 |
| **Tamaina** | 21 plaza baino gutxiago | 52,9 | 47,1 | 100,0 | 36 |
| | 21 edo gehiago | 51,7 | 48,3 | 100,0 | 44 |
| **Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen %** | %25 baino gutxiago | 24,6 | 75,4 | 100,0 | 25 |
| | %25-49 | 53,3 | 46,7 | 100,0 | 34 |
| | %50 edo gehiago | 53,5 | 46,5 | 100,0 | 21 |
| **GUZTIRA** | | **44,4** | **55,6** | **100,0** | **80** |

Kokaturik dauden eraikinaren ikuspuntutik, zentroen multzoa hiru taldetan banatu ahal da. Talde horiek honako hauek ditugu: eraikina egoitzarekin konpartitzen duten zentroen taldea (%39,6), eraikina beste mota bateko gizarte zerbitzuarekin konpartitzen dutenena (%25,2), hala nola, erkidego-etxebizitza edo erretiratuen etxea, eta zentro lokabeena (%35,2).

Zentro lokabeak, beraien kokapenari dagokionean, ohikoagoak dira Bizkaian; eta ohikoagoa da, halaber, haiek titulartasun pribatukoak eta itundutako plazarik gabekoak izatea.

**106. taula: Zentroen kokapena eraikinik konpartitzen duten ala ez duten kontu**

| | | Zentro lokabeen % | Eraikina egoitzarekin konpartitzen duten zentroen % | Eraikina beste mota bateko gizarte zerbitzuarekin konpartitzen duten zentroen % | % Guztira | Zentroak guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Lurraldea** | Araba | | 50,0 | 50,0 | 100,0 | 18 |
| | Bizkaia | 61,2 | 19,7 | 19,1 | 100,0 | 33 |
| | Gipuzkoa | 27,6 | 55,7 | 16,7 | 100,0 | 29 |
| **Titular-tasuna** | Publikoa | 25,4 | 39,7 | 34,9 | 100,0 | 52 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 28,6 | 61,9 | 9,5 | 100,0 | 11 |
| | Pribatua | 68,6 | 25,7 | 5,7 | 100,0 | 18 |
| **Tamaina** | 21 plaza baino gutxiago | 30,6 | 34,7 | 34,7 | 100,0 | 36 |
| | 21 plaza edo gehiago | 39,1 | 43,5 | 17,4 | 100,0 | 44 |
| **GUZTIRA** | | **35,2** | **39,6** | **25,2** | **100,0** | **80** |

### 3.2.2. ***Garraioa***

Eguneko zentro ia guztiek garraiabidea dute. Erabiltzailerik gehienek, guztietarik 100eko 82,8k, zentroak antolatutako garraioa erabiltzen dute. 100eko 11,5 oinez joaten dira. Eta %3,4 garraio publikoan, bakarrik edo lagunduta joaten da.

**107.taula: Zentroetako garraio eskuragarritasuna eta erabiltzaileak eguneko zentrora joan eta etortzen diren modua[1]**

| | | Garraio zerbitzua duten zentroen % | Zentroak antolaturiko garraioan joaten diren erabiltzaileen % | Oinez joaten diren erabiltzaileen % | Norbanakoen autoz edo garraio publikoan joaten diren erabiltzaileen % | Zentroak guztira | Erabiltzaileak guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Lurralde Historikoa** | Araba | 100,0 | 90,2 | 11,2 | 2,8 | 18 | 351 |
| | Bizkaia | 97,0 | 80,9 | 15,0 | 3,7 | 33 | 649 |
| | Gipuzkoa | 100,0 | 80,5 | 8,0 | 3,5 | 29 | 619 |
| **Titulartasuna** | Publikoa | 100,0 | 93,3 | 9,5 | 1,7 | 52 | 1.088 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 97,3 | 56,7 | 7,1 | 6,0 | 10 | 252 |
| | Pribatua | 100,0 | 65,3 | 23,1 | 8,1 | 18 | 280 |
| **Tamaina** | 21 plaza baino gutxiago | 100,0 | 80,6 | 17,2 | 1,0 | 36 | 491 |
| | 21 plaza edo gehiago | 97,7 | 83,7 | 9,0 | 4,5 | 44 | 1.128 |
| **Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen %** | %25 baino gutxiago | 96,0 | 64,2 | 24,9 | 6,5 | 25 | 368 |
| | %25-49 | 100,0 | 92,8 | 8,1 | 2,9 | 34 | 754 |
| | %50 edo gehiago | 100,0 | 81,3 | 6,8 | 2,0 | 21 | 498 |
| **GUZTIRA** | | **98,8** | **82,8** | **11,5** | **3,4** | **80** | **1.620** |

1 Zenbait kasutan, batuketa 100etik gorakoa da, joateko moduak uztartzen dituzten erabiltzaileak daudela

Orokorrean, zentroen eragin-aldea auzoaren edo/eta udalerriaren mugatik haragokoa da. Hori dela eta, zenbait bide luzeak izaten dira beharrez. Gainera, ibilbideak guztien onuraren bila egiten dira; eta bitartekoen ekonomia dela eta, zenbait kasutan, ibilbide luzeagoa egiten da. Antolaturiko garraioko ibilbideen batez besteko iraupena 42 minutukoa da –joan edo etorriko ibilbide sinplea–, eta handiagoa da zentrorik handienetan. Zentro txikiak, pribatuak eta Bizkaikoak dira garraio-denbora laburragoa eskatzen dutenak. Nolanahi ere, 100eko 30 zentrok ordubetetik gorako joan-etorriak antolatu behar dituzte. Inoiz edo behin 140 minutukoak izan dira. Joan eta etorriko ibilbide osoaz ari gara.

**108. taula: Zentroek antolaturiko garraiabideen ibilbideen iraupena**

| | | Ibilbideen batez besteko iraupena (min.) (joan edo etorria) | Zenbait ibilbide ordubete baino gehiago irauten duten zentroen proportzioa | Ibilbiderik luzeenaren iraupena (min.) (joan eta etorria) |
|---|---|---|---|---|
| **Lurralde Historikoa** | Araba | 44 | 11,1 | 90 |
| | Bizkaia | 40 | 34,2 | 95 |
| | Gipuzkoa | 45 | 36,5 | 140 |
| **Titulartasuna** | Publikoa | 42 | 32,4 | 140 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 45 | 42,9 | 95 |
| | Pribatua | 39 | 14,3 | 100 |
| **Tamaina** | 21 plaza baino gutxiago | 39 | 31,9 | 140 |
| | 21 plaza edo gehiago | 44 | 28,1 | 120 |
| **Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen %** | %25 baino gutxiago | 31 | 13,0 | 95 |
| | %25-49 | 43 | 30,0 | 140 |
| | %50 edo gehiago | 49 | 49,6 | 120 |
| **GUZTIRA** | | **42** | **29,8** | **140** |

Kasuistika bereziaz aparte, zentroa norbanakoen egoitzatik egoteak kalitaterik bermatzen ez duela onarturik, argi dago gure eguneko zentroetan orokorrean zaintzen direnen ezaugarriak dituzten pertsonak ez daudela egin behar dituzten ibilbide luze-luzeak egunero eta urtaro guztietan egiteko moduan. Gainera, kontuan hartu behar da ezen eguneko zentroko arretaren alternatiba haietarik askorentzat arazoa izan ahal dela, ondo ez badaude edo gaixorik badaude. Horrela bada, egiaztatu dugunez, ez da batere arraroa oso ezgaitasun larriak dituzten oso pertsona zaharrek autobusez ordubetez baino gehiagoz egin behar izatea, nahiz eta edozein langile gazteren gaixotasunagatiko baja eta oheko susperraldia justifikatzen duen egoeran egon. Egin-eginean ere, 100eko 90 zentrotan baino gehiagotan, arduradunek baieztatu dute ezen, batzuetan, erabiltzaileak gaixorik joaten direla eta, 100eko 43,7 zentrotan ziurtatu dute ezen hori sarri askotan gertatzen dela.

Logikoa denez, arretaren kalitateko garraioaren eragin handia antolakuntza-alderdirik aztertu eta eztabaidatuenetakoa da. Bistan izanda ere, esan behar da ezen ondoen antolatutako garraioa beharrezkoa ez dena dela. Eguneko zentroak adineko pertsonarik gehien bildutako aldeetan jarri behar dira eta beren bezeroak berauengandik hurbileko oinarrizko gizarte zerbitzuaren eraginarena baino zabalagoa ez den eremuan hartu behar dituzte.

### *3.2.3. **Zentrora sartzeko erraztasuna***

EAEko eguneko zentrorik gehienek, %95,6k, sarrera ailegaerraza dute; eta 100eko 33,1etako ateak automatikoki irekitzen dira. Oztopo arkitektonikoak detektatu dira 100eko 4,4 zentrotan: aldaparik ez gora joateko osagarririk gabeko mailak. Zentrootan bildurik plazen %3,9 dago. Zentro horiek guztiak Bizkaian daude eta publikoak eta pribatuak dira. Beraiek zaintzen dituzten erabiltzaileetarik 39 fisikoki mendekoak dira eta 6k gurpil-aulkia erabiltzen dute.

**109. taula: Eguneko zentroetara kanpotik sartzeko erraztasuna**

| | | Sartzeko oztopoak dituzten zentroen % | Sartzeko oztopoak dituzten zentroetako plazen % | Fisikoki mendekoa den erabiltzaile kopurua, sartzeko oztopoak dituzten zentroena | Gurpil aulkia erabiltzen duen erabiltzaile kopurua, sartzeko oztopoak dituzten zentroena |
|---|---|---|---|---|---|
| **Lurralde Historikoa** | Araba | | | | |
| | Bizkaia | 10,6 | 8,2 | 39 | 6 |
| | Gipuzkoa | | | | |
| **Titulartasuna** | Publikoa | 4,8 | 3,6 | 33 | 6 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | | | | |
| | Pribatua | 5,7 | 7,8 | 6 | |
| **GUZTIRA** | | **4,4** | **3,9** | **39** | **6** |

## 3.2.4. *Alde eta instalazio komunak*

Zentroen barneko instalazioei buruz honako datu hauek nabarmendu ahal dira:

- 100eko 85,6 eguneko zentrok beren jantokia dute. 100eko 6,3k egoitzakoa erabiltze dute; 100eko 1,2k, erkidego-etxebizitzakoa; eta100eko 6,3k, erretiratuen etxekoa.
- Jantoki nagusiaren azalera Dekretuak eskaturikoa (2 metro karratukoa) baino txikiagoa da 100eko 18,9 zentroetan –titulartasun publikoko zentroen %23,3–. Zentrootan bilduta dago plazen %14,7.

**110. taula: Eguneko zentroetako jantokien neurria**

| | | Jantokiaren neurria: < 2m² | | Absolutuak | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | *Zentroen %* | *Plazen %* | *Zentroak* | *Plazak* |
| **Lurralde Historikoa** | Araba | 16,7 | 11,0 | 18 | 409 |
| | Bizkaia | 28,9 | 22,0 | 33 | 908 |
| | Gipuzkoa | 8,9 | 7,9 | 29 | 751 |
| **Titulartasuna** | Publikoa | 23,3 | 20,0 | 52 | 1.258 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 14,3 | 6,2 | 10 | 362 |
| | Pribatua | 8,6 | 6,7 | 18 | 449 |
| **Tamaina** | 20 plaza baino gutxiago | 27,1 | 29,2 | 36 | 575 |
| | 21 plaza edo gehiago | 12,2 | 9,1 | 44 | 1.494 |
| **Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen %** | %25 baino gutxiago | 28,5 | 25,3 | 25 | 542 |
| | %25-49 | 11,6 | 9,9 | 34 | 913 |
| | 50 edo gehiago | 20,4 | 13,0 | 21 | 613 |
| **GUZTIRA** | | **18,9** | **14,7** | **80** | **2.068** |

- 100eko 22,7 zentroetan ez dago erabiltzaileentzako telefonorik. Gainera, 100eko beste 8,6tan telefonora ez dira heltzen gurpil aulkia erabiltzen duten pertsonak. Zentrorik gehienek ez dute entzuteko arazoak dituzten pertsonei egokituriko telefonorik.

- Guztiek berokuntza dute.

- Gehienek, 100eko 94,8k arropa gordetzeko aldea dute.

- 100eko 60k baino gehiagok erabiltzaileak sartu ahal diren kanpoaldea dute.

Zentroaren barrualdearen egokitzapena, sartzeko erraztasunari eta segurtasunari dagokionez, batera baloratu da honako elementu hauek baliaturik: kanpoko eta barruko ate zabalak, korridoreetako eskudelak, eskaileretako eta aldapetako zoru irristagaitza, gurpil-aulkia erabiltzen duten pertsonentzako komunetarako, jantokirako eta egongeletarako askatasunezko sarbideak.

Ehuneko 45,7 zentro –plazen %38,9– ez daude ondo egokiturik aipatu irizpideen arabera. Elementuren bat ez izateak zentroaren tamainarekin, titulartasunarekin eta ezgaitasuna duten pertsonen proportzioarekin zerikusia omen du. Gabeziak ohikoagoak dira zentro txikietan, publikoetan eta itundutako plazarik gabeko pribatuetan eta ehuneko pertsona beregain gehien zaintzen dituztenetan.

**137. grafikoa: Irisgarritasun edo segurtasun elementuren bat ez duten eguneko zentroak**



### 3.2.5. *Komunak*

Eguneko zentroak araupeturik dituen Dekretuak eskatutakoarekin bat etorririk, hamabost pertsona erabiltzaileko komuneko kazola eta konketa bat edo zati bat izan behar da, gutxienez, eta hogeiko bainugela geriatriko bat edo zati bat. Baina ez da gauza bera gertatzen bainugela geriatrikoetan.

**111. taula: Eguneko zentroetako komun geriatrikoen eskuragarritasuna**

| | | **Ez dute komunik** | | **20 erabiltzaileko komun bat ere ez dute** | | **Guztira** | | **Absolutuak** | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | *Zentroen %* | *Plazen %* | *Zentroen %* | *Plazen %* | *Zentroen %* | *Plazen %* | *Zentroak* | *Plazak* |
| **Lurralde Historikoa** | Araba | 8,3 | 5,5 | | | 8,3 | 5,5 | 18 | 409 |
| | Bizkaia | 29,7 | 32,1 | 8,5 | 8,6 | 38,2 | 40,7 | 33 | 908 |
| | Gipuzkoa | 4,4 | 3,8 | 12,3 | 12,7 | 16,7 | 16,5 | 29 | 751 |
| **Titulartasuna** | Publikoa | 17,5 | 18,8 | 10,3 | 11,9 | 27,8 | 30,7 | 52 | 1.258 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | | | 9,5 | 6,9 | 9,5 | 6,9 | 10 | 362 |
| | Pribatua | 20,0 | 23,4 | | | 20,0 | 23,4 | 18 | 449 |
| **Tamaina** | 21 plaza baino gutxiago | 15,3 | 17,0 | | | 15,3 | 17,0 | 36 | 575 |
| | 21 plaza edo gehiago | 16,1 | 16,4 | 14,5 | 11,7 | 30,6 | 28,1 | 44 | 1.494 |
| **Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen %** | %25 baino gutxiago | 20,6 | 22,0 | 5,6 | 7,7 | 26,2 | 29,7 | 25 | 542 |
| | %25-49 | 7,4 | 7,7 | 4,1 | 4,0 | 11,5 | 11,7 | 34 | 913 |
| | %50 edo gehiago | 23,4 | 28,6 | 16,9 | 12,8 | 40,3 | 41,4 | 21 | 613 |
| **GUZTIRA** | | **15,7** | **16,5** | **8,0** | **8,4** | **23,7** | **24,9** | **80** | **2.068** |

Zentroen ia laurdenek ez dute komun geriatrikorik edo ez dute betetzen Dekretuak eskatutako gutxienekoa (20 erabiltzaileko bat). Gabetasunik handienak Bizkaian eta ezgaitasuna duten pertsonen proportzio handia duten zentroetan ikus daitezke. Aitzitik, Araban bereziki eta itundutako plazak dituzten zentro pribatuetan beteta dago ondoen komun geriatrikoaren beharkizuna.

Bainugela eta komunak baloratzerakoan honako elementu hauek hartu dira kontutan: gurpil aulkiz, makilaz edo eskorgaz sartu eta mugitzeko leku nahikoa, labainkaden kontrako zorua, kazoletako barrak eta dei egiteko txirrina eta bainugeletako zoru lauko dutxa eta aulkia edo bainuontzi egokitua eta dutxetako eta bainuontzietako barrak.

Inkestaren emaitzek erakusten dutenez, plazen %29,4 dutenak diren 100eko 39,8 zentrotako bainugelek eta komunek ez dute elementuotakoren bat. Egokigarritasuna hobea da itundutako plazak dituzten zentro pribatuetan, hogeina plazatik gorakoetan eta Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen proportzioa %50etik gorakoa denetan. Zentro publiko txikiak ezgaitasun handirik gabeko pertsonentzakoak, esan bezala proportzioz Araban ugariagoak eta bainugeletan segurtasun elementuren bat sarrienetan izaten ez dutenak dira.

**112. taula: Eguneko zentroetako bainugeletara eta komunetara sartzeko erraztasuna**

| | | Bainugela guztiz irisgarriak | | Bainugelara sartzeko erraztasun edo segurtasun bat falta da | | Bainugelan segurtasun elementu bat gehiago falta da | | Absolutuak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | % *Zentroak* | % *Plazak* | % *Zentroak* | % *Plazak* | % *Zentroak* | % *Plazak* | *Zentroak* | *Plazak* |
| **Lurralde Historikoa** | Araba | 52,8 | 74,6 | 30,6 | 16,3 | 16,7 | 9,2 | 18 | 409 |
| | Bizkaia | 65,8 | 68,2 | 18,2 | 18,2 | 16,1 | 13,6 | 33 | 908 |
| | Gipuzkoa | 58,6 | 71,4 | 41,4 | 28,6 | | | 29 | 751 |
| **Titulartasuna** | Publikoa | 51,3 | 65,9 | 32,7 | 21,3 | 16,0 | 12,8 | 52 | 1.258 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 90,5 | 93,1 | 9,5 | 6,9 | | | 10 | 362 |
| | Pribatua | 68,6 | 65,7 | 31,4 | 34,3 | | | 18 | 449 |
| **Tamaina** | 21 plaza baino gutxiago | 30,6 | 31,4 | 54,2 | 54,2 | 15,3 | 14,4 | 36 | 575 |
| | 21 plaza edo gehiago | 84,5 | 85,7 | 9,1 | 9,0 | 6,4 | 5,2 | 44 | 1.494 |
| **Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen %** | %25 baino gutxiago | 47,5 | 50,9 | 29,9 | 30,7 | 22,6 | 18,4 | 25 | 542 |
| | %25-49 | 58,2 | 73,6 | 37,7 | 22,4 | 4,1 | 4,0 | 34 | 913 |
| | %50 edo gehiago | 78,7 | 88,8 | 15,4 | 5,6 | 5,9 | 5,6 | 21 | 613 |
| **GUZTIRA** | | **60,3** | **70,6** | **29,4** | **21,6** | **10,4** | **7,8** | **80** | **2.068** |

Dekretuarekin bat etorririk, intimitatea bermatzeko eta inoizka gerta daitezkeenei aurre egiteko, ateek hala behar izanez gero kanpotik ireki ahal diren txingetak izan behar dituzte. Horrela bada, 100eko 27,6 zentrotan, plazen %28,9 biltzen duten 100eko 27,6 zentrotan, ezein bainugela edo komunek ez du horrelako mekanismorik.

**113. taula: Ezein bainugelak edo komunek lokatze-mekanismodun txingetik ez duen zentroak**

| | | Ezein bainugela edo komunek ez du lokatze-mekanismodun txingetik | | Absolutuak guztira | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | *% Zentroak* | *% Plazak* | *Zentroak* | *Plazak* |
| **Lurralde Historikoa** | Araba | 58,3 | 79,8 | 18 | 409 |
| | Bizkaia | 16,4 | 12,9 | 33 | 908 |
| | Gipuzkoa | 21,2 | 20,6 | 29 | 751 |
| **Titulartasuna** | Publikoa | 35,7 | 42,1 | 52 | 1.258 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 9,5 | 6,9 | 10 | 362 |
| | Pribatua | 14,3 | 9,8 | 18 | 449 |
| **Tamaina** | 21 plaza baino gutxiago | 18,1 | 19,4 | 36 | 575 |
| | 21 plaza edo gehiago | 35,3 | 32,6 | 44 | 1.494 |
| **Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen %** | %25 baino gutxiago | 20,6 | 18,2 | 25 | 542 |
| | %25-49 | 31,9 | 38,4 | 34 | 913 |
| | %50 edo gehiago | 28,9 | 24,8 | 21 | 613 |
| **GUZTIRA** | | **27,6** | **28,9** | **80** | **2.068** |

### 3.2.6. *Zentroaren banaketa unitate edo modulutan*

100eko 42,5 eguneko zentrok erabiltzaile talde zehatzei unitate edo gune bereiziak ematea erabaki dute. Bi modulu mota bereiz daitezke: lagunduak, ezgaitasun larria duten pertsonentzakoak; eta psikogeriatrikoak, narriadura kognitiboa duten pertsonentzakoak. Logikoa denez, aukera hori ohikoagoa da zentro handietan txikietan baino, eta ezgaitasuna edo ezagutzezko narriadura duten erabiltzaileen proportzioarekin zerikusia du.

**138. grafikoa: Arreta moduluak dituzten eguneko zentroak**




## 3.2.7. ***Suteen aurkako babes-neurriak***

Atal honetan aztertuko ditugu eguneko zentroei buruz Dekretuan ezarritako gutxieneko instalazioen eskuragarritasuna eta aipatu arauan agerian ezarririk ez dauden arren egoitzazko zerbitzuei buruzko atalean zehazturik dauden beste neurri batzuk (larrialdietarako planak izatea, langileak prestatzea eta ebakuazio-simulazioak).

Suteen kontra babesteko neurriak hiru kategoriatan taldekatuta daude. Hona hemen hiru kategoriok:

a) Zentroetako ekipamendua eta instalazioak.

   Salbuespen dira suteen kontra babesteko elementu nagusiak ez dituzten zentroak. Eta larrialdietarako irteerak seinaleztatzea da proportziorik handienean betetzen ez dela dirudien beharkizuna. Plaza itunduak dituzten zentro pribatu guztiek betetzen dituzte aztertutako eskaera guztiak. Eta txikienak dira eskaera gutxien betetzen dutenak, seinaleztapenaren alderdi aipatuari dagokionean bereziki.

b) Zentroaren funtzionamenduarekin zerikusia duten elementuak: suterik izanez gero jarduteko urrats eta arau idatziak, langileak prestatzea eta ebakuatze simulazioak egitea.

   Era berean 202/2000 Dekretuak ezarri duenez, eguneko zentroek larrialdietan jarduteko arau argiak izan beharko dituzte, zentroko langile guztiek onartu beharko dituztenak.

**114. taula: Suteen kontrako instalazioak eta ekipamenduak dituzten eguneko zentroak**

| | | Larrialdietarako irteerak seinaleztatzea | | Larrialdietarako argiak | | Su-itzalgailu eramangarriak | | Alarma instalatu eta detektatzea | | Absolutuak guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | *% Zentroak* | *% Plazak* | *% Zentroak* | *% Plazak* | *% Zentroak* | *% Plazak* | *% Zentroak* | *% Plazak* | *Zentroak* | *Plazak* |
| **Lurralde Historikoa** | Araba | 75,0 | 87,2 | 91,7 | 96,3 | 91,7 | 96,3 | 91,7 | 96,3 | 18 | 409 |
| | Bizkaia | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 95,5 | 96,7 | 33 | 908 |
| | Gipuzkoa | 78,3 | 83,9 | 95,6 | 95,9 | 100,0 | 100,0 | 78,3 | 83,9 | 29 | 751 |
| **Titulartasuna** | Publikoa | 79,3 | 86,2 | 94,6 | 96,4 | 97,1 | 98,8 | 85,0 | 89,2 | 52 | 1.258 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 10 | 362 |
| | Pribatua | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 91,4 | 93,3 | 18 | 449 |
| **Tamaina** | 21 plaza baino gutxiago | 73,6 | 75,2 | 95,8 | 97,4 | 95,8 | 97,4 | 77,8 | 76,5 | 36 | 575 |
| | 21 plaza edo gehiago | 97,1 | 97,9 | 97,1 | 97,9 | 100,0 | 100,0 | 97,1 | 97,9 | 44 | 1.494 |
| **GUZTIRA** | | **86,5** | **91,6** | **96,5** | **97,8** | **98,1** | **99,3** | **88,4** | **92,0** | **80** | **2.068** |

**115. taula: Suteen kontra babesteko honako neurri hauen aplikazio maila**

| | | Suterik izanez gero jarduteko arauak ditu | | Langileak suteak prebenitzeari buruzko prestakuntzara sartu dira | | Ebakuazio simulazioak egin dira | | Absolutuak guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | *Zentroen %* | *Plazen %* | *Zentroen %* | *Plazen %* | *Zentroen %* | *Plazen %* | *Zentroak* | *Plazak* |
| **Lurralde Historikoa** | Araba | 58,3 | 79,8 | 44,4 | 70,9 | 44,4 | 63,3 | 18 | 409 |
| | Bizkaia | 79,8 | 84,2 | 60,9 | 63,5 | 35,5 | 32,7 | 33 | 908 |
| | Gipuzkoa | 62,6 | 65,7 | 67,0 | 72,2 | 54,7 | 58,0 | 29 | 751 |
| **Titulartasuna** | Publikoa | 63,4 | 74,4 | 61,6 | 72,5 | 43,4 | 47,4 | 52 | 1.258 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 81,0 | 79,3 | 81,0 | 79,3 | 71,4 | 69,3 | 10 | 362 |
| | Pribatua | 77,1 | 80,5 | 40,0 | 46,8 | 31,4 | 32,1 | 18 | 449 |
| **Tamaina** | 21 plaza baino gutxiago | 53,5 | 57,4 | 45,8 | 53,2 | 37,5 | 42,6 | 36 | 575 |
| | 21 plaza edo gehiago | 81,2 | 84,0 | 70,5 | 73,9 | 50,1 | 50,0 | 44 | 1.494 |
| **GUZTIRA** | | **68,7** | **76,6** | **59,4** | **68,1** | **44,4** | **47,9** | **80** | **2.068** |

Neurriok ez dira betetzen, orokorrean. 100eko 31,3 zentrok ez dute jarduketa protokolorik. 100eko 40,6 zentrotako langileak ez dira behar bezala prestatu. Eta 100eko 55,6 zentrotan ez da ebaluazio simulaziorik egin azken urteetan.

Garrantzi handiko alderdi honetan, zentroek eurek ikusi eta zainpetutako mentsa larria da, beraz.

Espero izatekoa zenez, suterik izanez gerozko prebentzio neurriak ez dira kontuan hartzen zentro txikietan bereziki. Eta, titulartasunari dagokionez, plaza itunduak dituzten zentro pribatuak hobeto daude gai honi dagokionean.

c) Larrialdietarako plana eskuratu eta suteak itzaltzeko zerbitzuei eta Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ongizate eta Hiritar Babes Sailei bidaltzea.

Neurriok ez daude Dekretuan eguneko zentroen gainean ezarririk, egoitzazko zerbitzuak araupeturik dituen arauan baizik. Hala ere, haietarik askok betetzen dituzte. Euskal Autonomia Erkidegoko 100eko 77,5 zentrok –plazen %84,6 hartzen baitute– suterik izanez gero erabiltzekoa den larrialdietarako plana dute. Arabako zentroen erdiek (arreta egunez emateko zentroetan dauden plazen %25,7 baitute) ez dute planik, ezta Bizkaiko 100eko 15,6k (erdia publikoa eta erdia pribatua) edo Gipuzkoako 100eko 13,3k (kasu horretan publikoak) ere.

**116. taula: Suteen kontrako larrialdi plana duten zentroak**

| | | Zentroak | | Plazak | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | *Abs.* | % | *Abs.* | % |
| **Lurralde Historikoa** | Araba | 18 | 50,0 | 409 | 74,3 |
| | Bizkaia | 33 | 84,4 | 908 | 87,5 |
| | Gipuzkoa | 29 | 86,7 | 751 | 86,8 |
| **Titulartasuna** | Publikoa | 52 | 70,2 | 1.258 | 79,3 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 10 | 100,0 | 362 | 100,0 |
| | Pribatua | 18 | 85,7 | 449 | 87,2 |
| **Tamaina** | 21 plaza baino gutxiago | 36 | 67,4 | 575 | 74,3 |
| | 21 plaza edo gehiago | 44 | 85,8 | 1.494 | 88,6 |
| **GUZTIRA** | | **80** | **77,5** | **2.068** | **84,6** |

Suteen kontrako larrialdi plana duten zentrorik gehienek ez diete plan hori egoitzen kasuan manuzkoa den sailei bidali. Zehazki, Eusko Jaurlaritzaren Hiritar Babes Sailari 100eko 44,1 zentrok bakarrik helarazi diote.

**117. taula: Larrialdi plana dagokien erakundeei bidaltzen dieten zentroak**

| | | **Plana suteak itzaltzeko zerbitzuei bidali diete** | | **Plana Eusko Jaurlaritzaren GO Sailari bidali diote** | | **Plana Eusko Jaurlaritzaren Herritar Babes Sailari bidali diote** | | **Absolutuak guztira** | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | % *Zentroak* | % *Plazak* | % *Zentroak* | % *Plazak* | % *Zentroak* | % *Plazak* | *Zentroak* | *Plazak* |
| **Lurralde Historikoa** | Araba | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 9 | 304 |
| | Bizkaia | 74,9 | 82,1 | 80,4 | 83,7 | 12,0 | 9,7 | 28 | 794 |
| | Gipuzkoa | 72,9 | 70,0 | 75,0 | 73,4 | 69,7 | 67,7 | 25 | 652 |
| **Titulartasuna** | Publikoa | 71,3 | 75,6 | 76,5 | 77,3 | 55,1 | 59,1 | 36 | 997 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 53,3 | 59,6 | 58,8 | 65,9 | 53,3 | 59,6 | 11 | 362 |
| | Pribatua | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 16,7 | 14,3 | 15 | 392 |
| **Tamaina** | 21 plaza baino gutxiago | 68,6 | 70,6 | 81,3 | 84,5 | 45,0 | 48,6 | 24 | 427 |
| | 21 plaza edo gehiago | 78,6 | 79,7 | 77,6 | 78,0 | 43,9 | 47,4 | 38 | 1.323 |
| **GUZTIRA** | | **75,8** | **78,1** | **78,6** | **79,1** | **44,1** | **47,6** | **62** | **1.750** |

## 3.3. **Beharkizun funtzionalak**

Jarraian aztertuko dugu zein mailatan ezarri diren erabiltzaileen eskubideak bermatzeko eta arretaren kalitatea hobetzeko oinarrizko beharkizunak. Berme-neurriak bi kategoriatan banatuta daude; hona hemen bi kategoriok:

- Legez eskatu ahal diren neurriak: barne araubideko arautegia, erreklamazioetarako prozedura, iradokizun-ontzia, prezioen tarifak eta beroriek ukitzen dituzten zerbitzuak eta zerbitzuaren izaera eta baldintzak ezartzen dituen banakako kontratu bateko sinadura.

- Adineko pertsonentzako eguneko zentroei buruz Dekretuan eskatu ez diren baina gomendatzeko modukoak diren neurriak: zentroaren funtzionamenduaren ebaluazioak, kalitatea bermatzeko eta hobetzeko sistema aplikatzea, eta lan arriskuak prebenitzeko plana.

Lehenengo taldeko eskaerei dagokienez, emaitzek erakusten dute ezen zentrorik gehienek aipatu agiriak dituztela.

**139. grafikoa: Eskatutako beharkizun funtzionalak betetzen dituzten zentroetako plazen proportzioa**




118. taulan ikus daiteke legezko beharkizunak oro betetzen dituzten zentroen proportzioa –eta plazetako baliokidea–, lurraldearen, tamainaren, titulartasunaren eta mendekotasun larria duten pertsonen proportzioaren arabera.

**118. taula: Eskatutako beharkizun funtzionalak betetzen dituzten eguneko zentroak eta plazak**

| | | Barne arautegia | | Kexa edo erreklamazio prozedura | | Erreklamazio liburu edo orri erraz ikusten dena | | Errazki atzitu eta ikusi ahal den iradokizun ontzia | | Eskaintzen diren zerbitzuen eta egonaldiaren kostua, idatzizkoa | | Erabiltzaile bakoitzarekiko baterako kontratu agiria | | Batez besteko % | | Abs. | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | % *Zentroak* | % *Plazak* | % *Zentroak* | % *Plazak* | % *Zentroak* | % *Plazak* | % *Zentroak* | % *Plazak* | % *Zentroak* | % *Plazak* | % *Zentroak* | % *Plazak* | % *Zentroak* | % *Plazak* | *Zentroak* | *Plazak* |
| **Lurralde Historikoa** | Araba | 66 ,7 | 83,5 | 52,8 | 76,4 | 51,5 | 67,9 | 69,4 | 85,6 | 61,1 | 72,5 | | | 50,3 | 64,3 | 18 | 409 |
| | Bizkaia | 96,2 | 97,8 | 89,4 | 90,6 | 92,1 | 94,4 | 84,4 | 87,7 | 88,2 | 90,4 | 100,0 | 100,0 | 91,7 | 93,5 | 33 | 908 |
| | Gipuzkoa | 92,1 | 87,7 | 96,6 | 96,7 | 100,0 | 100,0 | 91,1 | 91,8 | 76,4 | 73,7 | 60,0 | 57,7 | 86,0 | 84,6 | 29 | 751 |
| **Titulartasuna** | Publikoa | 83,6 | 90,5 | 80,8 | 89,9 | 80,7 | 86,7 | 76,5 | 82,6 | 71,6 | 76,8 | | | 78,6 | 85,3 | 52 | 1.258 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 90,5 | 83,4 | 90,5 | 93,1 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 71,4 | 71,0 | 61,9 | 57,4 | 85,7 | 84,1 | 10 | 362 |
| | Pribatua | 100,0 | 100,0 | 88,6 | 88,0 | 94,3 | 96,9 | 94,3 | 96,9 | 100,0 | 100,0 | 94,3 | 96,9 | 95,2 | 96,4 | 18 | 449 |
| **Tamaina** | 21 plaza baino gutxiago | 79,9 | 84,8 | 69,4 | 75,4 | 71,4 | 75,6 | 74,3 | 77,5 | 76,4 | 80,4 | 91,7 | 93,3 | 77,2 | 81,2 | 36 | 575 |
| | 21 plaza edo gehiago | 94,8 | 93,8 | 95,5 | 95,6 | 97,7 | 97,0 | 91,0 | 93,1 | 79,0 | 81,0 | 75,0 | 74,4 | 88,8 | 89,1 | 44 | 1.494 |
| **Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen proportzioa** | %25 baino gutxiago | 77,0 | 86,6 | 67,1 | 81,3 | 70,6 | 84,4 | 73,5 | 80,4 | 71,5 | 78,9 | 85,2 | 89,1 | 74,1 | 83,4 | 25 | 542 |
| | %25-49 | 92,6 | 91,8 | 92,6 | 94,0 | 96,9 | 95,0 | 91,8 | 95,0 | 88,8 | 90,1 | 100,0 | 100,0 | 93,8 | 94,3 | 34 | 913 |
| | %50 edo gehiago | 93,9 | 94,8 | 89,3 | 91,8 | 88,2 | 91,8 | 82,1 | 86,8 | 67,7 | 68,7 | 53,8 | 35,8 | 79,2 | 78,3 | 21 | 613 |
| **GUZTIRA** | | **88,1** | **91,3** | **83,8** | **90,0** | **86,4** | **91,3** | **83,5** | **88,7** | **77,8** | **80,8** | **82,1** | **79,3** | **83,6** | **86,9** | **80** | **2.068** |

Agiriren bat ez izatea ohikoagoa da Araban. Izan ere, EALZ zentroak, gogoratuko den bezala hamar edo hamabosna plaza duten eta titulartasun publikokoak direnak, mendekotasun larririk gabeko pertsonentzakoak dira.

Titulartasun publikoko zentro eta erakunde publikoekin plazak ituntzen dituzten pribatu bereziki urriak dira, erabiltzailearen eskubideak eta betebeharrak dituen agiria sinatzen dutenak. Izan ere, orokorrean, plaza publikorik eskainiz gero –itundutako plaza pribatuak barnean sarturik–, plaza emateko ebazpenak kontratu agiriarena egingo du.

Bistan denez, garrantzitsua da erabiltzaileak eta beraren senideek zentroaren barne araubideko arautegia ezagutzea. Horri dagokionez, 100eko 70etatikrduradunek baino gehiagok ziurtatu dute ezen agiria ematen dutela hura zentroratzen den unean edo aurretiko bisitan. 100eko ia 20k bestelako informabideak adierazi dituzte. Informabideok ez dute emate formala inoiz baztertu beharko eta gehien jota osagarriak dira

**119. taula: Eguneko zentroetan arautegia ezagutarazteko modua**

| Arautegia ezagutarazteko modua | Zentroen % |
|---|---|
| hura zentroratzen den unean edo aurretiko bisitan ematen da | 67,1 |
| hura zentroratzen den unean edo aurretiko bisitan ematen da eta iragarki ohol batean edo batzuetan erakusten da | 4,3 |
| Ez da hura zentroratzen den unean ematen baina haren eduki nagusiak ahoz azaltzen dira | 11,4 |
| Iragarki oholean erakutsita egoten da | 5,7 |
| Beste erabiltzaile batzuen bitartez ezagutzen doa erabiltzailea | 1,4 |
| Ed/ede | 10,0 |
| Guztira | 100,0 |
| **ABSOLUTUAK GUZTIRA** | **80** |

Kalitatea bermatzeko eta hobetzeko sistema eta ebaluazioen aplikazio maila ohikoagoa da eguneko zentroetan egoitzazko zerbitzuetan baino. Bi herenak ebaluatu dira haien kasuan; eta %30, egoitzen kasuan. Kalitatea bermatzeko sistemei dagokienez, haiek aplikatzen dituzten eguneko zentroen eta egoitza-zentroen proportzioak %40koa eta %20koa dira, hurrenez hurren.

**140. grafikoa: Gomendatutako arauak ezarrita dauden zentroetako plazen proportzioa**



Zentroen ebaluazioa ohikotxoagoa da Araban eta Gipuzkoan Bizkaian baino. Kalitate sistemak aplikatzea ohikoagoa da Gipuzkoan, itundutako zentro pribatuetan. Prozedurok ezartzeak ez du zerikusirik zentroen tamainarekin ez zentrootan zaintzen dituzten ezgaitasun larriko pertsonen proportzioarekin.

Laneko arriskuak prebenitzeko planaren ezarpen maila eguneko zentroak araupeturik dituen Dekretuarekin bat etorririk eskatu ahal diren eskaeren kasuan ikusitakoaren antzekoa da.

**120. taula: Gomendatutako arauak ezarririk dauden zentroak eta plazak**

| | | Funtzionamenduaren ebaluazioa | | Kalitatea bermatzeko eta hobetzeko sistema | | Laneko arriskuak prebenitzeko plana | | Absolutuak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | *Zentroen %* | *Plazen %* | *Zentroen %* | *Plazen %* | *Zentroen %* | *Plazen %* | *Zentroak* | *Plazak* |
| Lurralde Historikoa | Araba | 77,8 | 87,4 | 11,1 | 14,4 | 66,7 | 85,3 | 18 | 409 |
| | Bizkaia | 49,8 | 58,2 | 26,4 | 34,5 | 92,4 | 93,7 | 33 | 908 |
| | Gipuzkoa | 77,3 | 71,8 | 53,7 | 59,8 | 79,8 | 78,2 | 29 | 751 |
| Titulartasuna | Publikoa | 81,5 | 84,2 | 28,4 | 34,9 | 81,0 | 88,2 | 52 | 1.258 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 47,6 | 51,5 | 66,7 | 73,0 | 81,0 | 79,3 | 10 | 362 |
| | Pribatua | 31,4 | 40,1 | 25,7 | 26,5 | 85,7 | 87,2 | 18 | 449 |
| Tamaina | 21 plaza baino gutxiago | 61,8 | 61,4 | 26,4 | 29,9 | 79,2 | 85,6 | 36 | 575 |
| | 21 plaza edo gehiago | 69,6 | 71,8 | 38,1 | 43,5 | 84,4 | 86,7 | 44 | 1.494 |
| **GUZTIRA** | | **66,1** | **68,9** | **32,8** | **39,7** | **82,1** | **86,4** | **80** | **2.068** |

## 3.4. **Funtzionamendua**

### 3.4.1. ***Zentroko egonaldia, ordutegiak eta hura irekitzen den egunak***

*a) Egonaldia*

Zentroen arduradunen informaziotik ondorioztatu dugunez, erabiltzaileak zentroetan batez beste 8,4 orduz jarraian egoten dira, gutxienez 5,5 orduz eta gehienez 12z.

**121. taula: Zentroetan egoten den orduak. Batezbestekoa, gehienekoa eta gutxienekoa**

| | | Erabiltzaileak zentroan egoten diren ordu kop. | | |
|---|---|---|---|---|
| | | *Batezbestekoa* | *Gehienekoa* | *Gutxienekoa* |
| Lurraldea | Araba | 7,8 | 10,0 | 5,5 |
| | Bizkaia | 8,8 | 10,0 | 7,0 |
| | Gipuzkoa | 8,2 | 12,0 | 7,0 |
| Titulartasuna | Publikoa | 8,1 | 10,0 | 5,5 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 9,0 | 12,0 | 7,5 |
| | Pribatua | 8,9 | 10,0 | 7,0 |
| Tamaina | 20 plaza baino gutxiago | 7,8 | 12,0 | 5,5 |
| | 21-40 plaza | 8,8 | 10,0 | 7,0 |
| Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen % | %25 baino gutxiago | 8,1 | 10,0 | 5,5 |
| | %25-49 | 8,6 | 12,0 | 6,0 |
| | %50 edo gehiago | 8,2 | 10,0 | 7,0 |
| **GUZTIRA** | | **8,4** | **12,0** | **5,5** |

100eko 44 zentrotan, erabiltzaileen egonaldia bederatzi ordutik gorakoa da, antzeko proportzioan, zazpi-bederatzi orduz egoten baitira; eta ehuneko gainerako 11,2etan, zazpi orduz baino gutxiagoz.

**122. taula: Zentroetan egoten den orduak**

| Erabiltzailerik gehienak zentroetan egoten diren batez besteko ordu kop. | Zentroen % |
|---|---|
| 5-7 | 11,2 |
| 7-9 | 44,5 |
| 9 baino gehiago | 44,2 |
| Guztira | 100,0 |
| Absolutuak | 80 |

*b) Zentroak irekitzen diren ordutegiak*

Zentroen laurdenak goizeko zortzi-bederatzietan irekitzen dira; erdiak baino gehiago, goizeko bederatzi-hamarretan; eta gainerakoak, hamar-hamaika eta erdietan. Ixteko ordurik ohikoena arratsaldeko sei eta zazpi bitartekoa da. Baina 100eko 18,4 zentroren erabiltzaileek arratsaldeko bost eta sei bitartean egiten dute alde; eta 100eko 15enek, zazpiak jo eta gero.

Ordutegiei dagokieneko funtsezko lurralde diferentzia honako hau da: Arabako zentroen erdietan baino gehiagotan, erabiltzaile multzorik handiena goizeko hamaikez geroztik sartzen da. Izan ere, egia esan, ELZen erabiltzaileak zentrootara hamaiketakorako joaten dira bereziki, eta hamaiketakoa baino bi ordu lehenago eta geroago egoten dira. Gainerakoan, Gipuzkoan zentroratze goiztiarrak , bederatziak baino lehenagokoak, ez dira gainerako lurraldeetan bezain ohikoak. Zentro txikietan, Arabako eraginez nonbait, bai sartzeak bai irteteak egunean zehar banatuago egoten dira. Egoitza pribatuetan, plaza itunduak dituzten nahiz horrelakorik ez dutenetan, beranduko irteerak publikoetan baino ohikoagoak dira.

### 123. taula: Eguneko zentrora heltzeko ordutegia (zentroen %)

| | | 8:00-9:00 | 9.00-10.00 | 10.00-11.00 | 11:00ak jo eta gero | Guztira | Absolutuak guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Lurralde Historikoa | Araba | 38,9 | 5,6 | | 55,6 | 100,0 | 18 |
| | Bizkaia | 32,4 | 63,0 | 4,5 | | 100,0 | 33 |
| | Gipuzkoa | 13,8 | 69,0 | 17,2 | | 100,0 | 29 |
| Titulartasuna | Publikoa | 28,3 | 44,8 | 9,6 | 17,3 | 100,0 | 52 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 38,1 | 47,6 | 14,3 | | 100,0 | 10 |
| | Pribatua | 17,1 | 77,1 | | 5,7 | 100,0 | 18 |
| Tamaina | 21 plaza baino gutxiago | 20,8 | 33,3 | 18,1 | 27,8 | 100,0 | 36 |
| | 21 plaza edo gehiago | 32,3 | 67,7 | | | 100,0 | 44 |
| Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen % | %25 baino gutxiago | 15,6 | 50,5 | | 33,9 | 100,0 | 25 |
| | %25-49 | 41,8 | 39,0 | 14,8 | 4,4 | 100,0 | 34 |
| | %50 edo gehiago | 18,4 | 74,0 | 7,6 | | 100,0 | 21 |
| **GUZTIRA** | | **27,1** | **52,3** | **8,1** | **12,5** | **100,0** | **80** |

### 124. taula: Eguneko zentrotik irteteko ordutegia (zentroen %)

| | | 17.00-18.00 | 18.00-19.00 | 19.00-20.00 | 20.00 | Guztira | Absolutuak guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Lurralde Historikoa | Araba | 33,3 | 66,7 | | | 100,0 | 18 |
| | Bizkaia | 11,4 | 67,0 | 21,7 | | 100,0 | 33 |
| | Gipuzkoa | 17,2 | 64,5 | 14,8 | 3,4 | 100,0 | 29 |
| Titulartasuna | Publikoa | 23,6 | 68,9 | 7,6 | | 100,0 | 52 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 14,3 | 47,6 | 28,6 | 9,5 | 100,0 | 10 |
| | Pribatua | 5,7 | 68,6 | 25,7 | | 100,0 | 18 |
| Tamaina | 21 plaza baino gutxiago | 38,2 | 43,1 | 18,8 | | 100,0 | 36 |
| | 21 plaza edo gehiago | 2,3 | 84,8 | 10,6 | 2,3 | 100,0 | 44 |
| Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen % | %25 baino gutxiago | 22,0 | 68,1 | 6,0 | 4,0 | 100,0 | 25 |
| | %25-49 | 22,9 | 58,2 | 18,9 | | 100,0 | 34 |
| | %50 edo gehiago | 7,6 | 74,6 | 17,8 | | 100,0 | 21 |
| **GUZTIRA** | | **18,4** | **66,0** | **14,3** | **1,2** | **100,0** | **80** |

Orokorrean, zentroen arduradunek esan dute ezen ordutegiak erabiltzaileen beharrizanetara ondo doitzen direla. 100eko 9 zentroren –horiek guztiak publikoak dira– arduradunek bakarrik adierazi dute ezen erabiltzaileek etxetik zentrora joateko oso goiz irten behar dutela edo berauen zaintzaileei ordutegi zabalagoa hobeto datorkiela.

Onartuta dagoenez, eguneko zentroen antolakuntzak ahalik eta ordutegi malguena izan behar du, zertarako-eta erabiltzaileen beharrizanei hobeto egokitzeko. Gai horren inguruko bi galdera zeuden galdera-sortan: bata, zentroa ordutegiaren zati batean bakarrik, esate baterako, goizez bakarrik edo arratsaldez bakarrik, erabiltzeko aukerari buruzkoa, "ordutegi partziala" deiturikoari dagokion aukerari buruzkoa; eta bestea, erabilpen malguari buruzkoa, hau da, erabiltzaileen beharrizanen edo nahien arabera beranduago heltzeko edo lehenago alde egiteko aukerari buruzkoa.

Arduradunik gehienek –%86,7k– esan dutenez, beraien zentroek goizez edo arratsaldez nahierara joateko aukera ematen dute, hau da, saio partzialeko aukera, erabiltzaileen nahi eta beharrizanen arabera. Dirudienez, eskaintza malguagoa da Araban, zentro txikietan eta beregaintasun murrizketa arinak dituzten pertsonen proportzio handiagoa zaintzen duten zentroetan –125. taulako 1. zut.–.

Hala ere, gauza bat da zentroa malgutasunez erabiltzeko aukera teorikoa, eta besterik aukera praktikoa. Horri buruz esan behar denez, 100eko 27,8 zentro (2. zut.) beren erabiltzaileek ez dituzte denbora osoan erabiltzen. Eta kopurua are txikiagoa da zentrora ordu partzialean joaten den benetako erabiltzaile portzentajea kontuan hartzen badugu (3. zut.). Izan ere, hori %3,3k bakarrik egiten du. Zentro pribatuetan eta mendekotasun maila txikiagoa denetan erabiltzen dute zerbitzua modurik malguenean, beti oso urriki baina. Egin-eginean, azken datu hori azpimarratu behar da.

### 125. taula: Zentroa ordutegi partzialean eta malguan erabiltzea

| | | 1<br>Ordu partzialean joateko alternatiba ematen duten zentroen % | 2<br>Zenbait erabiltzaile ordutegi partzialean joaten diren zentroen % | 3<br>Ordutegi partzialean joaten diren erabiltzaileen % | 4<br>Zenbait erabiltzaile ordutegi malguan joaten diren zentroen % | 5<br>Zenbait erabiltzaile ordutegi partzialean edo/eta malguan joaten diren zentroen % | Zentroak guztira | Erabiltzaileak guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Lurralde Historikoa | Araba | 25,0 | 94,4 | 4,3 | 58,3 | 83,3 | 18 | 351 |
| | Bizkaia | 42,9 | 84,7 | 5,0 | 36,2 | 63,5 | 33 | 649 |
| | Gipuzkoa | 12,3 | 84,2 | 0,9 | 47,8 | 55,7 | 29 | 619 |
| Titulartasuna | Publikoa | 18,7 | 87,3 | 2,0 | 50,6 | 61,7 | 52 | 1.088 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 9,5 | 81,0 | 0,8 | 61,9 | 71,4 | 10 | 252 |
| | Pribatua | 65,7 | 88,6 | 10,7 | 20,0 | 71,4 | 18 | 280 |
| Tamaina | 20 plaza baino gutxiago | 28,5 | 93,7 | 3,9 | 45,1 | 66,0 | 36 | 491 |
| | 21-40 plaza | 27,2 | 81,0 | 3,0 | 45,6 | 64,4 | 44 | 1.128 |
| Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen % | %25 baino gutxiago | 57,5 | 92,0 | 12,1 | 36,1 | 78,0 | 25 | 368 |
| | %25-49 | 15,6 | 92,9 | 0,9 | 53,9 | 69,6 | 34 | 754 |
| | %50 edo gehiago | 12,0 | 70,5 | 1,0 | 42,7 | 65,1 | 21 | 498 |
| **GUZTIRA** | | **86,7** | **27,8** | **3,3** | **45,4** | **65,1** | **80** | **1.620** |

Eguneko zentroak nahierara erabiltzeko aukera, hau da, erabiltzaileen egoeraren arabera zentroratze eta irteera orduak aldatzeko aukera –4. zut.–, ohikoagoa da haiek ordu partzialean erabiltzea. Horrela erabiltzen dituzte zentroen ia erdiek. Horrek zerikusi handia du haien titulartasunarekin: itunduriko zentro pribatuetan eta publikoetan pribatuagoetan baino ohikoagoa da.

Guztira –zut. 5– 100eko 65 zentrotan, zerbitzua halako malgutasun batez (ordutegi partzialean edo nahierarakoan) erabiltzen duten erabiltzaileak daude. Ehuneko gainerako 35etara egunero eta irekitze ordutegi osoan egotera zehar erabiltzaile guztiak joaten dira.

*c) Asteburuetan irekitzea*

100eko zentroen %24,7 (plazen %22,7 baita) asteburuetan irekitzen da. Arraroa da hori Araban, ez oso ohikoa Bizkaian eta ohiko samarra Gipuzkoan. Egin-eginean ere, lurralde horretako zentroen erdi baino gehiagotako ateak (100eko 51,2takoak) asteburuan irekitzen dituzte. Ez da hain ohikoa zentro handiak asteburuetan ibiltzea. Eta, titulartasunari dagokionez, plaza itunduak dituzten zentro pribatuak (horrelako araubidea ugari da Gipuzkoan, ikusi den bezala) dira asteburuetan sarrienetan ibiltzen direnak. Zentroak asteburuetan irekitzeak ez du ezgaitasun larria duten erabiltzaileen proportzioarekin zerikusirik.

**126. taula: Eguneko zentroak asteburuetan egun irekitzea**

| | | Asteburuetan zabalik dauden zentroen % | Plazen % asteburuetan zabalik dauden zentroetan | Asteburuetan zabalik dauden zentroen erabiltzaileen artean asteburuetan zentroratzen den % | Eguneko zentroen erabiltzaile guztiei begira asteburuetan zentroratzen diren erabiltzaileen % | Absolutuak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | Zentroak | Plazak | Erabiltzaileak |
| Lurralde Historikoa | Araba | 5,6 | 3,4 | 100,0 | 4,7 | 18 | 409 | 351 |
| | Bizkaia | 11,8 | 11,0 | 58,9 | 8,1 | 33 | 908 | 649 |
| | Gipuzkoa | 51,2 | 47,3 | 59,1 | 35,6 | 29 | 751 | 619 |
| Titulartasuna | Publikoa | 19,7 | 17,2 | 65,9 | 15,6 | 52 | 1.258 | 1.088 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 47,6 | 41,2 | 53,8 | 27,8 | 10 | 362 | 252 |
| | Pribatua | 25,7 | 23,2 | 57,7 | 20,2 | 18 | 449 | 280 |
| Tamaina | 21 plaza baino gutxiago | 26,4 | 29,9 | 58,3 | 17,9 | 36 | 575 | 491 |
| | 21 plaza edo gehiago | 23,3 | 19,9 | 61,6 | 14,7 | 44 | 1.494 | 1.128 |
| Ezgaitasun larriko erabiltzaileen proportzioa | %25 baino gutxiago | 12,0 | 13,5 | 70,0 | 10,4 | 25 | 542 | 368 |
| | %25-49 | 31,9 | 27,5 | 56,9 | 20,5 | 34 | 913 | 754 |
| | %50 edo gehiago | 30,1 | 23,7 | 62,3 | 22,0 | 21 | 613 | 498 |
| **GUZTIRA** | | **24,7** | **22,7** | **60,4** | **18,4** | **80** | **2.068** | **1.620** |

Zerbitzua larunbat eta igandeetan erabiltzeko aukera ederki onartuta bide dago kontuan hartzen bada ezen bera ematen den 100eko ia 60 kasutan benetan erabiltzen dela. Gainera, asteburuetan itxita dauden zentroen arduradunen %61en ustez, zerbitzua gutxienez astelehenetik ostiralera joaten diren ehuneko hogei erabiltzailerentzat baino gehiagorentzat izango litzateke beharrezkoa.

**127. taula: Zentroak asteburuetan erabili beharra**

| | | Asteburuetan ireki beharreko zentroen % | Haiek asteburuetan irekitzea beharrezko konponbidetzat jo duten 100eko erabiltzaileak | Guztirako zentro kop. | Erabiltzaileak guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Lurralde Historikoa | Araba | 61,1 | 2,7 | 18 | 351 |
| | Bizkaia | 66,1 | 34,1 | 33 | 649 |
| | Gipuzkoa | 55,7 | 21,3 | 29 | 619 |
| Titulartasuna | Publikoa | 57,6 | 23,1 | 52 | 1.088 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 47,6 | 9,8 | 10 | 252 |
| | Pribatua | 80,0 | 25,1 | 18 | 280 |
| Tamaina | 21 plaza baino gutxiago | 58,3 | 21,5 | 36 | 491 |
| | 21 plaza edo gehiago | 63,5 | 22,3 | 44 | 1.128 |
| Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen % | %25 baino gutxiago | 62,5 | 32,0 | 25 | 368 |
| | %25-49 | 61,0 | 10,8 | 34 | 754 |
| | %50 edo gehiago | 57,3 | 29,5 | 21 | 498 |
| **GUZTIRA** | | **61,2** | **22,1** | **80** | **1.620** |

### 3.4.2. *Zentroa erabiltzaileen beharrizanei egokitzea*

Gipuzkoako zentroen arduradunek, zentro publikoenek eta ezgaitasuna duten pertsonen proportzio handiagoa zaintzen dutenenek ziurtatu dute zerbitzua ez dela haien erabiltzaile batzuentzat egokia. Aipatutako arrazoiak mendekotasunaren larritasuna eta etxean behar besteko laguntzarik ez izatea dira. Horri buruz kontuan hartu behar da ezen, arduradun horiek esan dutenaren arabera, eguneko zentroen egungo erabiltzaileen %1,4k ez du, mendeko hogei pertsonak soilik, behar besteko laguntzarik bere etxebizitzan. Horrek nonbait adierazten duenez, orokorrean, hurbileko laguntza ez-formalik ez duten pertsonek ezin dute baliabide hori aukeratu eta, banakako beharrizanei hobeto egokitzekotan, etxean laguntza formal edo ez-formal handiagoa eman behar zaie.

**128. taula: Zentroen arduradunen iritzia, eguneko zentroa egungo erabiltzaileei egokitzeari buruzkoa**

| | | Zenbait erabiltzailerentzat egokia ez den alternatibatzat jotako zentroen % | Zenbait erabiltzailerentzat egokia ez den alternatibatzat jotako ehuneko zentroetako plazen % | Zentroak guztira | Plazak guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Lurralde Historikoa | Araba | 8,3 | 5,5 | 18 | 409 |
| | Bizkaia | 37,7 | 42,1 | 33 | 908 |
| | Gipuzkoa | 52,2 | 49,0 | 29 | 751 |
| Titulartasuna | Publikoa | 41,5 | 43,3 | 52 | 1.258 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 38,1 | 34,0 | 10 | 362 |
| | Pribatua | 20,0 | 23,4 | 18 | 449 |
| Tamaina | 21 plaza baino gutxiago | 35,4 | 40,1 | 36 | 575 |
| | 21 plaza edo gehiago | 37,1 | 36,3 | 44 | 1.494 |
| Ezgaitasun larria duten erabiltzaileen % | %25 baino gutxiago | 20,6 | 24,8 | 25 | 542 |
| | %25-49 | 36,8 | 31,2 | 34 | 913 |
| | %50 edo gehiago | 51,5 | 57,6 | 21 | 613 |
| **GUZTIRA** | | **36,4** | **37,3** | **80** | **2.068** |

### 3.4.3. ***Elikadura***

Eguneko zentroen herenek (plazen %42,1 harturik dutenek) eguerdiko otorduan bi menuren artean aukeratzeko aukera ematen dute. Zentroen beste heren batean, menu osoko bi aukera ez den arren, plateren baten ordez erraztasunez prestatzen den besteren bat (entsaladak, arrautzopilak, pureak edo elikagai aurrekozinatuak) mahairatzeko aukera ematen dute.

Zentroen titulartasunak eragina bide du bi menuren artean aukeratzeko aukeraren gainean. Aukeratu ahal den zentro pribatu eta publikoen proportzioa plaza itunduak dituzten pribatuena baino handiagoa da. Alabaina, azken zentrootan, oso handia da hautazko plater erraza aukeratzeko aukera.

Tamainari dagokionez, hautazko menua 20na plaza duten ehuneko 8,3 zentrotan bakarrik dago, eta zentro handien erdietan baino gehiagotan eskaintzen da.

**129. taula: Menua aukeratzeko aukera (zentroen %)**

| | | Hautazko menua | Hautazko platera | Ez dute aukeratzen | Guztira | Abs. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lurralde Historikoa | Araba | 44,4 | 22,2 | 33,3 | 100,0 | 18 |
| | Bizkaia | 56,4 | 31,5 | 12,1 | 100,0 | 33 |
| | Gipuzkoa | 7,9 | 36,5 | 55,7 | 100,0 | 29 |
| Titulartasuna | Publikoa | 36,3 | 18,2 | 45,5 | 100,0 | 52 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 23,8 | 66,7 | 9,5 | 100,0 | 11 |
| | Pribatua | 42,9 | 48,6 | 8,6 | 100,0 | 18 |
| Tamaina | 21 plaza baino gutxiago | 8,3 | 36,1 | 55,6 | 100,0 | 36 |
| | 21 plaza edo gehiago | 58,8 | 27,2 | 14,0 | 100,0 | 44 |
| Mendekotasun larria duten erabiltzaileen % | %25etik behera | 35,5 | 35,5 | 28,9 | 100,0 | 25 |
| | %25-49 | 37,8 | 28,2 | 34,0 | 100,0 | 34 |
| | %50 edo gehiago | 34,0 | 31,0 | 35,0 | 100,0 | 21 |
| Narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen % | %50etik behera | 25,7 | 38,9 | 35,4 | 100,0 | 21 |
| | %50 edo gehiago | 39,7 | 28,6 | 31,7 | 100,0 | 59 |
| **GUZTIRA** | | **36,1** | **31,2** | **32,7** | **100,0** | **80** |

Zentro ia guztiek osagileak agindutako dieta bereziak zerbitzatzen dituzte: inkestaren unean, dieta berezirik ezein erabiltzailek eskatzen ez zuelako eskaintzen ez zen tamaina txikiko zentroak zeuden.

Zentrorik gehienetan, 100eko 90,6 zentrotan, bazkariaz gain, otamenen bat eskaintzen da

**130. taula: Bazkariaz gain motaren bateko otamena eskaintzen duten eguneko zentroak**

| Otamenak | % |
|---|---|
| Gosaria, bazkaria eta askaria | 19,0 |
| Gosaria eta askaria | 41,6 |
| Gosaria eta askaria | 16,6 |
| Askaria | 13,4 |
| Ezer ez | 9,4 |
| Guztira | 100,0 |
| **ABSOLUTUAK GUZTIRA** | **80** |

## 3.4.4. ***Higiene beharrizanetarako arreta***

Atal honetan aztertuko ditugu erabiltzaileen beharrizanak eta haien higieneari buruzko oinarrizko gai biri aurre egiteko emandako laguntza, hau da, komun-bainugelen erabilpenei aurre egiteko emandako laguntza,

Komuna erabiltzearekin zerikusia duten arazoen irismena hiru gai baliatuta baloratu da: gernu inkontinentzia, gorotz-inkontinentzia eta komunera eramateko eskatzeko ezgaitasuna.

Eguneko zentroen erabiltzaileen artean gernu edo gorotz inkontinentziaren nagusitasuna %43koa da; eta komunera eramateko eskatzeko zailtasunarena, %22,1ekoa. Logikoa den bezala, arazo biok eragin handiagoa dute ezgaitasun larria edo narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen proportzioa handiagoa den zentroetan.

**131. taula: Inkontinentziaren nagusitasuna eguneko zentroetan**

| | | Gernu edo gorotz inkontinentzia duten 100eko erabiltzaileak | Komunera eramateko eskatzeko gaitasunik ez duten 100eko erabiltzaileak | Erabiltzaileak guztira |
|---|---|---|---|---|
| Mendekotasun larria duten erabiltzaileen % | %25 baino gutxiago | 20,8 | 10,8 | 368 |
| | %25-49 | 46,9 | 19,1 | 754 |
| | %50 edo gehiago | 53,3 | 35,0 | 498 |
| Narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen % | %50 baino gutxiago | 22,5 | 4,6 | 336 |
| | %50 edo gehiago | 48,3 | 26,7 | 1.284 |
| **GUZTIRA** | | **43,0** | **22,1** | **1.620** |

Pertsona inkontinentziadunei komunera hiru-lau aldiz laguntzen zaie, programatuta dagoenaren arabera, eta troxaz bizpahiru aldiz aldatu, zentro motaren arabera.

**132. taula: Eguneko zentroetan zerbitzura laguntzen dieten eta troxaz aldatzen dituzten aldi kopurua**

| | | Programatutakoaren arabera komunera lagundu behar zaien aldi kop. (batezbestekoa) | Egunean zehar troxa aldatzen zaien aldi kop. (batezbestekoa) |
|---|---|---|---|
| Lurralde Historikoa | Araba | 4,6 | 2,4 |
| | Bizkaia | 3,7 | 2,0 |
| | Gipuzkoa | 3,2 | 2,6 |
| Tamaina | 21 plaza baino gutxiago | 3,1 | 2,4 |
| | 21 plaza edo gehiago | 4,0 | 2,3 |
| Titulartasuna | Publikoa | 3,6 | 2,5 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 3,4 | 2,4 |
| | Pribatua | 4,1 | 1,8 |
| Mendekotasun larria duten erabiltzaileen % | %25 baino gutxiago | 3,8 | 1,8 |
| | %25-49 | 3,8 | 2,7 |
| | %50 edo gehiago | 3,3 | 2,3 |
| Narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen % | %50 baino gutxiago | 2,8 | 1,9 |
| | %50 edo gehiago | 3,3 | 2,0 |
| **GUZTIRA** | | **3,7** | **2,3** |

Eguneko zentroen erabiltzaileen erdiak zentroan bertan astean behin edo birritan bainatzen dira zuzeneko arretarako langileen laguntzaz. Proportzioa altuagoa da Araban, Bizkaian baino askoz altuagoa, lehenengo kasuan ezgaitasunaren nagusitasuna txikia den zentro txikien pisua gorabehera. Horrek aldez adierazten du eguneko zentroen erabiltzaileei aplikaturiko "beregain" terminoaren erlatibotasuna. Egia esan, "bainugelarako laguntzen" proportzioa ez da mendekotasun larriko erabiltzaileen

proportzioaren edo eraginkortasun bertikalaren arabera aldatzen. Azkenik adierazi behar dugunez, plaza itundurik ez duten titulartasun pribatuko zentroetan da langileen laguntzaz zentroan bainatzen den erabiltzaile proportzioa txikiena.

**133. taula: Langileen laguntzaz eguneko zentroan bainatzen diren erabiltzaileak**

| | | Erabiltzaile kop. | Erabiltzaileen % | Erabiltzaileak guztira |
|---|---|---|---|---|
| Lurralde Historikoa | Araba | 271 | 77,2 | 351 |
| | Bizkaia | 253 | 38,9 | 649 |
| | Gipuzkoa | 352 | 56,9 | 619 |
| Titulartasuna | Publikoa | 645 | 59,3 | 1.088 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 142 | 56,3 | 252 |
| | Pribatua | 89 | 31,8 | 280 |
| Tamaina | 21 plaza baino gutxiago | 208 | 42,4 | 491 |
| | 21 plaza edo gehiago | 668 | 59,2 | 1.128 |
| Mendekotasun larria duten erabiltzaileen % | %25 baino gutxiago | 170 | 46,4 | 368 |
| | %25-49 | 466 | 61,8 | 754 |
| | %50 edo gehiago | 240 | 43,5 | 498 |
| Narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen % | %50 baino gutxiago | 210 | 55,7 | 336 |
| | %50 edo gehiago | 666 | 51,9 | 1.284 |
| **GUZTIRA** | | **876** | **54,1** | **1.620** |

### *3.4.5.* ***Segurtasunerako laguntza teknikoak: euste fisikoak aplikatzea***

Eguneko zentroen erdietan baino gehiagotan berorien erabiltzaile batzuei euspen fisikoak aplikatzen zaizkie, zertarako-eta mendekotasun fisikoa duten pertsonak erortzea eta narriadura kognitiboa duten pertsonen lesioak eta pertsonok beren buruari erasotzea saihesteko. Orokorrean, aulkiko uhalak erabiltzen dira –eusteren bat aplikatzen den 100eko 86 kasutan–; eta gutxiagotan (100eko gainerako 14 kasuetan), aulki arnesak.

Euspenen bat 100eko 6,4 erabiltzaileri aplikatzen zaie, eta egunean zehar egoitzazko zerbitzuak erabiltzen dituzten 100eko 14,9 erabiltzaileri. Zenbat eta zentroaren ezgaitasun larridun erabiltzaileen portzentajea handia izan, hainbat eta altuagoa da proportzio hori; eta horrek ez du azterturiko gainerako aldagaiekin zerikusiri esanguratsurik.

**134. taula: Euste fisikoen erabilpena**

| | | Euste fisikoak jartzen zaizkien 100eko erabiltzaileak | Euste fisikoak aplikatzen diren 100eko zentroak | Erabiltzaileak guztira | Zentroak guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Lurralde Historikoa | Araba | 6,0 | 44,4 | 351 | 18 |
| | Bizkaia | 4,7 | 50,3 | 649 | 33 |
| | Gipuzkoa | 8,4 | 75,9 | 619 | 29 |
| Titulartasuna | Publikoa | 8,2 | 63,7 | 1.088 | 52 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 2,8 | 81,0 | 252 | 10 |
| | Pribatua | 2,9 | 28,6 | 280 | 18 |
| Tamaina | 21 plaza baino gutxiago | 4,5 | 41,7 | 491 | 36 |
| | 21 plaza edo gehiago | 7,3 | 71,8 | 1.128 | 44 |
| Mendekotasun larria duten erabiltzaileen % | %50 baino gutxiago | 2,4 | 21,2 | 368 | 25 |
| | %25-49 | 7,1 | 59,7 | 754 | 34 |
| | %50 edo gehiago | 8,4 | 100,0 | 498 | 21 |
| Narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen % | %50 baino gutxiago | 1,5 | 30,0 | 336 | 21 |
| | %50 edo gehiago | 7,1 | 68,0 | 1.284 | 59 |
| **GUZTIRA** | | **6,4** | **58,3** | **1.620** | **80** |

Ezin da posta inkestaren bitartez zehaztu jarduteko zein arau zehatz dagoen kasu bakoitzean euste mekanikoak aplikatzeko. Arduradunek adierazi dutenaren arabera, euste mekanikook erabiltzaileren batekin erabiltzen diren 100eko 70 zentrotan baino gehiagotan, jarduteko protokoloa dago eta prozedurari buruzko informazioa erregistratzen da, baina bistan da eginera hori zentro guztietan baliatu behar dutela.

**135. taula: Erabiltzaileren bati euspen-elementuak aplikatzen dizkioten eta protokolorik erabiltzen ez duten edo prozedurari buruzko informazioa erregistratzen ez duten zentroak**

| | | Ez dute protokolorik erabiltzen | | Ez da informazioa erregistratzen | | Abs. guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | *Zentro kop.* | *Zentroen %* | *Zentro kop.* | *Zentroen %* | |
| Lurralde Historikoa | Araba | | | | | 8 |
| | Bizkaia | 7 | 41,2 | 10 | 58,8 | 17 |
| | Gipuzkoa | 6 | 27,2 | 4 | 18,2 | 22 |
| Titulartasuna | Publikoa | 11 | 33,3 | 11 | 33,3 | 33 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 2 | 22,2 | 1 | 11,1 | 9 |
| | Pribatua | | | 2 | 40,0 | 5 |
| Tamaina | 21 plaza baino gutxiago | 4 | 26,6 | 3 | 20,0 | 15 |
| | 21 plaza edo gehiago | 10 | 31,2 | 11 | 34,4 | 32 |
| Mendekotasun larria duten erabiltzaileen % | %25 baino gutxiago | 1 | 20,0 | 3 | 60,0 | 5 |
| | %25-49 | 1 | 5,0 | 1 | 5,0 | 20 |
| | %50 edo gehiago | 11 | 52,4 | 9 | 42,9 | 21 |
| Narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen % | %50 baino gutxiago | | | | | 6 |
| | %50 edo gehiago | 13 | 32,5 | 14 | 35,0 | 40 |
| **GUZTIRA** | | **13** | **28,2** | **14** | **29,0** | **47** |

## 3.5. **Zentroek arretarako eta esku-harmenerako eskaini eta ematen dituzten programak.**

Zerbitzu eta jarduera eskaintza hiru taldetan sailkatu da; hona hemen hiru taldeok:

- Eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretako arretarako zerbitzuak (garbitu eta txukundu, jantzi, jan eta janaria prestatu eta zerbitzatzekoak).

- Osasun zerbitzuak (medikuaren kontsulta, eriak zaintzea, errehabilitazioa, zereginetako terapia eta psikologi edo psikoterapi arreta).

- Kultur, gizarte eta jolas jarduerak eta programak.

### *3.5.1. **Eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretako arreta***

Mendeko adineko pertsonentzako eguneko zentroei buruzko 202/2000 Dekretuak ezarririk duenez, eurek derrigorrez izan behar dute adinekoak bere beregaintasun faltagatik bete ezin dituen beharrizanak estaltzeko oinarrizko arreta pertsonalerako zerbitzua. Halaber, jateko zerbitzua izan beharko dute.

Azterketaren emaitzek erakusten dutenez, zentro guztiek zuzeneko arretarako langileak dituzte, eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretarako laguntza behar duten erabiltzaileei ematen dietenak. Gainera, jantoki zerbitzua dute guztiek.

### *3.5.2. **Osasun zerbitzuak***

Osasun arretako zerbitzuak aukerakoak dira 202/2000 Dekretuaren arabera. Hala ere, zentrorik gehienek eriak zaintzeko eta zereginetako terapiarako zerbitzua dute; eta erdiek, medikuaren kontsulta, errehabilitazioa eta psikologi laguntza.

Osasun zerbitzuen eskaintzan eragina duen faktore nagusia zentroaren tamaina da. Logikoa denez, halako laguntza maila bat duten pertsonentzako zentro txikiek ez dute zerbitzu medikorik eta beraien erabiltzaileek erkidego zerbitzuetara jotzen dute.

Erizaintzako zerbitzua plaza itunduak dituzten zentro pribatu guztietan dago. Aztertutako gainerako osasun zerbitzuen zuzkidura handiagoa da plaza itundurik gabeko zentro pribatuetan. Erizaintzako eta zereginetako terapiako zerbitzuei dagokienean, ezgaitasun larria duen erabiltzaile proportzioarekin lotuenik daudenak dira.

**136. taula: Zerbitzu sanitario eta parasanitarioen zuzkidura**

| | | Kontsulta medikoa | | Erizaintzako zerbitzua | | Errehabilitazioa | | Zereginetako terapia | | Psikoterapia | | Absolutuak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | *zentroen %* | *plazen %* | *zentroen %* | *plazen %* | *zentroen %* | *plazen %* | *zentroen %* | *plazen %* | *zentroen %* | *plazen %* | *zentroak* | *plazak* |
| Lurralde Historikoa | Araba | 44,4 | 70,9 | 44,4 | 70,9 | 44,4 | 70,9 | 66,7 | 85,3 | 50,0 | 74,3 | 18 | 409 |
| | Bizkaia | 66,1 | 67,9 | 91,7 | 94,5 | 76,1 | 80,8 | 88,5 | 85,4 | 64,5 | 70,7 | 33 | 908 |
| | Gipuzkoa | 46,8 | 47,3 | 73,9 | 79,6 | 43,3 | 47,5 | 93,1 | 94,9 | 39,1 | 41,4 | 29 | 751 |
| Titulartasuna | Publikoa | 44,0 | 53,8 | 65,7 | 77,9 | 53,2 | 65,2 | 81,2 | 84,7 | 40,8 | 57,2 | 52 | 1.258 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 61,9 | 57,4 | 100,0 | 100,0 | 61,9 | 65,7 | 81,0 | 89,5 | 52,4 | 40,5 | 10 | 362 |
| | Pribatua | 80,0 | 84,1 | 85,7 | 90,2 | 65,7 | 71,8 | 100,0 | 100,0 | 85,7 | 87,2 | 18 | 449 |
| Tamaina | 21 plaza baino gutxiago | 44,4 | 48,7 | 50,7 | 54,9 | 40,3 | 43,2 | 77,8 | 82,9 | 26,4 | 29,4 | 36 | 575 |
| | 21 plaza edo gehiago | 66,2 | 65,7 | 94,2 | 95,8 | 70,8 | 75,8 | 91,4 | 91,1 | 73,2 | 72,8 | 44 | 1.494 |
| Mendekotasun larria duten erabiltzaileen % | %25 baino gutxiago | 35,9 | 46,6 | 61,1 | 77,1 | 35,5 | 48,8 | 76,4 | 83,9 | 49,5 | 61,3 | 25 | 542 |
| | %25-49 | 71,1 | 76,4 | 76,4 | 85,2 | 74,0 | 82,9 | 82,6 | 84,2 | 45,5 | 54,9 | 34 | 913 |
| | %50 edo gehiago | 48,9 | 55,9 | 87,8 | 85,8 | 55,5 | 60,6 | 100,0 | 100,0 | 66,0 | 80,9 | 21 | 613 |
| Narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen % | %50 baino gutxiago | 35,9 | 51,6 | 50,0 | 67,2 | 33,0 | 40,7 | 64,1 | 75,4 | 49,5 | 65,9 | 21 | 414 |
| | %50 edo gehiago | 60,5 | 63,4 | 83,1 | 88,7 | 65,4 | 73,3 | 92,6 | 92,2 | 53,1 | 59,5 | 59 | 1.654 |
| **GUZTIRA** | | **54,2** | **61,0** | **74,6** | **84,4** | **57,1** | **66,7** | **85,3** | **88,8** | **52,2** | **60,8** | **80** | **2.068** |

Osasun zerbitzuak eskuratu ahal izateak garrantzi handi edo txikiagoa du erabiltzaileen ezaugarrien arabera. Horren ondorioz, zentroetan psikologi arretako eta errehabilitazioko zerbitzurik dagoen baloratu da. Horretarako, narriadura kognitiboa eta ezgaitasun fisikoa duen erabiltzaile kopurua kontuan hartu da; hona hemen lorturiko emaitzak:

- Narriadura kognitiboa duten 100eko 58,8 erabiltzaile psikologi arretako zerbitzuak dauden zentroetara joaten dira. Araban gertatzen da horrelako zerbitzua atzitu ahal duen eta ukiturik dagoen pertsona proportziorik handiena; eta Gipuzkoan, txikiena.

- Ezgaitasun fisikoa duten 100eko 62,3 erabiltzailek joaten diren eguneko zentroan errehabilitazio motaren bat atzitu ahal dute. Kasu horretan, estaldurarik handiena Bizkaikoa da: bertan fisikoki mendekoak diren 100eko 87,1 erabiltzailek errehabilitazio zerbitzua dagoen eguneko zentroak erabiltzen dituzte.

**137. taula: Errehabilitazio eta psikologi arretako zerbitzuak**

| | | Narriadura kognitiboa duten eta psikologi laguntzako zentrora joaten diren 100eko erabiltzaileak | Errehabilitazio zerbitzua duten eguneko zerbitzuetara joaten diren 100eko erabiltzaile fisikoki mendekoak | Erabiltzaileak guztira |
|---|---|---|---|---|
| Lurralde Historikoa | Araba | 94,4 | 80,0 | 351 |
| | Bizkaia | 68,9 | 87,1 | 649 |
| | Gipuzkoa | 36,9 | 39,8 | 619 |
| Titulartasuna | Publikoa | 59,1 | 65,2 | 1.088 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 31,9 | 53,2 | 252 |
| | Pribatua | 83,2 | 63,8 | 280 |
| Tamaina | 20 plaza baino gutxiago | 22,3 | 46,4 | 491 |
| | 21-40 plaza | 72,4 | 67,7 | 1.128 |
| **GUZTIRA** | | **58,8** | **62,3** | **1.620** |

### *3.5.3.* ***Kultur, gizarte eta jolas programak eta jarduerak***

Eguneko zentrorik gehienek (%92,9k) kultur eta gizarte animazioko zerbitzua dute, jarduera programa antolatzen duena. Edozein kasutan, horrelako zerbitzurik ez duten zentroetan ere, erregularki burutzen dira denbora pasatzeko hainbat jarduera. Gai honetara hurbiltzekotan, hamabi jardueraren programazioa baloratu dugu. Jarduera horiek bi taldetan sailkatu dira; hona hemen bi taldeok:

- Gutxienez astean behingoak direnak: mahai jolasak, eskulanak eta gimnasia.

- Horren sarritan antolatzen ez direnak: erlijio ekitaldiak, filmak, musika edo antzerki taldeen saioak, dantzak, askariak, ikastaroak edo hitzaldiak, ikuskizunetara eta txangoetara joatea.

Mendekoak ez diren pertsonentzakoak diren 100eko 3,7 zentrotan izan ezik, gainerakoetan mahai jolasak eta eskulanak antolatzen dira, egunero edo astean zenbait aldiz. Gimnasia plazen %85,8ren programaren zati da.

**138. taula: Eguneroko edo asteroko jarduerak**

| Egunero edo astero antolatzen diren jarduerak | Eguneroko edo asteroko jarduerak antolatzen diren zentroak | |
|---|---|---|
| | *zentroen %* | *plazen %* |
| Gimnasia | 87,9 | 85,8 |
| Eskulanak | 96,3 | 98,5 |
| Mahai jolasak | 96,3 | 98,5 |
| Absolutuak | 80 | 2.068 |

Gainera, zentroen erdiek baino gehiagok, gutxi-askotan, askariak, kanporako irteerak, txangoak, filmak eta mezak eta erlijio ekitaldiak antolatzen dituzte. Osteraldiak programatu eta dantzak antolatzea, jarduera dinamikoa baita, negatiboki lotzen zaio ezgaitasun larria duen erabiltzaile proportzioari. Ezgaitasun larria duen erabiltzaile proportzio handiagoa duten zentroetan antolatu edo ospatzen da askaririk edo erlijio ekitaldirik gehien hurrenez hurren.

**139. taula: Jarduera programak eskaintzen dituen zentro proportzioa**

| | Mendekotasun larria duen erabiltzaile proportzioaren araberako zentroak | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| | *%25 baino gutxiago* | *%25-49* | *%50 edo gehiago* | |
| Askariak eta aperitiboak | 67,1 | 68,1 | 85,8 | 72,4 |
| Filmak | 40,1 | 92,9 | 77,3 | 72,3 |
| Osterak/erosketak | 75,0 | 82,6 | 63,1 | 75,1 |
| Erlijio ekitaldiak | 27,1 | 70,3 | 71,9 | 57,2 |
| Txangoak | 55,5 | 66,6 | 57,5 | 60,7 |
| Dantzak | 61,1 | 56,0 | 36,0 | 52,3 |
| Ikuskizunak | 15,6 | 18,3 | 30,1 | 20,6 |
| Antzerki edo kantu taldeak | 4,0 | 34,8 | 22,8 | 22,0 |
| Ikastaroak eta hitzaldiak | 45,5 | 10,9 | 12,2 | 22,1 |
| Absolutuak | 25 | 34 | 21 | 80 |

## 3.6. **Erabiltzaileen parteharmena**

### 3.6.1. ***Erabiltzaileek jardueretan hartutako partea***

*a) Tresneri jardueretan parte hartzea*

Zentroen erdietan baino gehiagotan, erabiltzaileek etxeko lanetan parte hartzen dute, hala nola, mahai gainean jartzeko jartzen, ontziak lehortzen, ezpain zapiak tolesten, sukaldean laguntzen eta abartzekoa abartzen. Gehiagok hartzen dute parte Arabako zentroetan, eta ez da beste aldagai batzuen araberako diferentziarik ikusten. Aldagai horien artean zentroen titulartasuna eta tamaina eta mendekotasun larria duen erabiltzaile proportzioa daude. Baina ikusi da ezen mahaia atondu eta biltzeko lanean, esate baterako, gehiagok parte hartzen dutela eguneko zentroetan egoitzazko zerbitzuetan baino, bai plazei bai zentroei dagokienez.

**140. taula: Eguneko zentroen eta egoitzazko zerbitzuen erabiltzaileek mahaia atondu eta biltzeko lanean hartzen duten partea**

| Zentro mota | Zenbait egoiliarrek mahaia jartzen parte hartzen duten zentro eta plaza proportzioa | |
|---|---|---|
| | *zentroen %* | *plazen %* |
| Eguneko zentroak | 51,2 | 50,7 |
| Egoitzak | 38,8 | 35,6 |
| Erkidego etxebizitzak | 21,9 | 19,6 |

*b) Kultur, gizarte eta jolas jardueretan parte hartzea*

Azterketak astero egiten diren hiru jarduera hartu ditu ardatz: eskulanak, mahai jolasak eta gimnasia. Emaitzek erakusten dutenez, orokorrean, 100eko 50 erabiltzailek baino gehiagok hartzen dute parte; baina proportzio hori zentro motaren arabera aldatzen da: handiagoa da zentro txikietan, titulartasun pribatukoetan eta mendekotasun larria duen pertsona proportzio txikiagoa hartzen duten zentroetan.

**141. taula: Asteroko jardueren programetan parte hartzen duten erabiltzaileen proportzioa**

| | | Gimnasia | Eskulanak | Mahai jolasak | Erabiltzaileak guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Lurralde Historikoa | Araba | 57,8 | 26,4 | 26,8 | 351 |
| | Bizkaia | 62,3 | 59,3 | 70,0 | 649 |
| | Gipuzkoa | 64,6 | 55,3 | 61,9 | 619 |
| Titulartasuna | Publikoa | 60,0 | 53,4 | 53,7 | 1.088 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 53,6 | 28,2 | 55,2 | 252 |
| | Pribatua | 78,4 | 60,1 | 74,4 | 280 |
| Tamaina | 21 plaza baino gutxiago | 78,7 | 67,4 | 69,8 | 491 |
| | 21 plaza edo gehiago | 55,0 | 43,3 | 52,2 | 1.128 |
| Mendekotasun larria duten erabiltzaileen % | %25 baino gutxiago | 77,4 | 62,0 | 74,1 | 368 |
| | %25-49 | 67,3 | 50,3 | 57,1 | 754 |
| | %50 edo gehiago | 39,6 | 39,3 | 42,4 | 498 |
| Narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen % | %50 baino gutxiago | 47,3 | 55,3 | 61,0 | 336 |
| | %50 edo gehiago | 66,1 | 49,4 | 56,6 | 1.284 |
| **GUZTIRA** | | **62,2** | **50,6** | **57,5** | **1.620** |

142. taulan azalduta dago hain ohikoak ez diren jardueretako erabiltzaileen parte-hartze tasa

**142. taula: Gutxi-askotan antolatzen diren jardueren programetan parte hartzen duen erabiltzaile proportzioa**

| | Zentroak, mendekotasun larriko erabiltzaileen proportzioaren arabera | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| | *%25 baino gutxiago* | *%25-49* | *%50 edo gehiago* | |
| Askariak eta aperitiboak | 44,7 | 57,8 | 47,6 | 51,7 |
| Filmak | 47,8 | 45,9 | 31,1 | 41,8 |
| Osterak/erosketak | 45,7 | 34,1 | 29,6 | 35,3 |
| Txangoak | 38,9 | 34,4 | 21,4 | 31,4 |
| Dantzak | 45,5 | 34,1 | 14,8 | 30,8 |
| Erlijio ekitaldiak | 34,7 | 33,0 | 25,3 | 31,0 |
| Antzerki edo kantu taldeak | 9,5 | 24,8 | 7,4 | 16,0 |
| Ikastaroak eta hitzaldiak | 43,7 | 9,3 | 0,8 | 14,5 |
| Ikuskizunak | 12,5 | 13,1 | 12,5 | 12,8 |
| Absolutuak | 368 | 754 | 498 | 1.620 |

Garrantzitsua da adieraztea ezen, gutxienez, erabiltzaileen laurdenek narriadura kognitiboa duten eguneko zentro ia guztietan –kasuren batean izan ezik– pertsonontzako programa zehatza dago: errealitateko orientazioa, oroimen-tailerra, psikomotrizitatea, zereginetako terapia, ezagutze jolasak eta abar.

### 3.6.2. *Erabiltzaileek zentroa antolatzen hartzen duten partea*

202/2000 Dekretuak ezarririk duenez, adineko pertsonentzako eguneko zentroek arautegia izan beharko dute eta bertan zehaztuko dira “pertsona erabiltzaileek edo beraien legezko ordezkariek demokratikoki parte hartzeko bideak”.

Galdera-sortan sartuta dago eguneko zentroetan erabiltzaileen parteharmen organorik benetan dagoen zehazteko galdera. Emaitzek adierazi dutenez, ia erdiek eraz osaturiko bitartekoren bat dute. Berauek eskuratu ahal izateak tamainarekin zerikusi handia du: ohikoagoa da zentro handietan eta ez du gainerako aldagaiekin zerikusi esanguratsurik. Beste alde batetik, larriki ezgaituta dauden erabiltzaileen proportzioa hiru laurdenetatik gorakoa den ezein zentrotan ez da parteharmen organorik. Zentrook Gipuzkoakoak dira bereziki, bai publikoak bai pribatuak, plaza itunduak dituztenak zein horrelakorik ez dutenak, eta Bizkaiko titulartasun publikokoak.

**141. grafikoa: Partaidetza-organoak dituzten eguneko zentroak**




## 3.7. **Zentroetako langileak**

### 3.7.1. ***Langileri zuzkidura***

Langileri zuzkidura edo plantillaren neurria, jarraian aztertuko dena, lanpostuen lanbide kategoria bakoitzeko ordu kopuru osoa ordutegi oso bihurturik kalkulatu behar da, zentro bakoitzaren hitzarmenean itunduriko ordu kopuruaren arabera. Beste alde batetik, plantillen tamaina baloratzeko erreferentzia gisa 202/2000 Dekretua hartu behar da, eguneko zentroen langileri zuzkidurak araupeturik dituena. Edozein modutan, kontuan hartu behar da ezen Dekretuak honako lanbide kategoria hauek sartuta dauden zuzeneko arretari begirako gutxieneko ratioak ezarririk dituela:

- Zaintzaileak
- Osasun-langileak.
- Jardueretako begiraleak
- Gizarte-langileak

Honako ratio hauek ezarririk daude arauan:

- 1/6, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko maila ertaineko edo goi mailako zailtasuna duten pertsonentzat.
- 1/9, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko maila arineko zailtasuna duten pertsonentzat.
- 1/5, dementziadun pertsonentzat.

Dekretuak eskatutako gutxieneko plantillak (mendekotasun pisuaren arabera aldatzen baitira) kalkulatzeko, narriadura kognitiboa dutenak hartu dira dementziak jotako pertsonatzat. Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko maila ertaineko edo goi mailako zailtasuna duten pertsonen kategorian, fisikoki mendekoak diren eta narriadura kognitiborik ez duten erabiltzaileak sartu dira. Azkenik, maila arineko zailtasuna duen pertsona taldean eguneko zentroen gainerako erabiltzaileak sartu dira.

Emaitza globalek, haiek kalkulatzeko aipatutako premisak abiapuntu hartuta, adierazten dutenez, zuzeneko arretako langile kopuru osoa –autonomia erkidego honetako eguneko zentro guztiak barnean sartuta– Dekretuak eskaturiko gutxienekoa baino %32 handiagoa da. Logikoa denez, horrek denbora osoko laurogeita hamabi langileko superabita ekarriko luke. Nabarmentzekoa denez, kontuan hartutako eguneko zentroen talde guztietan (ikus 143. taula) benetako plantillen eta eskatutakoen arteko diferentziak positiboak dira batezbestekoen mailan, baina ezgaitasuna duen erabiltzaile proportzioa handiagoa den zentroetan da, hain zuzen ere, diferentzia txikiagoa. Berorietan, eskatutako plantilla 100eko 12an bakarrik gainditzen da.

**143. taula: Zuzeneko arretako benetako langileri plantilla eta legez eskatutako plantilla eguneko zentroetan**

| | | 1<br>Benetako plantilla | 2<br>Eskatutako plantilla | 3<br>1 / 2 x 100 | 4<br>Batez besteko oinarri-indize kop. 3=100 |
|---|---|---|---|---|---|
| Lurralde Historikoa | Araba | 83 | 53 | 155,6 | 117,7 |
| | Bizkaia | 144 | 115 | 125,5 | 94,9 |
| | Gipuzkoa | 152 | 118 | 128,3 | 97,0 |
| Tamaina | 20 plaza baino gutxiago | 112 | 80 | 140,4 | 106,2 |
| | 21-40 plaza | 266 | 206 | 129,1 | 97,6 |
| Titulartasuna | Publikoa | 248 | 193 | 129,0 | 97,5 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 58 | 46 | 124,8 | 94,4 |
| | Pribatua | 72 | 47 | 153,1 | 115,8 |
| Mendekotasun larria duten erabiltzaileen % | %25 baino gutxiago | 76 | 58 | 130,8 | 98,9 |
| | %25-49 | 200 | 136 | 146,6 | 110,8 |
| | %50 edo gehiago | 103 | 92 | 112,0 | 84,7 |
| Narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen % | %50 baino gutxiago | 61 | 50 | 121,5 | 91,8 |
| | %50 edo gehiago | 317 | 236 | 134,6 | 101,7 |
| **GUZTIRA** | | **378** | **286** | **132,3** | **100,0** |

Gipuzkoako eta Bizkaiko egoera oso antzekoa da, bi lurraldeotan langileen %25 baino gehiago baitago legezko gutxienekoaren gainetik. Araban horrelako portzentajea

%55,6koa da. Beren osotasunean zentro pribatuek publikoek baino plantilla zabalagoak dituzte, %53,1 eta %29,0 kasu bakoitzean eskatu ahal den gutxienekoaren gainetik. Tamainari buruz esan daitekeenez, zentro txikiak handiak baino zuzkituago daude.

Langileri zuzkidura legez eskatutako gutxienekoa baino txikiagoa ez den zentroak bakarrik kontuan hartuta ikus dezakegunez, haiek guztirakoaren %12,9 dira eta beren osotasunean erabiltzaile guztien %16,5 harturik dute. Langileri kopuruaren mentsa ez da handia, eskatutako gutxienekoaren aldean beti ere. Izan ere, Autonomia Erkidegoan guztira 12,6 langile daude. Horrela hartuta, mentsik handiena Gipuzkoan eta mendekotasun larria duten erabiltzaileen dentsitate handiagoa duten zentroetan. Hala ere, datuak kontuz interpretatu behar dira. Izan ere, zentroen arduradunek ez dituzte erabiltzaileak beren mendekotasun mailaren arabera sailkatzeko irizpide berberak erabili nonbait. Gainera, narriadura kognitiboa duten erabiltzaile guztiak pertsona dementziak joen kategorian sartu dira. Horrek, zalantzarik gabe, Dekretuak eskatutako ratioak kalkulatzea gaindimentsionatzen du.

**144. taula: Zuzeneko arretako langileen ratioa legez ezarririkoa baino txikiagoa den zentroak eta plazak**

| | | Zentroen % | Plazen % | Langile mentsa | Zentroak guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Lurralde Historikoa | Araba | 0,0 | | | 17 |
| | Bizkaia | 9,9 | 14,6 | 3,4 | 30 |
| | Gipuzkoa | 23,6 | 27,3 | 9,2 | 29 |
| Titulartasuna | Publikoa | 13,5 | 18,4 | 8,7 | 51 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 33,3 | 31,0 | 3,9 | 9 |
| | Pribatua | 0,0 | | | 17 |
| Tamaina | 20 plaza baino gutxiago | 0,0 | | | 32 |
| | 21-40 plaza | 22,4 | 22,2 | 12,6 | 44 |
| Mendekotasun larria duten erabiltzaileen % | %25 baino gutxiago | 0,0 | | | 24 |
| | %25-49 | 3,0 | 6,1 | 0,7 | 34 |
| | %50 edo gehiago | 48,2 | 48,7 | 11,9 | 19 |
| Narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen % | %50 baino gutxiago | 10,5 | 20,4 | 1,9 | 7 |
| | %50 edo gehiago | 13,7 | 15,6 | 10,7 | 23 |
| **GUZTIRA** | | **12,9** | **16,5** | **12,6** | **76** |

Badakigu ezen arauko hitzei jarraiki ezin dela ondorioztatu eskatutako gutxienekoak presentziazkoak direnik. Hala ere, langileri zuzkidura aztertzea egokietsi da, halaber. Horretarako baloratu da eguneko hainbat unetan zuzenean arreta emateko zenbat langile dagoen.

Zentro guztiak osotasunean aztertzen badira, langileri ratioek adierazi dute ezen hiru-sei erabiltzaileko zuzeneko arretako langile bat dagoela, eguneko unearen arabera. Langileria urriagoa den zentroetan, goizeko bederatzietatik arratsaldeko bostak arte, langileko bost erabiltzaile baino gehiago daude; eta eguerdiko orduetan, zortzi baino gehiago. Zentrootan 100eko 74 erabiltzailek narriadura kognitiboa dute eta 100eko 22 fisikoki mendekoak dira. Hori dela eta, bost edo sei erabiltzaileko langile batek egon behar du. Nolanahi ere, benetako ratioen eta eskatu ahal diren gutxienekoen arteko diferentziak oso txikiak dira, kalkulatzeko gure premisen arabera.

**145. taula: Zuzeneko arretako langileen presentzia (langileko erabiltzaileen batezbestekoa) eguneko hainbat unetan**

| | Zentroak guztira | Zuzeneko arretako langileen ratioa eskatu ahal den erreferentzia gisa hartu dena baino txikiagoa den zentroak | Zuzeneko arretako langileen ratioa eskatu ahal den erreferentzia gisa hartu dena baino handiagoa den zentroak |
|---|---|---|---|
| Langileko erabiltzaile kop., 8:00etatik 9:00ak arte | 4,14 | 4,17 | 4,14 |
| Langileko erabiltzaile kop., 9:00etatik 10:00ak arte | 5,12 | 6,22 | 4,89 |
| Langileko erabiltzaile kop., 10:00etatik 11:00ak arte | 5,05 | 5,70 | 4,89 |
| Langileko erabiltzaile kop., 11:00etatik 12:00ak arte | 4,59 | 5,43 | 4,43 |
| Langileko erabiltzaile kop., 12:00-13:00 | 4,65 | 5,88 | 4,43 |
| Langileko erabiltzaile kop., 13:00-14:00 | 4,99 | 6,15 | 4,79 |
| Langileko erabiltzaile kop., 14:00-15:00 | 5,75 | 8,92 | 5,3 |
| Langileko erabiltzaile kop., 15:00-16:00 | 5,57 | 6,98 | 5,32 |
| Langileko erabiltzaile kop., 16:00-17:00 | 5,53 | 6,00 | 5,43 |
| Langileko erabiltzaile kop., 17:00-18:00 | 4,75 | 4,58 | 4,78 |
| Langileko erabiltzaile kop., 18:00-19:00 | 4,25 | 3,94 | 4,31 |
| Langileko erabiltzaile kop., 19:00-20:00 | 3,56 | 0,00 | 3,56 |

### 3.7.2. *Langileriaren antolakuntza*

Langileen lanen antolakuntzari dagokionez, garrantzi handikotzat hartu diren hiru alderdi aztertu dira: erabiltzaileentzako banakako arreta ebaluatzeko eta planifikatzeko talde lanbideanitzak eratzea, bai taldearen bai langileriaren aldizkako bilerak egitea eta funtsezko edo erreferentziazko langilearen figura egotea.

100eko 94,8 zentrok (plazen %95,5 harturik baitute) erabiltzaileen beharrizanak baloratzeko eta banakako arreta planifikatzeko talde baba dute. Eginera hori orokortua da Araban eta plaza itunduak dituzten zentro pribatuetan. Zentro pribatu horietarik gehienak Gipuzkoan daude. Beste alde batetik, deigarria da taldea egoteak ez du zerikusirik ezgaitasun larriko erabiltzaileen proportzioarekin ez narriadura kognitiboa duten erabiltzaileenarekin, nahiz eta bestelakoa ohikoa izan.

**146. taula: Baloratzeko eta banaka planifikatzeko talderik ez duten zentroak eta plazak**

| | | Zentroak | | Plazak | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | *Abs.* | *%* | *Abs.* | *%* |
| Lurralde Historikoa | Araba | | | | |
| | Bizkaia | 3 | 8,8 | 65 | 7,1 |
| | Gipuzkoa | 1 | 4,4 | 30 | 3,9 |
| Titulartasuna | Publikoa | 3 | 5,2 | 72 | 5,7 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | | | | |
| | Pribatua | 2 | 8,6 | 23 | 5,0 |
| Tamaina | 20 plaza baino gutxiago | 2 | 4,2 | 23 | 3,9 |
| | 21-40 plaza | 3 | 6,1 | 72 | 4,8 |
| Mendekotasun larria duten erabiltzaileen % | %25 baino gutxiago | 3 | 11,6 | 65 | 11,9 |
| | %25-49 | | | | |
| | %50 edo gehiago | 1 | 6,1 | 30 | 4,8 |
| Narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen % | %50 baino gutxiago | 3 | 14,1 | 65 | 15,6 |
| | %50 edo gehiago | 1 | 2,2 | 30 | 1,8 |
| **GUZTIRA** | | **4** | **5,2** | **94** | **4,5** |

Balorazio eta banakako plangintzako taldeak hainbat profesionalek osatuta daude. Sarrienetan (taldeen %70an baino gehiagoan) esku hartzen dutenak zentroko arduraduna, gizarte-langilea eta zaintzaileren bat dira.

**147. taula: Eguneko zentroak baloratzeko taldeetan parte hartzen duten profesionalak**

| | Profesionalek parte hartzen duten zentroen % |
|---|---|
| Zentroaren arduraduna | 72,9 |
| Medikua | 32,2 |
| Erizaina | 50,7 |
| Gizarte-laguntzailea | 83,0 |
| Psikologoa | 40,5 |
| Zaintzailea | 91,0 |
| Beste batzuk | 36,5 |

Talderik gehienak erregulartasunez biltzen dira hilean behin gutxienez, Dekretuak gomendatutako moduan. Gainerako zentroen arduradunek esan dute ezen zentrootan bileren maiztasuna beharrizanen arabera aldatzen dela.

Balorazio-talderik dagoen kontuan hartu gabe, 100eko 90 zentrotan baino gehiagotan, gutxienez hilean behin biltzen dira zuzeneko arretako langileak,

Eguneko zentroak araupeturik dituen Dekretuak gomendatutako funtsezko langilearen figura zentroen erdietan dago. Haren presentzia zentro pribatuetan askoz ohikoagoa

da; eta plaza itunduak dituzten zentro pribatuetan, bereziki txikia. Ohikoagoa da, halaber, narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen proportzio handiagoa hartzen duten zentroetan. Baina ezagutze arazoak barnean hartzen dituen ezgaitasun aldagaiaren kasuan funtsezko langilearen figura %25etik gorako eta %50etik beherako ezgaitasun larriaren nagusitasuna duten zentroetan. Kasu horretan bada (eta ez lehenengoan), erabiltzailerik gehienak beregainak diren zentroen eginera gehienak ezgaitasun larriak jota dauden zentroenaren antzekoa-edo da.

**148. taula: Erabiltzaileei erreferentziazko profesionala esleitzen zaien zentroak**

| | | % | | Abs. | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | *Zentroak* | *Plazak* | *Zentroak* | *Plazak* |
| Lurralde Historikoa | Araba | 44,4 | 70,9 | 18 | 409 |
| | Bizkaia | 53,2 | 58,0 | 33 | 908 |
| | Gipuzkoa | 53,7 | 44,2 | 29 | 751 |
| Titulartasuna | Publikoa | 51,2 | 58,2 | 52 | 1.258 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 19,0 | 22,7 | 10 | 362 |
| | Pribatua | 71,4 | 74,6 | 18 | 449 |
| Tamaina | 20 plaza baino gutxiago | 46,5 | 49,6 | 36 | 575 |
| | 21-40 plaza | 55,4 | 57,8 | 44 | 1.494 |
| Mendekotasun larria duten erabiltzaileen % | %25 baino gutxiago | 39,9 | 51,7 | 25 | 542 |
| | %25-49 | 74,8 | 76,0 | 34 | 913 |
| | %50 edo gehiago | 27,6 | 28,5 | 21 | 613 |
| Narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen % | %50 baino gutxiago | 25,2 | 32,5 | 21 | 414 |
| | %50 edo gehiago | 60,5 | 61,3 | 59 | 1.654 |
| **GUZTIRA** | | **51,4** | **55,5** | **80** | **2.068** |

### 3.7.3. ***Jarduteko protokoloak, jardunbide onei buruzko eskuliburuak eta erregistroak***

Eguneko zentroei buruzko Dekretuak ezarririk duenez, zentro guztiek langileen jarduketarako protokoloak izan beharko dituzte, baina bertan ez dago zehaztuta haien edukia. Inkestaren emaitzek agerian jarri dutenez, zentro ia guztiek egoera jakin batzuen aurrean jarduteko arau idatziak dituzte. Sarrienetan ezarritako arauak suterik, larrialdi medikorik edo erorikorik izanez gero jarduteko prozedurei eta medikamentua administratzeko protokoloari buruzkoak dira. Protokoloak maiztasun handiagoz erabiltzen dira zentro pribatuetan, medikamentuak administratzeari eta larrialdi medikoei dagozkienak bereziki. Izan ere, arau horiek zentro guztietan ezarririk daude. Deigarria da euste fisikoak jarririk dituzten zentro publiko eta pribatuetan aplikatzeko protokoloaren ezarpen maila txikia.

### 149. taula: Langileriarentzako jarduketa arau idatziak egotea

| Honakoa gertatuz gero jarduteko arauak | Titulartasuna | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| | *Publikoa* | *Prib. itundua* | *Pribatua* | |
| Sutea | 63,4 | 81,0 | 77,1 | 68,7 |
| Heriotza | 29,1 | 71,4 | 57,1 | 40,8 |
| Larrialdi medikoa | 70,0 | 90,5 | 100,0 | 79,2 |
| Medikamentuak administratzea | 56,2 | 90,5 | 100,0 | 70,3 |
| Erorikoak | 66,9 | 71,4 | 94,3 | 73,5 |
| Euste fisikoa | 66,3 | 76,5 | 100,0 | 71,8 |
| Narriadura kognitiboa duten erabiltzaileei irteerak ikuskatzea | 24,8 | 42,9 | 91,4 | 41,8 |
| Batez besteko % | 52,8 | 72,8 | 85,3 | 62,5 |
| Absolutuak | 18 | 36 | 44 | 80 |

Jardunbide egokiko eskuliburuetan jarduketa arauak biltzeak horiek antolatu eta langileek erabiltzea errazten du. Zentroen hiru laurdenetan baino gehiagotan eskuliburua dago, erabiltzaileek eskura dutena. Tresna teknikook ohikoagoak dira Araban eta Gipuzkoan.

### 142. grafikoa: Erreferentziazko edo jardunbide egokiko eskuliburuaren eskuragarritasuna



Erabiltzaileen egoerarekin eta jarduerekin zerikusia duten gertakari eta ezbehar jakin batzuk idatziz erregistratzea nahiko zabalduta dago Autonomia Erkidegoko eguneko zentroen artean. Erabiltzaileen erorikoei buruzko datuak, eta zarakarrak garatzeari, eusteak aplikatzeari, ingestari, diuresiei eta lagunduriko erabiltzaileen gorozkiei buruzkoak, zentroen bi herenetan baino gehiagotan erregistratzen dira.

Erregistroak erabiltzea ohikoagoa da itundutako plazak dituzten zentro pribatuetan. Berauetarik gehienak Gipuzkoan daude.

**150. taula: Gertakari edo ezbehar jakin batzuk idatziz erregistratzen diren zentroak**

| Erregistratzen diren datuak | Lurralde historikoa | | | Tamaina | | Titulartasuna | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | *Araba* | *Bizkaia* | *Gipuzkoa* | *21 plaza baino gutxiago.* | *21 plaza edo gehiago* | *Publikoa* | *Pribatu it.* | *Pribatua* | |
| Erorikoak | 83,3 | 88,2 | 95,6 | 87,5 | 91,6 | 89,1 | 100,0 | 85,7 | 89,8 |
| Zarakarrak | 58,3 | 71,1 | 84,2 | 71,5 | 74,2 | 67,1 | 81,0 | 85,7 | 73,0 |
| Eusteak aplikatzea | 100,0 | 40,1 | 83,8 | 81,7 | 65,9 | 66,7 | 88,2 | 70,0 | 71,0 |
| Ingesta | 13,9 | 66,5 | 92,1 | 67,4 | 61,2 | 54,2 | 90,5 | 77,1 | 64,0 |
| Diuresi eta gorozkiak | 58,3 | 84,4 | 95,6 | 71,5 | 91,6 | 78,0 | 100,0 | 85,7 | 82,6 |
| Baliodun gauzakiak | 0,0 | 4,5 | 38,9 | 20,8 | 12,0 | 12,1 | 38,1 | 14,3 | 16,0 |
| Ekipamenduaren berrikuspenak | 13,9 | 100,0 | 83,3 | 79,2 | 70,8 | 62,8 | 90,5 | 100,0 | 74,6 |
| Batez besteko % | 38,9 | 66,0 | 82,0 | 64,3 | | 59,7 | 83,0 | 73,1 | 65,7 |
| Absolutuak | 18 | 33 | 29 | 52 | 11 | 18 | 36 | 44 | 80 |

### 3.7.4. ***Langileekin zerikusia duten beste gai batzuk***

*a) Urteko lan orduak hitzarmenaren arabera*

Urteko lansaio osoko ordu kopurua, zentro bakoitzean aplikatzen den hitzarmenean ezarririkoa, zentroaren titulartasunaren arabera aldatzen da bereziki. Urtero kontrataturiko ordu kopurua 1.520 eta 1.920 ordu bitartekoa da. Batezbestekoa 1.708 ordukoa da, eta txikiagoa da kudeaketa publikoko titulartasun publikoko zentroetan. Nabarmentzekoa denez, urteko lansaioa 1.800 lan ordutik gorakoa den zentro pribatuak daude. 1.800na lan ordu ezarri da, gehienez, egoitzentzat eta eguneko zentroentzat, adinekoentzako egoitza pribatuei buruzko estatuko 2003rako hitzarmenean.

**151. taula: Zentroetako hitzarmeneko urteko orduak**

| Titulartasuna | Ordu kopurua | | |
|---|---|---|---|
| | *Batezbestekoa* | *Gehienekoa* | *Gutxienekoa* |
| Publikoa, kudeaketa publikokoa | 1.617 | 1.745 | 1.520 |
| Publikoa, kudeaketa pribatukoa | 1.725 | 1.792 | 1.560 |
| Pribatua, irabazi-asmorik gabekoa | 1.704 | 1.754 | 1.650 |
| Pribatua, merkataritzakoa | 1.771 | 1.920 | 1.730 |
| **GUZTIRA** | **1.708** | **1.920** | **1.520** |

*b) Langileen kontratazio modalitatea*

152. taulan ohartarazi denez, garrantzitsua da zerbitzuen azpikontratazioa eguneko zentroetan. Izan ere, oro har, horrek haien %45-55 ukitzen du zerbitzuaren motaren arabera. Zuzeneko arretako bertako langileen erabilpena ohikoena da Bizkaian, eta ezohikoena Gipuzkoan. Erdian dago Arabako egoera. Gaiak, jakina denez, titulartasun motarekin zerikusia du, azpikontratazioa ohikoagoa baita zentro publikoetan pribatuetan baino. Egin-eginean ere, 100eko 56,3 zentro publikok zuzeneko arretako zerbitzuak egiten dituzte azpikontratatuturiko langileen bitartez.

**152. taula: Beraien baitako langileekin bakarrik hainbat zerbitzu mota eskaintzen dituzten eguneko zentroen proportzioa**

| | | Zuzeneko arreta | Errehabilitazio zerbitzua | Kultur eta gizarte animazioko zerbitzua | Garbikuntza zerbitzua | Sukalde zerbitzua | Zentroak guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Lurralde Historikoa | Araba | 58,3 | 44,4 | 47,2 | 52,8 | 83,3 | 18 |
| | Bizkaia | 80,2 | 68,8 | 72,1 | 52,4 | 31,8 | 33 |
| | Gipuzkoa | 25,1 | 17,2 | 42,4 | 27,6 | 63,5 | 29 |
| Titulartasuna | Publikoa | 43,7 | 36,0 | 46,3 | 38,1 | 53,7 | 52 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 71,4 | 61,9 | 71,4 | 28,6 | 57,1 | 10 |
| | Pribatua | 80,0 | 60,0 | 74,3 | 68,6 | 57,1 | 18 |
| Tamaina | 20 plaza baino gutxiago | 41,0 | 26,4 | 48,6 | 41,7 | 59,7 | 36 |
| | 21-40 plaza | 67,0 | 59,5 | 61,6 | 45,0 | 51,0 | 44 |
| **GUZTIRA** | | **55,3** | **44,6** | **55,7** | **43,5** | **54,9** | **80** |

*c) Lanera ez agertzea*

Lanera ez agertzea baloratzeko, gaixotasun arruntagatiko bajako urteko orduen portzentajea (hau da, amatasunagatiko, laneko istripuengatiko ez lanbide gaixotasunagatiko bajarik sartu gabe) zentro bakoitzeko lan orduen kopuru osoari begira kalkulatu da. Adierazi behar denez, bajako orduei buruzko galderaren erantzun tasa beste gai batzuena baino txikiagoa izan da. Galdera-sorta bete duten 100eko 46 zentrok bakarrik eman dute lanera ez agertzeari buruzko informazioa. Titulartasunaren arabera, 100eko 40 zentro publikok, plaza itunduak dituzten 100eko 38 zentro pribatuk eta gainerako zentro pribatuen %65,7k erantzun dute.

**153. taula: Lanera ez agertzea eguneko zentroetan**

| | | Bajako orduen % |
|---|---|---|
| Lurralde Historikoa | Araba | 2,1 |
| | Bizkaia | 3,3 |
| | Gipuzkoa | 2,6 |
| Titulartasuna | Publikoa | 3,7 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 3,5 |
| | Pribatua | 0,9 |
| Tamaina | 21 plaza baino gutxiago | 2,3 |
| | 21 plaza edo gehiago | 3,4 |
| Mendekotasun larria duten erabiltzaileen % | %50 baino gutxiago | 3,1 |
| | %50 edo gehiago | 2,2 |
| **GUZTIRA** | | **3,0** |

Dugun informazioa ikusita esan dezakegu ezen lanera ez agertzearen indizea, horrela kalkulatua, %3koa dela Autonomia Erkidegoan. Titulartasunaren arabera nabarmen aldatzen da: askoz altuagoa da zentro publikoetan eta plaza itunduak dituzten zentro pribatuetan. Altutxoagoa da, baita, mendekotasun larriko erabiltzaile proportzio txikiagoa duten zentroetan, lanera ez agertzearen indize altu-altua duten bi zentroren eraginez nonbait. Bata Gipuzkoan dago eta plaza itunduak dituen zentro pribatua da, eta bestea Bizkaian dago eta publikoa da. Bi zentro horiek azterketatik bazterturik, lanera ez agertzearen indizea altuagoa da ezgaitasun larriak dituzten erabiltzaileen erdiak baino gehiago dituzten zentroetan.

*d) Prestakuntza*

100eko 60 zentrok baino gehiagok langile berriei hasierako prestakuntza ematen diete. Prestakuntza eskaintza hori ohikoagoa da Gipuzkoako zentroetan eta pribatuetan. Gainera, zentrorik gehienetan, 100eko 90,4tan, langileek prestakuntza etengabeko ikastaroetara sartzea dute, baina ez dakigu zentroaren prestakuntza mota honetako inplikazioaren berririk.

**154. taula: Eguneko zentroetako prestakuntza eskaintza**

| | | Hasierako prestakuntza | Prestakuntza etengaberako aukera |
|---|---|---|---|
| Lurralde Historikoa | Araba | 27,8 | 91,7 |
| | Bizkaia | 56,5 | 91,2 |
| | Gipuzkoa | 92,1 | 88,7 |
| Titulartasuna | Publikoa | 50,7 | 92,0 |
| | Pribatua eta plaza itunduak dituena | 76,2 | 81,0 |
| | Pribatua | 91,4 | 91,4 |
| Tamaina | 21 plaza baino gutxiago | 64,6 | 91,7 |
| | 21 plaza edo gehiago | 61,6 | 89,4 |
| **GUZTIRA** | | **63,0** | **90,4** |
| **Absolutuak** | | **80** | **80** |

# V. KAPITULUA

## LABURPENA

# I. HELBURUA, ESPARRUA ETA METODOLOGIA

Txostenak adinekoentzako zuzeneko arreta-sistemaren zerbitzu nagusiak deskribatu eta aztertu ditu Euskal Autonomia Erkidegoan –etxeko laguntza-zerbitzua, egoitzazko zerbitzuak eta eguneko zentroak –, sektoreak gaur egun duen egoera ezagutzeko, honako aldaketa hauen ondoren: azken urteetan sektoreak izan duen hazkunde garrantzitsua, egoitzetan laguntza emateko modu berriak, eguneko zentroen sareak izandako garapena, eta erakunde pribatuek gero eta gehiago esku hartzea. Oro har, azterlanak zerbitzu horien funtzionamendu globala barne hartzen du, baina, funtsean, mendekotasun arazoak dituzten adinekoentzako laguntzan oinarritzen da.

Lau zatitan egituratuta dago:

- Lehenengoak adinekoentzako laguntza-sistemaren lege- eta administrazio-esparrua azaltzen du, eta dokumentazio arauemaile eta administratiboaren azterketan oinarritzen da, bai eta administrazioetako teknikariek emandako informazioan ere.

- Bigarren zatiak adineko biztanleek eta gizarte-baliabideek 1991-2001 hamarkadan izan duten bilakaerari buruzko informazioa ematen du, eta oinarritzat hartzen ditu "Gizarte Zerbitzuen Estatistika. Entitateak eta Zentroak" (GZEEZ) deritzonak jasotako datuen konparazio-azterlana, 1991. eta 2001. urteei dagozkien datuena hain zuzen ere, eta 2010. urterako egindako populazio-proiekzioak.

- Hirugarren zatiak egoitzazko zerbitzuen eta eguneko zentroen egoera deskribatzen du, oinarritzat hartuz zentroek eurek emandako datuak eta 52 egoitza-zentro eta 12 eguneko zentrotara egindako bisitetan jasotako informazioa. Bisita horietan, langile-baldintzak eta baldintza material eta funtzional garrantzitsuenak aztertu dira.

- Azterlanaren azken zatian, jarduteko zenbait arau proposatu dira.

# II. AZTERKETA JURIDIKO ADMINISTRATIBOA

## 1. INDARREKO ARAUTEGIA

### Oinarrizko esparru juridikoa: Gizarte zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legea

Gizarte zerbitzuen eta adinekoentzako laguntzaren esparruan, Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen oinarrizko arautegia da 5/1996 legea, urriaren 18koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, eta lege horrek zehazten ditu, hain zuzen ere, jardun-eremu horretan Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta udalek dituzten erantzukizunak

- Eusko Jaurlaritzari dagokio gizarte zerbitzuen planifikazio orokorra egin eta hori antolatzea. Eskumen horiek gauzatzerakoan eta adinekoentzako laguntzaren esparruan, 1994an Gerontologia Plana onartu zuen eta, ondorengo urteetan, honako hauek: 40/1998 Dekretua, martxoaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimentzea, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzen dituena; 41/1998 Dekretua, martxoaren 10ekoa, hirugarren adinekoentzako egoitzazko zerbitzuak arautzen dituena eta 202/2000 Dekretua, urriaren 17koa, mendekotasun arazoak dituzten adinekoentzako eguneko zentroak arautzen dituena. Etxeko laguntza-zerbitzuaren oinarrizko ezaugarriak, aldiz, oraindik ez daude araututa autonomian.

- Bestalde, foru aldundiei honako funtzio hauek dagozkie:

  – Euren lurralde-esparruan gizarte zerbitzuak programatzea, Eusko Jaurlaritzak ezarritako planifikazio orokorraren arabera; planifikazio horretan sartzen dira 2003ko Gipuzkoako Gerontologia Plana, gaur egun tramitatzen ari den Arabako Gerontologia Plana eta Bizkaiko Adineko Pertsonentzako 2005-2006 Plana.

  – Gizarte zerbitzu espezializatuak sortu, mantendu eta kudeatzea.

  – Bere titulartasunekoak diren programa, zentro eta zerbitzuak ikuskatu eta kontrolatzea, bai eta foru-ekarpen ekonomiko espezifikoak jasotzen dituzten udaletakoak direnak ere; horrez gain, bere lurraldean dauden programa, zentro eta zerbitzu pribatuak ere ikuskatu eta kontrolatuko ditu. Funtzio horiek egiteko, foru aldundiek euren baimentze– eta ikuskatze-zerbitzuak sortu dituzte.

- Udalek, euren aldetik, funtsean honako eskumen hauek dituzte:

  – Oinarrizko gizarte zerbitzuak sortu, antolatu, kudeatu eta arautzea.

  – 20.000 biztanletik gora dituzten udalerrietan, premiazko harrera-zerbitzuak eta gizarte-elkarbizitzarako zentroak (erretiratuen etxe eta elkarteak) sortu, antolatu, kudeatu eta arautzea.

  – Udal gizarte zerbitzuak programatzea.

  – Gizarteak dituen beharrak aurkitzea.

  – Berari dagozkion gizarte zerbitzuak ikuskatu eta kontrolatzea.

**Mugapen funtzionala: uztailaren 30eko 155/2001 Dekretua, gizarte zerbitzuen alorreko eginkizunak zehazteari buruzkoa.**

Gizarte Zerbitzuen Legeak ezarritako funtzio-mugatzea argitzeko asmoarekin, 2000. urtearen azken aldean negoziazio-prozesu bat zabaldu zen Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta Euskadiko Udalen Elkartearen (Eudel) artean. Negoziazio horren ondorioz, gaur egun indarrean dagoen 155/2001 Dekretua egin zen, uztailaren 30ekoa, gizarte zerbitzuen arloko funtzioak zehazteari buruzkoa.

Arau horrek bere erabilera zuzentzen duten oinarrizko bi printzipio ezartzen ditu:

- Lehenengoaren arabera, hasiera batean funtzio ezberdinak administrazio bakarrarenak izango dira; halere, funtzio-batasun horrek ez du baztertzen eskumendun herri-administrazioek duten aukera euren zerbitzuen emate edo kudeaketaren ordezkaritza edota ardura hartzeko; horrez gain, elkarren artean lan egin dezakete eta ekimen pribatuarekin koordinatu daitezke, elkarrekin lan eginez, gizartearen beharrei erantzun ahal izateko.

- Bigarren printzipioak mendekotasun maila hartzen du oinarritzat, foru aldundi eta udalen artean eskumenak banatzeko irizpideak ezartzeko.

Oinarrizko bi printzipio horiek ezarri ondoren, Dekretuak zehatz-mehatz banatzen ditu funtzioak. Txosten honen edukiari modurik zuzenenean eragiten dionari dagokionez, funtzioak honela banatzen dira:

- Mendekotasun arazoak dituzten adineko pertsonentzako egoitzak eta eguneko zentroak aldundien erantzukizuna dira.

- Etxeko laguntza-zerbitzua, etxebizitza komunitarioak eta babespeko apartamentuak udalen erantzukizuna dira.

**Erregistro, baimen, ikuskapen eta homologazioaren arloan dagoen indarreko arautegia**

Gizarte Zerbitzuen 1996ko Legea indarrean sartu zenean, argi geratu zen beharrezkoa zela arautegia garatzea, zerbitzuek eta zentroek gutxieneko baldintza batzuk bete ditzaten laguntza eta kalitateari dagokienez; horrez gain, eskumendun administrazioek baldintza horiek betetzen direla egiaztatu ahal izatea bermatu behar zen. Behar horri erantzuteko, 40/1998 Dekretua onartu zen, martxoaren 10ekoa, gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzen dituena.

Erregistroari dagokionez, arau horrek Gizarte Zerbitzuen Erregistro Orokorra sortu zuen, eta gaur egun Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari dagokion Gizarte Ongizateko Zuzendaritzara atxikia dago; bere egitura eta funtzionamendua arautzeke daude. Foru-esparruari dagokionez, bai Araban bai Bizkaian gai hori araututa dago, Gipuzkoan onartzeke dagoen zirriborro arau-emaile bat dagoen bitartean.

Ikuskapenari dagokionez, batez ere foru-esparruan garatu da. Aldundi bakoitzak funtzio horietara zuzendutako zerbitzua sortu du, eta bere lehenengo zeregina izan zen bakoitzaren lurraldeko jardun-eremuetan dagoeneko bazeuden zerbitzu eta zentro guztien baimen-espedienteak tramitatzea.

**Araban** eta **Gipuzkoan**, ikuskapen-teknikariek egoitza-zentro eta eguneko zentroen ofiziozko ikuskapenak egiten dituzte urtean behin. Jarraipen-bisitak ere egiten dituzte, urtean behingo ikuskapen-bisitak arautegia bete ez dela hauteman duen kasuetan, zentroa erabakitako neurriak hartzen ari dela egiaztatzeko, eskatutako funtzionamendu-baldintzetara egokitu dadin. Modu osagarrian, eta era sistematikoan, zentroak bisitatzen dituzte horiekin lotutako kexu, erreklamazio edota salaketaren bat dagoen bakoitzean.

**Bizkaiko** Foru Aldundiko Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzuak ere eredu hori jarraitzen du, baina, Bizkaiko lurralde historikoan adineko pertsonentzako zentro ugari dagoenez, erabaki du bere jardunaren lehen urte hauetan egiaztapenak funtsezko alderdi batzuetara mugatzea. Horrela, urtean behin egiten diren ikuskapen-bisiten esparruan, egoitzazko zerbitzu guztietarako berdinak diren baldintzetatik bost ikuskatu dira, egoitzazko zerbitzu horien tipologia edozein izanik ere: edukiera, langileen ratioa, kontratuak egotea, prezio-tarifa, eta jarduteko baimena bermatzen duen dokumentua ikus daitekeen tokian jarrita edukitzea; modu osagarrian, egoitzen kasuan, seigarren baldintza bat ikuskatu da: gizarte– eta kultura-animaziorako jardueren urteko programa. Eguneko zentroetan, urtean behingo ikuskapen-bisitek egoitzetan egiaztatutako alderdi berdinak egiaztatu dituzte.

## Zerbitzu eta zentroen betekizun materialak, funtzionalak eta langileriaren betekizunen arautegia, horiek baimena izan dezaten

### *Egoitza-zentroen arautegia*

41/1998 Dekretuak, martxoaren 10ekoak, hirugarren adinekoentzako egoitzazko zerbitzu sozialei buruzkoak, hiru zentro mota bereizten ditu:

- Babespeko apartamentuak: pertsona batentzako eta/edo bikote batentzako etxebizitza autonomoen multzoa da; aukerako zerbitzu kolektiboak dituzte, eta intentsitate handiagoko baliabiderik behar ez duen egoera psiko-fisiko eta sozialean dauden adineko pertsonei ematen diete ostatu. Praktikan, oso formula ezberdinek hartzen dute tipologia hori: zerbitzu orokorra duten edo ez duten apartamentu-multzoak eta 4 edo 5 pertsonako etxebizitzak; horiek ez dira sartzen babespeko apartamentuen multzoan, baina, euren funtzionamenduan, babespeko etxebizitza baten antzekoak dira.

- Etxebizitza komunitarioak: gutxienez 5 eta gehienez 14 plaza dituzten bizikidetzarako unitateak dira, eta nolabaiteko autonomia maila duten eta familia-giroko antzeko bizitza-estiloa daramaten adineko pertsonei zuzenduta daude. Praktikan, egoitza txikiek bezala funtzionatzen dute, eta laguntzarako langileak bermatuta daude eguneko hogeita lau orduetan.

- Egoitzak: 14 plazatik gora dituzten bizikidetzarako zentroak dira, eta etxebizitza komun eta iraunkorren funtzioa betetzen dute; bertan laguntza integrala eta jarraitua ematen zaie ezgaitasun maila altua izan dezaketen adineko pertsonei.

Dekretuak nazioarte mailan onartutako jardunbide egokirako gomendioetan finkatuta dauden oinarrizko printzipioetariko batzuk barne hartzen ditu, egoitza-arretari dagokionez: normalizazio-printzipioa, autonomia-printzipioa, partehartze-printzipioa, integrazio-printzipioa, banan-banako laguntzaren printzipioa eta profesionalizatze-printzipioa. Era berean, erabiltzaileen eskubideak adierazten ditu eta hori benetako berrikuntza da arautegian. Jasotzen dituen baldintzek eta baita laguntzarako jarraibideek ere, funtsean, orokorki onartuta dauden jardunbide egokien irizpideak betetzen dituzte.

Hala eta guztiz ere, gutxienezkoen arautzea da eta zenbait gabezia ditu. Horrela, testuak ez du bereizketarik egiten indarrean sartu zenean dagoeneko bazeuden egoitzei eskatu behar zaizkien baldintzen eta eraikuntza berriko zentroei eskatu beharrekoen artean; bereizketa hori egiteak honako hau ahalbidetuko zukeen:

- Gaur egungo minimoak ezartzea antzinako zentroei eta, eraikuntza berrikoen kasuan, eskatu daitezkeen baldintzak hobetzea oinarrizko alderdiei dagokienez, hala nola, zentro bakoitzeko gehienezko plaza-kopurua ezartzea;

- zuzenean intimitaterako eskubidearekin lotuta dauden alderdi material batzuk hobetzea, hala nola, pertsona batentzako gelen proportzioa; egun, nahitaez bete beharreko gutxienezko proportzioa plaza guztien %25 da;

- laguntzaren indibidualizazioaren ondorioz sortutako beharretarako egokiagoak diren langile-ratioak ezartzea, ratio globalez gain, presentzia-ratioak ere zehaztuz eta egun ezarritako zuzeneko arretako langile-ratioak handituz.

### Pertsona nagusientzat diren eguneko zentroen arautegia

Mendekotasun arazoak dituzten adineko pertsonentzako eguneko zentroak urriaren 17ko 2002/2000 Dekretuan arautu dira.

Arau horrek bere jardun-eremua mugatzen du, eguneko zentroak honela definituz: *"bere izena edo titulartasuna edozein izanik ere, 60 urtetik gorako 5 pertsona edo gehiagori eguneko banan-banako laguntza-programa ematen dien edozein establezimendu; pertsona horiek beste batzuen laguntza behar dute eguneroko bizitzako jarduerak egiteko edota, egoera pertsonal edo sozialengatik, aipatutako taldearekin parekatu daitezkeen pertsonak ere izan daitezke. Tokiak eta instalazioek helburu hori izan behar dute, eta euren jarduera-programak eta langileak izan behar dituzte".*

Horrez gain, arauak adierazten du zentro horiek honako pertsona hauei zuzenduta egongo direla: familiakoekin bizi diren 60 urtetik gorako adineko pertsonak, arrazoi fisiko edo psikikoengatik eguneroko bizitzako jarduerak egiteko maila ertain edo altuko

zailtasuna dutenak; edota, bakarrik edo familiakoekin bizi eta eguneroko bizitzako jarduerak (oinarrizkoak eta/edo instrumentalak) egiteko ezgaitasun maila arina izanik, arrazoi ezberdinengatik okerrera egiteko arriskuan daudenak: adinean aurrera eginda egotea, gizarte-babesik eza edo gaixotasuna. Horrek eguneko zentroetara sartzeko aukeratik kanpo uzten ditu ezgaitasun maila esanguratsua izanik ere, bakarrik bizi diren pertsonak.

Egoitzetan bezala, arauak, funtsean, jaso egiten ditu adineko pertsonei dagokienez Europa mailan finkatuen dauden jardunbide egokirako irizpideak eta onartu egiten ditu erabiltzaileen eskubideak, baina hemen ere gabezia garrantzitsuak daude:

- Horrela, arauak arreta mota hori ez du txertatzen eguneko arreta-zerbitzuen multzo handiago batean; multzo horretan, eguneko zentroek modalitate bat osatuko lukete, beste batzuen artean. Gabezia horren ondorioz, zailagoa da baliabide hori beste laguntza-formula batzuekin konbinatu daitekeen elementu malgu bat bezala ulertu ahal izatea.

- Hurbileko zerbitzuaren izaera ere ez du jasotzen, bere erabilgarritasuna bermatzeko zerbitzuaren funtsezko ezaugarria izan behar lukeen arren. Horren ondorioz, arreta integraleko egitura astunak sortzeko joera indartzen ari da, eta horiek erabiltzaileak urrundu egiten dituzte komunitateko zerbitzuetatik. Baliabide horiek aprobetxatzea bermatzeko beharraren ondorioz, mendekotasun arazoak dituzten pertsonentzako eguneko zentroek desiragarria izango litzatekeena baino edukiera handiagoa dute eta, hori dela eta, desiragarria izango litzatekeena baino jarduera-eremu geografiko zabalagoa hartzen dute, hau da, dagokion oinarrizko gizarte zerbitzuaren eragin-eremua baino handiagoa.

## 2. GIZARTE ZERBITZUEN ERABILTZAILEEN ETA PROFESIONALEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Gizarte zerbitzuen arloan eskubideak onartzea, eta are gehiago egoitza-arretan, funtsezko aurrerapausoa da gure sistemarako. Orain dela hamarkada batera arte, adineko pertsonen eskubideak aipatu ere ez ziren egiten gure arautegian eta ez ziren adierazten egoitzetako jardunean. Hala ere, pixkanaka sistemara sartuz joan dira.

Horrela, Gizarte Zerbitzuen Erabiltzaile eta Profesionalen Eskubide eta Betebeharren Gutunak nahitaezko baldintzak sustatzeko beharra ezartzen die gizarte zerbitzuak ematen dituzten herri-administrazio eta erakunde pribatuei, eskubideak gauzatu eta betebeharrak bete daitezen. Gure sisteman oso garrantzi handia duen testu horretan jasotako eskubideak honakoak dira: duintasuna, pribatutasuna, konfidentzialtasuna, autonomia, informazioa, beharren ebaluazioa, laguntzaren indibidualizazioa banakako plan baten esparruan, zerbitzuen kalitatea, partehartzea eta eskubideak ezagutu eta defendatzea. Horrez gain, Gutunak berariazko prozedura komun bat ezartzen du, iradokizunak eta kexuak aurkeztu, tramitatu eta erabakiak hartzeko.

Gutun horretan arautuak izateaz gain, erabiltzaile eta profesionalen eskubideak eta betebeharrak adineko pertsonentzako egoitzazko zerbitzuek eta eguneko zentroek

bete behar dituzten baldintzen arautegi erregulatzaileetan ere jasotzen dira, bai eta gizarte zerbitzuen zentro eta zerbitzuek izan behar dituzten barne-erregimeneko arautegietan ere.

## 3. ADINEKO PERTSONEI ZUZENDUTAKO ARRETA-ZERBITZUAK JASOTZEKO BIDEAK

### Etxeko laguntza zerbitzua jasotzea

Etxeko laguntza-zerbitzuak lortzeko, laguntza hori eskatzen duen pertsonaren bizilekuari dagokion oinarrizko gizarte zerbitzura jo behar da, hori baita behar den zerbitzu mota eta intentsitatea zehazteko ardura duena. Gainerakoan, zerbitzuaren antolaketa oso ezberdina da lurralde historiko bakoitzean.

**Arabako** Lurralde Historikoan, gaur egun bi sare ari dira lanean: batetik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak mendekotasun arazoak dituzten pertsonei emandako zerbitzua kudeatzen du lurralde historiko osoan, bai eta mendekotasun arazorik ez duten pertsonei emandako zerbitzua ere lurralde osoan, Vitoria-Gasteiz udalerrian izan ezik; eta, bestetik, hiriburuko Udalak mendekotasun arazorik ez duten pertsonei emandako zerbitzua kudeatzen du hiriburuan bertan.

Foru Aldundiak kudeaturiko zerbitzua lortzeko baldintzak eta prozedura 1998ko urriaren 13ko Etxeko Laguntza Zerbitzuen Arautegi Erregulatzailean ezarri dira. Oinarrizko gizarte zerbitzuak eskaera bakoitza aztertu eta honakoa adieraziko duen gizarte-txostena egin behar du: eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko mendekotasun maila, babes– eta laguntza-maila familia eta gizartearen aldetik, bere beharrei erantzuteko beharko lituzkeen prestazioak, eta prezio publikoaren hobaria edo salbuespena ekarriko luketen egoera sozio-ekonomikoak aintzat hartu diren. Txosten hori Gizarte Ongizaterako Erakundera igorriko da eta etxeko laguntzaren ardura duen Zuzendaritzak laguntza emango duen ala ez adieraziko du. Arrazoitu egin beharko ditu bere erabakia, laguntza mota, zerbitzua emango den ordu-kopurua eta, hala balegokio, bere iraupena, bai eta ordaindu behar den prezio publikoa ere. Erabakia Foru Organoak hartuko du.

Beste bi lurralde historikoetan etxeko laguntza-zerbitzuko sare bakarra dago, eta udal mailan kudeatzen da:

- **Bizkaian**, oinarrizko gizarte zerbitzuek zehazten dituzte zerbitzu mota eta bere intentsitatea, bai mendekotasun arazorik ez duten pertsonentzat, bai eta badituztenentzat ere. Horretarako, dagokion udal-arautegian jasota dauden prozedurak eta zerbitzua lortzeko baldintzak aplikatzen dituzte eta, ondorioz, zerbitzua lortzeko baldintza oso desberdinak daude lurralde historikoko udalerri ezberdinetan. Zerbitzua ematerakoan foru aldundiak duen partehartzeak mendekotasun arazoak dituzten pertsonei emandako zerbitzuaren finantziazioari bakarrik eragiten dio, finantziazio hori jasotzen duen ataleko baldintzen arabera.

- **Gipuzkoan**, oinarrizko gizarte zerbitzuek, etxeko laguntza-zerbitzurako eskera bat jasotzen dutenean, txosten soziofamiliarra egin eta laguntza lortzeko ekonomia-

baremoa aplikatzen dute; ondoren, dokumentazio hori foru Aldundira bidaltzen dute, horrek mendekotasun maila balioetsi eta erabiltzailearen diru-ekarpena zehaztu dezan. Kalifikazioa edozein izanik ere, oinarrizko gizarte zerbitzuak erabakitzen du egokia den zerbitzu mota eta bere intentsitatea.

Mendekotasun arazorik ez duten pertsonei zuzenduriko etxeko laguntza-zerbitzuaren kasuan, udal bakoitzak bere arautegia aplikatzen du zerbitzu hori eskuratzeko eta prezio publikoak ezartzeko.

**Egoitzazko zerbitzuetan sartzea**

155/2001 Dekretuaren arabera, uztailaren 30ekoa, gizarte zerbitzuen arloko funtzioak zehazten dituena, mendekotasun arazoak dituzten adineko pertsonei egoitzetan emandako laguntza foru aldundien erantzukizuna da, eta mendekotasun arazorik ez duten pertsonentzako egoitza-alternatibak (etxebizitza komunitarioak eta babespeko apartamentuak) udalen erantzukizuna dira.

Hiru lurralde historikoetan, honako elementu hauek baldintzatzen dute sarrera: adina (60 urte baino gehiago izatea), dagokion lurralde historikoko udalerriren batean erroldatuta egotea, dagokion balioespen –batzordearen aldeko txostena eta osasun-egoera (gizarte zerbitzuetako sareko egoitza– baliabideetan laguntza ematea ezinezkoa egiten duen osasun-egoerarik ez edukitzea, hau da, osasun-arreta maila altuagoa eta beste mota batekoa behar duen osasun-egoeran ez egotea).

Mendekotasun arazoak dituzten pertsonak egoitzazko zerbitzuetara sartzeko sisteman lurraldeen artean dauden ezberdintasun nagusiak honakoak dira:

- eskaera egin aurretik bertan erroldatuta egon behar den aldia; Araban eta Bizkaian hiru urtekoa da eta Gipuzkoan bikoa;
- diru-sarreren gehienezko maila Bizkaian; diru-sarreren gehienezko maila hori gainditzen dutenak ezin izango dira erantzukizun publikoko sareko zentroetan sartu;
- mendekotasun maila balioesteko tresnak.

Prozeduraren faseak, aldiz, funtsean berdinak dira hiru kasuetan: egoitzako plaza bat lortzeko eskaera oinarrizko gizarte zerbitzura eraman behar da, eskaera egiten duen pertsona bizi den udalerriko oinarrizko gizarte zerbitzura hain zuzen ere; horrek txosten soziofamiliarra egiten du eta adineko pertsonentzako arreta-zerbitzura igortzen du, balioetsia izan dadin; balioespen horren ardura batzorde teknikoek daukate. Batzorde horiek egindako txostena hartzen da oinarritzat pertsonaren sarrera onartzeko edota itxaron-zerrendan dagokion tokia zehazteko. Eskatzaileak gizarte zerbitzuen zentroen foru-sarera (aldundiarenak berarenak eta itundutakoak) sartzeko duen eskubidea onartzen duen erabakia eta, hala badagokio, plaza bat emateko erabakia, foru-organoei dagokie.

Mendekotasun arazorik ez duten adineko pertsonek sistema publikoko egoitza-plaza bat lortzeko aukera, zehazki etxebizitza komunitario eta babespeko apartamentuetan, udal bakoitzeko arautegiak arautzen du; salbuespen bakarra dago: Arabako Lurralde Historikoan

foru Aldundiak mendekotasun arazorik ez duten pertsonei eskaintzen dizkien egoitza-alternatibak, horiei foru-sareko zerbitzuetara sartzeko arautegia aplikatzen baitzaie.

### Eguneko zentroetan sartzea

Hiru lurralde historikoetan, erantzukizun publikoko sareko eguneko zentroetara sartzeko sistema mendekotasun arazoak dituzten pertsonentzat, funtsean, egoitza-plazak lortzeko aplikatzen den sistemaren berdina da. Bereizgarri batzuk soilik nabarmentzen dira: **Araban**, aurretiaz erroldatuta egon beharreko aldia hiru urtetik batera jaisten da eta ohiko bizilekua Arabako Lurralde Historikoan, zerga-ondorioetarako, eskaeraren aurre-aurreko ekitaldiarekiko bakarrik eskatzen da; eta **Bizkaian,** hurbileko laguntzak edukitzea eskatzen da, pertsona onuradunak laguntza egokia izan dezan eguneko zentroan laguntza ematen ez zaion orduetan.

### Plazen kudeaketa: itxaron-zerrendak

Bai egoitzen kasuan, bai eta eguneko zentroen kasuan ere, mendekotasun maila zehazteko Aldundiak egindako balioespenean oinarrituz, pertsona bakoitzari puntuazio bat ematen zaio, eta puntuazio horrek zehaztuko du bere lehentasun-ordena hutsik geratzen diren plazak lortzeko orduan. Plaza bat lortu bitartean, erabiltzailea itxaron-zerrendan egongo da; zerrenda hori etengabe eguneratzen da.

Araban, zentroetan sartzeko itxaron-zerrendaz gain, beste itxaron-zerrenda ezberdindu bat ere badago. Zerrenda horretan jartzen dira erantzun ezin diren eskaerak, agortu egin delako sare publikotik kanpoko zentroetan sartzeko banakako diru-laguntzetara zuzendutako aurrekontu-kreditua. Zerrenda horretan dauden erabiltzaileak ez daude foru-egoitza plazetan edo itundutakoetan sartzeko itxaron-zerrendan.

Zaila da hiru lurralde historikoetan dauden itxaron-zerrendak alderatzea. Izan ere, Bizkaiak erantzukizun publikoko sistemako plaza batera sartzeko eskubidea edota sare horretatik kanpo dauden zentroetara sartzeko diru-laguntzak jasotzeko eskubidea bakarrik onartzen die muga batetik beherako diru-sarrerak dituzten pertsonei, hau da, diru-sarreren maila sistematik kanpo uzteko faktoretzat hartzen du. Horren ondorioz, diru-sarreren maila hori gainditzen duten pertsona guztiak, nahiz eta egoitza-plaza bat behar izan, ez daude Bizkaiko itxaron-zerrendetan.

## 4. ZERBITZUEN FINANTZIAZIOA

### Administrazioen erantzukizun finantzarioa 155/2001 Dekretuaren ondoren

5/1996 Legeak, urriaren 18koak, gizarte zerbitzuei buruzkoak, agintzen du foru aldundiek urtero euren aurrekontuetan jaso behar dituztela dagozkien eskumenen gauzatzea finantzatzeko beharrezko kopuruak, bai eta udalei eta udalaz gaineko erakundeei dagokion aldundiak onartutako zerbitzu edo programa osagarrien finantziazioa bermatzeko kopuruak ere. Udalen kasuan, berariazko kontu-sailak ezarriko dituzte euren aurrekontuetan, dagozkien gizarte zerbitzuak sortu, mantendu eta kudeatzeko.

Bestalde, 155/2001 Dekretuak, uztailaren 30ekoak, gizarte zerbitzuen arloko funtzioak zehazteari buruzkoak, aldundiei ematen die mendekotasun arazoak dituzten adineko pertsonei laguntza emateko erantzukizuna, eta udalei mendekotasun arazorik ez duten adineko pertsonena. Dekretu horrek, lehenengo xedapen iragankorrean, honakoa jasotzen du: *"eskumena duten administrazioek 2002ko abenduaren 31rarteko epea izango dute dagokion finantza-doikuntza egiteko erakunde ezberdinen artean"*.

Praktikan, xedapen horiek gauzatzean zailtasun ezberdinak agertzen dira, zerbitzu mota bakoitzari lotuta.

## Etxeko laguntza-zerbitzuaren finantziazioa

### *Administrazioaren parte-hartze ekonomikoa*

Gizarte Zerbitzuen Legearen arabera, udalen erantzukizuna da etxeko laguntza-zerbitzua ematea, eta oinarrizko gizarte zerbitzuen esku utzitako funtzioetariko bat da. Agindu hori ulertzeko, kontuan hartu behar da 155/2001 Dekretuak, uztailaren 30ekoak, gizarte zerbitzuen arloko funtzioak zehazteari buruzkoak, jasotzen duena. Dekretu horren arabera, foru aldundien erantzukizuna da mendekotasun arazoak dituzten pertsonei arreta ematea, eta udalena mendekotasun arazorik ez duten pertsonei laguntza eskaintzea. Erakunde horren arabera, arau bakoitzak duen arau maila dela-eta, ulertu behar da zerbitzua emateko eskumena udalena dela, baina mendekotasun arazoak dituzten pertsonei ematen zaien finantziazioa foru aldundiei dagokiela. Funtzio horien esleipena praktikan gauzatzea zailtasun handiak sortzen ari da.

**Araban,** lurraldearen ezaugarri berezien ondorioz, sistemak ez du oinarrizko eskema hori jarraitzen. Horrela, Aldundiak bere gain hartzen du mendekotasun arazoak dituzten pertsonentzako etxeko laguntza-zerbitzuaren finantziazioa lurralde historiko osoan, hiriburua barne, bai eta mendekotasun arazorik ez duten pertsonentzako etxeko laguntza-zerbitzuarena ere udalerri guztietan, Vitoria-Gasteizen izan ezik. Bere aldetik, hiriburuko Udalak bere gain hartzen du mendekotasun arazorik ez duten pertsonentzako etxeko laguntza-zerbitzuaren finantziazioa udalerri horretan.

**Bizkaian,** udalei dagokie etxeko laguntza-zerbitzua kudeatzea, bai mendekotasun arazorik ez duten pertsonen kasuan, bai eta arazo horiek badituztenen kasuan ere. Azken talde horri eman beharreko zerbitzuaren finantziazioari dagokionez, gaur egun nolabaiteko nahastea dago foru eta udal teknikariek jakinarazitako informazioen artean.

Alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskadiko Udalen Elkarteak (Eudel) funtzio-banaketa antolatzeko sinatutako Hitzarmenak finantza-fluxuen banaketa jasotzen du, eta bertan adierazten dira Bizkaiko Foru Aldundiak udal bakoitzari transferitzen dizkion kopuruak zerbitzu ezberdinak emateko; zerbitzu horien artean dago etxeko laguntza-zerbitzua. Kopuru hori (8.340.088 euro) mendekotasun arazoak dituzten eta ez dituzten pertsonei emandako zerbitzua finantzatzera zuzenduta dago; urtero eguneratzen da eta udalei transferitzen zaie Lurralde Ekintzan eskumena duen Sailetik. Modu osagarrian, Bizkaiko Foru Aldundiak, egoitzetan sartzeko itxaron-zerrendan dauden mendekotasun handiko pertsonei emandako etxeko laguntza-zerbitzuak sortu duen gainkostua

dela-eta, diru-laguntzen linea bat dauka, hori eskatzen duten Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko erakunde eta udalerrien partzuergoei zuzenduta. Diru-laguntza horien muga 2004an honakoa da: 25 ordu hilabete eta pertsona bakoitzeko eta orduko 15,47 euroko gehienezko prezioa.

Udal-eremutik, aldiz, adierazten da, maila teknikoan gutxienez, une honetan mendekotasun arazoak dituzten pertsonei emandako etxeko laguntza-zerbitzuaren foru-finantziazioa diru-laguntzen azken linea horren bidez soilik egiten dela. Horrela, ez da aintzat hartzen Lurralde Ekintzako Sailetik urtero egindako transferentzia, ulertzen baita transferentzia hori mendekotasun arazorik ez duten pertsonei emandako etxeko laguntza-zerbitzua finantzatzeko soilik dela.

**Gipuzkoan** ere udalak dira etxeko laguntza-zerbitzua emateaz eta kudeatzeaz arduratzen direnak. Foru Aldundiak, bere aldetik, mendekotasun arazoak dituzten pertsonei emandako zerbitzua hartzen du bere gain, baina Diputatuen Batzordeak urtero hitzartzen dituen muga batzuetaraino: hitzarmen horretan, batetik, udal bakoitzari urteko laguntza-orduen kupoa ezartzen zaio eta, bestetik, zerbitzu-ordu bakoitzeko gehienezko prezioa finkatzen da. 2004rako, finantzatutako zerbitzu-orduen guztizko kupoa 730.000 ingurukoa da eta orduko gehienezko prezioa 13,98 euroan ezarri da. Muga horiek, zehazki ordu bakoitzeko prezioari dagokiona, zailtasun handiak sortzen ari dira foru Aldundiaren eta udalen artean; azken horiek, Aldundiak ezarritako gehienezko prezioaren eta merkatuko prezioaren arteko aldea finantzatzen dutenez, uste dute foru-erakundeak bere gain hartu beharko lituzkeen kostuak ordaintzen ari direla.

### *Erabiltzaileen diru-ekarpena*

Araban eta Gipuzkoan, etxeko laguntza-zerbitzua erabiltzen duten eta mendekotasun arazoak dituzten pertsonen diru-ekarpena prezio publikoei buruzko arautegiek ezartzen dute.

**Araban,** hilabete bakoitzeko 251,19 euroko gehienezko prezioa ezartzen du arauak. Erabiltzaile bakoitzari dagokion prezioa zehazteko, zenbait hobari aplikatzen dira, esleitutako ordu-kopuruaren eta bizikidetzako unitatearen gaitasun ekonomikoaren arabera, horretarako bere baremoa erabiliz.

**Gipuzkoan,** 2004rako ezarritako tarifa orduko 13,98 eurokoa da. Onuradunaren gaitasun ekonomikoa kalkulatzeko, errenta maila, ondarea eta familia-unitateko pertsona-kopurua hartzen dira kontuan eta, erabiltzen den sistemaren arabera, tarifari egindako hobariak ondarea agortu eta gero soilik aplikatzen dira.

**Bizkaiko** Lurralde Historikoan, zerbitzua antolatu, eman eta kudeatzea udalei dagokienez, erabiltzailearen diru-ekarpena, mendekotasun arazoak izan edo ez, udalerri bakoitzean zehazten da, prezio publikoei buruzko bakoitzaren arautegien arabera.

Mendekotasun arazorik ez duten adineko erabiltzaileen diru-ekarpenari dagokionez, udalerri bakoitzak zehazten du, prezio publikoen bere arautegian zein etxeko laguntza-zerbitzuaren arautegi erregulatzailean, Arabako egoeraren ohiko salbuespenarekin.

## Egoitzazko zerbitzuen finantziazioa

### *Administrazioaren parte-hartze ekonomikoa*

**Araban,** Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak bere gain hartzen du egoitza-arreta mota ezberdinak lurralde historiko osoan finantzatzeko erantzukizuna, mendekotasun arazoak dituzten pertsonak izan edo ez. Salbuespen bakarra Vitoria-Gasteizen gertatzen da, bertan, Udalak, mendekotasun arazorik ez duten udalerriko pertsonen egoitza-arreta bere gain hartzeaz gain, mendekotasun arazoak dituzten pertsonei zuzendutako ehun plaza lagundu baitauzka, San Prudentzio Egoitzan.

Arabako Foru Aldundiak egoitzetako plazak finantzatzeko egiten duen ekarpenak honako arau hauek jarraitzen ditu:

- Aldundiaren beraren plazen kasuan, plazaren kostuaren eta erabiltzaileen diru-ekarpenaren arteko aldea finantzatzen du.

- Vitoria-Gasteizko Udalarekin hitzartutako plazen kasuan, elkarrekin finantzatzen dute plazaren kostuaren eta erabiltzaileen ekarpenaren arteko aldea; erabiltzailearen ekarpen hori udal-arauen arabera ezarriko da.

- Itundutako plazetan, zerbitzuaren kontzertazioa edo kontratazioa jasotzen duen lehiaketaren oinarrietan ezarritako tarifaren (urtero KPIren arabera igoko da) eta erabiltzaileen ekarpenaren arteko aldea finantzatzen du.

**Bizkaian,** 155/2001 Dekretuak ezarritako funtzio-banaketa berritik aurrera, Foru Aldundiak egoitza-plaza lagunduen finantziazioan bakarrik parte hartzen du (Txurdinagako Egoitzaren salbuespenarekin, GUFEri baitagokio); bere partehartze ekonomikoak honako arau hauek jarraitzen ditu:

- Aldundiaren beraren plazen kasuan, Aldundiak plazaren kostuaren eta erabiltzailearen diru-ekarpenaren arteko aldea finantzatzen du.

- Hitzartutako, itundutako eta kontratatutako plazen kasuan, egoitzazko zerbitzu ezberdinen artean kostu-desberdintasun handia dago eta, ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiak gehienezko kostu teoriko bat ezarri du; kostu hori, 2004rako, eguneko 53,51 eurokoa da plaza lagunduetarako. Plazaren benetako kostua aurreikusitako gehienezko kostu teorikoa baino baxuagoa bada, benetako kostu hori hartzen da kontuan.

**Gipuzkoan** Administrazioaren partehartze ekonomikoa zehazteko erabiltzen den sistema, funtsean, Bizkaikoaren berdina da:

- Alde batetik, Aldundiaren beraren zentroetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak zerbitzuaren kostuaren eta erabiltzaileen diru-ekarpenaren arteko aldea finantzatzen du.

- Beste alde batetik, gehienezko tarifa batzuk ezartzen dira foru Aldundiak erakunde kudeatzaile ezberdinekin itundu, hitzartu eta kontratatutako plaza guztiei aplikatzeko. 2004rako, otsailaren 3ko Diputatuen Batzordearen Hitzarmenak honako gehienezko

kopuru hauek ezarri ditu: 56,82 euro psikogeriatria-plazetarako; 52,45 euro mendekotasun arazo handiak dituzten pertsonentzako plazetarako; 43,22 euro mendekotasun arazoak dituzten pertsonei zuzendutako plazetarako; eta 34,66 euro erabiltzaileen beste kategoria batzuek betetako plazen kasuan.

Horrez gain, Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiek banakako laguntzen linea bat daukate, sare publikotik kanpo dauden zentroetako egoitza-plazak finantzatzeko. Bi kasuetan kanpoan geratzen dira etxebizitza komunitarioak.

Formula hori orain dela urte askotatik erabiltzen da **Bizkaian**. **Araban**, aldiz, berria da.

### *Erabiltzaileen diru-ekarpena*

**Araban,** erabiltzailearen diru-ekarpena prezio publikoen arautegi erregulatzailean jasotzen da, eta horrek hilabete bakoitzeko 841,42 euroko gehienezko tarifa ezarri du egoitza-baliabide lagunduetako plazetarako.

Diru-ekarpen hori honako arau hauek kontuan hartuz aplikatzen da:

- Pertsona batek ondasun higiezinak edo beste mota bateko ondarea badu, eta ondare horri eman zaion balio globala 18.030,36 eurotik gora badago, pertsona horrek prezio publiko osoa ordaindu behar du.

- Onuradunek egiaztatzen badute baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela prezio publiko osoa ordaindu ahal izateko, ordainketaren zati bat atzeratu dezakete, horretarako zor-aitorpena sinatzen badute.

Egoitzan dagoen pertsonari erabilera librerako geratuko zaion urteko diru-kopuruak beti izan beharko du 1.236 euro baino altuagoa.

**Gipuzkoan,** egoitza-plazen prezio publikoa foru Aldundiak itundu, hitzartu eta kontratatutako plazen foru-finantziazioa zehazteko urtero ezartzen dituen gehienezko tarifa teorikoen berdina da. Erabiltzaileen diru-ekarpena, beraz, kopuru hori berori kontuan hartuz kalkulatzen da. Plazaren benetako kostua ezarritako gehienezko tarifa teorikoa baino baxuagoa bada, diru-ekarpena kalkulatzeko benetako kostu hori hartzen da oinarritzat. 2004rako tarifa aplikagarriak honako hauek dira: 56,82 euro/eguneko psikogeriatriako plazetarako; 53,45 euro/eguneko mendekotasun arazo handiak dituzten pertsonentzako plazetarako; 43,22 euro/eguneko mendekotasun arazoak dituzten pertsonei zuzendutako plazetarako; eta 34,66 euro/eguneko beste mota batzuetako erabiltzaileek betetako plazetarako.

Erabiltzailearen diru-ekarpena zehazteko erabiltzen den sistemaren arabera, ondarea agortu ondoren bakarrik aplikatu ahal izango zaizkio hobariak tarifari. Horrez gain, beti bermatuko da erabilera librerako kopuru bat, eta kopuru hori gutxienez LGSren %20 izango da.

**Bizkaian,** Gipuzkoako sistemaren antzekoa erabiltzen da.

### Eguneko zentroen finantziazioa

#### *Administrazioaren parte-hartze ekonomikoa*

Administrazioak eguneko zentroen finantziazioan duen partehartze ekonomikoa egoitzen finantziazioan duena bezala antolatzen da:

- Aldundien euren plazen kasuan, foru aldundiek zerbitzuaren kostuaren eta erabiltzailearen ekarpen ekonomikoaren arteko aldea finantzatzen dute.

- Itundu, hitzartu edo kontratatutako plazen kasuan, Administrazioaren finantziazioa honakoa da: Araban, erakundearekin itundutako tarifaren eta erabiltzailearen diru-ekarpenaren arteko aldea; Gipuzkoan eta Bizkaian, gehienezko tarifa teorikoaren eta erabiltzailearen diru-ekarpenaren arteko aldea. 2004rako ezarritako tarifa teorikoak honakoak dira: Gipuzkoan 36,42 euro/eguneko; eta Bizkaian 39,59 euro/eguneko dementzia duten pertsonei zuzendutako plazetarako, eta 36,62 euro/eguneko ezgaitasun fisikoa duten pertsonentzako plazetarako. Plazaren benetako kostua aurreko epean ezarritako gehienezko kostu teorikoa baino baxuagoa bada, benetako kostua hartzen da kontuan.

#### *Erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa*

**Araban** eta **Gipuzkoan,** erabiltzailearen diru-ekarpena prezio publikoen arautegiek arautzen dute. 2004rako, hauek dira ezarritako prezioak: 341,70 euro hilabeteko (gutxi gorabehera 15,53 euro/eguneko) Arabako arautegian, eta 36,42 euro/eguneko Gipuzkoakoan.

**Bizkaian,** 2004rako ezarritako gehienezko tarifak honakoak dira: 39,59 euro/eguneko dementzia duten pertsonentzako plazen kasuan eta 36,62 euro/eguneko ezgaitasun fisikoa duten pertsonentzako plazetarako.

Hiru lurralde historikoetan, ezarritako prezio publikoari aplikatzeko hobariak aurreikusten dira, onuradunek egiaztatzen badute prezioa bere osotasunean ordaindu ahal izateko baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela.

## 5. ESPARRU SOZIOSANITARIOA SORTZEKO AURRERAPAUSOAK

Eremu soziosanitarioaren gaia Txosten honen esparrutik harago doan arren, adineko pertsonentzako laguntzarako ekintza-eremu bateratu horren sorkuntza gauzatzeko egin diren aurrerapauso adierazgarri batzuk aipatu nahi izan dira.

Aurrera egite horretan nabarmendu beharrekoak dira Euskal Autonomia Erkidegoko Plan Soziosanitarioa, 2001eko urrikoa, eta Eusko Jaurlaritzak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta Euskadiko Udalen Elkarteak (Eudel) egindako lankidetzarako Hitzarmena Euskal Autonomia Erkidegoan arreta soziosanitarioa garatzeko, 2003ko urtarrilaren 30ean sinatu zena.

Erakunde arteko 2003ko Hitzarmenak administrazioen konpromisoa jasotzen du eremu soziosanitarioa eratzeko, eta eremu hori garatzeko antolaketa-egitura sendoa ezarri du:

- Arreta Soziosanitariorako Euskal Kontseilua, autonomia-eremua hartzen duena.
- Arreta soziosanitariorako lurralde-kontseiluak (lurralde historiko bakoitzean bat).
- Arreta soziosanitariorako lau koordinatzaile: autonomia mailako koordinatzaile bat eta hiru lurralde-koordinatzaile.
- Kontseilu bakoitzaren baitan sortutako batzorde tekniko edo sektorialak.

Gaur egunera arte, adineko pertsonentzako laguntzaren arloan, aurrerapausorik garrantzitsuena maila teknikoan gertatu da eta aurrerapauso hori EAEn mendekotasuna balioesteko erabiliko den tresnari buruz lortutako akordioan datza, 2004ko maiatzean lortu zena. Tresna ugari ikertu eta gero, "RAIa (%20ko bertsioa) eta RUG III sailkatzailea" aukeratu dira.

## III. MENDEKOTASUN ARAZOAK DITUZTEN ADINEKOENTZAKO GIZARTE ZERBITZUEN BILAKAERA EAEN: 1991-2001

### 1. POPULAZIOAREN BILAKAERA

90. hamarkadan zehar, EAEko adineko pertsonen kopuruak lehenago inoiz bizi izan ez duen hazkundea izan du, ehuneko 35,3 ingurukoa. Gertaera horrek, demografia-geldialdiarekin batera, zahartze maila ia bost puntu igotzea ekarri du (ehuneko 12,4tik ehuneko 17,0ra); aldi horretan, ezgaitasun arazoak dituzten adinekoen kopuruak antzeko proportzioan egin du gora, ehuneko 35,8 hain zuzen ere. 2010erako egindako proiekzioen arabera, populazio zaharraren hazkunde moderatuago bat gertatuko da, ehuneko 18,5 ingurukoa, eta talde horren barnean zahartze handia jazoko da; bi prozesu horien ondorioz, ezgaitasuna duten adineko biztanleen hazkunde-tasa mantendu egingo da. Beraz, itxaron behar da 2010erarte laguntza-beharrak haziz joango direla, laurogeita hamargarren hamarkadan hazi izan diren erritmo berean.

**155. taula: Oinarrizko demografia-datuak**

| | 1991 | 2001 | 2010 |
|---|---|---|---|
| Biztanleak guztira | 2.104.000 | 2.082.600 | 2.048.600 |
| Adineko biztanleak | 261.400 | 353.600 | 419.100 |
| Ezgaitasuna duten adineko biztanleak | 32.691 | 44.396 | 60.234 |

## 2. ZERBITZUEN BILAKAERA

### Babesaren estaldura

Ezgaitasuna duten adinekoen kopuruaren hazkunde nabariak dakarren arazoari euskal gizarte zerbitzuek eman dioten erantzunaren ondorioz, banakako laguntzarako programa eta zerbitzuak oraindik gehiago hazi dira: 1991ean, 14.515 pertsonari ematen zieten laguntza eta, hamar urte geroago, programa eta zerbitzu horien babesa 27.140 pertsonarengana iristen zen, hau da, ehuneko 87ko hazkundea izan zuen. Hazkunde-erritmo ezberdin horien ondorioz, zerbitzu horien estaldura ehuneko 5,3tik ehuneko 7,3ra igaro da, eta eraginkortasun horizontala ehuneko 44,1etik ehuneko 61,1era. Hala ere, prozesua bidezko mugen barruan jartzeko, gogoratu behar da erabiltzaile-kopuruaren hazkundearen zatirik handiena, erdia baino gehiago, etxeko laguntza-zerbitzuak hedatu izanaren ondorioz gertatu dela; zerbitzu horien bezero-kopurua ehuneko 108 igo da, aldiaren amaieran laurogeita hamaikan eskaintzen zuten laguntza-orduen kopurua baino ehuneko 29 gehiago bakarrik eskaintzen duten arren.

**156. taula: Babesaren estaldura**

| Banakako laguntzarako zerbitzuak | Plazak/erabiltzaileak | | Estaldura | | Eraginkortasun horizontala | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | *1991* | *2001* | *1991* | *2001* | *1991* | *2001* |
| Egoitzak | 7.848 | 12.125 | 3,00 | 3,43 | 24,01 | 27,31 |
| Eguneko zentroak | 232 | 1.611 | 0,09 | 0,46 | 0,71 | 3,63 |
| Etxeko laguntza | 6.435 | 13.404 | 2,46 | 3,79 | 19,68 | 30,19 |
| **GUZTIRA** | **14.515** | **27.140** | **5,55** | **7,68** | **44,40** | **61,13** |

Hamarkada horretan biztanleen beharretara hurbiltzeko egindako ahalegina garrantzitsua izan zela aitortu behar den arren, hasierako egoerak gabezia ugari zituen eta, hori dela eta, 2001eko egoera egokia izatetik urrun dago:

- Euskal gerontologia-plan biek, laurogeita hamarrekoak eta laurogeita hamalaukoak, benetan lortutakoa baino estaldura nabarmen handiagoa aipatzen zuten 2000. urterako; lehenengoaren ustez, babesaren estaldura adineko biztanleen ehuneko 17 baino zerbait gehiagora zabaldu behar zen eta bigarrenak, kontserbadoreagoa, proportzio hori ehuneko 11tik gora jartzen zuen.

- Laurogeita hamalaugarreneko gerontologia-planaren helburuak ezin dira handizaletzat balioetsi Araban gertatutakoa kontuan hartzen badugu. Lurralde horretan, erreferentzia-ratioak lortu egin dira, eta ezin da esan Araban babesaren hipergarapenik egon denik.

- Europako gure inguruko herrialdeetako benetako estaldurek, bai egoitzetako bai etxeko laguntzari dagokionez, alde handiz gainditzen dituzte gure gerontologia-planik handizaleenak (laurogeita hamarrekoak) defendatzen zituenak.

Beste ikuspuntu batetik, soilik hamar urteren buruan babesaren estaldura ehuneko 87 hazi izana deigarria den gertaera da, bereziki, hazkunde hori gertatzen den testuingurua ikusita: testuinguru horren ezaugarriak dira erabakien atomizatzea – zerbitzu horiek sustatu eta kudeatzea hiru aldundi, 250 udal inguru eta beste hainbeste erakunde pribaturi dagokie – eta prestazio horiek aukerakoak izatea eta, beraz, ez-galdagarriak. Hala ere, gainerako babes-sistemekin alderatuz ezberdina den antolaketa berezi horren txanponaren beste aldea da, geografikoki modu oso ezberdinean garatutako eskaintza dagoela. Horrek adineko pertsonen diskriminazio larria eragiten du, bizi diren tokiaren arabera. Izan ere, hiru zerbitzuek, egoitzazkoak barne, izaera komunitarioa dute eta, beraz, hurbil daudenean soilik sar daiteke baldintza egokietan. Zentzu horretan, hamar urte horien buruan, arazoak larritu edo gelditu egin dira. Zehazki, zatidura bidezko ezberdintasunak estaldura handiena eta txikiena duten eremuen artean, urte horien buruan, hazi egin dira lurralde-mailan, 1,59tik 1,89ra, eta eskualde mailan egonkortu egin dira, 4,4 inguruan.

Batetik laurako ezberdintasun erlatiboak, hau da, eskualdeen artean dagoen aldeak bezalakoak, honako ondorio hau izan dezake (adibide nahiko zakarra erabilita, baina oso adierazgarria eta koherentzia estatistiko nahikoa duena): mendekotasun arazoak dituen eta estaldura handieneko eskualdean bizi den adineko pertsona batek lau aldiz aukera gehiago du banakako laguntzako gizarte zerbitzuetako bat lortzeko, estaldura gutxieneko eskualde batean bizi denak baino. Argi eta garbi, gertaera hori gure zerbitzuen funtzionamendua zuzentzen duten unibertsaltasun– eta berdintasun-printzipioen aurka doa.

Jarraian, modu grafikoan, 2001ean geografia-eremu ezberdinetan zeuden estaldura-ezberdintasunak jaso dira: lurraldeak, eskualdeak, biztanle-kopuruaren eta lurraldearen arabera taldekatutako udalerriak, eta 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerriak. Abiapuntutzat hartuta Arabako estaldura (ehuneko 11,44) onargarria dela – gogoratu behar da bat datorrela bigarren gerontologia-planean aipatutakoarekin –, honako eremu hauek estaldura guztiz desegokia dute, Araban lortzen den estalduraren erdia baino baxuagoa:

- Eskualdeak: Durangaldea eta Markina-Ondarroa.
- Udalerrien estratuak: hamar mila eta berrogeita hamar mila biztanle bitartean dituzten Bizkaiko udalerriak.
- Bost mila biztanletik gora dituzten udalerriak: Abadiño, Amorebieta-Etxano, Barakaldo, Basauri, Berango, Bermeo, Durango, Erandio, Ermua, Etxebarri, Galdakao, Gernika-Lumo, Getxo, Gueñes, Ondarroa, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao eta Trapagaran, Bizkaian, eta Deba, Elgoibar, Lasarte-Oria, Lezo, Urnieta, Urretxu, Usurbil eta Zumarraga, Gipuzkoan; udalerri-multzo horretan bizi dira hirurogeita bost urte edo gehiago dituzten euskal biztanleen ehuneko 28,8, 2001ean.

### 143. grafikoa: Banakako laguntzako programa eta zerbitzuen estaldura: Erkidegoa, lurraldeak, eskualdeak eta udalerrien estratuak

Lurraldeak




Eskualdeak




**Udalerrien estratuak**

Araba




Bizkaia




Gipuzkoa



**144. grafikoa: Banakako laguntzako programa eta zerbitzuen estaldura: bost mila biztanle baino gehiago dituzten udalerriak**












Denbora aurrera joan ahala, laguntzaren egiturak aldaketa garrantzitsuak jasaten ditu eta arinagoa bihurtzen da, hiru zerbitzuek euren estaldura modu nabarian handitu duten arren. 1991ean, egoitza-zentroek estaldura osoaren ehuneko 54 eskaintzen zuten eta, beste muturrean, eguneko zentroen estaldura ez zen ehuneko 2ra iristen; hamar urte geroago, eguneko zentroak finkatuago daude, estaldura osoaren ehuneko 6 hartzen dute, etxeko laguntzak ehuneko 49ko maila gainditzen du eta egoitza-arreta ehuneko 45era jaitsi da. Estaldurak gehitu ahala, zerbitzuak arindu egiten dira, eta joera logiko hori berretsi egiten du lurralde garatuenean, hau da, Araban gertatzen denak: lurralde horretan egoitzazko zerbitzuek nekez gainditzen dute babes osoaren ehuneko berrogeia.

**157. taula: Laguntzaren egitura 2001ean (% horizontalak)**

| | Egoitzak | Eguneko zentroak | Etxeko laguntza | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 40,3 | 8,2 | 51,5 | 100,0 |
| Bizkaia | 46,8 | 3,8 | 49,4 | 100,0 |
| Gipuzkoa | 44,3 | 7,6 | 48,1 | 100,0 |
| **EAE** | **44,7** | **5,9** | **49,4** | **100,0** |

## *Zerbitzuen kostua eta finantzabideak*

Ezgaitasun arazoak dituzten adineko pertsonentzako gizarte-laguntzaren beharrei erantzuteko gastatutako diru-kopurua ia 103 milioi eurokoa izan zen 1991ean eta 258 milioi eurotik gorakoa 2001ean; beraz, diru-kopuru horren hazkundea ehuneko 151,7koa izan da balio korrontetan, eta ehuneko 75,8koa balio errealetan. Izugarri nabarmentzen da gastu horrek Gipuzkoan izan duen hazkundea, bikoiztu egiten baita euro konstantetan.

**145. grafikoa: Gastu osoaren bilakaera lurraldeka**







Gastu horrek barne produktu gordinarekiko duen proportzioak ere hamarkada honetan zehar hazkunde garrantzitsua izan du, ehuneko 33,8ko hazkundea hain zuzen ere; era berean, bultzada handiagoa ikus daiteke Gipuzkoan (ehuneko 56,6) eta bultzada nabarmen txikiagoa Araban (ehuneko 8,3). Garrantzitsua da egiaztatzea, aldi horretan, gizarte-ahaleginari dagokionez lurraldeen artean zeuden ezberdintasunak, BPGren bitartez neurtuak, modu esanguratsuan leundu direla; hala eta guztiz ere, Arabako gastua (bere BPGren ehuneko 0,883) Bizkaikoa baino ehuneko 42,2 altuagoa da. Bizkaia da, hain zuzen ere, gasturik txikiena duen lurraldea (bere BPGren ehuneko 0,621).

**146. grafikoa: Gastatutako BPGren proportzioaren bilakaera**




Adineko pertsona bakoitzeko gastua nabarmen hazi da aldi honetan, 393 eurokoa izatetik 732 eurokoa izatera igarotzen baita; horrek ehuneko 86,3ko hazkundea adierazten du euro korrontetan, eta ehuneko 30,2koa 2001eko eurotan. Ikuspegi honetatik ere lurraldeen arteko ezberdintasunak leundu egin diren arren, abiapuntuko egoera oso ezberdina zen eta, ondorioz, 2001ean, Araban mota honetako zerbitzuetan adineko pertsona bakoitzeko egindako gastuak, oraindik, Bizkaian egindakoaren bikoitza baino handiagoa izaten jarraitzen du.

**147. grafikoa: Adineko pertsona bakoitzeko egindako gastuaren bilakaera**




Azkenik, interesgarria da adieraztea gastu totalak, erabiltzaile eta plazen baturaren artean zatituta, pixka bat behera egiten duela euro konstantetan, ehuneko 6 hain zuzen ere. Egoera horren arrazoia da, neurri handi batean, kostu merkeagoko zerbitzuek, hau da, etxekoek, garrantzi handiagoa hartu dutela. Zentzu horretan, deigarria da, baita ere, laguntza-egiturarik arinenak, hots, Arabakoak, gastu unitariorik altuena izatea, kasu horretan, lurraldeen arteko ezberdintasunak hain garrantzitsuak ez diren arren.

**148. grafikoa: Erabiltzaile/plaza bakoitzeko gastuaren bilakaera**




Administrazio publikoek zentro eta zerbitzu horiek mantentzera bideratutako dirua bikoiztu baino gehiago egin da hamar urte hauetan, euro korrontetan, eta nabarmen handitu da baita ere, ia ehuneko laurogei, euro konstantetan; gastu horrek gastu osoaren antzeko ibilbidea jarraitu du. Gastu osoarekin gertatzen den bezala, ahaleginik handiena, hazkunde-erritmoari dagokionez, Gipuzkoako administrazioek egiten dute, eta ondoren Bizkaikoek.

**149. grafikoa: Lurralde bakoitzeko gastu publikoaren bilakaera**




Aldi honetan, zerbitzu horien finantziazioaren zatirik handienak publikoa izaten jarraitzen du, eta ekarpen publiko hori nahiko finko mantentzen da (ehuneko 61 edo ehuneko 62 inguruan) hiru lurraldeak batera hartuz, lurralde bakoitzean prozesua ezberdina den arren. Arabako administrazioek euren gain hartzen zuten gastuen ehuneko 80 baino zerbait gehiago, baina euren finantziazio maila ehuneko 75era jaitsi dute; bestalde, beste bi lurraldeek handitu egin dute euren finantziazio maila, baina kontuan izan behar dugu bi lurralde horietan abiapuntuko egoera nabarmen apalagoa zela.

**150. grafikoa: Finantzatutako gastuaren ehunekoaren bilakaera**




Gastu osoaren eta gastu publikoaren bilakaera-erritmoetan aurkitutako ezberdintasunen ondorioz eta, baita ere, aipatu bezala, laguntzaren egituran gertatutako aldaketa dela-eta, zerbitzu horiek finantzatzera bideratutako ekarpen pribatuak, erabiltzaile eta plazen arteko baturaz haztatuta, gora egiten du zerbait balio korrontetan, baina behera egiten du balio konstantetan hiru lurraldeetan; horrez gain, behera egiten du, baita ere, ekarpen pribatuek batez besteko erretiro-pentsioekiko osatzen duten ehunekoak ere, ehuneko 56,5etik ehuneko

43,2ra pasatuz. Kontuan hartu den aldiaren bukaeran, Arabako adineko hiritarrak, oraingoan ere, pribilegiozko egoeran daude, erabiltzaile edo plaza bakoitzeko ekarpen pribatua Bizkaikoa baino ehuneko 36 baxuagoa baita, eta Gipuzkoakoa baino ehuneko 22 baxuagoa.

**151. grafikoa: Erabiltzaile edo plaza bakoitzeko ekarpen pribatuaren bilakaera**




Bukatzeko, komeni da adieraztea euskal administrazio publikoek, hirurek batera, 1991tik 2001era bitartean ehuneko 42,1 handitu dutela zerbitzu horietara bideratutako gastuek osatzen duten ehunekoa administrazioen gastu bateratuen aurrekontu osoarekiko. Horrela, gastu bateratuen aurrekontu osoaren ehuneko 1,138 izatetik, ehuneko 1,617ko balioa izatera igaro da.

## *Langileak*

Mendekotasun arazoak dituzten adineko pertsonen beharrei laguntza ematea, beste ikuspuntu batetik, lanpostu asko sortzen dituen jarduera da, eskulan-kopuru handia eskatzen duten zerbitzu pertsonalak baitira, emakumezkoak bereziki. Laurogeita hamargarren hamarkadan, babesaren estaldura zabaldu egin zen, eta horrek berarekin ekarri zuen zerbitzuetako langile-kopurua handitzea; hazkunde hori, balioespen bat eginez, ehuneko 90 eta ehuneko 100 bitartekoa izan daiteke. Hazkunde hori lagundutako pertsona-kopuruaren hazkundea baino zertxobait handiagoa da, eta biztanleria okupatuaren multzoak izandako hazkundea baino askoz ere handiagoa, azken hori ehuneko 11,5 soilik hazi baita aipatutako aldian.

2001ean, ia hamar mila pertsonak egiten zuten lan jarduera mota horietan lansaria jasoz, hau da, zerbitzu-sektoreko ehun langiletatik bik. Araban lortu zen proportzio handia nabarmentzen da (ehuneko 3,0), bereziki Bizkaikoarekin alderatzen bada (ehuneko 1,5). Erreferentzia moduan, adierazi behar da lanpostu horiek ospitaleetako lanpostuen ehuneko 50 osatzen dutela, eta ehuneko 45ean gainditzen dutela ospitalez kanpoko sektore publikoko langile-kopurua. Hala ere, gogoratu behar da etxeko zerbitzuko langileak, ordu asko lanpetuta eman arren, ez dutela lanaldi osoz lan egiten.

**158. taula: Laguntza-zerbitzuetako langileak 2001ean**

| Lurralde Historikoa | Absolutuak | | | | Zerbitzu-sektorearen % |
|---|---|---|---|---|---|
| | *Egoitzak* | *Eguneko zentroak* | *Etxeko laguntza-zerbitzua* | *Guztira* | |
| Araba | 1.191 | 88 | 835 | 2.114 | 3,00 |
| Bizkaia | 2.961 | 140 | 1.035 | 4.136 | 1,52 |
| Gipuzkoa | 2.085 | 224 | 1.208 | 3.517 | 2,18 |
| EAE | 6.237 | 452 | 3.078 | 9.767 | 1,94 |

# IV. EGOITZA-ZENTROEN ETA EGUNEKO ZENTROEN EZAUGARRIAK

## 1. EGOITZAZKO ZERBITZUEN ALDAKETAK 2001-2003 ALDIAN

2001eko abendutik (bilakaeraren ikerketaren azken erreferentzia-data) 2003ko ekainera (inkestatu beharreko zentroen zerrenda egiten den data) dauden 18 hilabeteetan, adineko pertsonentzako egoitzazko zerbitzuen eskaintzak hazkunde oso handia izan du, plaza-kopurua ehuneko 16,1 hazi baita eta estaldura ehuneko 12,6. Ekimen pribatuaren garrantzia nagusi da egoitza-boom horretan eta, hazkunde horren eraginez, egoitzazko zerbitzuen eskaintza lurralde bakoitzean honako maila hauetan kokatzen da 2003ko erdialdean:

**159. taula: Egoitzazko zerbitzuen eskaintza lurraldeka**

| | Zentroak | Plazak | Estaldura |
|---|---|---|---|
| Araba | 64 | 2.458 | 5,47 |
| Bizkaia | 177 | 6.843 | 3,39 |
| Gipuzkoa | 86 | 4.779 | 3,97 |
| EAE | 327 | 14.080 | 3,83 |

Hazkunde horrekin batera ez da garatu toki ezberdinen arteko desorekak konpentsatzeko politikarik eta, estaldurari dagokionez, lurraldeen arteko ezberdintasunak berdin mantendu dira: Arabako adineko pertsonek egoitza-plaza bat lortzeko aukera gehiago dute (ehuneko 60 gehiago), Bizkaikoek baino.

## 2. EGOITZAZKO ZERBITZUETAN LAGUNTZA EMATEN ZAIEN ETA EZGAITASUNA DUTEN ADINEKO BIZTANLEAK

Zentro horietan bizi diren pertsonetatik, bi herenek baino gehiagok (13.181 pertsonatik 9.360k, hau da, ehuneko 71,1ek) ezgaitasun garrantzitsuren bat dute eta, gehiago edo

gutxiago, zerbitzu horietako langileen laguntza behar dute eguneroko bizitzako jarduueretakoren bat edo guztiak egin ahal izateko. Beste ikuspegi batetik, ehuneko 19,9 inguruko eraginkortasun horizontala lortuz, gaur egun egoitzazko zerbitzuek euren gain hartzen dute erkidego honetan bizi diren eta ezgaitasuna duten adineko ehun pertsonatik ia hogei zaintzeko ardura, batez ere mendekotasun arazo larrienak dituztenak.

Egoitzetan dauden eta ezgaitasuna duten pertsonen artean bi kategoria bereiziz, bereizketa hori egiteko larritasun maila oinarri hartuta, zerbitzu horien erabiltzaile-multzoa modu honetara ordena daiteke:

- Ezgaitasun larria dutenak: euren kabuz ezin dira ohetik jaiki edo ohera sartu; 6.690 pertsona, ehuneko 50,8.

- Ezgaitasun arazo garrantzitsuak dituztenak: gai dira euren kabuz ohetik jaiki edo ohera sartzeko, baina narriadura fisiko eta/edo kognitibo garrantzitsua dute; 2.670 pertsona, ehuneko 20,3.

- Autonomo ahulak: mendekotasun arazo arinak dituzten pertsonak eta/edo familia–, ekonomia– edo gizarte arazoak dituztenak; 3.821, guztien ehuneko 28,9.

Ezgaitasun larria duten eta egoitzetan dauden pertsonen gehiengo handiak narriadura kognitiboak sortutako arazoak ditu, narriadura fisikoarekin lotuta edo ez. Horrek adierazten du zerbitzu horien erabiltzaileek dituzten laguntza-beharrak oso garrantzitsuak direla.

## 3. **EGOITZAZKO ZERBITZUEN TIPOLOGIA**

Plazen eskaintzaren zatirik handiena, ehuneko 85,7, egoitza-zentroek sortzen dute, etxebizitza komunitarioek ehuneko 9,0 eta babespeko apartamentuek ehuneko 5,3. Eskaintzaren egitura oso ezberdina da lurralde bakoitzean, beste arrazoi batzuen artean, azken bi baliabide mota horiek berriak direlako: Bizkaian ez dago babespeko apartamenturik eta Gipuzkoan etxebizitza komunitarioen eskaintza oso-oso txikia da.

Ohiko egoitzen alternatiba bezala egitura arinagoak sortu dira. Baliabideak arazo mota eta maila ezberdinetara hobeto egokitzeko beharrak arrazoitzen du prozesu hori, neurri handi batean bere helburuak bete dituen prozesua, alegia. Ezberdintasun argiak ikus daitezke laguntza-formula bakoitzaren eraginkortasun bertikalean: ezgaitasuna duten erabiltzaileen ehunekoa egoitzetan ehuneko 76,3koa da, etxebizitza komunitarioetan ehuneko 51,7koa, eta babespeko apartamentuetan ehuneko 3,8 ingurukoa. Datu horiei dagokienez, bi iruzkin egin daitezke:

- Egoitzen eraginkortasun bertikala oraindik baxua da, EAEn egindako gerontologia-planetan aipatutakoekin alderatuta. Plan horietan, eskuarki, ehuneko 90etik gora ezartzen dute, eta horrek berretsi egiten du ezgaitasunari laguntza emateko duen baliabide espezializatuzko izaera.

- Etxebizitza komunitarioen kasuan lortutako eraginkortasun bertikalak alde batera uzten du funtsean pertsona autonomoentzako diseinaturiko zerbitzuen irudia, eta zabalik uzten du zerbitzu horiek ezgaitasuna duten pertsonentzako baliabide egokitzat hartzeko aukera, baita ezgaitasun larria duten pertsonei laguntza emateko ere.

Zentro gehienak (ehuneko 71,2) eta baita plaza gehienak ere (ehuneko 63,0) titulartasun pribatukoak dira eta, gainerakoak, titulartasun publikokoak. Hala ere, babes publikoaren estaldura datu horietatik ondoriozta daitekeena baino zabalagoa da, datu horiek ez baitituzte kontuan hartzen administrazio publikoek itundutako plaza pribatuak eta sare publikotik kanpoko plazak eskuratzeko emandako banakako laguntza publikoak. Estatistika-eragiketetan, ekintza-linea horiek gutxi kontrolatzen dira eta gutxi hartzen dira kontuan, baina, halere, ezinbestekoak da horiek ezagutzea laguntza-sistema misto batean, planifikazioa ahalbidetzeko. Bi neurri mota horiek kontuan hartuz, egiaztatu daiteke finantziazio publikoari esker, osorik edo zati batean, bederatzi mila plaza inguru mantentzen direla, eta horrek plaza guztien ia bi herenak hartzen ditu.

Administrazio publikoek zerbitzu horiek sustatu eta mantentzeko duten garrantziaren ikuspegi horretatik, erkidegoan hiru laguntza-eredu ezberdin agertzen dira, aldundi bakoitzeko bat, ebaluatu eta erkatu gabeak, eta laguntza-eredu horiek erantzukizunak hartzeko modu eta maila ezberdinak adierazten dituzte:

- Arabakoa: sare publikoak indar handia du eta banakako laguntzek hedatze garrantzitsua dute.

- Bizkaikoa: titulartasun publikoko baliabideen eskaintza txikia da eta banakako laguntzek hedatze garrantzitsua dute.

- Gipuzkoakoa: aldundiaren beraren plazek eta itundutako plazek osatutako eskaintza publikoan oinarritzen da.

Administrazio publikoek egoitzetako plazen ehuneko 38,4aren titulartasuna dute, etxebizitza komunitarioetako plazen ehuneko 4,3 eta babespeko apartamentuetako plazen ehuneko 69,0. Etxebizitza komunitarioen kopuruak gora egin du nabarmen azken urteetan eta horien garapenak azaltzen du, neurri handi batean, zentroen batez besteko tamainak izan duen beherakada. Etxebizitza komunitarioak, ekonomia-ikuspegi batetik, egin daitekeen inbertsio errentagarri bat bezala agertzen dira enpresari txiki eta/edo berri askorentzat, eta itxaron dezakegu etorkizunean euren garrantzi erlatiboa modu esanguratsuan handituko dutela egoitza-baliabideen egituraren barruan. Babespeko apartamentuen sustapenari dagokionez, ekimen publikoaren garrantzia oso handia da gaur egun, baina oraindik berria den esperientzia da eta arriskutsua da iragarpenak egitea. Izan ere, babespeko apartamentu horien sustapena, ekimen pribatuaz gain, administrazio publikoen sektorerik atomizatuenaren esku egongo litzateke, hau da, udalen esku, eta, hori kontuan izanik, are eta arriskutsuagoa da iragarpenak egitea.

# 4. EGOITZAK ETA ETXEBIZITZA KOMUNITARIOAK

## 4.1. Zentroen ezaugarri materialak

Ikerketa honek oinarritzat duen filosofian, garrantzitsuena da baliabide horien erabiltzaileen ongizate integralaren printzipioa eta, hori dela eta, zerbitzu horien alderdi negatiboak eta gabeziak nabarmentzen ditu. Beraz, hasteko, beharrezkoa da adieraztea zentroen gehiengo handi batek, oro har, ongi hornituta dauden eta nahikoak diren egitura materialak dituela, bai legeak eskatzen dituen baldintzei dagokienez, bai eta askotan horien gainetik dauden gizarte-itxaropenei dagokienez ere. Edozein kasutan, frogatu ahal izango den bezala, gutxiengoa dira, gehienetan, azterketa-ikuspegi ezberdinetatik ez oso egokitzat kalifikatutako zentroak.

- Azpiegiturari dagokionez, egoitzazko zerbitzuek duten arazo nagusi eta larriena da (eta horrek, kasu honetan, zentrorik gehienak barne hartzen ditu), ez direla gai erabiltzaile guztiei banakako gela bat eskaintzeko. Egoitzetan dauden pertsonen ia bi herenak, ehuneko hirurogei, behartuta daude euren gela modu iraunkorrean beste pertsona batekin banatzera. Baliteke hori izatea gizarteak eskatzen duenaren eta legeak ezartzen dituen baldintzen artean dagoen desorekarik handiena; banakako gelei dagokienez, arauek exijentzia maila baxua dute, legez, zentroetako gelen ehuneko 25ek bakarrik izan behar baitute banakakoak. Praktikan, eta oro har, bete beharreko ratio hori erraz gainditzen da (egungo gelen ehuneko 55,3 banakakoak dira), baina, exijentzia maila baxudun arautegia izanik ere, zenbait egoeratan ez da arautegi hori betetzen:

  – Hamasei egoitzak eta bi etxebizitza komunitariok ez dute banakako gelen gutxieneko ehuneko hori betetzen.

  – Bederatzi egoitza eta bi etxebizitza komunitariotan, zazpiehun pertsona baino zerbait gehiagori bi pertsonentzako edukiera baino handiagoa duten gelak eman zaizkie.

  – Hamar egoitza eta bi etxebizitza komunitariotan, eskatzen den gutxiengo azalerara iristen ez diren gelak daude.

  Banakako gelen ehunekoaren ikuspegi horri dagokionez, Arabako egoera Bizkaikoa baino nabarmen hobea da eta, bereziki, Gipuzkoakoa baino hobea. Horrez gain, Arabako egoera hobea da, baita ere, egoitza pribatu ez itunduetan eta mendekotasuna duten erabiltzaileen proportzioa txikiagoa den zentroetan; badirudi zentroen tamainak ez duela inolako eraginik.

- Hori, zentroen tamaina, egoitzen eskaintzak duen beste arazo bat da. Plazen ia laurdena (ehuneko 23,3) 150 erabiltzaile baino gehiagorentzako edukiera duten makrozentroetan dago, eta erdia baino zerbait gehiago (ehuneko 52,9) 61 eta 150 plaza bitartean dituzten zentroetan. Baliabideak zentro gutxitan kontzentratzen dituen eredu hori ez da espezializazio-irizpideen ondorioa, izan ere, egoitzen eraginkortasun

bertikala, hau da, egoitza horietan bizi diren eta ezgaitasuna duten pertsonan ehunekoa, oso gutxi hazten baita tamaina handitzen den heinean: ehuneko 75,2 egoitzarik txikienetan eta ehuneko 79,9 handienetan.

- Zentroen kokapena ere kontuan hartu behar den alderdi garrantzitsua da. Etxebizitza komunitarioen eta babespeko apartamentuen hiru laurdenak baino gehiago hiri-eremuen erdigunean kokatuta daude eta zerbitzu-hornidura egokia daukate; horrek erraztu egiten du baliabide horien eta euren erabiltzaileen arteko integrazioa. Bestalde, egoitzek kokapen desegokiagoa dute eta, zenbat eta tamaina handiagoa, orduan eta kokapen txarragoa. Egoitza-baliabide guztiak oro har hartuz, ikus daiteke plazen ehuneko 55 bakarrik daudela kanpoaldearekiko komunikazioa sustatu eta errazten duten inguruetan.

- Ikerketak, bereziki, suteen aurkako babes-neurriak aztertu ditu, eta egiaztatu du horien ezarpena oso zabaldua dagoela, baina ez guztiz; zehazki, honako hau nabarmendu behar da:

  – Barne-funtzionamenduko arauei dagokienez, hamaika egoitzak ez dute larrialdietarako planik, hamalautan langileak ez daude behar den moduan prestatuta arrisku horri aurre egiteko eta hirurogeita sei egoitzatan ez da ebakuazio-simulaziorik egiten.

  – Beharrezko instalazio eta ekipamenduei dagokienez, bost egoitzak eta bederatzi etxebizitza komunitariok ez dute irteera erakusteko seinalerik, egoitza batek ez du larrialdietarako argirik eta beste zortzik ez dute detekzio-sistemarik; halere, zentro guztiek dituzte legeak eskatzen dituen su-itzalgailuak.

  – Azkenik, esan beharra dago hiru egoitzatik batek oraindik ez diela suteak itzaltzeko zerbitzuei larrialdietarako bere plana bidali.

- 2003. urtean, zentro horietatik batzuek, hamar egoitzak eta hirurogeita bi etxebizitza komunitariok hain zuzen ere, oraindik ez dituzte kanpotik bertara sartzeko oztopo guztiak kendu, eta egoera horrek modu zuzenean eragiten die zentro horietan bizi diren eta mugitzeko gurpil-aulkia erabiltzen duten ia hirurehun erabiltzaileri, eta zeharka zentro horietan bizi diren guztiei. Barneko irisgarritasun-arauak oraindik maila baxuagoan betetzen dira: egoitzetako plazen ehuneko 34,4k eta etxebizitza komunitarioetako plazen ehuneko 47,0k jasaten dituzte arlo horretan legeak ezarritako baldintzaren bat edo batzuk bete ez izanaren ondorioz sortutako arazoak.

- Egoitza-zentro guztiek, hamabi etxebizitza komunitariok izan ezik, bete egiten dute lau erabiltzaile bakoitzeko bainugela bat egon behar dela dioen lege-eskakizuna; proportzio hori, halere, gelekin gertatzen den bezala, baxutzat har daiteke. Gaur egun, bere bainugela duten gela-kopurua ehuneko 62,5ekoa da. Ehuneko horrek Araban lortzen ditu baliorik altuenak, zentro publikoetan eta hirurogeita hamar plaza baino gehiagoko egoitzetan. Bainuen ehuneko 60,9 bakarrik dira, gehienez, sartzeko inolako oztoporik ez dutenak.

- Egoitzen herenak baino zerbait gehiagok, ehuneko 37,1ek, eraikinaren barruan garbiki ezberdinduta dauden tokiak mugatzen dituzte, narriadura kognitiboko arazoak dituzten pertsonei laguntza espezifikoa emateko (modulu psikogeriatrikoak), edota jatorri fisikoko ezgaitasun oso larriak dituztenei laguntzeko (modulu lagunduak). Jarduteko modu hori, batez ere, zentro handienetan ezarrita dago, ehuneko 92,3, eta baita tamaina ertainekoetan ere: ehuneko 73,8.

- Azpiegitura materialen gaiarekin bukatzeko, adierazi behar da jantokirako erabilitako azalerak, guztienak diren tokien artean ikertu diren bakarrak hain zuzen ere, ez direla nahikoak egoitzen ehuneko 39an eta ikertutako etxebizitzen ehuneko 10ean, eta egoitzetako solairu bakoitzean telefono bat egon behar dela dioen eskakizuna oraindik ez dela betetzen kasuen ehuneko 22,5ean.

## 4.2. **Betebehar funtzionalak**

Egoitzazko zerbitzuen funtzionamendua arautzen duen Dekretuak zerbitzu horiei exijitzen die, azpiegitura-baldintza batzuk betetzeaz gaiz, funtzionamendu-arau batzuk ere ezartzea; arau horiek, laguntzaren kalitatea bermatzen ez duten arren, ezinbestekoak dira kalitate horretara hurbiltzeko. Neurri horiek ez dute eragin ekonomiko garrantzitsurik, baina aldaketa handiak sor ditzakete zentroak zuzentzeko eta kudeatzeko ohiko moduetan, sustraiturik dauden eta batzuetan aldatzeko zailak diren modu horietan hain zuzen ere. Horri dagokionez, ikerketak honakoa erakutsi du:

- Hamar zentrotatik ia bederatzik dituzte funtzionamendua arautzeko barne arautegia, erreklamazio-orriak edo –liburuak eta egoitzetan bizi direnen edota euren familiakoen edo beste senide batzuen iradokizunak jasotzeko postontziak.

- Zentroen hiru laurdenak bakarrik dute formalki ezarrita erabiltzaileen kexu eta erreklamazioak tratatzeko prozedura.

- Jardunbide egokien eskuliburuak egoitzetan bakarrik eskatzen dira baina, halere, egoitzen ehuneko 51,18an bakarrik ezarri dira.

Emaitzen azterketa zehatzak zenbait ezberdintasun esanguratsu erakutsi ditu azaldutako batez besteko balioei dagokienez. Garrantzitsuena da izaera publikoko zentroak daudela egoerarik txarrenean, bai barne-arautegiak edukitzeari dagokionez, bai eta erabiltzaileen kexu, erreklamazio eta iradokizunen sistemei dagokienez ere. Orain dela gutxi onartutako Erabiltzaileen Eskubideen Gutunak hutsune horiek gutxituko dituela itxaron behar da.

Interesgarria da, baita ere, legeak eskatzen ez dituen baina jardunbide egokien eskuliburuek gomendatzen dituzten beste funtzionamendu-arau batzuei buruz lanak lortu dituen emaitzak aurkeztea:

- Hamar zentrotatik hiruk kanpoko ebaluazioak agintzen dituzte, zentroaren funtzionamendua hobetzeko.

- Bost zentrotatik batek berme-sistemak eta kalitatea hobetzeko sistemak erabiltzen ditu.

- Hamar zentrotatik zazpik lan-arriskuen prebentzio-plan bat dute (ia zentro guztietan eskatzen dena), eta idatziz jasotzen dituzte erabiltzaileen bizitzan eragina izan dezaketen gertaerarik garrantzitsuenak.

Neurri horiek ezarpen maila baxua dute etxebizitza komunitarioetan, eta horrek emaitzak baldintzatzen ditu. Emaitzak hobeak dira 70 plazatik gorako edukiera duten zentroetan, baina horietan ere ez daude modu orokortuan zabalduta.

## 4.3. **Zentroetan bizi direnentzako jarraibideak**

Zentroetan bizi direnen bizitza funtzionamendu-jarraibide batzuei lotuta dago eta jarraibide horiek, muturrean, hautatzeko askatasuna baldintza dezakete.

- Zentroetan bizi eta laguntzarik gabe jaiki edo oheratu ezin diren pertsonen erdia baino zerbait gehiagorentzat (6.500 inguru), eguna erakundeak ezarritako orduan hasten da eta oheratzeko ordua ere ezarrita dago; hala eta guztiz ere, zentro batzuetan, gutxitan, jarduera horiek euren kabuz egin ezin dituzten pertsonak bizi dira, eta ez dute ordutegi finkorik ezartzen. Oheratzeko batez besteko ordua zazpi eta erdiak eta zortziak bitartean kokatzen da, baina badaude erabiltzaile batzuentzat deserosoak izan daitezkeen muturreko orduak ere; jaikitzeko ordua ez da hain aldakorra, eta duen arazorik handiena da, ia nahitaezkoa dela.

- Egoitzen zati handi batek, ehuneko 42k, bere erabiltzaileei otordu nagusian bi menu alternatiboren artean hautatzeko aukera ematen die, eta beste ehuneko 40k menuko plateren bat aldatzeko aukera ematen dute, erraz presta daitekeen beste plater bategatik. Itunduta ez dauden egoitza pribatu gehienek, ehuneko 93k, eta tamaina handia duten egoitza guztiek alternatiba horietakoren bat eskaintzan dute; beste muturrean, eta zentzu horretan inolako aukerarik ez dutela, 30 egoitza eta 23 etxebizitza komunitario daude eta, horiek guztiek batera, plazen ehuneko 13 hartzen dute. Halere, horri dagokionez, esan beharra dago etxebizitza komunitarioetan menuan aukera ezberdinak izatea ez dela lege-betebehar bat.

- Erabiltzaileen erdiak baino gehiagok langile baten laguntza behar du bainatzeko eta, gainerako pertsonetatik, gehiengo handi batek nolabaiteko gainbegiraketa behar du jarduera hori egiteko; horrek guztiak zuzeneko arretako langileen antolaketa maila bat eskatzen du. Batez beste, zentroetan bizi diren pertsonei astean hiru edo lau aldiz laguntzen zaie bainatzen, baina adierazi behar da plazen herena baino gehiago, ehuneko 36,4, astean bainu bakarra ematen duten zentroetan dagoela, eta beste heren zabal bat, ehuneko 39,6, astean bost bainu edo gehiago ematen dituzten zentroetan. Aldakortasun horrek zerikusi txikia du ezgaitasuna duten pertsonen ehunekoarekin, baina, bestalde, nahiko lotuta dago egoitzen tamainarekin: zenbat eta tamaina handiagoa, orduan eta bainu gehiago.

- Zentroetan, ia 3.500 pertsonak laguntza behar dute komunera joateko, eta ez dute laguntza hori eskatzeko gaitasunik. Egoera horiei aurre egiteko, zentro guztiek laguntza-kopuru zehatz bat dute programatuta, batez beste, egunean lau aldiz baino zertxobait gehiago; gauez, laguntzen maiztasuna jaitsi egiten da, eta laguntza horiek kasu zehatzetarako ezarri diren berariazko jarraibideen arabera egiten dira. Kasuen ehuneko 85ean, egunean hiru aldiz edo maizago ematen da laguntza eta, gainerako kasuetan, maiztasuna txikiagoa da.

  Beste ikuspegi batetik, ia zortzi mila erabiltzailek, maila handiago edo txikiagoan, gernu-ihesak eragindako arazoak dituzte eta, horietatik, 4.800ek eginkari-ihesak eragindakoak. Pertsona horietatik askok ezin dituzte troxak euren kabuz aldatu eta, hori dela eta, horiek aldatzea zuzeneko arretako langileen lan-ohituran ezarrita dago. Batez beste, egunean zehar 3,5 aldaketa egiten dituzte eta, gauez, 1,7; maiztasun hori antzekoa da egoitza eta etxebizitza komunitarioetan. Ohartu beharra dago, kasu honetan, troxen aldaketak ez direla programatuta egoten, oro har erabiltzaile bakoitzaren beharren arabera egin behar baitira.

- Euskarri fisikoen erabilerari dagokionez, oro har segurtasun-arrazoiengatik erabiltzen dira, baina, kasu batzuetan, narriadura kognitiboa duten pertsonei eusteko ere erabiltzen dira. Zentroetan, egunean zehar, guztira ia 1.900 pertsona daude uhal eta arnesen bidez euren gurpil-aulkietara lotuta eta, gauez, 1.300 baino zerbait gehiago daude euren oheetara lotuta, eusteko izaren eta oheko uhalen bidez. Logikaz, euskarri horien erabilerak gora egiten du, ezgaitasuna edo narriadura kognitiboa duten pertsonen ehunekoak gora egin ahala. Bestalde, deigarria da zentroetako pertsonen bizitzan hain eragin handia duen jardun hori kasuen ehuneko 65,2an bakarrik erregistratzea idatziz.

- Zentroetako pertsonen ehuneko 40k baino gutxiagok izan ahal dituzte bisitak egunean zehar horretarako ordutegi-murrizketarik izan gabe; proportzio hori nabarmen altuagoa da Gipuzkoan eta itundutako egoitza pribatuetan. Zentroetako gainerako pertsonek euren senideen bisitak bakarrik izan ahal dituzte, salbuespenak salbuespen, erakundeak ezarritako orduetan. Ia kasu guztietan bisitariak erabiltzaileen geletara sar daitezke, baina intimitate handiagoa izateko aukera hori oso baldintzatuta dago gela horiek banakakoak ez direnean.

- Zentro horietan oso deigarria den alderdi bat da, erabiltzaileek duten itxialdi maila handia; 4.000 baino gehiago, ia herena, egoera berezietan soilik ateratzen dira kanpoaldera. Pertsona horietatik 2.300 baino gehiago, zentroetako arduradunen iritziz, ez dira ateratzen horretarako gogorik ez dutelako. Gizarte-bazterketaren arazo hori bereziki larria da tamaina handiagoko egoitzetan, irteten ez diren erabiltzaileen proportzioa ehuneko 50etik gorakoa baita.

## 4.4. **Zentroek eskaintzen dituzten zerbitzuak eta programak**

Zentroek eskaintzen dituzten eta eskuarki ingurune komunitarioan garatzen diren programak, zerbitzuak eta jarduerak honelako ikerketen bidez balioestea zaila da, horien egokitasunari buruzko iritzia emateko zentroa kokatuta dagoen testuingurua eta bertan

dauden zerbitzuak hartu beharko liratekeelako kontuan. Hasiera batean, hautatzeko aukera balego behitzat, egokiagoa litzateke zentroen erabiltzaileek baliabide komunitarioak erabiliko balituzte. Emaitzak interpretatzerakoan, kontuan izan behar da muga garrantzitsu hori.

- Egoitza-zentroen zati handi batek euren erabiltzaileei osasun-izaerako zerbitzu eta programak eskaintzen die:

  – Egoitza-plazen ehuneko 88k kontsulta medikoko zerbitzua dute, eta ehuneko 58k zaintzako mediku-zerbitzua.

  – Erizaintza-zerbitzuen eskaintza egoitzen ehuneko ehunera iristen da eta etxebizitza komunitarioen ehuneko berrogeita hamarrera.

  – Narriadura kognitiboak eragindako arazoak dituzten pertsonen erdiak baino zerbait gehiagok, ehuneko 53,9k, laguntza psikologikoa eskaintzen dieten programak dituzte euren zentroetan.

  – Mendekotasun arazoak dituzten erabiltzaileen bi herenak errehabilitazio-programak dituzten zentroetan bizi dira, eta zerbitzu horien eraginkortasuna bereziki altua da Arabako Lurraldean, ehuneko 92,3, eta zentrorik handienetan, ehuneko 81,4.

  – Zentroetako pertsonen hiru laurdenak baino gehiago lanaren bidezko terapia-saioak ematen diren zentroetan daude, eta kasu honetan ez da ezberdintasun esanguratsurik nabaritzen zentro mota ezberdinen artean.

- Ia zentro guztiek sustatzen dute, gehiago edo gutxiago, jolas-, erlijio-, kirol-, kultura-jarduerak eta beste jarduera batzuk egitea:

  – Erlijio-jarduerak eta mahai-jokoak zentroen ehuneko 90 baino gehiagotan daude.

  – Gimnastika-eskolak, ibilaldi edo txango bat egitera laguntzea, pelikulak ematea, eskulangintza-ikastaroak eta ospakizun-ekintzak ere zentro gehienetan egiten diren jarduerak dira, eta zerbitzu horiek kasuen ehuneko 50ak baino gehiagok ditu.

  – Azkenik, gutxienetan, antzerki– eta koru-taldeak ere egiten dira, bai eta dantzak eta txangoak ere.

Jolas-jarduera horiek sustatzeko konpromisorik handiena hartzen duten zentroak dira Gipuzkoakoak, publikoak eta, bereziki, hirurogeita hamar plaza baino gehiago dituzten egoitzak.

## 4.5. **Erabiltzaileen parte-hartzea zentroko jardueretan**

- Erabiltzaileek etxeko jardueretan duten partehartzea gutxi ikertu den eta generikoki soilik araututa dagoen gaia da, baina autonomiaren ikuspegitik badu bere garrantzia.

Ikerketak agerian utzi du zentroen ehuneko 50 baino gehiagotan ez dagoela honako jarduera hauek egiten laguntzen duen erabiltzaile bat ere: ohea egitea, gela garbitzea edota mahaia jartzea.

- Gutxienek parte hartzen dute zentroek antolatzen dituzten jolas-, kultura-, kirol- eta erlijio-programetan. Elizkizunetan izan ezik, horietara erabiltzaileen ehuneko 40 joaten baitira, ikertu diren gainerako kasuetan, parte-hartze maila ez da inoiz ehuneko 35era iristen.

- Administrazio publikoek interes handia erakutsi badute ere, eta xedapen arautzaileak hor dauden arren, egoitzen kudeaketa eta funtzionamenduan ezarritako bideen bitartez sustatutako erabiltzaileen partehartzea oraindik nabarmen baxua da. Egoitzen ehuneko 30,3an (plazen ehuneko 42,7 osatzen dute) soilik funtzionatzen dute aurreikusitako partehartze-organoek. Baliorik handienak Araban eta Gipuzkoan lortzen dira (plazen ehuneko 56,2 eta ehuneko 60,1, hurrenez hurren), eta, bereziki, tamaina handieneko egoitzetan (ehuneko 68,5).

## 4.6. **Zentroetako langileak**

Erkidego honetan indarrean dauden lege-xedapenek eskatzen dute adineko pertsonei laguntza emateko egoitza-zentroek honako formula honen bidez kalkulatutako gutxieneko plantilla izatea:

**Gutxieneko plantilla = 0,45 langile ezgaitasuna duen erabiltzaile bakoitzeko + 0,25 langile erabiltzaile autonomo bakoitzeko**

- Lanaren emaitzek honakoa jartzen dute agerian:

  – Zentro guztiek, banan-banan hartuta, eskatzen den gutxieneko langile-kopurua baino langile gehiago dituzte.

  – Multzo osoari dagokionez, hau da, zerbitzu guztiak kontuan hartuz, gaur egungo langile-kopuruak ehuneko 91,1ean gainditzen du gutxieneko kopurua.

  – Egiazko langile-kopuruek nabarmen gainditzen dituzte eskatutako gutxieneko kopuruak Araba (ehuneko 222,7), Bizkaia (ehuneko 205,7) eta tamaina handiena duten egoitzen kasuan, hau da, 150 erabiltzailetik gora dituzten egoitzetan (ehuneko 217,7).

Egiazko ratioaren eta eskatutakoaren arteko ezberdintasunek maila globalean, eta zentro mota ezberdinen artean aurkitutako ezberdintasunek ahalbidetzen dute honako hipotesi hau aurreratzea: legez ezarritako gutxieneko baldintzak oso baxuak dira.

- Zentroetako langileen egitura nabarmen aldatzen da batzuetatik besteetara. Langileak bi kategoriatan sailkatzen badira, zuzeneko arretako langileak eta besteak (zuzendaritza, administrazioa eta zerbitzuak), honako ezberdintasun hauek aurkitzen dira azken talde horrek duen pisu erlatiboan:

  – Lurraldearen arabera: Araban plantillaren ehuneko 36,3 osatzen du, eta Gipuzkoan ehuneko 43,7.

  – Titulartasunaren arabera: zentro publikoetan, zuzeneko arretan lan egiten duten langileak langile guztien ehuneko 43,6 dira; zentro pribatu ez itunduetan, ehuneko 37,6 dira.

  – Tamainaren arabera: 60 plaza edo gutxiago dituzten egoitzetan, proportzioa ehuneko 38,2koa da eta, ertainetan, ehuneko 43,1ekoa.

  – Ezgaitasuna duten erabiltzaileen portzentajearen arabera: portzentaje txikiagoa duten zentroetan, langile horien pisu erlatiboa ehuneko 46,0ra iristen da, eta portzentaje handiagoa dutenetan ehuneko 38,4koa da.

  Aldakortasun maila nabarmen handitzen da, talde hori (zuzendaritza, administrazioa eta zerbitzuak) osatzen duten kategoriak banan-banan aztertzen badira, eta horrek agerian uzten du antolaketa motak oso ezberdinak direla. Horren arrazoia da, ez dagoela gehiengoak onartu edota ezarritako irizpide edo erreferentzia-eredurik.

- Zuzeneko arretako langileei dagokienez, Dekretuak zentroei eskatzen die gutxieneko plantillaren ehuneko 65 kategoria horren barruan egotea. Ikerketaren emaitzek honakoa erakusten dute:

  – Banan-banan hartutako zentro guztiek, ozta-ozta mugaren azpitik dauden hiruk izan ezik, legeak eskatzen dituenak baino zuzeneko arretako langile gehiago dituzte.

  – Arabako zentroetako zuzeneko arretako langile-kopurua eskatutakoa baino ehuneko 139,7 altuagoa da, zentro publikoetakoa ehuneko 86,3 altuagoa, eta makroegoitzetakoa ehuneko 92,5 handiagoa.

  Datu horiek langile guztien mailan lortutakoen antzekoak dira, eta kasu hartan egindako hipotesi bera egitera garamatzate: arauan eskatzen diren zuzeneko arretako langileen ratioak ere oso baxuak dira.

- Zentro horietan lan egiten duen zuzeneko arretako langile-kopurua alderatuko balitz jardunbide egokien gomendioetan finkatutako estandar zorrotzagoak aplikatuz eduki beharko litzatekeen langile-kopuruarekin, honakoa egiaztatzen da:

  – Zentroen ehuneko 50 (plazen ehuneko 52,1ekin) gomendatutako gutxieneko estandarren azpitik daude.

  – Egoitzen ehuneko 27,1 (plazen ehuneko 22,6 eskaintzen dituzte) gutxieneko estandarrek eta gomendatutako maximoek mugatzen duten tartean daude.

- Zentroen ehuneko 22,5 (plazen ehuneko 25,3rekin) gomendatutako muga hoberenak baino zertxobait gorago daude.

- Ikerketak kontuan hartu ditu, baita ere, zentroetan lan egiten duten langileekin lotutako beste gai batzuk, eta honako emaitza hauek lortu dira:

  - Batez beste, langileen erdiak soilik, gutxi gorabehera, jasotzen ditu jokabide-arau argiak ohikoak ez diren egoera garrantzitsuei aurre egiteko: suteak (ehuneko 72,7), heriotza (ehuneko 63,9) edota euskarri fisikoak erabiltzea (ehuneko 42,4).

  - Egoitzen ehuneko 34,1ean soilik (multzo horrek plazen ehuneko 42,8 osatzen du) hartzen da kontuan langileen zereginak antolatzerakoan, zuzeneko arretako langileei beti erabiltzaile-talde berari laguntza emateko erantzukizuna ematea, eta erabiltzaileei kasuen ehuneko 42,5ean bakarrik eskaintzen zaie erreferentziazko langile bat.

  - Egoitza gehienek, ehuneko 71,4k (plazen ehuneko 73,0 batzen dituzte), talde multiprofesionalak dituzte egoitzetan bizi diren pertsonen banakako balioespena eta jarraipena egiteko. Horrez gain, gehienek, ehuneko 79,6k (plazen ehuneko 82,1ekin), zuzeneko arretako langileen batzarrak erregulartasunez egitea bultzatzen dute, laguntzarako jarraibideak eta gertaerak gainbegiratzeko.

  - Langileen kontratazio-baldintzak oso ezberdinak dira, eta zerbitzuen azpikontratazioa asko hazi dela ikus daiteke.

  - Zentro publikoetako lan-absentismoaren maila altua da, beste zentro batzuetakoekin alderatuz gero.

## 5. **BABESPEKO APARTAMENTUAK**

Egoitza-aukera hau da, autonomia maila altua mantendu arren, inguru babestuago batean bizi nahi duten adinekoen beharretara ondoen egokiturik dagoena. Inguru horrek, sarritan, adineko pertsonei euren lehengo etxebizitzak baino baldintza hobeak eskaintzen dizkie bertara iristeko eta mugitzeko, eta baita ekipamendu– eta zaintze-baldintza hobeak ere.

### Oinarrizko ezaugarriak

- Araban, guztira 428 plaza eskaintzen dituzten 7 apartamentu-multzo daude, eta, Gipuzkoan, 6 apartamentu-multzo (244 plaza) eta babespeko 19 etxebizitza independente (84 plaza). Bizkaian, aldiz, egoitza-alternatiba hori ez da oraindik ezarri.

- Ia zerbitzu guztiak titulartasun publikokoak dira (13 apartamentu-multzoetatik 12, eta babespeko 19 etxebizitzetatik 18), baina, plaza-kopuruari dagokionez, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko ezberdintasunak nabarmen txikitzen dira, titulartasun pribatuko zentro bakarrak plaza guztien ehuneko 30 eskaintzen baititu.

- Autonomia Erkidegoan dauden 32 zentroek, guztiek batera, 401 apartamentu dituzte eta, horietatik, erdia baino gehiago banakakoak dira. Beste apartamentu gehienak bi pertsonarentzako (ehuneko 17,7) edo hirurentzako (ehuneko 20,4) apartamentuak dira, eta gainerakoak (ehuneko 9) lau plaza edo gehiagoko edukiera duten unitateak dira.

**Ezaugarri fisikoak**

- **Kokapena.** Zentrorik gehienak (ehuneko 73) erdiguneko tokietan kokatuta daude, eta gainerako ehuneko 27 (plazen ehuneko 70 hartzen dute), kanpoaldeko eremuetan kokatuta egon arren, ongi komunikatuta daude, garraio publikoaren bidez.

- **Gizarte zerbitzuen beste zentro batekiko mendekotasuna.** Apartamentu-multzoek modu autonomoan funtzionatzen duten bitartean, babespeko etxebizitzen erdia baino gehiago gizarte zerbitzuen beste zentro baten menpekoa da: bederatzi, egoitza baten menpekoak dira, eta bat, zahar-etxe batena. Kasuren batean, mendekotasun-lotura duten baliabide horiekin eraikina banatzen dute, edota gizarte zerbitzuen beste zentro batekin.

- **Irisgarritasuna.** Zentroen ehuneko 60k kanpoko eta barneko irisgarritasun-baldintzak betetzen dituzte.

- **Azalera.** Apartamentuen azalerari dagokionez, egoitzazko zerbitzuen arautegi erregulatzaileak 25 $m^2$ eta 35 $m^2$-ko gutxieneko baldintzak ezartzen ditu banakako apartamentu eta apartamentu bikoitzetarako, hurrenez hurren, eta ikusten da zentro gehienetan arauek eskatzen dutena bete egiten dela. Hiru, lau edo pertsona gehiagorentzako babespeko apartamentu eta etxebizitzen kasuan, azalerari buruzko lege-aurreikuspenik ez dagoenez, erreferentziatzat hartzen da etxebizitza komunitarioak arautzean eskatzen dena, hau da, 20 $m^2$ pertsona bakoitzeko. Ikusi da pertsona bakoitzak apartamentuetan duen batez besteko azalera erabilgarria 21,5 $m^2$ ingurukoa dela, eta babespeko etxebizitza independenteetan (guztiek dute bi pertsonatik gorako edukiera) batez besteko azalera hori 20 $m^2$-tik gora dagoela, bi kasutan izan ezik.

- **Suteen aurkako babes-neurriak.** Larrialdietarako argien baldintzak eta su-itzalgailu eramangarriak egotea babespeko apartamentu-multzo guztietan errespetatzen da; larrialdietarako seinaleei dagozkien baldintzak, aldiz, zentroen erdiak ez ditu betetzen.

- **Guztientzako eremuak.** Apartamentu-multzoen ehuneko 80k erabiltzaile guztiek erabili ditzaketen eremuak dituzte. Babespeko etxebizitza independente gehienetan ere, erabiltzaileek hurbil dauden beste gizarte zerbitzu batzuetako guztientzako eremuak erabili ditzakete.

**Zerbitzuak**

Baliteke babespeko apartamentu-multzoetan eta babespeko etxebizitzetan zerbitzuak eskaintzea erabiltzaileei, edo baliteke ezetz. Zerbitzu horiek zentroarenak berarenak

edo gizarte zerbitzuen beste zentro batekin batera egindakoak izan daitezke. Zerbitzurik ohikoena garbiketarena da (zentroen ehuneko 95 baino gehiagotan eskaintzen da), baina oso zabalduta daude, baita ere, janari-zerbitzua (ehuneko 80), arreta pertsonalarena (ehuneko 74,8) eta garbitegiarena (ehuneko 72,4). Ez da hain ohikoa jantoki-zerbitzua izatea (zentroen ehuneko 54,8).

**Langileak**

Zentro guztiek daukate erreferentziazko arduradun gisa aritzen den pertsonaren bat eta ehuneko 90 baino gehiagok (plazen ehuneko 69 inguru hartzen dituzte) zuzeneko arretako langileak eta/edo langile laguntzaileak dituzte.

## 6. **EGUNEKO ZENTROAK**

**Ezaugarri orokorrak**

- ***Zerbitzu-sarea eta estaldura***. EAEn, eguneko zentroen kopurua 2003an 80koa da, eta guztien artean 2.068 plazako edukiera dute; beste era batera esanda, 5,5 plaza, 65 urtetik gorako mila pertsona bakoitzeko. Arabak duen estaldurak bikoiztu egiten du Bizkaikoa, eta Gipuzkoakoa baino ehuneko 42 handiagoa da.

- ***Titulartasuna.*** Plazen ehuneko 60,8 publikoak dira, ehuneko 13,2 publikoak dira baina titulartasun pribatuko zentroetan eskaintzen dira, eta ehuneko 26 pribatuak dira. Araban garrantzi handia du eskaintza publikoak (ehuneko 96,6), Bizkaian eskaintza pribatuak (ehuneko 45,2) eta Gipuzkoan erakunde publikoekin itundutako plazek zentro pribatuetan (ehuneko 33,3).

- ***Okupazio tasa.*** Ikerketaren unean, okupazio tasa ehuneko 78koa da eta bete gabe dauden plazak honela banatzen dira: zentro publikoetan plazen ehuneko 13,7 daude eskuragarri, eta pribatuetan ehuneko 30,3 itundutako plazak dituztenean, eta ehuneko 37,8 gainerakoetan.

- ***Erabiltzaileen ezgaitasun maila.*** Erabiltzaileen ehuneko 43,0k ezgaitasun larria dute eta ehuneko 40,7k ezgaitasun ertaina; gainerako ehuneko 16,3 autonomotzat har daitezke. Eraginkortasun bertikalari dagokionez, lurraldeen arteko ezberdintasunak garrantzitsuak dira, batez ere, Araban landa-zentroen sare bat dagoelako; sare horren helburua da gizarte-bazterketa ekiditea eta pertsona autonomoei laguntza ematea.

**Ezaugarri fisikoak**

- ***Kokapena.*** Zentroen ehuneko 61,3 hirigunean daude eta ehuneko 34,6 ondo komunikatutako kanpoaldeko eremuetan; ehuneko 4 soilik daude nahiko bakanduta. Norbere auzoko zentroan laguntza jasotzen duten erabiltzaileen proportziorik handiena Gipuzkoan lortzen da (ehuneko 48,9), baina EAE osoa hartuz, kasuen ehuneko 40an ez da hori gertatzen.

- ***Garraioa.*** Ia eguneko zentro guztiek dute garraiobidea eta erabiltzaileen gehiengo handi batek (ehuneko 82,8) erabiltzen du. Ehuneko 11,5 oinez joaten dira eta ehuneko 3,4 garraio publikoz, bakarrik edo lagunduta. Antolatutako garraioaren batez besteko iraupena, joaneko edo etorriko ibilbide arrunta egiteko, 42 minutukoa da, baina, halere, zentroen ehuneko 30 behartuta daude ordubete baino gehiago irauten duten ibilbideak antolatzera. Zentro pribatuak, Bizkaikoak, eta txikiak dira garraio-denborarik laburrena behar dutenak.

- ***Irisgarritasuna***. Zentroen ehuneko 95,6ra erraz sar daiteke, baina arkitektura-oztopoak aurkitu dira (igobiderik eta jasotzeko osagarririk gabeko mailak) zentroen ehuneko 4,4an, guztiak Bizkaian, bai zentro publikoetan, bai pribatuetan.

- ***Guztientzako eremuak***. Zentroen ehuneko 18,9n, jantoki nagusiaren azalera egoitzazko zerbitzuen arautegi erregulatzaileak eskatutakoa baino txikiagoa da:

  – ehuneko 22,7n ez dago erabiltzaileentzako telefono erabilgarririk;
  – ehuneko 8,6n ez dago prestatuta gurpil-aulkia erabiltzen duten pertsonak sar daitezen eta gehienak ez daude egokituta entzumen arazoak dituzten pertsonentzat;
  – zentroen ehuneko 45,7 (plazen ehuneko 38,9 hartzen dituzte) ez datoz bat barne-irisgarritasunaren irizpideekin.

  Elementuren bat faltatzea, tamainarekin, titulartasunarekin eta ezgaitasuna duten pertsonen proportzioarekin erlazionatu da; horrela, gabeziak ohikoagoak dira zentro txikietan, itundutako plazarik ez duten zentro publiko eta pribatuetan, eta pertsona autonomoen proportzio handiago bati laguntza ematen dioten zentroetan.

- ***Komunak eta bainu geriatrikoak.*** Zentro guztiek betetzen dute arautegia komun-kopuruari dagokionez. Halere, zentroen ia laurdenak ez du bainu geriatrikorik edota ez du Dekretuak eskatutako minimoa (20 erabiltzaile bakoitzeko bainu geriatriko bat) betetzen. Gabeziarik handienak Bizkaian eta ezgaitasuna duten pertsonen proportzio garrantzitsua duten zentroetan aurkitu dira. Dekretuaren baldintzak Araban, batez ere, eta itundutako plazak dituzten zentro pribatuetan betetzen dira hoberen.

  Komun eta bainuen egokitzapenari dagokionez, adierazi daiteke zentroen ehuneko 39,8k (plazen ehuneko 29,4 hartzen dituzte) irisgarritasun– edo segurtasun-elementuren bat falta dutela. Ezgaitasun larririk ez duten pertsonei laguntza ematen dieten zentro txikiak eta publikoak (gehiago daude Araban) izaten dira, maiztasun handiagoz, bainuetan segurtasun—elementuren bat edo batzuk falta izaten dituztenak.

- ***Suteen aurkako babes-neurriak.*** Salbuespen bat edo beste kenduta, zentro guztiek dituzte suteen aurkako babes-neurri nagusiak; proportziorik handienean (zentroen ehuneko 13,5en) betetzen ez den baldintza larrialdietarako irteerak seinaleztatzea da. Gabeziak handiagoak dira sutea badago jarraitu behar diren jokaera-protokoloei dagokienez, bai eta ebakuazio-simulazioak egiteari eta langileak gai horietan prestatzeari dagokienez ere. Bestalde, zentroen ehuneko 22,5ek ez dute suteen aurkako larrialdi-planik, eta horrelako plan bat duten gehienek ez diote dagokion instantziari helarazi, nahiz eta, egiatan, eguneko zentroen kasuan, arauak ez duen horrelakorik eskatzen.

**Baldintza funtzionalak**

- ***Erabiltzaileek zenbat denbora igarotzen zuten zentroan.*** Batez beste, erabiltzaileak 8,4 ordu egoten dira zentroan, 5,5 (minimoa) eta 12 (maximoa) bitartean. Oro har, zentroetako arduradunek uste dute ordutegiak ondo egokitzen direla erabiltzaileen beharretara, baina zentroetako erabiltzaileen ehuneko 9k (guztiak zentro publikoetakoak) adierazi dute bi egoera ikusten direla aldi berean: batetik, erabiltzaileak behartuta daude euren etxeetatik goizegi ateratzera eta, bestetik, euren zaintzaileentzat egokia litzateke ordutegi zabalago bat.

- ***Funtzionamenduaren malgutasuna.*** Zentroen hiru laurdenek baino gehiagok erabiltzaileen eta horien zaintzaileen beharretara egokitutako laguntza malgu baten aukera eskaintzan dute, baina, praktikan, gutxienak dira ordutegi partzial edo aldakorrean etortzen direnak. Horren arrazoia da garraioak horretara behartzen dituela, edota etxean ez dutela laguntza nahikorik; ondorioz, erabiltzaileek zerbitzuaren erabilera “zorrotza” egin behar dute.

  Zentroen laurdenak ireki egiten du asteburuetan; hori ezohikoa da Araban eta Bizkaian, baina nahiko sarri egiten da Gipuzkoan, lurralde horretan zentroen erdiak lan egiten baitu larunbat eta igandeetan. Edozein kasutan, ohitura horrek harrera ona du, zerbitzu hori eskaintzen den kasuen ehuneko 60an benetan erabiltzen baita, eta irekita egoten diren zentroetako arduradunen ehuneko 61ek uste baitute zerbitzu hori beharrezkoa izango litzatekeela, gutxienez astelehenetik ostiralera joaten diren erabiltzaileen ehuneko 20rentzat.

- ***Laguntza emateko alternatiba honen egokitasuna.*** Hiru arduradunetik batek uste du eguneko zentroaren aukera ez dela egokia erabiltzaile batzuentzat.

- ***Ordezko menuaren aukera.*** Zentroen heren batek (plazen ehuneko 42,1 osatzen dute) ordezko menua eskatzeko aukera ematen du, eta beste heren batek erraz egin daitekeen plater bat eskatzeko aukera. Ia zentro guztiek eskaintzen dituzte medikuak agindutako dieta bereziak.

- ***Komunera joateko eta bainatzeko laguntza.*** Eguneko zentroen erabiltzaileen ehuneko 43k daukate gernu– edo eginkari-ihesa, eta erabiltzaile guztien ehuneko 22k zailtasunak dituzte komunera joan nahi dutela eskatzeko. Baldintza horietan, programatuta dago inkontinentzia duten pertsonei egunean hiru edo lau aldiz komunera laguntzea eta troxa egunean bi edo hiru aldiz aldatzea, zentro motaren arabera. Erabiltzaileen erdia zentroan bertan bainatzen da astean behin edo bi aldiz, zuzeneko arretako langileen laguntzarekin; jarraibide hori ohikoagoa da Araban, beste lurralde historikoetan baino, batez ere Bizkaiarekin alderatuz. Proportzioa handiagoa da Araban, batez ere Bizkaiarekin konparatuz.

- ***Euspen fisikoen erabilera.*** Zentroen erdiak baino gehiagok euspen fisikoak erabiltzen ditu, ezbeharrak saihesteko: aplikatzen diren kasuen ehuneko 86an, aulkiko uhalak erabiltzen dira, eta beste ehuneko 14an arnesak. Zentroetako arduradunek emandako informaziotik ondorioztatu daitekeenaren arabera, euspenak erabiltzen diren kasuen ehuneko 70 baino gehiagotan jokaera-protokolo bat dago eta prozedurari buruzko informazioa gordetzen da.

## Zentroek eskaintzen dituzten zerbitzuak eta programak

- ***Laguntza– eta partehartze-zerbitzuak.*** Eguneko zentroetan, zerbitzu-eskaintza oso zabala eta anitza da.

  – narriadura kognitiboa duten erabiltzaileen ehuneko 58,8 laguntza psikologikorako zerbitzua duten zentroetara joaten dira, bereziki Araban;
  – mendekotasun fisikoa duten erabiltzaileen ehuneko 62,3k errehabilitazioa jasotzen dute euren zentroetan eta, kasu honetan, eskaintza handiagoa da Bizkaian (ehuneko 87,1);
  – zentroen gehiengo handi batek (ehuneko 92,9) gizarte– eta kultura-animaziorako zerbitzua dauka, eta zerbitzu hori gizarte– eta kultura-jarduerak antolatzeaz arduratzen da.

- ***Jarduer etan parte hartzea.*** Zentroen erdian baino gehiagotan, erabiltzaileek parte hartzen dute etxeko jarduer etan. Bestalde, jolas-jardueretan ere (eskulanak, mahai-jokoak eta gimnastika) partehartze-tasa ehuneko 50etik gora dago, eta tasa hori altuagoa da zentro txikietan, titulartasun pribatukoetan eta ezgaitasun larridun pertsonen proportzio txikiagoa duten zentroetan. Nahaste kognitiboa duten erabiltzaileen proportzioa laurdena baino handiagoa den eguneko zentro ia guztietan dituzte pertsona horiei laguntzeko programa bereziak.

- ***Partehartze-organoak.*** Formalki eratutako partehartze-organoak dituzten zentroak erdia baino gutxiago dira.

## Eguneko zentroetako langileak

- ***Langile-ratioa.*** EAEko eguneko zentro guztiak oro har hartzen baditugu, zuzeneko arretako langileen kopuru osoa Dekretuak eskatzen duen minimoa baino ehuneko 32 gorago dago; halere, zentroen ehunako 12,9n (plazen ehuneko 16,5) ez da baldintza hori betetzen.

- ***Lanaldia.*** Langileen batez besteko urteko lanaldia 1.708 ordukoa da. Nabarmendu behar da titulartasun pribatuko zentro batzuetan lanaldia 1.800 ordutik gorakoa dela. Ordu-kopuru hori da, hain zuzen ere, hirugarren adinekoentzako egoitza pribatuen estatu-hitzarmenean ezarrita dagoen maximoa.

- ***Kontratazio-modalitateak.*** Eguneko zentroetan, garrantzi handia du zerbitzuen azpikontratazioak. Zentro publikoen ehunako 56,3k eta titulartasun pribatukoen ehuneko 20k azpikontratatu egiten dituzte zuzeneko arretako zerbitzuak.

- ***Antolaketarako jarraibideak.*** Zentroen ehuneko 94,8k erabiltzaileen beharrak balioesteko eta banakako laguntza planifikatzeko talde bat daukate. Modu osagarrian, funtsezko langilea deritzona zentroen erdian dago; funtsezko langile hori gehiago erabiltzen da zentro pribatuetan eta bereziki gutxi agertzen da itundutako plazak dituzten zentro pribatuetan.

# VI. KAPITULUA

## BALORAZIOA ETA GOMENDIOAK

# I. ESPARRU JURIDIKO-ADMINISTRATIBOARI BURUZKO BALORAZIOA ETA GOMENDIOAK

## A. ARAUTEGI-ESPARRUA

**1. Azken urteotan adinekoentzako arretaren eremuaren barnean eratuz joan den arautegi-esparruan lortutako aurrerapenak, eta zerbitzuen baimen, erregistro, ikuskapen eta homologazio sistemen zein egoitza eta eguneko zentroen erregulazioa oinarrizko gizarte zerbitzuak eta etxeko laguntza-zerbitzua autonomia mailan erregulatuz osatu behar dira.**

Oro har baiezta daiteke azken hamarkadan aurrerapen juridiko-administratibo nabarmenak egon direla adinekoentzako arretaren eremuan, arautegiaren aldetik hutsunea egotetik –salbuespen bakarra hirugarren adinekoentzako erresidentzietako zerbitzu sozialei buruzko uztailaren 30eko 218/1990 Dekretua izan zen, inolako garrantzi praktikorik izan ez zuena, aplikatu ez zen eta- administrazioek sistema antolatzeko oinarrizko baliabideetako batzuk izatera pasatu dela, oraindik ere hutsuneak dauden arren.

Aldaketa horren eragile nagusia gaur egun indarrean dagoen Gizarte Zerbitzuen 1996ko Legea izan zen. Egun ageriak diren gabeziak eta anbiguotasunak dauzkan arren, benetako aurrerapena ekarri zuen aurreko arautegiaren aldean; izan ere, administrazio maila ezberdinen arteko eskumenen mugaketa argiagoa eskaini zuen, eta gure arreta-ereduaren funtsezko hastapen eta elementuetako batzuk ezarri zituen, bereziki komunitateko arretaren filosofia eta udalei gizarte zerbitzuetako zerbitzu eta prestazio guztiak eskuratzeko modu bakarra den aldetik oinarrizko gizarte zerbitzua jartzeko ezarri zitzaien beharra. Halaber, lege horrek ekimen sozialarekin eta ekimen pribatuarekin lan egiteko ereduaren mamia ere ezarri zuen, baimen, erregistro, ikuskapen eta homologazioaren oinarrizko baliabideak aurreikusita.

Onetsi zenetik aurrera, sistema mailaka garatuz joan da. Horrela, 1998an funtsezko bi arau onetsi ziren: bata martxoaren 10eko 40/1998 Dekretua da, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, ikuskapena eta homologazioa arautzeko dena; bestea, aldiz, martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua da, adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuei buruzkoa. Bi urte beranduago, urriaren 17ko 202/2000 Dekretua onetsi zen, laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentroei buruzkoa.

Hala ere, oinarrizko gizarte zerbitzua eta etxeko laguntza-zerbitzua erregulatu gabe daude oraindik, nahiz eta bi zerbitzuek berebiziko garrantzia duten adinekoentzako arretaren eremuan. Espero daiteke udalerrietako gizarte zerbitzuak erregulatzen dituen Dekretuaren zirriborroak, une honetan egiten ari denak, hutsune handi hori ahalik eta epe laburrenetan betetzea eta zeregin hori funtsezko aldeak gehituz burutzea, hala nola, oinarrizko gizarte zerbitzuan landutako kasuetarako erreferentziazko langile bat esleituz, eta ELZren kasuan, lortu beharreko arreta mailak ezarriz, ondokoak bermatzeko asmoz: berdintasuna zerbitzuak eskuratzeko orduan, zerbitzu horretan hain nabarmen agertzen diren espazio-aldeak mailaka gainditzea, eta toki erakundeek helburu horiek lortzeko konpromisoa hartzea.

**2. Gizarte zerbitzuen funtzioen zehaztapenei buruzko uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuan jasotako erantzukizunen mugaketak kontu kontzeptualak eta filosofikoak agertzen ditu; nahitaezkoa da kontu horiei lasaitasunez eta zorroztasunez heltzea, komunitateko arretaren filosofia erreferentzia-esparru, eta zerbitzuak eskuratzeko orduan gaur egun lurraldeen artean dauden desoreka garrantzitsuen arintzea eta pixkanakako desagerpena eta adinekoentzako arreta egokienaren prestazioa helburu hartzen dituen eztabaida baten esparruan egin beharko litzatekeela.**

Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta Eudel-Euskadiko Udalen Elkartearen arteko aurreko akordio baten emaitza den gizarte zerbitzuen funtzioen zehaztapenei buruzko uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuaren helburu nagusia zuzenean eragin handiena jaso duten administrazioen, hau da, foru aldundien eta udalen, artean eginkizunen mugaketa argiagoa ezartzea zen, batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan. Ezarritako eginkizunen mugaketa oinarrizko bi hastapenetan oinarritu zen:

- Lehenengoak adierazten du eginkizun ezberdinak hasieran administrazio bakarrari egokituko zaizkiola, unitate funtzional hori herri administrazio eskudunek beren zerbitzuak eman edo kudeatzeko eskuordetu edo horien ardura emateko duten aukeraren kalterik gabe ulertu behar dela.

- Bigarren hastapena mendekotasun maila foru aldundien eta udalen artean eskumenak banatzeko irizpide gisa hartzeko erabakitik ondorioztatzen da: laguntza behar duten pertsonentzako arreta foru aldundien ardurapean egongo da, eta beren kabuz moldatzen diren adinekoentzako arreta, berriz, udalen ardurapean.

Formula berri horrek bidea ixten dio bi administrazio mailen baterako erantzukizunari. Baterako erantzukizunaren ereduak ondokoa zehazten du: zerbitzuen espezializazio mailaren arabera zerbitzuok sortzeko eskumena administrazio bati zein besteari egoki badakieke ere, bi administrazioek emandako arreta eta horren finantziazioa partekatu behar dituzte, zerbitzu mota bakoitzerako zehazten diren moduan eta neurrian; formula horrek herritarraren eta hurbilen dituen administrazioen arteko lotura naturala haustea saihesten du. Gaur egungo sistema bezalakoa ezartzeak honako hau zehazten du: pertsona baten mendekotasun-egoeraren arabera, herritarra den aldetik bera hartzekodun duten

bi administrazioetako batek ez du harekiko betebeharrik izango, eta ez da haren arreta-beharrizanei lotuta egongo.

Bestalde, formula berri horrek lurralde desorekak areagotzeko oztopo larria dauka, udalei zerbitzu zehatz batzuen gaineko erabateko erantzukizuna esleitzen baitie. Administrazioei zerbitzuak ematerakoan estaldurako betebehar espezifikoak eta esplizituak ezartzen dizkien araurik gabe, aldeak larriagotuko dira, estaldurari dagokionean ez ezik, dagoen eskaintzaren aniztasunari eta erabiltzaileek zerbitzuak eskuratu eta horietan ekonomikoki parte hartzeko dituzten baldintzei dagokienean ere.

Zailtasun horiek mendekotasunaren finantziazioa gure Autonomia Erkidegoan zorroztasunez eta lasaitasunez eztabaidatu ez dela gogoratzen dute, Europako beste errealitate batzuetan ikusi den bezala. Arautegi-aldaketek, batez ere 155/2001 Dekretuak, noizean behin egoeraren araberako irtenbideak sortu badituzte ere, ez dago zalantzarik erreferentzia- eta jarduketa-esparru nagusia ezarri ezik, hartzen diren berrikuntzak edo ekimenak jada atomizatuta dagoen eta oreka txiki daukan sistemari konplexutasun handiagoa baino ez diotela ekarriko. Beraz, beharrezkoa da gizarte zerbitzuetako sistemaren berrantolamendua hausnartzea, eta azterlan zehatzak oinarri hartuta, mendekotasunaren gaur egungo zein etorkizuneko finantziaziorako egon daitezkeen bideak aztertzea.

Filosofikoagoak eta kontzeptualagoak diren kontu horiek alde batera utzita, 155/2001 Dekretuak ezarritako funtzioen mugaketak arazo handiak dakartza aplikatzeko orduan, eta hurrengoak eskatzen ditu:

- Eragindako administrazioak ados jartzea, mendekotasuna baloratzeko baliabide bakarra erabiltzeko eta erabilitako eskalako zein mailatatik aurrera pentsatzen den mendekotasun-egoera dagoela erabakitzeko. Adostasun hori orain dela oso gutxi lortu da, baina bakarrik maila teorikoan –adostutako baliabidea "RAI-RUG III (%20ko bertsioa) sailkatzeko metodoa da"-, nahiz eta oraindik eraginkortasunez ezartzeko biderik ezarri ez den.

- Espazio-desorekak murriztuz joateko asmoz, zerbitzuek, bereziki ELZk eta egoitza aukerek –komunitate etxebizitzak eta babespeko apartamentuak- zentzuzko denbora-tarte batean lortu behar dituzten estaldura mailak zehaztea, EAEko herritar guztiek arreta-irtenbide ezberdinak eskuratzeko duten berdintasuna bermatzeko eta egoitza irtenbide astunagoetara derrigorrean jo behar izatea saihesteko. Beharrizan horrek oinarrizko beste bi kontu agertzen ditu berriro, euren artean estu lotuta daudenak: udal guztiek gizarte politikarekiko benetako konpromisoa hartu beharra, eta udal finantziazioa landu beharra, aspalditik eztabaidatu, erabaki eta erregulatzeko dagoena.

- Halaber, egoitzek eta eguneko zentroek lortu behar dituzten estaldurak zehaztea.

- Komunitateko arretaren berezko hurbiltasun hastapena errespetatu beharra azpimarratzea, bai zerbitzuaren erantzukizuna udal mailari dagokionean, bai foru mailari dagokionean, azken urteotan eraikitzen diren egoitza eta eguneko

egitura handi eta astunen garapena saihestuta, beren tamainarengatik zerbitzua balizko erabiltzaileen ohiko ingurunetik urruntzen baitute. Tokiko izaeraren erreferentziaren galera gaur egun garatzen ari den arreta-ereduaren arrisku nagusietako bat izan daiteke.

3. **Zalantzarik gabe, gizarte zerbitzuen eta gizarte zerbitzuetako zentroen baimena, ikuskapena eta homologazioa arautzeko den arautegiaren onespena EAEko zerbitzu sarearen antolamendu-sistemaren oinarrizko elementu bat da. Hala ere, Gizarte zerbitzuetako Erregistro Orokorra eta Gipuzkoako Foru Erregistroa ez dira oraindik erregulatu, ezta abiarazi ere.**

Azken urteotan martxoaren 10eko 40/1998 Dekretuak sortu eta gaur egun Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Ongizateko Zuzendaritzari atxikita dagoen Gizarte zerbitzuetako Erregistro Orokorra erregulatzeko hainbat arautegi zirriborro egin badira ere, oraindik ez da onetsi arlo hori erregulatzen duen behin betiko testurik. Egia da Eusko Jaurlaritzak ez duela bere zuzeneko ekintzako eskumenen esparruan erregistro horretan inskriba daitekeen zerbitzu edo zentrorik, baina ulertu behar da aipatutako erregistroaren eginkizunak helburu hori gainditzen duela, bere zeregin nagusia autonomia mailako informazio-baliabidea izatea dela; hori dela eta, foru erregistroek egiten dituzten inskripzioak idatzi eta erantsi behar ditu, informazio ondoreetarako.

Erregistroan agertu nahi zuten erakunde, zerbitzu eta zentroei erantzun beharraren aurrean, Araba eta Bizkaiko Foru Aldundiek beren arautegi erregulatzaileak onetsi dituzte foru mailan, autonomia mailako arautegiaren zain egon gabe; Gipuzkoan, aldiz, Gizarte zerbitzuetako Foru Erregistroa sortzeari buruzko Foru Dekretuaren zirriborroa baino ez dago, oraindik onetsi gabe dagoena.

4. **Ikuskapen sistema finkatzen hasi da foru eremuan, eta funtsezkotzat jotzen da zerbitzu eskudunek ikuspegi eta jarrera ebaluatzaileak hartzea, beren zehapen eginkizunen kalterik gabe; ebaluazio ikuspegi eta jarrera ebaluatzaile horiek zerbitzuetako arduradun eta profesionalei erabiltzaileen eskubideen errespetua eta defentsa kalitatearen oinarrizko irizpide gisa onartzea ahalbidetuko die.**

Izaera ebaluatzaile eta pedagogiko hori ikuskapenaren arautegi erregulatzailean bertan ezarrita dago, zerbitzu eskudunetarako hurrengo jarduketa hastapenak ezartzean: erabiltzaileen eskubideen errespetuaz arduratzea, eta horixe lehentasunezko irizpide gisa onartzea arau aplikagarriak interpretatzeko orduan; baliabide kuantitatibo eta kualitatiboak erabiltzea, zerbitzua edo zentroa zerbitzu edo zentro tipologia bakoitzerako arauz ezartzen diren eskakizun material eta funtzionaletarako egokia den egiaztatzeko asmoz; ikuskapena gauzatzen den bitartean, erabiltzaileek eta beren familiek parte hartzeko bideei eta horien funtzionamendu eraginkorrari arreta berezia eskaintzea eta agertutako kexak aztertzea; ikuskapenari izaera ebaluatzailea eta pedagogikoa ematea, zerbitzu eta zentroetako profesionalak bertako funtzionamenduaren, eta arretaren kalitatea hobetzeko neurri egokien analisian sartzen dituena; ikuskapen bisita ebaluazio

kualitatiboko sistemak aplikatuz osatzea, horien emaitzek arreta ematean jarraitu behar diren arauei buruzko orientazioa ematen dutela.

Ikuspegi horretatik ohartzen gara gaur egun ikuskapen zerbitzuek ikuskapen baliabide kualitatiboak diseinatu edo moldatzeagatik nolabaiteko kezka eta interesa agertzen dituztela; baliabide horiek ikuskariei lagunduko liekete laguntza arauak arretaren kalitatea eta erabiltzaileen eskubideen errespetua bermatzeko egokiak diren erabakitzen, egiaztapen material eta ratio profesionaletatik harantzago joanda. Ezinbestekoa da momentuz ahula den jarduketa arau hori indartzea.

**5. Adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren onespenak aurrerapen handia ekarri du sektorean, EAEn jarduten duten zentro guztiei eska dakizkiekeen lege minimo batzuk ezartzen baititu, zentroen tipologia eta titulartasuna edozein direla ere. Hala ere, komeni da dekretua aplikatzean antzeman diren mugetako batzuk gainditzea.**

- ***Egoitza-zentroetako tipologia***. Gaur egun, arautegiak hiru zentro mota bereizten ditu, erabiltzaileen autonomia- edo minusbaliotasun mailaren, eta zerbitzuaren tamaina edo egituraren arabera. Honela erregulatzen dira:

  – babespeko apartamentuak, arauaren arabera pertsona bakarra edo bi bizi izateko bakarrik erabil daitezkeenak, eta beren kabuz moldatzen diren adinekoek okupatzen dituztenak;
  – komunitate etxebizitzak, 5-14 lagunentzako lekua dutenak, eta “nolabaiteko auto-laguntza maila” duten pertsonek okupatzen dituztenak;
  – egoitzak, horietan 15 plaza baino gehiago dituzten egitura guztiak sartzen direla, betiere babespeko apartamentuetako multzoak osatzen ez badituzte, jakina. Egoitzak minusbaliatuek okupatzen dituzte, gehien bat.

Antza denez, tipologia hori ez da egokitzen errealitatera, ezta nahira ere. Badirudi ez dela logikoa bi plazatik gorako etxebizitzak babespeko apartamentutzat jo ezin izatea; izan ere, babespeko etxebizitzek bezala funtzionatzen dute, eta ez egoitza txikiek bezala (komunitate etxebizitzen kasua, adibidez). Halaber, ez omen da zuhurra zentro mota hori beren kabuz moldatzen diren pertsonentzat derrigorrean eginda dagoelako interpretazioa, praktikan egiten ari dena –komunitate etxebizitzen erantzukizuna udalei egokitzen dien 155/2001 Dekretuan babestuta–. Egia esateko, aukera mota horiek zuzeneko arretako langileak eta minusbaliatuentzako beharrezko egokitzapenak eta ekipamendua izango balituzte, laguntza behar duten adinekoen egoitza arreta beren hurbileko ingurunean bermatzeko oso modu onargarriak izango lirateke. Izan ere, egoitzazko zerbitzuen arautegi erregulatzaileak komunitate etxebizitzetako plazetarako bi ratio ezberdin ezartzen ditu: bata beren kabuz moldatzen diren pertsonentzat, eta bestea laguntza behar duten pertsonentzat. Horrek esan nahi du hasieran modalitate horrek minusbaliatuak hartzeko aukera zeukala.

- ***Minimoen erregulazioa.*** Indarreko arautegiak minimoen erregulazioa dakar, hau da, baldintza batzuk ezartzen ditu, horiek gabe bideraezintzat jotzen dela EAEn egoitza-zentro bat irekitzea.

Erregulazioaren aukerako modalitate batek erregulazioa indarrean sartu zenean zeuden egoitzei eta sortu beharreko zentro berriei eska zekizkiekeen betekizunen artean bereiztea ahalbidetuko zukeen, eta horrek zentro zaharrei gaur egungo minimoak aplikatzea eta zentro berriei eska dakizkiekeen betekizunak hobetzea ahalbidetuko zukeen funtsezko aldeetan:

– Horrela, gehieneko plaza kopurua ezarriko zatekeen zentro berri bakoitzeko, literatura espezializatuan gomendatutako dimentsioetara mugatuta. Azterlan zehatzak oinarri hartuta, literatura horrek baieztatzen du berez arretaren kalitate-bermerik ekarri gabe, zentro txikiek eta ertainek egitura handiek baino kalitatezko banan-banako arreta handiagoa eskain dezaketela, nahiz eta horregatik aukera garestiagorik ez dakarten. Zentro berrietarako ezarritako gehieneko edukiera-mugarik ez dagoenez, azken urteotan neurri handietako egoitzak eraikitzen ari dira –eta proiektuek adierazten dute hurrengo urteetan ere mota horretakoak eraikiko direla-; egoitza horiek guztiek 100 plaza baino gehiago dituzte, eta zenbait kasutan, 150 eta 200 plaza baino gehiago.

  Gauzak horrela, Europan finkatuago dauden praktika oneko irizpideekin eta komunitateko arretaren filosofiarekin zerikusirik ez duen eredua hautatzen ari da. Filosofia horri jarraiki, erabiltzaileen ohiko ingurune sozialean ondo integratuta dauden egoitza aukerak sortzea sustatu behar da lehentasunez.

– Intimitaterako eskubideari zuzenean lotutako alde material batzuk hobetuko ziratekeen, hala nola banakako logelen proportzioa: gaur egun proportzio hori plaza guztien %25eko derrigorrezko minimoan dago, Europako estandar berrienek %80eko proportzioa agertzen dutela.

Arautegiak hobetu ahal izan zuen funtsezko beste alde bat **pertsonal-ratioak** dira, gaur egun zuzeneko arretaren arloan ezarrita daudenak gehituz eta mota horretako langileen agerpen fisikoko ratioak ezarriz, banan-banako arretatik ondorioztatutako eskakizunetara egokitzeko asmoz. Aurreko aldeak bezala, ratio horiek arautegi berrikuspen baten esparruan landu beharko lirateke. Horri dagokionez, ezinbestekoa da gomendatzen den ratioen hobekuntza, aplikatzen diren eta arautegian islatuta agertu beharko diren arreta-estandarren hobekuntzarekin batera egin behar dela esplizituki azpimarratzea. Beste modu batean esanda, gaur egungo ratioak minimotzat hartzen dira, eta horren ondorioz, zentro gehienek agertzen dituzten oinarrizko laguntza-irizpide batzuk bermatzea besterik ez dute ahalbidetzen, nonbait. Ratioen hobekuntza ezin izango litzateke justifikatu gaur egungo arreta-estandarrei eusteko baliabide gisa, literatura espezializatuan finkatuago dauden eta banan-banako arretari eta arretaren pertsonalizazioari zuzenago lotuta dauden praktika oneko gomendioetara egokitzeko baliabide gisa baizik.

• ***Babespeko apartamentuen izaera sozialari buruzko bermeak ezartzea.*** Gaur egun, autonomia mailako erregulazioak ez du barne hartzen apartamentu horien okupatzaileen baldintzak eta zerbitzu sozial gisa erabiltzea

bermatzen dituen inolako xedapenik. Hala ere, hori beharrezkoa izango litzakete egoitza modalitate horren iruzurrezko erabilera saihesteko, bereziki hasieran egoitzazko zerbitzu gisa erabiltzeko baimenduta zeuden apartamentuen higiezin-espekulazioaren arriskua saihesteko.

**6. Egoitzazko zerbitzuen arautegi erregulatzailearen kasuan bezala, laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentroei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretua indarrean sartutakoan, EAEn jarduteko baimena jasotzeko nahitaezkoak diren oinarrizko betekizun batzuk betetzea bermatzen duten minimoen esparrua ezarri da. Zalantzarik gabe, arautegi esparrua egotea positiboa da berez, lehen hutsunea baitzegoen arautegiaren aldetik. Dena den, egia da komenigarria izango litzatekeela xedapen horiek berrikustea, zentro horiei dagokien hurbileko zerbitzuen izaera onartuta. Ikuspegi horretatik, indarreko arautegian zenbait hobekuntza sartzeko aukera hausnartu beharko litzateke.**

- ***Eskurapena.*** Indarreko arautegiak hurrengo baldintzak betetzen dituzten 60 urtetik gorako adinekoentzat aurreikusten ditu eguneko zentroak: senideekin bizi eta arrazoi fisikoengatik edo psikikoengatik eguneroko bizitzako jarduerak gauzatzeko erdi- edo goi-mailako zailtasuna duten pertsonak, edo bakarrik zein senideekin bizi eta eguneroko bizitzako oinarrizko edota tresna-bidezko jarduerak gauzatzeko minusbaliotasun txikia izanda ere, hainbat arrazoirengatik (adin handia, babesgabetasun soziala edo gaixotasuna) aurreikusteko moduko hondatze-arriskuan dauden pertsonak. Horrela, minusbaliotasun maila nabarmena izan arren bakarrik bizi diren pertsonek ezin dute eguneko zentroen zerbitzua eskuratu. Arreta sarearen gaur egungo egoeran, hori laguntza-modalitate horrek gizarteko eta familiako babes sendoa behar duelako seinale da.

- ***Eredua***. Arauak ez du modalitate hori kokatzen eguneko arretaren zerbitzu sare zabalago batean, bertan eguneko zentroek aukeretako bat osatuko luketela. Horrek baliabide hori elementu malgu, banakako beharrizanen arabera maila handiagoan ala txikiagoan arinak diren beste laguntza-modu batzuekin batera erabil daitekeena, bezala ulertzea oztopatzen du.

  Era berean, xedapenek ez dute agertzen zerbitzuaren funtsezko ezaugarria izan beharko litzatekeen hurbileko zerbitzuaren izaera. Horrek administrazioek materialen aldetik ondo hornituta dauden eta beren izaera integrala dela-eta erabiltzailea beste komunitate zerbitzu batzuetatik aldentzen duten egitura handiak sortzeko duten joera indartu egiten du. Gainera, baliabide mota horren aprobetxamendua bermatu behar denez, laguntza behar duten pertsonentzako eguneko zentroek zerbitzuaren hurbiltasuna eta malgutasuna ziurtatzeko egokia den edukiera baino handiagoa izan ohi dute.

  Erabiltzaileen eta gizarteko eta familiako babes sareetako kideen beharrizanen aldakortasunera hobeto moldatzen den sistemarantz benetan abiatu nahi badugu, komenigarria izango litzateke arauak eguneko arreta-unitate txikiak sortzearen alde tinko egitea. Hurbiltasun eta integrazio hastapena aplikatuta, unitate horiek

behar bezala banatu beharko lirateke maila geografiko mugatu batera, eta inoiz ez haiei dagokien oinarrizko gizarte zerbitzuaren eragin-eremua baino handiagoa den batera, babes-puntuen sare trinko bat osatuta.

- ***Pertsonal-ratioak***. Egoitza-zentroen kasuan bezala, beharrezkotzat jotzen da gaur egun indarrean dagoen Dekretuan jasotako ratioak hobetzea, hobekuntza hori laguntza-kalitateko estandarren hobekuntzarekin batera derrigorrean agertu behar dela. Ikuspegi horretatik komenigarritzat hartzen da ratioak langileen agerpen fisikoari buruzkoak izatea, eguneko une ezberdinetan arretaren kalitatea bermatzeko asmoz.

## B. EGOILIARREN ESKUBIDEAK

**7. Erabiltzaileen eskubideen aintzatespen-eremuan ere oso aurrerapen nabarmenak antzeman dira azken hamabost urteotan; aurrerapen horien emaitza nagusia erabiltzaileen eta langileen eskubideen eta betebeharren karta orain dela gutxi onestea izan da arautegi-esparruan. Orain kontua da adinekoen arretaren funtsezko elementu hori gure balio-sisteman sartzea, jarduketa eremu horretan erabakiak hartzeko orduan erreferente nagusi gisa.**

Orain dela gutxira arte, egoiliarren eskubideak ez ziren berariaz jasotzen gure arautegian, eta ez ziren esplizituki agertzen egoitzen praktikan. Gure eremuan ebaluazioari eta kalitatearen berme eta etengabeko hobekuntzari buruzko sistema batzuk mailaka aplikatuz joan dira, eskubideen errespetua laguntza-arauen egokitzapen handiagoaren ala txikiagoaren erreferentzia-puntu gisa hartzen dutenak, bai zentroetako hornidura materialari dagokionez, bai langileen hornidurari edo antolaketa eta funtzionamendu arauei dagokienez. Aipatutako sistema horiek aintzatespen horren eragileak izan dira, zalantzarik gabe.

Ikuspegi horretatik, gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen eta langileen eskubideen eta betebeharren Karta arau modernoa eta aurrerakoia da, Estatuan aitzindaria dena eta tradizio anglosaxoiko herrialdeetan jada finkatuta dauden herritarren zein gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen Kartek hasitako ildoan kokatzen dena. Herri Administrazioei eta gizarte zerbitzuak ematen dituzten erakunde pribatuei eskubideak gauzatzeko eta artikulu multzoan zehaztutako betebeharrak betetzeko baldintzak sustatu beharra ezartzen die.

Eskubideen aintzatespena egoitzazko zerbitzuen eta eguneko zentroen arautegi erregulatzaileetan ere islatzen da, baita gizarte zerbitzuetako zerbitzuek eta zentroek izan behar dituzten barne-araubideko arautegietan ere.

Egoitza praktikan, nahiz eta lortutako lorpenak oraindik nahikoak ez diren eta nabarmen hobetu beharrekoak diren, ez dago zalantzarik: gaur egungo egoera orain dela hamabost urtekoa baino askoz hobea da.

- Alde batetik, kalitatea ebaluatu eta bermatzeko, baita baimendu eta ikuskatzeko ere, kanpoko mekanismo batzuk egoteak erabiltzaileen eskubideak zerbitzuaren diseinuan eta laguntza-arauen antolaketan maila handiagoan kontuan hartzen laguntzen du.

- Beste aldetik, profesionalek alde horri buruzko ezagutza handiagoa eta, batez ere, kontzientzia handiagoa agertzen dituzte.

Hala eta guztiz ere, aitortu behar da prozesu geldoa dela, lan egiteko moduaren jarrera-aldaketa batean, eta horren ondorioz, aldatzeko gogoan oinarritzen dena. Aldatzeko gogo hori ez da erraz sustatzen zereginen ohituran oso finkatuta dauden egituretan, askotan arretaren indibidualizazioa egoitza antolaketaren elementu aztoratzaile gisa ulertzen dela, nahiz eta arreta jasotzen duten pertsonen beharrizanetara hobeto moldatzen dela aitortzen den.

Hortaz, funtsezkoa da erabiltzaileen eskubideak eta egoitza antolaketaren eskakizunak batera lantzen dituen sentsibilizazio lana egitea, antolaketa hura (zentroen funtzionamenduan erabakigarria izan ohi zena) egoitza bizitzan esku hartzen duen talde ahularen eskubideak errespetatu, sustatu eta defendatu beharretik ondorioztatzen diren eskakizunetara egokitzeko asmoz.

## C. ZUZENEKO ARRETAKO ZERBITZUAK ESKURATZEA: ELZ, EGUNEKO ZENTROAK ETA EGOITZAZKO ZERBITZUAK

**8. Zuzeneko arretako zerbitzuak, bai etxeko laguntza-zerbitzua, bai egoitza eta eguneko zentroak, eskuratzea arautegi-aniztasun handiaren mende dago gaur egun. Erabat beharrezkoa da eskurapen-irizpide komun batzuk ezartzea emandako zerbitzu motaren arabera, EAEn dauden lurralde desorekak murrizteko asmoz.**

- Etxeko laguntza-zerbitzuari dagokionez, Araban bi sare daude –Foru Aldundiak emandakoa eta Vitoria-Gasteizko Udalak kudeatzen duena-; Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, zerbitzua udal mailan kudeatzen da beti. Udalek beren toki arautegietan zerbitzuak eskuratzeko baldintzak ezartzen dituztela kontuan hartuta, ia udalak beste baldintza daude.

- Egoitzazko zerbitzuen eskurapenak ere aldaketa garrantzitsuak ditu. Alde batetik, gizarte zerbitzuen funtzioen zehaztapenei buruzko uztailaren 30eko 155/2001 Dekretua onetsi zenetik aurrera, laguntza behar duten adinekoentzako egoitza arreta foru aldundiei dagokie, eta egoitza aukera arinagoak, hala nola etxebizitza komunitarioak eta babespeko apartamentuak, berriz, udalei. Hortaz, lehenengo kasuan, aldeak ondore horretarako (hau da, zerbitzuak eskuratzeko) beren arautegi erregulatzaileak dituzten hiru lurralde historikoen artean agertzen dira; bigarren kasuan, ostera, beren arautegi propioak dituzten toki erakundeen artean.

  Hiru lurralde historikoen arteko aldeak, laguntza behar duten pertsonei, hots, txosten honen interes-helburu nagusia direnei, zuzenen eragiten dietenak, oinarrizko hiru aldetan oinarritzen dira:

– Alde batetik, eskabidea aurkeztu aurretik erroldatuta igaro behar den aldia hiru urtekoa da Araban eta Bizkaian; Gipuzkoan, aldiz, bi urtekoa.

– Beste alde batetik, Bizkaian 2001etik indarrean dagoen arautegiak baldintza bat jartzen du, foru sareko eta itunpeko sareko egoitza-zentroetan sartzeko, baita erantzukizun publikoko saretik kanpo dauden egoitza-zentroetako plazetan sartzeko diru-laguntzak eskuratzeko ere: diru-sarreren gehieneko muga zehatz bat, aipatutako maila ekonomikoa baino handiagoa dutenak sistematik kanpo geratuko direla. Alde hori oso garrantzitsua da, pertsonak diru-sarreren mailaren arabera baztertzea zerbitzuak beharrizan mailaren arabera emateko hastapenarekin kontraesanean baitago eta atzerapausoa baitakar sisteman; izan ere, etapa hori gainditua, sistemak eredu berri baterantz abiatu nahi zuen pixkanaka, bertan diru-sarreren maila erabiltzaileak zerbitzuaren finantziazioan eduki beharreko parte-hartze ekonomikoaren elementu erabakigarria baino ez litzatekeela izango. Gainera, garrantzitsua da ondokoa adieraztea: Bizkaian ezarritako mugaketak lurralde historikoen artean itxaron-zerrendak erkatzea eragozten du, diru-sarreren maila jakin batetik gorako diru-sarrerak dituzten adinekoek zerbitzuak eskuratzea murriztuta, horiek ez baitira agertzen egoitza plaza baten zain dauden pertsonen zerrendan.

– Zerbitzuak eskuratzeko arloan hiru lurralde historikoen artean dauden alde nagusietako azkena mendekotasun maila zehazteko dauden balorazio-baliabide ezberdinen hautaketari buruzkoa da.

• Lurralde historikoen artean, eguneko zentroetan sartzea beste alde batzuen mende ere badago. Kasu horretan, eskabidea aurkeztu aurretik erroldatuta igaro behar den aldia urtebetekoa da Araban; Bizkaian eta Gipuzkoan, ordea, aldiak egoitzazko zerbitzuak eskuratzeko ezarritako aldien antzekoak dira, hau da, hiru urtekoa eta bi urtekoa, hurrenez hurren. Hementxe ere balorazio eskala ezberdinen aplikazioaren arazoa agertzen da.

  Guztiz ezinbestekoa da gaur egun zerbitzuak eskuratzeko orduan antzematen diren funtsezko aldeak toki mailan zein lurralde mailan kentzea. Bereziki, beharrezkotzat jotzen da egoitza-zentroetan sartzeari buruzko Bizkaiko arautegiaren barnean dagoen bazterketa kentzea, plaza eskatzen duten pertsonen diru-sarreren mailaren gainekoa, alegia.

**9. Zerbitzuak eskuratzea hurrengo baldintzarekin agertzen da bidezko foru arautegietan: erabiltzaileak berariaz horrekin ados dagoela adierazi behar du, baliozkotasun juridikoko egoeran, horren lege ordezkariak edo tutoreak eskabidea bideratzea onartuko dela, betiere Kode Zibilaren 271. artikuluan ezarritako baimen judiziala badauka. Funtsezkoa da arau horren edozein salbuespen aplikatzerakoan gehieneko arretak hartzea.**

Horri dagokionez, garrantzitsua da bi kontu azpimarratzea:

• Alde batetik, Araban aurreikusi dena: adinekoaren ordezkapena behar bezala esleituta izan gabe egitatezko zaintza gauzatzen duen pertsonak adinekoa egoitza

batean sartzea eskatzeko aukera izango du, balizko ezintasunagatik adinekoa baliozko baimena emateko egoeran ez dagoela objektiboki eta behar bezala ondorioztatzen denean. Aukera horren babes juridikoa zalantzan jarri gabe, zuhurtzat jotzen da adinekoa azkenean egoitzan sartzekotan, ahalik eta zuhurtzia handienaz jokatzea. Horrela, aukera hori aurreikusten duen xedapenean kasu horietan hartu behar diren arreten espezifikazioa sartu beharko litzateke.

- Bestaldetik, juridikoki ezinduta edo ezintasun prozedura batean sartuta dauden pertsonen proportzioa %20koa da, hondatze kognitiboa duten pertsona guztien artean, zentroetako arduradunei egindako inkestatik ondorioztatzen denaren arabera. Aipatutako proportzioak oraindik ezintasun prozedurari buruzko gezurrezko iritziak, bai ezintasunaren izaeraren gainekoak (pertsonaren interesak eta eskubideak babesteko baliabide gisa beharrean, pertsonaren interesen kaltegarri gisa ulertzen dela), bai prozeduraren aplikazioaren kostu ekonomikoari eta prozeduren iraupenari buruzko aldeen gainekoak, daudela adierazten omen du. Eragindako biztanleek (senideak ez ezik, adinekoak eurak ere) duten ezagutza hobetzeko neurri egokiak hartu beharko lirateke, egoera horiek aurreikusi eta aldez aurretik lasai eztabaidatzeko, eta eragina zuzenean jasotzen duen pertsonak bere interesak eta eskubideak defendatzeko egokien irizten duen pertsona hautatzeko, buru-ahalmen beteak dituela.

## D. ZERBITZUEN FINANTZIAZIOA

**10. 155/2001 Dekretuan jasotako funtzioen zehaztapenaren aplikazio praktikoa ez da berdin gauzatu hiru lurralde historikoetan, eta laguntza behar duten pertsonei emandako zerbitzuen finantziazioari dagokionez, foru aldundien eta udalen arteko gatazkak sortu ditu, aipatutako gatazkei irtenbideak eman behar zaizkiela ahalik eta azkarren.**

Alde horretan ere aldeak daude:

- ELZri dagokionez, Araban Foru Aldundia eta Vitoria-Gasteizko Udala ez dira ados jarri zerbitzuaren foru finantziazioaren kalterik gabe udalak bere udalerriko eremuan laguntza behar duten pertsonentzako ELZren kudeaketa har dezan, hainbat elkarrizketa izan dituzten arren. Hortaz, Arabako hiriburuak ELZren sare bikoitza izaten jarraitzen du: bata Udalak beren kabuz moldatzen diren pertsonei ematen diena da; bestea, aldiz, Aldundiak laguntza behar duten pertsonei emandakoa.

  Egoitzazko zerbitzuei dagokienez, eztabaidaren mamia San Prudentzio Udal Egoitzan laguntza behar duten pertsonentzat dauden plazak izan dira. Izan ere, Arabako hiriburuko Udalak foru finantziazio osoa eskatzen du horietarako (gaur egun, bi erakundeek batera finantzatzen dituzte plazok), eta Aldundiak hurrengo baldintza adierazten du aipatutako finantziazioa gauzatzeko: balorazio batzordearen bidez plaza guztiak foru sareko plazak eskuratzeko dagoen araubide arruntari lotzea (gaur egun, aipatutako plazak araubide horretatik kanpo daude), eta kostu zehatz batzuetara moldatzea, gaur egun Aldundiko plazen kostua gainditzen dute eta.

- Bizkaian polemikaren mamia, behintzat maila teknikoan, ELZren finantziazioa, eta kontu hori dela eta, alde bakoitzak Foru Aldundiaren eta Eudel-Euskadiko Udalen Elkartearen arteko Hitzarmenari buruz -155/2001 Dekretuaren zuzeneko aurrekarietako bat-, eta bereziki etxeko laguntza-zerbitzurako bertan aurreikusitako fluxuen helburuari buruz egiten duen interpretazioa dira. Foru teknikarien arabera, fluxu horiek laguntza behar duten zein beren kabuz moldatzen diren pertsonei emandako ELZ osoa finantzatzeko dira; udal teknikarien arabera, ostera, beren kabuz moldatzen diren pertsonei emandako zerbitzuari dagozkio; udal teknikarien ikuspuntutik, laguntza behar duten pertsonentzako ELZren foru finantziazio bakarra, egoitza plaza batean sartzeko edo egoitza plaza bat eskuratzeko diru-laguntza jasotzeko itxaron-zerrenda batean dauden pertsonei ematen zaien zerbitzua finantzatzeko diru-laguntzak dira. Nolanahi ere, eztabaida nahasi samarra da, eta horren ondorioz, beharrezkotzat jotzen da ahalik eta azkarren argitzea.

- ELZri dagokionez, Gipuzkoan Udalen eta Foru Aldundiaren arteko eztabaidaren mamia Aldundiak laguntza behar duten pertsonentzako zerbitzu-ordu bakoitzeko urtero ezartzen duen gehieneko prezioa da, gehien bat. Prezio hori 13,98 €-tan finkatu zen 2004an, eta zerbitzuaren kudeatzaileak diren udalek zerbitzua ematen duten erakundeei ordaintzen dieten prezioaren –17,66 €– azpitik dago. Arazoa da zerbitzua ematen duten erakundeek –oro har, elkartetan osatzen direnak- prezio hori ezarri zutela sektoreko hitzarmen kolektibo batean; hitzarmen horri errekurtsoa jarri zitzaion, eta Auzitegi Gorenak orain dela gutxi ebatzi du alde demandatzaileren alde, aipatutako hitzarmena baliorik gabe utzi duela. Izan ere, "prozesu negoziatzailean enpresa aldearen eta gizarte aldearen interesak bateraezinak ez direla" egiaztatu da; hori dela eta, sektoreko hitzarmen berri hori ez dago indarrean gaur egun. Zirkunstantzia berriek zehazten dute udalek jada ordaindu dituzten zenbatekoen aldeak itzultzeko egin beharreko erreklamazioak oso egoera zail bati egin beharko diola aurre.

  Egoitzazko zerbitzuei dagokienez, Aldundiak laguntza behar zuten pertsonentzako plaza bakoitzeko esleigarri irizten zuen kostua negoziatu zuen zerbitzuen erakunde titularrekin, toki erakundeak barne. Oinarri horren gainean gehieneko tarifa batzuk ezarri zituen, urtero eguneratzen direnak. Hala eta guztiz ere, oraindik ez da konpondu Foru Aldundiak ezarritako kostu-estandarretara moldatzeko denboraldi luzea behar zuten hamar egoitzaren egoera; estandar horiei dagokienez, oraindik ez da zehaztu zein izango den konponbidea, ezarritako epea bukatutakoan moldaketa gauzatu ez bada.

**11. Erabiltzaileen diru-ekarpenen sistemak eta ordainketa-bermeko sistemak ezberdinak dira hiru lurralde historikoen artean, laguntza behar duten pertsonei dagokienean, eta udalen artean, udal eskumeneko zerbitzuei dagokienean. Erabiltzaileen diru-ekarpenak kalkulatzeko irizpide homogeneoak, eta ordainketa-bermeko sistema bakarra ezarri behar dira EAE osorako.**

Gaur egun, alde nabarmenak daude erabiltzaileen batez besteko diru-ekarpenetan zein horiek zehazteko erabiltzen diren irizpideetan; zerbitzu motaren arabera, mota

askotako elementuak ezberdinak izan daitezke, hala nola diru-sarrerak zenbatzeko ondoreetarako kontuan hartzen den unitate ekonomikoa, hausnartutako diru-sarreren tarteak, tartearen oinarria (lanbide arteko gutxieneko soldata, oinarrizko errenta edo beste batzuk), erabilera libreko kopuruak, edo ondarea edo diru-sarreren maila zehazteko ikertutako denbora-epeak. Beraz, diru-ekarpen horiek zehazteko irizpide komunak ezarri behar dira, bai ELZri dagokionean, bai egoitzazko zerbitzuei eta eguneko zentroei dagokienean.

Era berean, komenigarria izango litzateke hiru lurraldeetan ordainketa-bermeko sistema bakarra ezartzea. Gaur egun, egoitza arretaren eremuan, Arabak ordainketa-gerorapena aplikatzen du diru-sarreren maila jakin batetik aurrera, sortutako zorraren aldizkako ikuskapenaren baldintza duena; Bizkaiak eta Gipuzkoak, berriz, hobariak aplikatu aurretik ondarea amaitzean datzan sistema aplikatzea hautatu dute.

## E. SEKTORE PUBLIKOAREN ETA SEKTORE PRIBATUAREN ARTEKO ERLAZIOAK

### 12. Herri administrazioen eta erakunde pribatuen arteko goranzko ituntzearen esparruan egoera korapilatsuak eta problematikoak agertu direla ikusi da, egoera horietarako konponbide adostuak eta arduratsuak aurkitzea guztiz beharrezkoa dela.

- Agertzen den lehenengo arazoa herri erakundeak itunpeko plazak finantzatzeko ezarri duen gehieneko tarifen zenbatekoa da; eragindako erakundeek adierazten dutenez, finantziazio hori benetako kostua estaltzea eta enpresa-etekin txikia lortzea oztopatzen duten arretaren kalitate-eskaerei lotuta egon ohi da. Kontu hori nabarmenagoa da herri erakundeek beren zuzeneko kudeaketako zentroetan dituzten plazen kostuak eta tarifak erkatzen direnean, eta baliteke azken batean ondokoa gertatzea: konparaziozko bidegabekeria saihesteko eta gastuak mugatzeko, administrazioek beren langileen bidezko zuzeneko kudeaketari behin betiko uko egitea, eta erantzukizun publikoko plazei (propioak eta itunpekoak) buruzko esku-hartzea baimen, ikuskapen eta homologazio eginkizunetan (plazak itunduz zein aukerako sistemak aplikatuz, adibidez txeke-zerbitzuko sistema) baino ez gauzatzea.

- Agertzen den bigarren kontua sektore pribatuko soldata-baldintzei buruzkoa da: indarreko lan-arautegiari lotzen bazaizkio ere, zenbait kasutan ez dira Autonomia Erkidegoko bizitzaren kostuaren araberakoak, batez ere egoitza pribatuetako estatu Hitzarmena aplikatzen denean. Kontu hori lan arloko zenbait gatazka larriren jatorria da, batzuetan grebara –oso luzea izan daitekeena- jo dela. Egoera horiek banakako konponbideak, hau da, zentro bakoitzerako itundutakoak, aurkituz joan dira, baina gero eta argiago ematen du konponbidea estatu hitzarmenarekin zerikusirik ez duten sektoreko hitzarmen kolektiboak ezartzearen eskutik etorriko dela. Gauzak horrela, dagoeneko mota horretako hitzarmen bat dago Bizkaian, eta ziur aski Gipuzkoan ere ekimen horri lagunduko zaio.

Funtsezkoa da kontu horiek sakon aztertzea, beste eremu geografiko batzuetan izan dituzten konponbideak aztertuta, baina sistemak erantzukizun publikokoa izaten jarraitu behar duela ahaztu gabe.

# II. ADINEKOENTZAKO ZUZENEKO ARRETAKO GIZARTE ZERBITZUEK AZKEN HAMARKADAN IZAN DUTEN BILAKAERARI BURUZKO BALORAZIOA ETA GOMENDIOAK

## A. INFORMAZIO SISTEMA

Adinekoentzako zuzeneko arretako gizarte zerbitzuek izan duten bilakaerari buruzko azterlanak muga asko ditu, gehien bat datuen heterogeneotasunetik eta analisirako kontu garrantzitsuei buruzko informaziorik ezetik datozenak. Ezinbestekotzat jotzen da bere neurriko (etengabeko arreta jaso duten hogeita zazpi mila adineko baino gehiago, hamabi mila egoitza plaza baino gehiago, hamar mila langile baino gehiago eta fakturazioko berrehun eta berrogeita hamar milioi euro baino gehiago), bere garrantzi sozialeko (erabiltzaileen eta beren senideen ongizateari eragiten die zuzenean, eta, eta adinekoen ongizateari zeharka, kohesio sozialeko oinarrizko adierazle bat dela), eta bere antolaketa-konplexutasuneko (haren funtzionamenduan Eusko Jaurlaritzak, hiru aldundiek, berrehun eta berrogeita hamar udalek eta beste hainbeste erakunde pribatuk esku hartzen dute) babes sozialeko azpisektore batek ezinbestean informazio-sistema ona, jarduketen azterlan, planifikazio eta jarraipenerako behar diren elementuak emateko gai dena, behar duela konturatzea.

**13. Aztertu eta planifikatzeko ondoreetarako, beharrezkoa da zerbitzuetako erabiltzaileei eta eskatzaileei, adinekoen beharrizanei, eta gizarteko eta familiako babes sareari buruzko informazioa hobetzea.**

Zerbitzu horietako erabiltzaileen gainean erabilgarri dagoen informazio estatistikoaren analisiak hurrengo puntuak nabarmentzen ditu:

- Ez ditu modu homogeneoan banakatzen beren kabuz moldatzen diren erabiltzaileak eta laguntza behar dutenak, Autonomia Erkidegoan baremo bateraturik ez dago eta, eta ez du minusbaliotasuna mailaka sailkatzen; azken arazo hori prestazioak administratzeko modu bati, jarreraren arabera eskubideak autonomia eta minusbaliotasunaren arteko muga zorrotzaren alde batean edo bestean oinarritzeko joera duenari, alegia, lotuta dago.

- Ez du zerbitzu mota hori eskatzen duten pertsonen ezaugarriei buruzko informaziorik ematen, baliabide horiek eskuratzeko atea den oinarrizko gizarte zerbitzuetan jasotzen diren eskabideak ez baitira sistematikoki biltzen. Era berean, ez du baliabide zehatz batzuk eskuratzeko itxaron-zerrenden gaineko datu fidagarririk ematen.

- Ez du adineko guztien egoera, ezaugarri eta beharrizanei buruzko daturik ematen, eta horren ondorioz, berrikusten ez diren estandarretan edo irismen partziala eta denbora-baliotasun erlatiboa dituzten azterlan monografikoetan oinarritzen diren balioespenak egin behar dira etengabe.

- Ez da arretako sare informalaren egoerari buruzko irudi argirik eskaintzeko, nahiz eta horren lan-gainkarga, narriadura edo gabezia zerbitzuetara zuzendutako demanda gehienen jatorria den.

Zerbitzu horien helburua autonomiarik ezaren egoerak arindu eta orekatzea dela kontuan hartuta, arazo horiek dauden ala ez hausnartzea eta arazoen garrantzia neurtzea nahitaezko erreferentziak dira, zerbitzuok behar bezala antolatzeko.

**14. Zerbitzu-eskaintzari buruz erabilgarri dagoen informazioa aurreko puntuan aipatutakoa baino garatuago dago; hala ere, oraindik ere hori hobetzeko neurriak hartu behar dira.**

"Gizarte Zerbitzuen estatistika. Erakundeak eta Zentroak" (GZEEZ) azterlana, Gizarte Zerbitzuetako Gastu Publikoarenak eta Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren txostenak lan zailak eta garestiak dira, oso onuragarriak badira ere. Gure Autonomia Erkidegoan baino ez dira urtero burutzen, eta komenigarria da horiek mantendu eta hobetzea. Hala ere, muga batzuk ditu zerbitzu-eskaintzari buruzko informazio-beharrizanen ikuspegi orokorretik:

- Mota bakoitzaren barnean, egoitzek, eguneko zentroek eta etxeko laguntza-zerbitzuek heterogeneotasun handia daukate, eta ez dago irizpide komun eta argirik, ezberdinak eta analisiaren ondoreetarako eraginkorragoak diren tipologiak ezartzeko.

- Egoitza eta eguneko zentroen kasuan dagoen informazioaren bidez, ezin da babes publikoaren irismena zehaztu, erabiltzaileei dagokienez, itunpeko edo hitzartutako plazak eta sare publikotik kanpoko baliabideak eskuratzeko banakako laguntza publikoak behar bezala banakatuta ez daude eta.

- Zerbitzu horien edukierari buruz eskaintzen diren datuak heterogeneoak eta osatugabeak izan ohi dira: egun zehatz bateko erabiltzaile kopurua eta urte osoko erabiltzaile kopurua nahasten dira sarritan, zainketen intentsitateari buruzko zenbakiak etxeko zerbitzuaren batez besteko orduen gainekoak baino ez dira, ez dago alta eta baxen berririk, zerbitzuen erabilera-aldia ezezaguna da, eta horren ondorioz, errotazio-indizeak ere bai, etab. Laburbilduz, nabariegiak diren adierazle batzuk oinarri hartuta lan egiten da.

**15. Arreta sektore horren informazio-sistema hobetzeko azken erantzukizuna Eusko Jaurlaritzari dagokio, Erkidego mailan. Hortaz, Eusko Jaurlaritzak hori hobetzeko jada egiten ari den ahaleginak mantendu eta gehitu beharko lituzke.**

Adinekoentzako arreta sozialaren arloko eskumenen gaur egungo banaketak eta eskaintzen diren baliabideen izaera ez-garantistak biztanleria-sektore horretarako babes publikoko hiru sistema ezberdin garatzeko bidea eman dute –udalen protagonismo handiagoa ala txikiagoa alde batera utzita-; aldundi bakoitzak hiru sistema horietako baten buruzagitza gauzatzen du, eta antolaketa-eredu ezberdinak dituzte hirurek. Erabaki horiei buruz egiten den balorazioa

kontuan hartu gabe, EAEn informazioaren arloko erantzukizuna Eusko Jaurlaritzari dagokio; praktikan eskumen hori onartzen du, lehen aipatutako bi estatistika-lanak, eta lan horien emaitzak zati batean laburbiltzen dituen Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren txostenaren idazkuntza bultzatuz. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzak urteko txosten hori hobetzeko lanean dihardu, haren gomendioen edukiari eta irismenari dagokienean. Dena den, biltzen duen informazio estatistikoari dagokionez, badirudi gomendagarria dela hurrengo jarduketa-ildoak zabaltzea:

- Udalek eta batez ere, aldundiek, duten informazio estatistikoa eta administratiboa ikertzea, mailaka bateratzeko eta, aztertzeko ondoreetarako maila handiagoan aprobetxatzeko.

- Behaketa-eremua zabaltzeko eta galdera-sortetan item berriak sartzeko aukerak baloratzea, jada Erkidegoaren eremuan gauzatzen ari diren eta osasunari, bizi-kalitateari edo denboraren aprobetxamenduari lotuta dauden garrantzi handiko estatistika-lan arruntetan.

- Aurreko guztia oinarri hartuta, jarraipen-adierazleen sistema operatibo bat diseinatzea.

- Zerbitzu mota hori emateko orduan eragina duten erakunde publiko guztien arteko koordinazioa eta lankidetza bultzatzea, informazioaren beharra eta erabilgarritasuna azpimarratuta.

## B. **ARRETA ZERBITZU GUZTIEI LOTUTAKO KONTUAK**

Banan-banako arreta zerbitzuek 1991-2001eko denboraldian izandako bilakaera zentzu batean ala bestean baloratzeko, beharrezkoa da erreferentzia-irizpide batzuk ezartzea, eta alde horretatik, aukera nabariena Euskal Autonomia Erkidegoko 1994ko Plan Gerontologikoan bildutako proposamenak kontuan hartzea da; proposamen horiek aipatutako zerbitzuen garapenari eragiten dioten erabakiak gidatu beharko lituzkete, orientatzeko ondoreetarako.

1993an Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegorako Plan Gerontologiko bat egiteko agindu zion adituen batzorde bati, plana zeuden baliabideen analisian eta adinekoei eragiten zieten arazo sozialen ikerketa zabal eta zehatzean oinarritu behar zela. Hain parte-hartze maila txikiaz egin zen plana, non ez zekarren konpromiso formalik; halaber, ez zen loteslea aldundi eta udaletarako, nahiz eta zerbitzu horien kudeaketaz eta garapenaz beraiek arduratzen ziren; nolanahi ere, orientazio gisa erabil zezaketen, logikoa denez.

Dokumentu honetan defendatzen den arreta-ratio orokorrari eta eskaintza osatzen duten zerbitzuetako bakoitzari dagozkion ratioei dagokienez, hurrengo iritziak agertu behar dira:

- 1994ko Planaren arreta-ratio orokorra (hirurogeita bost urtetik gorako adinekoen %11k zerbitzu mota bat ala bestea erabiltzen zuen) 1990ko Euskal Autonomia

Erkidegoko Plan Gerontologikoan agertutakoa (%17) baino askoz txikiagoa zen. Jaitsiera horren arrazoia lehenengo Planaren indarraldian lortutako emaitzen urritasuna zen, eta ez beharrizanen jaitsiera.

- Arreta zerbitzu guztien barnean egoitza plazen nagusitasuna eta eguneko zentroen izaera esperimentala ezaugarri dituen testuinguruan, Planak aukera horietako lehenengoa puztera, %45eko pisua emanda, eta bigarrena kontuan ez hartzera jo zuen, eguneko zentroetako plazen estaldurari buruzko inolako proposamenik agertu ez zuela. Zerbitzuek EAEn zein hurbileko beste testuinguru batzuetan izandako bilakaera ikusita, badirudi komenigarria dela banaketa hori pixka bat zuzentzea, eguneko zentroei eta etxeko laguntzari garrantzi handiagoa emanda, egoitza plazen kalterako.

Laburbilduz, 2001eko egoera baloratzeko erreferentzia hartu behar omen diren zenbakiak ondokoak dira:

- Egoitzazko zerbitzuen estaldura: adinekoen %4,40.
- Eguneko zentroen estaldura: %0,88.
- Etxeko laguntza-zerbitzuen estaldura: %5,72.
- Zuzeneko arretako gizarte zerbitzuen estaldura orokorra: %11.

**16. 2001erako erreferentzia-tasa (adinekoen %11k laguntza jaso du) minimotzat jo beharko litzateke, 2010erako proposamenetan. Urte horretan lortu beharko den estalduraren zehaztapen zehatza baliabide eta beharrizanei buruzko ikerketa baten emaitza izan beharko litzateke.**

2010eko etorkizunean %11ko estaldura minimotzat jotzea justifikatzen duten arrazoiak hurrengo datuetan oinarritzen dira:

- Gure hurbileko inguruneko herrialde gehienen gizarte zerbitzuak erreferentzia-eredua izan ohi dira, eta herrialde horiek proportzio hori nabarmen gainditu dute 2000ren aurretik: %31,2 Danimarkan, %16,9 Suedian, %17,4 Finlandian, %17,6 Erresuma Batuan, %13,7 Austrian, %13,9 Frantzian…, horietan eguneko zentroen eskaintza zenbatu gabe.

- Onesteko prozesuan dagoen Arabako Plan Gerontologikoak %13ko estaldura orokorra lortu nahi du, 2010era heldu baino lehen.

- EAEko eremu geografiko batzuetan, Araban –lurralde historikoen mailan- eta Arabako Lautadan, Arabako Errioxan, Gorbeian eta Plentzian –eskualde mailan- ia estaldura horretara heldu dira, nahiz eta oraindik egoera egokia ez dela pentsatu.

- 1993tik (urte horretan 1994ko Plana egiteko oinarri izan zen beharrizanen azterlana burutu zen) 2010era bitartean, aurreikusten diren aldaketak funtsezkoak dira: minusbaliotasuna duten adinekoen ehunekoa gehituko da kolektibo horren barneko zahartze-prozesuaren ondorioz, eta arretako sare informalak eskain diezazkiekeen zainketak nabarmen murriztuko dira.

Azterlan hura egin zenetik igaro den denbora, gertatu diren aldaketa soziodemografikoen garrantzia, mobilizatu beharreko baliabideen kopuru handia eta arazoaren garrantzi soziala –2010ean Euskal Autonomia Erkidegoko bost biztanletako batek hirurogeita bost urte baino gehiago izango ditu– direla eta, ez da gomendagarria jada zaharkituta dauden datuekin (edo kasu onenean eremu mugatua dutenekin) lan egiten jarraitzea. Horregatik, komeni da 1993ko azterlana berriro egitea, bere behaketa-eremua unera arte zainketa gehienak ematen dituen arretako sare informalera hedatuta.

Nolanahi ere, adierazi behar da 1994ko Planean bultzatutako lege estaldurako tasa 2001ean lortu ez bada ere, ondo konturatu behar garela ikertutako hamarkadan zerbitzu horiek garatzeko egindako ahalegin sozialaren garrantziaz, horrek etorkizuneko erronkei konfiantzaz eta bermez ekiteko oinarriak finkatzen baititu.

2001ean lortutako zerbitzu guztien estaldura-tasa (%7,7) eta adinekoen egoeraren eta beharrizanen azterlan zorrotza oinarri hartuta 1994ko Planean bultzatutakoa oso ezberdinak dira; aldea zati batean azal daiteke: 1991-2001eko denboraldian adinekoen kopurua erabilitako proiekzio demografikoak zenbatetsitakoa baino askoz handiagoa izan zen.

Azpimarratu behar da hamarkada horretako biztanleen ezohiko hazkuntzari (%35,3) eskainitako erantzun soziala oso positibotzat jo behar dela, hurrengo datuak kontuan hartzen badira:

- Zerbitzu horiek 14.515 adineko izatetik 27.140 izatera pasatzen dira; horrek %88,8ko hazkuntza dakar.

- Egoitza, eguneko zentro eta etxeko laguntza-zerbitzuen baterako estaldura %5,55etik %7,68ra igotzen da, %38,4ko gehikuntza daukala.

- 2001eko euro konstanteak erabilita, gastua %75,9 igo zen -147,1 milioi 1991n eta 258,7 milioi 2001ean-; hazkuntza hori laguntza jaso duten pertsonen kopuruarena baino pixka bat txikiagoa da, eta horren arrazoia eskaintzaren egiturak izandako aldaketak dira. Egindako ahalegin soziala hobeto adierazten duen beste ikuspegi batetik, zerbitzu horiek mantentzeko zuzentzen den BPGren ehunekoa %33,8 gehitu da, %0,503tik %0,672ra pasatuta.

- Zerbitzu horiek mantentzeko zuzentzen den gastu publikoa %78,3 igo da (2001eko euro konstanteak erabilita), zerbitzu horien funtzionamenduaren finantziazioan zuen pisua pixka bat gehituta: %61,3 1991n, eta %62,1 2001ean.

- Zerbitzu horiek emateko kontratatutako langileei buruzko informazioa partziala den arren, baiezta daiteke kopuru txikienak hartuta ere langileen kopurua %70 hazi dela hamarkada horretan, 2001ean 10.000 langile baino gehiago zeudela –gehienak emakumeak dira-. Zenbaki hori zerbitzuen sektorean lan egiten duen biztanleriaren aldean jartzen bada, ia sektoreko %2a ordezkatzen duela konturatzen gara.

Emaitza horiek guztiak ikertutako denboraldiaren hasieran nekez iragar zitekeen erantzun sozialaren gaitasunaren adierazgarriak dira, eta agertuko diren erronka berriei segurtasun eta konfiantza handiagoz ekiteko oinarriak finkatzen dituzte.

**17. 2001-2010eko denboraldian, adinekoen arazo sozialen gehikuntza gutxi gorabehera 1991-2001eko etapan egondakoaren antzekoa izango dela aurreikusten da. Beharrizanen portzentaje-gehikuntza horrek, denboraldi laburragoa izateak eta 2001ean txikitzat jo behar den estaldura handitu beharrak hurrengo urteetan zerbitzuen urteko gehikuntza-erritmoa neurri batean azkartzea ekarri dute.**

1991tik 2001era adinekoen kopuruaren portzentaje-gehikuntza eta minusbaliotasuna duten adinekoen (aztertutako zerbitzuetako erabiltzaile nagusiak dira) kopuruarena ia berdinak dira, %35,3 eta %35,8, hurrenez hurren. 2010erako biztanleria-proiekzioek hirurogeita bost urte bete dituzten herritar guztien askoz hazkunde neurritsuagoa iragartzen dute (%18,5), baina zahartze-prozesu handia aurreikusten dute kolektibo horretan –hirurogeita bost urte baino gehiago dituzten adinekoen artean, hirurogeita hamabost baino gehiago dituztenak %40,3 izatetik %51,7 izatera pasatuko dira-. Horrek minusbaliotasuna duten adinekoen gehikuntza ekarriko du, eta horren ondorioz, beharrizanak ere gehituko dira aurreko hamarkadan egondako antzeko proportzioan (%35,7).

Baliabide-eskaintzaren ikuspegitik, 1991-2001eko denboraldian zerbitzu horien estalduran lortutako urteko batez besteko hazkuntza-tasa –%3,3- mantentzeak 2010ean adinekoen %10,3k laguntza jasotzea ekarriko lukeela egiaztatzen da. Hasieran ehuneko hori urritzat jo beharko litzateke, nahiz eta aurreko gomendioan bultzatzen den ikerketak urritasun horren neurria zehaztu behar duen.

Laburbilduz, 2010. urtea muga hartuta, EAEn zerbitzuen estalduraren hazkuntza-erritmoa 1991-2001eko denboraldikoa baino pixka bat azkarragoa izan beharko litzateke, behintzat lehen aipatutako urterako egokitzat har daitekeen arretako tasa orokorra eskuratu nahi bada.

**18. Proposatzen den estaldura handitzea, erronka nagusia dena, eskaintzaren alde geografikoak orekatzeko helburua kontuan hartuta burutu beharko litzateke. Erabakiek baliabide horien komunitate izaera, eta horren ondorioz, hurbileko zerbitzuen izaera, errespetatu behar dituzte.**

Gure gizarte zerbitzuen eredua zehazten duten oinarrizko hastapenetako bat komunitateko arretakoa da, besteak beste, arreta laguntza behar duen pertsonaren bizitza garatzen den ingurune sozialean ematea eskatzen duena. Hastapen horrek ez ditu bere ondoreak etxeko laguntza-zerbitzuetara eta eguneko zentroetara mugatzen; egoitza baliabideetara ere zabaltzen da, horretarako argudio sendo berak erabilita. Ikuspegi horretatik, arreta-estalduretan espazio-aldeak egotea arazo larria da -konparaziozko bidegabekeriakoa, kasu batzuetan, edo deserrotzekoa eta bazterketa-arriskukoa, beste kasu batzuetan-, bai Eusko Jaurlaritzak, bai aldundiek, horri aurre egin beharko lioketela baliabideen gehikuntza sustatzeko orduan, bakoitzak bere eskumen-eremuaren barnean baina elkarlanean beti.

Estaldura handiko eta estaldura txikiko eremu geografikoen arteko zatiduraren bidez kalkulatutako erlazioek hurrengo balioak izan dituzte 2001ean:

– 1,9 lurralde historikoetan (1991n 1,6 zen);
– 4,4 eskualde mailan, desoreka hori aztertutako denboraldian aldatu ez dela;
– 2,8 udalen tamainaren ikuspuntutik;
– 8,9 bost mila biztanletik gorako udalerriak kontuan hartuta.

Azalpen ondoreetarako azken datu hori adibide hartuta, emaitzak adieraziko luke estaldura handiko eta bost mila biztanletik gorako Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri batean bizi den adineko batek estaldura txikiko eta bost mila biztanletik beherako udalerri batean bizi denak baino bederatzi aukera gehiago izango lukeela baliabide horietako bat eskuratzeko; beste babes sistema batean –osasuna, hezkuntza, pentsioak,…– aplikatuz gero, alde hori ezin izango litzateke justifikatu.

**19. 2010era egoera egokian heltzeko, badirudi nahitaezkoak direla adostasun politiko zabal baten sustapena eta jarduketen planifikazio loteslea.**

Autonomia Estatutuaren arabera, EAEk gaitasun beteak ditu adinekoentzako gizarte zerbitzuen arloan, adineko guztiek zerbitzuok eskuratzeko eskubide berdina dutela. Lege Organikoaren mailako xedapen batean biltzen diren hastapen orokor horiek ezin dira desagertu herritarrentzat ulertezinak diren eta eskumenen edota funtzioen banaketei buruzko behe-mailako xedapenen inguruan gauzatzen diren eztabaidetan.

Kontua da bi milioi biztanletik gorako Autonomia Erkidego honetan aldundiek sustatutako hiru plan gerontologiko daudela, estaldura orokorrei buruzko oso helburu ezberdinak -%7,2 Bizkaian, eta %13,0, hots, %80 handiagoa Araban- dituztenak. Errealitate hori nekez justifika daiteke, eta gogoeta sakona egin beharra nabarmentzen du.

1991-2001eko denboraldian gertatutakoaren esperientziak optimismoari bideak irekitzen dizkio, erronka garrantzitsuei ekiteko erantzun gaitasunari dagokionez. Dena den, hazkuntza-erritmo gogor horiek are gehiago azkartu beharrak eta beren espazio-banaketa maila handiagoan bateratu beharrak kontu horren gainean adostasun politiko zabala ezartzea eta Euskal Autonomia Erkidegorako arretako beste plan lotesleago bat egitea gomendatzen dute; plan horrek aipatutako arazoen arrazoiak aztertuko ditu, eta horiek konpontzeko aukerak, lege arlokoak zein finantza arlokoak, eskainiko ditu.

## C. ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZU PUBLIKOAK

**20. Nahitaezkoa da etxeko laguntza-zerbitzuei buruzko informazioa galtzeko arriskua saihestea.**

2001era arte (urte horretan gizarte zerbitzuen funtzioen zehaztapenei buruzko uztailaren 30eko 155/2001 Dekretua onetsi zen), aldundiek etxeko laguntza-zerbitzuei buruzko datuak zentralizatzen zituzten, programa hori finantzatzean

informazioa administrazio, kontrol eta kudeaketa helburuekin biltzen zuten eta. Finantziazio-egitura aldatzean, arautegi horrek informazioaren zatiketa eragin du, gaur egun udaletatik –Arabako kasuan izan ezik- banatuta dagoela, nahi gabeko beste ondore batzuen artean. Halaber, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek baino ez dituzte minusbaliotasun muga zehatz batzuk, lurralde batean eta bestean ezberdin zehazten direnak, gainditzen dituzten erabiltzaileei buruzko datuak.

Arazoa urtero gizarte zerbitzuetako erakunde guztiak, udalak barne, ikuskatzen dituen GZEEZren galdera-sortari zerbitzua oro har aztertzea ahalbidetzen duten oinarrizko item batzuk gehituz konpon liteke, zati batean bada ere. Hala ere, konponbide hori ez da egokia hurrengo bi arrazoiengatik:

- Sekretu estatistikoko arrazoiak direla eta, GZEEZek ez du erakunde zehatz batzuen jarduerari buruzko informaziorik ematen; datuak ikuspegi garrantzitsu ezberdinetatik erantsita agertzen dira beti, eta logikoa denez, bai protagonismoa, bai erantzukizunak, desagertu egiten dira.

- Era berean, GZEEZek ezin du erabiltzaileen ezaugarriei –adina, sexua, mendekotasun maila, maila ekonomikoa, ordaindutako kuotak...-, horien familia-inguruneari eta eskainitako zerbitzuaren ezaugarriei –pertsonaren edo etxearen zainketak, arreta-orduak, zerbitzuaren iraupena, ...- buruzko informaziorik bildu, bere behaketen xehetasun maila funtsean aldatuko luke eta.

Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek hain garrantzitsua den etxeko adinekoentzako laguntza-zerbitzuari buruzko informaziorik ez izatea gabezia handia da beren eskumenak gauzatzeko orduan, lurraldearen barneko desorekak aztertu, jarraitu, planifikatu eta orekatzeari dagokionez; era berean, gabezia horrek adinekoentzako arretaren aldeak areagotzen ditu, bizileku duten udalerriaren arabera, eta azken batean, babes sistema horretan lortu nahi den batasuna maila handiagoan zatitzen laguntzen du.

**21. 2010erako minimotzat jotzen den estaldura-tasara heltzeko, komenigarria izango litzateke 1994-2001eko denboraldian egondako urteko hazkuntza-erritmoa mantentzea.**

1994tik 2001era etxeko laguntza-zerbitzu publikoak jasotzen zituzten adinekoen kopurua %63,1 igo zen, urteko batez besteko hazkuntza-erritmoa %7,5ekoa izan zela. 2010ean minimotzat jotzen den adinekoen %5,72ko estaldura lortzeko, zerbitzu horietako erabiltzaileen kopurua hogeita lau mila ingurukoa izan beharko litzateke, 2001-2010eko denboraldiaren gehikuntza orokorra %63,1ekoa izan beharko litzateke, eta urteko batez besteko hazkuntza-tasa %6,6ren inguruan egon beharko litzateke, hau da, aurreko denboraldiko tasa baino ia puntu bat beherago.

Hala ere, proposatzen den estaldura minimoa izanda, ikertutako etapako hazkuntza-erritmoa mantentzea gomendatzen da. Gauzak horrela, zerbitzu horiek ematen duten arreta 25.700 adinekorengana, hau da, adineko guztien %6,13ra, helduko litzateke 2010ean; dena den, estaldura hori oraindik txikia da, gure hurbileko beste herrialde batzuetako estaldurarekin erkatzen bada.

**22. Minusbaliotasun arazoak dituzten adinekoen proportzioa igoko dela aurreikusita eta bultzatutako estaldura-tasa txikia hausnartuta, gomendagarria da zerbitzuak 1994an lortu zuen intentsitatea mantentzea: arretako hirurehun ordu inguru, erabiltzaile bakoitzeko.**

Etxeko zerbitzu publikoek emandako arretaren intentsitatea %21 jaitsi da 1994-2001eko denboraldian, erabiltzaile bakoitzari urtean 295 ordu eskaintzetik 233 ordu eskaintzera pasatu dela. Jaitsiera horrek bi arrazoi izan ditzake, nahiz eta horiek egiaztatzen dituen azterlanik ez dagoen: minusbaliotasun txikiagoa eta arreta-beharrizan gutxiago dituzten erabiltzaile berriak sartzea, eta estaldurak gehitzeko prozesu gogor batean sartuta dauden herri administrazioen aurrekontu-mugak. Zerbitzu horiek kudeatzeko modu murriztailea, horiek finantzatzeko partidak nabarmen gehitzeko zailtasunak, eta hamarkada horretan minusbaliotasuna duten adinekoen proportzioaren igoera hausnartuta, suposa daiteke bigarren azalpenak lehenengoak baino eragin handiagoa izan duela kontu horretan.

Gainera, minusbaliotasuna duten adinekoen kopuruak 2010ean izango duen gehikuntza handia, eta 1994an lortutako maila –oraindik ere EAEko eremu askotan indarrean dagoena– mantentzea kontuan hartuta, badirudi horixe dela proposamen gomendagarriena.

## D. EGOITZAZKO ZERBITZUAK

**23. 2010ean arreta-estaldura minimora heltzeko, egoitza plazen eskaintzak pixka bat gehitu beharko du bere hazkuntza-erritmoa.**

2010ean hirurogeita bost urtetik gorako biztanleen %4,4ko egoitza-estaldura minimoa lortzeko, urte horretan plaza kopurua hamazortzi mila eta bostehun plazaren inguruan kokatu beharko litzateke; horrek sei mila eta hirurehun plaza baino pixka bat gehiago sortzea dakar. 1991-2001eko hamarkadan zentro horietako harrera gaitasuna %54,5 igo bazan, hurrengo bederatzi urtean %52,1 igo beharko litzateke, horrek urteko hazkuntza-tasa aurreko denboraldikoa baino pixka bat handiagoa izatea dakarrela.

Denboraldi horretako lehenengo etapan, hau da, 2001eko abendutik 2003ko ekainera, egoitza eskaintza jada %15,3 igo da, ia 14.000 plaza daudela. Hazkuntza handi horrek ez dauka aurrekaririk aurreko etapan, eta neurri handian helburu hori lortzea errazten du, nahiz eta hamazortzi hil horietan egondako baliabideen gehikuntzan ekimen pribatuak protagonismo handia izan duela kontuan hartu eta baloratu behar den.

**24. Baliabideak herritarrei hurbiltzea, hazkuntza-prozesu hori gidatzen duen funtsezko irizpidea izan beharko litzateke.**

Egoitza plazen eskaintzan antzeman diren desoreka geografikoen –lurralde historiko, eskualde eta udalerri mailan- azpian, udalerrien artean gero eta nabarmenagoak diren aldeak daude.

Gizarte zerbitzuen arloan udalek duten protagonismoa justifikatzen duten arrazoiek, babes sistema horren komunitate izaerari lotuta daudenek, egoitza plazen eskaintza maila horretan, hots, udal mailan, orekatu beharra justifikatzen dute sobera. Halaber, kontuan hartu behar da %20ko zahartze-tasa eta %4,4ko estaldura dituen mila biztanleko populazio talde batean, justifikatuta egongo litzatekeela bederatzi plaza inguru dituen egoitza-zentro bat egotea. Neurri demografiko horretara heltzen ez diren udalerriei, hau da, landa ingurunekoei, dagokienez, egoera zehatzen azterketan oinarritzen diren aukerako formulak aztertu beharko lirateke, baliabide horietako erabiltzaileen deserrotzea saihestea irizpide izango luketenak.

2010. urtea erreferentzia hartuta, egoitza plazen kopurua nabarmen gehitu beharrak baliabide horiek adinekoen beharrizan eta nahietara hobeto egokitzeko aukera eskaintzen du, gaur egungo espazio-desorekak konpontzeko politika segurua mantentzea oinarri hartuta. Adierazitako aukera hori benetan aprobetxatu beharrekoa da.

## 25. Egoitza eskaintza handitzeko etapa horretan neurri handiko zentroak irekitzea saihestu beharko litzateke.

Egoitza-zentro handiak sortzean oinarritutako arreta-eredua, ongintzako eta laguntzako etaparen, eta beren kabuz moldatzen diren adinekoentzat ostatu motako eraikinak zabaltzeko aldiaren konsustantziala dena, behin betiko gainditu dela ulertu behar da. Berrogeita hamar/hirurogei erabiltzailerentzako baino gehiagorentzako egoitza-zentroak abiarazteak hurrengo oztopo larriak ditu, gutxienez:

- Ez da ondo moldatzen gure lege xedapenetan bultzatzen den komunitateko arretaren eredura.

- Erabiltzaileen beharrizanen kalterako, derrigorrean korapilatsuak diren antolaketa beharrizanek zuzentzen duten barneko funtzionamendua dakar.

- Zentro mota horrek sor litzakeen eskalako ekonomien gaineko azterlan zorrotzek ez dute aukera hori indartzen, eta ekonomia horiexek dira aipatutako zentroak sortzea justifikatzeko erabiltzen den argudio garrantzitsu bakarra.

Ikertutako denboraldian egoitzen batez besteko neurriak nabarmen murriztu diren arren –2001ean berrogei plaza inguru zeukaten, 2003an kopuru bera agertzen zutela–, 2003an artean egoitzetan bizi ziren hamar adinekoren lau ehun plazatik gorako egoitzetan zeuden. Era berean, kezkagarria da neurri handiagoak dituzten proiektuak lantzen jarraitzea.

Egoitzazko zerbitzuen arautegi erregulatzaileari lotutako gomendioetan adierazi den bezala, herri administrazioek konponbide mota horren sustapenari uko egiteko politika argia garatu beharko lukete, behintzat hemendik aurrera sortu beharreko zentroei dagokienez.

**26. Egoitza baliabideek arreta handiagoa eskaini beharko liekete autonomia arazo larriak dituzten adinekoei.**

Ikertutako denboraldian minusbaliotasuna duten adinekoek egoitzetan bizi diren pertsona guztien gainean duten proportzioa –eraginkortasun bertikala– nabarmen igo den arren (%50etik %65era pasatu da, eta azterlanak %70,3n kokatzen du 2003ko ekainean-), zentro horietako eraginkortasun horizontala –minusbaliotasuna duten eta arreta jaso duten adinekoek minusbaliotasuna duten adineko guztien gainean duten proportzioa, hain zuzen ere– %23tik %17ra jaitsi da; dena den, 2001eko abendutik 2003ko ekainera zati batean bizkortu da, ia %20ra heldu dela. Zirkunstantzia horiek, hurrengo urteetan adinekoen artean egongo omen den zahartze-prozesuak, eta minusbaliotasuna duten adinekoen proportzioaren ondoriozko igoerak sobera justifikatzen dute egoitzetako eraginkortasun bertikalaren hazkuntza-prozesua indartzeko gomendioa, egoitzei autonomia arazo larriak dituzten adinekoentzako arreta-zentro bezala esleitzen zaien izaerarekin bat etorriz.

Bestalde, 2001ean babespeko etxebizitzetako eta apartamentuetako erabiltzaileen ia %40k minusbaliotasunen bat izateak –2003ko erdialdera, ehuneko horrek berdina izaten jarraitzen zuen–, egoitzetako erabiltzaileek mota horretako baliabideak ere erabili ahal izango lituzketela agertzen du. Aipatutako aukera hori arretaz aztertu beharko litzateke, autonomia arazoak dituzten adinekoei baliabideak hurbiltzea maila handian erraztuko luke eta.

**27. Egoitza plazak eskaintzen dituzten irabazi-asmodun erakundeek azken urteotan lortu duten garrantzia dela eta, publikoa eta pribatua bereizita landu beharko lirateke, planifikatzeko ondoreetarako.**

Ez GZEEZetik eskaintzen diren ustiapenek, ez EAEn unera arte dauden plan gerontologiek, ez dituzte babes publikoa eta pribatua modu argi eta eraginkorrean bereizten, adinekoentzako egoitzazko zerbitzuei dagokienean. Orain dela urte batzuk, merkataritza eskaintza neurri txikian garatuta zegoenean, jokatzeko modu hori normala zen, baina gaur egun ez du garrantzizko justifikazio teknikorik, nahiz eta plazak ituntzeak eta zentroetan sartzeko banakako diru-laguntzek egoera nolabait zailtzen duten. Modu horretan jokatuta, etxeko laguntzaren kasuan norberak kontratatutako zerbitzuak eta zerbitzu publikoak bereizi gabe hausnartzetik ondorioztatuko litzatekeen oker mota berdinean eroriko ginateke, ezberdintasunak ezberdintasun: estaldurak itxuraz gehitzen dira, eta are okerragoa dena: erantzukizun publikoak lausotu egiten dira.

Aurreko gomendioetan defendatzen diren Autonomia Erkidegoaren mailako egoera-azterlanak eta jarduketa-planak publikoaren eta pribatuaren artean dauden aldeak kontuan hartu beharko lituzkete, bai eskaintza-eskariaren ikuspuntutik, bai egoera analisia-jarduketa proposamenen ikuspuntutik.

**28. Mantenu-plazaren kostuari dagokionez egoitza batzuen eta besteen artean dauden aldeak oso handiak dira, antza. Alde horretatik, oso erabilgarria izango litzateke alde horien jatorria aztertzea, bai zentroetako arduradunentzat, bai sektore publikoaren eta egoitza pribatuen arteko harremanak argitzeko.**

Bizkaiko egoitza publiko bateko plaza baten batez besteko kostua Arabako egoitza pribatu bateko plaza batena baino %132 garestiagoa da. Horrek esan nahi du aldeak are nabarmenagoak direla erkaketak egoitza zehatzen artean eginez gero.

Erabiltzaileen minusbaliotasun maila handiagoa ala txikiagoa eta horretatik ondorioztatzen den lan-karga handiagoa ala txikiagoa arrazoizko azalpenak izan daitezke, baina horrelakotzat jo daiteke zentro publikoetako langileen kostu handiagoa, edo autonomia-gabeziako maila berdinak dituzten erabiltzaileei eskainitako arretaren kalitate maila handiagoa ala txikiagoa ere; hipotesi baten edo bestearen sendotasuna alde horien azpian dauden arrazoiak argi zehazten dituzten azterlanen bidez frogatu beharko litzateke.

**29. Hipotesi kontserbadoreenean, eta finantziazio-sistema errotik berregituratu ezean, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek aurreikusi beharko lukete beren mantentze-gastuen hurrengo urteetako hazkuntza-erritmoak eta 1991-2001eko hamarkadan egondakoak antzekoak izango direla.**

2010erako plazen kopuruan espero den gehikuntza (1991-2001eko denboraldikoa baino pixka bat handiagoa izango dena) eta plazen kostuetan ere espero den igoera (aurreikusten denaren arabera, aurreko denboraldikoa baino handiagoa izango dena) direla eta, sektore publikoak aukera bakarra dauka: plazen kostura egindako diru-ekarpenaren ehunekoa aldatu beharko du. Hala ere, erabiltzaile gehienek beren diru-sarrerei lotutako kuotak (gehien bat erretiro-pentsioetatik datozenak) ordaintzeak, 2001ean kuota horiek batez besteko erretiro-pentsioaren ia %70 hartzeak, eta adinekoei erabilera libreko gutxieneko diru-sarrera batzuk bermatzeko eskaera sozialak aukera sorta hori neurri handian mugatzen dute, eta badirudi plazen kostua egonkor, hau da, %55 inguruan, mantenduko dela. Bestalde, ez da ahaztu behar eremu geografiko ezberdinetan dauden eta antzeko baliabide ekonomikoak dituzten erabiltzaileek kuota ezberdinak ordaintzen dituztela EAEren barnean.

Mendekotasun-prestazio edo aseguru bat ezartzeko aukeraren bidez, gastu publikoaren arloan espero den hazkuntza moteldu ahal izango litzateke, baina nolanahi ere, garrantzi sozial handiko aukera hori azterlan zorrotzetan ikertu beharko litzateke, ezarri baino lehen adostasun handia lortu beharko litzatekeela horren inguruan.

## E. EGUNEKO ZENTROAK

**30. 2010ean eguneko zentroetarako minimotzat jotzen den estaldura-tasara heltzeko, 2001eko plazen kopurua luze bikoiztu beharko litzateke.**

Baliabide mota horren eskaerari eta beharrizanei buruzko azterlanik ez dagoenez, pentsa daiteke bultzatutako estaldura (%0,88) gure Erkidegoko eta beste testuinguru batzuetako plazen bilakaeratik datorrela.

Muga horiek kontuan hartuta, adierazi behar da 2010erako proposatutako estaldura minimora heltzeko 2001eko eskaintza %128 gehitu beharko litzatekeela; bestela esanda, bederatzi urtean ia bi mila eta ehun plaza sortu beharko lirateke. Proposatzen den hazkuntza-erritmoa zerbitzu horiek abiarazteko etapatzat har daitekeen eta jada ikertu den hamarkadakoa baino txikiagoa da. 2003ko datuen arabera, badirudi asmo handiko helburu hori lor daitekeela; izan ere, datu horiek plazen kopuruaren %27,0ko igoera agertzen dute hamazortzi hilean. Urte horretan bi mila plaza baino gehiago egonda, beharrezko gehikuntza %79,5en dago, 2010. urtea erreferentzia hartuta.

**31. Eguneko zentro berriak irekitzean hurbileko zerbitzu horien toki izaera kontuan hartu beharko litzateke.**

2001ean Bizkaiko hiru eskualdek ez zeukaten mota horretako baliabiderik, eta beste bik (bata Bizkaikoa zen eta bestea Arabakoa), EAEren batezbestekoaren azpitik zeuden estaldurak eskaintzen zituzten. Lehenik eta behin, arlo geografiko horietan baliabideak gehitzeko ahaleginak bildu beharko lirateke, bidezko oinarrizko gizarte zerbitzuaren eragin-eremuko erabiltzaileei arreta eskaintzen dieten zentro txikiak sortuta.

**32. Baliabide horiei buruzko informazioa hobetu behar da, ekonomia eta langileei dagokienez.**

Zerbitzu horien izaera berriak, horiek identifikatzeko arazoek, eta batzuetan dagoen kontabilitate-banakapenen eta lan-kargen ezak erabilgarri dauden datu estatistikoak kontuz hausnartzera behartzen dute. Emaitza horiek honakoa hau erakusten dute:

- Alderdi ekonomikoan: plazen kostuaren geldialdia Autonomia Erkidegoaren mailan. Geldialdi horrek hurrengo arrazoiak ditu: abiarazitako lehenengo zentroen izaera astuna, plazak mantentzeko ekarpen publikoaren ehunekoaren jaitsiera, ekarpen publikoaren inguruko funtsezko lurralde aldeak, eta erabiltzaileen ekarpenen ehunekoaren funtsezko igoera, horretan ere alde nabarmenak daudela lurraldeen artean.

- Lan alderdian: oso pertsonal-ratio ezberdinak plaza bakoitzeko, hiru lurralde historikoetan.

Hala eta guztiz ere, alde horiek guztiak arloari buruzko lan espezifiko bat eginez sendotu beharko lirateke.

# III. EGOITZAZKO ZERBITZUEN ETA EGUNEKO ZENTROEN GAINEKO BALORAZIOA ETA GOMENDIOAK

## A. IRIZPIDE OROKORRAK

**33. Oro har, azkeneko urteotan, egoitzetako arreta argi eta garbi eta nabarmen hobetu da. Alabaina, iritsitako lorpenak finkatu eta egoileen eskubideak egoitzako antolamenduan eta bizitzan izatez txertatu behar dira.**

Egoitzen alorrean azkeneko hamabost urteotan funtsezko hobekuntzak lortu dira:

- arreta banan-banakoa izatea erreparorik gabe onartzen da, teoriaz behintzat, praktikan oraindik egiteko modu batzuk berriro aztertu behar diren arren;

- egoileek eta senitartekoek zentroen funtzionamenduan parte hartzeari nolabaiteko garrantzia ematen hasi zaizkio;

- sarrerako faseari duela hamar urte baino adiago begiratzen zaio;

- hainbat erakunderen zuzkidura fisikoa hobetu da, zenbait kasutan, Europako herrialderik aurreratuenetan gomendatzen diren mailen pareraino helduz;

- kanpoko ebaluazioko formulak finkatzen ari dira, eta kalitatea etengabe hobetzeko prozesuak sartzeko beharra sakonki eragiten ari da.

Beste alderdi batzuei adituz, oraintsuko garaietan eta egoitzetako egoileen hondatze fisiko eta psikikoaren gradua larriagotuz doan aldi berean, egoitzak “gizatartu” eta “duintzeko” prozesua gertatu dela ikusi da; positibotzat baloratzea merezi du horrek eta, hein handian, administrazio publikoek ardurak beren gain hartu izanari, arloan esku hartzen duten entitate pribatuen konpromisoari eta zentroetan lanean ari direnen ahaleginari esker izan da.

Alabaina, egoitzetako arreta kalitatezkoa izan dadin benetan bermatu nahi bada, jabetu beharra dago agian oraindik garrantzitsuena falta dela: helburu horrek bitartekoak jartzea eskatzen duela, batetik, egoitzetan bizi diren pertsonek beren buruaren jabe izaten eta, ahal dela, beren bizimodua hautatzen segitzeko aukera izan dezaten eta, bestetik, ezaugarri fisiko eta funtzional guztietan, antolakuntza eta jarduera ildo guzietan, egoileen oinarrizko eskubideak errespeta daitezen.

## B. ZENTROEN EZAUGARRI OROKORRAK

**34. Zentro motak.** Egoitza-zentro mota desberdinak sortuz joateko prozesuari ekin zaio, alternatibak ugalduz, hala nola, etxebizitza komunitarioak, babespeko apartamentuak, duela hamabost urte ia egon ere ez zeudenak. Hala eta guztiz ere, egoitzen eskaintzaren egitura nabarmen desberdina da lurralde batetik bestera.

Eskueran dauden egoitza alternatiba desberdinak ugaltzea, berez, gauza ona da, zerbitzu sorta zabaltzen laguntzen duen heinean, adineko pertsonek dituzten behar desberdinetara hobeto doitzea ahalbidetuz eta pertsona horiek aukeratzeko eskubidea izatez gauza dezaten hobeto bermatuz. Formula berriek, halaber, "zerbitzu continuumaren" ideian oinarritutako sistema baten berezko eskakizunei hobeto erantzuten diete, eta gertutasunaren gure gizarte zerbitzuen sistemak oinarrian izan nahi duen arreta komunitarioan txertatzearen printzipioari doitzen zaizkio. Aukera desberdinak sortzea, ordea, ez da orekaz garatu hiru lurralde historikoetan: hartara, Bizkaian babespeko apartamentuen eredua ezarri ere ez dela egin egiaztatu da, eta Gipuzkoan etxebizitza komunitarioak oso gutxi direla; Araban, berriz, eskaintza orekatuago dago egoitza formula desberdinen artean.

Bestalde, sortuz doazen aukera desberdinak hor dauden arren, oraindik ahalegin izugarria egin behar da osoko arreta eredu bat iristeko, non egoitzazko zerbitzuak beren zereginean gizarte eta osasun arloko beste baliabide batzuekin, bereziki etxeko laguntza zerbitzuekin, "zerbitzu pakete" baten barruan, koordinatuko diren, arreta hobea ematea ez eze, eskueran dauden baliabideak zentzu handiagoz erabil daitezen ere bermatzeko.

**Komeniko litzateke Europako beste herrialde batzuetan dauden antzeko beste egoitza formula batzuk aztertzea, batez ere adineko pertsonaren beharrizanak zerbitzu komunitario desberdinek koordinatuta esku hartuz aseko dituen arreta sistema bateratu baten ikuspegitik.**

35. **Erabiltzaileen ezgaitasun-gradua.** Azterlanak dio eraginkortasun bertikalak altuak direla egoitzen kasuan –oraindik plan gerontologikoetan aldarrikatutakoak baino txikiagoak badira ere–, eta ia hutsak babespeko apartamentuetan. Etxebizitzen kasuan, ordea, nolabait autonomiadunak diren adineko pertsonentzat direla pentsatu ohi den baliabide hauek, egun, ehuneko berrogeita hamarretik gorako eraginkortasun bertikala iristen dutela. **Horrek esan nahi du, analisi juridiko-administratiboan eta sektorearen bilakaeraren azterlanean jada azpimarratu den bezala, egoitza alternatiba hau autonomiadun pertsonentzat esklusiboki den baliabide modura ikusteko oraingo joera berraztertu behar dela.**

36. **Titulartasuna**. Titulartasunaren ikuspegitik, Azterlanak 2001era arteko bilakaeraren datuek jada iradokitzen zutena baiesten du, hau da, EAEn apurka-apurka hiru arreta eredu finkatuz doazela, lurralde bakoitzean bana:

- Araban, sare publikoaren protagonismoa handia da.
- Bizkaian, titulartasun publikoko baliabideen eskaintza urrian eta ardura publikoko saretik kanpoko plazak hartzeko banakako laguntza ugarietan oinarritzen da.
- Gipuzkoan, eskaintza publikoa garrantzitsua da, plaza propioez eta itunpeko plazez osatuta dago.

**Foru eskumenen eta lurralde bakoitzaren beharrizan eta berezitasunetara ondoen doitzen diren alternatibetara jotzeko aukera zilegiaren kalterik**

**gabe, komeniko litzateke hain desberdinak diren hiru eredu horiek batera izateak zer dakarren aztertzea, batez ere berdintasun printzipioaren ikuspegitik eta lurralde bakoitzean praktikan zer arazo sortzen duten ikusita**.

## C. **EGOITZAK ETA ETXEBIZITZAK**

**37. Zentroen ezaugarri fisikoak**. Oro har, esan behar da gure Autonomia Erkidegoko egoitzazko zerbitzuen ezaugarri fisikoak eta zuzkidura materiala izugarri hobetu direla iragan hurbilean zegoen egoeraren aldean. Hala ere, oraindik zenbait defizit igartzen da, izaerarengatik garrantzitsuak direnez, ezinbestean eta, batzutan, premiaz, zuzendu edo arindu behar direnak.

- ***Kokapena***. Indarreko arautegiak, egoitzei eta egoitza-alternatibarik arinei, udalerriaren erdigunean egon daitezen edo erdigunearekin garraio publikoaren bidez ondo komunikatuta dauden tokietan egon daitezen eskatzen die, eta, bestela, zentroak, erabiltzaileei, egun eta ordu jakin batzuetan, garraiabide alternatiboa eskaini beharko diela dio. Horretan, arautegiak gai horretan finkatuta dauden ohitura onen gomendioei heltzen die; gomendio horiek diote zerbitzu komunitarioak, gizarte mailakoak ez eze, baita kultur, erlijio zein astialdikoak ere, gertu izatea funtsezkoa dela pertsonek, egoitzazko zerbitzu batean sartu eta gero, gizarte eta familia loturei euts diezaieten lortzeko. Kokapen onak, ezbairik gabe, kanpora irteerak egitea eta zentrora bisitak etortzea errazten du eta, horrek, aldi berean, nolabaiteko irekitasuna eta, ondorioz, gardentasuna bermatzen ditu eta, ikuspegi horretatik, zerbitzu desberdinen, eta babes sare desberdinen baterako esku hartze koordinatuan oinarritutako zerbitzu paketeak aplikatzeko lagungarria da.

  **Ikuspegi honetatik, Azterlanak hauteman du periferia aldean dauden eta erdigunera joateko garraiabide erregularrik ez duten zentro gutxi daudela. Komeniko litzateke landa eremuan igartzen diren garraio arazoei irtenbide komunitarioa emateko neurri egokiak jorratzea.**

- ***Kanpoko irisgarritasuna***. Egoitza bat erdigunean kokatzea egoteari lotuta doazen abantailarik gehienak eraikinaren kanpoko irisgarritasunak baldintzatzen ditu: zentrora sartu edo zentrotik irteteko oztoporik badago, eskaintzen dituen ingurune komunitarioarekin harremanetan egoteko ahalbideak eta harremanak izateko alternatibak izugarri murrizten zaizkie mugitzeko arazoak dituzten pertsonei, jarduera horietarako autonomia galtzen dutelako, eta beste pertsona baten laguntza izatearen mende geratzen direlako.

  **Ezinbesteko irizten zaio mugitzeko arazoak dituzten pertsonak hartzen dituzten, zein har litzaketen zentroetan irisgarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren erreforma obrak egiteari. Ikuspegi orokorrago batetik, eta urrutirago begiratuz, adineko pertsonen arretaren arloan, irisgarritasun unibertsalaren eta guztiontzako diseinuaren kultura pixkana sartuz joango diren neurriak hartzea ere beharrezkotzat jotzen da.**

- ***Barruko irisgarritasuna***. Jakina, aurreko puntuan esandakoa zentroen barruan mugitzeari buruz ere badela ulertu behar dugu, jendeak ahalik eta autonomiarik handiena izan dezan bermatzeko, eta pertsonaren mugimendu askatasuna, izatez, egoitzetako oso toki gutxitara mugatuta (horrek harremanen aldetik sortzen duenarekin) geratzen deneko konfinamendu egoerak saihesteko. Azterlanaren emaitzek diotenez, barruko irisgarritasun arauak kanpokoak baino gutxiago betetzen direla: egoitzetako plazen %34,4tan eta etxebizitzetako plazen %47,0tan legezko eskakizun bat edo gehiago ez betetzeak dakartzan arazoak dituzte.

  **Hautemandako egoerak zentroak ahalik eta lasterren egoileen benetako beharretara egokitzeko neurriak har daitezen eskatzen du:**

  - **ate guztien zabalera egokitzea;**
  - **komun eta bainu gela guztietan gurpildun aulki bat sartu eta biratzeko nahikoa toki egon dadin bermatzea;**
  - **korridoreetan eskudelak jartzea;**
  - **eskailerak eta arrapalak material irristagaitzez berrestaltzea;**
  - **altzariak modurik egokienean antolatzea, mugitzeko arazoak dituzten pertsonen joan-etorriak errazteko;**
  - **seinale egokiak erabiltzea, argiak, handiak eta nabarmenak, ikusteko eta orientazio arazoak dituzten pertsonentzat.**

- ***Banako gelak edukitzea***. Sarritan alboratu arren, egoitza bateko bizitza nola joango den baldintzatzen duen alderdi bat halabeharrezko komunitatea dela da. Bertan elkar hautatu ez duten pertsonak biltzen dira; sarritan zentro horretan zein beste ezein zentrotan sartzea ere aukeratu ez dutenak ere bai. Pertsona horiek guztiek antzeko ezer gutxi izan lezakete, adin jakin batetik gorakoak direla eta, honengatik edo hargatik, bakarrik edo senitartekoren batekin bizitzeko moduan ez daudela kenduta eta, horregatik, nolabaiteko pribatutasuna izateko aukera bermatu behar zaie. Ez da onartu behar, onartu ohi den naturaltasunaz, pertsonek, adin batetik aurrera, ez dutela inhibizio edo harreman arazorik, eta etxeko intimitatetik egoitzen ingurunean ikusten den nolabaiteko “nahasmendu” horretara igarotzeak ez diela asko eragiten. Ikuspegi horretatik, banakako gela da, ezbairik gabe, pribatutasuneko gutxieneko horiek bermatzeko modurik egokiena, interesatuak berak gela partekatzea nahiago duen kasuak beti salbuetsita, jakina.

  Arautegiek honen gainean ezer gutxi eskatzen dute. Zorionez, praktikan, eta multzoan, nahitaezko ratio hau erruz gainditzen da –gelen %5,3 banakoak dira– baina, hala ere, ratioa inola ere betetzen ez den hainbat egoera ikusten dira.

  **Gomendatzen da, beraz, jada iruzkindutako arautegi aldarazpenak alboratuta, nolanahi ere egun banako gelen kopuruari buruz legez indarrean dagoen gutxieneko kopurua bete dadin, eta oraindik dauden hiru edo gehiagorentzako gelak ken daitezen eskatzea. Komeniko litzateke, halaber, gela partekatuetan ere intimitaterako eskubidea babesteko moduko formulak asmatu eta aplikatzea.**

- ***Bainugelen kopurua.*** Oro har arautegietan bainugelen kopuruari buruz eskatzen dena betetzen dela ikusi arren –4 erabiltzaile bainugela bat–, oraindik hamabi etxebizitzatan legez berez oso txikia den eskaera hori ere ez dute betetzen. Bestalde, bainugelen %60,9 baino ez dira erabat irisgarriak.

  **Ezinbestekotzat jotzen da indarreko arautegia ahalik eta lasterren bete dadin eskatzea, bai beharrezkoa den bainugelen kopuruaren aldetik bai bainugelak mugitzeko arazoak dituzten pertsonentzat irisgarriak eta egokiak izan daitezen aldetik. Orobat, hain premiazkoa ez bada ere, egoitzetan dauden bainugelak eta etxebizitza bakoitzean gutxienez bainugela bat pixkana egokituz joan daitezen beharrezkoa da, gure iritziz.**

- ***Suteez babesteko neurriak.*** Azterlanak, zentroetako arduradunek emandako informazioan oinarrituz, legez eskagarriak diren suteez babesteko neurriak oro har ezarrita daudela baiesten du. **Hala ere, oraindik hainbat kasutan ez dira betetzen eta, nolako dispositiboak diren kontuan hartuta, ahalik eta lasterren ongitu behar da arazoa, zentro horiei, nolakoak diren adituz, aplikagarriak zaizkien baldintzak lehenbailehen bete ditzaten izatez eskatuz, hala barruko funtzionamenduko arauei (larrialdi plana prestatu eta dagokien agintariei helaraztea, langileak halako gertakizun bati aurre egiteko trebatzea, eta ariketa antzezpenak antolatzea) nola instalazio eta ekipamenduei (irteerak seinaleztatzea, larrialdietako argiak eta igartzeko sistema) dagokienez.**

- ***Laguntzadun moduluak eta psikogeriatrikoak.*** Egoitzen herenak baino gehixeagok, %37,1ek, eraikinaren barruan ezagumen arazoak dituzten pertsonei berariaz, edo jatorri fisikoko ezgaitasun larriak pairatzen dituztenei jaramon egiteko argi eta garbi bereiztutako guneak mugatzen dituzte –modulu psikogeriatrikoak eta laguntzadun moduluak, hurrenez hurren– baina, batez ere lehenengoak zabaltzeari dagokionez, arduradunak eta profesionalak ez daude oso ziur antolaketa modu horretara jotzea komeni den ala ez. **Komeniko litzateke, beraz, gaia aztertzea, literatura espezializatuari eta beste esparru geografiko batzuetako eskarmentuari adituz, gai honetan erabakiak hartzeko ohitura oneko zein irizpideri heldu beharko litzaiokeen zehaztera begira**.

**38. Betekizun funtzionalak.** Oro har, esan daiteke egoitzek eta etxebizitzek indarreko arautegian finkatutako baldintza funtzionalak betetzen dituztela, esparru honetan ere arautegia betetzen ez duten eta konpondu behar diren zenbait kasu ikusten diren arren.

Arautegiak ezartzen dituen baldintza funtzionalak –barne erregimeneko arautegia eta iradokizun eta erreklamazioetarako prozedura bat izatea, baita ohitura onen eskuliburuaren erreferentzia izan eta erabiltzea ere–, berez arretaren kalitatea bermatzen ez duten funtzionamendu arauak ez diren arren, ia ezinbestekoak dira helburu hori lortu nahi bada behintzat, erabiltzaileen eskubideak sustatu, babestu

eta defendatzeko funtsezkoak diren neurrian. Hala eta guztiz ere, eta inplikazio ekonomikodun baldintzak ez diren arren, betetzen ez direneko kasuak ikusten dira: oraindik arautegirik onetsi ez duten zentroak daude; zentroen %25ek oraindik ez du erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren eskubide gutunean aurreikusitakora doitzen den iradokizun eta kexa prozedurarik gauzatu; eta egoitzen %50ek-edo –kasu honetan behartutako bakarrak beraiek dira– ez dute beren profesionalen eskueran jarduera ildoak bideratuko dizkien ohitura onen eskuliburuurik jartzen.

**Funtsezkoa da zentroek gai honetan dituzten erantzukizunen ardura beren gain har dezaten eta, horrek, kontu formal hutsak direlako ideia baztertu eta arretaren kalitaterako oinarrizko elementuak direla, partehartzeaz jorratzea bultzatu behar dela onartzea eskatzen du, alde guztien inplikazio handiagoa izan dezaten bermatzera begira.**

39. **Ebaluazioa eta kalitatea etengabe hobetzea**. Europaren esparruan errotuta dauden ohitura onen gomendioak betez, egoitzetan kalitatea ebaluatu eta etengabe hobetzeko prozesuak aplikatzeari ekin diote, baina oraindik ondo finkatu gabe dagoen joera da. Oraingoz ebaluazioaren kontuak hamar zentrotik hiru soilik hartzen ditu, eta kalitatea hobetzeko sistemen gaiak hamarretik bost. Gipuzkoan joera hori, nabarmenxeago izanik, zati batean, foru Aldundiak kalitate prozesurik aplikatzea hautatzen duten zentroentzat sustatzen duen diru laguntzen lerro bat dagoelako sortu da.

Formula hauen abantaila nagusia ez dira berehalakoan, edo ez hain berehalakoan lor daitezkeen emaitzak, zentroetan kulturaren kalitatea ezarri eta pixkana erro dadin lortzea baizik; zentroaren ezaugarri materialak, antolakuntza eta funtzionamendu ildoak helburu hori bete dadin moldatuz, egoileen eskubideen aitorpenean eta eskubideok izatez balia ditzaten sustatzean oinarritzen den kultura. Ikuspegi honetatik, **gomendagarri irizten zaio zerbitzu guztietan ezar dadin neurriak bidera daitezen; horrek, gainera, zentroak beren izaeran, prozeduretan eta helburuan, ikuskaritzaz gain, kanpoko gainbegiratze desberdin batera ireki daitezen errazten du.**

40. **Eguneroko bizimodurako funtzionamendu ildoak egoileentzat**

Egoitzakoa bezalako bizikidetasun esparrua definitzeak ez du esan nahi behar zentroetan bizitzaren alderdi guzti-guztiak araupetu behar direnik, eta egoile guztiak arreta eta bizimodu ildo berberen mende jarri behar direnik, erakundeek tradizioz egitera jo duten bezala. Ezinbestekoa da halako gehiegikeriak saihestea egoitzak bizitzeko tokiak izatea benetan nahi bada.

Egia da egoitzena bezalako egitura konplexu batean, non eguneroko bizitzako oinarrizko zereginetarako –altxatu, garbitu, komunera joan, mugitu, jan, eta abar–, besteen beharra duten gero eta pertsona gehiago dagoen, ez dela erraza, kasu askotan borondate onak gidatuta, normalean zeregin berdinak ordutegi finko eta zurrunetan egitean oinarritzen den diziplinapeko egitura bat, egoileak eta profesionalak errutinen mendeko bizimodu arautura bultzatzen dituena antolatzera jotzeko tentaldiari amore ez ematea. Muturreko kasuetan, aritzeko modu horrek

egoileak apurka-apurka despertsonalizatzera eta profesionalak –batez ere zaintzaileak– lanarengatik interesa galduz joatera eta gutxiespen sakona sentitzera bidera ditzake.

Arestian esandakoak ondorioztarazten digu **egoitzaren egituraren antolakuntza beharrei eta egoileen eskubideen baliapenari lotutako beharrei erantzuteko aukera emango duten arreta formulak bilatzeko ahalegina egin behar dela, behar horiek bateragarriak ez eze elkarren onuragarri ere izan litezkeela jabetuta**. Izan ere, egoitzetako arretaren ildoak malgutzea hautatzen bada, batetik, egoileak irtengo dira onuradun, egoitza aukera gehiago eta bizitza beren erara antolatzeko, erakundeen usadioen mende halabeharrez egon behar barik, beren ohiturak sortzeko parada handiagoak izango baitituzte. Baina, bestalde, profesionalek ere izango dute onurarik, zereginak ez hain automatikoki eta pertsonalizatuago egiteko aukera ez eze –hori, berez, edozein lan jardueraren adierazle positiboa da-, ingurune gizatiarragoan eta baldintza duinagoetan lan egitea ere izango dutelako.

Gogoeta horietan oinarrituz diseinatu den zentroen azterlanari esker hautapen eskubidea sustatzeko ildo jakin batzuk malgutzen hobetu dela egiaztatu ahal izan da; hala ere, funtzionamenduan hobe litezkeen hainbat alderdi ere igarri dira:

- ***Ordutegi errutinak ohetik jaiki eta oheratzeko***. Batzutan, errutina zorrotzegiak ikusten dira oraindik eta, zenbait kasutan, muturreko samarrak; esaterako, nahikoa ohikoa da, atal laguntzadun eta psikogeriatrikoetan, egoileak arratsaldeko 19.30 aldera oheratzen hastea, baita udan ere, egun argitan izan arren; garbi dago goizegi dela eta ez duela ezertan laguntzen egoileek bizimodu normalduko ildoei eusten lor dezaten.

- ***Menu aukera desberdinak.*** Otorduetan aukera desberdinak eskaintzea nahikoa hedatuta dagoen arren, oraindik, egoitzazko zerbitzuen indarreko arautegiak dioenez, eskaintza hori izan beharko luketen 33 egoitzatan menu edo aukera desberdinik ez dagoela ikusi da.

- ***Bainuak.*** Zerbitzuetako arduradunek emandako informazioaren arabera, egoitzetan bainuak astean hirutik gora izaten dira, plazen herena baino gehiago astean bainu bakarra hartzen den zentroetan badaude ere. Gogoan izan behar da, arretaren alderdi honetan, funtsezkoena, oinarrizko higiene beharrak bermatu ondoren, egoileen hautapen eskubidea errespetatzeko behar diren neurriak hartzea eta dutxaren edo bainuaren maiztasunaz beraiek dituzten nahiak zuzeneko arretako lanaren antolamenduarekin bateratzen saiatzea dela.

  **Ezinbestekoa eta premiazkoa da, bestalde, behaketa zuzeneko bisitetan zentroren batean igarri denez, pertsonak beren geletatik bainugela geriatrikora eramateko dauden hainbat jokabide oker zuzentzea**.

- ***Komunera laguntzea eta inkontinentziarekin zerikusia duten kontuak.*** Hemen ere esan daiteke, zentroek emandako datuei adituz, laguntza

eskatzeko gai ez diren pertsonei laguntzeko eta troxak aldatzeko batez besteko maiztasuna, oro har, arreta arau zuzenari erantzuten diola. Hala eta guztiz ere, esan behar dugu, arretaren behaketa zuzenak, ebaluazio azterlanek eta kalitatea hobetzeko prozesuek baiesten duen bezala, arlo honetan, oraindik, gainditu behar diren jokabide desegokiek dirautela (bereziki, oraindik gertatu ohi da komunera joan behar duten egoileek programatutako orduaren zain egon behar izaten dutela eta, horrek, sarritan, eusten dioten pertsonak troxa erabiltzera behartzen dituela). Ikuspegi horretatik, **zentroetan kontinentziaren kontrolerako banakako egitarauak aplikatu beharko liratekeela ere aipatu behar da, egun oso gutxi aplikatzen baitira.**

- ***Euspen fisikoak.*** Kasurik gehienetan egoilearen segurtasuna –erorketen prebentzioa- bermatzeko eta beste batzuetan ezagumena hondatuta daukaten pertsonei heltzeko erabiltzen diren euspen fisikoak ohikoak dira egoitzetan. Zentroek emandako datuei adituz, guztira, egunean zehar, ia mila bederatziehun egoile daude gurpildun aulkietara uhal eta gerrikoen bidez lotuta, eta gauez, mila hirurehun baino gehixeago oheetara, eusteko izaren eta ohe gerrikoen bidez..

  **Honetaz esan behar da, neurri hauen izaera murriztaileari adituz, aplikatzeko ahalik eta konturik handienaz ibili behar dela eta, beraz, araua betetzen ez duten zentro guztiei erabiltzailearen edo bere legezko ordezkariaren baimena kontuan hartu, eta erregistro sistema xehatuak eduki behar dituztela, aplikatutako neurrien jarraipena egin ahal izateko, aldioro berrikustera begira;** ebaluazioen eta kalitatea etengabe hobetzeko prozesuetan igartzen den moduan, zenbait kasutan euspenak, neurria aldioro ebaluatzen ibili barik, ia behin betiko modura aplikatzeko dagoen joera gainditu behar da. Horren gainean, oso egoki irizten zaio Arabako Foru Aldundiak bideratutako ekimenari, hau da, zentroetan euspenak prebentzio modura behar ez denean edo gehiegi erabiltzea murriztera zuzendutako egitaraua aplikatzeari.

- ***Bisitak jasotzea***. Egoileen %60tik gora bisitak zentroak aurrez finkatutako ordutegien barruan baino ezin dituzte hartu. **Komeniko litzateke, horretarako, erabiltzaileen intimitate eskubidea ondoen errespetatzen duelakoan bisita ordutegi finkorik izan dadin kalterik gabe, ordutegiak gehiegi murriztea saihestea.**

- ***Kanpora irtetea***. Azterlanaren esparruan jasotako datuek diotenez, lau mila erabiltzaile baino gehiago, EAEn dauden adineko egoileen ia herena, ez dira, ezohikorik ezean, kanpora irteten; asko eta asko, erdia inguru, beraiek hala nahiago dutelako, zentroetako arduradunek diotenez. Kalera ez irtetea nahiago duten egoileen aukera errespetatzea garrantzitsua da, ezbairik gabe, baina funtsezkoa da, halaber, benetan aukera den ala ez argitzea. **Horretarako, senitarteko edo bestelako hurkorik ez dutenei irten daitezen errazteko formulak egon behar dira, boluntarioen laguntza sustatuz, edo zentroko langileen zereginen artean, jada zerbitzu batzuetan dagoen moduan, aldiroko paseoak sartuz.**

## 41. Zentroek eskaintzen dituzten zerbitzuak eta egitarauak

- ***Arreta eta interbentzio zerbitzuak.*** Eskueran dauden zerbitzuen artean, nabarmentzen da medikuaren kontsulta zerbitzuaren maiztasuna. **Eskaintza hori**, zentro handietan ezgaituak eta datxezkien osasun arazoak hain ugariak izanik, justifikatuta dagoela uste da, **baina deigarria da etxebizitzetan, zeren oso zentro txikiak diren eta normalean jendartean integratuta dauden pisuetan egoten direnez, zentzuzkoena eta komenigarriena auzuneko osasun etxea erabiltzea bailitzateke**.

- ***Gozamen, kultura eta astialdi jardueren eskaintza***. Gai honetaz nabarmendu behar da gehienetan egiten diren jarduerak oso desberdinak izaten direla –soinketa eskolak, txango eta paseoetara laguntzea, filmak ematea, eskulan ikastaroak, urtebetetzeko askariak eta dantzaldiak antolatzea eta, batez ere, mahai jokoak eta erlijio ekitaldiak – eta ez dela gorabehera handirik igartzen lurralde historiko desberdinen artean, gipuzkoarrak dinamikoenak direla nabaritu arren. Daturik deigarriena da etxebizitzetan oso jarduera gutxi eskaintzen direla, baina zaila da baloratzea zenbateraino ez duten zentro txikiek jendartean sartuta daudelako alternatiba gehiago eskaintzen, eta zenbateraino den nahikoa baliabide ez daukatelako. **Nolanahi ere, ezinbesteko irizten zaio alderdi horietan zuzkiduraz urrien dauden zentroek beren egoera berrazter dezaten, zentroan zein zentrotik kanpo, lagunduta zein bakarrik joateko, erabiltzaileentzako eskueran dagoen jarduerarik izan behar dela pentsatuz. Dauden jardueretan parte hartzea ala ez aukeratzeko eskubidea izan dezaten eskaini nahi zaie erabiltzaile horiei eta, horrek, ezinbestean, eskueran dauzkaten jardueren eskaintza egon behar dela esan nahi du**.

## 42. Erabiltzaileen parte-hartzea zentroaren jardueretan

- ***Etxeko lanak***. Egoileek zentroko funtzionamenduko zereginetan neurriz parte hartzea ona da beraientzat, beren autonomia mantentzeko ez eze, gainerako erabiltzaileekin eta profesionalekin dituzten harremanetan duen eraginarengatik ere. Azterlanak agerian utzi du, alabaina, zentroen erdian baino gehiagotan erabiltzaileek ez dutela ohea egin, gela garbitu edo mahaia atondu bezalako zereginetan laguntzen; horrek ez du esan nahi, ordea, gainerako zentroetan ere arau orokorra denik. **Datu horiei adituz, beharrezko ikusten da egoileak beren espazio pribatuarekin zuzenean zerikusirik daukaten zereginetan parte hartzera gonbidatzeko ekimenak bultzatzea,, oinarrizko etxeko lanetan parte hartzeko benetan dituzten ahalbideak kontuan hartu barik sistematikoki ordeztea saihestuz. Horretarako, bai zentrora sartu aurretik bai sartu eta berehala, erabiltzaileei eta beren senitartekoei etxeko lanetan laguntzea egoileentzako lagungarria den jokabidea dela argi jakinaraztea komeni da**.

- ***Gozamen, kultura, kirol eta erlijio jardueren eskaintza***. Oso egoile gutxik hartzen du parte zentroek antolatzen dituzten gozamen, kultura, kirol eta erlijiozko ekitaldietan. Elizkizunak salbu, horietara erabiltzaileen ehuneko

berrogei joan ohi baitira, gainerako kasuetan parte-hartzea ez da ehuneko hogeita hamabostera ere iristen. Gai hori sakon aztertzea komeniko litzateke, hain parte-hartze txikia izatea zergatik izan daitekeen, antolatzen diren jarduerak desegokiak direlako, eguneroko eginkizunei lotutako zuzeneko arretako zereginak lehenesteak jarduera horiek bigarren maila batean uzten dituelako ala, besterik gabe, egoileen nahiak benetan islatzen dituelako.

Komeni da, ikuspegi honetatik, egoitzetako egoera eta eguneko zentroetan ikusten dena alderatzea, eta zerbitzu hauetako bakoitzaren ezaugarriek jarduera mailetan eta harreman ereduetan zer-nolako eragina daukaten zehaztea.

Hartara, egoitzetan, erabiltzaileen mendetasuna gero eta handiagoa denez, egoitzako bizitza eguneroko zereginei lotutako errutinei adituz araupetzera jotzen da; bestela esanda, jarduera horiek egoitzako bizitzaren helburu eta eduki nagusi bihurtzen dira. Horrek eragina dauka, ezbairik gabe, erabiltzaileen artean eta erabiltzaileen eta profesionalen artean sortzen den harreman motan; harreman hori izugarri baldintzatzen du txandakako lan sistemak, unean-unean zuzeneko arretan ari diren langileak asko aldatzea dakarrelako.

Eguneko zentroetan, ezgaitasun gradua egoitzetakoarekin pareka daitekeen arren, egoera guztiz bestelakoa da. Onartzen da halako zentro batera joatea, besteak beste, eguneroko bizitzako jardueretan arreta jasotzera bideratzen dela, baina helburu nagusia pertsona bere autonomia mantentzera eta aisia moldatzera begira aktibatzea da; horrek, funtzionamendua eta antolaketa helburu horien inguruan atontzea dakar eta, honek, aldi berean, sortzen diren harremanak onak izan daitezen izugarri eragiten du.

Zentroen Azterlanaren barruan jasotako datuek diferentzia horiek egiaztatzen dituzte –hau da, jarduera eta harreman maila handiagoak daudela eguneko zentroetan–; diferentzia horiek igarriak ziren, bakanki, kalitatearen ebaluazioko eta kalitatea etengabe aplikatzeko azterlanen testuinguruan. **Uste da, baldintzarik onenetan, egoitza bateko eguneko arreta eguneko zentro batean ematen denaren parekoa izan beharko lukeela, eta egoitzako bizitza eguneroko zereginetara xedatzeko joera nabarmena arian-arian gaindituz joan beharko litzatekeela**.

- ***Organo formaletan parte hartzea***. Administrazio publikoek interesa erakutsi duten arren, eta arautegizko xedapen xehatuak dauden arren, erabiltzaileek, ezarritako bideetatik, egoitzetako kudeaketan eta funtzionamenduan duten parte-hartzea benetan txikia da oraindik. **Aztertu beharko litzateke ea bide horien egitura eta funtzionamendua egoileen partaidetza sustatzeko egokienak diren, hau da, ea egoileen proposamen edo iritziak, sarri-edo, zentroaren funtzionamenduan eragina izatera heltzen diren, eta tasa horiek egoitzako biztanleen artean partaidetzaren kulturarik ez izate nabarmenak baldintzatzen dituen**.

## 43. Zentroetan ari diren langileak

- ***Langileria ratioak***. Jada esan denez arautegiz beharrezko diren langileriak gutxieneko kopuru izan daitezen kalterik gabe, azpimarratu behar da Azterlanen emaitzetan agerian geratu dela zentro guztiek, banan-banan hartuta, egoitzazko zerbitzuak araupetzen dituen Dekretuak eskatzen duena baino langile gehiago dituztela, eta izatezko langileriek beharrezkoak askogatik bikoizten dituztena Araban –%222,7– eta Bizkaian –%205,7–. Zuzeneko arretako langileei dagokienez (arauak dio beharrezko gutxieneko langileriaren %65 izan behar dutela), zentrorik gehienek, banan-banan hartuta, legez behar direnak baino zuzeneko arretako langile gehiago dituzte. **Hala ere, hiru kasutan, ez dira ratio horiek betetzen –mugatik juxtu azpian daude–, eta ahalik eta lasterren ratio horietara egoki daitezen eskatu behar zaie.**

  Bestalde, Europako literatura espezializatuan finkatuta dauden ohitura onen ereduetan gomendatzen diren langileria estandarrei dagokienez, esan behar da zentrorik gehienak gomendatutako gutxieneko estandar horietatik hurbil daudela, batzuetan gainditu ere gainditzen dituztela, nahiz eta, oro har, estandarrik onenentzat jotzen direnetatik urrun dauden.

  **Eskatzen diren ratioak gorago jartzea komeniko litzatekeelako aipamenari dagokionez, komeni da 5. gomendiora jotzea, non esaten baita legezko ratioetan ezein hobekuntza egitearekin batera laguntzaren kalitatearen estandarretan gehiago eskatu behar dela, ezinbestean.**

- ***Jarduera ereduak***. Batez beste, langileen erdiak-edo, berariazko egoerei aurre egiteko jokabide arau argiak jasotzen dituzte: suteak %72,2, heriotza %63,9, euspen fisikoen aplikazioa; %42,4. **Ezinbestekoa da, egoileen eta langileen beren segurtasunarengatik, langileek gai horietan zer egin argi jakiteko arauak eskueran izan ditzaten, oraindik halakorik ez daukaten zentroetan**.

- ***Erabiltzaile talde egonkorrak zuzeneko arretako profesionalei esleitzea, eta erreferentziako langileak esleitzea***. Antolaketazko bi arau horiek ez dira oraindik zentroetan behar beste garatu, banako arreta bermatzeko eta bizikidetasun giro ona errazteko funtsezkotzat jo behar badira ere. **Komeniko litzateke denera hedatzea, batez ere ezgaitasun arazo larriak dituzten pertsonei dagokienean**.

## D. **EGUNEKO ZENTROAK**

Eguneko zentroei dagokienez, egokiena laguntzazko modalitate honetako berezitasunak diren funtsezko lau alderdietan ateratako emaitzak baloratzen zentratzea litzateke: eredua mendekotasun arazoak dituzten adineko biztanleen beharretara egokitzea, igarritako okupazio tasa, erabilpena malgutzea, garraioa eta langile ratioak.

**44. Eredua**. Lehenengo gaia Autonomia Erkidegoan finkatzen ari den zentro eredua bera litzateke, zehazki, gertutasunezko zerbitzu batek berezko behar dituela dirudien ezaugarrietara doitzen ez direla, hala lurralde esparru zabalegia hartzen dutelako, nola duten tamainarengatik, eta eskaintzen duten arretaren osozko izaerarengatik eta funtzionamenduan malgutasunik ez dutelako; gai horiek ere lehenago jorratu dira arautegien ikuspegitik, esparru juridiko-administratiboari buruzko gomendioak egin direnean.

Azterlaneko datuek diotenez, EAEn eguneko zentroetako batez besteko tamaina 25 plaza ingurukoa da. Makrozentro izatera heldu barik ere, dimentsio horiek benetan gertuko zerbitzu modura pentsatuko balira ondo leudekeenak baino handiagoak dira. Ikuspegi honetatik, ondo dago gogora ekartzea halako laguntza bidea aplikatzen gurea baino tradizio handiagoko zenbait herrialdetan, esaterako, Belgikan, indarreko arautegiak gutxienez 5 eta gehienez 15 plazakoak izan daitezen agintzen duela, eta azpimarratu behar da gutxienekoa 8tik 5era jaitsi behar izan zutela, praktikak oso zentro txikiak abiaraztea eskatzen ari zelako, hain zuzen.

**Halako neurrietako zentroetara jotzeak jarduerako esparru geografikoa zentroa dagoen eremuko oinarrizko gizarte zerbitzuaren eragin aldera mugatzeko aukera emango luke**. Azkeneko honi dagokionez, datuek diote egun beren auzunean dagoen zentro batera joateko aukera daukaten eguneko zentroen erabiltzaileak %40 ere ez direla.

**45. Okupazio tasa**. Azterlaneko datuek diote, informazioa, jorratzeko, jaso zen unean, zentroetako okupazio tasa %78koa zela, eta hori baxu samartzat jo daitekeela, egoitzetakoekin alderatuz behintzat, egoitzetan itxaron zerrenda luzeak izaten dituzteeta. Horrek, zerbitzu ereduari buruzko aurreko gogoetekin lotuta, zentro horien egungo eraketa zalantzan jarri, eta adineko pertsona ezgaituen beharrizanei ondo erantzuten dieten pentsarazten du. Nolanahi ere, **beharrezkoa da eskaria mugatzen duten faktoreak aztertzea, arreta oinarrizko hiru alderditara bideratuz: zenbaterainokoa den dagoen pertsonaz etxean arduratzen diren arreta edo zerbitzuzko gizarte eta familia sarea, zenbateraino egokitzen diren zentroetako ordutegiak sare horren beharretara; eta, ezbairik gabe, zerbitzuari eman beharreko diru ekarpenak zenbateraino eragin dezakeen erabiltzea baztertzea**. Azkeneko horretaz, gogora ekar daiteke, Txostenaren lehenengo zatian esan denez, 2004rako egunero batez beste ordaindu beharrekoa 10,36 € izan dela Gipuzkoan, 11,79 € Araban eta 13,96 € Bizkaian (hileroko batez bestekoak, agian, lurralde historikoen arteko desberdintasunen adierazgarriagoak dira: 226 €, 259 €, eta 307 €, hurrenez hurren); kontua kopuru horiek zerbitzua erabiltzea baztertzeko bezain altuak diren ala zen argitzea litzateke.

Baliteke, bestalde, faktore hauen guztiak batuta sortzea egiaztatutako egoera hori, baina, nolanahi ere, datu hauek gai horri buruzko berariazko azterlanari berehala ekin behar zaiola iradokitzen dute.

**46. Garraioa.** Egiaztatu da etxetik eguneko zentroetarako joan-etorriko zenbait bidaia luzeak direla; horren gainean, nabarmentzen da antolatutako garraioek batez beste

42 minutu irauten duten arren –joan edo etorriko bidaia bat–, zentroen %30etan eguneroko joan-etorri horiek erabiltzaile bakoitzarentzat ordu betetik gorakoak izan litezke, eta muturreko kasuren batean, baita 140 minutukoak ere.

Normala da, zentroen eragin aldeak auzunearen baita udalerriaren esparrua ere gainditzen duela kontuan izanik. Eta ibilbideak denon interesa bermatu nahirik moldatzeak ere eragina dauka horretan, baina esan behar da, batzuetan, berdintasunera begira, zentroetatik oso gertu bizi diren pertsonei neurrigabeki luzeak diren bidaiak eginarazten zaizkiela, eta hori ere ez da zentzuzkoa

Jabetu behar dugu gure eguneko zentroetan zaintzen dituzten pertsonak, normalean oso nagusiak eta oso ezgaitasun larriek jota daudenak izan ohi direla, ez daudela egunero eta urtaro guztietan eginarazten zaizkien bidaia luze-luze horiek egiteko moduan, are gehiago beraietako askorentzat, inoiz ondoezik edo gaixorik badaude, eguneko zentroan zain ditzaten alternatiba arazotsua izan daitekeela kontuan hartzen bada.

Garraioaren arazoa, jakina, dagoen zentroen ereduaren eta zentroen jarduera esparru geografikoaren zabaltasunaren ondorioa da. Hemen gomendatzen denez zentroa, neurriz eta funtzionamendu esparruz, non lekututa dagoen adituz dagokion oinarrizko gizarte zerbitzuaren eragin aldera doituko balitz, ez litzateke ia garraio arazorik bat ere izango.

**47. Eguneko zentroen erabilpen malgua**.

Hain nagusiak diren eta hain ezgaitasun garrantzitsuek jota dauden pertsonentzat, **zentroetan egunero ematen duten denbora** gehiegi dela uste da: %45 inguru bederatzi ordu baino gehiago egoten dira zentroetan. Berriro ere, eguneko arretaren alternatiba desberdinak koordinatzeaz pentsatu behar dela azpimarratuko dugu, eguneko zentro batean luzeegi egon beharrean egonaldi horiek beste formula batzuekin konbinatu ahal izateko, adineko pertsonen beharrekin hobeto doan arreta eredu bat egunero bermatu nahirik.

Aurreko hori eta **zerbitzuen erabilpena malgutzeko beharra lotuta doaz, ezinbestean, banako beharrei egokitutako erabilpen partziala egin ahal izateko aukera izatez bermatzeko neurriak hartuz.** Ordutegien aldetik zorrotzago izatea defendatzen duten eta, ondorioz, zerbitzua nahieran erabiltzearen aurka daudenek eusten dioten arrazoia da hori egiteak ondo ez dagoen nolabaiteko azpi-erabilpena egitea dakarrela da, are gehiago beharrizan larriak dituzten pertsonak dauden itxaron zerrendak daudenean. Argudioa gogoan hartzeko modua da, auzia nahierako izaerari zentzuzko mugak jarriz konpon litekeen arren. Dena dela, oraintxe iruzkindu ditugun datuek erakusten dute zerbitzua malgutasunez erabiltzeko oztopoa ez dagoela –garraioaren gaineko kontuak baztertuta- zentroan bertan, adineko pertsonaren gizarte eta familia ingurunean baizik.

Izan ere, erabilpen nahierakoa eta erabiltzailearen inguruabar eguneroko eta pertsonaletara egokitutakoa baldintzatzen duen oinarrizko faktorea bere etxean beharko lituzkeen laguntza osagarriak aurkitzeko bitartekorik ezaren ondorio izaten da. Esan nahi da normalean familiako bizimoduaren antolaketa –edo zaharraren

bakardadea– izaten dela zerbitzuaren erabilpen “zurruna” eskatzen duena eta, horregatik, erabiltzaileak ordutegia zorrozki betetzea ezinbesteko baldintza izaten dela etxekoek beren lan ordutegiak ere behar bezala bete ahal izan ditzaten. Badirudi garbi dagoela balizko erabiltzaileen beharren egoera desberdin ugarietara egokitutako eskaintza atontzeko modurik aproposena, bakarra ez esatearren, etxeko arreta zerbitzuekin koordinatutako eta auzunera mugatutako eguneko zerbitzuak funtzionatzen jartzea dela. Orain, eguneko erabiltzaileen %40 bat SADen erabiltzaile ere badira, eta proportzio bera da joaten den zentroa dagoen auzunean bertan bizi dena.

**48. Langileria ratioak.** Zuzeneko arretako langileen guztirako kopuruak aplikagarria den arautegiak eskatzen duen gutxienekoa %32an gainditzen duen arren, esan behar da EAEn zenbait zentrok ez dutela indarreko Dekretuak gutxieneko modura jartzen dituen ratiorik iristen. Zentro hauek denen %12,9 dira, eta erabiltzaileen multzoaren %16,5 hartzen dute. Egia da beharrezko gutxienekoaren aldean igarritako defizita ez dela oso nabarmena zeren, EAEn, guztira 12,6 langilekoa baita, eta egia ere bada datuak tentuz interpretatu behar direla, zeren Azterlanaren esparruan erabiltzaileak beren ezgaitasun graduaren arabera sailkatzeko erabili diren irizpideak, ziurrenik, ez baitira zentroetako arduradunek erabilitako berberak baina, hala ere, legezko ratioak gutxienekoak direnez, zentro horiek orain dituzten langileriak berraztertu beharko dituzte, arautegietako eskakizunetara hobeto doitzea bermatuko badute.

Aurrekoarekin lotuta, **gogoan izan behar da analisi juridiko-administratiboan eskatutako ratioak hobetu beharraz, eta zuzeneko arretako langileen presentzia fisikoarekin lotzea komeni dela-eta egindako gomendioa, eguneko edozein unetan bete dadin bermatu nahi bada. Funtsezkoa da, halaber, gogoan izatea ratioak hobetzea laguntzazko estandarrak hobetzearekin lotu behar dela beti, egoitzei buruz esan den moduan**.

**49. Ezaugarri fisikoak.** Alferrikako errepikapenak saihesteko, eta eguneko zentroen alderdi fisikoen balorazioa, oro har, egoitzetako zerbitzuei buruz esandako argudio berberetara doitzen denez, jarraian, indarreko legedian ezarritakoari, edo Europako literatura espezializatuan finkatutako ohitura onen gomendioei adituz, berrikusi eta hobetu beharko liratekeen alderdiak soilik aipatzea erabaki da.

- ***Kanpoko irisgarritasuna***. Irisgarritasunaren arloa ondo betetzen dela igarri arren, **ezinbestekoa da oraindik oztopo arkitektonikoak dituzten zentroei (den-denak Bizkaian daude), oztopoak ken ditzaten eskatzea,** are gehiago guztira fisikoki mendekoak diren 39 erabiltzaile hartzen dituztela eta horietako 6 gurpildun aulkien erabiltzaileak direla kontuan izanik.

- ***Barruko irisgarritasuna.*** **Garrantzitsua da, orobat, egoitzen barruan irisgarritasuna bermatzeko beharrezko neurriak har daitezen, irisgarritasuneko oinarrizko baldintzak betetzen ez dituztela ikusten den zentro guztietan**, hau da, kanpoko eta barruko ateak nahikoa zabal izatea, korridoreetan eskudelak izatea, eskailera eta arrapaletan zoru irristagaitza

izatea, bainugeletako batean gutxienez gurpildun aulki bat biratzeko nahikoa toki egotea, eta jantoki eta jardueren eremura joateko ere lekua izatea.

- ***Bainugela geriatrikoa izatea*. Hogei erabiltzaileko bainugela geriatriko bat izateko arautegizko baldintza betetzen ez duten eguneko zentro guztiei baldintza horretara doi daitezen eskatu behar zaie.** Defizit horrek gaur eguneko zentroen %25 hartzen ditu.

- ***Kisketak komun eta bainugeletan***. Eguneko zentroen laurdenak baino gehiagok ez dute betetzen, behar izanez gero, komun eta bainugeletako ateak kanpotik desblokeatzeko mekanismoren bat jartzeko betebeharra. **Ezinbestekoa da, pribatutasunerako eskubidea zainduz, baldintza hau bete dadin.**

- ***Suteez babesteko neurriak***. **Ezinbestekoa da suteen aurkako instalazio eta ekipamenduen alorrean betetzen ez direnak berehalakoan zuzentzea** (suteen igarleak eta alarmak jartzea, eskuko su-itzalgailuak jartzea, premialdiko argiak eta irteeren seinaleztapena)**,** zentroetako arduradunek emandako datuen arabera, gutxi dira-eta. Funtsezkoa da, halaber, **gai honekin lotuta dauden neurri funtzionalak nabarmen hobetzea;** ezinbestekoa da, bereziki, halakorik ez daukaten zentroek suteetan zer egin jakiteko eredu edo jarraibideez hornitzea, eta langileak prebentzioan ez eze igarpenean eta ebakuazioan trebatzea; horretarako, simulazioak egingo dituzte, su itzalketan ardura duten agintariek egoki irizten dioten bezain aldioro. **Arautegizko betekizuna ez den arren, eguneko zentroek larrialdi planak izan behar dituzte, eta plan horiek agintari eskudunen eskueran jarriko dira.**

**50. Zentroen betekizun funtzionalak eta funtzionamendua**. Eguneko zentroen ezaugarri fisikoen kasuan bezala, hemen iruzkinak ezinbesteko gomendioetara mugatzea erabaki da, egoitzei buruz esandako balorazioak errepikatzea saihesteko.

- ***Baldintza funtzionalak***. Eguneko zentrorik gehienek barruko arautegia, kexa prozedura, erreklamazio liburu edo orriak, iradokizun ontzia, prezioen tarifa eta kontratu dokumentua badauzkaten arren, **bada oraindik halakorik betetzen ez den egoerarik -%10 eta %20 betekizunaren arabera- eta hori azkar zuzendu behar da**.

  Bestalde, ebaluaziorako eta kalitatea etengabe hobetzeko sistemak aplikatzea arautegizko betekizunak ez diren arren, eguneko zentroetan hedatzea komeniko litzateke, izan ere, eguneko zentroak egoitzazko zerbitzuak baino gehiago betetzen dute arau hori.

- ***Elikadura***. Oraindik ez da menu alternatiborik eskaintzen, ez eta plater aukerarik ere, eguneko zentroen herenean, arautegiz finkatutako baldintza den arren. **Ezinbestekoa da zentro guztiak gutxienez bigarren formula horretara doi daitezen**.

- ***Kontinentziaren kontrola***. Arautegiak jaso ez arren**, beharrezkoa da eguneko zentro guztietan kontinentzia kontrolatzeko banan-banako planak ezar daitezen erraztu eta sustatzea, zaintzen diren pertsonek bustita ahalik eta denborarik gutxien eman dezaten**.

- ***Euspen fisikoen aplikazioa***. Neurri hauek murriztaileak direnez, **ezinbestekoa da neurri horiek aplikatzen dituzten edo uneren batean aplika litzaketen zentro guztiek halakoak aplikatu eta berraztertzeko prozedura formalak izatea, non erabiltzailearen edo bere legezko ordezkariaren baimena eskatu behar dela, zer euspen mota erabiltzen den eta zenbat pertsonari aplikatzen zaizkion beti idatziz jasotzeko aukera izateko erregistroak izango direla azalduko den**.

- ***Erabiltzaileek jardueretan parte hartzea***. Egoitzazko zerbitzuetan, bai egoitzetan bai etxebizitzetan, ikusitakoaren aldean, erabiltzaileek jardueraren batean parte hartzen duten eguneko zentroen proportzioa nabarmena da, zeren %50etik gorakoa baita. Gizarte eta kultura jardueretan, eta gozamen jardueretan, erabiltzaileen %50 baino gehiagok aktiboki eta nahikoa sarri parte hartzen dute. **Gomendatzen da alde horretatik egindako ahaleginari eustea eta, jarduerak egokituz, ezgaitasun handiagoak eta ezagumena hondatuta daukaten pertsonen partaidetza gehitzea sustatzea**.

- ***Partaidetza-organoak***. **Beharrezko irizten zaio, oraindik halako neurririk hartu ez duten eguneko zentroetan, partaidetza-organoak edo bideak sortzea eta abiaraztea aktibatzeari** -%55 baino gehiago dira halako ezer ez dutenak, zentroetako arduradunek emandako datuen arabera -.

- ***Langileen antolaketa***. Arlo honetan, funtsezko irizten zaio eguneko zentro guztietan Dekretuak eskatzen duen langile giltzarri edo erreferentziazkoaren irudia zabal dadin sustatzeari, zeren egun EAEko eguneko zentroen erdian baino apur bat gehiagotan soilik baitaukate halakorik.

# ERANSKINAK

# 1. ERANSKINA

## EGOITZA ZERBITZUEN BALDINTZA MATERIALAK ETA FUNTZIONALAK:

### Indarrean den araudia eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Aldundien Azterketa eta Kontrol Zerbitzuek elkarrekin adostuta aurkeztutako proposamen teknikoa

Eranskin honetan hitzez hitz[24] dago idatzita adineko pertsonentzako gizarte zerbitzuen gaineko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren edukia eta Dekretu hori aldatzeko Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako Azterketa eta kontrol Zerbitzuek adostu duten proposamen teknikoa.

| | **41/1998 DEKRETUA, martxoaren 10ekoa, adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuei buruzkoa** | **Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako ikuskaketa eta kontrol teknikariek 41/1998 Dekretua aldarazteko adostutako proposamena** |
|---|---|---|
| **1. atala. Xedea.** | 1. Euskal Autonomia Erkidegoko adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuak arautzea da dekretu honen xedea. | |
| | 2. Dekretu honen ondorioetarako, hauxe hartuko da adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzutzat: izena, titularitatea edo ezaugarriak edozein izanda ere, 60 urtetik gorako, edota gorabehera pertsonal eta sozialengatik horien pareko izan daitezkeen bost pertsonei edo gehiagori bizilekua, mantenua eta zainketa diru-truk ematen dizkien establezimendua. | Dekretu honen ondorioetarako, hauxe hartuko da adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzutzat: izena, titularitatea edo ezaugarriak edozein izanda ere, 60 urtetik gorako, edota gorabehera pertsonal eta sozialengatik horien pareko izan daitezkeen bost pertsonei edo gehiagori bizilekua, mantenua eta zainketa diru-truk ematen dizkien establezimendua. ***Ikuskaketa gaietan eskumena duten zerbitzuen arabera, hiru eta lau erabiltzaile dauzkaten zenbait zentrok arautegia ez betetzea galaraztea da aldarazpen honen xedea.*** |

[24] Eskuineko zutabean, aldarazpen proposamen bakoitzaren azpian, bakoitzaren xedea adierazten da, letra etzanez idatzita.

| | 41/1998 DEKRETUA, martxoaren 10ekoa, adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuei buruzkoa | Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako ikuskaketa eta kontrol teknikariek 41/1998 Dekretua aldarazteko adostutako proposamena |
|---|---|---|
| | 3. Dekretu honen aplikazio-eremutik beren-beregi kanpo geratuko dira autogestio-erregimenpeko familia bakarreko etxebizitzak eta familia-harrerako programak. | |
| | 4. Adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuek osasuna, lana, hirigintza, arkitektura, segurtasuna eta higienearen arloetan indarrean diren arauak bete beharko dituzte, bai eta zerbitzu mota eta era bakoitzerako beren-beregi ematen direnak ere. | |
| **2. atala. Sailkapena.** | Dekretu honen ondorioetarako, adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuak honela sailkatuko dira: | |
| | a) Apartamentu babestuak: pertsona bakarreko eta/edo bikoteko etxebizitza autonomoen multzoak dira; taldeko zerbitzuak dituzte, aukeran erabiltzekoak; duten egoera psiko-fisiko eta soziala dela–eta, baliabide gehiagorik behar ez duten pertsona nagusientzat dira. | |
| | b) Etxebizitza komunitarioak: gehienez ere, 14 plaza dituzten elkarbizitzarako zentroak dira; euren kabuz moldatzeko ahalmen jakin bat duten eta familia-giroaren antzeko bizimodua duten pertsona nagusientzat dira. | |
| | c) Egoitzak: 14 plazatik gorako elkarbizitzarako zentroak dira, bizileku iraunkorra eta komuna izateko prestatuak; pertsona nagusiei osoko zainketa, etengabea, ematen zaie; minusbaliotasun handiak dituztenak zaintzeko beharrezkoak diren materialak izan beharko dituzte. | Egoitzak: Elkarbizitzarako zentroak dira, bizileku iraunkorra eta komuna izateko prestatuak; pertsona nagusiei osoko zainketa, etengabea, ematen zaie; minusbaliotasun handiak dituztenak zaintzeko beharrezkoak diren materialak izan beharko dituzte.<br>*Ikuskaketa gaietan eskumena duten zerbitzuen arabera, aldarazpen honen xedea inkongruentzia bati aurre egitea da; alegia, egoitzek bete beharreko arau guztiak betetzen dituzten zenbait zentro, euren gehieneko plaza kopuruaren ondorioz, etxebizitza komunitario gisa kalifikatu behar ez izatea da xedea. Beraz, egoitza kalifikazioa jasotzeko gutxieneko plaza kopurua kentzea proposatzen da.* |

| | **41/1998 DEKRETUA, martxoaren 10ekoa, adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuei buruzkoa** | **Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako ikuskaketa eta kontrol teknikariek 41/1998 Dekretua aldarazteko adostutako proposamena** |
|---|---|---|
| **3. atala. Egintza administra-tiboak.** | 1. Adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuak egintza administratibo hauei loturik egongo dira:<br>a) Administrazio baimena, titularitate pribatua dutenentzat:<br>– sortzeko, eraikitzeko nahiz instalatzeko eta jardunean jartzeko;<br>– hasierako egitura edo funtzioak aldatzeko;<br>– lekuz aldatzeko.<br>b) Baimena eman zion administrazioko agintariari jakinaraztea:<br>– Zerbitzuaren uztea.<br>– Titularitate aldaketa.<br>c) Erregistroa.<br>d) Homologazioa, titularitate pribatua dutenentzat; administrazio publikoekin itunak egiteko bete beharreko baldintza izango da.<br>e) Ikuskaketa. | |
| | 2. Egintza administratibo horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzeko den martxoaren 10eko 40/1998 Dekretuan ezarritakoaz arautuko dira. | |
| **4. atala. Printzipio orokorrak.** | Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legean ezarritakoaz bat etorriz, adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuen jarduera bideratuko duten printzipio orokorrak hauek dira: | |
| | 1. Normaltasuna: egoiliarren bizimodua gainerako biztanleentzat normaltzat jotako jokabideen ahalik eta antzekoena izango da, bizitzaren alderdi guztietan. | |
| | 2. Autonomia: eguneroko bizitzan egoiliarrek ahalik eta autonomia pertsonalik handiena izan dezaten bultzatuko da, eta, ondorioz, duten mendekotasun fisiko nahiz psikikoaren mailagatik behar duten sorospena baino ez zaie emango. | |

| | 41/1998 DEKRETUA, martxoaren 10ekoa, adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuei buruzkoa | Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako ikuskaketa eta kontrol teknikariek 41/1998 Dekretua aldarazteko adostutako proposamena |
|---|---|---|
| | 3. Partaidetza: adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuko elkarbizitzan integratzeko, zerbitzuko egintzetan eta funtzionamenduan egoiliarrek ahalik eta partaidetzarik handiena izan dezaten bultzatuko da. | |
| | 4. Integrazioa: egoiliarrek familia, gizarte, politika eta kulturaren arloetan dituzten ohiturak elkarbizitzako ohiko ingurunean manten dezaten bultzatuko da. | |
| | 5. Osotasuna: egoiliarrari eskainiko zaion zerbitzuak alde guztiak hartu behar ditu, hau da, osasunaren eta ongizatearen eredu oso bat lortu nahi da; osasun, gizarte, psikologia, giro, elkarbizitza, kultura eta antzeko gaiak, guztiak ere ondo koordinatuta, hartu beharko ditu eredu horrek. | |
| | 6. Profesionalizazioa: bolondresei kalterik eragin gabe eta duten balio osagarria aintzat hartuz betiere, adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuetako arduradunek eta gainerako langileek bakoitzaren maila profesionalari dagokion kualifikazio teknikoa izan beharko dute. | |
| | 7. Banakako zainketa: egoiliar bakoitzari bere beharretara egokitutako zainketa emango zaio. | |
| **5. atala. Erabiltzaileen eskubideak.** | Adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuen erabiltzaileek eskubide hauek izango dituzte:<br>1. Etxe horietan sartzekoa eta laguntza jasotzekoa, sexu, arraza, erlijio, ideologia edo beste edozein gorabehera pertsonal nahiz sozial dela-eta inor baztertu gabe.<br>2. Banan banan, errespetuz, zuzentasunez eta ulermenez tratatuak izatekoa.<br>3. Beren intimitatekoak diren datu pertsonalak isilpean izatekoa.<br>4. Pertsonen artean hartu emanak izatekoa eta kanpoko bisitak hartzekoa. | |

| | **41/1998 DEKRETUA, martxoaren 10ekoa, adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuei buruzkoa** | **Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako ikuskaketa eta kontrol teknikariek 41/1998 Dekretua aldarazteko adostutako proposamena** |
|---|---|---|
| | 5. Egoiliar diren aldetik, beren interesekoak diren eta, ondorioz, eurengan eragina izan dezaketen gaien inguruan informazioa jasotzekoa eta iritzia ematekoa.<br><br>6. Intimitatea izatekoa, adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuen egituraren arabera, eta nork bere bizimodua aukeratzeko beregain izatekoa.<br><br>7. Gizarte, osasun, botika, hezkuntza eta kultura mailetako atentzioa jasotzekoa, eta, oro har, garapen psiko-fisiko egoki bat lortzeko beharrezkoak diren behar pertsonaletarako sarbidea izatekoa.<br><br>8. Zentroko zuzendaritzari zerbitzuen funtzionamenduari edo horiek hobetzeari buruzko proposamenak edo erreklamazioak aurkeztekoa eta egindakoaren inguruan erantzuna jasotzekoa.<br><br>9. Zerbitzuak erabiltzen nahiz zentroan bizitzen jarraitzeari borondatez uko egitekoa.<br><br>10. Eskubide horiei eta eskubideok erabiltzeko bideei buruzko argibideak hizkera ulerterrazean jasotzekoa. | |
| **6. atala. Erabiltzaileen betebeharrak.** | Adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuen erabiltzaileen betebeharrak hauek dira:<br><br>1. Adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuen barne araubidean erabilerarako ezarritako baldintza orokorretako arauak ezagutzea eta betetzea.<br><br>2. Errespetuz, tolerantziaz eta lankidetzaz jokatzea, elkarbizitza hobea izan dadin. | |
| **7. atala. Baimena.** | Titularitate pribatuko adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuek, administrazio eskumendunak baimena eman diezaien, dekretu honetako I. eranskinetik IV.era artean ezartzen diren baldintza material eta funtzionalak bete beharko dituzte. Betekizun horiek titularitate publikoa duten zerbitzuek ere bete beharko dituzte. | |
| **8. atala. Homologazioa.** | Titularitate pribatuko adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuek homologazioa jaso nahi badute, dekretu honetako V. eranskinean ezartzen diren irizpideak bete beharko dituzte. | |

| | 41/1998 DEKRETUA, martxoaren 10ekoa, adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuei buruzkoa | Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako ikuskaketa eta kontrol teknikariek 41/1998 Dekretua aldarazteko adostutako proposamena |
|---|---|---|
| **ALDIBATERAKO XEDAPENAK** | | |
| **Lehenengoa. Funtzionamendurako baimena.** | 1.Dekretu hau indarrean sartzen denean jada jardunean ari diren adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuen erakunde titularrek administrazio eskumendunari eskatu beharko diote funtzionamendurako legezko baimena, egun horretatik hasi eta urtebeteko epearen barruan. Baimen hori eskatzeko, beharrezkoa izango dute dekretu honen 2. atalean ezarritako sailkapenaren arabera aplikagarri zaizkien baldintza materialak eta funtzionalak beteta izatea.<br><br>Ordura arte, eskabidea ebazten den artean, adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuek ohiko jarduna burutzen jarraituko dute. Baldin eta, urtebeteko epe hori igaro eta adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuen erakunde titularrek beren tipologiagatik dagozkien baldintza materialak eta funtzionalak bete gabe badituzte, edota beteta izanda ere, funtzionamendurako legezko baimena eskatzeke badute, administrazio eskumendunak itxi egingo du zerbitzu horiek ematen direneko zentroa. | 2 Adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuen erakunde titularrek, behin-behineko funtzionamendu baimena eta nahitaezko udal lizentziak badauzkate, aldarazpen hau indarrean sartzen denean euren funtzionamenduarekin jarraitu ahal izango dute.<br><br>Halere, dekretu honen eranskinetan ezarritako baldintza funtzional guztiak bete beharko dituzte zentro horiek. Erabiltzaileen bizi-kalitatean eragin kaltegarria izan dezaketen osasun, segurtasun edo bestelako izaerako baldintza materialak ere bete beharko dituzte. Gaian eskudun den administrazioak baldintza horiek guztiak betetzen diren egiaztatuko du.<br><br>Adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuen erakunde titularrek ez badituzte baldintza horiek betetzen, administrazio eskudunak zerbitzuok ematen diren zentroa itxiko du.<br><br>Baldintzak betetakoan, administrazio eskudunak behin-behineko funtzionamendurako baimena eman dezake, izaera mugagabearekin. |
| | 2. Baldin eta, eraikitze-teknikengatik edo beste zerbaitegatik, adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuek dekretu honetan ezarritako baldintza materialak eta funtzionalak ez badituzte betetzen eta ikuskaketa-txostenak esaten badu aipatu egoerak ez duela eraginik osasun eta segurtasun mailan, eta, ondorioz, erabiltzaileen bizi–kalitaterako kaltegarria ez dela, administrazio eskumendunak behin-behineko baimena eman ahal izango die bost urterako, gehienez ere.<br><br>Baldin eta, bost urteko epe hori igaro eta adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuen erakunde titularrek beren tipologiagatik dagozkien baldintza materialak eta funtzionalak bete gabe badituzte, edota beteta izanda ere, funtzionamendurako legezko baimena, behin betikoa, eskatzeke badute, administrazio eskumendunak itxi egingo du zerbitzu horiek ematen direneko zentroa. | |

| | 41/1998 DEKRETUA, martxoaren 10ekoa, adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuei buruzkoa | Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako ikuskaketa eta kontrol teknikariek 41/1998 Dekretua aldarazteko adostutako proposamena |
|---|---|---|
| | | 3. Aurreko puntuan aipatzen diren adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuen erakunde titularrek, homologazioa eskatzen badute, dekretu honetako V. eranskineko baldintza material eta funtzional guztiak bete beharko dituzte.<br><br>4. 41/1998 Dekretua dela bide funtzionamendurako baimena daukaten egoitza –zentro guztiek dekretu honetan ezarritako baldintza funtzionalak bete behar dituzte. Hasierako araubide funtzionala edo egitura aldarazteko balizko egintzetarako bakarrik eskatu beharko dute baimena, halakorik egin nahi badute. |
| **Bigarrena. Homologazioa.** | 1. Dekretu honen aldibaterako xedapenetatik lehenengoaren lehenengo idazatian aipatzen diren adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuen erakunde titularrek, baldin eta dekretu hau indarrean sartzean euskal administrazio publikoren batekin itunduta badaude, egun horretatik hasi eta urtebeteko epearen barruan legezko homologazioa eskatu beharko diote administrazio eskumendunari, dekretu honen V. eranskinean aipatzen diren irizpideak bete ondoren.<br>Ordura arte, eskabidea ebazten den artean, itunaren ondorioz daukaten erregimenaz jarraituko dute.<br>Baldin eta, urtebeteko epe hori igaro eta adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuen erakunde titularrek homologatzeko irizpideak bete gabe badituzte, edota, beteta izanda ere, eskatzeke badute, administrazio eskumendunak hautsi egingo du dagoen itun-erregimena. | |
| | 2. Dekretu honen aldibaterako xedapenetatik lehenengoaren bigarren idazatian aipatzen diren adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuen behin–behineko baimenaren indarraldian, administrazio eskumendunak behin-behingo homologazioa eman ahalko die, baldin eta aurrez itunduta egon badira.<br>Baldin eta, bost urteko epe hori igaro eta adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuen erakunde titularrek behin betiko homologazioa lortzeko irizpideak bete gabe badituzte, edota, beteta izanda ere, eskatzeke badute, administrazio eskumendunak hautsi egingo du itun-erregimena. | |

| | 41/1998 DEKRETUA, martxoaren 10ekoa, adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuei buruzkoa | Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako ikuskaketa eta kontrol teknikariek 41/1998 Dekretua aldarazteko adostutako proposamena |
|---|---|---|
| **Hirugarrena. Izapideak egiten ari zaizkien espedienteak.** | Dekretu hau indarrean sartu baino lehen izapidetzen ari diren gizarte zerbitzuen baimenak Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzeko den martxoaren 10eko 40/1998 Dekretuan xedatutakoaz arautuko dira. | |
| **INDARGABETZE XEDAPENA** | Indargabetuta geratzen dira «Adinekoentzako Erresidentzietako Zerbitzu Sozialei buruzko» uztailaren 30eko 218/1990 Dekretua eta dekretu honen kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak. | |
| **AZKEN XEDAPENAK** | | |
| **Lehenengoa. Arauzko garapena** | Ahalmena ematen zaio Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren beste xedapen emateko. | |
| **Bigarrena. Indarrean sartzea** | Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean. | |

| Gizarte zerbitzu guztientzako baldintza materialak eta funtzionalak | Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako ikuskaketa eta kontrol teknikariek 41/1998 Dekretua aldarazteko adostutako proposamena |
|---|---|
| 1. Udalerriaren erdialdean egon beharko dute; edo, bestela, garraio publikoaz erdialdearekin egoki lotutako lekuren batean. Behar izanez gero, adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuak zenbait egun eta ordutan udalerriaren erdialdera garraiatzeko beste bide bat eskaini beharko die erabiltzaileei.<br><br>Gainera, zerbitzua kokatzen deneko lekua ez da zaratatsua izango, ez eta arriskutsua ere erabiltzaileen osasunerako; osasun baldintzak bete beharko ditu eta inguruak ondo argiztatuak izango ditu. | |
| 2. Lorategiak edo kanpoko gune zabalak izan beharko ditu, paseatzeko modukoak, edo plaza nahiz lorategi publikoetara erraz iristeko modukoak, behintzat. | Lorategiak edo kanpoko gune zabalak izan beharko ditu, paseatzeko modukoak, edo kanpoaldera irteteko modua.<br>*Interpretazio kontua da.* |
| 3. Erabiltzaileen egoeretara eta zerbitzuan egingo diren programetara fisikoki egokitutakoak izan beharko dute. | |
| 4. Araudia izan beharko dute, behar den publizitateaz eta hedapenaz. Araudian honako hauek jasoko dira:<br>– Zerbitzuaren helburuak.<br>– Zerbitzua erabiliko dutenen ezaugarriak.<br>– Sartzeko bete beharrekoak.<br>– Aukeratzeko irizpideak eta baremoak.<br>– Edukiera (plaza kopurua).<br>– Erabiltzaileen eta langileen eskubideak eta bete beharrak.<br>– Barne-funtzionamendurako arauak.<br>– Erabiltzaileek edo beren legezko ordezkariek demokratikoki parte hartzeko bideak.<br>– Onarpenen, bajen eta ausentzien sistema.<br>– Prezioak, bai egonaldiaren kostuarenak bai eskaintzen diren zerbitzuenak.<br>– Eskaintzen diren zerbitzuen prezioa kobratzeko sistema.<br>– Erreklamazioak egiteko prozedura.<br><br>Gainera, egoitzen eta etxebizitza komunitarioen araudiak honako hauek jaso beharko ditu:<br>– Bisiten ordutegia.<br>– Irteeren eta kanpoko hartu-emanen erregimena.<br><br>Etxean sartuko den pertsonari edo bere legezko ordezkariari araudiaren kopia bat emango zaio sartu aurretiko bisitaldian. | ***Erantsi:***<br><br>Zentroari edo zerbitzuari baimena emateko eskumena duen administrazioak onetsi beharko du araudia. Berdin jokatuko da geroko aldarazpenekin. Eskaintzen diren zerbitzuak, egonaldiaren prezioan sartutakoak eta aukerazkoak xehatuz. |
| 5. Prezioen erregimena:<br><br>Prezioak ezarriko dira eta zehazki adieraziko da prezio horien indarraldia eta horiek eragindako zerbitzua edo elkartutako zerbitzu multzoa.<br><br>Horrezaz gain, ordainagiri bat emango zaie erabiltzaileei ordainketa egiten dutenean eta zentroko egonaldia bukatzen denean likidazioa egingo zaie. | Prezioak ezarriko dira eta zehazki adieraziko da prezio horien indarraldia eta horiek eragindako zerbitzua edo zerbitzu multzoa.<br><br>Horrezaz gain, ordainagiri bat emango zaie erabiltzaileei ordainketa egiten dutenean, eta zentroko egonaldia bukatzen denean likidazioa egingo zaie.<br><br>Prezioen tarifan egonaldiaren kostua eta eskaintzen diren zerbitzuen kostua agertu behar dira. |

| Gizarte zerbitzu guztientzako baldintza materialak eta funtzionalak | Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako ikuskaketa eta kontrol teknikariek 41/1998 Dekretua aldarazteko adostutako proposamena |
|---|---|
| 6. Kontularitza:<br>Zerbitzua administratzerakoan, legez dagokien kontularitzara lotuko dira. | |
| 7. Erabiltzaile bakoitzarekin edo bere legezko ordezkariarekin kontratu-bidezko obligazioen edukiei buruz hartutako akordioa. | ***Erantsi:***<br>Zentroari edo zerbitzuari baimena emateko eskumena duen administrazioak idatzi behar du kontratua eta berak onetsi beharko du eredua. Berdin jokatuko da geroko aldarazpenekin.<br>Kontratuan datu hauek agertu behar dira gutxienez: zentroaren titularraren edo bere legezko ordezkariaren izena eta NAN, erabiltzailearen edo bere legezko ordezkariaren izena eta NAN, kontratatzen diren zerbitzuak, kontratatutako zerbitzuen prezioa, prezio eguneratua, kontratuaren indarraldia, luzatzeko aukera eta kontratua suntsiarazteko kausak.<br>Era berean, kontratuan agerrarazi behar da erabiltzaileak edo beraren legezko ordezkariak araudiaren edukia ezagutzen eta onartzen dutela. |
| 8. Sarrera-espedientea gorabehera, erabiltzaile bakoitzaren banakako fitxategi bat egongo da; bertan, administrazio, osasun eta gizarte gaietako datu nagusienak jasoko dira, bai eta egindako kontratuaren kopia bat ere, zeinetan egonaldiaren baldintzak zehaztuko diren. | Sarrera-espedientea gorabehera, erabiltzaile bakoitzaren banakako fitxategi bat egongo da; bertan, administrazio, osasun eta gizarte gaietako datu nagusienak jasoko dira, bai eta egindako kontratuaren kopia bat ere, zeinetan egonaldiaren baldintzak zehaztuko diren.<br><br>Era berean, honakoak eduki behar dituzte, eguneraturik, eta gutxienez bi urtez:<br>• Erabiltzaileen erregistro liburua. Bertan hauek agertu behar dira: altak eta bajak, haien izaera (aldi baterako edo behin betikoak), kausak, erabiltzaileen identifikazioa, data eta oharrak.<br>• Eguneroko gorabeheren liburu bat, egoitzaren erabiltzaileek dituzten gizarte nahiz osasun izaerako gorabeherak idazteko. Gorabehera bakoitzeko, datu hauek idatzi behar dira: egoiliarra, gorabehera, ordua, idazten duen langilea eta oharrak (baleude) |
| 9. Erreklamazioen liburua; egiten diren kexak eta hartutako neurriak behar den moduan erregistratuko direla bermatu beharko da. | Erreklamazioen liburua; egiten diren kexak eta hartutako neurriak behar den moduan erregistratuko direla bermatu beharko da. Jendeak ikusi ahal izango du. |
| 10. Iradokizunen ontzia. | Iradokizunen ontzia. Toki ikusgarri batean ipiniko da. |
| 11. Argiteria eta aireztapena naturalak eta zuzenekoak izango dira, erabiltzaileak gehien ibiltzen diren tokietan batez ere: logelatan eta egonlekuetan. Gainera, gai horien inguruan zehaztasun hauek ematen dira:<br>• Logela guztiek kanpoko leiho bat eduki beharko dute, gutxienez logelaren azaleraren 1/10ekoa; aireztapena azaleraren 1/20koa.<br>• Erabiltzaileek nahiz langileek normalean erabiltzen dituzten leku eta gela itxiek aireztapena eta airea berritzeko sistema izan beharko dute. | |

| Gizarte zerbitzu guztientzako baldintza materialak eta funtzionalak | Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako ikuskaketa eta kontrol teknikariek 41/1998 Dekretua aldarazteko adostutako proposamena |
|---|---|
| 12. Berogailua; segurtasun neurri egokiak izan beharko ditu eta uneko hotz-beroak eskatzen duen guztietan ibili beharko du. | |
| 13. Solairu bakoitzean telefono bat izango da gutxienez, kanpoaldearekin harremanetan jartzeko. | |
| 14. Profesionalizazioaren printzipioaz bat etorriz, langile guztiek izango dute dagokien titulazio akademiko ofiziala, edo, horrelakorik ezean, beharrezkoa ez den kasuetan, beren maila profesionala eta beharrezkoa den esperientzia egiaztatu beharko dute.<br><br>Zerbitzuak langileen etengabeko prestakuntza bermatuko du. | |
| 15. Pribatutasuna:<br><br>Dekretu honen 5. atalean agindutakoaren arabera, adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzu guztietan erabiltzaileen pribatutasuna zorrotz errespetatuko da. Hori dela eta, besteak beste, puntu hauek bete beharko dira:<br><br>• Logelako atea edo, kasua bada, apartamentukoa itxita edukitzen utziko da.<br>• Langileak atea jo beharko du eta sartzeko gonbitea egiten zaion arte itxaron egin beharko du.<br>• Inoiz ere ezingo da barrualdea ikusi atea itxita dagoela.<br>• Armairuak eta kaxoiak giltzaz itxi ahal izango dira.<br>• Logelan nahiz apartamentuan bisitak hartu ahal izango dira.<br>• Erabiltzaileak ez dira behartuta egongo kanpora ateratzeko baimena eskatzera horretarako jarritako epean, ez eta irteeraren zergatia eta zertarakoa azaltzera ere. Edozein kasutan ere, kanpora ateratzea arriskutsu gerta dakiekeen pertsonentzat zainketa bat aurreikusita egongo da.<br>• Erabiltzaileek nork bere gauzak izan ditzake logelan edo, kasua bada, apartamentuan. Norberaren segurtasunaren kalterako izan daitezkeenak, ordea, ezingo dira eduki.<br>• Erabiltzaileen intimitatea gorde egingo da bainua hartzen ari direnean eta janzten eta eranzten ari direnean.<br>• Logeletan eta denontzako lekuetan dauden komunek kanpotik desblokeatzeko sarraila bat izan beharko dute.<br>• Askatasuna mugatzea dakarten itxurak saihestu egingo dira eta erabiltzaileekiko tratua errespetuzkoa izango da beti.<br>• Lan-orduak erabiltzaileen beharretara egokituko dira. | Armairuek sarraila edukiko dute, giltzez ixteko. |

| **Gizarte zerbitzu guztientzako baldintza materialak eta funtzionalak** | **Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako ikuskaketa eta kontrol teknikariek 41/1998 Dekretua aldarazteko adostutako proposamena** |
|---|---|
| • Erabiltzaileek telefonoa pribatuki erabili ahal izango dute.<br><br>• Egiaztatu egingo da, beharrezkoa bada, inkontinentzia-arazoak nola tratatzen diren, eta erabiltzaileentzat kaltegarri izan daitezkeen materialak eta metodoak ez dira behar baino gehiago erabiliko.<br><br>Salbuespen gisa, gaitz psikikoak izan eta judizio mailan ezgaiturik dauden erabiltzaileekin, baldintza honen aurreko punturen batean esandakoa bete gabe utz daiteke, baina gaixoaren segurtasuna arriskuan jartzen den kasuetan soil-soilik, errespetuz eta zuzentasunez jokatuz, betiere. | |
| 16. Kasua bada, banakako logelak izendatzeko baremoa; ahal bada, itxaron-zerrendan antzinatasuna izatea ez da esleipenerako irizpide bakarra izango. | |
| 17. Osasun-atentzioa:<br>Adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuak osasun-atentzioa jasotzeko bideak erraztuko ditu, erabiltzaileek egindako aukera errespetatuz betiere. Dena dela, erabiltzaile guztiek beharrezko duten osasun–atentzioa bertako nahiz besteren baliabideen bidez jaso dezaten bermatu egin beharko da. | |
| 18. Administrazio eskumendunari ondoren aipatzen diren gaien berri eman beharko zaio, horrek erabakitzen duen aldizkotasunaz:<br>• Erabiltzaileen zerrenda eguneratua.<br>• Gizarte zerbitzuak hobeto planifikatzeko eta programatzeko eska daitezkeen estatistika-datuak. | |
| 19. Aplikagarri zaizkien gaietan indarrean den legea bete beharko dute; bereziki, Osasunaren eta segurtasun eta higienearen alorreko betebeharrak.<br>Edozein kasutan, zehaztasun hauek bete beharko dira:<br>• Lokalak, instalazioak eta altzariak iraunarazi, zaindu eta, kasua bada, konpontzea kontu handiz zainduko da, horien hondatzea ekiditeko. Dauden makinak, galdarak, instalazioak edo tresnak, arriskuren bat sor badezakete, enpresa instalatzaile baimendunek baino ezingo dituzte erabili.<br>• Etxearen eta bertako geletako garbitasuna eta desinfekzioa bermatu beharko da, behar den maiztasunaz.<br>• Erabiltzaile guztiei elikadura egokia emango zaie, eta, kasua bada, patologia bakoitzerako elikadura berezi bat; elikadura langile espezializatuek zuzenduko dute eta dieta mailako jarraibideak emango dituzte. | |

| Gizarte zerbitzu guztientzako baldintza materialak eta funtzionalak | Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako ikuskaketa eta kontrol teknikariek 41/1998 Dekretua aldarazteko adostutako proposamena |
|---|---|
| 20. Titularitate pribatua duten adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuek ondo ikusteko lekuan jarri beharko dute funtzionamendurako baimena, bai eta administrazio eskumendunari jakinarazitako prezioen tarifak ere. | Titularitate pribatua duten adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuek ondo ikusteko lekuan jarri beharko dute funtzionamendurako baimena, bai eta administrazio eskumendunari jakinarazitako prezioen tarifak eta bisiten erregimena ere. |

| Egoitzetarako baldintza material eta funtzional bereziak | Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako ikuskaketa eta kontrol teknikariek 41/1998 Dekretua aldarazteko adostutako proposamena |
|---|---|
| ***1. Zehaztapen teknikoa: suaren aurkako babes-neurriak.*** | |
| 1. Adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzu guztiek arau hauek —gutxienezkotzat jotzen dira— bete beharko dituzte:<br>a) Suaren larrialdietarako plana prestatu eta jardunean jarri beharko dute dagokien zerbitzu teknikoekin elkarlanean. Plan horrek honako hauek jaso beharko ditu:<br>• Sua sortzea galarazteko beharrezkoak diren neurriak.<br>• Sua gertatzean, langileek eta erabiltzaileek eman beharreko urratsen sekuentzia zehaztu beharko da<br>• Eraikinaren Zati Bat, Edo, Beharrezkoa Gertatzen Denean, Guztia Hustutzeko Bideak Eta Moduak Zehaztu Beharko Dira.<br>• Plan horren berri erabiltzaileei eta langileei idatziz emango zaie eta sua gertatuz gero, jarraian egin beharreko urratsen laburpen bat jarri beharko da, erraz ikusteko moduan, leku hauetan: zentroko langileak normalean aritzen diren lokaletan, arrisku handiko guneetan, erabiltzaileen logeletan, itxaron gelatan, korridoreetan eta atondoetan.<br>b) Langileei prestakuntza ematea sua ekidin eta detektatzeari buruz, sua dagoenean jarduteko arauei buruz eta egoitza hustutzeari buruz, suaren aurkako larrialditarako planari jarraituz. | |
| 2. Plan hori egoitza kokatuta dagoen eremuko suteak itzaltzeko zerbitzura eta Eusko Jaurlaritzara, zehazki gizarte ongizate eta herri babesaren alorretan eskumenak dituzten sailetara, bidali beharko da. | |
| 3. Egoitzako Zuzendaritzak, berehala, behar diren erabakiak hartuko ditu, sua itzaltzeko zerbitzuko ibilgailuak libreki ibil daitezen eta ibilgailuok sarrerako atearen, kanpoko eskaileren, suteetarako kanpoko ur-hartuneen edo ur-paldoen ondoan jartzeko lekua izan dezaten. | |

| Egoitzetarako baldintza material eta funtzional bereziak | Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako ikuskaketa eta kontrol teknikariek 41/1998 Dekretua aldarazteko adostutako proposamena |
|---|---|
| 4. Eraikinaren plano eguneratuak emango dizkio egoitzak sua itzaltzeko zerbitzuari eta honako hauek azalduko: suaren aurkako larrialditarako planean jasotako hustutze-bideak, sua itzaltzeko ekipo finko eta mugikorrak dauden lekua eta sua gertatzeko arrisku handia duten lekuak.<br><br>Agiri horien —eguneratuta egongo dira— kopia bat egoitza kokatuta dagoen eremuko sua itzaltzeko zerbitzuak erabakitzen duen berariazko leku batean jarriko da, berak baino ez erabiltzeko. | |
| 5. Suaren aurkako sergurtasun sistemak establezimenduko zuzendaritzak antolatuko ditu eta berak hartuko du horiekiko ardura, bai prebentzioari dagokionez, bai detektatu, itzali eta husteari dagokienez. Horiek kontrolatzeko, egindako ikuskaketak erregistratu egingo dira. | |
| 6. Adintsuen egoitzek instalazio hauek eduki beharko dituzte gutxienez:<br>• Seinaleztapena.<br>• Larrialditarako argiak.<br>• Su-itzalgailu mugikorren dotazioa.• Detektatzeko eta alarmarako instalazioa.<br><br>Hori guztia NBE-CPI.96 Arauko estandarren arabera; arau hori osorik aplikatuko da beharrezkoa gertatzen denean. | |
| ***2. Zehaztapen teknikoa: arkitektura eta hirigintza oztopoak.*** | |
| Egoitza guztiek Euskal Autonomia Erkidegoan arkitektura eta hirigintza oztopoei buruz indarrean den araudia bete beharko dute; horretarako, beharrezko gertatzen diren berritze-lanak egin beharko dituzte, aipatu araudian jasotako zehaztapen teknikoak betetzeko. | Egoitza guztiek Euskal Autonomia Erkidegoan irisgarritasunari buruz indarrean den araudia bete beharko dute. |
| ***3. Zehaztapen teknikoa: instalazio elektrikoa.*** | |
| Logela bakoitzak eta, behar denean, bere komunak, hauek edukiko dituzte:<br>1. Sentikortasun handiko diferentzial bat eta magnetotermikoak.<br>2. Logelan eta bertako komunean txirrinak. Txirrin horiek nondik datozen jakiteko modua egongo da kontrol-lekuan<br>Gainera, alarmako txirrina jotzerakoan, logelako atearen gainean argi bat piztuko da eta, berriro prest egoteko, sakagailu batekin itzaliko da.<br>3. Lotarako argia: indar txikiko argi lausotu bat duen lanpara baten bidez; lanpara horren mekanismoa parametroan landatuta geratuko da lurretik 30 cm-ra eta bere bertikalean dagoen etengailu batez eragingo da. | |

| **Egoitzetarako baldintza material eta funtzional bereziak** | **Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako ikuskaketa eta kontrol teknikariek 41/1998 Dekretua aldarazteko adostutako proposamena** |
|---|---|
| ***4. Zehaztapen teknikoa: higiene zerbitzuak.*** | |
| Adintsuentzako egoitzek, dituzten edukiera eta ezaugarriak gorabehera, baldintza hauek bete beharko dituzte:<br><br>1. Gutxieneko zerbitzuak hauek izango dira:<br>a) Logelen aldean komun bat, konketa bat eta dutxa bat eskatuko dira lau erabiltzaileko.<br>b) Alderdi komunetan konketa bat eta komun bat eskatuko dira 15 erabiltzaileko.<br><br>Zerbitzu horiek arkitektura-oztoporik gabekoak eta gurpil-aulkiaz maniobra askorik egin gabe ibiltzeko modukoak izan beharko dute.<br><br>Txirrin bat ere izango dute, eta txirrin hori nondik datorren jakiteko, kontrol-lekuan ohargailu bat izango dute. | |
| 2. Dutxek ez dute arkitektura-oztoporik izango lurrean; telefono erako txorrotak izango dituzte; lurrean zurgapen handia duten sifoidun hustubideak izango dituzte, eta gurpil-aulkiak erabili behar dituzten erabiltzaileei «ad hoc» aulkien bidez erraztuko zaie higienea. | |
| 3. 50 plazatik gorako egoitzek lagunduriko bainugela geriatriko bat izan beharko dute. Bainugela, gutxienez, 15 m.$^2$-koa izango da, bainu-ontzi egokitu bat, komun bat eta konketa bat izango ditu eta garabi geriatriko batek maniobratzeko modukoa izango da. | Egoitza guztiek ezintasun maila handia duten pertsonen higienea bermatzen duten bitarteko teknikoak eduki behar dituzte.<br><br>*Arauan ezarritakoa gainditzen duen errealitate tekniko bati egokitzea da asmoa.* |
| ***5. Zehaztapen teknikoa: alderdi komunak.*** | |
| 1. Alderdi komuntzat jangelak, egongelak, eta ekintza eta aisialditarako gelak hartuko dira. Guztien artean gutxieneko azalera 4,5 m.$^2$-koa izango da erabiltzaile bakoitzeko. | |
| 2. Egoitzek indarrean den legedian eskatutako baldintzak bete beharko dituzte, Taldeko Jantokiei buruzko urriaren 13ko 2817/1983 Errege Dekretuan jasotzen den Osasun eta Teknika Mailako Araudia, bereziki. | |
| 3. Mahaiek gurpil-aulkietan dabiltzan pertsonek erabiltzeko modukoak izan beharko dute. | |

| Egoitzetarako baldintza material eta funtzional bereziak | Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako ikuskaketa eta kontrol teknikariek 41/1998 Dekretua aldarazteko adostutako proposamena |
|---|---|
| 4. Hobeto da neurri txikiko hainbat leku erabiltzea neurri handiko bat baino. Azken aukera hori erabiltzea baino ez dagoenean, komenigarria litzateke zehaztapen hauek kontuan hartzea:<br>• Behar den diseinuaz, masifikazioa ekidingo duten hainbat giro sortuko dira<br>• Jangelak eta egongelak beheko solairuan egongo dira ahal izanez gero, eta alde bakoitzak altzari propioak izango ditu.<br>• Gutxienez, liburutarako altzari bat egongo da. | |
| ***6. Zehaztapen teknikoa: Logelak*** | |
| A. Logelek baldintza hauek bete beharko dituzte:<br>1. Berariaz horretarako lekuak izan beharko dute; ondorioz, beste leku batera igarotzeko ezingo da hortik pasatu.<br>2. Pertsona batentzako edo birentzako izango dira. Plaza guztietatik %25 gutxienez pertsona batentzakoak izango dira.<br>Ehuneko horiek gutxienekoak dira; hala ere, pertsonen intimitateak elkarbizitzan duen garrantzia kontuan hartuta, pertsona batentzako logelak eredugarritzat jotzen dira.<br>Ondoren, logela mota horiek azaltzen dira:<br>a) Pertsona birentzako logelak:<br>• Gutxienez 14 m.$^2$-koak, garbitzeko gela kanpo dela.<br>b) Pertsona batentzako logelak:<br>• Gutxienez, 10 m.$^2$-koak, garbitzeko gela kanpo dela.<br>• Logela guztiek gurpil-aulkietan maniobra zailik egin beharrik gabe ibiltzeko moduan diseinatutakoak izan beharko dute.<br>• Zoladurek erraz garbitzekoak eta ez labainkorrak izan beharko dute. | |
| 3. Argiak irakurtzeko eta lan egiteko aukera emango du. | |
| 4. Egoiliar bakoitzak logelan ekipamendu hau izango du gutxienez:<br>• Gutxienez 90 cm zabaleko ohe bat.<br>• Armairu bat, giltzarekin eta m.$^3$ 1eko gutxieneko edukiaz.<br>• Kaxoidun gau-mahai bat: ertzak biribilduak edo babesgarridunak izan beharko dute.<br>• Aulki bat, beso-euskarriak dituena.<br>• Norberak bakarrik edo besteekin batera erabiltzeko mahai bat, gurpil–aulkietan dabiltzanek erabiltzeko modukoa.<br>• Egoiliarraren egoera fisikoak eskatzen badu, ohe artikulatu bat egongo da | |

| Egoitzetarako baldintza material eta funtzional bereziak | Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako ikuskaketa eta kontrol teknikariek 41/1998 Dekretua aldarazteko adostutako proposamena |
|---|---|
| 5. Ohe baten eta parametro baten arteko aldea ez da 50 cm baino txikiagoa izango eta bestaldeko eta ohearen oinaldeko tarteak 90 cm baino handiagoak izan beharko dute. Oheen artean ere alde hori gorde beharko da. | |
| B. Egoeraren araberako zehaztapena:<br><br>Desoreka psikikoak dituzten egoiliarren kasuan soil-soilik, baldin eta zentroko ohiko elkarbizitza aldatzen badute eta zainketa bereziak behar badituzte, logeletarako prestatutako deseinua A idazatian zehaztutakoaz desberdina izan daiteke, pertsona horien segurtasuna eta atentzioa hobetzeko. | |
| ***7. Zehaztapen teknikoa: Taldeko Jantokiei buruzko Teknika eta Osasun Mailako Araudia.*** | |
| Sukalde-zerbitzua bertakoa edota kontratatutakoa izan daiteke; kasu biotan, indarrean den legedia bete beharko da, Taldeko Jantokiei buruzko Teknika eta Osasun Mailako Araudia, bereziki.<br><br>Egoiliarrek menu biren artean aukeratu ahal izango dute, gutxienez. | |
| ***8. Zehaztapen teknikoa: osasun eremua.*** | |
| Atentzio geriatrikoko zerbitzua nahiz bertako langileek nahiz itundutakoek eman, 25 plazatik gorako egoitzek gune hauek izan beharko dituzte, gutxienez:<br><br>1. Kontsulta-gela:<br>• Leku nahikoa izan beharko du, hitzezko kontsulta eta egoiliarren azterketa eta miaketa egiteko modukoa.<br>• Konketa bat izango du ur hotzaz eta beroaz.<br><br>2. Sendaketen eta botika-kutxaren gela:<br>• 50 plazara arte, kontsulta-gelarekin batera egon daiteke.<br>• Sendaketa-gelak konketa bat izango du ur hotzaz eta beroaz.<br><br>3. Fisioterapia eta errehabilitaziorako gela, mantentze eta errehabilitazio ariketak egiteko; ezaugarri hauek edukiko ditu:<br>• Gutxieneko azalera: 2n/5 $m.^2$, n egoiliarren kopurua delarik; inoiz ezingo da izan 15 $m.^2$ baino txikiagoa.<br>• Higiene-zerbitzuak izan beharko ditu gertu. | |

| **Egoitzetarako baldintza material eta funtzional bereziak** | **Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako ikuskaketa eta kontrol teknikariek 41/1998 Dekretua aldarazteko adostutako proposamena** |
|---|---|
| ***9. Zehaztapen teknikoa: hileta-tokia.*** | |
| 70 plazatik gorako egoitzetan, soil-soilik hiletetarako erabiliko den gela bat egongo da; ezaugarri hauek izango ditu:<br><br>• Gutxienez 12 m.$^2$.<br>• Zuzeneko aireztapena eta hotz-bero egokia<br>• Egoitzarekin barrutik komunikatuta egon beharko du; kanporako sarbidea izango du hurrean, duen erabilerarako egokia. | 70 plazatik gorako egoitzetan, hileta-zerbitzuak jasotzeko aukera bermatuko da edo, horrelakorik ez badago, soil-soilik hiletetarako erabiliko den gela bat egongo da, ezaugarri hauek dituena:<br><br>• Gutxienez 12 m.$^2$.<br>• Zuzeneko aireztapena eta hotz-bero egokia.<br>• Egoitzarekin barrutik komunikatuta egon beharko du; kanporako sarbidea izango du hurrean, duen erabilerarako egokia.<br>• Espazio hau ezin da beste ezertarako erabili.<br><br>*Arauan ezarritakoa gainditzen duen errealitate tekniko bati egokitzea da asmoa.* |
| ***10. Zehaztapen teknikoa: langileak.*** | |
| | Zentroaren erabiltzaileen premiak asetzeko behar den langile-kopurua kalkulatzeko, zuzeneko laguntzako langileak honakoak izango dira: langile zaintzaileak, osasun-langileak, jardueretako begiraleak eta gizarte-laneko langileak. Laguntzako ratioa kalkulatzeko orduan, bolondresak eta ikasleak ez dira, inola ere, zuzeneko laguntzako langileak izango.<br><br>Pertsona bakar batek prestazio ezberdinak egin ahal izatea onartuko da, behar bezalako kualifikazioa daukala bermatuz, eta prestazio horien ordutegiak bateragarri badira. |
| Langile eta egoiliarren arteko proportzioa edo ratioa zehazteko, honako hauek hartuko dira kontutan: | Langile eta egoiliarren arteko gutxieneko proportzioa edo ratioa zehazteko, honako hauek hartuko dira kontutan: |
| 1. Zenbakitzailea: langileak lan egindako ordu guztiak, duten lan-harremana gorabehera (finkoa, aldi baterakoa edo ordezkoa; dedikazio osoa edo partziala; zerbitzu profesionalengatiko ordaina, eta abar), aplikagarri den lan–hitzarmenean, edo, hori ezean, Langileen Estatutuan ezartzen den urteko orduen artean zatituta..<br><br>2. Izendatzailea: egoitzan hartuta dauden plazen kopurua.<br><br>3. Langileen eta egoiliarren arteko proportzioa edo ratioa, gutxienekoa, hau izango da:<br><br>• 0,25, egoitzan euren kabuz jarduteko gai diren egoiliarrentzat (aurrerantzean, gai direnak).<br><br>• 0,45 euren kabuz jarduteko gauza ez diren egoiliarrentzat (aurrerantzean, laguntza behar dutenak). Zuzeneko atentzioko langileen —OLT-EDU eta zaintzaileak— proportzioak plantilla osoaren % 65a gainditu beharko du. | 1. Zuzeneko arreta presentzialeko langileen tasa edo ratioa.<br><br>• Zuzeneko arreta ematen duten langileen eta zentroaren erabiltzaileen artean dagoen benetako tasa edo ratio presentziala honakoa izan behar da, gutxienez:<br><br>– Zuzeneko arretako langileen 1/30eko ratioa, euren kabuz neurri batean jarduteko gai diren erabiltzaileei dagokienez (hau da, zuzeneko arretako langile 1, 30 erabiltzaileko –edo zatikiak-). Ratio hau 8:00etatik 10:00etara arte bete behar da.<br><br>– Zuzeneko arretako langileen 1/15eko ratioa, euren kabuz jarduteko gai ez diren erabiltzaileei dagokienez (hau da, zuzeneko arretako langile 1, 15 erabiltzaileko –edo zatikiak-). Ratio hau 8:00etatik 10:00etara arte bete behar da.<br><br>– Zuzeneko arretako langileen 1/40ko ratioa, erabiltzaileei dagokienez (hau da, zuzeneko arretako langile 1, 40 erabiltzaileko –edo zatikiak-). Ratio hau 10:00etatik 8:00etara arte bete behar da. |

| Egoitzetarako baldintza material eta funtzional bereziak | Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako ikuskaketa eta kontrol teknikariek 41/1998 Dekretua aldarazteko adostutako proposamena |
|---|---|
| Laguntzadun plazak dituzten egoitzetan, erizaintzako zerbitzu bat (OLT edo EDU) egongo da, bere eskumenekoak diren egitekoak betetzeko.<br><br>• Izaera bereziaz, guztira 15etik 29ra egoiliar dituzten egoitzek ondoko taulan adierazten diren langileak izan beharko dituzte gutxienez: | 25 erabiltzailerainoko egoitzetan, berezko OLT/EUD zerbitzua eman beharko du egoitzak, gutxienez ordu betez egunean. Gainera, 10 egoiliar bakoitzeko (edo zatikiak) egunean beste ordu bat ematea exijitzen da. Ordu hauek langileen ratioan zenbatuko dira.<br><br>Ratio hauek uneoro bete behar dira, eguneroko gutxienekoak izanik (jaiegunak barne). Zentro batean arreta ratio ezberdinak dagozkien pertsonak badaude, administrazio eskudunak erabakiko du zenbat langile egon behar den gutxienez, talde bakoitzean dagoen pertsona-kopuruaren proportzioa kontuan izanik. |

| Egoiliarren kopurua | Langileak (kopurua) | |
|---|---|---|
| | Gai direnentzako plazak baino ez dituzten egoitzak | Laguntza behar dutenentzako plazak baino ez dituzten egoitzak |
| 15-19 | 5 | 9 |
| 20-24 | 7 | 11 |
| 25-29 | 8 | 13 |

Egoitzak duen edukiera gorabehera, egoitzaren batek gai direnentzako plazak eta laguntza behar dutenentzako plazak baditu, administrazio eskumendunak, «gai direnak/laguntza behar dutenak» ratioa kontuan hartuta erabakiko du langileen gutxieneko kopurua

2. Zuzeneko arreta orokorreko langileen tasa edo ratioa.

Gutxieneko tasa edo ratioa betetzeko, urte osoan, zuzeneko arretako langileen eta zentroko erabiltzaileen arteko proportzioa, batez beste, honakoa izango da:

- Zuzeneko arretako langileen 1/25eko ratioa, euren kabuz neurri batean jarduteko gai diren erabiltzaileei dagokienez (hau da, zuzeneko arretako langile 1, 25 erabiltzaileko –edo zatikiak-). Ratio hau 8:00etatik 10:00etara arte bete behar da.
- Zuzeneko arretako langileen 1/12ko ratioa, euren kabuz jarduteko gai ez diren erabiltzaileei dagokienez (hau da, zuzeneko arretako langile 1, 12 erabiltzaileko –edo zatikiak-). Ratio hau 8:00etatik 10:00etara arte bete behar da.
- Zuzeneko arretako langileen 1/30eko ratioa, erabiltzaileei dagokienez (hau da, zuzeneko arretako langile 1, 30 erabiltzaileko –edo zatikiak-). Ratio hau 10:00etatik 8:00etara arte bete behar da.

25 erabiltzailerainoko egoitzetan, berezko OLT/EUD zerbitzua eman beharko du egoitzak, gutxienez ordu betez egunean. Gainera, 10 egoiliar bakoitzeko (edo zatikiak) egunean beste ordu bat ematea exijitzen da. Ordu hauek langileen ratioan zenbatuko dira.

Ratio hauek urtero bete behar dira. Halere, justifikazioa hilabete naturalen arabera eska daiteke, baldin eta aparteko egoerarik gertatzen ez bada.

Zentro batean arreta ratio ezberdinak dagozkien pertsonak badaude, administrazio eskudunak erabakiko du zenbat langile egon behar den gutxienez, talde bakoitzean dagoen pertsona-kopuruaren proportzioa kontuan izanik.

| Egoitzetarako baldintza material eta funtzional bereziak | Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako ikuskaketa eta kontrol teknikariek 41/1998 Dekretua aldarazteko adostutako proposamena |
|---|---|
| | 3. Bestelako langile-tipologiak.<br>Zentro guztietan zuzendari bat egon behar da. Pertsona honek honako baldintzak bete behar ditu:<br><br>– 50 plazetarainoko egoitzak: ikasketa ertainetako titulazioa edo hiru urteko esperientzia.<br><br>– 50 plazatik gorako egoitzak: goi titulazioa edo bost urteko esperientzia.<br><br>Ezin du astean hamar ordu baino gehiago erabili zuzeneko arreta egiteko.<br><br>Zeharkako arreta egoitzako langileek, azpikontratatutakoek edo bestelako kontratuak dituztenek egin dezakete. Zentroak eman beharreko zerbitzuak bermatu behar dituzte betiere.<br>Zentro guztietan, langileen ratioa pertsona bakar batekin osatzen denean, beste bat egon behar da aurkitzeko moduan, larrialdirik balego.<br><br>*Puntu hau sakon azaldu behar da.*<br><br>*41/98 Dekretuaren arabera, ratioa kalkulatzeko formulak emaitza bera ematen du, hitzarmenean ezartzen diren lanorduak gorabehera. Horrenbestez, lan hitzarmeneko ordu-kopurua murriztuz gero, erabiltzaile bakoitzeko dauden langileen ratioa berbera izango da; beraz, erabiltzaileei arreta egiteko ordu-kopurua murrizten da.*<br><br>*Horregatik, formula aldatzea proposatzen da, 202/2000 Dekretuan (euren kabuz jarduteko gai ez diren adintsuen eguneko zentroei buruzkoan) arautzen den formulazio-mota erabiliz eta, zeharkako arreta barik, zuzeneko arreta arautuz.*<br><br>*Proposatutako ratioak erabilitako sistemara bihurtu ondoren, zuzeneko arretako ratioa gehituko da, euren kabuz jarduteko gai ez diren pertsonentzat nahiz euren kabuz jarduteko gai diren pertsonentzat, baina gutxieneko ratioen parametroen barruan mantentzen da, 98ko ratioak gainditu gabe. Hori ratio orokorrei dagokienez, gutxieneko presentzialetan zuzeneko arretako ratioak 41/98 Dekretukoak baino zertxobait txikiagoak baitira. Azken ratio horiek aparteko egoerak arautzeko direnez gero (jaiegunak, asteburuak, grebak, etab), ulergarria da hauek denboraldi normaletarako ratioak baino txikiago izatea.* |

<table>
<tr><th>Egoitzetarako baldintza material eta funtzional bereziak</th><th>Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako ikuskaketa eta kontrol teknikariek 41/1998 Dekretua aldarazteko adostutako proposamena</th></tr>
<tr><td></td><td>Ratioen alderaketa honelakoa da:<br><br>
<table>
<tr><th></th><th>Gai direnak</th><th>Laguntza behar dutenak</th></tr>
<tr><td>41/1998 Dekretua (zuzeneko arreta, %65)</td><td>0,25</td><td>0,45</td></tr>
<tr><td>Proposamena (zuzeneko arreta). Gutxieneko presentzialak</td><td>0,16</td><td>0,29</td></tr>
<tr><td>Proposamena (zuzeneko arreta).</td><td>0,15</td><td>0,25</td></tr>
<tr><td>Gutxieneko orokorrak</td><td>0,19</td><td>0,32</td></tr>
</table>
<br>Ikusten denez, indarrean dagoen arautegiaren muga absolutuak ez dira gainditzen; beraz, proposamen hau aldarazpen tekniko gisa aurkez daiteke. Egoitza pribatuen estatuko hitzarmeneko ordu-kopurua eta baldintzak erabiliz sortu da balizko kasu hau.<br>Era berean, plaza bakoitzeko OLT/EUDen zerbitzu maila, egoitzetarako, zehatz definitzen da, eta zentroetako zuzendariek titulazioan edo esperientzian bete behar dituzten zenbait betebehar eransten dira.</td></tr>
<tr><td>Gainera, egoitza guztiek honako hauek izan beharko dituzte:<br>• Langileen arteko bilerak, aldizka: ahal baldin bada, astero egingo dira; derrigor, hilero gutxienez.<br>• Egoiliarrak atenditzeko, langileek jardun onaren gidaliburu bat, propioa edo bereganatua, izango dute.<br>• Banan-banako eta zuzeneko atentziorako programak: egoiliar bakoitzari langile bat izendatuko zaio, giltzarri eta erreferentziatzat izango duena.<br>• Langileen jardute-protokoloak.<br>• Egoiliarrek beharra baldin badute, lagundu egingo zaie beren buruak zaintzen eta garbitzen, bai eta jaikitzen, oheratzen eta komunera eramaten ere.<br>• Langileek, segurtasun eta higienearen alorrean, Laneko Segurtasun eta Higienerako Ordenantza Orokorrean jasotako baldintza bereziak bete beharko dituzte.</td><td></td></tr>
<tr><td colspan="2">11. Zehaztapen teknikoa: programazioa.</td></tr>
<tr><td>Jardueren urteko programa bat ezarriko da; jarduerok antolatuta egon beharko dute eta mota askotakoak izan beharko dute. Programa horretan, bestalde, helburuak, egutegia, burutze metodoak eta teknikak eta ebaluatzeko sistemak jasoko dira.<br><br>Beren-beregi eta ezaugarri berberekin, gizarte eta kultur animaziorako programa bat egongo da eta, behar denean, burutik nahasita dauden pertsonentzat prebentzio eta tratamendurako programa bat.</td><td></td></tr>
</table>

| Egoitzetarako baldintza material eta funtzional bereziak | Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako ikuskaketa eta kontrol teknikariek 41/1998 Dekretua aldarazteko adostutako proposamena |
|---|---|
| Etxebizitza komunitarioek, dekretu honen bidez arautzen baitira, baldintza hauek bete beharko dituzte: | |
| 1. Ezgaitasun maila jakin bat dutenentzat ere, erraz iristeko moduko lekuak izan beharko dute, kanpotik nahiz barrutik. | |
| 2. Igogailua edo pertsonak igotzeko beste baliabideren bat izan beharko dute, bizilekuaren zati bat edo osoa beheko solairua ez den beste solairu batean baldin badago. | |
| 3. Etxebizitza komunitarioak pertsonako 20 m.$^2$-ko azalera erabilgarria izan beharko du gutxienez; horietarik 4,5 m.$^2$ egongela-jantokiak hartu beharko du pertsonako. | |
| 4. Etxebizitzako logelak pertsona batentzakoak edo birentzakoak izan daitezke. Pertsona batentzako logelek plaza guztien %25a izan beharko dute, gutxienez. | |
| 5. Etxebizitzak higiene-zerbitzu bat izan beharko du lau pertsonako. Zerbitzu horrek komuna, konketa eta dutxa edo bainu-ontzia izan beharko ditu. | |
| 6. Logela bakoitzak txirrin bat izan beharko du kontrol-gune bati konektatuta. | |
| 7. Etxebizitzak kanpoarekin komunikatutako telefono bat izango du. | |
| 8. Langileak.– Arau orokor gisa, ratio hau izango dute: 0,25 gai diren pertsonentzat eta 0,45 laguntza behar duten pertsonentzat.<br><br>Gai direnentzako plazak eta laguntza behar dutenentzako plazak egonez gero, administrazio eskumendunak, «gai direnak/laguntza behar dutenak» ratioa kontuan hartuta erabakiko du langileen gutxieneko kopurua. | Zentroaren erabiltzaileen premiak asetzeko behar den langile-kopurua kalkulatzeko, zuzeneko laguntzako langileak honakoak izango dira: langile zaintzaileak, osasun-langileak, jardueretako begiraleak eta gizarte-laneko langileak. Laguntzako ratioa kalkulatzeko orduan, bolondresak eta ikasleak ez dira, inola ere, zuzeneko laguntzako langileak izango.<br><br>Pertsona bakar batek prestazio ezberdinak egin ahal izatea onartuko da, behar bezalako kualifikazioa daukala bermatuz, eta prestazio horien ordutegiak bateragarri badira.<br><br>Langile eta egoiliarren arteko gutxieneko proportzioa edo ratioa zehazteko, honako hauek hartuko dira kontutan:<br><br>a) Zuzeneko arreta presentzialeko langileen tasa edo ratioa.<br><br>Zuzeneko arreta ematen duten langileen eta zentroaren erabiltzaileen artean dagoen benetako tasa edo ratio presentziala honakoa izan behar da, gutxienez: |

| Egoitzetarako baldintza material eta funtzional bereziak | Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako ikuskaketa eta kontrol teknikariek 41/1998 Dekretua aldarazteko adostutako proposamena |
|---|---|
| | • Zuzeneko arretako langileen 1/30eko ratioa, euren kabuz neurri batean jarduteko gai diren erabiltzaileei dagokienez (hau da, zuzeneko arretako langile 1, 30 erabiltzaileko –edo zatikiak-). Ratio hau 8:00etatik 10:00etara arte bete behar da.<br>• Zuzeneko arretako langileen 1/15eko ratioa, euren kabuz jarduteko gai ez diren erabiltzaileei dagokienez (hau da, zuzeneko arretako langile 1, 15 erabiltzaileko –edo zatikiak-).<br>Ratio hauek urtero bete behar dira. Halere, justifikazioa hilabete naturalen arabera eska daiteke, baldin eta aparteko egoerarik gertatzen ez bada.<br>Zentro batean arreta ratio ezberdinak dagozkien pertsonak badaude, administrazio eskudunak erabakiko du zenbat langile egon behar den gutxienez, talde bakoitzean dagoen pertsona-kopuruaren proportzioa kontuan izanik.<br>b) Bestelako langile-tipologiak.<br>Zentro guztietan zuzendari bat egon behar da. Pertsona honek honako baldintzak bete behar ditu:<br>– Ikasketa ertainetako titulazioa edo hiru urteko esperientzia<br>– Ezin du astean hamar ordu baino gehiago erabili zuzeneko arreta egiteko.<br>Zeharkako arreta egoitzako langileek, azpikontratatutakoek edo bestelako kontratuak dituztenek egin dezakete. Zentroak eman beharreko zerbitzuak bermatu behar dituzte betiere.<br>Langileen ratioa pertsona bakar batekin osatzen denean, beste bat egon behar da aurkitzeko moduan, larrialdirik balego. |
| 9. Etxebizitza komunitarioek suaren aurkako gutxieneko instalazio hauek izan beharko dituzte:<br>– Seinaleztapena.<br>– Larrialditarako argiak.<br>– Su-itzalgailu mugikorren dotazioa | |

| **Babestutako apartamentuentzako baldintza material eta funtzional bereziak** | **Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako ikuskaketa eta kontrol teknikariek 41/1998 Dekretua aldarazteko adostutako proposamena** |
|---|---|
| Babestutako apartamentuek, dekretu honen bidez arautzen baitira, baldintza hauek bete beharko dituzte: | IV. ERANSKINAREN ALDARAZPENAK ADOSTU GABE DAUDE ORAINDIK |
| 1. Pertsona fisiko bat izango dute, erabiltzaileentzat erreferentzia izateko ardura izango duena. | |
| 2. Ezgaitasun maila jakin bat dutenentzat ere, erraz iristeko moduko lekuak izan beharko dute, kanpotik nahiz barrutik. | |
| 3. Igogailua edo pertsonak igotzeko beste baliabideren bat izan beharko dute, bizilekuaren zati bat edo osoa beheko solairua ez den beste solairu batean baldin badago. | |
| 4. Apartamentuen gutxieneko azalera:<br>– Pertsona batentzako apartamentua: 25 $m^2$.<br>– Pertsona birentzako apartamentua: 35 $m^2$. | |
| 5. Apartamentu bakoitzaren gutxieneko ekipamendua hau izango da: sukaldea, egongela-jangela, logela eta garbigela. Azken horrek baino ez du izango leku bereizi baten beharra. | |
| 6. Apartamentu guztiek elkar-komunikaziorako sistema egoki bat izan beharko dute larrialdietarako. | |
| 7. Apartamentuen multzoak kanpoarekin komunikatutako telefono bat izango du. | |
| 8. Zerbitzuak komunak, aukeran erabiltzekoak, eta erabilera askotarako gune bat edukiko dituzte. | |
| 9. Apartamentuetarako sarbideek suaren aurkako gutxieneko instalazio hauek izan beharko dituzte:<br>– Seinaleztapena.<br>– Larrialditarako argiak.<br>– Su-itzalgailu mugikorren dotazioa. | |

| Homologatzeko irizpideak | Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako ikuskaketa eta kontrol teknikariek 41/1998 Dekretua aldarazteko adostutako proposamena |
|---|---|
| Legezko baimena eskuratzeko baldintza material eta funtzionalak betetzeaz gain, titularitate pribatua duten adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuek, homologazioa borondatez eskatzen badute, kalitate, eraginkortasun eta ekonomia eta gizarte kostuei buruzko irizpide hauei lotu beharko zaizkie: | |
| A) Adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzu guztientzat:<br>1. Baimena emateko baldintzetan jasota egon ez arren, erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetzen lagun dezaketen gelak edo lekuak izatea.<br>2. Gelak erabiltzaileen ongizatea hobetu dezaketen ekipamenduez hornituta izatea.<br>3. Ekonomia-balantze saneatua izatea.<br>4. Helburuak eta, kasua bada, programak eta jarduerak administrazio eskumendunak plangintza eta programazioaren alorrean ezartzen dituen helburu eta lan-ildoetara egokituta izatea.<br>5. Administrazio eskudunak ikuskatze-lanetan proposatzen dizkion iradokizunak betetzea. | |
| B) A puntuan zehaztutako irizpideez gain, etxebizitza komunitarioek eta egoitzek ebaluaziorako plan propio bat, prestakuntzaren alorrekoa, aurkeztu beharko dute edo, bestela, gehienez ere hurrengo urtean ezartzeko konpromisoa; horri egiten zaion segimenduaren berri administrazio eskumendunari eman beharko zaio urtero. | V. ERANSKINAREN ALDARAZPENAK ADOSTU GABE DAUDE ORAINDIK |
| C) Eranskin honetako A eta B puntuetan zehaztutako irizpideez gain, egoitzek honako hauek bete beharko dituzte:<br>1. Egoitza kokatuta dagoen gizarte-ingurunean eta komunitatean parte hartzeko jardueren programa berezi bat prestatu eta jardunean jarri beharko dute; horrela, egoitzaren erabiltzaileak gainerako biztanleekin integratuko dira eta komunitateko beste baliabide batzuekin harremanetan jarriko.<br>2. Prozesu dinamiko eta integratzaile bat ezarriko dute; prozesu horretan, egoitza gune irekitzat hartuko da, non komunitateko gainerako taldeek parte hartzeko jarduerak burutzen baitira.<br>3. Langileak etengabe prestatzeko programa bat izango dute.<br>4. Langileei eta egoiliarrei dagokienez, lanera ez agertzeen eta istripuen indizea txikia izan beharko da.<br>5. Atondoa eta/edo harrera izan beharko dute.<br>6. Errehabilitatze-programa aplikatzerakoan emaitza positiboak lortu beharko dituzte; egoitzei derrigor egin beharreko ebaluazioetan egiaztatuko da hori. | |

# II. ERANSKINA

## MENDEKOTASUNA DUTEN ADINEKO PERTSONENTZAKO EGUNEKO ZENTROEN KALITATE MATERIAL ETA FUNTZIONALAREN BALDINTZAK

| Mendekotasuna duten pertsonentzako eguneko zentroen kalitate material eta funtzionalaren baldintzak |
|---|
| Oro har, mendekotasuna duten adineko pertsonentzako eguneko zentroek, bai titulartasun publikokoek, bai pribatukoek, honako baldintza material eta funtzionalak bete beharko dituzte: |
| **1. Kokapena:**<br>Eguneko zentroa era independentean edo erabiltzaileei zenbait jarduera egiteko aukera ematen dien beste gizarte baliabideren baten mendeko zentro moduan eratu ahal izango da.<br>Edonola ere, zentroa kokatuta egongo den lekuak ez du isolatuta egon behar eta osasungarria izan behar du. Ezin du zaratatsua izan edo erabiltzaileentzat arriskutsu. Ongi argiztatuta izan behar ditu bere inguruak. Gainera, kanpoko aldean lorategiak edo paseotxoak egiteko espazio zabalak izan behar ditu edo, bestela, plaza edo lorategi publikoetara sarbide erraza izan beharko du.<br>Eguneko zentroa beste gizarte baliabideren baten egoitzan (etxebizitzan, lokalean, eta abar) kokatuta badago, zentroak espazio fisiko jakin bat izango du, Dekretu honetan xedatutakoari jarraiki, eta erabiltzaileak espazio horrekin identifikatuta sentituko dira. Gainera, beti lotura egokia izan beharko da azaleraren, jardueraren eta erabiltzaile kopuruaren artean. |
| **2. Espazioaren banaketa:** |
| ***2.1. Ezaugarri orokorrak:***<br>a) Eguneko zentrora kanpoko aldetik izango dituen sarbideak behar bezala moldatu beharko dira, bai egokitutako garraiorako, bai gurpildun aulkiak sartzeko; esaterako: arrapaladun desnibelak, laguntza teknikoak, markesinadun sarbide-malgukia, eta abar.<br>b) Eguneko zentroko espazio guztiak erabiltzaileei eta bertan egingo diren jarduerei egokituko zaizkie, eta erabiltzaile kopuruaren eta haien profilaren araberako moduluzko banaketa egiteko aukera ere egon liteke.<br>c) Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako eguneko zentroak, irisgarritasunari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean den araudian xedatutakoaren mende egongo dira. |
| ***2.2. Oinarrizko elementuen garapen teknikoa:***<br>2.2.1. Harrera gunea eta jantzizaindegia:<br>Jantzizaindegia ezartzeko espazio bat egongo da; apalategia eta esekigailuak zintzilikatzeko barra dituzten armairuak izango ditu.<br>2.2.2. Espazio nagusia:<br>Zentroaren espazio nagusiak gutxienez bi gunetan banatutako egitura izango du. Bi gune horiek ekintzetarako eta atseden hartzeko lekuak izango dira.<br>Bi gune horiek elkarrekin komunikatuta egongo dira eta guneek ezingo dute elkarren artean eta kanpoko alderako sarbideetan inolako traba arkitektonikorik izan. Gainera, gune bakoitzak gutxienez 4,5 metroko azalera erabilgarria izan beharko du plaza bakoitzeko.<br>Bestalde, aipatu ditugun bi guneek funtzio aniztasuna izango dute ezaugarri nagusi.<br>2.2.3. Erabiltzaileentzako bainugelak eta komunak:<br>a) Bainugela geriatrikoak:<br>• Gutxieneko ratioa: komun geriatriko 1 20 erabiltzaileko edo zatikiko.<br>• Gutxieneko banako azalera erabilgarria: 8 metro koadro.<br>• Gurpildun aulkiek eta garabi geriatrikoek sartzeko modukoak izan beharko dute<br>• Honako elementuak izan beharko ditu gutxienez: dutxa edo bainu-ontzi geriatriko bat, komuna, eta oinarririk gabeko eta aginte bakarreko kanilako konketa.<br>Bainu-ontzia jartzea erabakiz gero, 15 metro koadroko azalera erabilgarria izan beharko du gutxienez.<br>Dutxa jartzea erabakiz gero, ez du lurrean inolako traba arkitektonikorik izango, telefono erako kanila izan beharko du eta lurrean zurgatzeko ahalmen handia duen hustubide sifonikoa izango du. Hustubide horri esker, eta ad hoc aulkien bidez, gurpildun aulkia erabiltzen duten erabiltzaileen higienea erraztuko da. |

| Mendekotasuna duten pertsonentzako eguneko zentroen kalitate material eta funtzionalaren baldintzak |
|---|
| Gurpildun aulkian dabiltzan pertsonek edozein elementu erabiltzeko aukera izango dute, inolako traba arkitektonikorik gabe, eta elementu horiek erabiltzeko laguntza teknikoa egongo da.<br>• Zoru ez irristagarria.<br>• Garbitzeko errazak diren zorua eta paramentu bertikalak.<br>• Laguntza eskatzeko botoia.<br>• Konketaren gainean ispilua egongo da eta inklinazio erregulagarria izango du paramentu bertikalarekiko.<br>• Komunera sartzeko ateak kanpotik desblokeatzeko botoia izango du.<br>b) Komunak:<br>• Bainugela geriatrikoez gain, komunaz eta konketaz osatutako beste komun bat izango da 15 erabiltzaileko edo zatikiko.<br>• Gutxieneko banako azalera erabilgarria: 3,5 metro koadro.<br>• Oinarririk gabeko komuna eta konketa. Konketak, gainera, aginte bakarreko kanila izango du.<br>• Gurpildun aulkian ibiltzen diren pertsonek edozein elementu erabiltzeko aukera izango dute, inolako traba arkitektonikorik gabe, eta elementu horiek erabiltzeko laguntza teknikoa egongo da.<br>• Zoru ez irristagarria.<br>• Garbitzeko errazak diren zorua eta paramentu bertikalak.<br>• Norbaiti deitzeko botoia.<br>• Komunera sartzeko ateak kanpotik desblokeatzeko botoia izango du. |
| 2.2.4. Jarduera profesionalen gunea:<br>Erabilera anitzeko bulegoa izango du (senideen eta erabiltzaileen arretarako, mediku kontsultarako, botikin moduan, eta abar). Bulegoak konketa eta esplorazio ohatila izango ditu. |
| 2.2.5. Jangelaren gunea:<br>Gutxieneko azalera: 2 metro koadro erabiltzaileko, jangelaren aldi bereko erabilerako. Gehienez bi txandatan erabili ahal izango da.<br>Sukaldeko zerbitzua bertakoa edo kontratatutakoa izan daiteke.<br>Sukalde instalaziorik ez badago, office-rako gutxieneko espazio bat utziko da. Gune horrek, gutxieneko instalazio batzuekin, bermatu egin behar du elikagaiak behar bezala maneiatzea eta prestazio eta zerbitzu osagarriak ematea. |
| 2.2.6. Oro har, kontuan hartuko da beste gizarte baliabideren bati atxikitako eguneko zentroek (egoitzek, etxebizitzek, eta abar) beste baliabide horrekin partekatu ahal izango dituela honako espazio hauek: jangela, bulego profesionala eta harrera. Partekatze hori beste gizarte baliabideak gune horiek behar baditu gertatuko da. |
| **3. Instalazioak:** |
| ***3.1. Suteen kontrako instalazioak:***<br>Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako eguneko zentro guztiek honako instalazioak izango dituzte gutxienez:<br>• Seinaleztapena.<br>• Larrialdietarako argiztapena.<br>• Su-itzalgailu eramangarrien hornidura.<br>• Detektatze eta alarma instalazioak.<br>Instalazio horiek guztiek NBE-CPI.96 Arauaren araberakoak izan behar dute, eta egoki denean, arau hori oso-osorik aplikatu ahal izango da.<br>Establezimenduaren zuzendaritzak antolatuko du suteen kontrako segurtasun sistemen mantenuaz eta mantenu horren erantzulea bera izango da, bai prebentzioari, bai detektatzeari, bai itzaltzeari, bai zentroa jendez husteari dagokienez; horretarako, ikuskapenen erregistroa egingo da.<br>Gainera, eguneko zentroko langile guztiek ezagutu behar dituzten arau garbi batzuk daude, prebentzioaren, detektatzearen, suaren aurreko jokabidearen eta lokala jendez hustearen gainean. |

| **Mendekotasuna duten pertsonentzako eguneko zentroen kalitate material eta funtzionalaren baldintzak** |
|---|
| ***3.2. Instalazio elektrikoa:***<br>Instalazio elektriko egokia izan beharko du egoitzak eta erabiltzaileentzako babes zehatzak egongo dira. Entxufe guztiek estalkia izan beharko dute.<br>Komunek, zehazki, honakoa ere izango dute:<br>• Laguntza eskatzeko txirrina. Txirrin horren abisua kontrol postuan ikusi ahal izango da eta deia nondik datorren jakin ahal izango da horrela. |
| ***3.3. Berogailua:***<br>Berogailu instalazioa izan beharko du egoitzak, dagozkion segurtasun neurriekin. Dagoen tenperaturaren arabera berogailua erabiltzeko beharra dagoenean, erosoago egongo dira erabiltzaileak eta bertako langileak. |
| ***3.4. Argiztapena eta aireztapena:***<br>Eguneko zentro osoan argiztapen maila egokia izango da eta espazio nagusian eta jangelan aireztapen naturala edukiko da. Alabaina, aireztapen artifiziala izan daiteke gainerako geletan. |
| ***3.5. Altzariak:***<br>Altzariek segurtasun eta erosotasun baldintzak beteko dituzte. Mahaietara gurpildun aulkiekin iritsi ahal izango da. Aulkiak sendoak izango dira, oinarri ona edukiko dute eta garbi daitekeen materialez egindakoak izango dira.<br>Gainerako elementuak sendoak izango dira eta ez dute egitura arriskutsurik izango. Gainera, izkinak biribilduta izango dituzte edo, bestela, elementu babesleren bat izango dute jarrita. |
| ***3.6. Dekorazioa:***<br>Narriadura kognitibo handia duten adineko pertsonentzako bereziki pentsatutako eguneko zentroetan, erabiltzaileen denbora-espazio orientazioa eta memoria indartuko da dekorazio egokiaren bidez (ordulariak, egutegiak, errotuluak, eta abar). Gainera, hormetan eta zoruetan kolore leunak erabiliko dira eta behar bezalako kontrastea egiten duten koloreko atentzio-guneak (mahaiak, iragarki-oholak, eta abar). Ez dira pertsona horientzako eskuragarri eta arriskutsuak dekorazio elementuak ezarriko eta, oro har, instalazioen segurtasun pasiboari emango zaio garrantzia. |
| ***3.7. Igogailuak:***<br>Eguneko zentroa edo bere zatiren bat beheko solairuan kokatuta ez badago, igogailua izango da hara heltzeko. Igogailuak gurpildun aulkiekin erabiltzeko modukoa izan beharko du. |
| ***3.8. Telefonoa:***<br>Gutxienez, solairu bakoitzeko telefono publiko bana egongo da kanpoko aldearekin konektatuta. |
| **4. Araudi, administrazio eta ekonomia arloko ezaugarriak:** |
| ***4.1. Barne erregimeneko erregelamendua:***<br>Erregelamendu bat izango dute behar bezala argitaratua eta hedatua. Araudiak honako guztia barneratu beharko du:<br>• Eguneko zentroaren helburuak.<br>• Edukiera (plaza kopurua).<br>• Erabiltzaileen eta langileen eskubideak eta betebeharrak.<br>• Barne funtzionamenduko arauak.<br>• Erabiltzaileen edo haien lege-ordezkarien parte hartze demokratikorako bideak.<br>• Erreklamazioen eta kexen prozedura.<br>• Zentroak ematen dituen zerbitzuen ezaugarriak.<br>Erregelamenduaren kopia bat emango zaio pertsona interesatu orori edo haren lege-ordezkariari eguneko zentroan sartu aurreko bisitaldian. |
| ***4.2. Erregimen administratiboa.***<br>a) Idatziz jaso beharko dira, kontratuzko agiri baten bidez, egonaldiaren oinarrizko baldintzak eta baldintza zehatzak eta, besteak beste, honako puntuak barneratu beharko ditu agiri horrek:<br>• Onarpenen, bajen eta absentzien sistema.<br>• Prezioak: egonaldiaren eta eskaintzen diren zerbitzuen kostua.<br>• Eskaintzen diren zerbitzuen zenbatekoa kobratzeko sistema.<br>Agiri horrek erabiltzaileen edo haien lege-ordezkarien adostasuna beharko du. |

**Mendekotasuna duten pertsonentzako eguneko zentroen kalitate material eta funtzionalaren baldintzak**

b) Zentroan sartzeko espedienteaz gain, erabiltzaile bakoitzaren bakarkako fitxategia izango da eta bertan bilduko dira, era jarraituan, erabiltzailearen gizarte, osasun eta administrazio mailako datu nagusiak. Gainera, aurreko puntuan azaldutako agiriaren kopia ere egongo da jasota fitxategi horretan.

c) Iradokizun-kutxa eta erreklamazio-orriak izan beharko dira derrigorrez, eta kexak eta hartutako neurriak behar bezala jasota geldituko direla bermatu beharko da.

d) Administrazioari honako gaien inguruko informazioa eman beharko zaio, Administrazioak berak erabakitako maiztasunarekin:

- Erabiltzaileen zerrenda eguneratua.
- Gizarte zerbitzuak hobe planifikatzeko eta antolatzeko eska daitezkeen estatistika datuak.

***4.3. Ekonomikoak:***

Kontularitza erregimena: eguneko zentroko administrazioa legez dagokion kontularitza erregimenari egokituko zaio.

Prezio erregimena: Prezio tarifak ezarriko dira. Tarifa horietan zehaztuta agertuko dira prezioaren indarraldia eta horren baitan sartzen den zerbitzua edo zerbitzu-sorta. Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako titulartasun pribatuko eguneko zentroek, zehazki, ongi ikusten den leku batean jarri beharko dute jarduteko baimena agertzen duen agiria, baita administrazio eskudunari jakinarazi zaizkion prezio-tarifak ere.

**5. Prestazioak:**

Honako prestazioak daude ezarrita, jarraian adieraziko dugun izaerarekin:

***5.1. Derrigorrezkoak:***

a) Oinarrizko arreta pertsonala:

Laguntza hori autonomiarik ez dutelako beren kasa bete ezin dituzten beharrak dauzkaten pertsonei egongo dira zuzenduta.

Zerbitzu honen barnean dago norberaren gaitasunak garatzera bideratutako jarduerak planifikatzea. Gainera, erabiltzaileengan gerta daitezkeen aldaketak ikusi eta horien berri eman beharko da, baita erabiltzaileak gainbegiratu eta zaindu ere, batik bat, buruko trastornoak edota kognitiboak dituzten pertsonen kasuan. Horretarako, zenbakia, data eta zigilua behar bezala ezarrita izango duen jazoera-liburu bat eduki beharko da.

b) Eguneroko jarduerak egokitzea.

c) Gizarte eta kultura mailako dinamizazioa:

Gizarte parte hartzea bultzatzea helburu izango duten gizarte eta kultura mailako jarduerez osatutako egitaraua izango du zentroak. Aisialdi aktiboaren gaineko edukiak eta parte hartze metodologia emango ditu eta horiek ezinbestekoak izango dira zentroan barneratzeko eta adineko pertsonak komunitatearen baitan era aktibo iraun dezaten lortzeko.

d) Sukaldaritza:

Erabiltzaileak behar bezala elikatuta daudela ikusi beharko da eta behar diren elikadura pautak baliatuko dira horretarako.

Eguneko zentroaren funtzionamendu ordutegiaren baitan egin beharreko otorduek erabiltzaileen behar zehatzei egokituta egon beharko dute, bai kopuru aldetik, bai kalitate eta barietate aldetik.

Honako zerbitzuak eskainiko ditu:

- Gosaria, bazkaria eta askaria, norberaren erabilera-ordutegiaren arabera.
- Elikagaien kontrol dietetiko eta kalorikoa.
- Behar denean, patologia bakoitzarentzat, zehazki, bere dieta berezia prestatzea, pauta dietetiko egokiak ezarri dituzten langile espezialisten zuzendaritza eta gainbegiraketapean.
- Higienearekin eta elikagaiak maneiatzearekin lotura duen oro gainbegiratzea.

e) Familiarentzako arreta:

Eguneko zentroak erabiltzaileen senideentzako arreta zerbitzua izango du. Zerbitzu horren bidez honakoa eskainiko da:

- Informazio orokorra egoitzan sartzean, zerbitzuen deskribapen orokorra, doako eta ordainpeko prestazioak, eta abar.
- Adineko pertsonaren Arretarako Banako Planaren garapenari buruzko informazioa.
- Erabiltzailearen familiari babesa eta indarra ematea.

Aipatu prestazio guztiak diziplina anitzeko ikuspegitik begiratuta eman beharko dira eta, horren eraginez, Arretarako Banako Plana martxan jarri beharko da.

**Mendekotasuna duten pertsonentzako eguneko zentroen kalitate material eta funtzionalaren baldintzak**

Plan hori egoitzan sartzean egin beharko da erabiltzaile bakoitzaren beharrak kontuan hartuta, zentroko langile guztien parte hartzearekin eta dagokion erregistroan jasota gelditu beharko du. Planak hau guztia barneratu beharko du:

- Adineko pertsonaren gabezien edo ezintasunen balorazioa.
- Erabiltzaile bakoitzarengan sumatu diren gabeziak edo ezintasunak arintzeko edo orekatzeko eman beharreko urratsak diseinatzea eta gauzatzea.
- Balizko asaldura fisiko edota psikikoen kontrola eta jarraipena, baita asaldura horretatik erator daitezkeen mendekotasunena ere.
- Agindutako mediku tratamendurik dagoenean, horren jarraipena egitea.
- Erabiltzaileekin eta haien senideekin aldian-aldian bilerak behar diren baliabideak koordinatu ahal izateko.
- Familiarentzako arretaren ebaluazioa egingo da sei hilabeteko maiztasunarekin.

***5.2. Aukerakoak:***

Aurreko puntuan ezarritako derrigorrezko zerbitzuez gain, eguneko zentroaren titulartasuna duen erakundeak beste prestazio batzuk eskain ditzake erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetze aldera. Edonola ere, zerbitzu horien eskaintza eta erabilera hautazkoak izango dira.

Besteak beste, honako hauek izan daitezke aukerazko zerbitzuak:

a) Garraioa:

Zentroaren eta desplazatzeko arazoak dituzten pertsonak jasotzen diren lekuaren arteko bi norabideko garraioak egiteko egokitutako ibilgailu bat erabiltzea. Aldez aurretik ziurtatu beharko da senideek euren baliabideen bidez edo garraio publikoa erabilita ezin dutela desplazamendu hori gauzatu.

b) Erizaintza zerbitzua.

c) Mediku zerbitzua.

d) Gizarte laguntza zerbitzua.

e) Podologia.

f) Garbitegia.

g) Ile-apaindegia.

h) Asteburu eta jaiegunetako arreta zerbitzua: senideek zaindu ezin dituzten eta mendekotasuna duten adineko pertsonei oinarrizko zaintza eta mantenua emango dizkie gutxienez edo, beste aukera moduan, zaintza hori bere ohiko bizilekuan gauzatu ahal izango da adierazitako denbora epeetan.

i) Beste prestazio batzuk: kafetegia, liburutegia, dendak, eta abar.

**6. Arreta erregimena:**

Eguneko zentroan eskuragarri dauden baliabideak erabiltzeko dagoen beharraren arabera, erabiltzaileekiko honako arreta erregimenak daude:

a) Arreta osoa: erabiltzaileak Eranskin honen 5. xehetasun teknikoaren 1. atalean zehaztutako derrigorrezko zerbitzu guztiak erabili ahal izango ditu, eta eguneko zentroa zabalik dagoen bitartean, nahi adina denbora igaro ahal izango du bertan.

b) Arreta partziala: derrigorrezko zerbitzuak emateko ezarritako ordutegiaren arabera, eta kontuan hartuta erabiltzailea eguneko zein zatitan doan (goizez edo arratsaldez), erabiltzaileak zerbitzu horietako batzuk erabili ahal izango ditu.

Bi kasuetan, adineko pertsonak eguneko zentroak eskaintzen dituen aukerako zerbitzuak edo prestazioak erabili ahal izango ditu.

**7. Arreta ordutegia:**

Oro har, lanegunetan goizeko zortzietatik arratsaldeko zortzietara izango da ordutegia eta eguneko sei orduko gutxieneko iraupena izango du.

Halaber, eguneko zentrora sartzeko eta bertatik ateratzeko ordutegia garraioaren, desplazamenduaren bidea egiteko behar den denboraren (aldagarria da, ez baita gauza bera hirian edo landa eremuan, zaindutako pertsonen mendekotasun mailak, eta abar) eta egin beharreko bidaien kopuruaren arabera (erabiltzaile kopuruaren edo garraiobidearen arabera, eta abar).

| **Mendekotasuna duten pertsonentzako eguneko zentroen kalitate material eta funtzionalaren baldintzak** |
|---|
| Eguneko zentroa erabiltzeko aukerak malguak izan daitezen eta zentroak ahalmen eragingarri handiagoa lortze aldera, zentroa erabiltzaileen beharretara egokituta, egun osoan ematen den eguneroko arretatik kanpo, honako erabilera aukerak egongo dira:<br>Ez egunerokoa: asteko zenbait egunetara mugatuta egongo da.<br>Orduka: egunean ordu batzuetan joaten da zentrora, ez egun osoan, jarduera edota egitarauren bat burutze aldera. Gainera, ordukako arreta formula hau egunerokoa izan daiteke eta beste maiztasunen bat ere izan dezake. |
| **8. Langileak:**<br>a) Eguneko zentroak behar bezalako ezaugarri profesionalak dituzten langile egokiak izango ditu lanean eskaintzen dituen doako eta aukerako zerbitzuetan. Beraz, profesionalizazio printzipioari jarraiki, langile guztiek titulazio akademiko ofiziala izan beharko dute edo, bestela, titulu horiek izatea derrigorrezkoa ez denean, bere maila profesionala eta esperientzia egiaztatu beharko ditu.<br>b) Pertsona bakoitzak prestazio bat baino gehiago eman ahal izango du, behar bezalako prestakuntza badu eta zerbitzu horiek emateko ordutegiak bateratu baditzake.<br>c) Arreta zuzeneko langileen tasa edo ratioa:<br>Eguneko zentroa erabiltzen duten pertsonen laguntza beharrak asetzeko behar den langile kopurua kalkulatzeko, arreta zuzeneko langile gisa hartuko dira honako hauek: zaintzaileak, jardueretako begiraleak eta gizarte langileak. Pertsona boluntarioak eta ikasleak ezingo dira sekula arreta zuzeneko langile gisa hartu arreta “ratioa” kalkulatzeko<br>Arreta zuzeneko langileen eta eguneko zentroaren erabiltzaileen arteko tasak edo ”ratioa”k honakoa izan behar du:<br>– Zuzeneko arretako langileen ratioa da 1/6koa da Dekretu honetako 2. artikuluaren a) atalean zehaztutako erabiltzaileei dagokienez (arreta zuzeneko profesional bat 6 erabiltzaileko).<br>– Zuzeneko arretako langileen ratioa da 1/9koa da Dekretu honetako 2. artikuluaren b) atalean zehaztutako erabiltzaileei dagokienez (arreta zuzeneko profesional bat 9 erabiltzaileko).<br>– Dementzia diagnosia duten adineko pertsonei dagokien arreta zuzeneko langileen ratioa da 1/5ekoa da (arreta zuzeneko profesional bat 5 erabiltzaileko).<br>Eguneko zentro berean hainbat arreta-ratio dagozkien erabiltzaileak badaude, Administrazio eskudunak zehaztuko du eska daitekeen gutxieneko langile kopurua, talde bakoitzari dagokion adineko pertsonen proportzioa kontuan hartuta. |
| **9. Programak:**<br>Jarduera anitzen urteko egitaraua egingo da Esku hartze Plan Orokor baten baitan. Egitarau horretan zehaztuko dira helburuak, egutegia, jarduera gauzatzeko metodoak eta teknikak eta ebaluazio sistemak, Eranskin honetako 5. xehetasun teknikoetan zehaztutako prestazioak bermatze aldera.<br>Gainera, eguneko zentro guztiek hau guztia izan beharko dute:<br>• Banako arreta zuzenera zuzendutako programak; erabiltzaile bakoitzari erreferentziazko langile bat ezarriko zaio.<br>• Langileen jokabidearen gaineko protokoloak.<br>• Aldian aldiko bilerak: gutxienez, hilean behin.<br>• Jardun egokiaren eskuliburua, zentroarena berarena edo beste nonbaitetik hartutakoa. Langileen eskura egongo da eskuliburu hori.<br>• II. ERANSKINA |

**Mendekotasuna duten pertsonentzako eguneko zentroen kalitate material eta funtzionalaren baldintzak**

**Homologazio Irizpideak**

Derrigorrezko baimena lortzeko kalitate material eta funtzionalaren baldintzak betetzeaz gain, mendekotasuna duten adineko pertsonentzako titulartasun pribatuak diren eta homologazioa eskatu nahi dute eguneko zentroek honako eragingarritasun eta kalitate irizpideei egokitu behar zaie, baita gizarte eta ekonomia mailako kostuari ere:

1. Zentroak bere helburuak edo esku hartze, egitarau eta jarduera plan orokorra (dagoenean) egokitzea, planifikazio eta programazio arloan eskuduna den Administrazioak ezarritako helburuen eta jarduera-lerroen arabera.

2. Administrazio eskudunak bere ikuskatzaile funtzioa egikaritzean proposa ditzakeen iradokizunak betetzea.

3. Zentro bakoitzak bere ebaluazio plana aurkeztu beharko du Administrazio eskudunaren aurrean, edo, bestela, urtebeteko epean, gehienez, plan hori egiteko konpromisoa hartu beharko du. Plan horren jarraipenaren berri Administrazio eskudunari eman beharko zaio urtebeteko maiztasunarekin.

4. Langileentzako trebakuntza etengabeko programa.

# 3. ERANSKINA

## BIZTANLERIA OSOAREN BILAKAERA ESKUALDEZ ESKUALDE

| Eskualdea | Biztanleria osoa (1991) | Biztanleria osoa (1996) | Biztanleria osoa (2001) |
|---|---|---|---|
| Arabako Ibarrak | 3.886 | 4.134 | 4.681 |
| Arabako Lautada | 216.417 | 225.147 | 228.991 |
| Arabako Mendialdea | 3.197 | 3.140 | 3.092 |
| Arratia | 21.275 | 21.128 | 21.262 |
| Bidasoa Beherea | 66.800 | 69.668 | 71.645 |
| Bilbo Handia | 905.468 | 887.977 | 865.799 |
| Debabarrena | 59.936 | 56.857 | 54.228 |
| Debagoiena | 65.109 | 63.562 | 62.010 |
| Donostialdea | 309.926 | 313.093 | 311.398 |
| Durangaldea | 90.660 | 90.232 | 90.495 |
| Enkarterri | 29.680 | 29.791 | 29.663 |
| Arabako Errioxa | 9.391 | 9.658 | 10.011 |
| Gernika-Bermeo | 45.240 | 44.402 | 44.110 |
| Goierri | 66.559 | 64.566 | 63.510 |
| Gorbeialdea | 5.340 | 6.000 | 6.892 |
| Kantauri Arabarra | 34.216 | 33.742 | 32.720 |
| Markina-Ondarroa | 27.301 | 26.683 | 26.095 |
| Plentzia | 35.482 | 39.813 | 45.213 |
| Tolosaldea | 44.996 | 44.289 | 44.344 |
| Urola-Kosta | 63.162 | 64.173 | 66.428 |
| **GUZTIRA** | **2.104.041** | **2.098.055** | **2.082.587** |

# 4. ERANSKINA

## BIZTANLERIA OSOAREN BILAKAERA UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA

| Lurralde Historikoa | Tamaina | Biztanleria osoa (1991) | Biztanleria osoa (1996) | Biztanleria osoa (2001) |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 500dik behera | 5.404 | 5.467 | 5.783 |
| | 501-1.000 | 9.559 | 9.941 | 10.616 |
| | 1.001-2.000 | 13.302 | 14.462 | 16.158 |
| | 2.001-5.000 | 7.847 | 8.046 | 8.587 |
| | 5.001-10.000 | 9.744 | 9.758 | 9.460 |
| | 10.001-20.000 | 20.475 | 19.913 | 18.931 |
| | 50.001 edo geh. | 206.116 | 214.234 | 216.852 |
| **Araban guztira** | | **272.447** | **281.821** | **286.387** |
| Bizkaia | 5000dik behera | 6.968 | 7.270 | 7.294 |
| | 501-1.000 | 14.638 | 14.620 | 15.212 |
| | 1.001-2.000 | 20.501 | 21.975 | 23.021 |
| | 2.001-5.000 | 65.420 | 65.630 | 67.994 |
| | 5.001-10.000 | 88.220 | 86.973 | 88.478 |
| | 10.001-20.000 | 110.951 | 111.556 | 113.456 |
| | 20.001-50.000 | 237.704 | 236.386 | 229.381 |
| | 50.001 edo geh. | 610.704 | 595.616 | 577.801 |
| **Bizkaian guztira** | | **1.155.106** | **1.140.026** | **1.122.637** |
| Gipuzkoa | 500dik behera | 5.780 | 5.679 | 5.695 |
| | 501-1.000 | 8.464 | 8.220 | 8.154 |
| | 1.001-2.000 | 18.656 | 17.895 | 17.622 |
| | 2.001-5.000 | 40.750 | 40.189 | 40.573 |
| | 5.001-10.000 | 73.390 | 74.291 | 75.585 |
| | 10.001-20.000 | 187.186 | 184.061 | 180.317 |
| | 20.001-50.000 | 117.547 | 113.750 | 110.639 |
| | 50.001 edo geh. | 224.715 | 232.123 | 234.978 |
| **Gipuzkoan guztira** | | **676.488** | **676.208** | **673.563** |
| EAE | 500dik behera | 18.152 | 18.416 | 18.772 |
| | 501-1.000 | 32.661 | 32.781 | 33.982 |
| | 1.001-2.000 | 52.459 | 54.332 | 56.801 |
| | 2.001-5.000 | 114.017 | 113.865 | 117.154 |
| | 5.001-10.000 | 171.354 | 171.022 | 173.523 |
| | 10.001-20.000 | 318.612 | 315.530 | 312.704 |
| | 20.001-50.000 | 355.251 | 350.136 | 340.020 |
| | 50.001 edo geh | 1.041.535 | 1.041.973 | 1.029.631 |
| **EAEN GUZTIRA** | | **2.104.041** | **2.098.055** | **2.082.587** |

# 5. ERANSKINA

## 65 URTEKO EDO GEHIAGOKO BIZTANLEEN BILAKAERA ESKUALDEZ ESKUALDE

| Eskualdea | Biztanleak ≥ 65 (1991) | Biztanleak ≥ 65 (1996) | Biztanleak ≥ 65 (2001) |
|---|---|---|---|
| Arabako Ibarrak | 868 | 1.042 | 1.151 |
| Arabako Lautada | 22.964 | 29.200 | 34.945 |
| Arabako Mendialdea | 793 | 897 | 901 |
| Arratia | 3.575 | 4.022 | 4.379 |
| Bidasoa Beherea | 8.041 | 9.910 | 11.705 |
| Bilbo Handia | 112.852 | 138.484 | 161.699 |
| Debabarrena | 8.672 | 10.263 | 11.322 |
| Debagoiena | 7.954 | 9.586 | 11.100 |
| Donostialdea | 47.435 | 48.508 | 55.454 |
| Durangaldea | 9.336 | 11.757 | 14.342 |
| Enkarterri | 5.112 | 5.764 | 6.401 |
| Arabako Errioxa | 1.806 | 2.110 | 2.280 |
| Gernika-Bermeo | 7.401 | 8.488 | 9.438 |
| Goierri | 8.079 | 9.973 | 11.756 |
| Gorbeialdea | 938 | 1.048 | 1.177 |
| Kantauri Arabarra | 3.495 | 4.350 | 5.374 |
| Markina-Ondarroa | 4.167 | 4.813 | 5.347 |
| Plentzia | 4.534 | 5.462 | 6.537 |
| Tolosaldea | 6.047 | 6.906 | 7.603 |
| Urola-Kosta | 7.815 | 9.289 | 10.630 |
| **GUZTIRA** | **271.885** | **321.872** | **373.568** |

# 6. ERANSKINA

## 65 URTEKO EDO GEHIAGOKO BIZTANLEEN BILAKAERA UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA

| Lurralde Historikoa | Tamaina | Biztanleak ≥ 65 (1991) | Biztanleak ≥ 65 (1996) | Biztanleak ≥ 65 (2001) |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 500dik behera | 1.214 | 1.422 | 1.532 |
| | 501-1.000 | 1.969 | 2.317 | 2.480 |
| | 1.001-2.000 | 2.278 | 2.585 | 2.787 |
| | 2.001-5.000 | 1.163 | 1.364 | 1.515 |
| | 5.001-10.000 | 1.023 | 1.291 | 1.523 |
| | 10.001-20.000 | 1.781 | 2.315 | 3.029 |
| | 50.001 edo geh | 21.436 | 27.353 | 32.962 |
| **Araban guztira** | | **30.864** | **38.647** | **45.827** |
| Bizkaia | 500dik behera | 1.552 | 1.780 | 1.868 |
| | 501-1.000 | 3.047 | 3.373 | 3.637 |
| | 1.001-2.000 | 3.701 | 4.450 | 4.846 |
| | 2.001-5.000 | 9.288 | 10.973 | 12.545 |
| | 5.001-10.000 | 11.285 | 13.344 | 15.309 |
| | 10.001-20.000 | 12.359 | 15.114 | 18.047 |
| | 20.001-50.000 | 24.566 | 31.269 | 37.306 |
| | 50.001 edo geh | 81.179 | 98.487 | 114.613 |
| **Bizkaian guztira** | | **146.977** | **178.790** | **208.170** |
| Gipuzkoa | 500dik behera | 1.033 | 1.147 | 1.176 |
| | 501-1.000 | 1.180 | 1.398 | 1.554 |
| | 1.001-2.000 | 2.726 | 3.045 | 3.324 |
| | 2.001-5.000 | 4.958 | 5.792 | 6.623 |
| | 5.001-10.000 | 7.953 | 9.724 | 11.557 |
| | 10.001-20.000 | 22.404 | 27.092 | 31.351 |
| | 20.001-50.000 | 21.060 | 17.161 | 19.872 |
| | 50.001 edo geh | 32.730 | 39.076 | 44.114 |
| **Gipuzkoan guztira** | | **94.043** | **104.435** | **119.570** |
| EAE | 500dik behera | 3.799 | 4.349 | 4.576 |
| | 501-1.000 | 6.195 | 7.088 | 7.671 |
| | 1.001-2.000 | 8.705 | 10.080 | 10.956 |
| | 2.001-5.000 | 15.408 | 18.129 | 20.682 |
| | 5.001-10.000 | 20.261 | 24.359 | 28.389 |
| | 10.001-20.000 | 36.545 | 44.521 | 52.427 |
| | 20.001-50.000 | 45.626 | 48.430 | 57.178 |
| | 50.001 edo geh | 135.345 | 164.916 | 191.689 |
| **EAEN GUZTIRA** | | **271.885** | **321.872** | **373.568** |

# 7. ERANSKINA

## ZAHARTZE TASA ETA 65 URTEKO EDO GEHIAGOKO BIZTANLEEN BANAKETA ESKUALDEZ ESKUALDE 2001EAN

| Eskualdea | Zahartze tasa | Banaketa (%) |
|---|---|---|
| Arabako Ibarrak | 24,6 | 0,31 |
| Arabako Lautada | 15,3 | 9,35 |
| Arabako Mendialdea | 29,1 | 0,24 |
| Arratia | 20,6 | 1,17 |
| Bidasoa Beherea | 16,3 | 3,13 |
| Bilbo Handia | 18,7 | 43,28 |
| Debabarrena | 20,9 | 3,03 |
| Debagoiena | 17,9 | 2,97 |
| Donostialdea | 17,8 | 14,85 |
| Durangaldea | 15,8 | 3,84 |
| Enkarterri | 21,6 | 1,71 |
| Arabako Errioxa | 22,8 | 0,61 |
| Gernika-Bermeo | 21,4 | 2,53 |
| Goierri | 18,5 | 3,15 |
| Gorbeialdea | 17,1 | 0,31 |
| Kantauri Arabarra | 16,4 | 1,44 |
| Markina-Ondarroa | 20,6 | 1,44 |
| Plentzia | 14,5 | 1,75 |
| Tolosaldea | 17,1 | 2,04 |
| Urola-Kosta | 16,0 | 2,85 |
| **GUZTIRA** | **17,9** | **100,00** |

# 8. ERANSKINA

## ZAHARTZE TASA ETA 65 URTEKO EDO GEHIAGOKO BIZTANLERIAREN BANAKETA UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA 2001EAN

| Udalerriaren tamaina | Biztanleria osoa | 65 urteko edo gehiagoko biztanleak | Zahartze tasa | Banaketa (%) |
|---|---|---|---|---|
| 500dik behera | 18.772 | 4.576 | 24,4 | 1,22 |
| 501 - 1.000 | 33.982 | 7.671 | 22,6 | 2,06 |
| 1.001 - 2.000 | 56.801 | 10.956 | 19,3 | 2,94 |
| 2.001 - 5.000 | 117.154 | 20.682 | 17,7 | 5,53 |
| 5.001 - 10.000 | 173.523 | 28.389 | 16,4 | 7,60 |
| 10.001 - 20.000 | 312.704 | 52.427 | 16,8 | 14,04 |
| 20.001 - 50.000 | 340.020 | 57.178 | 16,8 | 15,30 |
| 50.001 edo geh. | 1.029.631 | 191.689 | 18,6 | 51,31 |
| **GUZTIRA** | **2.082.587** | **373.568** | **17,9** | **100,00** |

# 9. ERANSKINA

## ADINEKO PERTSONEN KOPURUAREN BILAKAERA ESKUALDEKA, EGOITZA-ZENTROAREN ARABERA

| Eskualdea | Adinekoak zentroko (1991) | Adinekoak zentroko (1996) | Adinekoak zentroko (2001) |
|---|---|---|---|
| Arabako Ibarrak | - | 1.042 | 575 |
| Arabako Lautada | 1.640 | 1.327 | 713 |
| Arabako Mendialdea | 793 | 897 | 901 |
| Arratia | 1.192 | 804 | 876 |
| Bidasoa Beherea | 1.608 | 1.416 | 1.171 |
| Bilbo Handia | 3.527 | 2.770 | 1.444 |
| Debabarrena | 1.445 | 1.711 | 1.887 |
| Debagoiena | 1.591 | 1.917 | 1.387 |
| Donostialdea | 3.953 | 2.425 | 1.499 |
| Durangaldea | 9.336 | 5.879 | 3.586 |
| Enkarterri | 852 | 721 | 582 |
| Arabako Errioxa | 903 | 703 | 760 |
| Gernika-Bermeo | 1.233 | 772 | 726 |
| Goierri | 1.616 | 1.995 | 1.959 |
| Gorbeialdea | 938 | 1.048 | 392 |
| Kantauri Arabarra | 874 | 1.088 | 1.075 |
| Markina-Ondarroa | 1.389 | 1.604 | 1.791 |
| Plentzia | 907 | 1.092 | 545 |
| Tolosaldea | 1.512 | 987 | 950 |
| Urola-Kosta | 1.563 | 1.858 | 1.519 |
| **GUZTIRA** | **2.266** | **1.882** | **1.225** |

# 10. ERANSKINA

## ADINEKO PERTSONEN KOPURUAREN BILAKAERA EGOITZA-ZENTROAREN ETA UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA

| Udalerriaren tamaina | Adinekoak zentroko (1991) | Adinekoak zentroko (1996) | Adinekoak zentroko (2001) |
|---|---|---|---|
| 500dik behera | 3.799 | 4.349 | 2.288 |
| 501 - 1.000 | 3.098 | 1.418 | 767 |
| 1.001 - 2.000 | 791 | 531 | 353 |
| 2.001 - 5.000 | 1.284 | 1.209 | 1.089 |
| 5.001 - 10.000 | 1.351 | 1.433 | 1.419 |
| 10.001 - 20.000 | 1.827 | 1.855 | 1.748 |
| 20.001 - 50.000 | 3.510 | 3.459 | 1.972 |
| 50.001 edo geh. | 2.942 | 2.170 | 1.169 |
| **GUZTIRA** | **2.266** | **1.882** | **1.225** |

# 11. ERANSKINA

## EGUNEKO ZENTROEN KOPURUAREN BILAKAERA ESKUALDEZ ESKUALDE

| Eskualdea | Eguneko zentroak (1991) | Eguneko zentroak (1996) | Eguneko zentroak (2001) |
|---|---|---|---|
| Arabako Ibarrak | 0 | 0 | 1 |
| Arabako Lautada | 4 | 5 | 13 |
| Arabako Mendialdea | 0 | 0 | 1 |
| Arratia | 0 | 0 | 1 |
| Bidasoa Beherea | 1 | 2 | 4 |
| Bilbo Handia | 2 | 5 | 15 |
| Debabarrena | 0 | 2 | 4 |
| Debagoiena | 0 | 0 | 3 |
| Donostialdea | 3 | 6 | 14 |
| Durangaldea | 0 | 0 | 2 |
| Enkarterri | 0 | 0 | 0 |
| Arabako Errioxa | 0 | 0 | 1 |
| Gernika-Bermeo | 0 | 0 | 2 |
| Goierri | 1 | 2 | 4 |
| Gorbeialdea | 0 | 0 | 1 |
| Kantauri Arabarra | 0 | 0 | 2 |
| Markina-Ondarroa | 0 | 0 | 0 |
| Plentzia | 0 | 0 | 0 |
| Tolosaldea | 0 | 1 | 4 |
| Urola-Kosta | 0 | 0 | 4 |
| **GUZTIRA** | **11** | **23** | **76** |

# 12. ERANSKINA

## EGUNEKO ZENTROEN KOPURUAREN BILAKAERA UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA

| Lurralde Historikoa | Tamaina | Eguneko zentroak (1991) | Eguneko zentroak (1996) | Eguneko zentroak (2001) |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 500dik behera | 0 | 0 | 2 |
| | 501-1.000 | 0 | 0 | 0 |
| | 1.001-2.000 | 0 | 0 | 5 |
| | 2.001-5.000 | 0 | 0 | 1 |
| | 5.001-10.000 | 0 | 0 | 1 |
| | 1.0001-20.000 | 0 | 0 | 0 |
| | 50.001 edo geh. | 4 | 5 | 10 |
| **Araban guztira** | | **4** | **5** | **19** |
| Bizkaia | 500dik behera | 0 | 0 | 0 |
| | 501-1.000 | 0 | 0 | 0 |
| | 1.001-2.000 | 0 | 0 | 1 |
| | 2.001-5.000 | 0 | 0 | 1 |
| | 5.001-10.000 | 1 | 2 | 2 |
| | 10.001-20.000 | 0 | 0 | 5 |
| | 20.001-50.000 | 0 | 0 | 3 |
| | 50.001 edo geh. | 1 | 3 | 8 |
| **Bizkaian guztira** | | **2** | **5** | **20** |
| Gipuzkoa | 500dik behera | 0 | 0 | 0 |
| | 501-1.000 | 0 | 0 | 0 |
| | 1.001-2.000 | 0 | 0 | 0 |
| | 2.001-5.000 | 0 | 0 | 2 |
| | 5.001-10.000 | 1 | 3 | 4 |
| | 10.001-20.000 | 0 | 3 | 15 |
| | 20.001-50.000 | 0 | 2 | 6 |
| | 50.001 y más | 4 | 5 | 10 |
| **Gipuzkoan guztira** | | **5** | **13** | **37** |
| EAE | 500dik behera | 0 | 0 | 2 |
| | 501-1.000 | 0 | 0 | 0 |
| | 1.001-2.000 | 0 | 0 | 6 |
| | 2.001-5.000 | 0 | 0 | 4 |
| | 5.001-10.000 | 2 | 5 | 7 |
| | 10.001-20.000 | 0 | 3 | 20 |
| | 20.001-50.000 | 0 | 2 | 9 |
| | 50.001 edo geh. | 9 | 13 | 28 |
| **EAEN GUZTIRA** | | **11** | **23** | **76** |

# 13. ERANSKINA

## ELZETAKO ERABILTZAILEEN KOPURUAREN BILAKAERA UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA ETA LURRALDE HISTORIKOKA

| Lurralde Historikoa | Tamaina | ELZetako erabiltzaileak ≥ 65 (1994) | ELZetako erabiltzaileak ≥ 65 (2001) | Erabiltzaileak (01/94) |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 500dik behera | 25 | 87 | 3,48 |
| | 501-1.000 | 54 | 164 | 3,04 |
| | 1.001-2.000 | 96 | 210 | 2,19 |
| | 2.001-5.000 | 36 | 101 | 2,81 |
| | 5.001-10.000 | 23 | 113 | 4,91 |
| | 10.001-20.000 | 77 | 187 | 2,43 |
| | 50.001 edo geh. | 881 | 1.840 | 2,09 |
| **Araban guztira** | | **1.192** | **2.702** | **2,27** |
| Bizkaia | 500dik behera | 25 | 71 | 2,83 |
| | 501-1.000 | 53 | 88 | 1,66 |
| | 1.001-2.000 | 69 | 102 | 1,48 |
| | 2.001-5.000 | 198 | 228 | 1,15 |
| | 5.001-10.000 | 325 | 347 | 1,07 |
| | 10.001-20.000 | 242 | 296 | 1,22 |
| | 20.001-50.000 | 686 | 697 | 1,02 |
| | 50.001 edo geh. | 2.959 | 4.391 | 1,48 |
| **Bizkaian guztira** | | **4.557** | **6.220** | **1,36** |
| Gipuzkoa | 500dik behera | 64 | 69 | 1,08 |
| | 501-1.000 | 41 | 60 | 1,46 |
| | 1.001-2.000 | 92 | 108 | 1,17 |
| | 2.001-5.000 | 180 | 224 | 1,24 |
| | 5.001-10.000 | 269 | 492 | 1,83 |
| | 10.001-20.000 | 647 | 1.053 | 1,63 |
| | 20.001-50.000 | 341 | 618 | 1,81 |
| | 50.001 edo geh. | 836 | 1.858 | 2,22 |
| **Gipuzkoan guztira** | | **2.470** | **4.482** | **1,81** |
| EAE | 500dik behera | 114 | 227 | 1,99 |
| | 501-1.000 | 148 | 312 | 2,11 |
| | 1.001-2.000 | 257 | 420 | 1,63 |
| | 2.001-5.000 | 414 | 553 | 1,34 |
| | 5.001-10.000 | 617 | 952 | 1,54 |
| | 10.001-20.000 | 966 | 1.536 | 1,59 |
| | 20.001-50.000 | 1.027 | 1.315 | 1,28 |
| | 50.001 edo geh. | 4.676 | 8.089 | 1,73 |
| **EAEN GUZTIRA** | | **8.219** | **13.404** | **1,63** |

# 14. ERANSKINA

## ELZAREN ESTALDURAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOETAN, UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA

| Lurralde Historikoa | Tamaina | ELZen estaldura (1994) | ELZen estaldura (2001) | Estaldura (01/94) |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 500dik behera | 1,87 | 5,68 | 3,04 |
| | 501-1.000 | 2,48 | 6,61 | 2,67 |
| | 1.001-2.000 | 3,90 | 7,54 | 1,93 |
| | 2.001-5.000 | 2,80 | 6,67 | 2,38 |
| | 5.001-10.000 | 1,94 | 7,42 | 3,82 |
| | 10.001-20.000 | 3,66 | 6,17 | 1,69 |
| | 50.001 edo geh. | 3,53 | 5,58 | 1,58 |
| **Araban guztira** | | **3,35** | **5,90** | **1,76** |
| Bizkaia | 500dik behera | 1,49 | 3,80 | 2,56 |
| | 501-1.000 | 1,64 | 2,42 | 1,48 |
| | 1.001-2.000 | 1,66 | 2,10 | 1,27 |
| | 2.001-5.000 | 1,92 | 1,82 | 0,95 |
| | 5.001-10.000 | 2,60 | 2,27 | 0,87 |
| | 10.001-20.000 | 1,73 | 1,64 | 0,95 |
| | 20.001-50.000 | 2,40 | 1,87 | 0,78 |
| | 50.001 edo geh. | 3,23 | 3,83 | 1,19 |
| **Bizkaian guztira** | | **2,74** | **2,99** | **1,09** |
| Gipuzkoa | 500dik behera | 5,81 | 5,87 | 1,01 |
| | 501-1.000 | 3,13 | 3,86 | 1,23 |
| | 1.001-2.000 | 3,15 | 3,25 | 1,03 |
| | 2.001-5.000 | 3,30 | 3,38 | 1,03 |
| | 5.001-10.000 | 2,98 | 4,26 | 1,43 |
| | 10.001-20.000 | 2,57 | 3,36 | 1,31 |
| | 20.001-50.000 | 1,82 | 3,11 | 1,71 |
| | 50.001 edo geh. | 2,29 | 4,21 | 1,84 |
| **Gipuzkoan guztira** | | **2,46** | **3,75** | **1,52** |
| EAE | 500dik behera | 2,76 | 4,96 | 1,79 |
| | 501-1.000 | 2,20 | 4,07 | 1,85 |
| | 1.001-2.000 | 2,70 | 3,83 | 1,42 |
| | 2.001-5.000 | 2,43 | 2,67 | 1,10 |
| | 5.001-10.000 | 2,72 | 3,35 | 1,23 |
| | 10.001-20.000 | 2,34 | 2,93 | 1,25 |
| | 20.001-50.000 | 2,17 | 2,30 | 1,06 |
| | 50.001 edo geh. | 3,05 | 4,22 | 1,38 |
| **EAEN GUZTIRA** | | **2,72** | **3,59** | **1,32** |

# 15. ERANSKINA

## ELZETAKO ARRETA-ORDUEN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOETAN, UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA

| Lurralde Historikoa | Tamaina | ELZen estaldura (1994) | ELZen estaldura (2001) | Estaldura (01/94) |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 500dik behera | 5.790 | 25.067 | 4,33 |
| | 501-1.000 | 21.067 | 54.432 | 2,58 |
| | 1.001-2.000 | 49.786 | 68.271 | 1,37 |
| | 2.001-5.000 | 18.845 | 39.200 | 2,08 |
| | 5.001-10.000 | 14.021 | 56.133 | 4,00 |
| | 10.001-20.000 | 43.868 | 71.856 | 1,64 |
| | 50.001 edo geh. | 266.543 | 407.885 | 1,53 |
| **Araban guztira** | | **419.920** | **722.844** | **1,72** |
| Bizkaia | 500dik behera | 8.688 | 13.323 | 1,53 |
| | 501-1.000 | 17.749 | 23.448 | 1,32 |
| | 1.001-2.000 | 20.900 | 26.999 | 1,29 |
| | 2.001-5.000 | 59.667 | 48.198 | 0,81 |
| | 5.001-10.000 | 97.049 | 89.665 | 0,92 |
| | 10.001-20.000 | 86.016 | 93.778 | 1,09 |
| | 20.001-50.000 | 211.430 | 216.142 | 1,02 |
| | 50.001 edo geh. | 685.999 | 784.975 | 1,14 |
| **Bizkaian guztira** | | **1.187.498** | **1.296.528** | **1,09** |
| Gipuzkoa | 500dik behera | 28.257 | 23.689 | 0,84 |
| | 501-1.000 | 18.872 | 15.992 | 0,85 |
| | 1.001-2.000 | 36.999 | 37.614 | 1,02 |
| | 2.001-5.000 | 53.350 | 84.388 | 1,58 |
| | 5.001-10.000 | 85.215 | 124.242 | 1,46 |
| | 10.001-20.000 | 229.234 | 264.984 | 1,16 |
| | 20.001-50.000 | 106.192 | 117.500 | 1,11 |
| | 50.001 edo geh. | 258.026 | 438.949 | 1,70 |
| **Gipuzkoan guztira** | | **816.145** | **1.107.358** | **1,36** |
| EAE | 500dik behera | 42.735 | 62.079 | 1,45 |
| | 501-1.000 | 57.688 | 93.872 | 1,63 |
| | 1.001-2.000 | 107.685 | 132.884 | 1,23 |
| | 2.001-5.000 | 131.862 | 171.786 | 1,30 |
| | 5.001-10.000 | 196.285 | 270.040 | 1,38 |
| | 10.001-20.000 | 359.118 | 430.618 | 1,20 |
| | 20.001-50.000 | 317.622 | 333.642 | 1,05 |
| | 50.001 edo geh. | 1.210.568 | 1.631.809 | 1,35 |
| **EAEN GUZTIRA** | | **2.423.563** | **3.126.730** | **1,29** |

# 16. ERANSKINA

## ELZEN INTENTSITATEAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOETAN, UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA

| Lurralde Historikoa | Tamaina | ELZen intentsitatea (1994) | ELZen intentsitatea (2001) | Intentsitatea (01/94) |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 500dik behera | 232 | 288 | 1,24 |
| | 501-1.000 | 390 | 332 | 0,85 |
| | 1.001-2.000 | 519 | 325 | 0,63 |
| | 2.001-5.000 | 523 | 388 | 0,74 |
| | 5.001-10.000 | 610 | 497 | 0,81 |
| | 10.001-20.000 | 570 | 384 | 0,67 |
| | 50.001 edo geh. | 303 | 222 | 0,73 |
| **Araban guztira** | | **352** | **268** | **0,76** |
| Bizkaia | 500dik behera | 346 | 188 | 0,54 |
| | 501-1.000 | 334 | 266 | 0,80 |
| | 1.001-2.000 | 303 | 265 | 0,87 |
| | 2.001-5.000 | 302 | 211 | 0,70 |
| | 5.001-10.000 | 299 | 258 | 0,87 |
| | 10.001-20.000 | 355 | 317 | 0,89 |
| | 20.001-50.000 | 308 | 310 | 1,01 |
| | 50.001 edo geh. | 232 | 179 | 0,77 |
| **Bizkaian guztira** | | **261** | **208** | **0,80** |
| Gipuzkoa | 500dik behera | 442 | 343 | 0,78 |
| | 501-1.000 | 460 | 267 | 0,58 |
| | 1.001-2.000 | 402 | 348 | 0,87 |
| | 2.001-5.000 | 296 | 377 | 1,27 |
| | 5.001-10.000 | 317 | 253 | 0,80 |
| | 10.001-20.000 | 354 | 252 | 0,71 |
| | 20.001-50.000 | 311 | 190 | 0,61 |
| | 50.001 edo geh. | 309 | 236 | 0,77 |
| **Gipuzkoan guztira** | | **330** | **247** | **0,75** |
| EAE | 500dik behera | 375 | 273 | 0,73 |
| | 501-1.000 | 390 | 301 | 0,77 |
| | 1.001-2.000 | 419 | 316 | 0,76 |
| | 2.001-5.000 | 319 | 311 | 0,97 |
| | 5.001-10.000 | 318 | 284 | 0,89 |
| | 10.001-20.000 | 372 | 280 | 0,75 |
| | 20.001-50.000 | 309 | 254 | 0,82 |
| | 50.001 edo geh. | 259 | 202 | 0,78 |
| **EAEN GUZTIRA** | | **295** | **233** | **0,79** |

# 17. ERANSKINA

## ARRETA MAILAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOETAN, UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA

| Lurralde Historikoa | Tamaina | 1994ko maila | 2001eko maila | 01/94 aldiko maila |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 500dik behera | 4,33 | 16,37 | 3,78 |
| | 501-1.000 | 9,66 | 21,95 | 2,27 |
| | 1.001-2.000 | 20,21 | 24,50 | 1,21 |
| | 2.001-5.000 | 14,68 | 25,88 | 1,76 |
| | 5.001-10.000 | 11,84 | 36,86 | 3,11 |
| | 10.001-20.000 | 20,87 | 23,72 | 1,14 |
| | 50.001 edo geh. | 10,67 | 12,37 | 1,16 |
| **Araban guztira** | | **11,82** | **15,77** | **1,33** |
| Bizkaia | 500dik behera | 5,15 | 7,13 | 1,39 |
| | 501-1.000 | 5,47 | 6,45 | 1,18 |
| | 1.001-2.000 | 5,04 | 5,57 | 1,11 |
| | 2.001-5.000 | 5,79 | 3,84 | 0,66 |
| | 5.001-10.000 | 7,75 | 5,86 | 0,76 |
| | 10.001-20.000 | 6,14 | 5,20 | 0,85 |
| | 20.001-50.000 | 7,40 | 5,79 | 0,78 |
| | 50.001 edo geh. | 7,49 | 6,85 | 0,91 |
| **Bizkaian guztira** | | **7,15** | **6,23** | **0,87** |
| Gipuzkoa | 500dik behera | 25,64 | 20,14 | 0,79 |
| | 501-1.000 | 14,42 | 10,29 | 0,71 |
| | 1.001-2.000 | 12,68 | 11,32 | 0,89 |
| | 2.001-5.000 | 9,77 | 12,74 | 1,30 |
| | 5.001-10.000 | 9,45 | 10,75 | 1,14 |
| | 10.001-20.000 | 9,09 | 8,45 | 0,93 |
| | 20.001-50.000 | 5,67 | 5,91 | 1,04 |
| | 50.001 edo geh. | 7,06 | 9,95 | 1,41 |
| **Gipuzkoan guztira** | | **8,14** | **9,26** | **1,14** |
| EAE | 500dik behera | 10,35 | 13,57 | 1,31 |
| | 501-1.000 | 8,57 | 12,24 | 1,43 |
| | 1.001-2.000 | 11,30 | 12,13 | 1,07 |
| | 2.001-5.000 | 7,74 | 8,31 | 1,07 |
| | 5.001-10.000 | 8,64 | 9,51 | 1,10 |
| | 10.001-20.000 | 8,69 | 8,21 | 0,95 |
| | 20.001-50.000 | 6,71 | 5,84 | 0,87 |
| | 50.001 edo geh. | 7,91 | 8,51 | 1,08 |
| **EAEN GUZTIRA** | | **8,03** | **8,37** | **1,04** |

# 18. ERANSKINA

## ELZETAKO GUZTIZKO GASTUAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOETAN, UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA (MILAKA EURO KORRONTE)

| Lurralde Historikoa | Tamaina | Guztizko gastua (1992) | Guztizko gastua (1996) | Guztizko gastua (2001) | 96/92 aldiko gastua | 01/96 aldiko gastua | 01/92 aldiko gastua |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Araba | 500dik behera | 134 | 171 | 285 | 1,27 | 1,67 | 2,12 |
| | 501-1.000 | 260 | 307 | 538 | 1,18 | 1,75 | 2,07 |
| | 1.001-2.000 | 422 | 555 | 712 | 1,32 | 1,28 | 1,69 |
| | 2.001-5.000 | 174 | 166 | 361 | 0,95 | 2,18 | 2,07 |
| | 5.001-10.000 | 122 | 215 | 343 | 1,75 | 1,60 | 2,80 |
| | 10.001-20.000 | 436 | 438 | 584 | 1,00 | 1,33 | 1,34 |
| | 50.001 edo geh. | 3.055 | 3.391 | 5.211 | 1,11 | 1,54 | 1,71 |
| **Araban guztira** | | **4.604** | **5.242** | **8.035** | **1,14** | **1,53** | **1,75** |
| Bizkaia | 500dik behera | 89 | 96 | 143 | 1,08 | 1,48 | 1,60 |
| | 501-1.000 | 202 | 169 | 312 | 0,84 | 1,84 | 1,55 |
| | 1.001-2.000 | 173 | 201 | 364 | 1,16 | 1,81 | 2,10 |
| | 2.001-5.000 | 541 | 537 | 739 | 0,99 | 1,38 | 1,37 |
| | 5.001-10.000 | 855 | 838 | 1.244 | 0,98 | 1,48 | 1,46 |
| | 10.001-20.000 | 806 | 1.255 | 1.265 | 1,56 | 1,01 | 1,57 |
| | 20.001-50.000 | 2.003 | 2.276 | 2.978 | 1,14 | 1,31 | 1,49 |
| | 50.001 edo geh. | 6.016 | 6.620 | 10.395 | 1,10 | 1,57 | 1,73 |
| **Bizkaian guztira** | | **10.686** | **11.993** | **17.441** | **1,12** | **1,45** | **1,63** |
| Gipuzkoa | 500dik behera | 154 | 152 | 217 | 0,98 | 1,43 | 1,40 |
| | 501-1.000 | 102 | 103 | 146 | 1,00 | 1,42 | 1,42 |
| | 1.001-2.000 | 192 | 204 | 395 | 1,06 | 1,93 | 2,06 |
| | 2.001-5.000 | 374 | 441 | 612 | 1,18 | 1,39 | 1,64 |
| | 5.001-10.000 | 831 | 840 | 1.237 | 1,01 | 1,47 | 1,49 |
| | 10.001-20.000 | 1.917 | 1.996 | 2.755 | 1,04 | 1,38 | 1,44 |
| | 20.001-50.000 | 968 | 1.167 | 1.621 | 1,21 | 1,39 | 1,67 |
| | 50.001 edo geh. | 2.373 | 2.983 | 4.377 | 1,26 | 1,47 | 1,84 |
| **Gipuzkoan guztira** | | **6.912** | **7.886** | **11.359** | **1,14** | **1,44** | **1,64** |
| EAE | 500dik behera | 378 | 419 | 644 | 1,11 | 1,54 | 1,70 |
| | 501-1.000 | 564 | 579 | 996 | 1,03 | 1,72 | 1,77 |
| | 1.001-2.000 | 787 | 961 | 1.471 | 1,22 | 1,53 | 1,87 |
| | 2.001-5.000 | 1.090 | 1.144 | 1.713 | 1,05 | 1,50 | 1,57 |
| | 5.001-10.000 | 1.808 | 1.893 | 2.825 | 1,05 | 1,49 | 1,56 |
| | 10.001-20.000 | 3.159 | 3.689 | 4.604 | 1,17 | 1,25 | 1,46 |
| | 20.001-50.000 | 2.971 | 3.443 | 4.598 | 1,16 | 1,34 | 1,55 |
| | 50.001 edo geh. | 11.445 | 12.994 | 19.984 | 1,14 | 1,54 | 1,75 |
| **EAEN GUZTIRA** | | **22.202** | **25.121** | **36.834** | **1,13** | **1,47** | **1,66** |

# 19. ERANSKINA

## ELZETAN ADINEKO PERTSONAKO EGINDAKO GUZTIZKO GASTUAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOETAN, UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA (EUROAK))

| Lurralde Historikoa | Tamaina | Guztizko gastua pertsonako (1992) | Guztizko gastua pertsonako (1996) | Guztizko gastua pertsonako (2001) | Guztizko gastua pertsonako (96/92) | Guztizko gastua pertsonako (01/96) | Guztizko gastua pertsonako (01/92) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Araba | 500dik behera | 0,1070 | 0,1200 | 0,1860 | 1,12 | 1,55 | 1,74 |
| | 501-1.000 | 0,1274 | 0,1325 | 0,2167 | 1,04 | 1,64 | 1,70 |
| | 1.001-2.000 | 0,1802 | 0,2148 | 0,2556 | 1,19 | 1,19 | 1,42 |
| | 2.001-5.000 | 0,1448 | 0,1216 | 0,2384 | 0,84 | 1,96 | 1,65 |
| | 5.001-10.000 | 0,1137 | 0,1663 | 0,2255 | 1,46 | 1,36 | 1,98 |
| | 10.001-20.000 | 0,2309 | 0,1891 | 0,1929 | 0,82 | 1,02 | 0,84 |
| | 50.001 edo geh. | 0,1351 | 0,1240 | 0,1581 | 0,92 | 1,28 | 1,17 |
| **Araban guztira** | | **0,1420** | **0,1356** | **0,1753** | **0,96** | **1,29** | **1,23** |
| Bizkaia | 500dik behera | 0,0559 | 0,0541 | 0,0764 | 0,97 | 1,41 | 1,37 |
| | 501-1.000 | 0,0648 | 0,0502 | 0,0859 | 0,77 | 1,71 | 1,32 |
| | 1.001-2.000 | 0,0451 | 0,0452 | 0,0752 | 1,00 | 1,66 | 1,67 |
| | 2.001-5.000 | 0,0562 | 0,0489 | 0,0589 | 0,87 | 1,21 | 1,05 |
| | 5.001-10.000 | 0,0731 | 0,0628 | 0,0813 | 0,86 | 1,29 | 1,11 |
| | 10.001-20.000 | 0,0625 | 0,0831 | 0,0701 | 1,33 | 0,84 | 1,12 |
| | 20.001-50.000 | 0,0773 | 0,0728 | 0,0798 | 0,94 | 1,10 | 1,03 |
| | 50.001 edo geh. | 0,0711 | 0,0672 | 0,0907 | 0,95 | 1,35 | 1,28 |
| **Bizkaian guztira** | | **0,0697** | **0,0671** | **0,0838** | **0,96** | **1,25** | **1,20** |
| Gipuzkoa | 500dik behera | 0,1463 | 0,1324 | 0,1842 | 0,91 | 1,39 | 1,26 |
| | 501-1.000 | 0,0837 | 0,0736 | 0,0938 | 0,88 | 1,28 | 1,12 |
| | 1.001-2.000 | 0,0687 | 0,0670 | 0,1187 | 0,98 | 1,77 | 1,73 |
| | 2.001-5.000 | 0,0730 | 0,0762 | 0,0924 | 1,04 | 1,21 | 1,27 |
| | 5.001-10.000 | 0,1000 | 0,0864 | 0,1070 | 0,86 | 1,24 | 1,07 |
| | 10.001-20.000 | 0,0821 | 0,0737 | 0,0879 | 0,90 | 1,19 | 1,07 |
| | 20.001-50.000 | 0,0478 | 0,0680 | 0,0816 | 1,42 | 1,20 | 1,71 |
| | 50.001 edo geh. | 0,0698 | 0,0763 | 0,0992 | 1,09 | 1,30 | 1,42 |
| **Gipuzkoan guztira** | | **0,0719** | **0,0755** | **0,0950** | **1,05** | **1,26** | **1,32** |
| EAE | 5500dik behera | 0,0967 | 0,0963 | 0,1408 | 1,00 | 1,46 | 1,46 |
| | 501-1.000 | 0,0884 | 0,0817 | 0,1298 | 0,92 | 1,59 | 1,47 |
| | 1.001-2.000 | 0,0876 | 0,0953 | 0,1343 | 1,09 | 1,41 | 1,53 |
| | 2.001-5.000 | 0,0683 | 0,0631 | 0,0828 | 0,92 | 1,31 | 1,21 |
| | 5.001-10.000 | 0,0858 | 0,0777 | 0,0995 | 0,91 | 1,28 | 1,16 |
| | 10.001-20.000 | 0,0828 | 0,0829 | 0,0878 | 1,00 | 1,06 | 1,06 |
| | 20.001-50.000 | 0,0643 | 0,0711 | 0,0804 | 1,11 | 1,13 | 1,25 |
| | 50.001 edo geh. | 0,0810 | 0,0788 | 0,1043 | 0,97 | 1,32 | 1,29 |
| **EAEN GUZTIRA** | | **0,0788** | **0,0780** | **0,0986** | **0,99** | **1,26** | **1,25** |

# ARAUDIEN AIPAMENA

**Estatu mailako arauak**

- Konstituzioa. *1978ko abenduaren 28ko EAO.*

**Araudi autonomikoa**

- Autonomia Estatutua. *1979ko urtarrilaren 15eko Euskal Autonomia Erkidegoko Batzorde Nagusiaren Aldizkari Ofiziala.*
- Komunitate Autonomoaren Erakunde Komunen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanen gaineko azaroaren 25eko 27/1983 Legea. *1983ko abenduaren 10eko EHAA.*
- Adinekoentzako egoitza gizarte zerbitzuei buruzko uztailaren 30eko 218/1990 Dekretua. *1990eko abuztuaren 31ko EHAA.*
- Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legea. *1996ko azaroaren 12ko EHAA.*
- Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzen dituen martxoaren 10eko 40/1998 Dekretua. 1998ko apirilaren 2ko *EHAA*.
- Adinekoentzako gizarte egoitza zerbitzuak arautzen dituen martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua. *1998ko apirilaren 7ko EHAA.*
- Mendekotasuna duten pertsona nagusientzako eguneko zentroen gaineko urriaren 17ko 202/2000 Dekretua. *2000. urteko azaroaren 9ko EHAA.*
- Gizarte zerbitzuen arloko funtzioak zehazten dituen uztailaren 30eko 155/2001 Dekretua. *2001. Urteko abuztuaren 27ko EHAA.*
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organiko eta funtzionala egituratzen duen otsailaren 12ko 40/2002 Dekretua. *2002ko otsailaren 20ko EHAA.*
- Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuetako Erabiltzaileen eta Profesionalen Eskubide eta Betebeharren Gutuna eta iradokizunen eta kexen erregimena onartu zituen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretua. *2004ko apirilaren 23ko EHAA.*

**Foru araudia**

***Araba***

- Etxerako Laguntza Zerbitzuak erregulatzen dituen 1998ko urriaren 13ko araudia. *1998ko azaroaren 20ko ALHAO.*

- Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa sortu zuen otsailaren 23ko Diputatuen Kontseiluaren 25/1999 Foru Dekretua. Dekretu horrek Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendu arauak ezarri zituen. *1999ko martxoaren 24ko ALHAO.*
- Gizarte zerbitzuetako zentroen foru sarearen erabiltzaileen sarbide eta lekualdaketa erregimenaren erregelamendua onartu zuen otsailaren 25eko Diputatuen Kontseiluko 18/2003 Foru Dekretua. *2003ko martxoaren 10eko ALHAO.*
- Adineko pertsonak sare publikotik kanpo dauden egoitzetan sartzeko diru-laguntzak emateko sistemaren araudi erregulatzailea onartu zuen uztailaren 1eko Diputatuen Kontseiluko 46/2003 Foru Dekretua. *2003ko uztailaren 11ko ALHAO.*
- 2004ko ekitaldirako Gizarte Ongizatearen Foru Institutuaren prezio publikoaren araudi erregulatzailea onartu zuen abenduaren 30eko 68/2003 Foru Dekretua. *2004ko urtarrilaren 23ko ALHAO.*
- Gizarte Gaietako sailaren egitura organiko eta funtzionala onartu zuen urtarrilaren 13ko Diputatuen Kontseiluko 1/2004 Foru Dekretua. *2004ko otsailaren 2ko ALHAO.*

***Bizkaia***

- Bizkaiko Tutoretzako Institutua sortzeko urriaren 31ko 9/2000 Foru Araua. *2000. urteko azaroaren 21eko BAO.*
- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Sailaren Erregelamendu Organikoa onartu zuen otsailaren 6ko 17/2001 Foru Dekretua. *2001eko otsailaren 20ko BAO.*
- Egoitza publikoetarako edo itundutako egoitzetarako sarbide sistema eta adineko pertsonak kanpoko gizarte egoitza zerbitzuetan sartzeko diru-laguntzak ematea arautu zituen apirilaren 3ko 63/2001 Foru Dekretua.*2001eko maiatzaren 18ko BAO.*
- Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasunaren pean dauden mendekotasuna duten adineko pertsonentzako eguneko zentroetarako eta mendekotasuna duten adineko pertsonentzako eguneko zentroetako plaza adostu edo itunduetarako sarbide sistema, eta mendekotasuna duten adineko pertsonentzako eguneko zentroetan adostu edo itundu gabeko plazatan sartzeko banako diru-laguntzak arautu zituen abuztuaren 22ko 145/2001 Foru Dekretua. *2001eko urriaren 11ko BAO.*
- Azaroaren 13ko 167/2001 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasunaren pean dauden mendekotasuna duten adineko pertsonentzako eguneko zentroetarako sarbidea eta mendekotasuna duten adineko pertsonentzako eguneko zentroetako plaza adostu edo itunduetarako sarbide sistema, eta mendekotasuna duten adineko pertsonentzako eguneko zentroetan adostu edo itundu gabeko plazatan sartzeko banako diru-laguntzak arautu zituen abuztuaren 22ko 145/2000 Foru Dekretua aldatu zuena. *2001eko abenduaren 4ko BAO.*
- Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasunaren pean dauden mendekotasuna duten adineko pertsonentzako eguneko zentroetarako eta mendekotasuna duten adineko pertsonentzako eguneko zentroetako plaza adostu edo itunduetarako sarbide sistema eta mendekotasuna duten adineko pertsonentzako eguneko zentroetan adostu edo itundu gabeko plazatan sartzeko banako diru-laguntzak arautu zituen abuztuaren 22ko 145/2001 Foru Dekretuak 2002. urterako zehaztu zuen kredituaren muga aldatu zuen otsailaren 12ko 12/2002 Foru Dekretua. Aipatu 145/2001 Foru

Dekretuaren 12. Artikuluan aurreikusitako gehieneko kostu teorikoari dagokionez, dementzia duten pertsonen arretarako eta ezintasun fisikoren bat duten pertsonen arretarako plazei dagozkien zenbatekoak aldatu otsailaren 12ko 12/2002 Foru Dekretuak. *2002ko otsailaren 19ko BAO.*

- Bizkaiko Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa sortu zuen eta bere antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren 62/2002 Foru Dekretua. *2002ko apirilaren 26ko BAO.*
- Bizkaiko Foru Aldundiak adineko pertsonen arloan 2003. urterako eginiko deialdi publikoa onartu zuen abenduaren 3ko 185/2002 Foru Dekretua. *2003ko urtarrilaren 17ko BAO.*
- Apirilaren 3ko 63/2001 Foru Dekretuak xedatutakoari jarraiki egoitza plazen itxaron-zerrendetan dauden mendekotasuna duten adineko pertsonen etxeko laguntza ordaintzera bideratutako 2004. urterako Tokian Tokiko Erakundeetarako eta Udalerrien Kontsortzioetarako diru-laguntzen deialdi publikoa arautu zuen abenduaren 9ko 243/2003 Foru Dekretua. *2003ko abenduaren 22ko BAO.*
- Foru egoitza publikoetarako edo itundutako egoitzetarako sarbide sistema eta adineko pertsonak kanpoko gizarte egoitza zerbitzuetan sartzeko diru-laguntzak, lagundutako plazei eta gai direnen plazei ezarritako zenbatekoari dagokionez, ematea arautu zituen otsailaren 3ko 1/2004 Foru Dekretua *2004ko otsailaren 19ko BAO.*

***Gipuzkoa***

- Adineko pertsonentzako Egoitza Zerbitzuen Erregistroa sortu zuen urtarrilaren 16ko 2/1996 Foru Dekretua. *1996ko urtarrilaren 29ko GAO.*
- Adineko pertsonen mendekotasuna baloratzeko Sakontzen eskala onartu zuen 1997ko abenduaren 15eko Foru Agindua. *1998ko urtarrilaren 1eko GAO.*
- Egoitza-zentroetako pertsona autonomoen desinstituzinalizazio prozesu esperimentalerako sustatzeko babes neurriak ezarri zituen uztailaren 4ko 66/2000 Foru Dekretua. *2000ko uztailaren 13ko GAO.*
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko gizarte zerbitzuak antolatu zituen urtarrilaren 30eko 4/2001 Foru Dekretua. *2001eko otsailaren 13ko GAO.*
- Gizartekintza-Gizarte Zerbitzuen Sailari atxikitako adineko pertsonen arretarako zentroen prezio publikoak onartu zituen ekainaren 15eko 4/2002 Foru Dekretua aldatu zuen otsailaren 5eko 4/2002 Foru Dekretua. *2002ko otsailaren 14ko GAO.*
- Gipuzkoan mendekotasuna duten adineko pertsonentzako plazetarako sarbidea izateko eta plaza horiek banatzeko erregimenak arautu zituen apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretua. *2002ko maiatzaren 8ko GAO.*
- Adin nagusiko pertsona ezinduentzako Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileak egin behar duen ekarpena arautu zuen abenduaren 27ko 72/2002 Foru Dekretua. *2003ko urtarrilaren 16ko GAO.*
- Apirilaren 30eko 20/2002 Foru dekretua garatu zuten prozedurak eta irizpideak onartu zituen abenduaren 30eko 801/2002 Foru Araua. *2003ko urtarrilaren 24ko GAO.*
- Egoitza unitate soziosanitarioetako erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa arautu zuen maiatzaren 20ko 24/2003 Foru Dekretua. *2004ko ekainaren 2ko GAO.*
- Gizarte Politikarako Sailak Gizarte Zerbitzuen arloan inbertitzeko laguntzen deialdia onartu zuen otsailaren 13ko 6/2004 Foru Dekretua. *2004ko otsailaren 19ko GAO.*

- Gipuzkoako Lurralde Historikoko egoitza-zentroetan eta eguneko zentroetan kalitate planak ezartzeko diru-laguntzen gaineko martxoaren 2ko 13/2004 Foru Dekretua. *2004ko martxoaren 11ko GAO.*
- Gizarte Politikarako Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko apirilaren 6ko 32/2004 Foru dekretua. *2004ko apirilaren 20ko GAO.*

**Ekintza planak**

- Arabako Gerontologia Plana. Arabako Foru Aldundia. (onartzeko bidean).
- Adineko pertsonentzako Ekintza Plana 2003-2004. Bizkaiko Foru Aldundia, 1999.
- Gipuzkoako Gerontologia Plana. Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Plan soziosanitarioa. Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila, 2001.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailaren 2004ko Ekintza Plana.

**Lankidetza hitzarmenak**

- Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak Arabako Lurralde Historikoan arreta psikogeriatrikoaren estaldura hobetzeko eta arrazionalizatzeko sinatutako lankidetza hitzarmena. *1994ko urtarrilaren 12ko ALHAO.*
- Osakidetzaren eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Foru Institutuaren artean zerbitzu soziosanitario orekatuak emateko sinatutako lankidetza hitzarmenak. *1995eko urriaren 6ko ALHAO.*
- Eusko Jaurlaritza, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Foru Aldundien eta Eudel Euskal Udalen Elkartearen artean sinatutako hitzarmena Euskal Autonomia Erkidegoan Arreta Soziosanitarioa garatzeko. 2003ko urtarrilaren 30a.

**Hitzarmen kolektiboak**

- Bizkaiko Etxeko Laguntza Sektorerako Hitzarmen Kolektiboa.
- Gipuzkoako Etxeko Laguntza Sektorerako Hitzarmen Kolektiboa (egun, helegite judizial baten xedea da).
- Adineko pertsonentzako egoitza pribatuen eta etxeko laguntza zerbitzuaren gaineko III. Estatu mailako Hitzarmen Kolektiboa.
- Gipuzkoako ospitaleratze establezimenduetarako, klinika mediku-kirurgiakoetarako eta diagnosi kliniketarako hitzarmen kolektiboa.
- Bizkaiko egoitzetarako hitzarmen kolektiboa.

**Memoriak**

- Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizatearen Foru Institutuaren 2003ko Memoria.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailaren 2003ko Memoria.

# BIBLIOGRAFIA

**AGE CONCERN.** DAY CARE. RESSOURCE PACK 2. LONDRES, AGE CONCERN ENGLAND, 1999, 55 orrialde.

**AGED CARE STANDARDS AND ACCREDITATION AGENCY, THE.** ACCREDITATION GUIDE FOR RESIDENTIAL AGED CARE SERVICES. PARRAMATTA, AGED CARE STANDARDS AND ACCREDITATION AGENCY, THE, 2001, 74 orrialde.

**AGED CARE STANDARDS AND ACCREDITATION AGENCY, THE.** ACCREDITATION STANDARDS. PARRAMATTA, AGED CARE STANDARDS AND ACCREDITATION AGENCY, THE, S.A., 4 orrialde.

**AGEING AND AGED CARE DIVISION.** THE AGED CARE COMPLAINTS RESOLUTION SCHEME. CANBERRA, COMMONWEALTH DEPARTMENT OF HEALTH AND AGED CARE, 1999, 6 orrialde.

**ALZHEIMER´S SOCIETY.** FOOD FOR THOUGHT. PEOPLE WITH DEMENTIA CAN FORGET HOW TO SHOP, COOK AND EAT. WITH THE RIGHT HELP, FOOD CAN STILL BE A PLEASURE. LONDRES, ALZHEIMER´S SOCIETY, 2000, 24 orrialde.

**ANDERSSON, G.** DAGVERKSAMHETER: OM VIKTEN AV AKTIVITET OCH SOCIAL GEMENSKAP. Saila: RAPPORTER, 9. zk., STOCKHOLM, STOCKHOLM GERONTOLOGY RESEARCH CENTER, 2000, 20 orrialde.

**ARAGÓN, I.** TAILERRA: MANEJO DE TRASTORNOS DE LA CONDUCTA EN CENTROS DE DÍA PARA PERSONAS MAYORES. JORNADA SOBRE ATENCIÓN PSICOGERIÁTRICA A PERSONAS CON DEMENCIA EN CENTROS DE DÍA. SAN SEBASTIÁN, 15 DE ABRIL DE 1999. EGUNEKO ZENTROETAN DEMENTZIA DUTEN PERTSONEI ESKAINTZEN ZAIEN ARRETA PSIKOGERIATRIKOARI BURUZKO JARDUNALDIA. DONOSTIA, 1999KO APIRILAREN 15A. DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN, MATIA FUNDAZIOA, 1999, 192-215. orr.

**ARARTEKO.** EAEn ADINEKOEI EGOITZETATIK KANPO EMATEN ZAIEN LAGUNTZARI BURUZKO EZOHIZKO TXOSTENA. VITORIA-GASTEIZ, ARARTEKO, 1996, 265 orrialde.

**ARARTEKO.** LAS RESIDENCIAS DE TERCERA EDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA VASCA/ADINEKOEN EGOITZAK EUSKAL AUTONOMI ELKARTEAN. VITORIA-GASTEIZ, ARARTEKO, SIIS, 1994, 348 orrialde.

**ASSOCIATION SUISSE DES SERVICES D'AIDE ET DE SOINS À DOMICILE.** MANUEL SUR LA QUALITÉ DANS L'AIDE ET LES SOINS À DOMICILE. BERNA, ASSOCIATION SUISSE DES SERVICES D'AIDE ET DE SOINS À DOMICILE, 2000, 230 orrialde.

**BARTHOLOMEOU, J.** A VIEW OF THE FUTURE. THE EXPERIENCE OF LIVING IN EXTRACARE. STAINES (UK), HANOVER HOUSING GROUP, 1999, 64 orrialde.

**BEBBINGTON, A. eta BESTE BATZUK.** CARE HOMES FOR OLDER PEOPLE. 2. LIBURUKIA. ADMISSIONS, NEEDS AND OUTCOMES. KENT, PERSONAL SOCIAL SERVICES RESEARCH UNIT, 2001, 114 orrialde.

**BUNDESMINISTERIUM FUR GESUNDHEIT.** PFLEGEN ZU HAUSE. RATGEBER FUR DIE HAUSLICHE PFLEGE. BONN, BUNDESMINISTERIUM FUR GESUNDHEIT, 1999, 96 orrialde.

**CENTRE FOR ENVIRONMENTAL AND SOCIAL STUDIES IN AGEING.** INSIDE QUALITY ASSURANCE ACTION PACK. LONDRES, POLYTECHNIC OF NORTH LONDON,THE, 1992, 125 orrialde.

CENTROS DE DÍA PARA PERSONAS MAYORES CON DEPENDENCIAS. Saila: AGIRI TEKNIKOAK, 8. zk., OVIEDO, GIZARTE ARAZOETAKO KONTSEILARITZA, 2000, 166 orrialde.

**ADINEKO PERTSONENTZAKO EGUNEKO ZENTROAK**. *CONSUMER,* 2002, 6 orrialde.

**CHAPMAN, A. eta BESTE BATZUK.** DEMENTIA CARE. A PROFESSIONAL HANDBOOK, 2. edizioa. LONDRES, AGE CONCERN, 2001, 119 orrialde.

**COMMONWEALTH DEPARTMENT OF HEALTH AND AGED CARE.** AGED CARE HIGH QUALITY RESIDENTIAL CARE. COMMONWEALTH DEPARTMENT OF HEALTH AND AGED CARE, 1999, 8 orrialde.

**COMMONWEALTH DEPARTMENT OF HEALTH AND AGED CARE.** IMPROVING THE QUALITY OF RESIDENTIAL AGED CARE. CANBERRA, COMMONWEALTH DEPARTMENT OF HEALTH AND AGED CARE, 2001, 3 orrialde.

**GIZARTE ONGIZATEKO KONTSEILARITZA.** INDICADORES PARA LA MEJORA DE LA ATENCIÓN RESIDENCIAL. RESIDENCIAS DE PERSONAS MAYORES DE LA COMUNIDAD VALENCIANA. VALENTZIA, VALENTZIAKO GENERALITATEA, 2002, 113 orrialde.

**GIZARTE ONGIZATEKO EUSKAL KONTSEILUA.** EAEko GIZARTE ZERBITZUEN EGOERARI BURUZKO LAUGARREN TXOSTENA. 2001. URTEKO DATUAK. VITORIA-GASTEIZ, GIZARTE ONGIZATEKO EUSKAL KONTSEILUA, 2003, 214 orrialde.

**COOPER, J.** THE CARE HOMES LEGAL HANDBOOK. LONDRES, JESSICA KINGSLEY PUBLISHERS, 2002, 171 orrialde.

**CÓRDOBA, S.** UNA EXPERIENCIA DE EVALUACIÓN DE CENTROS RESIDENCIALES PARA PERSONAS MAYORES. LA CALIDAD EN LOS SERVICIOS SOCIALES: CONCEPTOS Y EXPERIENCIAS. Saila: GIZARTE ONGIZATEKO POLITIKAK, 14. zenbakia, VALENTZIA, TIRANT LO BLANCH, 2003, 325-344. orr.

**CORNWALL COUNTY COUNCIL.** HOME CARE. CORNWALL (UK), CORNWALL COUNTY COUNCIL, S/A, 41 orrialde.

**COUNSEL AND CARE.** MOVING TO QUALITY. GOOD PRACTICE FOR STAFF IN RESIDENTIAL CARE AND NURSING HOMES. LONDRES, COUNSEL AND CARE, 1999, 40 orrialde.

**DE JUAN, F. *eta* BESTE BATZUK.** CENTROS DE DÍA PARA ENFERMOS DE ALZHEIMER: PUESTA EN MARCHA Y GESTIÓN. IRUÑA, ALZHEIMERRA EDO BESTE DEMENTZIAREN BAT DUTEN GAIXOEN FAMILIARTEKOEN ESPAINIAKO KONFEDERAZIOA, 2002, 35 orrialde.

**DE LA CÁMARA, J.J.** DERECHOS DE LOS USUARIOS DE CENTROS RESIDENCIALES PARA MAYORES. MADRIL, AENOR-NORMALIZAZIORAKO ETA ZERTIFIKAZIORAKO ESPAINIAKO ELKARTEA, 2003, 20 orrialde.

**DEPARTAMENT DE BENESTAR SOCIAL.** AVALUACIÓ EXTERNA DE QUALITAT DELS CENTRES DE L'ICASS. AREA DE SERVEIS: RESIDENCIES ASSISTIDES DE GENT GRAN. INDICADORS D'AVALUACIÓ DE QUALITAT. BARTZELONA, KATALUNIAKO GENERALITATEA, 1999, 48 orrialde.

**DEPARTAMENT DE BENESTAR SOCIAL.** AVALUACIÓ EXTERNA DE QUALITAT DELS CENTRES DE L'ICASS. AREA DE SERVEIS: CENTRES DE DIA DE GENT GRAN. INDICADORS D'AVALUACIÓ DE QUALITAT. BARTZELONA, KATALUNIAKO GENERALITATEA, 1999, 43 orrialde.

**DEPARTAMENT DE BENESTAR SOCIAL.** CONSIDERACIONS ENVERS LA DEFINICIÓ D'UN MODEL ESTRUCTURAL DE QUALITAT DE RESIDENCIA ASSISTIDA. Serie: DOCUMENTS DE SUPORT. SERVEIS, 3. zenbakia, BARTZELONA, KATALUNIAKO GENERALITATEA, 2002, 74 orrialde.

**DEPARTMENT OF HEALTH.** CARE HOMES FOR OLDER PEOPLE. NATIONAL MINIMUM STANDARDS FOR CARE HOMES FOR OLDER PEOPLE. LONDRES, STATIONERY OFFICE, 2001, 68 orrialde.

**DEPARTMENT OF HEALTH.** CARE HOMES FOR OLDER PEOPLE. NATIONAL MINIMUM STANDARDS FOR CARE HOMES FOR OLDER PEOPLE. LONDRES, STATIONERY OFFICE, 2003, 63 orrialde.

**DEPARTMENT OF HEALTH.** CONTRACT GUIDE: DOMICILIARY INTERMEDIATE CARE. LONDRES, DEPARTMENT OF HEALTH, 2001, 29 orrialde.

**DEPARTMENT OF HEALTH.** FIT FOR THE FUTURE? NATIONAL REQUIREMENTS STANDARDS FOR RESIDENTIAL AND NURSING HOMES FOR OLDER PEOPLE. CONSULTATION DOCUMENT. LONDRES, DEPARTMENT OF HEALTH, 1999, 12 orrialde.

**DIRECTION GÉNÉRALE DE L'ACTION SOCIALE.** OTE D'INFORMATION DGAS/5B N1 2004/96 DU 03/03/04 RÉLATIVE AUX ACTIONS FAVORISANT L'ÉVALUATION DE L'AMÉLIORATION CONTINUE DE LA QUALITÉ DANS LES ÉTABLISSEMENTS SOCIAUX ET MÉDICO-SOCIAUX. PARIS, MINISTÈRE DES AFFAIRES SOCIALES, DU TRAVAIL ET DE LA SOLIDARITÉ, 2004, 30 orrialde.

**DIVISION ON AGING AND SENIORS.** SOINS DE LONGUE DURÉE À L'INTENTION DES AÎNÉS: DES MODÈLES INNOVATEURS DES MEILLEURES PRATIQUES. RAPPORT PREPARÉ À LA DEMANDE DU COMITÉ FÉDÉRAL-PROVINCIAL-TERRITORIAL DES HAUTS FONCTIONNAIRES (AÎNÉS) POUR LES MINISTRES RESPONSABLES DES AÎNÉS. OTTAWA, HEALTH CANADA-SANTÉ CANADA, 1999.

**DUCALET, P. *eta* LAFORCADE, M.** PENSER LA QUALITÉ DANS LES INSTITUTIONS SANITAIRES ET SOCIALES. SENS, ENJEUX ET MÉTHODES. Saila: PENSER L'ACTION SANITAIRE ET SOCIALE, PARIS, SELI ARSLAN, 2000, 272. orrialde.

**FONTANALS, M.D. *eta* BESTE BATZUK.** MANUAL Y PROTOCOLOS ASISTENCIALES EN RESIDENCIAS PARA PERSONAS MAYORES. Saila: ALBOR. GIZARTE GERONTOLOGIAKO MASTERRA, BARTZELONA, HERDER, 2000, 466 orrialde.

**FRAZER, R. *eta* GLICK, G.** OUT OF SERVICES. A SURVEY OF SOCIAL SERVICE PROVISION FOR ELDERLY AND DISABLED PEOPLE IN ENGLAND. LONDRES, NEEDS MUST, 2000, 32 orrialde.

**GRANDE, I.** ANÁLISIS DE LA CALIDAD Y SATISFACCIÓN DE USUARIOS DE RESIDENCIAS DE MAYORES. MARKETING DE LOS SERVICIOS SOCIALES. MADRIL, SÍNTESIS, 2002, 184-205. orr.

HANDLING HOME CARE: ACHIEVING SAFE, EFFICIENT AND POSITIVE OUTCOMES FOR CARE WORKERS AND CLIENTS. LONDRES, STATIONERY OFFICE, 2001, 80 orrialde.

**HEALTH CARE FINANCING ADMINISTRATION.** APPROPRIATENESS OF MINIMUM NURSE STAFFING RATIOS IN NURSING HOMES. REPORT TO CONGRESS. HEALTH CARE FINANCING ADMINISTRATION, 1999, 572 orrialde.

**IMSERSO.** LAS PERSONAS MAYORES Y LAS RESIDENCIAS: UN MODELO PROSPECTIVO PARA EVALUAR LAS RESIDENCIAS. 1. *eta* 2. LIBURUKIAK. MADRIL, LAN ETA GIZARTE GAIETARAKO MINISTERIOA, 2000, 488€242 orrialde.

**GIZARTE ONGIZATEKO FORU ERAKUNDEA.** ESTATUTO BÁSICO DE CENTROS DE PERSONAS MAYORES DEPENDIENTES DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA/OINARRIZKO ESTATUTUA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN MENPE DAUDEN ZAHARRENTZAKO ZENTROAK. VITORIA-GASTEIZ, ARABAKO FORU ALDUNDIA, 2001, 32 orrialde.

**OSASUNEKO INSTITUTU NAZIONALA.** PROGRAMA DE ATENCIÓN DOMICILIARIA CON EQUIPO DE SOPORTE (ESAD). MADRIL, OSASUNEKO INSTITUTU NAZIONALA, 1999, 60 orrialde.

**JOHNSON, M.L. *eta* BESTE BATZUK.** MANAGERS IN LONG-TERM CARE. THEIR QUALITY AND QUALITIES. BRISTOL, POLICY PRESS, 1999, 87 orrialde.

**LANE, D.** STAFFING RATIOS IN RESIDENTIAL ESTABLISHMENTS. PROFESSIONAL PRACTICE PAPER. SURBITON (UK), SOCIAL CARE ASSOCIATION, S/A, 34 orrialde.

**LETURIA, F.J. *eta* BESTE BATZUK / (ZUZ.)** EGUNEKO ZENTROAK. MENDEKOTASUNA ETA NARRIADURA KOGNITIBOA DUTEN ADINEKOENTZAKO ARRETA ETA ESKU-HARTZE OROKORRA. DONOSTIA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA, GIZARTEKINTZA, 2003, 334 orrialde.

**MARTÍNEZ, J.M. *eta* BESTE BATZUK / (KOORD.)** GESTIÓN ASISTENCIAL DE RESIDENCIAS PARA MAYORES: MANUAL PRÁCTICO. BARTZELONA, EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS, ARS MEDICA, 2002, 23 orrialde.

**MCCREADIE, C.** MAKING CONNECTIONS: GOOD PRACTICE IN THE PREVENTION AND MANAGEMENT OF ELDER ABUSE. LEARNING FROM SSI INSPECTION REPORTS IN COMMUNITY AND RESIDENTIAL CARE SETTINGS. LONDRES, DEPARTMENT OF HEALTH, 2001, 5 orrialde.

**MEDINA, M.E.** EVALUACIÓN DE LA CALIDAD ASISTENCIAL DEL SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO EN EL AYUNTAMIENTO DE MURCIA. MURTZIA, MURTZIAKO UNIBERTSITATEA, 2000, 404 orrialde.

**MONTSERRAT, J. *eta* VALLS, M.** INDICADORS DE QUALITAT EN EL FUNCIONAMENT I EN LA GESTIÓ DE LES RESIDENCIES PER A PERSONES GRANS. BARTZELONA, FUNDACIÓ AGRUPACIÓ MUTUA, 1999, 196 orrialde.

**MOOS, R.H. *eta* LEMKE, S.** MULTIPHASIC ENVIRONMENTAL ASSESSMENT PROCEDURE (MEAP). PALO ALTO, CA, SOCIAL ECOLOGY LABORATORY, 1988, 450 orrialde.

**OLAECHEA, J.I.** PLAN DE CALIDAD EN CENTROS RESIDENCIALES. LA CALIDAD EN LOS SERVICIOS SOCIALES: CONCEPTOS Y EXPERIENCIAS. Saila: GIZARTE ONGIZATEKO POLITIKAK, 14. zenbakia, VALENTZIA, TIRANT LO BLANCH, 2003, 345-351. orr.

**OLDMAN, C. *eta* BESTE BATZUK.** LIVING IN A HOME. THE EXPERIENCE OF LIVING AND WORKING IN RESIDENTIAL CARE IN THE 1990s. LONDRES, ANCHOR HOUSING TRUST, 1999, 68 orrialde.

PLAN DE INTERVENCIÓN EN RESIDENCIAS. OVIEDO, ASTURIETAKO PRINTZERRIKO GOBERNUA, GIZARTE GAIETARAKO KONTSEILARITZA, 2002, 169 orrialde.

**QUADAGNO, J. *eta* BESTE BATZUK.** CHALLENGES IN NURSING HOME CARE. *GERONTOLOGIST, THE,* 43. liburukia, SPECIAL ISSUE II zenbakia, 2003, 131 orrialde.

**RAYNES, N. eta BESTE BATZUK.** QUALITY AT HOME FOR OLDER PEOPLE: INVOLVING SERVICE USERS IN DEFINING HOME CARE SPECIFICATIONS. Saila: COMMUNITY CARE INTO PRACTICE SERIES, BRISTOL, POLICY PRESS, 2001, 79 orrialde.

**ROYAL COLLEGE OF NURSING / ALZHEIMER'S SOCIETY.** QUALITY DEMENTIA CARE IN CARE HOMES. PERSON-CENTRED STANDARDS. LONDRES, ALZHEIMER'S SOCIETY, 1999, 140 orrialde.

**RYAN, T. eta GIBSON, D.** A NATIONAL MINIMUM DATA SET FOR HOME AND COMMUNITY CARE. Saila: AGED CARE SERIES, CANBERRA, AUSTRALIAN INSTITUTE OF HEALTH AND WELFARE, 1999, 146 orrialde.

**SAMPONG, L.** REVIEW OF DAY SERVICES FOR OLDER PEOPLE. EXECUTIVE SUMMARY. CAMDEN, CAMDEN SOCIAL SERVICES, 1999, 36 orrialde.

**SANTIAGO, J.A. DE eta ZURRO, J.** GUÍA DE CRITERIOS DE CALIDAD DE CENTROS SOCIALES Y SOCIOSANITARIOS EN RÉGIMEN RESIDENCIAL PARA PERSONAS MAYORES. MANUAL DE ACREDITACIÓN. MADRIL, SANED TALDEA, 2002, 159 orrialde.

**SANTIAGO-JUÁREZ, J.A. eta ZURRO, J.** GUÍA DE CRITERIOS DE CALIDAD DE CENTROS SOCIALES Y SOCIOSANITARIOS EN RÉGIMEN RESIDENCIAL PARA PERSONAS MAYORES: MANUAL DE ACREDITACIÓN. MADRIL, SANED, SANITAS FUNDAZIOA, 2002, 159 orrialde.

**SCOTTISH AUDIT.** HOMING IN ON CARE: A REVIEW OF HOME CARE SERVICES FOR OLDER PEOPLE. EDINBURGH, SCOTTISH AUDIT, 2001, 68 orrialde.

**SCOTTISH EXECUTIVE.** NATIONAL CARE STANDARDS: CARE HOMES FOR OLDER PEOPLE. EDINBURGH, SCOTTISH EXECUTIVE, 2001, 65 orrialde.

**SHERBROOKE GERIATRIC UNIVERSITY INSTITUTE.** CODE OF ETHICS: A GUIDE FOR RESIDENT-STAFF RELATIONS. SHERBROOKE, SHERBROOKE GERIATRIC UNIVERSITY INSTITUTE, 2001, 18 orrialde.

**SIIS-CENTRO DE DOCUMENTACIÓN Y ESTUDIOS.** EVALUACIÓN DE LOS CENTROS DE DÍA DEL INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL. DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN, SIIS-CENTRO DE DOCUMENTACIÓN Y ESTUDIOS, 1999, 119 orrialde.

**SÍNDIC DE GREUGES.** LA ATENCIÓN A LAS PERSONAS MAYORES DEPENDIENTES EN CATALUNYA. SÍNDIC DE GREUGES ELKARTEAREN EZOHIZKO TXOSTENA. BARTZELONA, SÍNDIC DE GREUGES, 2004, 188 orrialde.

**SOCIAL SERVICES INSPECTORATE.** HOMES ARE FOR LIVING IN. LONDRES, HMSO, 1990, 126 orrialde.

**SOCIEDAD ESPAÑOLA DE GERIATRÍA Y GERONTOLOGÍA.** RESIDENCIAS PARA PERSONAS MAYORES. MANUAL DE ORIENTACIÓN. 2. argitalpena. Saila: GIZARTE GERONTOLOGIA, BARTZELONA, SG EDITORES, INSERSO, 1999, 456 orrialde.

**THORNTON, P.** CREATING A BREAK. A HOME CARE RELIEF SCHEME FOR ELDERLY PEOPLE AND THEIR SUPPORTERS. SURREY (UK), AGE CONCERN ENGLAND, S/A, 204 orrialde.

**TUNE,P. eta BOWIE, P.** THE QUALITY OF RESIDENTIAL AND NURSING-HOME CARE FOR PEOPLE WITH DEMENTIA. *AGE AND AGEING,* 29. liburukia, 4. zenbakia, 2000, 325-328. orr.

**ZENBAIT AUTORE.** I. JORNADAS MEJORA CONTINUA EN LOS CENTROS SOCIALES PARA PERSONAS MAYORES. PONENCIAS Y RESUMEN PONENCIAS. DOCUMENTACIÓN Y BIBLIOGRAFÍA SOBRE LA CALIDAD Y LOS SERVICIOS SOCIALES. DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN, 2000-IX-29./ I JARDUNALDIAK ADINEKOEN EGOITZETAKO ETENGABEKO HOBEKUNTZA. TXOSTENAK ETA TXOSTENEN LABURPENAK. GIZARTE ZERBITZUAK ETA KALITATEARI BURUZKO DOKUMENTAZIO ETA BIBLIOGRAFIA. DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN, 2000-IX-29. DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN, GIZARTEKINTZA-DEPARTAMENTO DE SERVICIOS SOCIALES, 2000.

**ZENBAIT AUTORE.** JORNADA SOBRE ATENCIÓN PSICOGERIÁTRICA A PERSONAS CON DEMENCIA EN CENTROS DE DÍA. SAN SEBASTIÁN, 15 DE ABRIL DE 1999. EGUNEKO ZENTROETAN DEMENTZIA DUTEN PERTSONEI ESKAINTZEN ZAIEN ARRETA PSIKOGERIATRIKOARI BURUZKO JARDUNALDIA. DONOSTIA, 1999KO APIRILAREN 15A. DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN, MATIA FUNDAZIOA, 1999, 233 orrialde.

**ZENBAIT AUTORE.** EGUNEKO ZENTROEI BURUZKO JARDUNALDIA. BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. GIZARTEKINTZA SAILA. EUSKALDUNA JAUREGIA (BILBO), 2001eko AZAROAREN 19a. BILBO, BIZKAIKO FORU ALDUNDIA, 2001, 9, 19, 23 orrialde.

**ZENBAIT AUTORE.** QUALITAT IN DER STATIONAREN VERSORGUNG DEMEZERKRANKTE. BERLIN, BUNDESMINISTERIUM FUR FAMILIE, SENIOREN, FRAUEN UND JUGEND, 2001, 12 orrialde.

**VERCAUTEREN, R eta BESTE BATZUK.** FAIRE VIVRE LE PROJET DES ÉTABLISSEMENTS POUR PERSONNES ÂGÉES. MANUEL DES PRATIQUES DU PROJET DE VIE. Saila: PRATIQUES DU CHAMP SOCIAL, PARIS, ÉRÈS, 1999, 271 orrialde.

**VERCAUTEREN, R. eta BESTE BATZUK.** POUR UNE IDENTITÉ DE LA PERSONNE ÂGÉE EN ÉTABLISSEMENT: LE PROJET DE VIE. Saila: PRATIQUES GÉRONTOLOGIQUES, RAMONVILLE SAINT-AGNE, ÉRÈS, 2001, 198 orrialde.

**WAGNER, G.** RESIDENTIAL CARE: A POSITIVE CHOICE. LONDRES, NATIONAL INSTITUTE FOR SOCIAL WORK, 1988, 227 orrialde.

**WAGNER DEVELOPMENT GROUP.** STAFFING IN RESIDENTIAL CARE HOMES. LONDRES, NATIONAL INSTITUTE FOR SOCIAL WORK, 1990, 54 orrialde.